

Colección
MENDAUR
bilduma



Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia
Pello Salaburu
Maite Lakar (lag.)



ISBN 84-95438-25-9



9 788495 143825 6

Colección MENDAUR bilduma



Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia

Pello Salaburu
Maite Lakar (lag.)



Colección **MENDAUR** bilduma

II

Baztango Mintzoa:
gramatika eta hiztegia

Pello Salaburu
Maite Lakar (lag.)



Liburuaren izenburua: Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia

Liburuaren egilea: Pello Salaburu Etxeberria

Laguntzailea: Maite Lakar Iraizoz

© **Nafarroako Gobernua**. Hezkuntza Departamentua

© Euskaltzaindia / R.A.L.V.

Taiuketa eta moldaketa: Euskaltzaindia / R.A.L.V.
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Diseño/Azala: Iñaki Cabodevilla / CAB

Preinpresioa: mccgraphics

Inprimategia: mccgraphics. Planta Elkar

ISBN: 84-95438-25-9

Legezko Gordailua: BI-2894-05

Nafarroako Gobernua.

Hezkuntza Departamentua

Sustatzaileak eta banatzaileak:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
(Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuaren bozeramailea)
Navas de Tolosa kalea, 21
31002 IRUÑA
Tf.: 848427121
Faxa: 848427123
fondo.publicaciones@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones

Euskaltzaindia / R.A.L.V.

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Tel.: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
info@euskaltzaindia.net
www.euskaltzaindia.net

*zikiro beltza ona duk baña
ohea buztan zuria
dantzan ikasi nai duen orrek
nere oñetara begira.
Zertan ari aiz bakar dantzatzen
agertuz gorputz erdia,
su ilun orrek argitzen badik
ageriko aiz guzia*

(Baztango dantza baten letra)

Baztango euskaldunei

euskaldun: 'euskaraz dakiena, euskaraz mintzo dena' (I. Sarasola: *Euskal hiztegia*)

Jesus Mari Makazaga, Lourdes Oñederra, Paskual Rekalde, Ibon Sarasola, Itziar Sarria
eta Josu Zabaleta: esker mila.

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA: HIZKUNTZAK, MINTZOAK ETA GRAMATIKAK . . .	1
1.1. Baztan	3
1.2. Hizkuntzen eta mintzoen gramatikak zer diren	6
1.3. Baztango mintzoa eta euskalkiak	21
2. KAPITULUA: FONETIKA ETA FONOLOGIA	27
2.1. Fonetika	29
2.1.1. Bokalen sistema	31
2.1.2. Kontsonanteen sistema	33
2.1.3. Nola egituratzen diren soinuak hitzak sortzeko orduan	38
2.1.3.1. Bokalak nonahi agertzen ahal dira	39
2.1.3.2. Kontsonanteen debeku batzuk	39
2.2. Fonologia	41
2.2.1. Sudurkarien eraketa	42
2.2.2. Igurzketa	42
2.2.3. Sei arau nagusi	44
2.2.4. Asimilazioa eta disimilazioa	45
2.2.5. Bustidura arauak	49
2.2.5.1. Bustidura automatikoa	50
2.2.5.2. Bustidura adierazkorra	55
2.3. Testu argigarri batzuk	57
3. KAPITULUA: MORFOLOGIA (DEKLINABIDEA)	61
3.0. Sarrera	63

3.1. Galdetzaileak	63
3.2. Pertsona izenak	64
3.3. Leku izenak	66
3.4. Izenordainak	67
3.5. Erakusleak	68
3.6. Izen arruntak	69
3.7. Bertze aldaera batzuk	72
3.8. Ohar batzuk deklinabideaz	76
3.8.1. Galdetzaileak	76
3.8.2. Bizidunak eta bizigabeak	77
3.8.3. Mugatua eta mugagabea	77
3.8.4. Izenordainak	82
3.8.5. ...buruz postposizioa	82
3.8.6. -ikan akabaila	82
3.8.7. Aditz izena eta osagarri zuzena genitiboan	82
4. KAPITULUA: MORFOLOGIA (ADITZA)	85
4.0. Sarrera	87
4.1. Eztabadako adizkien morfologia	91
4.1.1. NOR saileko adizkiak	91
4.1.2. NOR-NORI saileko adizkiak	96
4.1.3. NOR-NORK saileko adizkiak	99
4.1.4. NOR-NORI-NORK saileko adizkiak	107
4.2. Hiketako adizki alokutiboen morfologia	114
4.2.1. NOR saileko adizkiak	114
4.2.2. NOR-NORI saileko adizkiak	116
4.2.3. NOR-NORK saileko adizkiak	117
4.2.4. NOR-NORI-NORK saileko adizkiak	120
4.3. Adizki trinkoen morfologia	125
4.3.1. <i>Egon</i> aditza (eztabada)	125

4.3.2.	<i>Egon</i> aditza (alokutiboa)	126
4.3.3.	<i>Joan</i> aditza (eztabada)	126
4.3.4.	<i>Joan</i> aditza (alokutiboa)	127
4.3.5.	<i>Ibili</i> aditza (eztabada)	127
4.3.6.	<i>Ibili</i> aditza (alokutiboa)	128
4.3.7.	<i>Eman</i> (=eraman) aditza (eztabada)	128
4.3.8.	<i>Eman</i> (=eraman) aditza (alokutiboa)	129
4.3.9.	<i>Jakin</i> aditza (eztabada)	129
4.3.10.	<i>Jakin</i> aditza (alokutiboa)	130
4.3.11.	<i>Eduki</i> aditza (eztabada)	131
4.3.12.	<i>Eduki</i> aditza (alokutiboa)	131
4.3.13.	<i>Ibili</i> (=erabili) aditza (eztabada)	132
4.3.14.	<i>Ibili</i> (=erabili) aditza (alokutiboa)	132
4.4.	Bertze adizki batzuk	132
5.	KAPITULUA: SINTAXIA	133
5.1.	Perpaus bakunari buruzko ohar batzuk	136
5.1.1.	Galdegaiaren inguruan ohar bat	136
5.1.2.	<i>Izan</i> eta <i>behar izan</i> aditzen inguruan sortutako perifrasiak	139
5.1.3.	<i>Behar izan</i> -en aditz laguntzailea	140
5.1.4.	Maiztasuna adierazteko	141
5.1.5.	<i>Ahal</i> partikula	142
5.1.6.	<i>Jakinki</i> , <i>izaki</i> eta <i>holakoak</i>	143
5.1.7.	Bertze baliabide estilistiko bat: <i>hartuko dugu bai</i> , <i>hartuko dugunez</i>	145
5.1.8.	Egitura pasiboak	146
5.1.9.	Zehar objektua eta aditza	146
5.2.	Perpausak testuan: lokailuak	147
5.3.	Perpaus elkartu juntatuak: juntagailuak	151
5.4.	Mendeko perpaus elkartuak: menderagailuak	153
5.4.1.	Perpaus osagarriak	154
5.4.2.	Perpaus erlatiboak	164

5.4.3. Konparazio perpausak	169
5.4.4. Ondoriozko perpausak	172
5.4.5. Baldintza perpausak	173
5.4.6. Denborazko perpausak	178
5.4.7. Helburuzko perpausak	184
5.4.8. Kausazko perpausak	186
5.4.9. Kontzesio perpausak	193
5.4.10. Moduzko perpausak	195
6. KAPITULUA: TESTU BILDUMA (ESKRIBITUAK ETA AHOZKOAK) . .	199
6.0. Sarrera	201
6.1. Baztango mintzoan idatzitako testuak	203
Lehenbiziko testua	204
Bigarren testua	206
Hirugarren testua	208
Laugarren testua	208
Bosgarren testua	209
Seigarren testua	209
Zazpigarren testua	211
Zortzigarren testua	212
Bederatzigarren testua	214
Hamargarren testua	215
Hamaikagarren testua	217
Hamabigarren testua	219
Hamahirugarren testua	220
Hamalaugarren testua	222
Hamabosgarren testua	224
Hamaseigarren testua	225
Hamazazpigarren testua	227
Hemezortzigarren testua	230
Hemeritzagarren testua	233
Hogeigarren testua	235
Hogeita batgarren testua	239
Hogeita bigarren testua	244
Hogeita hirugarren testua	246
Hogeita laugarren testua	247

6.2. Baztango testu batzuk, bertze mintzo batean eskribituak	250
Lehenbiziko testua	250
Bigarren testua	251
Hirugarren testua	253
Laugarren testua	254
Bosgarren testua	255
Seigarren testua	255
6.3. Azken oharra	256
7. KAPITULUA: HIZTEGIA	257
BIBLIOGRAFIA	519

1. KAPITULUA

HIZKUNTZAK, MINTZOAK ETA GRAMATIKAK

1. KAPITULUA

HIZKUNTZAK, MINTZOAK ETA GRAMATIKAK

1.1 Baztan

Baztango Harana (bere erdal izen ofizialean “Noble Valle y Universidad del Baztan”) Nafarroako Ipar Mendebaleko udalerrri eta ibarra da, Nafarroako handiena. Udalerrri bakarra izanik ere, 15 herri bereizten ahal dira, lau kuarteletan bilduak eta, bat bertzearekin, 200/500 metro inguruko garaieran kokatuak dira. Iparraldean muga egiten du Zugarramurdi, Urdazubi (berez, bi herri hauek Baztango lurrek inguraturik dira), Sara, Senpere, Ainhoa, Ezpeleta eta Itsasoko herriekin. Ekialdean ditu Bidarra, Baigorri, Banka eta Aldude. Mendebalean Etxalar, Bertizarana eta Donamaria, eta Hegoaldean Ultzama, Lantz, Anue, Esteribar eta Erroibar. Denetara, 373 km kuadro, eta urteen joan-etorriarekin gero eta biztanle gutiago ditu: XVIII. mendean 7.500 inguru biztanle zituen. Geroztik, kopuru horrek goiti egin zuen pittaka-pittaka 1940. urtean erpina jo arte, urte horretan ailegatu baitzen 10.326 biztanle izatera. Eta berehala hasi zen gainbehera, 2003. urtean 7.746 biztanle baizik ez baitzuen, 40 urte lehenago baino %16,81 gutiago.

Hizkuntzari dagokionez, euskarak, batez ere herri ttipienetan, bizirik iraun du. Elizondon ere biztanle gehienak euskaldunak izan dira beti, nahiz karriketan gutiago aditzen zen hizkera hau. Jakina: azken berrogei urteetan gertatu den bizimoduaren aldaketak berarekin batera ekarri du, Euskal Herriko bertze aunitz tokitan bezala, erdara indartzea, alde batetik. Bertzetik, euskarak berak ere belaunaldi berrietan goiti egin badu, eta inoiz ere ibilia izan ez den tokietan aurpegia erakusteko gai izan bada (hezkuntzan, hedabideetan, administrazioan...), batasunera jo du, berdintze aldera, hola, bertze tokietan egiten den mintzoarekin.

Udalerrri bakarra da, erran bezala: Baztan. Baina 15 herri. Honek halako administrazio berezia erakusten du. Historian zehar, Baztanek herri-lurrak izan ditu (“komunalak” deituak), eta lur horien ardura Junta baten esku egon izan da. Junta hori herrietan aukeratutako alkateek eta kuarteletako ordezkariak osatzen zuten. Baziren, jakina, herri-lur horiekin batera, familiariek beretzat zituzten jabego pribatuko lurrak ere, baina, erran bezala, lur gehienak komunalak ziren, denenak, eta lurren ardura eta zaintza arau berezi batzuek, Juntak onartuak, arautzen zituzten. Gaur egun ere, lur gehienak (%60tik goiti) herri-lurrak dira.

Administrazio historiko honen gainean ezarri zen gaur ezagutzen dugun udaletako administrazioa, Frantziako iraultzaren eraginez. Eta horren ondorioa da eskualde administrazioaren egitura bitarikoa izatea: gainerako toki guztietan bezala, udal hauteskundeak deitzen direnean Balleko zinegotziak aukeratzen dira, 13 denetara, eta hauen artean hautatzen da Balleko alkatea, bertze tokietan bezala. Honek osatzen du udal administrazioa.

Baina bertzetik, historian zehar beti egin izan den gisan, herriek ere beren alkateak hautatzen dituzte, denetara 15 alkate: hala deitzen dira, “alkate”, baina ez dira lege orokorraren pareko alkateak, aski erantzukizun mugatua baitute. Haraneko herriak lau kuarteletan banatuak direnez gero, kuartel bakoitzeko herrietako alkateek kuartel horren ordezkaria hautatzen dute, denetara 4 ordezkari. Hautaketa hauek guztiak (alkateena eta kuarteletako ordezkariena) bi urtean behin egiten dira, Eguberrietan.

Bada, Balleko alkateak, zinegotziek, herrietako alkateek eta kuarteletako ordezkariak osatzen dute Balleko Junta: paperean, Junta honi dagokio erabakiak hartzea komunalei buruz, eta horretarako elkartzen da urtean bi aldiz gutienez, baina praktikan, bistan denez, eguneroko aginteak (hau da, Balleko alkateak eta zinegotziek) hartzen dituzte funtsezko erabaki guztiak. Baina egia da administrazioa bitarikoa dela, udal administrazioa (Udala) eta komunaletako administrazioa (Junta) nahasian ageri baitira.

Baztanek duen sarrera naturala Bidasoa errekaarena da, mendebaletik etorritik. Handik sartuz gero, Oronoztik, erreka erreka segitzen duzu goiti, eskuin aldean utziz goitiago dauden herriak (Aniz, Berroeta, Ziga, Almandoz), denak Belateko mendiaren maldetara beha, eta beheitikoko herriak (Arraioz, Irurita, Gartzain) gurutzatu ondoan, haran erdiraino ailegatzen zara: Lekaroz, Elizondo eta Elbete. Zati horretan, Oronoztik hasita, Baztan izena du Bidasoa ibaiak. Elbeten zabaltzen da harana eta zirku handi eta zabal batera ailegatzen zara: han daude Azpilkueta, Arizkun,

Amaiur eta Erratzu, hesi naturalez inguratutik: Otsondoko lepoa, Zugarramurdi eta Urdazubi alderat pasatzeko; Gorramendi (1.081 m), Izpegi, Auza (1.306 m) eta Berdaritz mendiek, bertzetik, Iparraldean dauden herrietara pasatzea tratatzen dutenak. Gibelean gelditzen da Saioa, inguru hartako mendirik garaiena (1.418 m).

Eta nola kuartelak aipatu ditugun, erran beharra da kuartel hauek ere zuzenean daudela geografiarekin lotuak (eta, ikusiko dugunez, mintzoen aldaerekin ere):

Erberea:

- Oronoz
- Arraioz
- Irurita
- Gartzain

Basaburua:

- Almandoz
- Aniz
- Berroeta
- Ziga

Elizondo:

- Lekaroz
- Elizondo
- Elbete

Baztangoiza:

- Azpilkueta
- Arizkun
- Erratzu
- Amaiur

Baztango herriak direla eta, erran dezagun, historian zehar, Amaiur Baztangoa izan zela 1665eraino, Zugarramurdi eta Urdazubi ere Baztango egiten zirela, lehenbizikoa 1667raino eta bigarrena 1774raino. 1969an egin zen Amaiur berriz ere Baztango, baina Zugarramurdi eta Urdazubi beregainak dira gaur egun.

Baztango mintzoak nahiko batasun handia du 15 herrietan, eta lapurteraren eta nafarreraren arteko zubitzat har daiteke, baina badira desberdintasun batzuk ere herrien artean:

- Batetik, Oronozko hizkerak ahaire handia du Bertizarana eta Malerrekako mintzoarekin, eta, Bidasoako gainerako herriekin (Bortziriekin batez ere).
- Bertzetik, Basaburuko eta Oronozko hizkerak baditu berezitasun batzuk, Baztango herrien artean han bakarrik aurkitzen direnak eta Nafarroako hizkerarekin lotzen dutenak. Erraten ahal da Arraioz dela tartean dagoen herria, mintzatzeko moduari behatzen baldin badiogu.

- Lekarozen beti izan da deigarria tratamenduen kontua: hika egiteak aunitzez ere presentzia handiagoa du, eta izan du aspalditik, herri horretan, Baztango bertze herrietan baino.
- Erran dezagun, azkenekoz, Baztango mintzoaren eta Zugarramurdi-Urdazubin egiten denaren artean ere desberdintasunak ez direla hain handiak, diferentziarik nabarmenenak (hiztegiko kontu batzuk, aunitzetan frantsesaren edo espainieraren eraginen ondorio, kenduta) fonologia mailakoak baitira.

1.2 Hizkuntzen eta mintzoen gramatikak zer diren

Kanpotik behatuta, batek pentsatzen ahal du hizkuntza baten, euskalki edo mintzo baten gramatika eskribitzea ez dela hain gauza zaila. Azken batean, aski da, eta ez da bertzerik behar, ikustea nola hitz egiten duten ingurukoek, ohartu ongi horretaz, eta haiek diotena paperera eraman.

Gauzak, ordea, ez dira hain errazak. Eta ez dira hain errazak ez baitugu harrapatuko inon ere bi hiztun modu berean mintzo direnak. Aski gauza jakina da hau hizkuntzalarien artean: beti badira, nahiz hizkuntza berean mintzo garelara erran, eta hizketa modu bakarra ibiltzen dugula pentsatu, halako ñabardura batzuk hiztun bat eta ondoko etxean bizi den bertze norbait bereizteko gai direnak. Ez hori bakarrik: guk geronek ere, gure artean solasean ari garelarik ohartu gabe aldatzen dugu hizkera eta bat-batean, pentsatu gabe, sartzen ditugu aski modu erraz eta naturalean errateko modu berriak, guretako berriak direnak erran nahi dugu, une horretan ibiltzen baititugu lehenbiziko aldiz. Zer pentsatu halako makina batean jarriko bagenitu mahai gainean orain dela hogeitun urte izaten genituen elkarrizketak eta orain ibiltzen ditugunak. Idurituko zaigu berdin-berdin mintzo garelara orain, lehenago bezala, baina hori ez da joan pasatzen ere egia.

Orduan, nola eskribitzen ahal da gramatika bat, ez bada modurik jakiteko zein diren elkarren artean entenditzeko ibiltzen dugun mintzo horren funtsezko ezaugarriak?

Hor dago kontua, bada!

Erran dezagun, hasteko, eta desberdintasun horiek hor baldin badira ere, aise handiagoak direla gure artean ditugun antzekotasunak, desberdintasunak baino. Hau ADNren kontua bezalatsukoa da: kukusoak eta pertsonak, itxuraz segurik, aski diferenteak gara, baina ADNaren kontuekin hasiz gero, ematen du desberdintasun horiek urratu egiten direla. Herri bateko hiztunen mintzoaren ADN hori da, orduan, bilatu eta harrapatu behar dena.

Hemen Baztango mintzoak duen gramatika deskribatu nahi dugu, eta hango elea nolakoa den argitu, batez ere kanpotik begira dagoen baten ikuspuntutik. Baina, Baztango kontuez ari garela, zehaztu beharko da zein den ispilua, nolako hiztunen gramatika nahi dugun aztertu, zeren segur baikara Erratzuko aitona batek (*aitona* eta *aitatxi* ez dira berdinak Baztanen) eta Oronozko zazpi urteko neskatxa batek, nahiz biak Baztanen bizi eta, ustez bederen, biek mintzo berekoak izan, praktikan desberdintasun handiak dituztela. Batetik, belaunaldien arteko desberdintasunak baitaude (amatxi eta bere ilobaren arteko desberdintasunak, konparazione), bertetik herrien arteko desberdintasunak. Beti gertatu zait deigarri, ttalla nintzenean, nire lehengusu-lehengusinekin mintzo nintzelarik, nola zioten haiek “ikusi” nik beti “kusi” erraten nuen tokian. Alta, bien amak ahizpak izaki, baina batek “purdi” erran behar eta bertzeak “ipurdi”, lau kilometroko distantzia ttipian. Baztangoizean ‘lano’ erraten dute gehienek, baina Elizondon ‘laño’ aditzen da aunitzetan. D. Intzak (1922) aspaldi errana zuen hau: “Ba-dira, ba, Baztan’en onelako berexotasun ikusgarriak Baztan Bas.’tik Baztan Goiza’ra, baño [...] ta askotan berdin-berdiñak dira”

Gramatika honek Baztangoiza aldera joko du (Amaiur, Azpilkueta, Arizkun, Erratzu...), izkina horietan egiten den mintzora, eta oraingo mintzora baino gehiago orain dela urte batzuk egiten zen elera, oraingoak galdu baititu ordukoak zituen zenbait ezaugarri eta gero eta antz handiagoa baitu “batua” deitzen dugun horrekin, normala dena bertze aldetik: inor ere ez da estutu behar kontu horrekin. Zergatik? Hemen nabarmendu nahi baititugu bereziki hango mintzoaren berezitasunak, berezitasunik ez izatekotan ez baita inolako gramatkarik egin behar, hau baino hobeak eginak dira dagoeneko.

Baztangoiza aipatzen dugula, zernahi den ere, horrek ez du erran nahi Irurita atzentzen dugula, edo Arraiozen egiten dena ez dugula batere gogoko: ez, kontua ez da hori, herri horien erreferentziak ere bilduko baititugu beharrezko denean. Azkenean, errana da, desberdintasunak ere ez baitira hain handiak.

Aunitz aldatu da hango hizkera azken urteotan. Hizkera guziek, hizkuntza guzietan, aldatzeko joera dute. Hobeki erran: aldatzeko joera batetik bai, baina aldi berean bada halako joera bat mintzo eredia bere horretan, aldatu gabe, atxikitzeko. Denek dugu gure baitan dugun hizkuntza aldatzeko joera, baina aldi berean bere horretan uztekoa ere. Baina Baztanen kasuan, aldatzeko joerak indar handiagoa erakusten du. Zergatik? Arrazoi bat baino gehiago dago, baina badira bi, gure ustez, funtsezkoak direnak:

- Baztanen, Euskal Herriko bertze hainbertze tokitan bezala, gizarte aldaketa handia gertatu da azken urteetan, eta egitura aldatu da, neurri handi batean, egoera ekonomikoak hala bortxatu duelako. Gizarte aldaketek berarekin joaten dute hizkuntza aldaketa bat, historiak berarekin hizkuntza zati bat. Aldatze hauen eraginez, lehen gertatzen ziren harreman handiak Iparraldeko inguruko herriekin pixkana hautsiz joan dira, harreman haiek nekazalgoan oinarritzen baitziren, baina gaur egun, bai alde batean bai bertzean, gero eta nekazari gutiago baita. Lehenago arrunta zen baztandarra Iparraldera beha egotea, baina gaur arruntagoa da Iruñera edo Donostia aldera gehiago behatzea. Horrek badu, bistan da, eragina hizkeran ere, eta hiztun komunitate berria sortzen du pittaka. Hola pasatu dira batzuk “fite” normal-normal erratetik “laster” erratera maizago. Ttallak ginelarik, amak edo aitak deituta, fite itzultzen ginen etxerat, lasterka nahi bada. Honen eragina izan da baztanera-lapurtera hizkera eredu horrek baztanera-nafarrera eredura jotzea gero eta gehiago. Zugarramurdiren eta Urdazubiren kasuan, dena dela, honek ez du hain eragin handia izan.
- Bigarren arrazoiak hezkuntzarekin eta informazio mundu berriarekin du zerikusia. Orain dela berrogei urte jende gutik leitzen zuen egunkaria, eta irratian, gehienez ere, “parte” aditzen zen (Baztanen, egia erran, gauza guztiak *aditu* egiten baikenituen, eta *entzuteko* meza bakarrik uzten baikenuen) ordua segurtatzeko eta biharamunean zer denbora eginen zuen jakiteko batez ere. Baina gaur egun umeak euskaraz hazten dira, telebista ikusten dute, liburuak irakurtzen dituzte eta eskribitzen ikasten dute (idazten ere, orduan egiten ez genuena), eta horrek eragin handia izan du hizkuntzan, Baztango mintzoa batasunaren errepidera joan baitu honek guziak, hango mintzoak zituen berezitasun batzuk betiko galbidean jarritz. Hori normala da, eta hizkuntza guzietan gertatzen da hola, gurean bertzeetan baino indar handiagoarekin gertatzen bada ere, prozesua bera bertze tokietan baina lasterrago egin behar baitugu, euskara bizirik ikustekotan. Horra nola pasatzen ari garen “torko” erratetik “etorriko” erratera.

Ez dezagun pentsa, zernahi gisaz, hau oraingo kontua bakarrik denik. Gure historian beti gertatu izan dira holako gauzak, eta ez dugu atzentzen ahal herri nagusietako merkatu eta feriek (gure kasuan Elizondon, Baigorri eta Donibane Garazin egiten zirenak), konparazione, indarra izan dutela inguruko herrietan, eta horrek sortzen zuela jende harremanetako halako sare berezi bat, hizkuntzan ere eragin handia zuena. Gauza bera erran daiteke Lapurdi-Baxe Nafarroan egiten den hizkerez. Hor ere, mintzo bat baino

gehiago bereizi zituen Bonapartek bere garaian, baina XX. mendean batasun handia gertatu zen, eta bide bakarrera jotzen hasi ziren hango mintzoak. Arrazoia? Segur aski ere, neurri handi batean, P. Lafittek eskribitu zuen gramatika (1944) harrapatu behar da, horrek eragin handia izan baitzuen apezten artean, eta, ondorioz, herritarren artean ere. Orain gertatzen dena da aldaketa hauek begien bistakoago ageri zaizkigula eta egia dela, ez da erran beharrik, aldaketa egituratuago eta batuagoak direla. Oraingo munduak gehiago kurritzen du!

Bereizketa kontuetara itzuliz, harrigarria da, hala ere, eta hau aipatzeko kontua den uste dut, ez bakarrik euskalki eta mintzoen artean dauden bereizketez ohartzea. Bereizketa hauek herrien artean, eta auzoen artean ere gertatzen dira. Eta hitzun berak ibiliko du batean *amain* eta ondokoan *amaren*, batean *etxea* eta ondokoan *etxia*, edo batean *etxerat*, ondokoan *etxiat* eta geroxeago *etxera*, adornurik gabe, nolakoa den hizkeraren abiadura: hitz bera, testuinguru berean, modu batera baino gehiagotara ebakitzen da, eta batzuetan deklinabide marketan ere zalantzak izaten dira: Irantzu Epeldek (2003, 118) aipatzen du, konparazione, nola ibiltzen duen Larresoroko hitzun berak *batetan* eta *batean* ederki txandakatuz, hori egiteko arrazoi argirik ez bada ere. Holakoak Baztanen ere harrapatzen ahal dira, dudarik gabe. Bereizketa horiek guziak, nire ustez, bertze edozein hizkuntzatan baino handiagoak dira eta, aldi berean, hizkuntzaren aberastasunaren seinale izan beharrean, haren ahuleziaren ezaugarri izan daitezke.

Horra bada, zein izan diren, nire ustez, ereduaren aldaera bortxatu duten arrazoirik nagusienak: “fite torko da” erratetik “laster etorriko da” erratera pasatzen ari gara, eta batzuek dagoeneko egin dute bide osoa, ohartu gabe. Hemen ez dugu denek berdin jokaten: ikusten den gisan, hitzun batzuk pasatu dira, bertze batzuk zalantzan daude eta batzuetan modu bat, bertzean bertze bat, ibiliko dute, eta, azkenik, izanen dira hitzunak ere pasatu gabe direnak oraino. Denak mintzo dira, hori bai, ez da erran beharrik, Baztango hizkeran, baina nik deskribatu nahi dudana hurbilago egonen da lehenbiziko eredutik bigarrenetik baino, bistan diren arrazoiez: beharbada, “laster etorriko da” esplikatzeko ez da gramatkarik behar, lehentxeago erran dugu gisan.

Bada bigarren kontzeptu bat argitu behar dena ere: diogunean, hemen diogun gisan, euskalki bat edo mintzo bat deskribatu nahi dugula, tentazioa izaten ahal dugu pentsatzeko mintzoak eta euskalkiak, hizkuntzaren ikuspuntutik, jakina, gauza hertsia direla, hesi argiak dituztela. Hau da, pentsatzen ahal dugu mintzo klase hau hemen, toki jakin honetan, hasten

dela, eta bertze toki hartan akitu. Mugak erraz jartzen ahal direla, eta Oronozen “hola” mintzo direla eta Erratzun, ordea, “bertze honetara”. Baina hori erdizka bakarrik da egia: euskalkiak eta mintzoak definitzeko orduan, ezaugarriak ez baitira denak maila berekoak, ez denak modu berean gertatzen.

Dialektologiaz arduratzen direnek badakite aspalditik hizkeren arteko mugak ez direla garbiak eta zehatzak: diogunean Erratzun (Baztangoiza) modu batera mintzo direla, eta Anizen (Basaburua), konparazione, bertze modu batera, eta Zugarramurdin hitz egiteko hirugarren modua dutela, horrek ez du erran nahi hiru hizkera horiek arras desberdinak direla. Ez, hori ez da hola. Gauza batzuetan modu berean mintzatuko dira Zugarramurdikoa eta Erratzukoa eta, konparazione, *etxe bat* erraten dute bietan, edo *erosi ginuen*, eta bertze modu batean Basaburuan, hemen errazago adituko baitugu *zenbat itxe* (*zenbat etxe* ere, jakina, hau Oronozen ere gertatzen da), edo *erosi giñun*, “etxe-itxe” eta “ginuen-giñun” bereizketa horiek eginik. Baina gero bai Erratzukoak eta bai Basaburukoak *ardiek* zaintzen dituzte belaietan, eta Urdazubiko edo Zugarramurdiko artzainek nahiago dute *ardiak* zaindu. Denek, ordea, Zugarramurditik hasi eta Basabururaino, aski erraz erranen dute *atia* (‘atea’). Ondoko lauki honetan ikusten ahal dira diferentzia hauek guziak:

Zugarramurdi-Urdazubi	Baztangoiza	Basaburua/Oronoz
<i>atia</i>	<i>atia</i>	<i>atia</i>
<i>ginuen</i>	<i>ginuen</i>	<i>giñun</i>
<i>etxe</i>	<i>etxe</i>	<i>etxe/itxe</i>
<i>ardiak</i>	<i>ardiek</i>	<i>ardiek</i>

Holako desberdintasun hauek, mintzoen arteko diferentzia hauek erran nahi da, isoglosak deitzen diren marra batzuen bidez adierazten dituzte hizkuntzalariek. Hola, euskalkien arteko muga horiek isoglosen bidez bereizten dira: kontu honetan (*atia* hitzaren kasuan, adibidez) hitz horrek definitzen du isoglosa bat, eta isoglosa horren barnean sartuko genituzke Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztangoiza. Baina bertze hitz baten isoglosa (*ardiek* hitzarena) desberdina da, bere barnean bilduko bailituzke Baztangoiza eta Basaburua, baina kanpoan utzi Urdazubi eta Zugarramurdi. Hortaz, mintzoak ezti-ezti aldatzen dira toki batetik bertze-
ra (bereiziki garbia da hau Baztanen), ohartu gabe bezala.

Ez da erraz gertatzen hola mugen berri ematea, eta mugak jartzen hasia mintzo bat non hasi eta non akitzen den errateko. Hizkuntzetan dialektorik ez dagoela erran duten hizkuntzalariak ere ez dira falta izan historian. Baina, euskarara mugaturik, aski dugu Amaiurtik Tolosara joatea, konparazione, edo Baztandik beretik atera gabe ere Oronoztik Amaiurra joatea, herri horietan mintzo diferenteak ditugula ohartzeko, nahiz, horrekin batera, bi mintzoak hizkuntza berarenak direla ere onartzeko arazorik izanen ez dugun.

Hitz laxoen gainean diogunak hizkuntzaren bertze ezaugarri guzietako balio du: isoglosen bidez markatzen ditugu desberdintasun morfologikoak, sintaxiaren ingurukoak eta hizkerek erakusten dituzten hainbertze eta hainbertze errateko modu berezko horiek guziak.

Hizkuntza baten gramatikaren berri eman nahi dugunean (gauza bera gertatzen da euskalki bat edo mintzo bat deskribatu nahi dugunean), gramatika horren ezaugarri eta berezitasunak zehazteko, zenbait parte bereizten ditugu, nahiz parte horien arteko mugak aunitzetan aski lanbrotsu eta lausoak diren. Zernahi gisaz, ondoko parte hauek gutienez bereizten dira gramatiketan:

- fonetika eta fonologia
- morfologia
- sintaxia
- hiztegia

Hala ere, atal hauek guztiak hain konplexuak direnez, gramatikariak espezializatu egiten dira, eta batzuk arduratzen dira ahoskera kontuez, bertze batzuk sintaxi kontuez, bertze batzuek nahiago izaten dute hiztegi kontuak aztertu... Gaur egun, beraz, gramatika zati hauek ez dira liburu berean agertzen, baizik espezializazioaren arabera, han-hemenka sakabanatuak.

Fonetika eta fonologia arduratzen dira ahoskatze kontuez: nola ebakitzen ditugun hitzen soinuak, eta hori zergatik egiten dugun, argitzen dute. Adibidez, euskararen gramatikaren berri eman nahi badugu, gramatikaren atal horrek erranen digu “berri” hitza toki batzuetan hola ebakitzen dugula (“berri”) baina, bertze toki batzuetan, ordea “barri” erraten dela. Mendebalean entzuten da “barri”, eta gero hori gure deiturretara ere iragan da, eta denen gustuko izenak izanen ditugu eskura: “Etxeberria” eta “Etxebarria”, adibidez. Fonetikari batek argituko digu hau, eta berak argituko du, orobat, nola ahoskatzen ditugun soinuak: nola ebakitzen dugun “atzo” eta nola “atso”, non jartzen dugun mingaina batean “tz” ahoskatze-ko eta bertzean “ts”, edo zer egiten dugun gure giharrekin “m” eta “b” soi-

nuen artean bereizketak egiteko. Fonetikariak erranen digu Baztanen, adibidez, ongi bereizten ditugula “z” eta “s” (“hazi” eta “hasi” bikotean, konparazione), edo “tz” eta “ts” (“atzo” eta “atso”). Baina bertze zenbait tokitan (Bizkaian eta Gipuzkoako zati batean) ez da bereizketa hori hain garbi egiten eta berdin ahoskatzen dira bi letra horiek. Artikulatze moduaren fonetika deitzen zaio horri. Eta fonetikariak argituko du zein diren soinuen ezaugarri akustikoak. Zeren hizkera baten soinuak aztertzeo orduan, bi gauza horiek hartzen baitira kontuan: nola mugitzen ditugun aho eta zintzurreko giharrak, mingaina barne, halako soinu hau, eta ez bertze bat, ahoskatzeo, eta nolako ezaugarri fisiko-akustikoak dituen soinu horrek. Azkeneko hau neurtzeko makina berezi batzuk behar izaten dira.

Fonologoak, ordea, bertze urrats bat egiten du, eta abstrakzio pauso bat emanez, ahoskatze horren legeak harrapatzen saiatzen da. Zergatik “berri” batzuek eta zergatik “barri” bertze batzuek? Zergatik “etxea” batzuek eta zergatik “etxia” bertze batzuek? Zergatik “ardiak” batzuek, baina “ardiek” bertze batzuek? Eta fonologoak argituko digu, konparazione, Baztanen *Ze i’mar diu?* aditzen dugunean (niri gertatu zaidan bezala, grabazioa Zigakoa da), fonologoak argitu beharko du, diogu, nola pasatu garen *zer egin behar diagu?* horretatik *ze i’mar diu?* horretara¹. Horren arrazoia hizkuntza legeek argitzen dute: hiztun guziek gureganatu ditugu gure mintzoaren lege berezi batzuk, eta lege horietako zenbaiten eragina hitzen ebakitze kontuetan nabarmentzen da, automatikoki ezartzen baititugu konturatu ere egin gabe. Hola, “ardiek” hitzaren kasuan, Erratzuko batek (Erratzukoak, ez ordea Zugarramurdikoak) lege isil bat ezartzen du:

[“a” artikulua “e” ebaki bedi “i” baten ondotik heldu denean]

Berdintsu gertatzen da *etxe* hitzarekin ere, *etxia* diogunean:

[“e” bihur bedi “i”, artikuluaaren aitzinean]

Edo holako zerbait, gero ikusiko dugunez. Eta berdin da hitz hori euskararen hitza izan (“etxe”), euskarak aspaldi ondoko hizkuntzatik hartua izan (“kolore”) edo argi eta garbi erdal hitza izan (“elefante”, “suerte”, “teniente”). Normalean, euskaraz aritzen denean, denei ezarriko die lege hori: “etxia”, “koloria”, “elefantia”, “suertia” edo “tenientia”. Euskarak dituen mintzoen arteko desberdintasun aunitz eta aunitz, lege simple batzuek, aski orokorrak direnak, argitzen dituzte.

Bertze adibide bat jarriko dugu: Baztango batek bere ama hizkuntza biz-

1 Bide batez, alokutiboak arruntak dira Baztanen, galde perpausetan.

kaiera duen norbait entzuten badu eleketan, berehala konturatuko da “mendixa” edo holako zerbait erraten duela Baztanen “mendie” erranen litzatekeen toki berean. Zergatik gertatzen da hori? Bada, kasu honetan ere bade-lako bizkaieraz ahoskatze arau simple bat:

[ahoska bedi “x” bat “i” eta artikuluaeren artean]

Ohart gaitezten orain zer gertatzen den esaldi erraz bat entzuten dugunean, batzuek eta bertzeek errana:

- *ze berri mendien?*
- *se barri mendixan?*

Ikusi hiru hitz jarri ditugula gure adibidean, eta hirurak modu desberdinean (azentua kontuan hartu gabe!) ahoskatzen direla mintzoen arabera. Horregatik, bertzeak bertze, sortu zen euskara batua, ahoskera modu diferente hauen artean eredu bakarra proposatuz: “Zer berri mendian?”. Erran dezagun, bide batez, gauza berbera egiten dela hizkuntza guztietan, nahiz euskararen barneko desberdintasunak, hain toki txikia izanik Euskal Herria, bertze tokietakoak baino handiagoak diren. Horrek baditu arrazoi historiko argiak hemen aipatuko ez ditugunak.

Jakina: arau hauetako batzuk aski zorrotzak badira ere, eta inoiz ere huts egiten ez duten horietakoak, bertze zenbaitetan zalantzarazkoagoak gertatzen dira. Adibide gisa erran dezagun euskarak baduela lege bat arruntean betetzen dena: “z” guztiak “tz” egiten ditugu “l”, “r” edo “n” baten ondoko soinua bada “z” hori. Bertze modu batera errana, nahi bada: ez dugu “z” ahoskatuko “l” ondoren: “galtzak”, “eltze” edo “beltza”, baina ez “*galza”, “*elze” edo “*belza”. Bada euskaraz atzizki bat, aski maiz ibiltzen duguna: “zale”. Hortik egiten dugu “mendizale”, “berrizale”, “bakezale”, eta abar. Batzuetan, atzizki honekin zalantzak izan ditzakegu aipatu araua ezartzeko orduan. Nola erranen dugu: “euskaltzale” edo “euskalzale”? “Hilzori” edo “hiltzori”? “Abelzaintza” edo “abeltzaintza”? “gan zen” edo “gan tzen” (“joan zen” bertze tokietan). Baztanen bi aldaerak, ‘z’ eta ‘tz’, harrapatzen dira, testuetan ere ikusten ahal denez (ik. 6. kapitulua).

Holakoetan zalantzak gerta daitezke (elkartzen diren zatiak zenbat eta “hurbilagoak” izan, errazago ezartzen da araua), baina ez da dudarik puntu hauetan duela aunitzetan erdarak indarra, eta ohartu gabe erdararen arauak ibiltzen ditugula, gure jatorrizko mintzoaren ebakitzeko moduak hautsiz: aski da batzuetan bere ama hizkuntza, etxetik, euskara ez duten ume batzuei aditzea. Edo Baztandik sobera urrundu gabe ere, nahikoa da Hendaia alde-dera joatea eta han letra handiekin “Sokoburu” ikustea, edo etxe bat, behin

baino gehiagotan egunkarietan atera izan dena, “Sokoa” izenekoa. Hor, erdarak, kasu honetan frantsesak, desegin du –ortografia mailan bederen– euskaldun aunitzek argi eta garbi bereizten ditugun “s” eta “z”, eta “s” bezala ebakitzen dira berez “zokoburu” eta “zokoa” direnak.

Hau guztia, orain arte erran dudan guztia argitzea erran nahi dugu, da fonetikari eta fonologoen lana: nola ebakitzen ditugun hitzak batetik, zein diren ahoskera horren azpian dauden arau nagusiak bertzetik. Batzuk ikusi ditugu, baina geroago saiatuko gara Baztango mintzoak kontu hauetan dituen ezaugarri nagusienak deskribatzen.

Morfologia da gramatikaren bertze atal nagusi bat. Erran daiteke hau dela fonetika eta fonologiaren ondoren, gramatikak duen hirugarren zatia, nahiz, lehenago ere aipatu dugu arazoa, zenbaitetan ezinezkoa izaten den maila hauen arteko bereizketa garbiak egitea.

Hitzek duten formaz eta itxuraz arduratzen da batez ere morfologia. Hiztegiko hitz soilak (“mendi”, “etxe”, “etorri”, “erosi”) ez ditugu bakarrik erabiltzen, eta elkarrekin harremanetan jartzen ditugunean esaldi baten barnean, halako osagarri batzuk bezalakoak hartzen dituzte:

mendiko etxean ikusi du Mikelek Jon

Horko hitzetan ohartzen bagara, eta kanpoko norbaitek esaldi horrek zer nahi duen erran jakin nahi badu, eta horretarako hiztegi batera jotzen badu, bertze klase bateko informaziorik gabe, hitz hau bakarrik atzemanen du zorioneko hiztegiari: “ikusi”. Gehienez ere, “Jon”, hiztegia izen bereziaz ere arduratzen bada. Hortaz, eta adibidean bakarrik ohartzeagatik, informazio hau bakarrik emanen dio hiztegiari:

mendiko etxean ikusi du Mikelek Jon

Nora gehiago jo behar du esaldi hori konprenitu ahal izateko? Suerte pixka batekin gai izanen da “Mikel” ere aurkitzeko, edo “mendi” eta “etxe” ere, baina horrekin bakarrik ez da gai izanen jakiteko Mikelek ikusi duen Jon, edo Jonek Mikel, mendian edo etxean ikusi duen ikusi duen hori, Mikel mendian den edo etxean, edo mendian dagoena Jon den... Hori jakitea ezinezkoa du lagun arrotz horrek, bertze argitasunik ematen ez bazaio, eta esaldia konprenitzeko eskura duena hiztegia bakarrik baldin badu.

Bertze argitasun klase horiek morfologiak ematen dizkio, neurri batean bederen. Hitzak multzoka antolatzen ditugu hizkuntzan: “gure senarrak auto eder hori jauregi zaharrean altxatzen du” baldin badio norbaitek, badakigu ederra autoa dela eta ez jauregia, eta zaharra, aldiz, jauregia, eta ez autoa. Kontrakoa ere egia izaten ahal da errealitatean, baina esaldian

ematen zaigun informazioa hori da, ez bertzea. Kasu honetan, multzoak hola antolatuta ditugu:

Lehenik, bi multzo nagusi egin ditzakegu:

[gure senarrak] [auto eder hori gaztelu zaharrean altxatzen du]

Gero, bigarren multzoan bertze multzo koxkorrago batzuk atzematen ahal ditugu:

[auto eder hori] [gaztelu zaharrean] altxatzen du

Azkenekoz, multzo guziak batera ematen digu orain:

[gure senarrak] [[auto eder hori] [gaztelu zaharrean] altxatzen du]

Multzo horiei, berdina da handia edo txikia izan, “sintagma” deituko diegu. Azalpen nahasiagoetan sartu gabe, erran dezagun ardatz gisan izena hartzen duten sintagmak izen sintagmak direla, eta ardatz gisa aditza hartzen duten sintagmak aditz sintagmak direla. Nolabait ere errateko, hitzak multzoka egituratzen ditu hiztunak, eta multzo horiek dira sintagmak: [umea] sintagma bat da, baina [ume txikia] ere sintagma da, eta [etxeko ume txikia] ere, eta [gure etxeko ume txikia], eta abar. Horiek guztiak sintagmak dira, modu natural batean egituratzen baititugu kate horietako hitzak *ume* hitzaren inguruan. Hori da garrantzikoena, eta gainerakoek osatu egiten dute *ume* hitzak dakarren informazioa.

Gure adibideetan egin dugun lehenbiziko multzokatzeari behatzen badiogu, erran dugunaren arabera, *gure senarrak* izen sintagma dela erraten dugu, *senar* izenaren inguruan antolatzen baita, eta gainerako guztia, aldiz, aditz sintagma, *altxatu* aditzaren inguruan egituratzen baita.

Morfologia, batez ere baina ez bakarrik, izen sintagmen eta aditz sintagmen formaz arduratzen da. Zehatzago adierazteko: izen sintagmak akitze aldera hartzen dituen atzizkiez, eta aditzen itxurez. Hortaz, bi multzo hauek bereiz ditzakegu (azpimarran ageri dira morfologiaren aztergaiak):

Izen sintagmaren morfologia: “gure senarrak”; “gure etxeko alabarekin”; “aitzinerako”... Kontua ez da hemen jarri dugun bezain sinplea, baina, erran dudana gisan, gauzak ez nahasteagatik aurkeztu nahi izan ditugu hola, bertze esplikazio berri batzuetan sartu gabe, bertzenaz ere aski nahasiak baitira. Izenaren morfologia arduratzen da, orobat, erakusleek eta izenordainek hartzen duten itxuraz ere: *untan* (honetan), *ekin* (haiekin).

Aditz sintagmaren morfologia arduratzen da adizkien formaz: *duzue*, *dautzuegu*, *torko* (etorriko), *gain* (joanen), *gango* (joan gogo), *baleza*...

Beraz, orain baditugu lanabes eta tresna gehiago mintzoaren gramatikaren berri emateko. Har dezagun Baztango errate modu hau: “gure alabaikin gango zuen”. Fonetikak erranen digu zein diren hor ahoskatzen ditugun soinuak, eta nolakoak diren haien ezaugarriak. Fonologiak erranen digu zein diren hor modu automatiko batean Baztango hiztunek ibiltzen dituzten arauak (zergatik egiten dugun, eta noiz, “alabaikin”, eta ez “alabarekin”; zergatik “go” eta ez “gogo”, eta abar). Azkenik, morfologiak erraten du “gan” (“joan”) aditzak “gain” egiten duela, eta ez “gango”, edo “in” (“egin”) aditzak “inen” egiten duela, eta ez “ingo” (“egingo”, bertze hainbertze mintzotan). Eta morfologiak argitzen du “dautzuegu” bezalako aditz forma batean baditugula erakusgarri argi batzuk: dau-tzue-gu (zerbait-zuei-guk). Hurrengo urratsa sintaxiaren kontua da.

Sintaxiak erakusten digu zein diren sintagmen arteko harremanak perpaus edo esaldi batean. Ikus dezagun hau ere adibide batekin: “Inaxiok Maddalen agurtu zuen”. Perpaus horretan “Inaxiok” eta “Maddalen” izen sintagmak dira, baina zeregin desberdina dute batak eta bertzeak. Inaxiok paper eraginkorra du, berak hartzen du zerbait egiteko ardura, Maddalen agurtzearena alegia. Eta Maddalenek hartzen du bere gain, Inaxiok hartutako arduraren ondorioa. Beraz, izen sintagma hauek perpaus hartzentzen dituzten funtzioak aski diferenteak dira: bat subjektua da, bertzea objektu zuzena. Horrek, euskaraz (ez bertze hizkuntza aunitzetan) badu ondorioa morfologian, morfologiaren bidez bereizten baititugu aunitzetan funtzio hauek. Ez beti, ordea: “Inaxio, jende aunitz ikusia da”.

Sintaxia perpaus mailan mugitzen da: “etxe hori aste honetan pintatu dute”. Baina perpaus mailan mugitzen denez, besarkatzen dituen arazoak morfologiarenak edo fonologiarenak baino zabalagoak dira, perpaus bat bertze baten barnean txertatzen ahal baitugu: “[hor ikusten duzun] etxe hori aste honetan pintatu dute”. Eta bi perpaus horiek bertze baten barnean: “[hor ikusten duzun etxe hori aste honetan pintatu dutela] erran dute gazte haiek”. Eta hau bertze batekin nahasi: “[hor ikusten duzun etxe hori aste honetan pintatu dutela] erran dute [plazako bankuetan dauden] gazte haiek”. Eta hau bertze batekin lotu: “[hor ikusten duzun etxe hori aste honetan pintatu dutela] erran dute [plazako bankuetan [oilaskoa jaten] dauden] gazte haiek”. Eta hau bertze batekin? Bai: “[hor ikusten duzun etxe hori aste honetan pintatu dutela] erran dute, [orain dela ordu erdi bat hona hurbildu direnean] [plazako bankuetan [oilaskoa jaten] dauden] gazte haiek”. Eta gehiago ere. Baina hor baditugu arazoak esaldi hori zuzen eta lehenbizikoan ongi konprenitzeko: “hor ikusten duzun etxe hori, aste

honetan pintatu dutela erran dute, orain dela ordu erdi bat hona hurbildu direnean, plazako bankuetan oilaskoa jaten dauden gazte haiek”. Gramatikaren sintaxia indar handiko makina da, eta ez du mugarik per-pausak bata bertzearen barnean txertatzeko. Mugak gure memoriak jartzen ditu: hainbertze perpaus segidan eta elkarren artean trabatuak kateatzen baditugu, ez gara gai behar bezala prozesatzeko, ez gara gai perpausak erran nahi duena ulertzeko.

Sintaxia da, nire ustez, gramatikaren atalik nahasgarriena eta adierazteko zailena. Batez ere haren deskripzio hutsetik haratago urrats bat egin eta azpian dauden arauak harrapatu nahi direnean. Hori zinez zaila da. Baina hori egia izanik ere, hau bezalako gramatika bat egiteko orduan, badu bere alde ona ere. Hala nola fonetikan, fonologian eta morfologian (eta hizte-gian ere, gero ikusiko denez) desberdintasun handiak badiren euskalkien eta mintzoen artean, diferentzia hauek ia-ia urraturik gelditzen dira sintaxiaren arloan. Denborazko esaldiak, edo erlatiboak, edo perpaus osagarriak, euskalki gehienetan antzera egiten dira, eta desberdintasunek zerikusi gehiago izaten dute morfologiaren edo fonologiaren arauekin, sintaxi arauekin baino. Badira zenbait desberdintasun, egia da, baina bereizketa aise handiagoa da gramatikaren bertze arloetan. Horregatik, sintaxiarena izanen da gramatika honetan atalik laburrena.

Hemen ere ageri zaigu mugen kontua, zeren, “sartzen ahal da” bezalako esapide batean, edo bere kontrakoan, “ez da sartzen ahal”, dauden ezaugarri horien berri ematea (bertze toki aunitzetan, Baztandik kanpo, “sartu ahal da / ezin da sartu” dira parekoak), nori dagokio? morfologiari edo sintaxiari? Guk gure aukerak eginen ditugu, helburu jakin batekin: argitasun handiago zerk ematen duen, hori izanen da aukera.

Hiztegia da hizkuntzaren gramatikaren bertze atal handi bat. Ofiziokoa ez den jendeak, maizkara, hiztegia eta hizkuntza bera nahasten ditu. Hola, batzuek pentsatzen dute, gure inguruko gauzen izenak zein diren bertze hizkuntza batean baldin badakigu, badakigula orduan hizkuntza horretan mintzatzen. Baina bistan da hiztegiak pisu handia izanik ere, badirela hizkuntzaren gramatikan bertze hainbertze elementu ezagutu gabe ezinezko egiten dutenak mintzo hori menderatzea. Lehen aipatu dugu “dautzuegu” hori, adibidez. Segur aski ere, “dautzuegu” gehiago ibiltzen dugu gure eguneroko hizkeran, “epel” hitza baino, baina azkeneko hau da hiztegian ageri dena, ez bertzea.

Hiztegiarekin ere, neurri handi batean, sintaxiarekin gertatzen den gauza bera pasatzen da: gure hiztegiako hitz aunitz eta aunitz ez dira gureak baka-

rrik, baizik euskararenak, euskalki guztietan edo, gutienez, Baztandik kanpo zenbait tokitan ere, ibiltzen direnak. Baina hori hala bada, merezi du Baztango mintzoaren gramatikaren berri eman nahi duen lan batean hiztegia ere sartzea? Bai, neurri batean: hitz horiek Baztanen bakarrik ibiltzen badira, edo Baztan inguruan, edo hitzak toki guztietakoak izanik, erranahi berezi batekin ibiltzen baditugu Baztanen. Eta batzuetan merezi du biltzea hitz batzuk, arruntak izanik ere, ahoskerak hain aldrebestuak uzten baditu non neketan ibiltzen garen jatorrizko erranahiarekin lotzeko.

Jakina, hitzen biltze kontu hori ere ez da hain kontu erraza, eta bilketaren mugak zehaztu behar dira aitzinetik. Baztanen *doike* hitza aunitz ibiltzen da. Lehenbiziko galdera: merezi du hiztegian sartzea? Bai, itxuraz bederen, hango hitza ematen duelako, han bakarrik ibiltzen duguna. Baina nola bildu? Zeren ez baita hain gauza erraza. Adibide batekin argituko dugu: han “zenbat etxe” edo “zenbat itxe” erraten badugu ere, gero “etxian” diogu. Badakigu hor “etxe” dela hiztegiak bildu behar duen sarrera: azaldu dugun gisan, lege fonologiko batzuek bihurtzen baitute “etxe” jatorrizko hori “etxi” edo “itxe”. Baina ez dirudi batere beharrezkoa den “etxe” bezalako hitzak Baztango hiztegi berezi batean sartzea, horiek bertze euskalkietan ere nonahi ikusiko baititugu.

Aipatu dugun bertze hitz honekin, ordea, gauzak nahasiagoak dira. Batetik, “doike” hori ez da eskura dugun aldaera bakarra, hiztunen eta herrien arabera “duike”, “doikebe” edo “duikebe” ere ageri baitira. Aldaera horiek guztiak eskura ditugula, aski erraza da ikustea nondik heldu den “doike” hori. Ez da batere zaila pentsatzea hor zenbait arau fonologiko ezarri ditugula, aski ibiliak direnak Baztanen, eta zenbait pauso eman ondoren honako hau, edo holako zerbait, gertatu dela:

1) *dударик gabe* > *dударикabe* > *dудайkabe* > *dудайkebe* > *duaikebe*

2) *duaikebe* > *duikebe* > *duikee* > ***duike***

edo

3) *duaikebe* > *doaikebe* > *doikebe* > *doikee* > ***doike***

Horra nola pasatu garen hastean genuen *dударик gabe* horretatik akitzean denek ibiltzen dugun *doike* horretara. Tartean urrats aunitz utzi ditugu, baina horien aztarnak han-hemenka ageri dira. Gehiago erranen nuke: ia-ia segur naiz aldaera horiek guztiak bilduko genituzkeela Baztanen hartara jarritz gero hiztun batekin eta bertzearekin eleketan gure belarriekin

erne. Ez dugu deus erran hemen hizkeraren doinuari buruz: bistan baita azkeneko “e” hori luzea egiten dugula, indartua bezala, eta ez dugula ahoskatzen, ez dugula ebakitzen “etxe” hitzean ageri den azken “e” hori bezala. Pisu handiagoa du, nolabait ere errateko. Badakigu orain zergatik den hori.

Aipatu dugun hori da lehenbiziko arazoa. Bigarrena adierarekin lotu behar dugu: “zer erran nahi du doike hitzak? Gauza bat baita nondik dato- rren, eta bertzea erranahia jatorrian zuen erranahiarekin lotzen den edo ez. Baztanen, adibidez, “expantu” (edo “espantu”) da ibiltzen dugun bertze hitz bat, baina ez du loturarik, erranahi aldetik, gaztelaniazko “espanto” hitza- rekin, jatorriz biak berdinak badira ere: Baztanen harroak bakarrik, eta mozkortzen direnak, ibiltzen dira espantuka, inori ere beldurrik eman gabe. “Doike” hitzaren kasuan, bi erranahi bereiz daitezke: “duda gabe” eta, mai- zago erranen nuke nik, “segur aski ere”. Bigarren hau da gehiagotan aditu izan dudana nik: - *Torko zate azkenian gaur gabian afaltzera gure etxera?* (“Etorriko zarate azkenean gaur gauean afaltzera gure etxera?”) - *Doike bai, azkenian gauzek makurtzen ez badire segurik* (“Doike bai, azkenean gauzak makurtzen ez badira segurik”). Jakina, testuinguruak argitzen du batean eta bertzean duen erranahia.

Badakigu orain zein den esku artean dugun hitza eta zer erran nahi duen. Baina ez diogu erantzunik eman hastean paratu dugun galderari: sartu behar dugu gure hiztegiari? nola? Zeren, bai baitirudi, hitz horrek “duda” sarreraren azpian egon beharko lukeela. Baina “duda” hitza aukeratuz gero, hori ez da bakarrik Baztangoa, euskalki guztietakoa baizik, eta orduan ez du merezi Baztangoa bakarrik izan daitekeen hiztegi batean sartzea, lehentxeago eman ditugun arrazoiengatik. Baina kasu hauetan, hitzak hain aldatuak ageri direnean, uste dut merezi duten gure hiztegi txikian ere toki bat, nahiz aunitzetan mugak non jarri behar diren jakitea eta zehaztea, edo nolako itxura emanen diogun (*doike, duike, duikee*) ez den gauza erraza izanen.

Hiztegiak egiteko testuak ibiltzen dira, eta guk ere iturri hori ibiliko dugu. Hor dago, gainera, Mariano Izeta euskaltzale handiak ere, bertze batzuen artean, egin zuen lana. Hura osatzen saiatuko gara, nahiz testuez gain, herrietan bildu hitzak ere jarriko ditugun hemen.

Testu idatziak sartzea gramatika batean ez da izaten oso arrunta. Egia da gramatiketan testu aipamenak ageri direla, eta adibideak aunitzetan testu idatzietan biltzen direla, baina bertze kontu bat izaten da testu osoak sartzea gramatika batean. Guk, hala ere, testu batzuk sartu nahi izan ditu-

gu hemen, bere laburrean bada ere, uste baitugu horrek argitasuna ematen diola irakurleari deskribatu nahi dugun mintzoaren gainean.

Hortaz, bada, atal hauek bereiziko ditugu gure aurkezpenean:

- Fonetika
- Fonologia
- Morfologia
- Sintaxia
- Hiztegia
- Baztango testuak

Jakina: honekin ez dugu agortzen, inondik ere, gramatika deskribatzaile batek bil dezakeen guzia. Konparazione, azentuaz guti erranen dugu, horrek gramatika honi aitzinetik paratu nahi dizkiogun mugak gaindituko bailituzke. Eta berdin erraten ahal da hitzen elkarketaz edo eratorpenaz.

Ondoko lerroetan, orduan, Baztango mintzoaren berezitasun nabarmenak bereizten saiatuko gara. Zerbaiten berezitasunez hitz egiten dugunean, hala ere, pentsatzen ari gara badirela berezitasun batzuk bertze zerbaitekin konparatuta. Hau da, norbaitek sudur luzea duela erraten baldin badugu (gehienetan pentsatu egiten dugu, erran gabe), delako horrek sudur luzea du bertzeekin konparatuta, bertzeek laburragoa izaten dutelako. Guk ere gure mintzoaren berezitasunak definituko ditugu bertze zerbaitekin konparatuz, kasu honetan “euskara batua” deitzen dugunarekin konparatuz.

Zeri deitzen diogun “euskara batua” zehaztea, ordea, ez da kontu erraza, eta ez dugu hemen bat-batean argituko. Erran dezagun badela hor eredu bat, liburuetan-eta ageri dena, idazle hoberenek ibiltzen dutena. Badela hor eredu bat hitzaldietan, komunikabideetan-eta entzun edo leitzen dena. Bada, horrekin konparatuko dugu Baztango mintzoa, eta hortik urruntzen denean, orduan aipatuko ditugu berezitasun horiek, eta erranen dugu berezitasun horiek ematen dutela hango mintzoaren berri.

Hola, orain arteko adibideetatik atera gabe, “etxe” hitzak, konparazione, ez du lekurik Baztango gramatikaren hiztegian, hitz hori ibiltzen baitugu euskaldun guziek, Baztangoak izan edo ez. Eta hori baita, halaber, euskara batuan ere ibiltzen duguna. Baina “etxe” hitza agertuko zaigu, ordea, Baztango fonetikaz eta fonologiaz mintzo garenean, Baztanen bi aldaera erakusten baititu, gehiago direnak haran horretakoak, baina ez euskara batukoak: “etxia” eta “itxea” (*itxea*, *itxia* aditzen ahal da Basaburuan eta Oronozen). Berdin gertatzen da, jo dezagun, “ibili” aditzarekin ere. Aditz hau euskara batuan ez da aktiboa, aktiboa denean “erabili” ibiltzen baitu-

gu gehiago: *Emakumeek sarritan erabili duten formula baita* idatzi du non-bait Saizarbitoriak, adibidez. Horren tokian, Baztanen, *emakumeek aunitzetan ibili duten formula baita* erranen genuke. Egia da euskara batuan, batzuetan, *ibili behar ditugun bideak* bezalakoak ere ikusten direla, modu aktiboan emanaz aditza orain: baina, orduan, bistan da, aktibotasun hori “behar”-ekin lotzen da, ez “ibili” aditzarekin: *ibili [behar ditugun] bideak*. Baina Baztanen arrunta da *ibili duzun aulki hori* (bertze modu batera ahoskatua, hori bai), aditzea. Gauza bera gertatzen da *joan* aditzarekin: *nik gain dut umia* (= “nik joanen dut umea”, bertze euskalkietako *nik eramango dut umea* adierazteko). Ez da holakorik gertatzen, ordea, *etorri* aditzarekin, *etorri* eta *ekarri* bereizten baitira Baztanen, batek *izan* duela laguntzailea eta bertzeak *ukan*. Hau da, hortaz, Baztango eskema (batuan idatzia):

<i>ibili dira</i>	<i>joan dira</i>	<i>etorri dira</i>
<i>ibili dute</i>	<i>joan dute</i>	<i>ekarri dute</i>

Eta hau, bertze euskalki batzuetakoa:

<i>ibili dira</i>	<i>joan dira</i>	<i>etorri dira</i>
<i>erabili dute</i>	<i>eraman dute</i>	<i>ekarri dute</i>

Nekez aurkituko dugu, eta honekin hartzen dugu berriz ere haria eskuan, batasuneko eredia segitzen dutenen artean *liburu hau ibiliko dut kontu honetaz jabetzeko* bezalako esaldirik, *joan* “eragile” honen erabilera Larresororaino, segurik, ailegatzen baldin bada ere. Honen ondorioa da bi hitz horiek, “etxe” eta “ibili”, batukoak izanik ere, badutela tokia Baztango mintzoaren gramatikaren ataletan, bai baitituzte ñabardura batzuk (fonologian lehenbizikoak, hiztegian bigarrenak) hango mintzoarekin espresuki lotzeko modukoak direnak.

1.3. Baztango mintzoa eta euskalkiak

Bonaparte izan zen euskalkien sailkatzeaz eta mintzoen desberdintasunen azterketaz modu sistematiko batean arduratu zen lehenbiziko hizkuntzalaria. Bera da euskal dialektologiaz arduratu den lehenbizikoa, Baztanen bizi baina Urdazubin sortua zen Bruno Etxenike izan zuela hainbertze lanetan lagun². Bonapartek Iparraldeko eta Hegoaldeko hizkerak bereizten

2 Bonapartek laguntzaile aunitz izan zuen bere garaian, Euskal Herri osoan. Hala ere, laguntzaile horien artean, berezia da B. Etxenikek hartzen duen tokia. Bonapartek berak argi eta garbi onartzen du hori, eta espresuki eskribitua utzi zuen. Bruno Etxenikek egin lanak liburu honetan ikusten ahal dira: P. Salaburu (1980), *Baztango euskalkiaz* (I), Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. Etxenikeren bertze lan bat hemen: P. Salaburu (1986) “Baztango euskalkiaz: Elizondoko Doktrina bat” in ASJU XX-3, 1986, 817-844.

zituen Nafarroan, bi (azpi)euskalki, bada. Egin zituen lanetan sailkapen bat baino gehiago proposatu bazuen ere (ikerketa gero eta zorrotzagoak egiten zituen), Bonaparteren ustez (1881) Baztango euskara lapurteraren multzoan sailkatu behar zen.

Mitxelena ez zen zuzenean arduratu euskalkien kontuaz, baina bere lanetan etengabeko oharra eta argibideak badira euskalkien ezaugarriez. Baztani dagokionez, zalantzak izan zituen eta batzuetan nafarra zela uste izan zuen, baina bertze batzuetan lapurterarekin batean sartu zuen.

Koldo Zuazo ere aspalditik ari da lanean euskalkien sailkatzearen kontu honekin. Berak zorrotzago jokutzen du Bonapartek baino eta Nafarroako hizkeretan hiru azpieuskalki bereizten ditu (2003, 104): sartaldea, sartaldea eta erdigunea, eta haren ustez sartaldeko azpieuskalkia da bereziena. Hona hemen Zuazoren mapa:





Ipar-sartaldeko hizkerak besarkatzen ditu Bortzirriak, Malerreka eta Bertizarana, Bidasoa erreka inguruan diren herriak. Eta Baztan bera ere, jakina, nahiz Baztanek, bazterrean dagoenez, loturak izanen lituzkeen lapurterarekin ere, bi aldeetako ezaugarriak erakutsiz, zubi batean egonen balitz bezala. Hortaz, tarteko hizkeratzat jotzen du Zuazok. Baztan, “mugan dantzan” dio berak. Mugan dago, eta aldatzen ari da, lehen ere aipatu dugu, nafarrera moldatzen. Hona hemen Zuazok ematen dituen ezaugarri oinarritzko batzuk, gertatzen ari den aldaketaren erakusgarri izanen liratekeenak (Zuazo, 2003, 107):

- Sudurkarien (*m*, *n*, *ñ*) aitzinean, *o* bokala *u* bihurtzen da, Ipar Euskal Herrian: *hunek*, *huni*... Baina joera hau Baztanen ahuldua da aspaldixko eta hitz markatu batzuetan bakarrik gertatzen da (*untzi*, *hunten*).
- Erdaratik hartutako hitz batzuek, jatorrian *-on* hartzen bazuten akaberan, *-oin* egiten dute euskara nafar-lapurteran: *razón* > *arrazoin* (*arrazoñe*), *ratón* > *arratoin* (*arratoñe*). Baina maileguak berriak direnean ez da holakorik gertatzen: *melona*, *balona*.
- Ipar Euskal Herriko *-rat* amaiera ahuldua da arras eta, batez ere gazteen artean, hitz bakan batzuetan ez bada, ez da ibiltzen.
- Erramolde batzuk, *mendiari buruz gan zen* bezalakoak, zaharrek bakarrik ibiltzen dituzte, gazteek nahiago baitute *mendi aldera gan zen* bezalakoak. Egia badiot, aski bakanak dira hauek, neketan, inoiz bada, aditzekoak.

- Bustidura indartsu ageri da Basaburuko herrietan, Iparraldetik urrunduz.
- Baztango mintzoan hain maiz gertatzen diren kenketek, hau da, aferesiek (*karri, purdi, man*) eta sinkopek (*abre, hasertu, harpatu*) Nafarroako hizkerarekin lotzen dute gehiago Iparraldekoarekin baino, nahiz ez diren modu berean gertatzen kenketa hauek (*harpatu – harrautu – harraptu; bedratzi – bedetzi...*) Bidasoa osoan. Hala ere, ohart gaitezen sinkopa batzuk ez direla arrotzak batere Iparraldeko toki batzuetan, eta Baztanen bezal-bezala ahoskatzen direla: *pastu (pasatu), atsalde (arratsalde, igurzketa hutsa ere izan daiteke, ikusi geroago), erten (erraten)* adibideak bildu ditu I. Epeldek (2003, 69) Larresoroko euskaraz egin duen tesia dela-eta, hango bazterretan. Baigorri *mazte* eta Alduden *purdi* bezalakoak ere bildu izan dira, aferesiak kasu hauetan, baztandar anitzek erranen luketen gisan. Berdin gertatzen da geroa markatzeko Baztanen ibiltzen den *-tiko* amaierarekin ere.
- Bokal asimilazioaren berrikuntza (gero ikusiko duguna: *aita > aite*) indartsu ageri da Baztanen eta Ultzaman (ez Zugarramurdin edo Urdazubin, ezta Bidasoan ere) eta hori ere nafar euskalkiaren ezaugarria da.
- Adizki laguntzailearen sailak nahasten dira (*nau – datzut*), Iparraldean ez bezala.
- Hiztegian badira hainbertze hitz Iparraldearekin lotzen dutenak: *aiztur* (hau Bidasoan ere), *andana, izkilin, pitike, xilko, ...*

Hau guzi hau dela eta, Baztango hizkera izanen litzateke hizkuntzaren aldaketaren berri ematen digun ispilu argi bat, handik eta hemendik hartzen baititu ezaugarriak, batzuek alde batera joaten dutenak, eta bertze batzuek bertze alderat. Ez dezagun atzendu, dena dela, Baztango mintzoaren ezaugarriak azpimarratu nahi baldin baditugu ere, mintzo hau goi nafarrera eta lapurteraren zubia izanik ere, euskararen partea dela. Euskara, bere aberastasunean, eta bere aldaera guztietan, bat bakarra baita: mintzo guziak zuhaitz beraren adarrak baizik ez dira.

Halaxe gogoratzen zuen aspaldi adierazpen batean Euskaltzaindiak 1979an: “Euskaltzaindiak uste du (...) badela oraindik, lehen ere izan den bezalaxe, euskara bakar bat euskalkien ñabardurak estaltzen eta itxuraldatzen ez duena. Euskalkien eta tokian tokiko hizkeren arteko bereizkuntzak, egungo egunean ere, axaleko itxuraldatzeak dira batik bat, hizkuntzaren muin sakona bere iraunkor hartan uzten dutenak. Hizkuntzaren oinarri batu hori, eta oinarri horren egitura (euskalki guz-

tien egitura komuna) dira beti gogoan eduki behar ditugunak, gure aha-
leginak euskararen batera-biderako, eta ez berezirik daudenen sakaba-
natzeko, izan daitezen”.

Berriz ere, 2004an atera duen adierazpen batean holaxe dio: “Euskara
batuko eta euskalkietako adierazpideek, idatzizkoek nahiz hitzezkoek, elka-
rren aberasgarri izan behar dute: zehatzago erranik, euskalkietako formek
berezko bide izan behar dute euskara batuko formetara heltzeko. Bertzeak
bertze, hiztegian, syntaxian eta esapideen arloan, euskara batua eta euskal-
kiak ukipenean daude, bi errealitate horiek bizi-biziak direla”.

2. KAPITULUA

FONETIKA ETA FONOLOGIA

2. KAPITULUA

FONETIKA ETA FONOLOGIA

2.1. Fonetika

Erran dugun gisan, fonetika mintzo baten soinuez arduratzen da. Fonetikak aztertzen du bokalak eta kontsonanteak ebakitzeko modua, “letren” (zehatz-mehatz mintzatuz, ez dira “letrak”, baizik “soinuak”, baina utz dezagun kontua hor) ezaugarri fonetikoak: nola ahoskatzen eta ebakitzen ditugun, eta zer nolako ezaugarri akustikoak dituzten. Eta gero, jakina, soinu hauek bata bertzearen ondoan jartzen ditugunean (hitz egitean, erran nahi dugu), kateatze horrek sortzen duen hizkera doinua nolakoa den ere aztertzen du: denak ohartzen gara aski desberdinak direla Baztango mintzozan eta Azkoitikoan, konparazione, “entzuten” ahal diren doinuak. Horretaz ere fonetikaria arduratzen da.

Hitz egitea, ahoskerari dagokionez, nahiko prozesu fisiologiko konplexua da, modu automatikoan eta ohartu gabe egiten badugu ere. Aurkezpen honetan, hala ere, oinarrizko gauzetan bakarrik ohartuko gara, betiere eus-kara dugula gogoan. Hau da prozesua, bi hitzetan paratua: airea biriketarik ateratzen da eta ahoskordetatik³ pasatzen. Ahots hariak hetsiak izaten ahal ditugu, edo irekiak. Arruntean, isilik gaudelarik-eta, ahots hariak irekita daude, deskantsuan. Hitz egiten ari garelarik, txandakatur ibiltzen ditugu, hetsi eta irekiz, lastertasun handiarekin gainera. Irekiak baldin badira, airea goiti doa bertze trabarik gabe. Aldiz, malgutasunezko heste moduan baldin badira (arras hetsiak ez, bertzenaz gure inguruan ezagutzen ez dugun soinu

3 Hizkuntzalaritaz arduratzen direnen artean ‘ahoskordak’ edo ‘ahots hariak’ ibiltzen dira kontzeptu bera izendatzeko.

bat –herskari glotala- izanen baikenuke), airearen indarrak berak dardarazten ditu, elkarren artean igurtziz, eta airea presioarekin pasatzen da tartetik. Kasu batean edo bertzean, azkenean ateratzen den soinua diferentea da:

- Bokaletan, ahots harien dardara gertatzen da.
- *b* soinua ere, konparazione, ahoskorden dardarekin ahoskatzen dugu.
- *p* soinuan, aldiz, airea trabarik gabe pasatzen ahots harietatik.

Behin ahots hariak pasatu ondoren, aireak bere bidea segitzen du. Sudurretik ateratzen ahal da, edo ahotik. Zuzenean sudurretik ateratzen bada, bertze gihar batzuekin egiten ditugun mugimenduekin konbinaturik, sudur hotsak ahoskatzen ditugu: *m* kontsonantea, konparazione. Airea ahotik ateratzen baldin bada, kanpora joan aitzinetik, hainbertze traba aurkitzen ahal ditu bidean, mingainak, hortzek edo ezpaineak trabatzen ahal baitute haren ibilbidea. Berez, erraten ahal da ahoa soinu kutxa berezi bat dela, eta bere neurriak, itxura, ezaugarriak, eta abarrek, mingainaren⁴ mugimenduak (non jotzen duen, non ez), aldatzen duela. Eta soinu kutxaren ezaugarri horiek aldatzean, ateratzen diren soinuak ere aldatzen dira, kutxak hartzen duen itxuraren araberean.

Aireak trabarik aurkitzen ez badu, bokalak ahoskatzen ditugu. Baina batzuetan mingainak jartzen du traba hori, airearen erdi-erdian jartzen baita. Ahoskatzen ditugun kontsonanteak aldatzen dira orduan: hola, arras goititzen badugu mingain gorputzaren gibelesko aldea soinu batzuk emanen ditugu (*k*); gorputzaren erdi aldea goititzen badugu, bertze batzuk (*ll*); mingain puntarekin hortzak ukitzen baditugu, bertze batzuk (*t*); edo hortzek ezpainak ukitzen badituzte, azkenean, bertze batzuk (*f*); adibide batzuk emategatik. Kasu horietan guztietan, mingainak –ohartu gabe egiten ditugun mugimendu batzuekin–, modu bateko edo bertzeako traba jartzen dio bartenetik heldu den aireari, eta horrek berak eragiten du soinu bat edo bertzea ateratzea.

Zenbaitetan, traba hori ezpaineak jartzen dute, ez bakarrik mingainak: airea indarrean heldu eta bat-batean ezpainak loturik daudenez, hantxe gelditzen da (hori gertatzen da *b* ebakitzen dugularik, adibidez). Erran dezagun, zernahi gisaz, bertze hizkuntza batzuetan badirela aire pasa trabatze-ko bertze modu batzuk ere: horregatik (eta bertze arrazoi batzuegatik ere) dira hain desberdinak, edo aditzen ditugu hain desberdin, mintzo bateko eta bertzeako soinuak.

4 ‘Mingaina’ diogu, ez ‘mihi gaina’, hola erraten baitzaio Baztanen ‘mihi’-ari

Hau da oinarri-oinarrizko prozesua, aunitz gauza ez baititugu aipatu hemen. Honen guztiaren eraginak deskribatuko ditugu ondoko lerroetan, Baztango mintzoaren soinuen berri ematen dugularik.

2.1.1. Bokalen sistema

Bokalei dagokienez, hango mintzoak –gainerako euskalkiekin ere, Zubereraren kasuan baizik ez, berdin gertatzen da–, ez du aparteko bereizketarik. Bortz bokal ditugu: *i*, *e*, *a*, *o*, *u*: “ari”, “eri”, “alaba”, “ero”, “ura”. Irakurlea konturatuko zenez, ez dugu eman hemen bokalen hurrenkera eskolan ikasi genuen gisan. Arrazoia hau da: bokalak ahoskatzeko orduan mingainak du zeregin handiena. Non jartzen dugun mingaina, aitzin alde-
ra ekarria edo gibelat botaea, airea biriketatik pasatzean, ahoak itxura desberdinetako kutxa akustikoak osatzen ditu. Hala, “a” bokala ebakitzeko, mingaina beheitiko aldean jartzen dugu, pixka bat gibel alde-
ra eramana. Horrek osatzen du kutxarik handiena, irekiena, eta airea traba gabe pasatzen da hortik: hori da hitz egitean aireak harrapatzen duen zirrito handiena. Horrexegatik erraten digu medikuak, gure zintzurra ikusi nahi duelarik, “a” errateko: bai baitaki horrekin irekiko dugula ahoa arras. Kontsonante bat ahoskatzeko eskatuko baligu, “g”, konparazione, zintzurra hetsia geldituko litzateke eta medikuak ez luke deusik ikusiko zilotik begiratuta ere. Berdintsu gertatuko litzaioke bertze bokal bat ebakitzea eskatzera etorriko balitz: “i” ahoskatzeko mingaina aitzinatu egiten dugu, eta goititu, bidea arrunt hetsi gabe gelditzen bada ere. Ziloa aise ttipiagoa da, eta arteka horretatik medikua ez da gai ongi ikusteko gure zintzurra haserretu ote zai-
gun edo nonbait hoztu.

Beraz, orain badakigu nola ebakitzen ditugun bi bokal hauek, “a” eta “i”. Horien antzera, “u” bokala ere “i” bezala ebakitzen dugu, baina mingaina gibelat botaz. Hau paper batean irudikatu nahi badugu, triangelu bat ibiltzen ahal dugu: triangelu hori buruz beheiti jarritz gero (piramide irauli bat beza-
la), beheitiko erpina izanen litzateke “a”, aitzinekoa “i” eta gibe-
lekoa “u”. Eta triangelua bera izanen litzateke kutxa akustikoa. Hiru bokal horiek dira oinarrizko bokalak, eta garbienak. Gelditzen zaizkigun bertze bi bokalei tokia harrapatzea ez da zaila: “i” eta “a” bokalen artean ahoskatzen dugu “e”, mingaina aitzinatuz eta, garaierari dagokionez, ahoaren erdi aldean jarritz, eta “o” bokalarekin ere gauza bera, baina oraingoan mingaina gibe-
lat eramanez. Orain hobeki konprenitzen ahal da hemen hasieran eman dugun hurrenkera (*i*, *e*, *a*, *o*, *u*), ahoskeraren hurrenkera islatzen baitu: aitzinetik gibelat, mingaina beheititu eta goitituz.

- *ab-i-la*: mingaina aitzinatua eta mingain gorputza goititua.
- *b-e-larra*: mingaina ez goiti ez beheiti, erdi aldean, baina aitzinatua.
- *al-a-ba*: mingaina gibelat eramana, eta beheitua.
- *k-o-loka*: mingaina ez goiti ez beheiti, erdi aldean, baina gibelatua.
- *ah-u-la*: mingaina gibelatua eta mingain gorputza goititua.

Jakina, hau hola izanik, triangelu horrek bertze hainbertze aukera eskaintzen dizkigu: posible da, konparazione, Baztanen ditugun bortz bokal horiek baino bokal guttiagoko hizkuntzak izatea munduan? Bai, Hego Ameriketako dermio zabal batean mintzatzen den kitxua hizkuntzak hiru bokal ditu bakarrik (*i*, *a*, *u*). Eta kontrakoa ere gertatzen ahal da, bortz bokal horiek baino gehiagoko hizkuntzak izatea. Euskaraz ere gertatzen da: zubererak badu seigarren bokal bat (*ü*), bertze euskalkietan arrotz gertatzen dena. Eta frantsesak, katalanak edo ingelesak, konparazione, aise bokal gehiago dituzte. Horregatik egiten zaigu hain aldrebasa hizkuntza horiek behar bezala ahoskatzea. Erran dezagun, azkenik, kuriositate gisan bada ere, gaztelaniak ere, euskarak bezala, bortz bokal dituela, eta hori, batzuen ustez, euskararen eragina izaten ahal dela, inguruko hizkuntza erromaniko guztietan bokal gehiago baita. Baina hori hala izanik ere, egia da munduko hizkuntzetan arras arruntak direla bortz bokaleko sistemak. Hizkuntzak elkarren artean ukitan daudelarik, eraginak bi aldeetara gertatzen dira, batzuetan eragina norabide bakarreko kontua dela uste baldin badugu ere. Ez da erran beharrik gehiago, nabarmena baita, adibidez, Baztango mintzokak, adin batetik goitikoekin segurik, nolako eragina duen baztandarren arteko erdaran: maizago entzunen duzu *salchicha* edo *salsa* ahoskatu beharrean, *saltsicha* edo *saltsa* ahoskatzen duen jendea. Berdin *qué dizes*, *qué hazes*⁵... bezalakoetan, edo *qué tRaes* markatu hori, iduri baitu mingaina trabatu dela.

Erpinetan *i*, *u* eta *a* bokalak dituen triangeluari, triangelu bokalikoa deitzen diogu. Gelditzen zaigun azken galdera hau da: bortz bokaleko triangelu hori, gainerako hizkuntzetako bortz bokaleko triangeluak bezalako da? Bertze hitzetan paratzeko: *i*, *u* eta *a* soinuen arteko “distantzia”, triangeluaren barnean, berdina da euskaraz eta gaztelaniaz? Honi erantzuteko neurketa akustiko berezi batzuk egin beharko genituzke, baina iduri du ahoskatzeko puntuak hurbilago daudela euskararen kasuan, gaztelaniaren kasuan baino. Beharbada, horregatik (ez horregatik bakarrik, baina horre-

5 Eta hemen ‘s’ hori ere aztertu beharko litzateke, aski markatua eta luzea ageri baita.

gatik ere) gertatzen dira euskaraz horrenbertze bokal aldaketa. Gauza jakina da, dena dela, bokal hauen ahoskera inguruko kontsonanteen arabera ere aldatzen dela.

Azken ohar bat orain: horiek dira, nolabait ere errateko, “bokal garbiak”, hitz honi hemen eman nahi diogun erranahiarekin. Ez da bokal garbia, konparazioe, “etxia” hitzean ebakitzen dugun “i” hori, ez -artikulazio eta akustikaren ikuspuntutik-gainerakoak bezalakoa ez delako, baizik “i” hori -lehenago ikusi dugun adibideak erakusten duen gisan- ez baita berezko “i”, bertze bokal baten aldaera baizik: hor, bistan da, “etxe” dugu egiazko hitza, eta “e” egiazko bokala. Ez dugu galdetzen “zenbat etxi”, baizik “zenbat etxe”, hau da, azkeneko “a” artikulua kentzen diogunean, hitza bere zinezko egoerara itzultzen da eta garbiki erakusten digu zein den azpian, isilean dagoen bokala. Hau da, hain zuzen ere, fonologiak aztertzen duen kontuetako bat, hemen aldaketa fonologiko bat gertatu dela erraten baitugu.

Gramatika honetan ez gara hizkera doinuaz, azentuaz, arduratuko, horrek ikerketa berezi bat eskatzen duelako, eta ezarri nahi ditugun muge-tatik kanpo gelditzen zaigulako.

2.1.2. Kontsonanteen sistema

Lehenago “garbi” hitza ibili dugu, bokalei buruz ari ginela. Eta orain ere hitz bera ibiliko dugu, nahiz ez den hitz hau sobera aproposa hizkuntzalaritza kontuekin ari garelarik. Hala ere, honekin azpimarratu nahi duguna da Baztango kontsonantismoa gardena dela, eta batez ere zenbait euskalkitan nahasian ageri diren frikari eta afrikatu multzoak, garbi bereizten dituela arruntean baztandar hiztunak: *atzo, atso, etzi, hazi, hesi, hotza, hotsa,...* ongi bereizten dira oro har. Hori da kontsonante sistemaren lehenbiziko ezaugarria.

Kontsonanteak multzoka sailkatu nahi baditugu, lehenbiziko multzoa herskari ahostunek osatzen dute: *b, d, g*. Multzo honetako kontsonanteak ahostunak dira: airea biriketatik ateratzen denean, ahots hariak dardarazten ditu. Hori gertatzen da hiru hitz hauekin:

- *-b-aldin*: leherkari ahostuna, aire pasa ezpainek geldiarazten dute.
- *-d-a*: leherkari ahostuna, aire pasa mingain aitzin aldeak eta hortzek gelditzen dute.
- *-g-uziak*: leherkari ahostuna, aire pasa mingain bizkarrak eta ahosabai bigunak gelditzen dute, gibleko aldean.

Hiru soinu hauek, bokal artean gertatzen direlarik, arras modu laxoan ahoskatzen ditugu, hain laxo non batzuetan desagertzen baitira (*aitu* erraten da, ez *aditu*). Multzo honek baditu parean bertze hiru, berdin-berdin ahoskatzen direnak: *p*, *t*, *k*. Baina kasu honetan aireak ez ditu dardarazten ahoskordak, hauek ireki egiten baitira, airea inolako trabarik gabe pasa dadin. Horregatik deitzen ditugu lehenbizikoak ahostun, eta bigarrenak, berriz, ahoskabe. Leherkariak dira hiru hauek:

- *aur-p-egia*: leherkari ahoskabea, aire pasa ezpaineak geldiarazten dute.
- *ai-t-a*: leherkari ahoskabea, aire pasa mingain aitzin aldeak eta hortzek gelditzen dute.
- *han-k-a*: leherkari ahoskabea, aire pasa mingain bizkarrak eta ahosabai bigunak gelditzen dute, gibelesko aldean.

Ezpain-hortzekin ahoskatzen dugu *f* soinua ere, eta hau ere, nola bertze euskalki batzuetan *p* gisa ahoskatzen den, Baztanen garbia da: *afaldu*. Hau ere ahoskabea da, ahots hariak ez baitute dardararik egiten: airea inolako trabarik gabe pasatzen da puntu horretan.

- *a-f-aria*: igurzkaria, ezpain-hortzetakoa eta ahoskabea.

Badira bi soinu, *m* eta *n*, sudurkari deitzen ditugunak. Zergatik? Ahoskatzen ditugunean, airea sudurretik ateratzen baita. Hola, konparazione, *meza* eta *belai* hitzetako lehenbiziko soinua berdintsu ahoskatzen da bi hitzetan: desberdintasuna da lehenbizikoan airea sudurretik ere ateratzen dugula, eta bigarrenean, berriz, ahotik bakarrik. Ibiltzen dugun mekanismoa aski sinplea da: hitz egiten dugunean, ahogingila goititua izaten da (zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta laxoago, horregatik egiten da zurrunga ohatzean), eta ez du uzten airea sudur zuloetatik ateratzen. Hots hauek ahoskatzean, ahogingila behehitzen da, eta zulo hori askatua gelditzen da. Hola ahoskatzen dugu *n* ere: *hanka*. Gauza jakina da, hala ere, soinu honen artikulazio puntua aitzinatu edo gibelatu egiten dugula, ondotik heldu den soinuaren arabera: *hainbertze*, *handik*, *han*, *hanka* hitzetan ageri den *n* hori modu desberdinean ahoskatzen dugu aldi bakoitzean.

- *-m-eza*: sudurkaria, ezpainkaria eta ahostuna.
- *ha-n-dik*: sudurkaria, hortz hobietakoa, ahostuna

Bertze multzo batean sartzen ditugu *l*, *r* eta *rr*: *elea*, *ura*, *erreka*. Hauek guztiak ahostunak dira. Ahoskatu ere, hortz hobietan ahoskatzen ditugu mingainarekin. Gehien lan egiten duen organoa mingaina da, mingainaren aitzinaldea.

Lehenbizikoaren kasuan (*l*), mingaina *n* ebakitzeko bezalatsu jartzen dugu, baina alde batetik (edo bietatik, hiztunaren arabera) uzten dugu airea pasatzen: hortaz, *n* eta *l* aski parekoak dira ebakitzeko orduan, baina lehenbizikoan, erran dugun gisara, airea sudurretik ateratzen da, eta bigarrenetan ahotik, mingainaren alde batetik, mingainak traba egitean libre uzten duen zirritu batetik. Horregatik deitzen zaie ‘albokari’ ere holako soinu motei.

Bertze bietan (*r*, *rr*) dardarkariak deitzen ditugu: mingain puntak hortz hobiak ukitzen ditu, baina ukitzean berean, biriketarik heldu den aireak laxarazten du lotura hori. Kontua da, ordea, mingaina malgua dela, eta berriz ere itzultzen da hortz hobietara. Mugimendu hori arras arina da eta lastertasun handiarekin gertatzen da, gu ohartu gabe ere. Holako zerbait gertatzen da baldin gure ondo-ondotik auto bat lastertasun handiarekin pasatzen bada, horrek gure inguruko airearen burrunba bezalako zerbait sortzen baitu. Berdin, ikurrin bat jartzen bada, haizeak dar-dar mugitzen du. Dardarkari hauek ez dira berdin-berdinak: dardarkari bakuna da bat, soila, eta hor airearen pasa trabatzen da, *d* ahoskatzen dugunean egiten den gisara, mingain kolpe batekin. Bietan eragiketa muskular bera ibiltzen dugu, dardarkariaren kasuan mingaina gibeltxoago jarritz (horregatik nahasten ditugu Baztanen, aunitzetan hiztun berak gainera, *ereki* eta *edeki*, *idebazi* eta *irebazi*, edo *iduzkie* eta *iruzkie*): hau gertatzen da hiztuna modu “formaltxoago” batean hitz egiten saiatzen delarik ere. Aski da horretarako Euskaltzaindiko hizkuntza atlasa egiteko bildu den materiala arreta pixka batekin aztertzea. Bokal artean, *d* hotsarekin gertatzen den gisan, laxaturik ahoskatzen dugu, eta batzuetan ez da entzun ere egiten. Bertzea (*rr*), dardarkari anizkuna deituko dugu. Lehenbiziko soinuak dardara bakarra du, bigarrenak hiruzpalau inguru, eta muskuluen tentsioa handiagoa da lehenbiziko kasuan baino:

- *e-l-ea*: hortz hobietakoa, albokaria, ahostuna.
- *e-r-e*: hortz hobi gibealekoa, dardarkari bakuna, ahostuna.
- *e-rr-e*: hortz hobi gibealekoa, dardarkari anizkuna.

Ondoko multzoa kontsonante txistukarietako eta txetxekarietako osatzen dute: frikarietako (*z*, *s*, *x*) eta afrikatuetako (*tz*, *ts*, *tx*). Lehenago adierazi dugun gisan, kontsonante hauek guztiak ongi bereizten dira Baztanen. Denak ahoskabeak dira, nahiz frikarien artean, kasu bakan batzuetan, inguruko bokal edo kontsonante ahostunaren eraginez, ahostun ere ebakitzen ditugun (horietan *gasna* da batzuetan adibide argia). Ikus ditzagun bakarka.

Nola ebakitzen dugu *zabala* hitzean ageri den *z* hori? Antza denez, iduri du badirela Baztanen bi modu nagusi ahoskatzeko. Arruntenean hau gertatzen da: ahogingila goititzen dugu, airea ahotik bakarrik pasa dadin, eta ez sudurretik; mingain punta aitzintzen dugu, azpiko hortzak ukitu arte, eta horrekin batean azpiko baraila ere aitzintzen da pixka bat; aldi berean mingain bizkarraren aitzineko aldeak bazterretako hortz hobiak ukitzen ditu, tartean zirrito estu bat utzirik. Hortik pasatzen da airea, ingurua igurtziz. Non ukitzen dituen mingainak azpiko hortzak, sorreran berean edo goiti-xeago, milimetro batzuen kontua da, *z* horrek bi ahoskera desberdin ditu. Biak entzuten dira Baztanen (eta badirudi historian zehar biak parean ibili izan direla), baina bigarrena, zenbat eta goitiago ahoskatu, gogorrago, erdaratuago bezala, gertatzen da.

Bigarren kontsonantea *s* da, *hasi* bezalako hitz batean aditu daitekeena: ahogingila goititua, mingain punta bildu egiten dugu gaineko aldera, igurzte-*tea* goitiko hortz hobien parean gerta dadin. Ikusten den gisan, artikulatze modua *z* soinuarekin konparatuz gero, aski desberdina da.

Azkenik, *x* dugu, *goitixeago* bezalako hitzetan ageri dena. Ahots hariak irekiak, ahogingilak sudurreko aire pasa tratatzen du, eta mingaina pixka bat goititua gelditzen da. Mingainaren bizkar aitzin aldeak ahosabai gogor-raren parean egiten du traba, eta mingainak berak ere hortz hobien muga, punta libre utziz deus ere jo gabe, baina beheitiko aldera pixka bat bihurtua. Sabaikaria deitzen zaio horregatik, aho sabai aldean gertatzen baita traba osoa.

- *a-z-a*: ahoskabea, igurzkaria, mingain punta beheitiko hortzen kontra, eta mingaina goititua.
- *ha-s-i*: ahoskabea, igurzkaria, apikaria.
- *galdu-x-e*: ahoskabea, igurzkaria, sabaikaria.

Ohart gaitezen aunitzetan, gure mintzoari halako ñabardura berezi bat eman nahi izaten diogunean, ume bati diogun maitasuna eta hurbiltasuna adierazteko konparazioe, ebakitze modua aldatzen dugula: *azeri/axeri*, *zakur/xakur*, *zerri/xerri*, *ziztor/xixtor*...

Kontsonante frikariak badituzte ondoan bertze hiru kontsonante afrikatu: *tz*, *ts* eta *tx*. Hauek ere, gure ustez, ongi bereizten dira Baztanen: *atzo*, *atso* eta *mantxo* modu garbian ebakitzen ditu baztandar hiztunak. Kontsonante hauek ahoskatzeko, bi mugimendu nagusi egiten ditugu: has-tean traba osoa egiten diogu aire pasari, mingainaz baliatuz, *t* ahoskatzean bezala, eta berehala traba hori laxatzen dugu, baina ez kolpean, baizik

pittaka. Traba pittaka libratzean, aireak mingain ingurua igurzten du, ‘ziztu’ berezi hori eginez. Batzuetan zalantza ere agertu izan dute hizkuntzalariek, soinu bakarra ote dugun hor, edo bi soinu desberdin ote diren. Gaur egun onartzen da soinu bakarra dela, bi partetan emana. Hasierako trabatze horrek, gainera, badu desberdintasun argi bat *t* soinuarekin konparatuz gero, ez baita *t* soila bezala ebakitzen: *ate* eta *atso* hitzetan ageri den *t* horren ebakera aski desberdina da, bigarren kasuan *s* artikulatzen dugun toki berean ebakitzen baitugu. Berdin, *atso* eta *manxro* hitzekin: artikulazio puntua gibelatu egiten da, non ebakitzen ditugun normalean *z* eta *x*. Horregatik, bertze arrazoi batzuen artean, hartzen dugu soinu bakartzat. Hortaz, hiru soinu afrikatu hauek, parean dituzten lagunen kideak baizik ez dira, eta haiek bezala ahoskatzen ditugu, hasieran traba hori jarritz. Erran dugun gisa, frikariak igurzkariak dira. Hauek ere igurzkari, bai, baina bigarren mugimenduan bakarrik.

- *a-tz-o*: afrikatua, ahoskabea, mingain punta beheitiko hortzen kontra, eta mingaina goititua.

- *a-ts-o*: afrikatua, ahoskabea, apikaria.

- *man-tx-o*: afrikatua, ahoskabea, sabaikaria.

Orain ikusiko ditugunak sabaikariak dira: *tt*, *dd*, *ñ* eta *ll*. Soinu hauek *ttantta* (ardoari hola deitzen zaio batzuetan), *Maddalen*, *gaña* (eskribitzeko orduan: *gaina*) eta *olloa* (eskribitzean: *oiloa*) *onddo*, *pattarra*... bezalako hitzetan ageri zaizkigu. “Sabaikari” deitzen ditugu mingainarekin aho sabaiaren kontra ebakitzen baititugu. Mingaina goititzen dugu bere egoera naturaletik eta ahoaren gaineko parte a jotzen du, *tx* soinuaren kasuan baino pixka bat gibeltxoago. Mingain puntak azpiko hortzak jotzen ditu, *z* soinuaren kasuan bezala, baina orain mingain gorputzak trabatzen du osoan airearen pasa. Gero badira bereizketa batzuk: *tt* eta *dd* ahoskorden dardaran bereizten dira, lehenbizikoa dardararik gabe ematen baitugu (ahoskabea), eta bigarrena ebakitzeko ahots hariak dardarazten baititugu, eta batzuetan, ingurunearen arabera, igurzkari gisa ere ebaki; bertetik, *ñ* sudurkaria da, eta hori ebakitzean, aho gingila beheiturik, airea sudurretik ateratzen da hersketak iraun bitartean, eta, azkenik, *ll* ebakitzean, mingainaren alde batetik uzten dugu airea pasatzen (*l* soinuaren kasuan bezala).

- *ttan-tt-a*: sabaikaria, leherkari ahoskabea

- *Ma-dd-alen*: sabaikaria, leherkari ahostuna

- *ga-ñ-a*: sabaikaria, ahostuna, sudurkaria

- *o-ll-oa*: sabaikaria, ahostuna, albokaria

Gelditzen zaigu oraino bertze azken soinu bat, Baztango hizkeran bazterrekoa dena (edo izan dena, bederen), eta batez ere erdaratik hartutako hitzetan ageri dena: *jirafa*, *potajia*, *jertsea*, *jesuita*, *jerez*, eta holakoetan entzungo dugu. Horiekin batera, izen bereziekin (*Juan*, *Josefa*) eta *ja*, *adaje* eta *kojoña* hitzetan ere (*deus*, *ezer ere* erran nahi du lehenbizikoak, baina ez dut uste izentzat hartzen ahal den, eta hirugarrenean *j* hori bertze soinu baten ordeztu dago, bistan da).

Horiekin, diogun bezala, bazterrekoak dira, arruntean Baztango hizkeran “j” letrarekin eskribitzen ditugun soinu gehienak, salbuespen horiek kendurik, sabaikari bezala ahoskatzen baititugu: *Jainkoa* hitzeko “j” eta *Maddalen* hitzeko “dd” berdintsu ebakitzen ditugu “y”, eta ez Gipuzkoan edo Bizkaian ebakitzen diren gisan, eskualde haietan erdarazko “j” bezala ebakitzen baitira (Baztandik atereaz gero, Malerrekan, *Jainko* eta *Yainko* aditzen dira, biak). Baztango testuetan txandakatzen dira, baina ez da zalantzarik “y” dela nagusi hiztunen artean. Bertze hitz teknikoago batzuetan erran nahi baldin bada: Baztanen sabaikariak egiten ditugu, eta Baztandik Gipuzkoa aldera belarrak eta sabaikariak dira, aise gibelago ebakitzen direnak. Hala ere, ñabardura bat: soinu hori bokal artean dagoelarik igurzkaria da. Horregatik, bi hitz horietan, alde batetik begiratuta erran daiteke berdin ebakitzen direla, baina bertzetik ez: *Jainko* hitzean ageri den hasierako kontsonantea leherkaria da, baina *Maddalen* hitzean soinu hori igurzkari bihurtzen da. Berdin gertatzen da *yoyak* hitzean ere, horko bi kontsonanteak ez baitira berdin ebakitzen.

Azken ohar bat: oro har, *ll* eta *dd* (edo *y*, berdin da) soinuak ongi bereizi izan dira Baztanen, baina iduri du azken aldiotan, gazteen artean bereziki, bien arteko mugak urratzen ari direla eta biak berdin ebakitzen direla, albokaritasuna galduz.

2.1.3. Nola egituratzen diren soinuak hitzak sortzeko orduan

Uste izan dugu interesgarria izaten ahal zela behin soinuen ezaugarriak zein diren erakutsi ondoan, ikustea nola antolatzen diren soinuak hitzak osatzeko orduan, nolako debekuak dauden, eta abar. Hala ere, hau egitean, batzuetan fonetikaren mugak gurutzatzen ditugu, kontua ez baita nolakoa den soinu bat, hemen edo han agertzen ahal den edo ez, baizik katean jartzen dugunean, zer gertatzen den bertze soinu baten inguruan dagoelarik. Holakoetan, argi eta garbi fonologian sartzen gara, baina egokia-
go ikusi dugu atal honetan ematea, oraingoz hitzen osaeraz ariko baikara.

“Hitza” baino egokiago litzateke erratea nola antolatzen ditugun “morfemak”, hau da, nola elkartzten diren euskal soinuak Baztango hizkeran erra-

nahia duten gutieneko unitateak sortzeko orduan. Pixka bat gehiago azalduko dugu kontu hau. Jo dezagun holako zerbait aditzen dugula:

berantegi gantzen Joxe Tomas

Hor, orainokoa, *gantzen* hori (“joan zen”) da interesatzen zaiguna: dena elkarturik ematen dugu, hitz bakarra balitz bezala-edo. Baina badakigu ez dela: *gantzen* horren ondoan bai baitugu *etzen gan*, ezezka jartzen badugu, edo *gan ote zen* bezalako zerbait, “ote” zalantza partikula hori sartzen badugu. Hortaz, azkeneko multzo horretan morfema bat baino gehiago dago. Hiru, gutienez: *gan-ote-zen*. Horietako bi elkartzen direnean, “gan” eta “zen”, mintzatzen garelarik *gantzen* ebakitzen dugu, tarteko *z* hori *tz* bihurtuz: *gan zen > gantzen*. Baina ez da hau orain aztertu nahi dugun arazoa, geroxeago itzuliko baikara kontu honetara, fonologiaz aritzen garelarik. Orain gure ardura hartzen duena bertze zerbait da: behin ikusirik zein diren oinarrizko hitzak, nolako legeak daude, legerik baldin bada segurik, soinu horiek elkarren artean lotzeko erranahia duten unitate txikienak sortzen ditugunean? Eta gure adibidean, unitate txikienak, bistan da, *gan*, *ote* eta *zen* dira. Horiei erran diegu “morfema”.

2.1.3.1. Bokalak nonahi agertzen ahal dira

Konturatzen garenez, bokalak nonahi agertzen ahal dira, hitz hasmentan, hitz akabailan eta hitzaren barnean ere, silaba hastean eta silaba akitzean. Zaila da ikustea hemen baden inolako debekurik bokalen banaketan:

Hitz hastean	Hitz barnean	hitza akitzean
<i>asto</i>	<i>ebaki</i>	<i>alaba</i>
<i>etxe</i>	<i>gorrie</i>	<i>urte</i>
<i>itzali</i>	<i>erkin</i>	<i>mendi</i>
<i>orro</i>	<i>borobil</i>	<i>talo</i>
<i>urte</i>	<i>erakutsi</i>	<i>buru</i>

2.1.3.2. Kontsonanteen debeku batzuk

a) Kontsonanteek, ordea, debeku batzuk erakusten dituzte, eta ez dira nonahi agertzen ahal. Debeku hauek gertatzen dira afrikatuekin (*ts*, *tz*, *tx*), eta *r* soinuarekin. Hala, *ts* soinua, konparazione, ez dugu atzemanen hitz hastean, aferesi baten ondorio ez bada (*tsusi*, *itsusi* hitzaren ordez, konparazione, aunitzetan *susi* bezala ere erraten dena). Eta berdintsu gertatzen da *tz* soinuarekin ere, hitz bakan batzuetan ez bada (*tzar*, *tzipetu*), ez baitugu ibiliko hitzei hasmenta emateko. Gauza bera *tx* soinuarekin: *txokolate*, *txa-*

keta edo *txapa* hitz berriak dira, eta bertze tokietako *txakurra*, *txoria*, *txa-pela* edo *txerria* Baztanen *z*-rekin edo *x*-rekin hasten ditugu: *zakurra/xakurra*, *zoria/xoria*... Gainerako euskalkiekin gertatzen den gisan, *r* soinuak ere debeku handiak ditu hitz hasieran, eta arras hitz berriekin ez bada (*restaurante*), ez da holakorik ibiltzen Baztango mintzoan. Aztertu ditugun bertze soinu guziak agertzen zaizkigu hitzaren hastean: *mando*, *buru*, *puzten*, *futre*, *talo*, *dorre*, *zahar*, *soor* (= 'gor'), *xamur*, *lo*, *norbait*, *kendu*, *giltza*, eta abar.

b) Hitz barnean bi edo hiru kontsonante ere agertzen ahal dira, denak segidan, baina debeku argi batzuekin: azken kontsonantea *r* izaten da, multzoko lehenbizikoa *n* edo *l* eta erdikoa leherkari ez ezpainetakoa (*t*, *d*, *g*, *k*): *kontra*, *gangrena*, *andre*, *milindre*, *kontrabando*, *aldrebes*, etab. Ikusten denez, hizkuntzaren sisteman hitz hauek ez dira zaharrenak, sistema zaharrean ez baitziren ageri hain erraz hiru kontsonanteko multzoak. Ez hori bakarrik: hitzaren silabak antolatzekeo egitura normalena da VC edo CV (C= kontsonantea; V= bokala), hau da, silaba laburrak ibiliz. Badira silaba luzeagoak ere: CCV (*gan-gre-na*), VCC (*ha-ma-bortz*), CVC (*gal-du*), etab. Baina hauetan aise maizago ikusiko ditugu bertze nonbaitetik mailegatutako hitzak: *fraille*, *frantsa*, *freskatu*, *frute*, *futre*, *frigorifiko*, *debru*,... Joera da, nolnahi ere, silabak erraztekoa: *Kelementine*, *sobera*, *koloka*. Egia da, horien ondoan, *atra*, *bedratzi* eta *batre* ere baditugula, baina bereizketa sistematikoa egiten da, gure ustez, beti erranahiaren arabera: *atra/atera* (*oraintxe atra da; atera hurbildu da*) eta *batre/bat* ere (*hunek ez daki batre; ez da bat ere gelditu*).

c) Hitz baten barnean frikari edo afrikatu bat baino gehiago agertzen badira, denak sail berekoak dira, artikulazioari dagokionez, non hitza ez den bi hitzen elkarketaren ondorio: *asots*, *eltsuns*, *urtxintx*, *samats*, *zuzen*, *zezen*, *azazkal*, *zimitz*, *osasun*, *itses/isets* (*isats*, jakina), *sasi*, *zozo*, *zorrotz*, *izotz*, *zortzi*, *zizeri* (*zizare*, bertze mintzoetan), *zizel*, *zurruzte*,... Baina hitz elkartuetan ez da arau hau betetzen: *zerripuskek*, *sortzen*, *sortetxe*, *bertzergusu*, *expantuntzi*, *eltzitsu*, *saskaitz*,... Hala ere, batzuetan bada holako hitzetan artikulazio gunea leku berera ekartzeko joera (hau ere fonologiak azaltzen du): *gaitsetsi* erraten da, ez *gaitzetsi*.

d) Hitz barnean bertzenaz ere hedatua den bertze arau bat ezartzen da modu sistematiko batean, orain azalduko ez duguna, fonologiako kontua baita, geroago ikusiko dugun bezala: *itseso*, *ikesi*, *idebazi/irebazi*, *umetu* (*umatu*, bertze mintzo batzuetan), *belauniketu*, *uzterri*, *kirets*, *izigerri*,... dira adituko ditugun hitzak, tarteko *a* hori e bihurturik (*itsaso*, *ikasi*,...).

e) Aipatu behar da, bertzenaz ere, badela kontsonante multzo bat (*sn*) hitz guti batzuetan ageri dena: *gasna*, *tresna*, *esnas*, *esne*.

f) Hiztegiko hitzen akabailan (zehatzago erranik, morfema akabailan) kontsonante guti ibiltzen dugu: herskari hutsak (*b*, *d*, *g*, *p*, *t*, *k*, *m*) ez dira onartzen, frikariak ere nekez (*z*, *s*, *x*) eta afrikatuetan ere *tx* ez dugu ibiltzen. Beti badira, jakina, salbuespenak: *eup*, *atx!*,... Bertzetik, denek dakigun gisan *bat* eta *ez* hitzak ere hor daude, eta plurala markatzeko, edo ergatiboa, azkeneko *k* hori. Baina, batetik, ez plurala ez ergatiboa ez dira hiztegiko hitzak, gramatika mailakoak baizik, eta bertze kasuetan aski bakan eta markatuak dira.

Horiek dira, gure ustez, Baztango mintzairak, fonetika mailan dituen ezaugarri nabarmenenak (erran bezala, batzuetan fonetikaren mugak gurutzatu eta fonologiara ere pasatu gara). Ikus dezagun orain zer gertatzen den hitzak kateatzen ditugunean, esaldi batean, edo hiztegiko hitzek gramatika markak hartzen dituztenean (artikulua, konparazione). Ikusiko denez, hau da argi eta garbi fonologiak aztertzen duena, lehenago erran dugun gisan: ahoskatzean arau batzuk aplikatzen ditugu eta hitzak aldatzen dira orduan. Horrek ematen dio, argi eta garbi, funtsezko ezaugarrietako bat Baztango mintzoari. Hau da ondoko lerroetan aztertuko duguna.

2.2. Fonologia

Har dezagun hitz erraz bat, *ate* konparazione, eta gainera diezaiogun *a* artikulua: horrek *atea* ematen du. Kontua da, ordea, Baztanen ez dela *atea* erraten, baizik *atia* (gainera bi silabatan: *á-tia*). Zer gertatzen da hor? Hor ezarri dugu modu automatiko batean arau bat, eta arau horrek erran digu, gu ohartu gabe ere (arau hauetaz hiztuna ez da batere ohartzen) *atea* hitza bertze modu horretara ebaki behar dugula: *atia*. Zernahi gisaz, baten batek erran dezake, edo pentsatu: eta nola dakigu *ate* dela eta ez *ati* hiztegi dugun hitza? Gutierrez, bi arrazoibide ematen ahal dira hori ez dela zuzena onartzeko: bat, bertze euskalkietan *ate* denez, pentsatzekoa da Baztanen ere *ate* dela; bi, ez dugu bertze euskalkietara joan beharrik, Baztanen ere *ate* erraten baitugu: *zenbat ate tu etxe horrek?*. Hau da, berez, *ate* dugu, baina batzuetan *ati*, inguruaren arabera. Hortaz, hor ezarri dugun araua hau da:

(1) *ate* + *a* > *atia*

Baina arau hau ez da hain berezi eta txikia, hitz horretan bakarrik ezartzen dena, baizik aise zabalagoa den bertze arau baten aldaera. Eta arau zabal hori bezalakoak, badira bakar batzuk hemen aipatu nahi ditugunak.

2.2.1 Sudurkarien eraketa

Arau hauen artean badira batzuk aski ezagunak, bertze hizkuntza aunitzetan ere gertatzen baitira. Zenbaitetan, soinu batek aitzineko aldean duen bertze soinu bat asimilatzen du. Horixe gertatzen da sudurkariekin (n , m): bi sudurkari elkarren ondoan biltzen direnean, bietako bat, lehenbizikoa, ez dugu ahoskatzen, bigarrenak berarengana biltzen baitu. Ez da hau Baztango mintzoak berez duen ezaugarria, gainerako euskalkietan ere berdin gertatzen baita, eta, erran dudan gisan, bertze hainbertze hizkuntzatan ere. Hortaz, araua jarri eta adibide batzuk emanen ditut:

(2) sudurkaria + sudurkaria > sudurkaria

Honako hauek eman daitezke adibide gisa (bigarren zutabearen nola ebakitzen dugun hori eguneroko hizketa arinean):

gan nuen > *ganuen*

(i)kusi nuen mutile > *(i)kusi nuemutile*

Berez, zabalagoa da arau hau, sudurkariaren artikulazioa bertze kontsonanteek ere erakartzen baitute. Zer gauza den hizkuntza, ez gara konturatzten nola ibiltzen dugun egunero: *(i)kusi duzu mutile* eta *(i)kusi duzun mutile* esaldiak berdin ahoskatzen ditugu mintzo arinean, erranahia aski diferentea baldin badute ere. Begira orain ondoko esaldi hauek:

hain ederra da etxe hori!

hain mutil ona zen!

hain buru txarra du!

hain gogorra da berez!

Eskribitu, holakoetan n eskribitzen dugu beti (euskaraz, erran nahi dut), baina n hori, bertze nonbait argitu dugun gisan, aski diferentea da, aski toki diferenteetan ebakitzen baitugu: lehenbizikoan, garbi da bere ebakitze puntu neutrotik hurbil dagoela (*hainederra*); bigarreanean eta hirugarrenean m da zinez erraten duguna (*haimutil*, *haimburu*), eta laugarrenean ez n ez m ez dena, baizik bertze zerbait, horretarako euskaraz letrarik ez badugu ere, azkeneko kasu honetan sudurkaria gibelego aldean ebakitzen baitugu. Hauek guztiak asimilazio kasuak dira.

2.2.2. Igurzketa

Bertze arau zabal bat, hau ere euskalki guztietan eta bertze aunitz hizkuntzatan gertatzen dena, igurzketa araua dei dezakegu: b , d , g eta r kontsonanteak bokal artean suertatzen direlarik, kontsonante horiek ebakitzeko

egin behar izaten dugun hersketa laxatzen dugu arras, eta biziki leun eba-
kitzen ditugu kontsonante horiek. Hain leun, batzuetan desagertzen dira,
eta honek hitzez kanpo ere badu eragina. Zenbaitetan, *k* soinuarekin ere
gertatzen da, batez ere *jakin* aditzaren adizkiekin: *baizu (badakizu)*.
Horietan, *r* eta *k* soinuen kasuan, ez da igurzketarik gertatzen, baizik ken-
keta hutsa, hiztunak ez baititu ahoskatzen. Baina *b*, *d*, *g* soinuekin leundu
egiten dugu ahoskera, ebakitze tinko batetik arras laxatzera pasatu arte,
betiere bokal artean. Eta bertze zenbaitetan, kasu guziak aipatzeagatik,
ohart gaitezen, itxuraz kontrakoa gertatzen dela ematen du, eta bi bokalen
artean kontsonante bat ageri dela. Baina ez da hala, kontsonante hori aitzin-
etik zegoen *h* hasperenduaren aztarna baizik ez baita: *agoa - aqua*, *goatzia*
- *guatzia*, *begorra*, *begarria*, *egun*, *ubela*, *uberra*, *agur (ahur)*...

<i>gero</i>	>	<i>geo</i>	
<i>San Pedroetarik</i>	>	<i>San Pedroetaik</i>	
<i>ederra</i>	>	<i>e(d)erra</i>	
<i>edo</i>	>	<i>e(d)o</i>	
<i>akabaila</i>	>	<i>akaalla</i>	
<i>adixkide</i>	>	<i>aixkide</i>	
<i>trikiago</i>	>	<i>trikiao</i>	> <i>trikioo</i>
<i>ttallago</i>	>	<i>ttallao</i>	> <i>ttalloo</i>

Honen berri, arau honek eman dezake:

(3) $\{b, d, g, r\} > \emptyset / V_V$

Hau da, soinu horiek erori egiten dira (hobeki errana: laxatu egiten dira,
batzuetan erori ere), \emptyset bihurtu, bi bokalen artean. Hitzez kanpo ere batzue-
tan: *nola duten izena* > *nolauten izena*.

Batzuetan, gauza hauek ez baditugu argi, halako kontraerran batzuk ere
harrapatuko ditugu: Baztanen *gain naiz (=joanen naiz)* erraten dugu, baina
halako batean *gango' ut* bezalakoak adituko ditugu. Nola *gango*, han beti
errain dut, *inen dut* eta holakoak baditugu, baina ez *errango dut* bezalako-
ak? Eta nola *dut*, aditz mota horiek beti *izan* eskatzen badute? Azalpena (3)
arauak ematen digu. Begira zer dugun hor:

gan gogo dut > *gango(g)o dut* > *gangoo dut* > *gango dut* > *gango'ut*

Ikusten denez, *gango'ut* ez da *joango naiz* baizik *gan gogo dut*. Jakina,
orduan baditugu hiru aukera, erne ez dabilenak erraz galduko dituenak:
gain naiz (=joanen naiz), *gain dut (=eramanen dut)*, *gango dut (=joan gogo*
dut). Dena den, kontu hauek ez dira Baztangoak bakarrik, igurzketa

ondorioz gertatzen diren itxura aldatze hauek aise zabalagoak baitira, eta Larresoro ingururaino, gutienez, ailegatzen baitira. Aski arruntak dira han (Epelde, 2003, 332. orrialdetik aitzinat).

2.2.3. *Sei arau nagusi*

Badira arau zabal gehiago ere, hemen bereziki aztertuko ez ditugunak, aski hedatuak baitira euskalki gehienetan, guztietan ez bada:

- Bi leherkari elkartzen direnean (hitz bat *k-z* akitzean eta ondoko hitza *b-z* hastean, konparazione), lehenbiziko leherkaria erortzen da aunitzetan, nahiz ez beti, eta bigarrena ahoskabe gertatzen da (*hartzak ba!* > *hartzapal!*; *polit bat* > *polipet*; *herrikuak baitziren* > *herrikuapaitziren*; *hik bedere(n)* > *hipedere*)

- igurzkari bat (*z*, konparazione) leherkari baten (*t*, konparazione) ondotik heldu baldin bada, leherkaria erortzen da, eta igurzkaria afrikatu egiten dugu (*horrek zerrikeriek iten tu* > *horretzerrikeriek iten tu*), baina arau hau ez da horren estua eta ez da beti betetzen, batzuetan ez baita afrikaturik sortzen (*Andresek zurituko du etxia* > *Andresezurituko du etxia*).

- Afrikatu baten ondoko leherkaria ahoskabe bihurtzen da, eta afrikatua frikari egiten dugu (segur aski *haritz gune* edo holako zerbaitetik heldu da Arizkun hitza). Bertze hitz batzuk ere hola sortu dira: *gaitz+to* > *gaitzo* > *gaxto*. Baserritarrek badakite *zimitzak* non altxatzen diren, *zimiztegietan* (hor ere: *zimitz + tegi* > *zimiztegi*), eta badakite *arotz-aren* etxeari, garai batean segurik, *arotzenea* (*aotzenia*) erraten zitzaiola, baina lantegia *aroztegia* (*aozteie*) dela (*arotz* > *arotzenea*; *arotz* > *aroztegia*). Eta zerbait *latza* baldin bada, baina ez sobera, *lazkara* dela diogu, eta eguraldia ere, hoztera doala, *hozgara* dagoela, hau eginez bietan: *latz* > *lazkara*; *hotz* > *hozgara*.

- Leherkari ahostuna ahoskabe gertatzen da, batez ere hizkuntza arinean, igurzkari baten ondoan (*ez du erran* > *eztu erran*).

- Igurzkariak afrikatu egiten ditugu, hau ere mintzo arinean, *l*, *n* eta *r* soinuen ondoan (*gal ezak hau eta ikusiko duk!* > *galtzak hau eta kuskok* (= "ikusiko duk"); *har ezak* > *hartzak*; *gan zen* > *gantzen*).

- Ezezakako *ez* partikulak ezaugarri bereziak ditu: ondoko kontsonanteak aitzineko kontsonante honen ahoskabetasuna asimilatzen du (*ez da* > *ezta*; *ez gara* > *ezkara*); kontsonante hasperendunaren arrastoa berriz ere uzten du erakutsian eta bertze kontsonante baten aitzinean desagertzen da (*ez haiz* > *ehaiz*; *ez luke* > *eluke*), eta bertze *z* baten aitzinean afrikatu bihurtzen da (*ez zara* > *etzara*; hain zuzen ere, honekin lotua egonen da *ezetz* aldaera ere).

Neurri batean edo bertzean, arau hauek Baztanen ere betetzen dira: zenbat eta hizkera arinago eta laxoagoa egin, orduan eta aukera handiagoa izanen dugu arauak betetzeko. Baina hitz egitea mantxotzen denean, ez da hain argi arau hauek betetzen direla, batez ere lehenbiziko biak.

2.2.4. Asimilazioa eta disimilazioa

Bertze arau batzuk bokalekin dute zerikusia. Ikus ditzagun ondoko adibide hauek:

harri

bare

gaztanbera

lerro

larru

ama

Hitz horiek, izen horiek, aski arruntak ditugu Baztanen. Eta badakigu hitz horien itxura hori dela, eta ez bertze bat, aski baita *hainbertze* bezalako zerbait jartzea aitzinetik. Orduan *hainbertze harri*, *hainbertze bare...* erraten da, zalantza gabe. Zer gertatzen da, ordea, hitz horiei “a” artikulua gaineratzen baldin badiegu? Non mintzo garen, Baztanen gauza bat gertatzen da eta Zugarramurdi-Urdazubi aldean gehienetan bertze bat (azentu aldaketak ez ditugu kontuan hartuko). Honako hau:

hitza+artikulua	Baztan	Urd./Zugarr. (gehienetan)	Malerreka
<i>harri+a</i>	> <i>hárrie</i>	<i>harria</i>	<i>harría</i>
<i>bare+a</i>	> <i>bária</i>	<i>barea</i>	<i>baría</i>
<i>gaztanbera+a</i>	> <i>gaztanbéra</i>	<i>gaztanbera</i>	<i>gaztanb(e)ra</i>
<i>lerro+a</i>	> <i>lérrua</i>	<i>lerroa</i>	<i>lerrúa</i>
<i>larru+a</i>	> <i>lárrue</i>	<i>larrua</i>	<i>larrúa</i>
<i>ama+a</i>	> <i>áma</i>	<i>ama</i>	<i>amá</i>

Adibide hauetan hiru arau nagusi atzematen ahal dira jarri dugun zerrendan. Bat euskalki gehienetan betetzen dena:

(4) ...a + a > a

Hau da, bi a elkartzen direnean, *a* bakarria ahoskatzen da (*ama+a* > *ama*; *lera+a* > *lera*). Bokale asimilazio hau ez da bakarrik bi *a* elkartzen direnean gertatzen, ezta hitz beraren barnean bakarrik (*h*-ak ez du balio fonologiko-

rik): *denborartan* (*denbora hartan*), *neskoi* (*neska hori*), *haundioo* (*haundiago*), *karrikartan* (*karrike hartan*), *kaskortan*, *lagunere* (*lagune ere*), eta abar. Bertzetik, *bota* eta *atra* aditz oinen partizipioa *botaia* (Urd. – Zug.), *botaia/e* (Baztanen) eta *ateraia* / *atraia/e* (zein bere tokian) dira. Arizkunen *bolaia* ere bildu dugu: *bolada* > *bolaa* > *bolaea* > *bolaia*. Badira bertze asimilazio klase batzuk hemen aipatuko ez ditugunak: *iduzki* hitzean ageri dena, konparazione.

Bertze bi arauak hauek dira (batez ere Baztanen, ez horrenbertze Zugarramurdi eta Urdazubin):

(5) $a > e / \{i, u\}$ ___

(6) $\{o, e\} > \{u, i\}$ ___a

Eta hau hola leituko dugu: (5) arauan, *a* soinua *e* bihurtzen da, aitzinetik *i* edo *u* bokalak baldin baditu. Azken batean, haxe da gertatzen dena: lehen ikusi dugunez, *i* eta *u* goitiko bokalak dira, eta *a* beheitiko. Bada, haiek azkeneko honen ezaugarri batzuk asimilatzen dituzte, eta *a* goititzen dute, aitzinerat ekarriz, eta hola *a* hori *e* bihurtzen da: batzuetan *belai* da salbuespenetako bat, hiztun batzuen artean (bertze batzuek *belai*e erraten dute), *botaia* bezalakoren batekin analogiaz sortua hain zuzen ere. Badira bertze salbuespen batzuk pixka bat harrigarri gerta daitezkeenak: *zerriteie*, *arditeie* hitz ezagun eta aunitz ibiliak dira Baztanen (*zerritegia*, *arditegia*), baina inesiboan *zerriteian*, *arditeian* erraten da, araua, itxuraz bederen, hautsiz.

Ordea, (6) arauan juxtu-juxtu bertze gisako zer bait gertatzen da: *o* eta *e* bokalak (erdiko bokalak), *u* eta *i* bihurtzen dira *a* artikuluaren aitzinean agertzen direnean, disimilazio bat gertatuz hola, berehala ohartzen ahal baikara oinarrizko *o* eta *e* hurbilago daudela *a* bokaletik, gero sortzen diren *i* edo *u* baino (batzuetan ia-ia ezinezko egiten da bereiztea hiztunak egiaz *e* edo *i* ebakitzen duen, bien arteko distantzia aski ttipia baita). Dena dela, *o* bokalaren kasuan, hala ere, araua ez da bertzea bezain bortitza, eta *orroa/orra* edo *astoa/astua* txandaka ibiltzen dira. Beraz, hemen bi arau fonologiko nagusi ditugu, biak bokalek eraginak, biak elkarren kontrakoak: asimilazioa eta disimilazioa.

Berdin gertatzen dira arau hauek Baztanen eta Zugarramurdi-Urdazubietan?

Iduri du ezetz: azkeneko bi herri hauetan gehienetan ez da asimilaziorik gertatzen, eta bereizketa hau da, hain segur ere, Baztanen eta Otsondoz

bertze aldeko herrien artean dagoen desberdintasun handienetako bat, handiena ez bada (asimilazioa egiten da Baztanen, Iruñe aldera, Ultzaman ere, baina ez Bidasoako errekan). Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara Estibalitz Montoyak (2002, 41) aztertu du. Egin duen tesian hauxe dio, hitzez hitz:

“Zugarramurdin eta Urdazubin ez da ‘a > e/ i, u (C)___’ asimilazioa gertatzen. Hona hemen esaten dudana frogatzen duten adibide batzuk: *egia, burua, anaia, begia, amorrua, aundia, lekua, kukuxua, zerria, beia, eskua...* Ikus dezakegunez, ingurune egokienetan ere (-i, -u + mugatzailea), ez da Zugarramurdin eta Urdazubin asimilaziorik gertatzen; adibide bakar bat ere ez dut entzun. Nafarroako aldameneko hizkeretan, ordea, asimilazioa oso indartsua da eta Zugarramurdiko zein Urdazubiko hiztunek gertakari hau aipatzen dute beren hizkera eta Baztango hizkeraren arteko desberdintasunak deskribatzeko eskatu diedanean”.

Euskaltzaindiak Hizkuntza Atlasa dela eta, egin dituen lanen ondorio zenbait datu eman ditu argitarara, bai liburuan bai CD-etan⁶. Lekukotasun honen arabera, Zugarramurdiko hiztunak arras gutitan egiten du asimilazioa, nahiz badiren asimilazio adibide batzuk *dira* adizkian oinarrituak: *badie (badira)* bi aldiz, eta *tie (dira)* bertze behin, testu labur batean. Disimilazioa, ordea, maizkara gertatzen da, eta arrunta da: *bertziak, trikiaguak, goxuak*, eta abar. Badira, hala ere, disimilazio gabekoak ere: *usoen, usoa, kanpoa, batean*. Iduri du, hortaz, hiztun batzuek bederen (eta grabazioan mintzo dena ez da gizon gaztea), bi sistemak ibiltzen dituztela disimilazioaren arauan. Arazo hau, zernahi gisaz, korapilatsuagoa da euskalkiei dagokienez: disimilazioa arrunta da hegoaldean, salbuespenak salbuespen (Leitza, Arratia, konparazione), nahiz anitzetan ez den sistematikoa, eta iparralderago dauden herri batzuetan ere gertatzen da (Zuberoan arrunta da). Uste dut fenomeno hau ez den behar bezala aztertu. Hurbilagoko tokiak aipatzeagatik, I. Epeldek (2004, 332-344) bildu dituen lekukoetan disimilazio hauek ageri dira Larresoron (*esniain, esniak, lanian* -332. or.-), Uztaritzen (*xoko'atian, gainian, eunian*, -335. or.-), Kanbon (*sukaldia, barnian*, -339. or.-), Itsasun (*gaztiak, xekatzia, emazia*, -341. or.-), Ezpeletan

6 Euskaltzaindia, Bilbo 1999: *Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa. Ohiko mintzamoldeen Antologia*. Ikus, liburu honetan, orrialde hauek: 103 (Aniz), 104 (Lekaroz), eta 105 (Zugarramurdi). Transkribaketak ez dira batzuetan ongi egin, baina hemen aipatzen ari garen puntuei buruzkoak zuzenak dira, gure ustez.

(*bidia*, *xuxenian*, -342. or-), Zuraidden (*yoaitia*, *iatziak*, -342. or-) edo Milafrankan (*bidiak*, *zerian*, -344. or-). Lan berean, hauxe dio (70. or.): “[disimilazio hau] ... oso ohikoa da kontsonantez bukatzen diren izenak inesibo singularrean jokatzean [...] Aditz izenekin bertze horrenbertze gertatzen da” (70. or.). Bidasoan ere, jakina.

Laburtzeko, hortaz, hau erran daiteke: bi herri horietan (Urdazubin eta Zugarramurdin) ez da asimilaziorik gertatzen jeneralean, baina disimilazioa, ordea, bai Bidasoan bezala. Baztanen, ordea, juxtu-juxtu kontrakoa gertatzen da, gehienetan egiten baita asimilazioa. Eta disimilazioa ere, erran bezala.

Honek guzi honek sorrarazten ditu aski hitz kuriosoak (Baztani buruz ari naiz orain): *kafia* eta *kafie*, konparazione, *kafea* eta *kafia*-rako (*habia* adierazteko azken hitza). Berdin-berdin *sartzian*, *erostian*, *gatian*... eta holako guztietan. Hor ere arau bera ezartzen da.

Erran dezagun, atal honekin akitzeko, (5) araua berez zabalagoa dela, ondoko adibideetan ikusten den gisan (hau ere Baztanen bakarrik):

<i>irina</i>	>	<i>irine</i>
<i>etorri da</i>	>	<i>(e)torri de</i>
<i>harri bat</i>	>	<i>harri bet, harri'et</i>
<i>baldin badu</i>	>	<i>balin bedu</i>
<i>auzalana</i>	>	<i>auzelana</i>
<i>baita ere</i>	>	<i>baitere</i>
<i>inguruka</i>	>	<i>inguruke</i>
<i>isilka</i>	>	<i>ixilke</i>
<i>kunka</i>	>	<i>kunke</i>
<i>intza</i>	>	<i>intze</i>

Ikusten da hor kontua ez dela bakarrik *i* eta *u* bokalen ondotik *a* artikulua *e* bihurtzea. Ez dute segidan egon beharrik, tartean kontsonanteak ere agertzen ahal baitira (*irine*, *kunke*...), nahiz mailegu hitzetan eta hitz elkartuetan salbuespenak ere harrapatzen ahal diren: *primabera*⁷ edo *urdama*, *urdamondo*, *mutildantza* hitzetan, konparazione. Orduan, araua bertze modu honetara formulatzen ahal da egokiago:

(7) a > e / {i, u}(C(C)) __

7 Hala ere, Euskaltzaindiko hizkuntza atlasean *primeera* ere atzeman dut.

Horrek erran nahi du *a* artikulua *e* bihurtzen dela *i* eta *u* bokalen ondokitik, berehala heldu baldin bada, edo tartean kontsonante bat edo bida baldin baditu: hortxe dugu bertze hitz bat, *bida* erraten dena bertze mintzo batzuetan, baina *bide* Baztanen, oraintxe eman dugun arauari jarraiki. Berdin *bizerra*, *pizerra*, *pisetu*, *tiretu*, *kiretsa*, *gisedue*, eta abar.

Arau hauek guziak hiztunak automatikoki eta oharkabean aplikatzen ditu, nahiz eta ordena jakin batean ezartzen dituen arau bat baino gehiago ezarri behar dituelarik, ordenak ere bai baitu garrantzia. Har dezagun *aita* hitza, konparazione, Baztanen *aite* ebakitzen duguna. Hori hurrenkera hau ezarri ateratzen da:

Arauen ordena

aita+a > aita > aite (4), (7)

Baina arauen ordena aldatuko bagenu hau izanen litzateke ondorioa:

Arauen ordena

aita+a > aitea > aitia (7), (5)

Aukera hau ere, bigarrena erran nahi dugu, eskura du hiztunak, baina berak ez du *aitia* erraten, lehenbiziko arauen segida ezartzen baitu, erraten dugun gisan, automatikoki, bigarrena onartu gabe: Baztanen ez dugu *aitia* bezalakorik egiten duenik, aukera teoriko gisan bakarrik jarri dugu hemen.

Asimilazio kontu hauek bertzenaz ere gertatzen dira: Baztanen, konparazione, *aingiru* erraten dute aunitzek *aingeru* jatorrizkoa erran beharrean.

2.2.5. Bustidura arauak

Bustidura edo palatalizazio arauak dira orain aztertuko ditugunak. Palatalizatzea deitzen diogu berez modu batera ebaki beharko litzatekeen soinua, hola egin beharrean, ahoskunea aldatu eta mingainarekin ahosabaiaren kontra ahoskatzeari: konparazione, *t* ebaki beharrean (mingainhortzekin), *tt* ebakitzeari (mingain-ahosabaiarekin), hortzetakoa den soinu bat sabaikari bihurtuz. Ume ttallei lehenago behintzat, orain galduxe baldin bada ere, norbait *ttio Mattin* zela erraten zitzairen, eta ez *tio Martin*, edo *papattak*, ez *zapatak*, janzteko. Hor gertatu da aipatzen ari garen aldaketa, eta aldaketa hori da palatalizatzea.

Baztanen, palatalizazio kontuetan bi mota bereizten dira:

- Batzuetan palatalizazio “automatikoa” (ahoskatze sistemak sortua, asimilaziozko palatalizazioa, nahi bada) gertatzen da, konturatu gabeko arau fonologikoak segituz egiten dena, berehalaxe ikusiko dugun gisan. Soinu

batek (kasu honetan *i* soinuak) inguruko bati eragiten dio eta honen ahoskunea aldatzen da (*gain+a --> gaña*).

- Baina bertze zenbaitetan, palatalizatzea erregistroaren aldatze kontua da, hitz egiteko modua aldatzearen ondorioz gertatua: *hartu* erran beharrean *hattu* ahoskatzen dugunean, konparazione, gertatzen da hori. Aitzinekoan ez bezala, hemen erregistroa aldatu dugu, mintzatzeko modua dugu moldatu, eta nola erraten diogun bati *nor aiz hi?* eta bertze bati *nor zara zu?*, bertze zenbaitetan hautatzen dugu gazte bati *hartu* erratea, eta haren arrebata ttipienari, ordea, *hattu*. Ikusten denez, bustidura egiteko arrazoiak aski desberdinak dira batean eta bertzean.

2.2.5.1. Bustidura automatikoa

Palatalizatze automatikoa gertatzen da Baztanen *d*, *t*, *l*, *n* soinuak *i* bokalaren inguruan daudelarik: *i* horrek, goitiko bokala denez, 'tiratu' egiten du, eta ondoko kontsonantearen ahoskatze puntua ere goiti joaten du, ahoko sabai alderat, eta soinu horiek *dd*, *tt*, *ll*, *ññ*, *x* bihurtzen dira. Ikus ditzagun ondoko aukera hauek guziak (hau ez da eskribitze kontua, jakina, ahoskatze kontua baizik):

<i>erdoil</i>	<i>erdoill</i>	<i>erdoll</i>
<i>erdoila</i>	<i>erdoilla</i>	<i>erdolla</i>
<i>gain</i>	<i>gaiñ</i>	<i>gañ</i>
<i>baina</i>	<i>baiña</i>	<i>baña</i>
<i>hil</i>	<i>hill</i>	
<i>ilun</i>	<i>illun</i>	
<i>hila</i>	<i>hilla</i>	
<i>arin</i>	<i>ariñ</i>	
<i>arina</i>	<i>ariña</i>	
<i>egundaino</i>	<i>egundaiño</i>	<i>egundaño</i>
<i>usaina</i>	<i>usaiña</i>	<i>usaña</i>
<i>egina</i>	<i>egiña</i>	
<i>isilik</i>	<i>ixilik</i>	<i>ixillik</i>
<i>ditut</i>	<i>dittut</i>	
<i>aita</i>	<i>aitta</i>	<i>atta</i>
<i>Luzaide</i>	<i>Luzaidde</i>	<i>Luzadde</i>

Euskalki batzuetan bustidura urrunago doa eta *i* bokala *z*, *s*, *t*... eta bertze kontsonante batzuekin ere elkartzen denean, kontsonante hauen ahoskatze gunea aldatzen da. Ez da hori Baztango kasu hedatuena: *izitu*, *minbizie*, *bizerra*, *kisue*, eta abar ahoskatzen da, eta ez *ixitu*, *dittut* edo *bixerra* (Basaburua eta Oronoz eta Arraioz, Baztango bertze herrietatik bereizten dira honetan). Kontrako adibidea izanen litzateke *gaxto* hitza (*gaizto*-tik), hola ahoskatzen baita Baztanen: berdin *gaxtakerie*, *axturek*, eta bertzeren bat (hala ere, badirudi *t* kontsonantearekin bakarrik gertatzen dela, *aizkora*-ez *axkora*- erraten baitugu).

Zer gertatzen da, ordea, bertzeetan (*l*, *n*, *d*, *t*)? Ikus ditzagun hor ditugun muturreko aukerak: *egina*, *egiña*, *egiñe*, *ilun*, *illun*, *baina*, *baiña*, *baña*, *bañe*...

Bazter batera utziko ditugu hemen bi kontu: batetik, ez da erraz bereizten *ill* eta *ll* hutsaren artean (*erdoilla*, *erdolla*) eta hiztunek biak ibiltzen dituzte, segur aski ere, txandaka, haien artean diferentziarik baldin bada bederen (akustikoki badirudi ez dagoela, agian artikulazio kontuan gerta daiteke); bertzetik, orain ez ditugu kontuan hartuko bokal asimilazioak (*egiña*, *egiñe*), arau hau lehenago azaldu baitugu.

Ohart gaitezen, hortaz, gelditzen zaizkigun aukeretan. Iduri du muturreko bi aukerak hauek direla: lehenbizikoa, bustidurarik ez egitea (*baina*, *oilo*, *erdoila*, *egina*, *hila*, *ditut*, *arina*, *gaina*...); bigarren aukera, *i* bokalaren ondoan *l*, *n*, *t*, *d* ageri badira, orduan *ll*, *ñ*, *tt*, *dd* ahoskatzea, bustidura eginez eta sabaikaritze araua ezarriz (*baña*, *ollo*, *erdolla*, *egiña*, *egiñe*, *hilla*, *hille*, *dittut*, *ariña*, *ariñe*, *gaña*, *gañe*...). Soinu horietako bat, *d* > *dd* aldaketa, ez dugu kontuan hartuko, arrunt hitz gutitan ikusiko baitugu, eta horietan ere neketan ezartzen baita (*aide gaxto*, ez *aidde gaxto*, Baztanen bederen). Bustidura egiten dugunean, arau hau ezartzen dugu:

(8) $\{l, n, t\} > \{ll, ñ, tt\} / i_$

Euskalki batzuetan arau hau ezartzen da, eta ondorioz sortzen dira *egiña*, *hilla*, *olloa*, *illuna*, *dittut*, *ariña* eta *gaña*. Bertze euskalki batzuetan, ordea, ez da araua ezartzen eta *egina*, *hila*, *oiloa*, *ditut*, *arina* eta *gaina* erraten da. Baztango mintzoari dagokionez, erdi bidean gaude. Baztandik kanpo behatzen baldin badugu, Iparraldera, zenbat eta Iparralderago joan, orduan eta sabaikaritze gutiago aurkituko dugu, bustidura ez baita egiten. Aldiz, mendebalera behatzen badugu, berehala entzunen ditugu hitz hauek guziak bustiak ahoskatzen direla. Eta Baztani berari dagokionez, Oronoz, Arraioz eta Basaburuko herrietan bustidurak arruntak badira ere, gainerako herrietan erdian gaude: araua ezartzen da, bai, baina baldintza estu batzuen bar-

nean, ez baita aski *i* bokala izatea. Bokal horrek bertze bokal bat behar du aitzinetik, eta *n*, *l* kontsonanteek ere bertze bokal bat segidan. Salbuespenak mailegu hitzak dira: *mesille*, *botille*, eta abar, edo noizbait ahoskatzen zen bertze kontsonante bat galdu dutenak: *iñertue*, *iñor* (hau batzuetan *nihor* bezala emana).

Beraz, Baztango araua hau da:

$$(9) \{l, n, t\} > \{ll, \tilde{n}, tt\}/V i_V$$

Horrek erran nahi du hau gertatzen dela Baztanen (Basaburua, Oronoz eta Arraioz kenduta), (9) araua ezartzearen ondorioz:

<i>erdoil</i>	(<i>erdoill</i>)	(<i>erdoll</i>)
(<i>erdoila</i>)	(<i>erdoilla</i>)	<i>erdolla</i>
<i>gain</i>	(<i>gaiñ</i>)	(<i>gañ</i>)
(<i>baina</i>)	(<i>baiña</i>)	<i>baña</i>
<i>hil</i>	(<i>hill</i>)	
<i>ilun</i>	(<i>illun</i>)	
<i>hila</i>	(<i>hilla</i>)	
<i>arin</i>	(<i>ariñ</i>)	
<i>arina</i>	(<i>ariña</i>)	
(<i>egundaino</i>)	(<i>egundaiño</i>)	<i>egundaño</i>
(<i>usaina</i>)	(<i>usaiña</i>)	<i>usaña</i>
<i>egina</i>	(<i>egiña</i>)	
(<i>isilik</i>)	<i>ixilik</i>	
<i>ditut</i>	(<i>dittut</i>)	(<i>ixillik</i>)
<i>aita</i>	(<i>aitta</i>)	(<i>atta</i>) Oronozen
<i>Luzaide</i>	(<i>Luzaidde</i>)	(<i>Luzadde</i>)

Zerrenda horretatik, eman arrazoiengatik *d* eta *s* kendu behar ditugu (*ixilik*, *Luzaide*). Zerrendatik kendu behar dira, halaber, *ditut* (Baztanen *tut* erraten delako, *ttut* eta *ittut* Oronozen) eta *egina* (Baztanen *egin* erran beharrean *in* erraten da, Zugarramurdi aldean *ein*, *in* eta *gin*⁸). Baita

8 E. Montoyak biltzen ditu bi formak: *gin* ematen du aferesi gisako adibidetzat (39. or) baina gero, testuak transkribatzean, *in* ageri da (283. or). Testuetan, hiztun berak *eiten* dio batean, eta berehala *iten* ere (285. or), transkripzioak zuzenak badira behintzat (Estibaliz Montoya, 2004). Hau ez da harrizkeoa, gauza bera gertatzen baita Larresoron eta Uztaritzen, I. Epeldek (2004, 215) bildu duenez.

arina, *egundaino* eta *usaña* hitzak ere, nahiz hitz hauek *arine*, *egundaino* eta *useña* bezala ahoskatzen ditugun. Zergatik? Kasu hauetan (7) araua ezarri baitugu.

Hau da, hortaz, gelditzen zaigun ahoskatze modua:

Bustidura automatikoa Baztanen

(joera da hau, ez beti bete-betea betetzen dena)

jatorria	(9) araua	(7) araua	Basaburua/Oronoz	Baztan (gehienean)	Zug.-Urd.
<i>erdoil</i>			<i>erdoil</i>	<i>erdoil</i>	<i>erdoil</i>
<i>erdoila</i>	<i>erdolla</i>		<i>erdolla</i>	<i>erdolla</i>	<i>erdoila</i>
<i>gain</i>			<i>gain</i>	<i>gain</i>	<i>gain</i>
<i>baina</i>	<i>baña</i>		<i>baña</i>	<i>baña</i>	<i>baina</i>
<i>hil</i>			<i>hil</i>	<i>hil</i>	<i>hil</i>
<i>ilun</i>			<i>illun</i>	<i>ilun</i>	<i>ilun</i>
<i>hila</i>		<i>hile</i>	<i>hille</i>	<i>hile</i>	<i>hila</i>
<i>arin</i>			<i>arin</i>	<i>arin</i>	<i>arin</i>
<i>arina</i>		<i>arine</i>	<i>ariñe</i>	<i>arine</i>	<i>arina</i>
<i>sorgina</i>		<i>sorgine</i>	<i>sorgiñe</i>	<i>sorgine</i>	<i>sorgina</i>
<i>egundaino</i>	<i>egundaino</i>	<i>egundaino</i>	<i>egundaino</i>	<i>egundaino</i>	<i>egundaino</i>
<i>usaina</i>	<i>usaña</i>	<i>useña</i>	<i>useña</i>	<i>useña</i>	<i>usaina</i>
<i>aita</i>		<i>aite</i>	<i>atta (Oronoz)</i>	<i>aite</i>	<i>aita</i>

Ohart gaitezen ordena horretan ezartzen direla arauak (lehenik 9 eta gero 7), ordena aldaturik ezarriko bagenitu bertze zerbait gertatuko bailitzateke: *baina* > *baine* > *bañe*; *erdoila* > *erdoile* > *erdolle*. Kontua da, ordea, Baztanen ez dela *bañe* edo *erdolle* erraten, baizik *baña* eta *erdolla*. Bata nahiz bertzea errateko, arau berberak ditugu, ordena da aldatzen den gauza bakarra, eta arauen ordenak ematen du datuen berri. Kasu honetan, jakina, ontzat ematen dugu *baña* hitzaren azpian *baina* dagoela, nahiz horretarako froga zuzenik ez dugun: uste dugu, hala ere, gramatika sinpleago eta argiago gertatzen dela hipotesi hori onartzen badugu, hor baitaude *gain/gaña* bezalako bikoteak, eta euskalki batzuetan palatalizatu gabe ahoskatzen baitira hitz hauek (aski hurbil dauden Urdazubin eta Zugarramurdin, konparazione). Bertze hitz batzuekin errateko: eredu hau segituz, arau gutiago behar ditugu hizkuntzaren goiti-beheiti berberak azaltzeko.

Badira, hala ere, salbuespenak: *siñetsi* diogu, eta ez *sinetsi* edo *ixkiline* eta ez *iskiline*. Etxenikek (P. Salaburu, 1980, 160) ez zituen berdinberdin bildu lekukotasunak: *arrañ*, *oiñatakoa*, *beñere*, *oiñen...* ageri dira. Erran dugun gisan, zaila da hor, hizketa bizian, *oiñen/oñen* arteko bereizketarik egitea. Bertzetik, zuzen zegoen Etxenike *nior*, *nion*, *nioi* bezalakoak bildu zituenean (nik ez nituen onartu tesian), *ni(h)or* eta *iñor*, biak (eta gainerako aldaerak, bistan da) entzuten baitira Baztanen, adinaren arabera batez ere, nahiz *nior* bezalakoak aski bakanak diren. Gauza bera *iñor* bezalakoekin. Hor dugu *airkidia* hitza ere: *adiskidea* > *adiskidia* > *aiskidia* > *airkidia*. Zugarramurdin *bertxiak* (*bertzeak*) eta *hillak* ere atzeman ditut (Euskaltzaindia, 1999), baina aski markatua da hau, gure ustez.

Baztanen, hala ere, ez da herri guzietan berdin egiten bustidura, Basaburuko herrietan (Ziga, Aniz, Berroeta, Almandoz) Arraiozen eta Oronozen bustidura nabarmenagoa baita, eta batzuetan ez du sudurkariak aitzineko bokalik eskatzen: *illergie*, *giñun*, *ziñen*, *aitziñetik*, *zittun*, *ziñun*, *ametittu*, *berrittu*, *nittun*, *ttuzu* eta *sorgiñek* bezalakoak ageri dira, baina ez beti, hala ere: *ilupe* bezalakoak ere ez dira batere arrotzak han (aztertu testuetan 3.075 “il” ageri dira eta eta 606 “ill”). Hor ere ikusten da nola jotzen duten herri hauek nafar hizkerara Iparraldekoa baino gehiago, kontu haueetan segurik. M. Izetak *mutilla*, *berebilla*, *billa*, *zaila*, *pilla...* ibiltzen ditu behin eta berriz bere idazlanetan (ikus, konparazione, *Nigarrez sortu nintzan* eleberria), baina horiek ez dira Baztango hizkerako forma nagusiak. Izatekotan ere, Basaburu aldean, eta ez beti, aunitz harrapatzen ahal baitira ‘-ila’ forman akituak, irarritako testuetan aditzen ahal denez. Zernahi gisaz, egia da Elizondo aldetik hasten dela pixkaka palatalizazio kontua hedatzen: *laño*, Elizondoko hiztun aunitzek, baina *lano* Arizkunen, konparazione. Hala ere, ez dirudi homogenea den. M. Izetak, bere hiztegian, *auntzkurrumiñe* biltzen du Anizen, baina guk *aunzkurrumia* harrapatu dugu Almandozko grabazioetan.

Ez dugu aipatu hemen zer gertatzen den Zugarramurdin eta Urdazubin. Herri haueetan arras bakanak dira bustidura hauek, eta gehienetan, Ipar Euskal Herriko inguruko herrietan bezala, ez da gertatzen sabaikaritze prozesurik. Hau da bigarren bereizketa nagusia, bokal asimilazio ezarekin batera, Baztango eta herri haietako mintzoen artean.

Hortaz, hauexek dira herri hauen arteko desberdintasunik nabarmenak:

Zugarramurdi-Urdazubi	Baztan gehiena (salbu Basaburua, Arraioz eta Oronoz)	gainerakoan (Basaburua, Arr., Oron.)
<i>arraina</i>	<i>arraña</i>	<i>arraña</i>
<i>teila</i>	<i>tella</i>	<i>tella</i>
<i>sorgina</i>	<i>sorgine</i>	<i>sorgiñe</i>
<i>ilun</i>	<i>ilun</i>	<i>illun</i>
<i>ilargi</i>	<i>ilergi</i>	<i>illergi</i>
<i>ginuen</i>	<i>ginuen</i>	<i>giñun</i>
<i>zinuen</i>	<i>zinuen</i>	<i>ziñun</i>

2.2.5.2. Bustidura adierazkorra

Bertze palatalizazio edo bustidura klase bat ere bada Baztango mintzozan, arras desberdina dena. Bustidura adierazkorra deitzen ahal dugu, eta bustidura hau, hitz egiteko modu hau, ibiltzen da batez ere ume ttikiakin. Hau ez da bustidura automatikoa (artikulazio puntua aldatzearen arrazoia ez dugu bilatuko delako soinu batek ondoko soinetan egiten ahal duen eraginean), zeren kasu honetako palatalizazioa hiztunak aukeratzen duen erregistroak eragiten baitu, solas egiteko ele berezi bat hautatzen duelarik. Horren arabera, *d*, *t*, *l*, *n*, *z*, *s*, *ts*, *tz* eta, batzuetan, *r* soinuak palatalizatzen ditugu (bertze modu batera ahoskatzen ditugu), soinu horiek ahoan aise goitiago ebakiz mingain osoarekin. Hau da araua:

$$(10) \{d, r; t; l; n; z, s; ts, tz;\} > \{dd; tt; ll; \tilde{n}; x; tx\}$$

Diogun gisan, *r* ez da beti sistematikoki palatalizatzen. Kontura gaitezen (10) araua, aitzinekoekin konparatuz gero, aski desberdina dela, hor ez baita testuingururik inon ere ageri. Arau horren ezarketaren ondorioz hau gertatzen da: *d* eta *r* soinuak *dd* bezala ematen ditugu. Hemen *dd* bezala adierazten dugun soinua *y* bezalakoa da, kasu honetan. Bokal artean dagoelarik, batez ere Iparraldean, Baztangoizean, soinu hori (*dd* edo *y* bezala transkribatua, erran dugun gisan) igurzkaria da: *garraio* (*garra-y-o*) hitzean ez dugu guztiz hesten aire pasa. Erran dezagun, bertze aldetik, nahiz honek ez duen zerikusirik bustidura adierazkorrarekin, Oronoz aldera, -Baztandik zenbat eta hegoalderago joan gertatzen da hau-, bada kontsonante epentetikoak sartzeko joera. Orduan egiazko herskaria izatera jotzen dute maizago: *aundiya*. Horko hizkerak Malerrekara jotzen du. Hau da, hortaz, Baztango bustidura adierazkorrean gertatzen dena:

Baztango bustidura adierazkorra

<i>lo</i>	>	<i>llo</i>	
<i>nini</i>	>	<i>ñiñi</i>	
<i>zato(z)</i>	>	<i>xatto</i>	> <i>ttatto</i> (berriz ere palatalizatuz)
<i>bildotsa</i>	>	<i>bilddotxa</i>	
<i>totoriko</i>	>	<i>ttottoriko</i>	
<i>katue</i>	>	<i>kattue</i>	
<i>(e)kartzu</i>	>	<i>kartru, katxu</i>	
<i>zertaz</i>	>	<i>xerttar</i>	> <i>xettar</i>
<i>aite</i>	>	<i>a(i)tte</i>	
<i>loria</i>	>	<i>lloria, lloddia</i>	
<i>zeñek</i>	>	<i>xeñek</i>	

Zerrenda horretako hitzetan ageri diren azkeneko bietan zenbait arau ezarri ditu hiztunak:

<i>lorea</i>	>	<i>loria</i> (6)	>	<i>lloria</i> (10)	>	<i>loddia</i> (10)
<i>zeinek</i>	>	<i>zeñek</i> (9)	>	<i>xeñek</i> (10)		

Orain arte bustidura automatikoaz eta adierazkorraz aritu gara, hau da, delako bokal segida bati ezartzen zaion sabaikaritzeaz (*erdoil* hitzari artikulua erantsiz gero *erdolla* sortzen denean) edo adierazkortasuna adierazteko ibiltzen ditugun arauaz (*kattue* ahoskatzen dugunean).

Hala ere, batzuetan hitzak berez dira sabaikarituak, hori erraten ahal baldin bada bederen. Erran nahi dugu ez direla sortzen ezarri den arau baten ondorio gisa: *onddo* edo *anddere* holaxe agertuko dira hiztegian (eta ez dute *oindo/ondo* edo *aindere/andere* parekorik Baztango mintzoan), aldaera sabaikarituak bakarrik ibiltzen baitugu. Berdin gertatzen da *pitxitxi* / *pittitti* hitzekin (hala deitzen zaio katuari).

Beraz, fonologiako atal honi akabaila emateko, hemen zerrendatuko ditugu arau fonologiko nagusi guztiak (egiazko arauak zerrendatu ditugu, eta zenbakia ere aldatu diegu. Testuan orain arte eman diogun zenbakia eskuin aldean jarri dugu):

Baztango fonologia arau nagusiak

- | | | |
|-----|---|------|
| (1) | sudurkaria + sudurkaria > sudurkaria | (2) |
| (2) | {b,d,g,r} > Ø/V__V | (3) |
| (3) | ... a + a > a | (4) |
| (4) | {o, e} > {u, i} __a | (6) |
| (5) | a > e / {i, u}{C(C)} __ | (7) |
| (6) | {l, n, t} > {ll, ñ, tt}/V i__V | (9) |
| (7) | {d, r; t; l; n; z, s; ts, tz;} > {dd; tt; ll; ñ; x; tx} | (10) |

Uste dugu arau hauek diren Baztango mintzoaren funtsezko arau fonologikoak. Urdazubin eta Zugarramurdin ez du indarririk (5) arauak, bere tokian argitu dugun gisan, eta (6) araua ere aski ahula da. Badira bertze arau batzuk hitz zenbaitetan ezartzen direnak, eta Nafarroako euskalkiaren ezaugarri gisan hartu izan direnak: *karri, kusi, man, turri, mazteki...* erraten da Baztanen (ez toki guzietan: Amaiurren ez dute galtzen horrenbertze hitz hasierako bokal hori). Hasierako bokal galtze honi aferesia deitzen zaio, eta arrunta da Baztanen, baina bertze hitz aunitzetan ez da araua ezartzen: *iketza, ikeragarrie, hemen...* Batzuetan kontrakoa ere gertatzen da: *ekia, kea* erran beharrean. Eta sinkoparen arauak ere ez ditugu hemen eman: *abre* (bertze tokietan *abere*, baina erranahi zehatzagoarekin, *abrea* behorrari edo zaldiari bakarrik erraten baitzaio Baztanen, ez edozein aziendari), *torko (etorriko), kusko (ikusiko), karko (ekarriko), erten (erraten), pasten (pasatzen)*, eta abar.

2.3. Testu argigarri batzuk

Ikus ditzagun orain testu labur batzuk, aipatu dugun Euskaltzaindiaren Hizkuntza Atlasaren bildumatik hartuak. Hor ikusten da zer eman duen arauen ezarketak:

Anizko testua:

... pixket edaten tzuen ta emen afaldu zuten ostatuen. Ta bazakien emengo medikue beldurti aundie zen, gan tzen Berroetara zaldi gañan, gaixo aten sendatzera, abixetu zuten gateko ta gan tzen, ta unek bazakien... ostatuen zagona... ta atra zen bidera, maindire... baizu zer den?... maindire zuri aundi betekin... ta atratzen tzaio bide erdien. Illergie bazen, omen tzen, illergie. Ta atra zen karre-trein erdi erdire, besoak zabalik ola, ta maindire burutik patue, ta ... oi! oi! bertzia! ua! An, bai or zaldie latigoakin yo ta itzuli

berriz... Berroetara. Bai, te ausilio eske. Bidian atra zizaizkola sorgiñek. Ta bertziak kusi zuen itzuli zela Berroetara, bertzia irri ta parrez ostature berriz, kontatzera ze in tzuen. Te medik'ure torri zen gero unet, bere launetara, afaltzera. Ta espliketzen ze pasatu zitzaion ta bertzia an. Ori bai, oi egie da, e?

Lekarozko testua:

...Orai... ajuar edo nola erten daen... yoyak. Pues lenao eramaten zen bere kuartoa, bere goatzia, zuenak zuen klasekoa, batzuk izein tzuten bi mesillekin, bertze atzuk igual batre gabe izein tzuten, edo zen bezalekoa. Eta gero beretako maindiriak gaten tziren.

Ementxen Kortariere karri zirezten neskatiko... abrian... begorrian karri zuzten goatziak eta.

Eta karri zuten bod'eguneko xikirua, iltzeko eta yateko, xikir'ure adarretan xinte, eztait nik ze kolore zuen, gorriei izein tzuen, naski... zinte gorriei izein tzuen, naski. Eta ure kartzen tzen etreko semia balin bezen edo... bai, eztakit nori tokatzen tzitzeion kartzia. Eta arek sartu biar tzuen etxe artara, etxera kartzen den artan, eta kendu bear tzion zakarrenak zint'ure, eta etrekoak kentzen balin bezion, por ejemplo, etreko alaba edo balin bezen etxian, arek kentzen balin bezion, urte txarra izeten tzunen. In bear tzion, paatzen tzuen xikirua purdiz barnera, be..., purdie barnera, burue kanpora, eta kentzen tzion gan duenak. Bazen oi, ola, kostunbri oi. Gu ttarrak kitunen arront, baño oi kusi ut nik ementxe Lekauzko Kortarien.

Zugarramurdiko testua:

Badie belezaarrak. Oik erraten diote belezaarrak... gero badie belatxak, bertxiak, txikiaguak. Bai, belatxak, ek, paso. Usoen gioletik gaten die ek. Belatxak, andik eldu dienak usoekin batean, patta gorriak ituzte .

Bai, yaten tuzte emen anitzek. Goxuak tie. Eztuzu, usoa ta belatxa prepaatu ta eztuzu zautuko pitsik, deus. Yain tuzu trankil zuk ee.

(Belezarrek zer animaliak jaten dituzte?)

Zernai. Arrotoin, suje, denak. Buu! Zikinak tie, baute usain tzar bat oik. Belezarra bakizu zetako den ona? Oai kanpoa bauzu ereina... sartze uzu erdi erdian bi, belezar bat edo bia, bien, e? illak

ziri baten puntan, ta trankiloo eon, ezta hurbilduko arat deus. Ez, ez ori ta ez fítsik.

(Eta belatsak, berriz?)

Belatrek ez belatrek yain tute xixari ta bertziak pezala.

(Txikiak dira?)

Bai, ttikiak... ba, ola, ttikio oino

Ikusten ahal denez, testu hauetan badira arau orokor batzuk modu sistematikoan betetzen direnak, bai Baztanen, bai Zugarramurdi aldean (ez ditut kontuan hartuko oraino azaldu gabe dauden kontuak, ez eta morfologiako bertze arazo batzuk ere):

- 1) Kontsonante ahostunen erorketa bokal artean: *burutik > buutik; gairxo baten > gairxo aten; lagunetara > launetara; ori > oi; lenago > lenao; kusi dut > kusi ut; direnak > dienak; preparatu > prepaatu; egon > eon; trankiloago > trankiloo; gibeletik > gieletik; baduzu > bauzu. Hor gaineratu behar dira, jakina, *eztakit > eztaít.**
- 2) Disimilazioa: *bertzea > bertzia; bidean > bidian; goatzea > goatzia; maindireak > maindiriak; abrean > abrian; bertzeak > bertriak; txikiagoak > txikiaguak.*
- 3) Asimilazioa Baztanen, baina ez Zugarramurdi (hemen *die* adibidea bakarrik): *pixkat > pixket; ostatuan > ostatuen; medikua > medikue; esplikatzen > espliketzen; aundia > aundie; abixatu > abixetu; aundi batekin > aundi betekin; erdian > erdien (Zugarramurdi *erdian*); erdi erdira > erdi erdire; patua > patue; izain > izein; ura > ure; balin bazen > balin bezen; izaten > izeten.*
- 4) Sinkopak eta aferesiak Baztanen, gutiago Zugarramurdi: *batere > batre; abrean > abrian; ipurdiz > purdiz; ateratzen > atratzen; karreterein > karretrein (hau, hala ere, ez da arrunta); ekartzen > kartzen.*
- 5) Txistukaria (z) afrikatu (tz) bihurtzen da *n* ondoan, eta *r* ondoan ere. Hori gertatzen da aditz laguntzailearekin: *gan zen > gan tzen; edaten zuen > edaten tzen; bihar zuen > bihar tzen; izeten zunen > izeten tzunen.* Ez dago Zugarramurdiko adibiderik testu hauetan.
- 6) Bustidura automatiko gehien Anizen, gero Lekarozen eta gero Zugarramurdi. Ondoko hauek dira bustidura automatiko bakarrak, bertze mailegu hitzetakoak edo adierazkorak baitira: *pixket; gañan, gairxo; abixetu; illergie; sorgiñek (Aniz); baño (Lekaroz); illak (Zugarramurdi).* Zugarramurdi *ereina* bat ageri da, Baztanen *ereñe*

izanen litzatekeena (baina *erine* erraten da zernahi gisaz, infitiboa *erin* egiten baitugu).

- 7) Bereizketa horietaz gain badira, duda gabe, bertze antzekotasun aunitz testu hauetan, Baztango hizkera Iparraldeko mintzoarekin lotzen dutenak: hiztegia alde batera utzita, *unet* bezalakoak ikus daitezke, eta *gaixo aten sendatzera* bezalako esamoldeak ere.
- 8) Testu hauek direla eta, erran dezagun, azkenik, nahiz hau ez den fonetika edo fonologia kontua, eta gero puntu honetara berriz ere itzuliko baldin bagara ere, hitanoaren erabilera handiagoa dela Lekarozen, hastean aipatu dugun gisan: *izeten tzunen; ttarrak kitunen*. Nahiko argigarria da, zeren hemen hiztuna aldatzen da zukatik nokara, aitzinean galderak egiten ari zaiona ez baitu, segur aski ere, konfiantzakoa. Hala ere, hori ateratzen zaio. Bide batez, bertze arau bat ere betetzen da: *ttarrak gitunen > ttarrak kitunen*. Gauza bera gertatzen da Zugarramurdiko adibide batean ere: *zikinak dira > zikinak tie*.

3. KAPITULUA

MORFOLOGIA (DEKLINABIDEA)

3. KAPITULUA

MORFOLOGIA (DEKLINABIDEA)

3.0. Sarrera

Morfologiaz ari garelarik, gogora heldu zaigun lehenbiziko kontua deklinabidea deitzen dugun hori da. Izenkiek deklinabideko markak hartzen dituztenean, hauek ez dira aunitzetan modu gardenean ageri, eta aldaketak gertatzen dira. Aldaketak gertatzen dira, gainera, herri batetik bertzera, uste dugun baino maizago. Hori dela eta, hemen emanen ditugu, hasteko, gure ustez oinarritzat har daitezkeen aldaerak eta gero aldaera horien gainean gertatzen diren bertze aukera batzuk seinalatuko ditugu.

Galdetzaileekin hasiko gara lehenbizikorik (*nor, zer, zein*), eta gero pertsona izenak, leku izenak, erakusleak, eta abar dira hemen paratuko ditugunak. Ez dugu kasuen izena jarriko (absolutiboa, ergatiboa, eta abar), aski argi ikusten baita zein kasuren gainean ari garen aldi bakoitzean. Zenbaitetan, aurkezpena ez dugu gramatiketan arruntean egiten den modu berean egiten hemen. Konparazione, “noren” eta “norena” ematen ditugu. Bistan da “norena” hori “noren” dela, artikulua erantsirik. Baina bidezkoa dela uste dugu hori hola egitea, aldaera fonologiko batzuk gertatzen baitira artikulua eranstea. Uste dugu argiago gelditzen dela hori informazio hau bere osotasunean tauletan ematen baldin badugu.

3.1. Galdetzaileak

Irakurlea ohartuko da hemen orain arte azaldu ditugun arau fonologikoak ezartzen direla: ez da erraten ‘zeintan’ baizik ‘zeinten’, eta berdin gainerako aukeretan: ‘zeintera’, ‘zeinteraño’, eta abar. Ez da erran beharrik

hemen horien aldaera zuzenak, eskribitzeko orduan, ‘zeintan’, ‘zeintara’, ‘zeintaraino’... direla, baztaneraz idatzi nahi denean ere, idazteko modua ez baita nahasi behar inoiz ere errateko moduarekin (munduko hizkuntza guzietan egiten da ahozko formen eta forma idatzien arteko bereizketa hau). Erran dezagun, azkenekoz, ‘zein’ hori, hemen bertzeen parean paratu badugu ere, ez dela Baztanen ibiltzen bertze euskalkietan, batez ere gipuzkeraz, ibiltzen den bezain bat. Nekez erranen du baztandar batek ‘zein zara zu?’ edo holakorik: holakoetan nahiago du ‘nor zara zu?’, eta ‘zein’ hori uzten du bereizketa egiteko (eta ez beti, gainera): ‘zein zara zu: Miguel edo Felix?’

Nor	Zein	Zer
Nork	Zeñek	Zerk
Nori	Zeñi	Zeri
Noren	Zeñen	Zeren
Norena	Zeñena	Zerena
Norendako	Zeñendako	Zerendako
Norekin	Zeñekin	Zerekin
Nora	Zeintera	Zertara
Noraño	Zeinteraño	Zertaraño
Non	Zeinten	Zertan
Nondik	Zeinteik	Zertaik
Nongo	Zeinteko	Zertako
	Zerik	
	Zeintez	Zertaz
Norengan	Zeñengan	Zerengan
Norengana	Zeñengana	Zerengana
Norenganaño	Zeñenganaño	Zerenganaño
Norenganik	Zeñenganik	Zerenganik

3.2. Pertsona izenak

Martin	Maritxu
Martin	Maritxu
Martinek	Maritxuk
Martini	Maritxui

Martinen	Maritxuín
Martinena	Maritxuine
Martinendako	Maritxuindeko
Martinekin	Maritxuikin
—	
—	
Martinik	Maritxuik
Martinez	Maritxuz
Martinengan	Maritxuingen
Martinengana	Maritxuingena
Martinenganaño	Maritxuingenaño
Martinenganik	Maritxuingenik
Jose	Teresa
Jose	Tesa
Josek	Tesak
Josei	Tesai
Josein	Tesain
Joseine	Tesaine
Joseindeko	Tesaindeko
Joseikin	Tesaikin
—	
—	
Joseik	Tesaik
Josez	Tesaz
Joseingen	Tesaingen
Joseingena	Tesaingena
Joseingenaño	Tesaingenaño
Joseingenik	Tesaingenik
Migel	Ormart
Migel	Ormart

Migelek	Ormartek
Migeli	Ormarti
Migelen	Ormarten
Migelena	Ormartena
Migelendako	Ormartendako
Migelekin	Ormartekin
—	
—	
Migelik	Ormartik
Migelez	Ormartez
Migelengan	Ormartengan
Migelengana	Ormartengana
Migelenganaño	Ormartenganaño
Migelenganik	Ormartenganik

3.3. Leku izenak

Elizondo	Arizkun
Elizondo	Arizkun
Elizondok	Arizkunek
Elizondo	Arizkuni
—	
Elizondora	Arizkune
Elizondoraño	Arizkunerano
Elizondon	Arizkunen
Elizondotik	Arizkundik
Elizondoko	Arizkungo
—	
Mugaire ¹	Ornoz
Mugaire	Ornoz

1 ‘Mugairi’ da Euskaltzaindiak berreskuratu duen izena, baina erran, jende guziak ‘Mugaire’ erraten du.

Mugairek	Oronozek
—	
Mugairera	Oronoze
Mugaireraño	Oronozeraño
Mugairen	Oronozen
Mugairetik	Oronoztik
Mugaireko	Oronozko
—	

3.4. Izenordainak

Ni	hi ²	gu	zu	zuek
Nik	hik	guk	zuk	zuek
Neri	hiri	guri	zuri	zuei
Nere	hire	gure	zure	zuen
Neria	hiria	guria	zuria	zuena
Neretako	hiretako	guretako	zuretako	zuendako
Nerekin	hirekin	gurekin	zurekin	zuekin
—				
—				
Niten	hiten	guten	zuten	zuetan
Niteik	hiteik	guteik	zuteik	zuetaik
—				
—				
Nitez	hitez	gutez	zutez	zuetaz
Neregan	hiregan	guregan	zuregan	zuengan
Neregana	hiregana	guregana	zuregana	zuengana
Nereganaño	hireganaño	gureganaño	zureganaño	zuenganaño
Nereganik	hireganik	gureganik	zureganik	zuenganik

2 h'-rekin paratu dugu bigarren pertsona, eta erakusleetan ere ibili dugu, baina letra horrek ez du inolako balio fonetikorik Baztanen, ez baita ahoskatzen

3.5. Erakusleak

hau	hoi	hure
hunek	horrek	harek
huni	horri	hari
hunen	horren	haren
hunena	horrena	harena
hunendako	horrendako	harendako
hunekin	horrekin	harekin
huntera	hortara	hartara
hunteraño	hortaraño	hartaraño
hunten	hortan	hartan
hunteik	hortaik	hartaik
hunteko	hortako	hartako
—		
huntez	hortaz	hartaz
hunengan	horrengan	harengan
hunengana	horrengana	harengana
hunenganaño	horrenaganaño	harenganaño
hunenganik	horrenganik	harenganik
hok	hoiek	hek
hok	hoiek	hek
hoki	hoiei	heki
hoken	hoien	heken
hokena	hoiena	hekena
hokendako	hoiendako	hekendako
hokin	hoiekin	hekin
hoketara	hoietara	hetara
hoketaraño	hoietaraño	hetaraño
hoketan	hoietan	hetan
hoketaik	hoietaik	hetaik
hoketako	hoietako	hetako

hoketaz	hoietaz	hetaz
hokengan	hoiengan	hekengan
hokengana	hoiengana	hekengana
hokenganaño	hoienganaño	hekenganaño
hokenganik	hoienganik	hekenganik

3.6. Izen arruntak

andre	andria	andriak
andrek	andriak	andreek
andrei	andriai	andreei
andreen	andriain	andreen
andreena	andriaine	andreena
andreendako	andriandeko	andreendako
andreekin	andriaikin	andreekin
etxetara ³	etxera	etxeetara
etxetaraño	etxeraño	etxeetaraño
etxetan	etxean	etxeetan
etxetaik	etxetik	etxeetaik
etxetako	etxeko	etxeetako
etxeik		
etxez	etxiaz	etxeez
andreengan	andriangen	andreengan
andreengana	andriaingena	andreengana
andreenaganaño	andriainganaño	andreenganaño
andreenganik	andriainganik	andreenganik

* * *

3 *etxe* hitza *itxe* ahoskatzen da Basaburuko lurraldetik Almandozko alderaino.

ustel	ustela	ustelak
ustelek	ustelak	ustelek
usteli	ustelai	ustelei
ustelen	ustelain	ustelen
ustelena	ustelaine	ustelena
ustelendako	ustelaindeko	ustelendako
ustelekin	ustelaikin	ustelekin
usteletara	ustelera	usteletara
usteletaraño	usteleraño	usteletaraño
usteletan	ustelian	usteletan
usteletaik	usteletik	usteletaik
usteletako	usteleko	usteletako
ustelik		
ustelez	ustelaz	ustelez
ustelengan	ustelaingan	ustelengan
ustelengana	ustelaingana	ustelengana
ustelenganaño	ustelainganaño	ustelenganaño
ustelenganik	ustelainganik	ustelenganik

* * *

zozo	zozoa	zozoak
zozok	zozoak	zozoek
zozoi	zozoai	zozoei
zozoen	zozoain	zozoen
zozoena	zozoaine	zozoena
zozoendako	zozoaindeko	zozoendako
zozoekin	zozoaikin	zozoekin
sorotara	sorora	soroetara
sorotaraño	sororaño	soroetaraño
sorotan	soroan	soroetan
sorotaik	sorotik	soroetaik
sorotako	soroko	soroetako

zozoik		
zozoz	zozoaz	zozoez
iloengan	iloaingen	iloengan
iloengana	iloaingana	iloengana
iloenganaño	iloainganaño	iloenganaño
iloenganik	iloainganik	iloenganik

* * *

odol	odola	odolak
odolek	odolak	odolek
odoli	odolari	odolei
apezen	apezain	apezen
apezena	apezaine	apezena
apezendako	apezaindeko	apezendako
apezekin	apezaikin	apezekin
kazpeletara	kazpelera	kazpeletara
kazpeletaraño	kazpeleraño	kazpeletaraño
kazpeletan	kazpelian	kazpeletan
kazpeletako	kazpeleko	kazpeletako
kazpeletaik	kazpeletik	kazpeletaik
kazpelik		
apezez	apezaz	apezez
apezengan	apezaingen	apezengan
apezengana	apezaingena	apezengana
apezenganaño	apezaingenaño	apezenganaño
apezenganik	apezaingenik	apezenganik

3.7. Bertze aldaera batzuk

Ikusten ahal denez, hemen arazoak genitiboarekin ('andrearen'), eta honen gainean eraikitzen diren gainerako formekin ('andrearengana', 'andrearekin', 'andrearendako...') sortzen dira, aldaera bat baino gehiago harrapatzen ahal baita. Guk hemen aukera bat egin dugu ('-ain' akabailari eman diogu lehen-tasuna), gure ustez horixe baita (palatalizatua edo ez) han gehien ibiltzen dena, eta gehien aditzen dena, batez ere elkarrizketa pixka bat bizia baldin bada. Baina gero badira bertze aldaera batzuk ere. Hemen biltzen ditugu aldaera horietako batzuk, zuzenean hartuak, edo testuetan ere atzematen ahal direnak (Salaburu 1984b, 200 eta ondokoak). Ikusten denez, gardenena den 'andrearena' ere ez da falta: *andrearena* (Elizondo), *andriarena* (Azpilkueta), *andriaine* (Arizkun), *andriaña* (Irurita eta Aniz), *andriañe* (Erratzu), *andreaña* (Gartzain); *aixkidearena* (Oronoz), *aixkideña* (Aniz), *aixkidiaña* (Irurita), *aixkidiañe* (Erratzu), *aixkidiaine* (Arizkun), *gizonarena* (Arizkun, Azpilkueta, Elizondo, Oronoz); *gizonaine* (Lekaroz), *gizonañe* (Erratzu), *gizonaña* (Irurita, Gartzain, Aniz); *aixkidearendako* (Elizondo), *aixkidiaindeko* (Erratzu, Lekaroz, Aniz), *aixkidiaindeko* (Arizkun, Irurita); *lagunarendako* (Azpilkueta), *launeindeko* (Gartzain), *gizonarendako* (Arizkun, Azpilkueta, Elizondo), *gizonaindeko* (Gartzain, Lekaroz, Aniz, Erratzu, Azpilkueta); *andrearendako* (Elizondo), *andriarendako* (Azpilkueta), *andriaindeko* (Erratzu, Arizkun, Irurita, Gartzain, Lekaroz, Aniz).

Baina, erran bezala, gure ustez, '-ain' akabaila da arruntena. Ondoko adibide hauek guziak Maite Lakar eta Ana Telletxea ikerlariek egin lan ederre-tik (1984) bilduak dira: *guatziain* (Irurita), *etxiain* (Arraioz, Amaiur, Irurita), *maindiriaín* (Irurita), *zapataín* (Oronoz), *eltziain* (Elizondo), *osabain* (Berroeta), *amain* (Elizondo), *bildotxain* (Arizkun), *tablain* (Arizkun), *pape-rain* (Arizkun), *gerrain* (Aniz), *urtiain* (Irurita), *leprain* (Amaiur), *eskolain* (Almandoz), *esniain* (Azpilkueta), *bakotxain* (Irurita), *bertziain* (Almandoz, Oronoz), *beltxain* (Elizondo), *beltzain* (Elizondo), *Galartzain* zubire (Oronoz), *pilotain* (Lekaroz), *sarrerain* (Aniz), *ardian* (Amaiur), *lekuain* (Ziga), *makillain*⁴ (Erratzu), *aiziain* (Gartzain), *kotxiain* (Gartzain), *urain* (Lekaroz), *bastain* (Ziga), *arkupeain* (Almandoz), *arropain* (Amaiur), *gerrain* (Elbete), *amain* (Gartzain), *apezain* (Elbete, Ziga), *a(g)ostoain* zorzie (Lekaroz), *ilebetiain* (Amaiur), *kandelain* (Irurita), *obispuain* (Gartzain), *dantzain* (Gartzain), *euskarain*⁵ (Erratzu), *alkatiain* (Aniz, Lekaroz), *arrosa-riokoain* (Berroeta), *izerrain* (Ziga), *atabalain* (Arizkun), *paetain* (Berroeta),

4 Palatalizazio hau ez da batere arrunta Erratzu aldean.

5 Bistan da han denek 'eskuara' ibiltzen dutela, ez 'euskara'.

orraxain (Lekaroz), *personain* (Lekaroz), *atiain* (Almandoz), *denborain* (Almandoz), *ilerokoain* (Aniz), *erromesain* (Almandoz), *astuain* (Almandoz, Oronoz), *astoain*⁶ (Almandoz, Amaiur), *Juan Angel Bielain* (Elizondo), *gizonain* (Elbete); *apezain* (Erratzu); *belarrain* (Ziga); *ostoin* (Ziga); *alkatxofain* (Erratzu); *latxain* (Almandoz); *malbain* (Lekaroz), *erriain* (Elizondo), *eskaio-lain* (Lekaroz), *senfïtoain* (Lekaroz), *arroltzaiain* (Elizondo), *arrotoñain* (Gartzain), *biatzain* (Ziga), *zingiruin* (Oronoz), *odolain* (Amaiur), *errekain* (Oronoz), *arantzain* (Oronoz), *artuain* (Arraioz), *berotasunain* (Azpilkueta), *sainduain* (Ziga), *beroain* (Lekaroz).

Ez dira, ordea, bakarrak. Ondoko hauek ere lan beretik dira hartuak: *aitaren* (Aniz), *desodorantiaren* (Lekaroz), *izerdiaren* (Lekaroz), *zerriyaren* (Oronoz), *diruaren* (Arraioz), *ogia*ren (Irurita), *itxiaren* (Oronoz), *etxearen* (Amaiur), *auntzaren* (Lekaroz), *astoaren* (Lekaroz), *beltxaren* (Lekaroz), *andregaiaren* (Almandoz), *ondduaren* (Erratzu), *etxolaren* (Ziga), *bertziaren* (Gartzain), *yendiaren* (Aniz), *maitearen* (Erratzu), *Mariaren Alaba* (Azpilkueta), *lurraren* (Erratzu), *poderosoaren* (Ziga) (otoitz batean), *kreatza-learen* (Ziga) (otoitz batean), *Yangoikoaren* (Azpilkueta), *Yaunaren* (Aniz), *uraren* (Aniz, Amaiur), *kattuariaren* (Lekaroz), *txituariaren* (Oronoz, Ziga), *xituariaren* (Erratzu), *semearen* (Aniz), *xarrantxaren* (Oronoz), *baoare*n (Erratzu), *ekainaren* (Elizondo), *putzuaren* (Erratzu), *Erramuaren beldur* (Lekaroz).

Batzuetan, nolakoa den aitzineko aldean duen bokala, ‘-ein’ ere egiten ahal du: *zurein...* *artian* (Irurita), *ogiein* (Ziga), *kisulabiein* (Elbete), *andrein* (Almandoz), *urriein ondarrin* (Irurita), *makinein* (Gartzain), *lurrein* (Gartzain), *etxeakoandrein* (Gartzain), *karlistein* (Almandoz), *aurrein* (Azpilkueta), *ilebetiein* (Azpilkueta) *Ama Berjinein* (Erratzu), *deabruein* (Amaiur, Arizkun), *Utsuein* (Arizkun, ‘Urtsuaren’), *sorginein* (Gartzain), *ilerrrein* (Gartzain), *minein* (Erratzu, Elizondo). Bakan batzuk harrapatu ditugu ‘-iin’ egiten dutenak: *zerriin zistorgaiek* (Oronoz), *erbiin gieletik* (Elizondo). Bertze batzuetan ‘-uin’ekin ere aditu ditugu: *antruin* (Amaiur), *suin* (Ziga), *Erramuin beldur* (Erratzu).

Artikulua erantsiz gero, bertze aldaera hauek guziak (denak lan beretik hartuak): *pobriaña* (Almandoz), *ardoaña* (Oronoz), *eskupetaña* (Gartzain), *sagarraña* (Aniz), *zerbaitena*, *bertzeaño* (Erratzu), *aitzurreña* (Gartzain), *deneña* (Aniz), *Aite Saindueña* (Lekaroz), *setienbreña* (Almandoz), *zakurreña* (Aniz), *kiloña* (Ziga), *gazteluine* (Amaiur), *roxoarena* (Elizondo).

6 ‘astoain’-‘astuain’ alternantziak, bertze toki aunitzetan gertatzen den gisan, arruntak dira Baztanen ere, eta aunitzetan hitzun berak ibiltzen du behin bat eta ondokoan bertzea.

Genitiboaren gainean eraikitzen diren bertze kasuetan ere, prolatiboan konparazione, bildu ditugu aldaera aunitz:

- *golpendako* (Azpilkueta), *ttikiendako* (Lekaroz), *urindako* (Amaieur), *billobendako* (Aniz), *batendako* (Berroeta), *amatxi zenandako* (Oronoz), *amatxindako* (Oronoz), *oiendako* (Oronoz), *ongarri(y)andako* (Oronoz), *kukusendako* (Erratzu), *mozorroendako* (Irurita), *egiten duenarendako* (Lekaroz), *arendako* (Lekaroz, Arraioz, Irurita, Amaieur, Almandoz), *olluarendako* (Oronoz), *aendako* (Amaieur, Elizondo), *arbiendako* (Elbete), *lurrendako* (Elbete), *gizonandako* (Oronoz), *emakumindako* (Oronoz), *gasnandako* (Oronoz), *esnendako* (Oronoz), *ulindako* (Oronoz), *poli[t]patendako* (Oronoz), *aziendendako* (Azpilkueta), *mairterrendako* (Berroeta), *ekendako* (Lekaroz), *bakotxandako* (Oronoz), *iretzeandako* (Oronoz), *oiendako* (Oronoz), *nausiendako* (Elbete), *xerriendako* (Lekaroz), *yendindako* (Aniz), *lenbizikuandako* (Oronoz), *bertzeandako* (Oronoz), *bertziendako* (Oronoz), *bertziandako* (Oronoz), *nai zuenandako* (Oronoz), *biar duzunendako* (Oronoz), *familiandako* (Oronoz), *zarrendako* (Aniz), *nausiendako* (Aniz), *umiendako* (Aniz), *zerrindako* (Oronoz), *azindandako* (Oronoz), *gastundako* (Oronoz), *beorrendako* (Gartzain), *beiendako* (Irurita), *umedadiendako* (Irurita), *eken-dako* (Aniz), *bertzendako* (Ziga), *bi orri baziren xaonadako* (Amaieur), *lixuendako* (Aniz), *orrendako* (Oronoz), *ekendako* (Berroeta, Gartzain, Lekaroz), *erbiendako* (Gartzain), *mateialendako* (Gartzain), *gerruntzien-dako* (Ziga), *launendako* (Arraioz), *bakotxandako* (Ziga), *buruendako* (Almandoz), *zaldierendako* (Azpilkueta), *aziendendako* (Irurita), *soldaduendako* (Irurita), *zaldierendako* (Elbete), *Baztanendako* (Gartzain), *geokendako* (Ziga), *soldaduendako* (Almandoz), *zendako* (Erratzu), *ogiendako* (Arraioz), *erdaldunendako* (Amaieur), *erpesendako* (Lekaroz), *petxuen-dako* (Erratzu), *pikorrandako* (Oronoz), *berendako* (Arizkun), *bertzindako* (Aniz), *animaliendako* (Arizkun), *zuendako* (Elizondo), *ttarrendako* (Elizondo), *aundiendako* (Elizondo), *apezendako* (Lekaroz), *unendako* (Oronoz), *Jaionendako* (Oronoz), *Joxepandako* (Oronoz), *azeriendako* (Almandoz), *ebakiendako* (Amaieur), *reumendako* (Amaieur, Gartzain), *zintzurrendako* (Amaieur), *zizeriendako* (Amaieur), *guziendako* (Erratzu), *gauzendako* (Lekaroz), *dibiesoendako* (Lekaroz), *oiendako* (Oronoz), *atxikindako* (Oronoz), *aunitz gauzendako* (Erratzu), *erniandako* (Oronoz), *orrendako* (Erratzu), *kalitzendako* (Gartzain, Almandoz, Aniz), *zeendako* (Amaieur, Arraioz), *miñendako* (Almandoz, Aniz), *miñandako* (Oronoz), *oiendako* (Azpilkueta, Lekaroz, Ziga), *azindandako* (Almandoz), *pertsonendako* (Ziga), *erriandako* (Oronoz), *orrendako*

(Almandoz), *katarru aundiandako* (Oronoz), *agiñeko miñendako* (Ziga), *gangabillendako* (Amaiur), *okendako* (Amaiur), *aunditsuendako* (Erratzu), *zintzurrendako* (Aniz), *artua zerendako* (Oronoz).

- *neskarengana* (Almandoz), *ekengana* (Gartzain), *arengana* (Gartzain, Arraioz), *aengana* (Elbete), *apaizarengana* (Lekaroz), *albaiteroengana* (Aniz), *albaiteruengana* (Aniz), *anaiengana* (Erratzu), *artzañengana* (Erratzu), *illengana* (Ziga), *Fernandoingana* (Erratzu), *Ramonaingana* (Erratzu), *apezaingana* (Azpilkueta, Erratzu, Amaiur), *duzunaingana* (Amaiur), *apezaingena* (Aniz, Elbete), *medikuingena* (Lekaroz), *mondongoindako* (Elizondo), *errieindako* (Aniz), *semiaindako* (Oronoz), *gaztanberaindako* (Almandoz), *semiaindako* (Aniz), *ureindako* (Lekaroz), *difuntuindako* (Irurita), *etzirenaingana* (Aniz), *bestiduaindako* (Oronoz), *Maritxuindako* (Oronoz), *ezpelaindako* (Gartzain), *arbolaindako* (Gartzain), *enpatxuindako* (Amaiur), *miñeindako* (Ziga, Almandoz), *miñaindako* (Almandoz), *mineindako* (Arraioz, Erratzu, Amaiur, Lekaroz), *zintzurreindako* (Erratzu), *katarroindako* (Aniz), *katarrueindako* (Aniz), *pettorreindako* (Aniz), *zingiruaingana* (Arraioz), *biozterrieindako* (Almandoz), *errieindako* (Arizkun), *amaindeko eta aiteindeko* (Azpilkueta), *bertziaingana* (Irurita), *olloingana* (Ziga), *apezaindeko* (Ziga, Oronoz), *gaztanberaindeko* (Almandoz), *yendiaindeko* (Aniz), *bariaingana* (Aniz), *karakolaindeko* (Aniz), *kiloeingana* (Aniz), *tropaindeko* (Almandoz), *bakotxeingana* (Elbete), *bakarraingana* (Amaiur), *yatekoingana* (Lekaroz), *Artxeokoingana* (Ziga), *pleuraingana* (Erratzu), *golpiaingana* (Gartzain), *enpatxuingana* (Amaiur), *denaindeko* (Amaiur), *mineingana* (Azpilkueta), *zingiriuaingana* (Ziga), *odolaindeko* (Amaiur), *yendiaindeko* (Oronoz), *polipoingana* (Almandoz), *billobaindeko* (Aniz), *batzundeko* (Almandoz).
- *pitxerrakin* (Erratzu), *aizpekin* (Irurita), *arekin* (Oronoz), *arikin* (Arizkun), *oiekin* (Irurita), *makilikin* (Arizkun), *ponpollekin* (Arizkun), *urekin* (Almandoz), *brasakin* (Almandoz), *ferretakin* (Almandoz), *tablekin* (Amaiur), *bordekin* (Ziga), *arrikin* (Berroeta), *notizikin* (Aniz), *gutikin* (Ziga), *trato(r)ikin* (Irurita), *argizarikin* (Berroeta), *demo onikin* (Amaiur), *palaikin* (Irurita, Elbete), *(m)entabelarraikin* (Elizondo), *bottonaikin* (Elbete), *demo o...naikin* (Amaiur), *esniaikin* (Arraioz), *beratzaikin*, *ukunbillakin* (Azpilkueta), *iriñaikin* (Ziga), *espumaduraikin* (Ziga), *zardiñikin* (Oronoz), *kordiaikin* (Arizkun), *denboraikin* (Arraioz), *yendiaindeko* (Erratzu), *semiaikin* (Azpilkueta), *olluaikin* (Azpilkueta), *osabaikin* (Lekaroz), *igitaikin* (Gartzain), *lurraikin* (Arraioz), *beiaikin* (Azpilkueta),

bueltaikin (Azpilkueta), *sufriaikin* (Amaieur), *mineikin* (Amaieur), *olioaikin* (Amaieur), *burdineikin* (Arizkun), *kaldaikin* (Arizkun), *berriaikin* (Berroeta), *abarkaikin* (Amaieur), *txarolaikin* (Amaieur), *nabalaikin* (Elizondo, Ziga), *kargaikin* (Erratzu), *aiteikin* (Amaieur), *amaikin* (Amaieur, Elbete), *amatxikin* (Elbete), *berreun te (g)eioikin* (Amaieur), *astoaikin* (Amaieur, Erratzu), *komunioniaikin* (Amaieur), *beruaikin* (Lekaroz), *sotanaikin* (Lekaroz), *zinteikin* (Amaieur), *ikin* (Irurita), *familieikin* (Elizondo), *karrakeikin* (Lekaroz), *deabrueikin* (Amaieur), *ureikin* (Amaieur), *uraikin* (Amaieur), *formaikin* (Elizondo), *karetaikin* (Arraioz), *sobrekamaikin* (Arizkun), *gareikin* (Elizondo), *burutieikin* (Arraioz), *itsesaikin* (Arizkun), *ederraikin* (Erratzu), *txartxagoikin* (Almandoz), *jitoaikin* (Almandoz), *kitoaikin* (Lekaroz), *zuenaikin* (Erratzu), *multzoikin* (Erratzu), *zagiyaikin* (Oronoz), *zuringoaikin* (Amaieur), *trapatineikin* (Arizkun), *azalaikin* (Amaieur), *kanelaikin* (Ziga), *tipulaikin* (Ziga), *karraskilleikin* (Amaieur), *ardoaikin* (Amaieur), *bendaikin* (Arizkun), *otzaikin* (Lekaroz). Salaburuk (1984, 200 or.) biltzen ditu *hekin* eta *hekekin* ere.

- Adlatibo kasuan ('-ra') ere aldaera bat baino gehiago ikusiko dugu: *mezara* (Berroeta), *komedorera* (Irurita), *pasora* (Irurita), *Ameriketara* (Aniz), *ara* (Aniz), *arara* (Oronoz), *etxera* (Berroeta), *itxera* (Berroeta), *urera* (Oronoz), *errekara* (Oronoz), *guzietara* (Almandoz), *arat* (Ziga, Elbete, Oronoz, Azpilkueta, Aniz, Erratzu, Lekaroz, Irurita, Berroeta, Arraioz), *artarat* (Lekaroz), *orrat* (Aniz, Oronoz, Lekaroz), *leorrat* (Berroeta), *Bentaa* (Aniz), *untaa* (Oronoz), *Aizkune* (Amaieur, Erratzu), *Almandoze* (Berroeta), *Almandoza* (Aniz), *Alkoza* (Aniz). Salaburuk (1984, 200) *hetara* eta *heketara* biltzen ditu. Lekuko irarrietan *norat* (Almandoz), *kaikuret*, *larreat* (Aniz) ere atzeman ditugu.

3.8. Ohar batzuk deklinabideaz

Hemen paratu ditugun aldaera hauek guziak aditzen ahal dira Baztango mintzoan. Baina bertze zerbait gehiago ere erran nahiko genuke deklinabidearekin zerikusia duen kontu honetaz. Ohar batuzk dira, ez bertzerik, honekin ez baitugu halako azterketa sistematiko bat egin nahi. Uste dugu, hala ere, badiren puntu batzuk azpimarratzen ahal direnak.

3.8.1. Galdetzaileak

Galdetzaileetan 'zertaz' ibiltzen da 'zergatik' galdetzailearen erranahiarekin. Hori aski arrunta da Baztanen, eta Bidasoan ere. Eta Baztangoiza alde-

ra arras arrunta da ‘zerendako’ (*zendako* ahoskatua) ibiltzea antzeko erranahia duela. Hortaz, *zendako torri zara* bezalako esaldi batek *zergatik etorri zara* erran nahi du. Badira adibideak *zeren*-ekin ere:

zendako etzaitudan biotzetik uzten (Erratzu)

eztu iñork ere zeren yakin (Aniz)

eztatzut erten al zeendako (Arraioz)

ez duenak buru, zendako ainbertze liburu (erranahirua)

3.8.2. Bizidunak eta bizigabeak

Bizidunen paradigma ez da ibiltzen Baztango solasean bertze euskalkietan bezala, hori da berehala atzematen duena baztandarrak kanpora joan bezain laster. Hemen emanen ditugu adibide batzuk argigarriak izan daitezkeenak:

Joxepa medikura gan da

Hau arrunta da Baztanen, jendea ‘medikura’ joaten baita, ‘medikuarengana’ baino maizago, Baztangoizatik hasi eta Oronozeraino. Horrek ez du erran nahi ‘medikuarengana’ (*medikueingena* ahoskatua) ez dela ibiltzen. Hori ere ibiltzen da, eta batez ere mediku ezaguna baldin bada (baldin badakigu nori buruz ari garen), edo izena jartzen bada, ez da dudarik orduan bizidunen marka ibili behar dela:

Eusebio medikueingena gan da Joxepa

mediku orrengana gain da Joxepa

Iduri du, hortaz, bizigabeen marka hori ibiltzen dela nolabaiteko mugagabea balitz bezala edo.

3.8.3. Mugatua eta mugagabea

Hau da euskal gramatikak orainik ere argitzeko duen puntu ilunenetako bat, bertze gauzen artean, ez baitakigu sobera egokia den aukeratu den terminologia bera ere. Hona hemen adibide batzuk:

Arantxa Donostiara gan eta urian sartu zen Kontxan

Bonberuak suen sartzan dire aunitzetan etxean norbait gelditu den kusi nai dutelaik

Aise errexago kentzen zaio azala adarrai arbola izerdien dagolaik

Lenago errautsian gaten tzen jendia Ameriketara

*Nik aur-aurretik izen dut atabalain giroa etxian
Bedratzi urteko asie nitzen atabala jotzen
bertze lanik ez duenak, katue urean busti (erranahirua)
amerikano pobrea, purdie urian bustie (erranahirua)*

Bertze euskalki aunitzetan errazago ematen ditugu esaldi horien parekoak mugagabea ibiliz (*uretan, sutan, errautsetan, haur-haurretatik, urtetako, izerditan*). Zer erran nahi du horrek, Baztanen ez ditugula ibiltzen aldaera mugagabe hauek? Ez, ez da hori. Ondoko adibide hauetan ikusten den bezala, ez dira batere arrotzak Baztanen mugagabearen formak (adibide guziak lekukoei hartuak dira):

*belaiie uretan dago, orrenbertze urie in ondoan
zartañe suten asi de
mutiko oi izerditen dago
errautsetan torri de kamiona
Bederatzi urtetako asie nitzen atabala jotzen*

Ederki bereizten ditu horregatik baztandar batek zer diren *urean* eta *uretan*, edo *suan* eta *sutan*. Bertze batzuetan erranahia ez da berdina (*errautsian*, kasu honetan, erramolde bat da, eta 'aunitz' erran nahi du). Bertze batzuetan biek balio bera dute: *bederatzi urteko* eta *bederatzi urtetako*, bertze toki batzuetan 'bederatzi urtetarako' erran nahi baitu.

Hona hemen bertze adibide batzuk:

*mutikoa izerdi putzuten torri de
lore au esnetan dago
berdetan kartzen dute belarra (= 'belarra berde dagoela ekartzen du')
berdeketan daile aite (= 'belar berdearen biltzen dabil aita')
beorretan ibiliko zen (= 'segur aski, behor bila joana da')
goxoketan da umia (= 'goxo bila joana da umea')
garai artan kobreketan ibiltzen ginen (= 'kobre garraioan')
urketara gana da*

olako tokiten geldituek 'ituk (= 'holako tokitan geldituak dituk')

Zerri puskek? Bai, barridetara ta yendakietara... [eraman behar genituen]
(Ziga)

zerriek umetan sartu bear tut (= 'zerriak umetan sartu behar ditut')

Ohart gaitezen, azkeneko adibide hau dela eta, ez ditugula arruntean holako baliabideak ibiltzen gaur egun: nork erran du inoiz *irakaslea ikasletan sartu da* bezalako zerbait? Hori, hala ere, badirudi aski ongi egokitzen dela euskararen senarekin, nahiz denei naturalago iruditzen zaigun, segur aski ere, *irakaslea gelan sartu da*.

Zenbait kasutan, zernahi gisaz, iduri du ez dela ibiltzen mugagabea ibili beharko litzatekeen tokian, ze *errikoa aiz i?* bezalakoak erraz aditzen ahal baitira. Edo bertze adibide hauek:

Baztango eskudua nik ez dakit ze gerretan (Lekaroz)
ezakit... ezakit... e... ze errikua zen edo, Anizkua bera zen igual... igual izango zen Anizkua biño oi ezakit (Elizondo)
bidegurutze etzien ooitzen ze... zein bidetik yuan tziren (Ziga)
eztaki[t] ze egurrakin ta nola (Oronoz)
etzakien ze materialakin egin (Almandoz)
eztakit nik ze argikin aiko zen ori (Oronoz)
bizpairu illabetetik aldatu bar tziren (Oronoz)
ameketan gan ginen (Arizkun = “hamaika urte genituelarik gan ginen”)

Egia erran, azkeneko adibideak, *-kin* sozietiboa daramatenak, ez dira sobera argiak, akabaila hori ere ez baita argi ematen Baztanen (*andriaikin, gizonaikin...*). Hainbertze urtez egon izan gara ikasten eta erakusten galdetzaile ageri zen aldi bakoitzean (*ze, zer, zein*), horrek automatikoki mugagabea eskatzen duela sintagman. Baina guk beti izan dugu inpresioa Baztango mintzoan mugatu/mugagabe kontuaren arteko mugak nahiko lanbrotsuak direla, eta gauzak ez direla hain garbiak. Hasteko, badira arrazoi fonologikoak: *gauza* hitzak berdin eskatzen du batean eta bertzean *gauzetan* (*gauzatan* horrek ez baitu tokirik Baztanen: arruntean, ‘u’ baten ondoren ez da ‘a’ ematen).

Egia da, dena dela, hango joera naturala aunitzetan eredu ‘kanonikoa’ segitzea dela (hauek guziak grabazioetatik hartutako adibideak dira):

guk bagintuen amairu itxetara gan biar (Ziga)
artan, ta ola, iru lerrotan (Gartzain)
Ta antxe, uzkur-uzkurre, alkatiak zenbat in tzituen, bortz auzelanetako bortz zardinzar ta... bos pintte erdi, eta ogie (Aniz)
Baziñakizun zuk ze kaskotan zaon ixpie, eta, arek argie tik! (Aniz)
sei ilebetetako saltzen da jene(r)almente zaldikoa... aragiko... eta beoka, batzuk azten dire, aunitz, aitzinerako... (Elbete)

Miramamolin, ez dakit ze gerrartetan (Aniz)
ez dakit ze urtetan (Erratzu)
gaztetan badu kuraia denetarako (Amaiur)
Ze orduteko? do norat? (Almandoz)
eztait ze itxetakoak baño bazirela aunitz (Berroeta)
Oiek ikurriña in tzuten eztakit ze tokiten (Berroeta)
ez(t)akit ze aldetakoa zen (Aniz)
... ze urtetan ginauden (Arraioz)
eztaki(t) ze gerratan Españak in tzuen irabazi bulek (Almandoz)
... ze sainduten e... sortue zen, sainduen eguneko zera (Arraioz)
segun se klas... ze posturetan sortzen tzen (Gartzain)
ta gañea ze tenoretan ere bai... (Ziga)

Bistan da ze horrek balio bikoitza duela: *zein* erran nahi du batzuetan, eta *nolako*, bertze batzuetan. Arruntean, *zein* erran nahi baldin badu, horrek mugagabea eskatzen du:

ze ordu da?
ze seinale da hori?
ez naiz [oroitzen] ze egun zen xuxen atratzen zutena karroza (Erratzu)

Azkeneko adibide horretan, hitzuna datari buruz ari da (ez daki otsailaren 2a zen edo martxoaren 4a; ez daki astelehena edo asteartea zen). Jakina, horri buruz aritu beharrean, hiztunaren zalantzak eguraldiari buruzkoa izan balira, ez baita oroitzen egun argia zen edo iluna, euria ari zuen, edo goibel zen, orduan bertze hau erranen luke:

ez naiz [oroitzen] ze eguna zen

Ez da oroitzen nolakoa zen eguna. *Zer* horrek *nolako* erran nahi badu, sintagma mugatua eskatzen baitu. Berdin bertze erramolde honetan ere:

- a ze paria! -Bai, karakola ta baria
a ze naigabea eman datazun

Hau da teoriak erakusten duena, bere salbuespen guziekin, *ze* hori, eta nahi bada *zein* osorik ematen bada ere, perpaus klasearen arabera, sintagma mugatuetan ere ageri baita:

oi zein goxoak!... (Irurita)

ze aundie den etxe oi! (Elizondo)

ze arropa pollitek erosi tuzun! (Erratzu)

ze neskatiko pollitekin ezkondu den! (Arizkun)

Baina esaldi horiez atzenduta ere, kontua da *zein* eta *nolako*-ren arteko bereizketa hori, erranahiaren bereizketa hori, hiztunak egiten duela, eta hiztun guziek ez dutela modu berean egiten. Batzuetan uste dugu Baztanen *ze* hori maizago interpretatzen dela *nolako* bezala *zein* bezala baino, bertze euskalkiekin konparaturik. Beharbada horrek esplikatu dezake zergatik aditzen diren han mugagabeak bertze tokietan baino gutiago:

zegun ze sasoñan zer tzen... artu te gaten zuten... (Elbete)

Pues andria(k) gan bar tzuen mantillakin... ta gero segun ze urtiak ziren o ze antiguedadiakin (Elbete)

Batzuetan, interpretazio hau azken muturreraino eramaten ikusi dugu:

Xo! Mekabuen! -orduen erlejuik ere etzuten izein- ze orduak itugu? Arzañak ai tuk ya ardik biltzen (Ornoz)

Mugagabearekin ere dago erlazionatua aditzaren komunztadura kontua. Erran behar da Baztanen ez dela inolako beldurrik komunztadura pluralean egiteko:

boneta ta pipe aunitzek gaten zuten... [b]ai (Erratzu)

gazur ure aunitzek edaten zuten (Gartzain)

aunitzek duzte igual leonak edo... puxtena goiti ta beiti... (Aniz)

Ta, gero, aunitzek iten omen tzuzten nasi kitoak zirela (Aniz)

ni[k] nituen orduen sei urte (Erratzu)

Aa... sei lagun benpin biar zintun (Ziga)

nik... sei-zortzi bei iduki tu(g)u beti (Ornoz)

makil betekin neurtu n(u)en te izein tu sei metro, sei metro t'ardi igual (Elbete)

Ohartu garenez, azkeneko adibide honetan bezala egiten da beti komunztadura, holakoetan, pluralez, Baztangoizean bederen:

maai unek bi metro neurtzen tu

arri orrek eun kilo pisetzen tu

gure anaiek amar urte tu

3.8.4. *Izenordainak*

Izenordainetan ez da berorika ibiltzen gaur egun, garai batean ibili baldin bazen ere, nahiz horren lekuko guti harrapatu dugun. Hau ez dute gaurko hiztunek ezagutzen. Ez dira ezagutzen *berau* edo *berori* ere, horietan beti, indargarriak direnean, eta gradu guzietan, *bera* ibiltzen baita (*au bera, oi bera...*). *Nor edo nor* bezalakoak arruntak dira, eta kasuren batean *norbera* ere bildu dugu, baina behin bakarrik. Ez dugu uste batere arrunta den:

nor bera... aski zela, denak elkarrekin etzutela konfiantzik (Aniz)

Bertze adibide hau ere atzeman dugu, gure ustetan batere arrunta ez dena. Baina kasu honetan hiztuna istorio bat kontatzen ari da (eta buruz ikasitako ixtorioa da, herri guzietan berdintsu kontatzen baita):

[erantzun zuen:] - *Nor n... nor bere buruk, nor bere buruk!* (Lekaroz)

Hor, hiztunak, *bakarrik* erran nahi du.

3.8.5. *...buruz postposizioa*

Postposizio hau bi modutara ibiltzen da Baztanen: *-i buruz* eta *-en buruz...* Ez da gazteek modu batera eta nagusiek bertze gisa batera ibiltzen dutela. Ez, ez dugu uste adin kontua den. Aski hedatuak dira bi modu hauek (nahiz hedaruena *-n gainean* den):

orren buruz mintzetu da (Arizkun)

Apirilaren buruz, pentsatuz, zalla dela, otza egiten duela [...] esan omen tzun (Lekaroz)

Direzione ba(t) ate orri buruz man xuxen, ta rau! Sartiko (d)e ure arat... (Amaiur)

3.8.6. *-ikan akabaila*

Batzuetan *-ikan* akabaila aditzen da Baztanen, batez ere Basaburu eta Oronoz aldera. Bertze tokietan ez da batere arrunta, non ez garen forma fosilduez ari: *orainikan* (*oñiken* bezala ahoskatua), adibidez. Hara hemen adibide batzuk:

emendiken; guzitiken (Arraioz)

reklamatu bazen zerbatt ere, nonbaitikan ere iña zain zuten, paso a nivelak, eta bertze lekutan iten tziren, baño or etzen in (Oronoz)

Ta klaro, erriko dirutikan diferentzi ori, baño... gero (Oronoz)

Erreparatzeko zubitikan bota bar tzutela (Oronoz)

Onengatikan bia'uzu al bezain ongi egosi ure (Ziga)

oñikan ez gine, ez ginen ezkondu (Elizondo)

Deus makurrikan gabe pasa zituzten hogei behiak, bai eta erran zuten lekuan utzi ere (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*)

Gutti, zegaitiken eken aunitz praktika falta nuen (J.L. Arizkun)

ta in diote fundamentuekin errezeta baizikan egiteko ur epelarekin (Aniz)

Azken adibide hau aski curiosoa da. Hemen *baizikan* horrek 'erranez' edo holako zerbait adierazi nahi du (ikus *EGLU-V*, 55. or.), eta guk ez dugu uste gaur egun indarrik baduen Baztanen. Esaldi hori adineko bati hartua da, baina hiztuna istorio baten kontatzen ari da, eta istorio horren barnean zati hau bertso bati dagokio. Bertsoa, hala ere, hango hizkeran da, zalantza gabe. Horrek erran nahi du forma hau noizbait indarrean egon dela, baina guk, egia errateko, ez dugu ezagutzen.

Formara itzuliz berriz ere, erran dezagun *baizikan* hau arras bakanki ibiltzen duela Izetak, eta Etxenikek ez duela ibiltzen.

3.8.7. Aditz izena eta osagarri zuzena genitiboan

Aditz izenaren osagarri zuzena, jakina denez, absolutiboan edo genitiboan ematen da ekialdeko euskalkietan. Baztanen ere gauza bera gertatzen da, eta ez dugu uste baden bien artean inolako desberdintasunik:

gan gara ardiek kusterera

gan gara ardien kusterera

ta gero beren... ori, ofrenda itera (Irurita)

ure edatera ta usoa (Gartzain)

Ta gero... e... arengana rebista, eskupetaña pastera gan ta "Tú contrabandista" erran tzaten (Gartzain)

ta artu sega ta... belar moztera ta siesta pixket in ta atsaldian (Arizkun)

lo pixkaten itera (Amaiur)

kafiaren ikusterera (Amaiur)

bere buruain zaintzeko (Amaiur)

amain kusterera gateko (Amaiur)

olloaren biltzera (Arizkun)

semiaiñ aztera (Elizondo)

masa aren jaten (Elizondo)

aren forratzeko (Erratzu)

... bi emaztekiak bakar bakarrik bi erien zaintzeko (Izeta, *Baztango kontuak*, 88 or.)

...lehenagoko zorraren garbitzeko eta bertzea lan berriaren ordaintzeko (*Baztango kontuak*, 134. or.)

...lan horren ordaintzeko (Izeta, *Baztango kontuak*, 134. or.)

kafia ona da, bazkari onaren dirijitzeko eta txarraren erremediatzeko (erranahirua)

Badira, ez da dudarik, aipatu beharko genituzkeen bertze aunitz ñabardura, baina uste dugu hemen biltzen ditugun guk atzeman ditugun nabariak.

4. KAPITULUA
MORFOLOGIA (ADITZA)

4. KAPITULUA

MORFOLOGIA (ADITZA)

4.0. Sarrera

Hurrengo orrialdeetan Baztango mintzoaren adizkiak biltzen saiatu gara. Euskal aditza berez konplexua baldin bada -aberatsa dela diote batzuek horregatik-, herriz herri eta ahoz aho ibiltzen diren adizkiak paperera eramane nahi dituzunean ohartzen zara, norainokoa den adizkien oihan eta baso hetsi horren ilunpea. Hemen ikusten da, inon ikustekotan, eredu batuzirik ez izateak ekarri duen nahaste ikaragarria aditzen paradigmetan. Zerbait izatekotan, nahastea baita hemen gertatzen dena, gertatzen den hau, tradizio idatzia duen bertze edozein hizkuntzarekin konparatuz gero.

Hiztunen artean zalantza handiak sortzen dira, aukerak, aldaketak, eta behin baino gehiagotan hiztun berak modu bat baino gehiago ibiltzen du, ongi errotu eta finkatu gabeko hizkuntza batean mintzo balitz bezala. Gure buruari galdetzen ahal diogu nola den posible hiztunak elkarren artean erran nahi dutena zuzen ulertzea ere. Beldur gara, ordea, horren erantzunak ez gintuzkeela beteko, ondorioa izan baitaiteke pentsatzea aditzean -euskal aditz harrigarri horretan- datorren informazioa beharbada ez dela hain beharrezkoa eta horregatik alda daitezkeela forma guztiak informazioan gehiegi galdu gabe. Ez dakigu, ordea, bekatu larria ez ote den holakorik pentsatzea. Baina bistan da hemen bidea bereiztea ez dela bate-re erraza.

Guk eskura harrapatu ditugun adizki guztiak eman ditugu, bildu ditugun guztiak. Bistan da aldaera aunitz arau fonologiko soil batzuk ezartzearen ondorioak direla, baina, hala ere, denak eman nahi izan ditugu, informazio osoa eskainiz, ikusteko zer aldaketak dauden.

Erran bezala, adizkiak herri batetik bertzera aldatzen dira, eta tradizioz eza horrek bietarako joerari eragin dio: batetik, diogun bezala, adizki aunitz ageri da, eta nahasian ibiltzen dira batzuetan (*nor-nork* sistema eta *nor-nori-nork* sistemak elkarren artean tratatuz, konparazione, edo analogiaz baliaturik adizki bitxiak sorraraziz), eta bertzetik, eskema bera soildu da, erraztu, alegiazko eta ahalezko adizkiak gutitu baitira, desagertzeraino heldu arte batzuetan.

Material aunitz izan dugu esku artean: batetik, Salaburuk (1984a eta b) bere tesian emandako datuak; bertzetik, Yrizarrek (1984) bildutako adizkiak (Arizkungo herrian, Azpilkuetan bi tokitan, Aritzakungo auzoan –etxe gehienak Arizkungoak dira baina auzoa hurbiltxoago dago Erratzutik-, Amaiur, Elizondo, Lekaroz, Irurita, Gartzain, Arraioz, Aniz eta Almandoz. Aztertu gabe utzi zituen Basaburuko Berroeta eta Ziga, alde batetik, eta Oronoz eta Elbete, bertzetik); Baztangotzat jotzen diren liburuak eta idazkiak (Bruno Etxenike, Baztango doktrina batzuk, Mariano Izeta...), guk geronek hainbertze urtetan zehar bildutako oharra eta han-hemenka egindako hainbertze ordutako grabazioak, eta, bereziki, Maite Lakar eta Ana Telletxeak (2004) azken urte hauetan, Baztango Udalaren laguntzari esker bildu duten materiala, irarri eta transkribatua, hango mintzoak dugun lekukotasunik hoberena beharbada. Kanpotik begiraturik, aski nahasiak dira datuak, sistema bat baino gehiago ibiltzen baita, baina bada hala ere koherentzia bat, iturri desberdinetako datuak (urte, herri eta hiztun diferenteen datuak) bat baitatoz, edo aldaera txiki batzuetan bakarrik bereizten baitira.

Saiatu gara, paradigmak bakarka ematean, aukera baten egiten, eskura genituen adizki multzoen artean. Aukerak ez du beti batasunik, baina hau-tua apropos da egina: batzuetan sistema morfologiko bat baino gehiago egoten ahal dira elkarrekin borrokan, baina gure ustez ibilienak diren adizkiei eman diegu lehentasuna, aldi bakoitzeko proposatzen den ‘ereduan’. Gainerako adizki guztien berri eman dugu, baina ‘ereduzko’ adizkien ondoran datozen oharretan betiere, lauki bakoitzaren ondotik eta bereiz. Uste dugu honek informazio handia ematen duen, Baztanen gertatzen denaren berri jakin nahi duenarendako. Baina nekez joaten ahal gara urrunago. Pentsatzekoa da batasun eredu (orain komatxorik gabe jarri dugu hitz hau) hedatu ahala, adizki hauetako aunitz galduko direla, edo, galtzen ez badira ere, modu egokiagoan ibiliko direla (‘nor-nork’ eta ‘nor-nori-nork’ sistemak nahasi gabe, konparazione).

Ez gara guztiz ortodoxoak izan adizkien izenak, modu eta denborenak, emateko orduan. Batetik, ohiko euskal gramatiketan ageri direnak gaindi-

tuak dira Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak *EGLU* gisa ezagutzen den gramatika¹ argitaratu duenetik. Hemen egin dugun hautua bertze bat da, eta irakurketa errazteko asmoz, tarteko bide bat aukeratu dugu, uste baitugu laguntzaileak bereizten hasteak (*izan*, **edin...*) ez liokeela sobera lagunduko kontu hauekin laketurik ez dagoen irakurleari. Nahiago izan dugu pertsona marken arabera (nor-nori-nork) sailkapen klasikora itzuli argi-agoa delakoan. Batzuetan osatu gabe ageri dira laukiak. Hori da lekukotasunik atzeman ez dugulako puntu horretan.

Holaxe sailkatuko ditugu, hortaz, adizkiak (adibideak batuan):

1. Indikatiboa. Oraina: *naiz*
2. Indikatiboa. Iragana: *nintzen*
3. Baldintza. Alegiazkoa: *banintz*
4. Baldintzaren ondorioa: *nintzateke*
5. Ahalezkoa. Oraina: *naiteke*
6. Ahalezkoa. Alegiazkoa: *ninteke*
7. Subjuntiboa. Oraina: *nadin*
8. Subjuntiboa. Iragana: *nendin*
9. Agintezkoa: *zaitez*

Hori egin dugu adizkiak osatzeko gai izan garen neurrian, tratamenduak bereiziz. Jakina denez, euskarak baditu, euskalkien eta mintzoen arabera, eta aditzari dagokionez, tratamenduko erregistro desberdinak:

- eztabada edo erregistro neutroa: *goizean etorri gara*
- *hikako* alokutiboa: *goizean etorri duk/dun* (gizona edo andrea, norekin ari garen hizketan)
- *zukako* alokutiboa: *goizean jin duzu* (*düzü*, *zubereraz*)
- *xukako* alokutiboa: *goizean jin duxu*
- *berorika* izeneko tratamendua: *berorrek eginen du*

Guk hemen eztabadako erregistro neutroaren eta *hikako* alokutiboaren adizkiak bakarrik paratu ditugu, bertzeak, adizki zehatz eta jakin batzuk kenduta, ez baitira ibiltzen Baztanen. Berorika bera ere ez da ageri, aski toki jakinetan ez bada, eta, orduan ere, ‘berorika’ baino gehiago ‘horika’ izanen litzateke: *horrek erran du*.

1 *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*. Izen honekin argitaratu dira sei liburuki. Erabilgarriagoa da *Euskal Gramatika Laburra. Perpaus Bakuna* izeneko lana (Euskaltzaindia, 1993).

Hiketako alokutiboa dela eta, hala ere, ohar batzuk egin behar ditugu: bistan da adizki hauek, Euskal Herri osoan gertatzen den gisara, Baztanen ere galtzen ari direla. Eta batzuetan ez dira batere modu egokian ibiltzen: azken urteotan konturatu gara aunitz, hala nola hika ari direla, berdin-berdin mintzo direla aitzineko aldean dutena gizona edo andrea izan. Hori bitxia eta bereziki harrigarria egiten zaigu. Baztanen, oro har, mutilen artean bakarrik ibili izan da hika, nekez nesken artean edo neska-mutilen artean (ikus Salaburu 1984, 237). Familietan ere, lehenago, errazago zen aita, ez ama, aritza bere semeekin (ez alabekin) hiketan, hauek elkarren artean baino. Eta ohiturak aldatzen ziren, baserriko edo karrikako giroan bizi. Zernahi gisaz, kontu honetaz egin izan den azterketarik sakonena, Euskal Herri osoa aztertzen duela gainera, X. Alberdik egin du (1996). Bertze non-bait ere aipatu dugun gisan, Lekarozen aise hobeki mantendu dira hiketako adizkiak, bai gizonen nola andreen artean.

Alokutiboaren sintaxia dela eta, zaharrenek bederen ez dute ibiltzen mendeko perpausekin:

badiki doike andik-emendik ero... enteratu du(k) ze in dugun... eta...
(Elbete)

Edari ona bali'mada edain diugu, probatu bar diu (Ziga)

Nahiz adibide bat edo bertze harrapatu dugun:

Ba, ezpaduk eñ al iten... aiz... perseitu izein yaiz, ere... ere bizien e!
(Lekaroz)

Galderetan arruntagoa da:

A bai, ongi ile, ama i... i... il duk ba, ile uk. Ze pastu zio? (Erratzu)

Nor bota duk oi? (Arizkun)

Au olago gauza goxua, zer duk au? (Erratzu)

Ta bertzi oi ze ai duk or? (Erratzu)

Eztakit, ez al tuk emen sorgiñek? (Erratzu)

Azkeneko adibidea argigarria da: ez du ibiltzen alokutiboa teoriiaz ibili beharko lukeen tokian (*eztakit*), baina bai ibili beharko ez lukeen lekuan (*ez al tuk...?*).

Alde batera utzirik alokutiboak, bistan da ohar gehiago jarri dugula zuketako adizkien laukietan: behin eta berriz antz handia duten aldaerak gertatzen dira Baztango mintzairan, eta zuzenean bildu ditugu luzamenduetan ibili beharrean. Bertzetik, hauen paradigmetan, 2. pertsonari (*hi* pertsonari erran nahi da) dagozkion adizkiak sartu ditugu, nahiz eta alokutiboak ez izan. Baina uste dugu argiago geratzen den hola, horren erabile-rak bortxatzen baitu gero nahi eta nahi ez alokutiboak hautatzea.

Hau guzia aditz laguntzaileari dagokionez. Aspektu markak (marka hauek ageri direnean, jakina), bertze euskalkietan ere arruntak diren -T(Z)EN, -TU eta -TUKO ('-tiko' aldaerarekin txandakatuz ematen dena aunitzetan: *sartiko*, *saldiko*...) dira. Baina etorkizunean -EN ematen da sistematikoki, batez ere aditz oina *n* soinuarekin akitzen bada: *joanen* (*gain*), *erranen* (*errain*), *edanen* (*edain*).

4.1. Eztabadako adizkien morfologia

4.1.1. NOR saileko adizkiak

4.1.1.1. Indikatiboa. Oraina

naiz
haiz
da
gara
zara
zate
dire

Oharrak:

- Yrizarrek ematen ditu bertze forma batzuk ere (adizkiak berak bilduak, azalpen guziak gureak): *näiz*; *yaiz*, *iaiz*, *diaiz* (kontsonante epentetiko hori bokal artean sortua, seguru: *iyaiz*). Autore berak *de*, *gera* eta *zera* ematen ditu, baina horiek testuinguru egokia behar dute: aitzinetik 'i' edo 'u', ez bertzenaz: *torri de*, **gan de*; *gera* (gauza bera: *torri gera*, baina *gan gara*), *gaa* (fonologia arau arrunta); *zera* (*torri zera*, **gan zera*), *zära*; *zazte*, pluraleko bigarren pertsonarendako.
- *dire* aldaera, jakina, arau fonologiko baten aplikazioak sortzen du modu automatikoan.

4.1.1.2. Indikatiboa. Iragana

nitzen
hitzen
zen
gínen
zinen
zineten
ziren

Oharrak:

- *gínen, zínen eta zíneta* dira Basaburuko lau herrietako eta Oronozko aldaerak, eta hala ibiltzen dira han. Baztango hiztun gehienek bertze formak dituzte nagusi, eta horregatik jarri ditugu horiek bakarrik.
- Yrizarrek bertze forma hauek ere ematen ditu: *yitzen, ditzen* (lehenbizikoa bokal arteko epentesia, bigarrenarendako ez dugu guk lekukotasunik atzeman); *zinezten* (hau ez dakigu ongi bildua den, beharbada biltzaileak nahasi ditu *zineten -izan* aditzaren adizkia- eta *zinazten -joan* aditzaren adizkia-).
- Baztanen bildutako ahozko lekukotasunetan *tziñen* eta *tziñeten* ere ageri dira, baina beti ‘n’, ‘l’ hotsen ondoan, edo ‘ez’ partikularen ondoran, ez bertzenaz: *gan tziñen, egoten al tziñen, etziñen...* arau fonologiko arruntek eraginak
- Baldintzakoetan guziz arrunta da adizki hauek ibiltzea: *ni ere gaten banintzen (ni ere joaten banintz)*, aspektu marka Iparraldekoa hartuz, eta aditza iraganekoa.

4.1.1.3. Baldintza. Alegiazkoa

banitz
bahitz
balitz
bagine
bazine
bazinete
bazinezte
balire

Oharrak:

- Adizki hauek arras galduak dira, eta ez dute ia lekukotasunik. Salaburuk (1984b, 215) biltzen ditu, baina orduan ere arras guti ibil-

tzen ziren: han *bazineke* eta *baliteke* (3. pertsona plurala) ere ageri dira. Baina gaur egun, ia-ia desagertutzat eman behar dira, nahiz belaunaldi berriek eskolatik berreskuratzen dituzten, batasuneko aldaerekin jakina: *banintz*, *bahintz*...

- Ahozko testuetan *balitz* bildu dugu, betiere *balitz bezala* moduan, Baztangoizako hiztunetan. Testu horietan *balizke* (*balitz*) Arraiozen, *balitzike* (*balitz*) Arizkunen, gehienetan -KE atzizkiarekin ibiltzen baitira baldintzako adizki hauek. Izetak ere aunitzetan ibiltzen du *balitz bezala* esamoldea, eta badu *banintz* bat ere *Nigarrez sortu nintzan* liburuan: *Ni orai harat gaten banintz preso* (1982, 77). Eta horrekin batera *ezpalirake* ere ibiltzen du liburu berean 70. or.
- Erranahiruak (Izetak bilduak): *Bazko goiz balitz, martxoan ezpalitz*. Aldaera Gartzainen: *Bazko goiz balitz, martxo ez balitz*.

4.1.1.4. Baldintzaren ondorioa

nitzeke
hitzeke
litzeke
gineke
zineke
zinekete
zinezkete
lireke

Oharrak:

- Adizki hauek arras galduak dira, eta ez dute ia lekukotasunik. Salaburuk (1984b, 215) biltzen ditu, baina orduan ere arras guti ibiltzen ziren: han *niteke*, *lireke*, *ginezke*, *zinezke* eta *lirezke* ere ageri dira. Baina gaur egun, ia-ia desagertutzat eman behar dira, nahiz belaunaldi berriek eskolatik berreskuratzen dituzten, batasuneko aldaerekin.
- Ahozko testuetan *nitzeke* bakarrik bildu dugu, behin, Erratzuko hiztun baten ahoan. M. Izetak (1982, 13-14) *litzake* eta *nintzake* ematen ditu bere eleberrian.
- Yrizarrek ez ditu ematen.

4.1.1.5. Ahalezkoa. Oraina

naiteke
haiteke
daiteke
gaitezke
zaitezke
zaitezket
daitezke

Oharrak:

- Adizki hauek aski galduak dira, eta ez dute ia lekukotasunik. Salaburuk (1984, 216) biltzen ditu, baina orduan ere arras guti ibiltzen ziren. Lan horretan bertze sistema paralelo batzuk ere ageri dira: *naike*, *haike*, *daike*, *gaizke*, *zaizke*, *zaizkete*, *daizke*; *diteke*, *gaiteke*, *zaike*, *zaitekete*, *ditezke*. Eta singularreko hirugarren pertsonan *laiteke* ere: seigarren kapituluan bildu ditugun testuetan ageri dira holako batzuk. Baina gaur egun, ia-ia desagertutzat eman behar dira guziak, nahiz belau-naldi berriek eskolatik berreskuratzen dituzten, batasuneko aldaerekin.
- Ahozko testuetan *daiteke*, *zaizke* eta *zaike* dira bildu ditugun adizki bakarrak. M. Izetaren idazlanetan (1982: 12, 91, 101, 103 eta 9, 13, 91, 104) ere atzematen ahal dira: *daiteke*, *daitezke*. Hiztegian *gerta daike* ematen du.
- Yrizarrek ez ditu ematen.

4.1.1.6. Ahalezkoa. Alegiazkoa

ninteki
hinteki
liteki
ginezke
zinezke
zinezkete
litezke

Oharrak:

- Adizki hauek arras galduak dira, eta ez dute ia lekukotasunik. Salaburuk (1984, 216) biltzen ditu, baina orduan ere arras guti ibiltzen ziren. Lan horretan bertze adizki batzuk ere ageri dira: *laike*, *zinekete*, *laizke*, *laizkete*. Baina gaur egun, ia-ia desagertutzat eman behar dira,

nahiz belaunaldi berriek eskolatik berreskuratzen dituzten, batasuneko aldaeretan.

- Ahozko testuetan ez dugu bildu holako adizkirik. Iraganekoak (*ninteekeen, ginezkeen,...*), gutiago, jakina. Baina, hala ere, iraganeko adizki batzuk ageri dira lekukoan corpusean: *etzaitekena (ez zitekeena), etzaiteekeen (ez zitekeen)* bezalako bakan batzuk. Testu idatzietan ('San Bartolomeren sermoia') *ziteken* bildu dugu.
- Yrizarrek ez ditu ematen.

4.1.1.7. Subjuntiboa. Oraina

naie-
zaie-/zaine-
daie-
gaitetzi-
zaitte-
zaizte-
daitzi-

Oharrak:

- Adizki hauek beti -(e)LA atzizkiarekin ibiltzen dira Baztanen, nekez adituko dira bertzenaz, -(e)N markarekin bakarrik.
- Ez dira, gainera, sobera ageri: irarritako ahozko lekukoetan *daiela, gaitetzila, zaitela* eta *daitzila* bildu ditugu.
- Salaburuk (1984, 217) *gaitzi-*, *zaittezi-* eta *zaiztezi-* ere ematen ditu. Halaber, gero jarriko ditugun testuetan, Riezurenean, *gaitzin* ageri da. Etxenikek, bere doktrinan, *zaittezi* dakar, deusik gabe.
- M. Izetak *gaitzezela* ere ibiltzen du, baina guretzat arrotza da adizki hori. Bere Hiztegian *daitezela, daitzila* eta *daitzile* biltzen ditu (gure ustez, lehenbizikoa eta azkena dira maizen ibiltzen direnak).
- Hemen bildu testuetan ('Adbientoko 4. igandea') *gaittean* ('gaittezen') ageri da, guretzat arrotza dena.

4.1.1.8. Subjuntiboa. Iragana

zaie-

Oharrak:

- Adizki hau bakarrik bildu dugu sail honetan. Etxenikek, bere doktrinan *zadiela* ematen du ('zedila').

4.1.1.9. Aginte adizkiak

hai / hain
bedi
zaite
zaizte

Oharrak:

- Badirudi *hain* hori analogiaz sortutako adizkia dela.
- Zenbait herritan, hala ere, kontrako joera atzeman daiteke orain, nabarmena baita hikako adizkietan gertatu den galera eta hedatzen ari den adizki hauek ibiltzeko modu arrotza, gazteen artean berdin egiten baitzaie mutikoei eta neskatikoei, mutikoei bakarrik dagozkien adizkiak bakarrik ibiliz (zenbait hitzunek ez dute bereizten *duk/dun* edo *nauk/naun* bezalakoan artean). Arrazoia da herri horietan hikako adizkiak gizonekin bakarrik ibili izan direla (Baztangoizean batez ere, Lekarozen bertze tradizio bat izan baita) eta orain, neska-mutilen arteko desberdintasunak urratzeko garaian nonbait, hika hasi dira ibiltzen neskekin ere, baina eskura dituzten adizki bakarrak gizonari dagozkionak izanik, hauek hedatu dituzte bertzeengana ere.
- Hauek, baiezkoetan ageri dira gehienbat. Ezezkoetan partizipioa, edo - (e)LA ibiltzen dira: *etzaitela sobera berandu nabarmendu* eta *etzaitela horregaitik tristetu* (Izeta 1982: 67, 102) Ahozko lekukotasunetan holakoak entzuten ahal dira: *eiela benpin desertor gan (ez hadila behinik behin desertore joan)*.

4.1.2. NOR-NORI saileko adizkiak

4.1.2.1. Indikatiboa. Oraina

	hura	haiek
niri	zait	zaizkit
hiri	zaik/zain	zaizkik/zaizkin
hari	zaio	zaizkio
guri	zaiku	zaizku
zuri	zaitzu	zaizkitzu
zuei	zaitzue	zaizkizue
haiei	zaiote	zaizkiote

Oharrak:

- Salaburuk (1984b, 219) *zaitze*, *zaizkitze*, *zaie* eta *zaizkiete* aldaerak biltzen ditu, bertzeekin batera.
- Etxenikek (Salaburu 1981, 73) *zaizko* adizkia ibiltzen du.
- Yrizarrek (1984) *zaiku*, *zaizkigu*, *zaizkugu*; *zaizu*, *zaizkizu*; *zaizue*, *zaizkitzue*, eta *zaiozte* biltzen ditu.
- *Zaigu/zaiku* bezalakoak elkarren artean txandakatzen dira, nahiz irarritako lekukoetan ‘gu’ aldaerakoak maizago agertu zaizkigun Basaburu eta Oronoz aldean. Baina ez dugu uste adierazgarria den hori, Erratzu edo Amaiur aldeko lekukoetan ere ez baitira falta.
- Jakina: *tzaigu* bezalakoak arruntak dira ‘n’ (*gan tzaigu*) edo ‘r’ (*bear tzaigu*) soinuen ondoan.

4.1.2.2. Indikatiboa. Iragana

	hura	haiek
niri	zitzaiten zaiten	zitzaizkiten zaizkiten
hiri	zitzaiken/zitzaiken zaiken/zaiten	zitzaizkiken/zitzaizkiken zaizkiken/zaizkiken
hari	zitzaion zaion	zitzaizkion zaizkion
guri	zitzaikun zaikun	zitzaizkigun zaizkigun
zuri	zitzaiztun zaitzun	zitzaizkitzun zaizkitzun
zuei	zitzaiztzen zaitzuen	zitzaizkitzen zaizkitzen
haiei	zitzaioten zaioten	zitzaizkioten zaizkioten

Oharrak:

- Zutabe horietan jarritako aldaerez gain badira bertze zenbait gehiago, herriz herri bil daitezkeenak. Hemen, batzuei buruzko oharrak eginen ditugu.
- Oinarrizko arau fonologikoari jarraiki, *zitzaiten/zitzeiten* txandakatzen dira, holako ingurunea duten adizki guztietan.
- Bi eredu argi ibiltzen dira Baztanen, eta biak biltzen ahal dira herri berean gainera. Batek iraganaren forma arrunta ibiltzen du: *zitzaiten*, *zitzaion*, eta abar, jarri dugun bezala. Eta horrekin batera, aski arruntak dira *zaiten*, *zaion*, *zaigun* bezalakoak, oinarrian orainaldiko adizkiak harturik (ikus, adibidez, 6. kapituluko testuetan ageri den F.

Iriarterekin egindako elkarrizketa). Hau aunitz ibiltzen da bertze aditz batzuekin ere: *zagon, zabilen...*

- Pluralaren hirugarren pertsonan *-ote* (taulakoa) eta *-e* (arrunta) txandakatzen dira: *zitzaioten/zitzaien, zaioten/zaien, zitzaizkioten/zitzaizkien...* Salaburuk eta Yrizarrek bildu duten gisan. Izetak ere baditu *zitzaioten* bezalako adizkiak. Guk ere bildu ditugu aldaera hauek berriz ere orain.
- Frikariak eta afrikatuak txandakatzen dira elkarren artean, eta ez hemen bakarrik (lehenago ere ikusi ditugu *zaizu/zaitzu...*): *zitzaiten/zizaiten* (*zitzaitan* ere ematen du Yrizarrek, guk bildu ez duguna); *zitzaiken/zizaiken*; *zitzainen/zizainen* (*zitzaikan* ere Yrizarrek, guk bildu ez duguna); *zitzaion/zizaion*; *zitzaizkion/zizaizkion*; *zitzaigun/zizaigun*; *zitzaitzun/zizaitzun/zitzaizun*; *zaitzun/zaitzun*; *zaitzuen/zaizuen*; *zitzaitzen/zizaitzen/zitzaizen*; *zitzaioten/zizaioten*. Eta gauza bera plurallean: *zizaizkiken, zizaizkinen, zizaizkigun, zizaizkitzun, zitzaizkizun, zizaizkizun, zizaizkitzen, zizaizkioten*.
- Hemen ere *-kun/-gun* txandakatzen dira: *zaikun/gun, zitzaikun/gun, zizaikun, zitzakun, zaizkun, zitzaizkun/zizaizkun, zaizkun*.
- Yrizarrek *-tzuen* aldaerakoak ere bildu ditu: *zitzaizuen, zizaizuen, zitzaitzuen, zitzaizkitzuen, zizaizkitzuen, zaizkitzuen, zizaizkitzuen*. Guk, hala ere, ez ditugu lekukotasun hauek aditu.
- Pluralarekin, hirugarren pertsonan, ‘-o’ hutsaren aldaerakoak ere badira: *zitzaizkon, zizaizkon, zaizkon*.
- Azkenik, Yrizarrek, Basaburuan aztertu zituen bi herrietan (Aniz eta Almandoz) adibide hauek bildu zituen: *zitzaïnen* (Aniz, Almandoz), *zaiñen* (Almandoz); *zaizkiñen* (Aniz, Almandoz).

4.1.2.3. Baldintza. Alegiazkoa

	hura	haiek
niri	balitzait	balitzaizkit
hiri	balitzaik/n	balitzaizkik/n
hari	balitzaio	balitzaizkio
guri	balitzaigu	balitzaizku
zuri	balitzaitzu	balitzaizkitzu
zuei	balitzaitze	balitzaizkitze
haiei	balitzaie	balitzaizkiote

Oharrak:

- Hauek dira Salaburuk (1984b, 221) biltzen dituen adizkiak. Berak bakarrik biltzen ditu, Yrizarrek ez baitu deusik ere aurkitzen sail honetan.

Egia da aski guti aditzen direla gaur egun. Normalagoa izan da Baztanen holako guzietan indikatiboko lehenaldia ibiltzea zuzenean (*tortzen banintzen, bururetu bazitzaiten...*). Ahozko grabazioetan ere ez dira ageri.

- *balitzaioke* bezalakoak bildu ditugu testuetan ('San Bartolomeren sermoia').

4.1.2.4. Baldintzaren ondorioa

	hura	haiek
niri	litzaiteke	litzaizkiteke
hiri	??	??
hari	litzaioke	litzaizkiok
guri	litzaiguke	litzaizkiguke
zuri	litzaiztuke	litzaizkitzuke
zuei	litzaizteke	litzaizkitzeke
haiei	litzaieke	litzaioiteke

Oharrak:

- Hauek dira Salaburuk (1984, 221) biltzen dituen adizkiak.

4.1.2.5. Ahalezkoa. Oraina

Badira sail honetan bertze adizki batzuk Etxeniketik biltzen dituenak (Salaburu 1981, 54. eta 55. or.), baina gaur egun ez dute lekukotasunik batera: *dakioten, dakizun, dakigun*, etab. Etxeniketik berak, bere doktrinaren itzulpenean, *daizken* ematen du (*dakizkien*).

4.1.3. NOR-NORK saileko adizkiak

4.1.3.1. Indikatiboa. Oraina

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
ni	-	nauk/n	nau	-	naizu	nauzue naize	naute
hi	haut	-	dau	dagu	-	-	haute
hura	dut	duk/n	du	dugu	duzu	duzue duze	dute
gu	-	gaituk/n	gaitu	-	gaituzu	gaituze gaituzue	gaituzte
zu	zaitut	-	zaitu	zaitugu	-	-	zaituzte
zuek	zaiztet	-	zaizte	zaiztegu	-	-	zaitezte zaizte
haiek	tut	tuk/n	tu	tugu	tuzu	tuzue tuzue	tuzte

Oharrak:

- Hau da, nolabait ere errateko, eredu formala, zeren, ongi jakina den gisan, eredu hau nor-nori-nork saileko ereduekin nahasten baita eguneroko ibileran aunitzetan. Hala, *nuk/naun* horien ordez, maizkara ibiltzen dituzte hiztunek *datak/datan*, *dakuk/dakun* edo *duk/dun neri*. Berdin, *nau* erran beharrean *dat*, *daut*, *data* bezalakoak arruntak dira, eta, era berean, *gaitu* adizkiaren ordez *daku*. Pertsona guziekin gertatzen da hau: *zaitu/datzu*, *zaitut/datzut*, *zaitzet/datzuet/datzet*, *zaitze/datzue/datze*, *naizu/datazu*, *nauzue/datazue*, *naute/datate/date*, *gaituzu/dakuzu*, *gaituze/dakuzue*, *gaituzte/dakute*, *zaitugu/datzugu*, *zaituzte/datzute/datzue*, *zaitzegu/datzuegu/datzegu/datzugu*, *zaitzete/datzute/datze/datzue*.
- *tuze* Baztangoizean da nagusi eta bertze herrietan ez da holako indarrarekin ageri.
- Bigarren pertsonarekin arruntak dira epentesiak: (nik hi ikusi) *yaut*, *daut*, *iaut* edo *diaut*; (guk hi) ikusi *yaugu*. Yrizarrek *dat* (Arraioz, Gartzain eta Lekaroz), *danat* (Elizondo, Arraioz, Azpilkueta, Erratzu, Gartzain, Lekaroz, Amaiur, Almandoz), *daat* (Erratzu-Aritzakun eta Irurita), *dabat* (Almandoz) eta *datat* (Aniz) biltzen ditu, guretzat arrotzak direnak sail honetan. Halaber, '(guk hi) ikusi *dagu*' formaren pareko ematen ditu *au(g)u*, *dau*, *danau*, *ya(g)u*, *dakagu*, *danagu*, *diau* eta *iau*. Badirudi hemen zerbait nahaste ere badela datuak biltzeko orduan, pertsonak-eta elkarren artean trabatuz. Berdin gertatzen da '(haiek hi) ikusi *haute*' adizkiaren parekoekin: *yaute*, *aune*, *datek*, *dane*, *daatek*, *danate*, *diaute*, *iaute*, *diatetek*, *diatek*.
- Hirugarren pertsonarekin ere ageri dira aldaerak: *yau*, *au*, *diau*, *iau*, nor-nori-nork sailekoekin nahasiak: *dauk/n*, *dak/n*.
- Yrizarrek *ut* ematen du *dut* adizkiaren parean. Pentsatzekoa da bokalarteko adizkia denez (*ikusi dut --> kusi ut*), kontsonantea galdu duela. Gauza bera gertatzen da haren lanean ageri diren *zaitugu*, *zaituu* eta *zaitu* aldaeren artean. Eta *zaitzegu* eta *zaitzue* adizkietan.
- Eta *do* ere ematen du Yrizarrek *du* adizkiaren parekoa litzatekeena. Hau, izatekotan ere, Oronoz aldekoa da, adibide bat edo bertze bildu dugu

guk ere, baina ez da dudarik *du* dela nagusi bien artean han ere. Bidasoa aldean bokal hauen arteko mugak Baztanen baino ilunago dira.

- Yrizarrek *zaituztet* eta *zaituzte* ere biltzen ditu. Guk ez ditugu ahozko lekukoetan bildu. Gauza bera gertatzen da bertze adizki hauekin ere: *gaituzue* adizkiaren pareko ematen du *datazuegu*, eta *gaituzte*-ren pareko *gaitizte* eta *gaituze*. Bitxi samarrak egiten zaizkigu adizki horiek. Bertzetik, '(guk zuek) ikusi *zaituztegu*' eta '(haiek zuek) ikusi *zaituztee*' nahiko erregularrak dira, baina arrotzak guretzat. Errazago entzuten ahal dira berak biltzen dituen *nauzu*, *naizue*, *zaitute* adizkiak.
- Frikari eta afrikatuak txandakatzen dira, hiztunen arabera: *gaitutzu/gaituzu*, *gaitutzue/gaituzue*.
- Azken ohar bat pluraleko hirugarren pertsonaz (*tut*, *tuzu*... adizkiez). Egia da hori dela Baztango mintzoaren ezaugarri argietako bat (Oronozen eta Malerrekan *ttut*, *ttuzu*, *ttugu*), eta hola jartzen dugu beti erakutsian aditz paradigmatan. Adibideak arruntak dira arras. Bakan batzuk aipatzeagatik, denak grabazioetatik hartuak: *arropa oiek tuzu* (Berroeta); *ezkontzan ere galtzen tuzu ya deretxu oiek* (Berroeta); *Gaztia zarelaik reflejuak baituzu e! Onak* (Irurita), eta abar. Baina, horrekin batera, egia da zenbaitetan azpian dagoen pluralgilea ere ageri dela: *eztakit zuek zautu ittuzuen illezkuk* (Oronoz); *amabi toalla... karko ittuzu oiek* (Oronoz); *Patatak, motiak iten baititu aundiek* (Irurita); *mixerie pastuek itugu te...* (Ziga). Zugarramurdiko Atlaseko testuan ere: *gorriak ituzte*. Gure ustez, hau herri guztietan gertatzen da, eta testuingurua nolakoa den, orduan azaleratzen da batzuetan 'it' pluralgilea. Dena den, N'Diaye-k (1970) *ditu*, *ditugu* eta holakoak ematen ditu Amaiurko hizkeran, zuzena ez dena, gure ustez. M. Izetak ere (1982: 29, 47, 50, 57, 64, 65, 75, 92, 106) *dituztela* dabil toki batean, baina bertze orrialde batean *tuk* dakar, bi sistemak ibiliz. Ekar dezagun hona D. Intzak (1922, 84) aspaldi erran zuena: "Arritzekoa da gero 'tut' orrekin gertatzen dena. Naparro'ko baztarr guzietan, nere ustez, ibiltzen da".
- Bonaparte Ondareko Eskuizkribuetan² (haiek-haiek) *ditute* eta *dittute* ageri dira.

2 RM Pagola et alii, 1995, *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, Deustuko Unibertsitatea, 1177. or.

4.1.3.2. Indikatiboa. Iragana

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
ni	-	ninduken nindunen	ninduen	-	ninduzun	ninduzuen	ninduten
hi	naken nanen	-	hinduen	hindugun	-	-	hinduten
hura	nuen	zuken zunen	zuen	ginuen	zinuen	zinuten	zuten
gu	-	gintuken gintunen	gintuen	-	gintuzun	gintuzuen	gintuzten
zu	zintuten	-	zintuen	zintugun	-	-	zintuten
zuek	natzen natzuen	-	zatzen	ginetzegun	-	-	zaituzten
haiek	nituen	zituken zitunen	zituen	gintuen	zintuen	zinuzten	zuzten

Oharrak:

- Aldaera batzuk: (hark hi ikusi) *yinduen, intuen*. Hemendik analogiaz sortutako *yindunen* eta *intunen* ere bildu ditugu. Bertze aldaera batzuk dira *ginduen, zinduten* eta *zituten*. Yrizarrek biltzen du *ninaizun* adizkia, inon ere entzun ez duguna guk. Eta bertze batzuk: (zuek ni) *ninduezun, ninduzen*; (guk hi) *intuegun, indugun, yindugun*; (hark hi) *intuen, intunen, yinduen, yindunen; giñuen, giñun, giñen, giñien* (segur aski ere, *ginian* da hori, hikako adizkia erran nahi dugu). Bertze batzuk: (zuk hura) *ziñun, ziñuen*; (haiek hura) *ziñuten, ziñueten*; (zuk gu) *ginduzun, giñuzun, gintutzun*; (zuek gu) *gintuzen, gintutzen*; (haiek gu) *ginduzen, gintuzen*; (guk zu) *zintuegun, zintuun, zindugun* (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 70. or.); (haiek zu) *zintuzten*; (guk haiek) *ginituen*; (haiek haiek) *zituzten*; (zuek-erg haiek-abs) *zinuezten, ziñuzten, zintuzten*.
- Orainean oinarritutako adizkiak ere ibiltzen dira (Yrizarrek bilduak): (hik ni ikusi) *nauken/naunen*; (hark ni ikusi) *nauen*; (hark hi ikusi) *yauen*; (hik gu ikusi) *gaituken, gaituzken*; (hark gu ikusi) *gaituen*; (nik zu ikusi) *zaituten*; (hark zu ikusi) *zaitun, zaituen*; (nik zuek ikusi) *zaitzeten*; (hark zuek ikusi) *zaizten*; (zuk ni ikusi) *naizun*; (zuek ni ikusi) *naizuen*; (haiek ni ikusi) *nauten, naueten, nabeten*; (haiek hi) *yauten*; (guk hi) *yagun, yauegun, yabegun*; (zuk gu) *gaituzun*; (zuek gu) *gaituzen*; (haiek gu) *gaituzten*; (guk zu) *zaitugun*; (haiek zu) *zaituten*; (guk zuek) *zaitzegun, zaizteun*; (haiek-erg zuek-abs) *zautzen, zaizteten*.
- Okerreko sistema (nor-nori-nork) erabiliz sortutako bertze adizki batzuk, laukian jarri ditugunez gain: (hik ni ikusi) *zataken/zatanen*; (hark ni

ikus) *zaten, zatan*; (nik hi ikusi) *naaken, nakaken*; (hark hi ikusi) *zaken/zanen, zaaken, zakaken*; (hik gu ikusi) *zakuken/zakunen* (analogiaz sortuak: ‘Maritxuk erran *zakun*’) (hark gu ikusi) *zakun*; (nik zu ikusi) *natzun*; (hark zu ikusi) *zatzun*; (hark zuek ikusi) *zatzuen*; (zuk ni ikusi) *zinatazun, ziñatazun*; (zuek ni ikusi) *zinatazuen, ziñatazuen*; (haiek ni ikusi) *zatatzen; ginaken, ginanen, giñaken*; (haiek hi) *zataken, zatanen, zaateken, zatenen, zatateken*; (zuk gu) *zinakuzun, ziñakuzun*; (zuek gu) *zinakuzuen, ziñakuzuen*; (haiek gu) *zakuten*; (guk zu) *ginezugun, ginatzugun, ginazugun, ginatzugun, ginatzuun, ginatzun, giñatzugun, giñatzun*; (haiek zu) *zatzuten, zatzuen*; (guk zuek) *ginatzuegun, ginatzugun, ginatzuun, ginatzuen, ginatzen, ginatzegun, giñatzuen, ginatzeun*; (haiek-erg zuek-abs) *zatzzen, zatzuen, zatzuetzen, zatzuetzen*. Parentesiak formaren erranahia argitzeko bakarrik eman ditugu: hiztunak ez du normalean erraten ‘Mirenek zu ikusi zatzun’ baizik ‘Mirenek zuri kusi zatzun’.

- Pertsona aldatuz emandako adizkiak: (hik ni ikusi) *zuken/zunen*;
- Bildutako bertze adizki batzuk: (nik hi ikusi) *intuken/intunen, yauten* (‘haiek hi’ ere), *induten* (hau erregularragoa litzateke), *indunen* (aitzinekotik analogiaz sortua), *yinduten, yindunen* (hauek biak ‘haiek hi’ ere), *indetenen*; Izetak (1982: 21, 33, 41, 47, 64, 67, 102) *zintuzten* adizki erregularra (haiek haiek) ere badakar, eta *Dirua galgarri* eleberrian ere maiz ageri da adizki hau.
- Hibridoak ere ez dira falta: *ginakugun, ginakuun, giñakigukun*.
- Yrizarrek ‘hik hura ikusi *zaken*’ ematen du, guri arrotz egiten zaiguna. Berak bildu ditu (‘nik zuek ikusi) *zintuzten* eta *zintuztetzen*’, (‘guk zuek ikusi) *zintuztegun*’, (‘haiek-erg zuek-abs) ikusi *zintuzteen*’ laukian jarri ditugunak (*natzzen, ginetzezun, zaituzten*) baino erregularragoak liratekeenak. Baina guk ez dugu holakorik bildu. Bai, ordea, (‘hark zuek ikusi) *zintuzten*’ nahiz ez den *zatzzen* bezain bat ibiltzen.
- Autore berak bildu ditu (‘hik haiek ikusi) *zuzken* eta *zazken*’, guk ezagutzen ez ditugunak. Aipagarria hor ageri den pluralgilea. Berak ematen du (zuek ni) *ninaizen* ere, guretzat arrotza dena. Eta arras bitxiak (forma ezagutzen ez dugulako, edo ez ditugulako hola ibiltzen aditu) egiten zaizkigu honakook: (guk hi) *niagukun, diñanen*; (zuk gu) *ziñatazugun*; (zuek gu) *ziñatazuegun*; (guk zuek) *gintuztuzuen*; (haiek-erg zuek-abs) *zinduzketzen*; (guk haiek) *ginduten*; (zuek-erg haiek-abs) *zatzuten*.

4.1.3.3. Baldintza. Alegiazkoa

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
ni	-	banindukek baninduken	banindu	-	baninduzu	baninduzue baninduzue	banindute
hi	banaken		bazintuken bazintunen	baginu	bazinu	bazinute	balute
hura	banu	balukek baluken	balu	baginu	bazinu	bazinute	balute
gu	-	bagintukek bagintunen	bagintu	-	baginezu	baginezue bagineze	bagintuzte
zu	banatzu	-	bazintu	baginezu	-	-	bazintute
zuek	bazintuztet		bazintuzte	baziniguzte-	-	bazintezte	
haiek	banitu	balitukek balituken	balitu	bagintu	bazintu	bazintuzte	balituzte

Oharrak:

- Lehenago erran dugun gisan, adizki hauek arras guti ibiltzen dira, baina hemen jarri ditugu Salaburuk (1984, 224) biltzen baititu bere lanean. Lekukotasun guti dute, hala ere, nahiz batzuk aurkitu ditugun grabazioetan.
- Arrunta da -KE atzizkiarekin batera ematea: *banuke yain nuke*. Eta, honen aldaera bat, hika emana, bertze hau ere: *balukek yain lukek* edo *bahu, janen huke* (hola bildu dugu grabazioetan, nahiz arruntagoa izan hemen *jain zuken*. Hala ere, atzizki hori gabekoak ere bildu ditugu corpus irarrian. M. Izetak ere (1982: 93, 96) ibiltzen ditu *banuzke* (berez *banitu* legokiokkeen tokian), *baluke* (berez *balu*), baina gero *nituzke* ere jartzen du, bere tokian. Halaber, *baluzke* ageri da Goyenecheren prediku batean ere.
- Berez hemengoa ez den, baina hemengoaren ordaina den *baleza (balu)* bezalakoak ere ibiltzen dira, batez ere adineko jendearen artean.

4.1.3.4. Baldintzaren ondorioa

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
ni	-	nindukek ninduken	ninduke	-	nindukezu	nindukezue nindukeze	nindukete
hi	-	-	-	-	-	-	-
hura	nuke	lukek/luken	luke	ginuke	zinuke	zinukete	lukete lakute
gu	-	-	gintuke	-	ginezuke	ginezketzue	gintuzkete
zu	nitzuke natzuke	-	zintuke	ginezuke	-	-	zinduzkete
zuek	-	-	zintuzke	ginezketzue	-	-	-
haiek	nituzke	lituzkek/n	lituzke	gintuzke	-	-	lituzkete

4.1.3.5. Ahalezkoa. Oraina

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
hura	dezaket	dezakek/n	dezake	dezakegu	dezakezu	dezakezue	dezakete
haiek	dezazket	dezazkek/n	dezazke	dezazkegu	dezazkezu	dezazkezue	dezazkete

4.1.3.6. Ahalezkoa. Alegiazkoa

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
hura	nezake	lezakek/n	lezake	ginezake	zinezake	zinezakete	lezakete
haiek	nezazke	lezazkek/n	lezazke	ginezazke	zinezazke	zinezazkete	lezazkete

Oharrak:

- Hauek guziak Salaburuk (1984b) egin lanean bilduak.
- Testuetan ('San Bartolomeren sermoia') *zezaketen* ageri da.
- Erranahiruak: *dezakenak badezake (puzkerra gerrenian sartu); balaki gazteak... baleza zaharrak*

4.1.3.6. Subjuntiboa. Oraina

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
ni	-	-	naza-	-	nazazu-	nazaze-	nazate-
hi	-	-	-	-	-	-	-
hura	-	-	deza-	dezagu-	dezazu-	dezaz(u)e-	dezate-
gu	-	-	gaitze-	-	gaitzazu-	gaitzate-	gaitzate-
zu	zatazu-	-	zaitzu-	zaitzagu-	-	-	zaitzate-
zuek	zaitzate-	-	zaitzate-	zaitzagu-	-	-	zaitzate-
haiek	natza-	-	detza-	detzagu-	detzazu-	detzaz(u)e-	detzate-

Oharrak:

- Oro har, guti ibiltzen dira, hiztunek nahiago baitute *iten ahal dugu* bezalakoak ibili. Hala ere, irarritako corpusean *dezakete* (Arizkun), *zaketen* (Erratzu) eta holako bakan batzuk bildu ditugu. Izetak ere *dezakete* eta *dezaketenak* ibiltzen ditu (1982: 65, 66, 107).

4.1.3.7. Subjuntiboa. Iragana

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
ni	-	-	-	-	nezazu-	nezaze-	netzate-
hi	-	-	-	-	-	-	-
hura	neza-	-	zeza-	gineza-	zineza-	zineza-	zezate-
gu	-	-	gintza-	-	gintzazu-	gintzate-	gintzate-
zu	-	-	-	-	-	-	-
zuek	-	-	-	-	-	-	-
haiek	-	-	zetza-	zatzagu-	zatzazu-	zetzaze-	zazazte-

Oharrak:

- Ikus aitzineko oharra. Hala ere, ahozko lekukoetan bildu dugu *zezan* bat (*etzezan itzeik izen*) Arraiozen.

4.1.3.8. Aginte adizkiak

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
ni	-	-	-	-	nazazu	nazaze	-
hi	-	-	-	-	-	-	-
hura	-	zak/n	beza	-	zazu	zaz(u)e	-
gu	-	-	-	-	-	-	-
zu	-	-	-	-	-	-	-
zuek	-	-	-	-	-	-	-
haiek	-	zik/n	-	-	zitzu	zitze	-

Oharrak:

- Guk ez dugu aditu *beza* hori, baina Etxenikek badakar (Salaburu, 1981, 89).
- Adizki hauek, gehienetan, aditz oinari lotuak ibiltzen dira, baiezko perpausetan: *intzak hau*, *hartzaze ogi hori*, eta abar. Izetak, adibidez (1982); *kartzazu boneta zahar hori* (54. or.)... edo (*Dirua galgarri*) *sartzazu* (20. or.). Baina ezezkoetan, gehienetan, '(e)LA' menderatzai-learekin agertzen dira: *etzakela olakoik erran*, *etzakela olako astoke-rik pentsatu*. Izetak (1982) *etzazula hortaz batere kezkarik izan* (18. or.); *etzazula behin ere holako gauza nardagarririk zere buruan ibili* (54. or.); *etzazula holakorik erran* (105. or.) eta (*Dirua galgarri*): *etzazule* (41. or.) eta *etzazutela* (58 eta 120. or.). Eta, bertze hauek: *Nigarrez sortu nintzan: erran zazu*, *erran* (89. or.); *barka nazazu* (97.or.); *utz gaitzazu* (13. or.); *utz zazue* (55. or.); *hauta zazu* (14. or.); *konda zazu* (35 eta 37. or.). *Dirua galgarri*: *aditu zazue* (20. or.); *atera zazu* (29. or.); *goan zaite* (29 eta 40. or.); *ekar zazue* (56. or.); *eraman zazue* (58, 78, 81 eta 124. or.); *begira zazue* (66.or.); *begira zazu* (70. or.); *utzi gaitzazue bakean* (75. or.); *aitor zazu* (79. or.); *sofri zazu* (99. or.); *egin zazu* (99. or.); *erran zazu* (123. or.).
- Hemen bildu ditugun testuetan ('Adbientoko 4. igandea') *zazkizue* ('itzazue') bildu dugu, gaur egun ere arrotza ez dena hango mintzoan. Hemen *nazaze* eman dugu, baina *nazazue* ere aditzen ahal da (testuetan – 'San Bartolomeren sermoia- ere bildu dugu adizki hau).

4.1.4. NOR-NORI-NORK saileko adizkiak

4.1.4.1. Indikatiboa. Oraina

Hura

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
niri	-	datak/n	daut	-	datazu	dataze	datate
hiri	dat		dak/n	dagu			date/ne
hari	diot	diok/n	dio	diogu	diozu	dioze	diote
guri		dakuk/n	daku		dakuzu	dakuze	dakute
zuri	datzut		datzu	datzugu			datzute
zuei	datzet		datze	datzegu			datze
haiei	det	dek/n	de	degu	dezu	deze	de

Oharrak:

- Badira bertze aldaera aunitz hemen ibiltzen direnak. Hiztun batzuen (nik hiri) *diat*, *dinat*, *danat*; (guk hiri) *diagu*, *dinagu*, *diugu*, *diñeu* bildu ditu Yrizarrek, gure ustez berriagoak izaten ahal direnak.
- Aldaerak: (hik guri) *daukuk/n*; (hark niri) *daut*; (haiek zuei) *dautzute*; (nik zuri) *dautzut*; (hark hiri) *dauk/n*. Bistan da adizki hauek hobeki atxikitzen dutela jatorrizko aditz erroa, baina parekoak (*dakuk...*) baino gutiago ibiltzen dira. Hirugarren pertsonarekin (haiei) aldaera aunitz ageri dira, laukian jarri dugunaz gain: (nik haiei) *diotet*, *dabet*, *deet*, *daet*; (hark haiei) *dabe*, *diote*, *dee*, *dae*, *die*; (guk haiei) *diegu*, *diogute*, *dabegu*, *dioute*, *deu*, *dioteu*; (zuk haiei) *dabezu*, *diezu*, *daezu*, *deezu*, *diozu*, *diozute*; (zuek haiei) *dezue*, *dabetzue*, *dabezue*, *daezue*, *diozue*, *deeze*, *deezue*, *dioze*; (haiek haiei) *diote*, *dabete*, *dabe*, *dee*, *diote*, *deete*, *daete*; (haiek niri) *datate*, *dane* eta M. Izetak (1982) batzuetan ibiltzen duen *dautate* ere; (guk hiri) *dakugu*, *danagu*, *dakagu*, *dau*, *danu*, *danau*, *daakagu*; (zuek niri) *datazue*; (zuek hari) *diozue*; (zuek guri) *dakuzue*; (nik zuei) *datzuet*; (hark zuei) *datzue*; (guk zuei) *datzuegu*, *datzueu*, *datzugu*, *datzeu*; (haiek zuei) *datzute*, *datzue*; Yrizarrek (haiek hiri) *datek/n*, *datane*, *daatek*, *daaten*, *danate* biltzen ditu eta (nik hiri) *dan*, *daat*, *dabat*, *datat*.
- Bertze batzuk, Yrizarrek bilduak, hala ere, arrotzago egiten zaizkigu: (nik haiei) *diot*; (hark haiei) *dio*; (haiek niri) *datet*; (zuk guri) *datazugu*; (zuek guri) *datazuegu*; (guk haiei) *diogu*. M. Izetak *diozozu* ibiltzen du bere liburuetan, baina guk ez dugu adizki hau bildu hiztunen artean.

- Sistema aldatuak (nor-nork bezala) ageri diren adizki batzuk: (nik hiri) *nauk/n*; (nik zuri) *zaitut*; (hark niri) *nau* (nork ez ditu aditu noizbait *orrek erran nau, eman nau bezalakoak?*); (hik guri) *gaituk*; (zuk guri) *gaituzu*; (zuek guri) *gaituze*.

4.1.4.1. Indikatiboa. Oraina

Haiek

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
niri	-	daztak/n	dazkit	-	daztazu	daztazue	dazkite
hiri	dazkit dazkinat	-	dazkik/n	dazkiegu dazkinegu			dazkiete dazkinete
hari	tiot	tiok/n	tio	tiogu	tiozu	tioze	tiote
guri	-	dazkuk/n	dazku	-	dazkiguzu	dazkiguze	dazkigute
zuri	dazkizut	-	dazkizu	dazkizugu			dazkizute
zuei	dazkitzet	-	dazkitze	dazkitzegu			dazkitzute
haiei	daztet	deztek/n	dazte	deztegu	deztezu	deztezue	dezte

Oharrak:

- Batzuetan ibiltzen diren aldaera batzuk: *ditiot, ditiok/n, ditio, ditiogu, ditiozu, ditiozue, ditiote*. Eta, hauekin batera: *tiotzu, tiozue (tiotzue)*; (haiek haiei) *tiezte, diozte, dioztete, tiozte*.
- Laukian ikusten denez, adizki batzuk *-zki-* pluralgilean oinarritzen dira, baina ez dira horiek forma bakarrak, bertze hauek ere ageri baitira: *dazkiot, dazkitzut, dazkitzuet*, (hik guri) *dazkikuk/n*; (hark hari) *dazkio*, (hark zuri) *dazkitzu, dauzkitzu*, (hark zuei) *dazkitzue*; (hark guri) *dazkigu*; (hark guri) *dauzku, dazku*; (guk zuri) *dazkitzugu, dazkitzuu, dazkitzuegu (dazkitzueu, dazkitzeu)*; (zuk niri) *dazkitazu (dazkitzau)*; (zuk hari) *diozkitzu*; (zuek haiei) *diozkitzute*; (zuek niri) *dazkitaze*; (zuek hari) *diozkitze*; (haiek zuei) *dazkitze, dazkitzue*; (haiek haiei) *dazkiote, diozkite*.
- *-z-* pluralgilearekin: (zuk niri) *daztatzu*; (guk haiei) *dieztegu, diezteu*; (zuk guri) *dazkutzu, dazkuzu, daztaguzu*; (zuk haiei) *daztezu, deztezu, dabeztezu, dabetztetu, daeztezu, deeztetzu*; (haiek guri) *dazkute*; (zuek niri) *daztatzue, daztatze*; (zuek guri) *dazkutte, dazkutzue, dazkuzue*.
- Nor-nork sisteman oinarrituak: (hik niri) *naituk/n*; (zuk niri) *nauzkitzu*; (zuek niri) *nauzkitze*.

- Ageri diren bertze aldaera batzuk: (nik hiri) *dazkinat, dazkinet, dazkiñet, dazkiet, diazkat, diazkanat, danaztat*; (hik hari) *diozkak*; (nik haiei) *deztet, dieztet, dabeztet*; (hik niri) *daatak*; (hik haiei) *dabeztek/n, tiok/n, dioztek*; (hark niri) *dauzkit*, M. Izetak ibiltzen duena (1962, 88); (hark hiri) *dauzkik*; (hark haiei) *daezte, tiozte, dabezte, deezte, diozte*; (guk zuri) *daztatzugu, daaztatzugu*; (guk haiei) *dabeztegu*; (zuek haiei) *deztete, tieze, dabeztezue, daeztezue, deztetzue, deztetze, deeztetzue*; (haiek haiei) *tiezte, dabezte, daezte*.
- Badira bertze adizki batzuk Salaburuk (1984b) edo Yrizarrek (1984) bilduak zalantzazkoago ikusten ditugunak. Batzuk arrotzak dira, eta bertze batzuk, agian, pertsoneri dagokienez, ez dira behar bezala bildu, edo informatzaileak ez du ongi konprenitu galdera, hauetako adizki batzuk arruntak izan baitaitezke, baina ez erranahi horrekin: (hark niri) *dazt, daat, dazta*; (hark haiei) *dabe, tio, tiote*; (guk hiri) *dazkigu, dazkiu, dazkinu, daazkuu, dizkiagu, dizkinagu, dazkanau, dazkiñau, dazkagu*; (guk zuri) *dazkitzu*; (guk haiei) *tiegu*; (zuk haiei) *tiozu*; (haiek niri) *dazte, dazkitet*; (guk zuei) *daztatzuegu*; (zuek haiei) *tiozue, diozkitze*; (haiek hiri) *dazkite, dazkitek/n, dazkine, daztek*; (haiek hari) *tiozte, ditiote, diozte*; (haiek zuei) *dazkitzute*. Aipatzekoa da, hala ere, datuak biltzeko orduan koherentzia ikusten dela oro har: konparazione, Salaburuk (1984b, 230) *tiozte, ditiote* biltzen ditu, eta Yrizarrek (1984) *diozte* ematen du hor berean.

4.1.4.2. Indikatiboa. Iragana

Hura

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
niri	-	zatakən/	zaten	-	zinetazun	zinetazuen	zatatən
hiri	naken/ nanen	zatanen	zaken/ zanen	ginaken/ ginanen	-	-	zakiten
hari	nion	zioken/ zionen	zion	ginion	zinion	zinioten	zioten
guri	-	zakuken/ zakunen	zakun	-	zinekuzun	zinekuzen	zakuten
zuri	natzun	-	zatzun	ginatzun	-	-	zatzuten
zuei	natzen	-	zatzən	ginatzen	-	-	zatzən
haiei	naben	zeken/ zenen	zaben	ginaben	zinaben	zinabezuen	zabeten

Oharrak:

- Ibiltzen diren aldaera batzuk aski erregularrak dira, arau fonologikoak goiti-beheiti: (guk zuri) *ginatzugun, giñatzun, giñatzugun*; (guk zuei) *ginatzuen, ginetzen, ginekutzen, ginatzuegun, ginatzueun, ginatzegun, giñatzuen, giñatzuegun, ginatzeun*; (guk hiri) *ginakeun, ginaaken/ginaanen, ginakugun, giñaken, giñakegukun, giñagukun, ginakiun*; (guk haiei) *gineen, ginen, ginaen, giñion, ginegun, ginion, ginuen, giñun, ginabegun, giñaun*; (guk hari) *giñion, giñun*; (zuek niri) *zinetazen, zinatzuen, zinatazen, ziñatazuen*; (zuk guri) *zinakuzun, ziñakuzun, ziñatazugun*; (zuek guri) *zinakuzuen, zinakuzen, ziñakuzuen*; (haiek niri) *zaaten, zaten, zateten*; (hark niri) *zatan*; (nik hiri) *naaken/naanen*; (nik zuei) *natzuen*; (hark zuei) *zatzuen*; (zuk hari) *ziñion, ziñun*; (zuek hari) *ziñioten*; (haiek zuri) *zazuten*; (haiek zuei) *zatzuen, zatzeten, zatzueten, zatzuten*; (hark hiri) *zaaken/zaanen*.
- Bertze adizki hibrido batzuk analogiaz dira sortuak: (nik hiri) *zineta-ken/zinetanen*; (zuek guri) *ziñatazugun*; (hik guri) *zinekuken, zinekunen*; (hik haiei) *zioteken/ziotenen, zaeken/zaenen, zieken, zeeken/zeenen, zabenen, zeekenen, zioken/zionen*; (zuk haiei) *zinezun, zinabezun, zineezun, ziñabezun*; (zuek haiei) *zinezen, zineezuen, zinaezun, ziñabezuen*; (zuk niri) *zinazun, zinazan, ziñatazun*.
- Pertsona (datiboa) markatu gabeko aldaerak biltzen ditu Yrizarrek, ibiltzen direnak, jakina, baina sail honetakoak ez liratekeenak: (zuek hari) *ziñuten*; (zuek haiei) *ziñuten*.
- Haiek-hiri sailean bertze sistema hau ere ageri da: *zateken/zatenen, zataken/zatanen, zaateken/zaatenen, zanaten, ziaaten, ziaanen*.
- Yrizarrek bitxi samarra den aldaera bat dakar: (hark hiri) *zate*. Eta, beharbada, berriagoak diren bertze hauek ere: (hik guri) *inakuken, inakunen*. Hauekin batera, guretzat arrotzak diren bertze batzuk ematen ditu bere ikerketan: (hik niri) *inatan/inanan, zataken*.
- Nahaste handia dago datiboko hirugarren pertsonarekin, eta ez dakigu hemen Yrizarrek ematen dituen aldaera batzuk ongi bilduak ote dauden: (zuk haiei) *zinaen, zinion* (?), *zineen, ziñuen*; (zuek haiei) *zinieten, zinaeten, zinioten, zineten, zinaben, zinaen, zineen*; (nik haiei) *neen, nen, nioten, nien, naen, nion* (?); (hik haiei) *ieben*; (hark haiei) *zen, zeen, zioten, zaen, zion* (?); (haiek haiei) *zeen, zen, zaben, zieten, zioten* (?), *zabeiten* (hau bertze nonbait bildua).

4.1.4.3. Indikatiboa. Iragana

Haiek

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
niri	-	zaztaker zaztanen	zaztan	-	zinaztazun	zinaztazuen	zaztatzen
hiri	nazkiker nazkiker	-	zazkiker zazkiker	ginazkiker ginazkiker	-	-	zazkitekener zazkitekener
hari	nition	zitioker zitionen	zazkion	gintion	zintion	zintiozter	zitiotzer
guri	zazkuker zazkuker	-	zazkun	-	zinazkuzun	zinazkuzuen	zazkuten
zuri	nazkitzun	-	zazkitzun	ginazkitzun	-	-	zazkitzuen
zuei	nazkitzer	-	zazkitzer	ginazkitzer	-	-	zazkitzuen
haiei	nezter	zezker	zezter	giniezter	zinezter	zinezter	zezter

Oharrak:

- Ibiltzen diren aldaera batzuk aski erregularrak dira, arau fonologikoak goiti-beheiti: (nik hiri) *nazker*, *nazkiñer*, *naazkiker*, *naazkiker*; (nik hari) *nition*; (nik zuei) *nazkitzuen*; (zuk niri) *zineztaun*, *ziñaztaun*; (zuek niri) *zineztauer*, *zinaztazuer*, *zinaztatzen*, *zinaztazener*, *ziñaztazuer*, *ziñaztazuer*; (guk hiri) *ginazker*, *giñizkian*, *giñizkiñan*, *ginazkiguker*, *giñazkiker/nen*, *giñazkeguker*, *ginazkiun*; (guk zuei) *ginezkitzuen*, *ginazkitzuen*, *ginazkitzun*, *ginazkitzegun*, *giñazkitzuen*, *ginazkitzeun*; (zuek guri) *zinezkitzun*, *zinazkutzun*, *zinaukutzun*, *ziñazkutzun*, *ziñazkatzun*, *ziñaztaun*.
- Badira *-zki-* pluralgilearekin egindako aldaera gehiago: (hark hiri) *zazkiter*; (hik hari) *zizkioker/nen*, *ziozker*, *ziozkaker*; (hark guri) *zazkigun*; (hark hari) *ziozkan*, *zizkion*; (hark zuei) *zazkitzuen*; (nik hari) *nizkion*, *nazkion*; (haiek niri) *zazkitatzen*, *zazkiter*; (zuek hari) *ziniozkitzer*; (haiek zuei) *zazkitzer*, *zazkitzueten*, *zazkitzuten*.
- Bertze aldaera batzuk *-it-* pluralgilearekin: (hark hari) *zition*; *zition*; (hik guri) *zitunen*, ... Ohar hauen bertze atal batzuetan ikusten ahal dira adibide gehiago: (*nition*, *zition*...). Etxenikek (San Mateoren Ebanjelioa) *zitiotzen* ematen du (*zizkioten*).
- Analogiaz sortuak: (guk zuri) *ginatzugun*, *gizkinatzun*, *ginazkitzugun*, *zazkitzugun*, *zaztatzugun*, *ginezkitzun*, *giñizkizun*, *ginazkitzuen*, *giñazkizun*, *giñazkitzugun*; (hik guri) *zinazkiguker*; (zuk niri) *dazkitatzun*; (zuek niri) *dazkitatzen*; (zuk hari) *ziniozkitzun*; (guk zuei) *gizkinatzen*, *gineztatzen*, *ginatzuegun*.

- Zalantzazko bertze batzuk (ez dakigu ongi bilduak diren, eta hala badi-ra, ez dakigu informatzaileak ongi konprenitzen ote zuen galdetzen zitzaiena: (nik haiei) *nition*; (zuek haiei) *zintion*, *zintuen*.
- Pertsona marka galdurik: (zuek hari) *ziñuzten*.
- Berriz ere hirugarren pertsonan aldaera aunitz ageri dira: (guk haiei) *ginabeztugun*, *ginabezten*, *ginaezten*, *gintiozten*, *giniezkaun*, *gineztegun*, *ginezteun*, *giniezken*, *gintion*, *gintuen*, *giñabezen*, *giñabeztegun*, *giñazteguken*, *giniozkiken*, *ginezten*; (hark haiei) *ziezten*, *zabezten*, *zaben*, *zaezten*, *ziozten*, *zition*, *zeezten*, *zabeten*, *ziozkiten*; (nik haiei) *niezten*, *nabezten*, *naezten*; (hik haiei) *zitioken/nen*, *zezkenen*, *zaezteken/nen*, *zezteken/nen*, *zezkaken/nen*, *zabezteken/nen*, *zeezkeken/nen*, *ziozkenen*, *ziozteken*; (hark haiei) *ziezten*, *zabezten*, *zaben*, *zaezten*, *ziozten*, *zition*, *zeezten*, *zabeten*, *ziozkiten*; (zuk haiei) *ziniezten*, *zinabeztetzun*, *zinabeztezun*, *zinabezten*, *zinaezten*, *zineztetzun*, *zineeztetzun*, *zindezten*, *zineezten*, *ziezkeken/nen*, *ziñabeztezun*, *ziniozkiten*; (zuek haiei) *ziniezten*, *zinabezten*, *zinaezten*, *zinauzkutzen*, *ziniozten*, *zineztetzen*, *zinabeztetzuen*, *zineztetzuen*, *zineezten*, *ziñuzten*; (haiek haiei) *zazten*, *ziezten*, *ziozten*, *zitiozten*, *zabezten*, *zaezteten*, *zeezten*, *ziabezten*, *ziozkiten*.
- Orainaldiko adizkietan oinarrituak: (haiek guri) *zazkiguten*; (haiek hari) *zazkioten*; (haiek zuri) *zazkizuten*; (haiek zuei) *zazkizueten*; (haiek hiri) *zazkiten*, *zaztateken/nen*, *zazkineten*, *ziazketen*, *ziazketenen*.
- Bertze aldaera batzuk, bildu ditugunak: (hik niri) *zineztaken/nen*, *inaztarken/nen*; (nik hari) *niozkan*; (hik guri) *inazkuken*, *inazkunen*; (hark zuei) *zaztatzen*, *zatzuen*; (haiek niri) *zazteten*; (guk hari) *giniozkan*; (zuek hari) *ziniozten*, *ziñozten*; (haiek hari) *ziozten*; (haiek zuei) *zaztatzen*.

4.1.4.4. Baldintza. Alegiazkoa

Hura

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
niri	-	-	balate	-	-	-	balate
hiri	banake	-	balake	bagineke	-	-	balakite
hari	banio	bazioke	balio	baginio	bazinio	baziniote	baliote
guri	-	bazakuke	balaku	-	-	-	balakute
zuri	banatzu	-	balatze	baginatzu	-	-	balatzute
zuei	banatze	-	balatze	baginatze	-	-	balatze
haiei	bane	bazeke	bale	bagine	bazine	bazineze	baliote

Oharrak:

- Gutxi aditzen dira holakoak, baldintzari buruz mintzatu garen bakoitzean erran dugun gisan, baina hauek Salaburuk (1984, 233-234) biltzen

ditu, eta orain berriz ere segurtatu ditugu, Baztangoizako hitzun batzuekin. Horregatik utzi ditugu bere horretan. Hemen ere aditzen direnak *balioke* bezalakoak dira, *balio*-ren ordeztan ibiltzen direnak.

4.1.4.4. Baldintza. Alegiazkoa

Haiek

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
niri	-	-	balazte	-	-	-	balaztate
hiri	banazkike	-	balazke	baginezke	-	-	balazkite
hari	banitio	bazizkioke	bazition	bagintio	bazintio	baziniezke	baliozte
guri	-	bazakuke	balazku	-	-	-	balazkute
zuri	banazkitzu	-	balazkitzu	baginazkitzu	-	-	balazkitzute
zuei	banazkitze	-	balazkitze	baginazkitze	-	-	balazkitze
haiei	banezte	bazezke	balezte	baginezke	bazinezke	-	baliozte

Oharrak:

- Bertze aldaera hauek ere: (nik zuri) *bazkinatzu*; (nik zuei) *bazkinatze* (Arizkunen bilduak).

4.1.4.5. Ahalezkoa. Oraina

Hura

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
niri	-	-	lateke	-	-	-	lateke
hiri	-	-	lake	-	-	-	lakiteke
hari	nioke	ziokke	liokey	giniokke	ziniokke	ziniokete	lioteke/kete
guri	-	-	lakuke	-	-	-	lakuteke
zuri	natzuke	-	latzuke	ginatzuke	-	-	latzukete
zuei	natzeke	-	latzeke	ginatzeke	-	-	latzeke
haiei	neke	-	leke	gineke	zineke	zinezke	lioteke

4.1.4.5. Ahalezkoa. Oraina

Haiek

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
niri	-	-	lazteke	-	-	-	laztakete
hiri	nazkike	-	lazke	-	-	-	lazkiteke
hari	nitioke	zizkioke	liozke	gintiozke	ziniozke	ziniozketete	liozketete
guri	-	-	lazkuke	-	-	-	lazkuteke
zuri	nazkitzuke	-	lazkitzuke	ginazkitzuke	-	-	lazkitzuketete
zuei	nazkitzeke	-	lazkitzeke	ginazkitzeke	-	-	lazkitzeke
haiei	nezke	-	lezkeke	gizkeke	zinezkeke	zinezketete	liozketete

Oharrak:

- Singularreko bigarren pertsona datiboarekin (*hiri*) hiru pluralgileak ageri dira: *nitioke* (-it-), *zizkioke* (-zki-) eta *liozke* (-z-). M. Izetak (1982) *niozke* ere badakar, guk paratu dugun *nitioke* horren parekoa litzatekeena.
- Aldaerak: (guk hari) *giniozke*; (haiek zuri) *lazkitzuteke*.

4.1.4.6. Ahalezko alegiazkoak, subjuntiboak eta agintezkoak

Nekez aditzen dira modu hauei dagozkien aditzak Baztango mintzoan. Etxenikek (Salaburu, 1981) *diozozu* (86. or.), *diozozue* (Etxenike, 63. or. eta bertze batzuek egindako predikuetan ere ageri da; gaur ere ibiltzen da), *diezaguzu*³, *ziozotela* (122. or.), *eztiezadazuala* (144. or.), *diezaguzun* (116. or.), *dezazueten* (*diezazuedan*-en ordeez, 93. or.) eta antzekoak ibiltzen ditu. Doktrinan *barka dietzagutzu* inperatiboan, ‘Aita gurea’ itzultzean. Baina aise arruntagoak dira, bertzerik gabe, indikatiboko adizkiak toki hauetan ere: *erakuts datazue* (99. or.), *erakuts iezadazue* ibiliko genukeen tokian. Hemen bildu dugun testuren batean (‘Adbientoko 4. igandea’) *balieza* ageri da (*baleza* edo *baliezaio* adierazteko).

4.2. Hiketako adizki alokutiboen morfologia

4.2.1. NOR saileko adizkiak

4.2.1.1. Indikatiboa. Oraina

nauk/naun
 haiz
 duk/n
 gaituk/n
 tuk/n

Oharrak:

- Lauki honetan, eta ondoko guzietan, *haiz* bezalako adizkiak jarri ditugu, nahiz horiek ez diren berez alokutiboak, baizik bigarren pertsona arrunta, gero alokutiboa ibiltzea eskatzen duena. Uste dugu argiago gelditzen den era honetan paratuta.

3 P. Salaburu, 1986.

- Badira hemen bertze aldaera batzuk ere: bokal artean gertatutako kontsonante epentetiko batek eraginak (*torri yaiz/iaiz/diaiz*) edo arrunta den kontsonante ahostunaren erorketa (*torri uk/un*).

4.2.1.2. Indikatiboa. Iragana

nuken/ nunen
hitzen
zuken/nen
gintuken/nen
zituken/nen

Oharrak:

- Aldaera batzuk: *ninduken, nindunen, yitzen, ditzen, gaituken*.

4.2.1.3. Baldintza. Alegiazkoa

Oharrak:

- 2. pertsonari dagokion *bahintz* kenduta, honek ez ditu alokutibo adizkiak onartzen.

4.2.1.4. Baldintzaren ondorioa

hitzeke
lukek

Oharrak:

- Ikusten ahal denez, aski guti ibiltzen dira holako adizkiak. Horiek bakarrik atzeman ditugu.

4.2.1.5. Ahalezkoa. Oraina

Oharrak:

- 2. pertsonari dagokion *haiteke* ez bada, ez dugu bertzerik bildu.

4.2.1.6. Ahalezkoa. Alegiazkoa

Oharrak:

- 2. pertsonari dagokion *hiteke* ez bada, ez dugu bertzerik bildu. Segur aski ere, badira hemen *litekek* eta holakoak, baina ez ditugu aditu. Kontuan izan behar da, dena dela, adizki hauen ordez hitzunek nahia-go dituztela *ahal* ibiliz osatuak: *gaten ahalko hintzen* bezalakoak erran nahi da.

4.2.2. NOR-NORI saileko adizkiak

4.2.2.1. Indikatiboa. Oraina

	hura	haiek
niri	zatak/n	zaiztek/n
hiri	zaik/zain	zaizkik/zaizkin
hari	zaiok/n	zaizkiok/n
guri	zaikuk/n	zaizkuk/n
haiei	zaiek/n	zaizkiek/n

Oharrak:

- Badira bertze hainbertze aldaera, hiztunen arabera aldatzen direnak. Hemen bildu ditugu horietako batzuk, iturrien arabera (Yrizar, guk entzunak, ahozko material irarria, eta abar). Hala ere, nahiz hainbertze aldaera izan, ez dira sobera ageri adizki hauek. Hona hemen, bada, zein diren: (hura niri) *zietak/n, zieitek/n, zatak/n, ziaitek/n, zaitan, zitek/n, zietek/n, zaitek/n*; (hura hari) *ziok/n, ziaiok/n, zia(g)ok/n*; (hura guri) *ziaikuk/n, ziekuk/n, zikuk/n, ziaiguk/n*; (hura haiei) *zaiotek/n, ziotek/n, zione, ziek/n, ziotene ?, ziaiotek, ziaione, ziaiek/n*; (haiek niri) *zieztak/n, ziaiztek/n, ziaiztak, zieztak/n, ziztek/n*; (haiek hari) *zaizkok/n, zaizkok/n, zaizkiok, zaizkion, ziaizkiok/n, ziozkik/n, zizkok/n, zizkiok, ziaizkok/n, ziazkiok/n, ziozkak*; (haiek guri) *zaizkikuk/n, zaizkiuk/n, ziaizkuk/n, ziezukuk/n, zizkuk/n, ziaizkuk/n*; (haiek haiei) *zaizkietek/n, zaiztek/n, zaizkiotek/n, zioztek/n, ziozkitek/n, ziztek/n, ziaizkiotek, ziaizkione, ziaioztek, ziaiztek/n, ziaizkotek, ziaizkone, ziazkiotek, ziazkione, ziaiziotek.*

4.2.2.2. Indikatiboa. Iragana

	hura	haiek
niri	zieiteken/nen	zieizteken/zieiztenen
hiri	zitzaiken/zitzainen	zitzaizkiken/zitzaizkinen
	zaiken/zainen	zaizkiken/zaizkinen
hari	zitzaioiken/nen	zitzaizkioken/nen
	zaioken/nen	zaizkioken/nen
guri	zitzaikukun/nen	zitzaizkigukun/nen
	zaikukun/nen	zaizkukun/nen
haiei	zizaioteken/nen	zitzaizkioteken/nen

Oharrak:

- Hauek dira ageri diren bertze adizki batzuk: (hura niri) *ziaiteken/nen, zaiteken, zietaken/nen, ziteken/nen, ziziaiteken, zitzaiteken/nen, zieteken/nen, zitzaiaiken/nen*; (hura hiri) *zizainen, zitzaikan, zainen, zitzaizkikun/nen, zitzaiken/nen, zaiñen, zitzaizkikun/nen*; (hura hari) *zioken/nen, zitzioken/nen, zizaioken/nen, zitzioken/nen, zia(g)oken/nen, ziaioiken*; (hura

guri) *ziaikuen/nen, zakuken, ziekuken/nen, zikuken/nen, (zi)ziaikuen, zitziekuken/nen, ziaiguken/nen, ziaguken/nen*; (hura haiei) *zaiotenen, zioteken/nen, zizaioken, zieken/nen, zizieken/nen, zizioteken/nen, zitzioken/nen, ziaieken/nen, ziaioteken/nen*; (haiek niri) *ziaizteken/nen, zieztaken/nen, zaizkiten, zizaizkiten, zizteken/nen, ziaizkiteken/nen, zitzaizkiaken/nen*; (haiek hiri) *zizaizkiken/nen, zaizkiñen, zizaizkiken, zitzaizkiñen*; (haiek hari) *ziaizkioken/nen, zizaizkioken/nen, zizaizkioken/nen, ziozkiten/nen, zizkioken/nen, ziziaizkoken, ziaizkoken/nen, ziozkaken*; (haiek guri) *zitzaizkikunen, ziaizkuken, ziaizkunen, ziezkuken/nen, zizkuken/nen, ziziaizkuken, ziaizkiguken, zitzaizkuken/nen, ziaizkiuken/nen*; (haiek haiei) *ziaizkioteken/nen, zitzaizkioteken, ziaizkotenen, ziozteken/nen, zizkieken/nen, ziaizkioteken/nen, zitzaizkioteken, ziaizkotenen, ziozteken/nen, zizkieken/nen*.

4.2.2.3. Baldintza. Alegiazkoa

Oharrak:

- 2. pertsonari dagokion *balitzaik/n, balitzaizkik/n* kenduta, honek ez ditu alokutibo adizkiak onartzen.

4.2.2.4. Baldintzaren ondorioa

Oharrak:

- Ez dugu daturik bildu.

4.2.2.5. Ahalezkoa. Oraina

Oharrak:

- Ez dugu daturik bildu.

4.2.3. NOR-NORK saileko adizkiak

4.2.3.1. Indikatiboa. Oraina

	nik	hik	hark	guk	haiek
ni	-	nauk/n	nietak	-	nietakek/n
hi	haut	-	dau	dagu	haute
hura	diet dinet	duk/n	dik/n	diegu dinegu	diete dinete
gu	-	gaituk/n	gaitik/n	-	gaitie gaitine
haiek	tiet tinet	tuk/n	tik/n	tiegu tinegu	tie tine

Oharrak:

- Bertze adizki batzuk: (nik hi) *yaut, dat, danat, daat, daut, dabat, datat, iaut, diaut*; (nik hura) *yet, deñet, ñet, diñet*; (nik haiek) *tiñet*; (hik ni) *datak/n, duk neri, dun neri*; (hik gu) *dakuk/n*; (hark ni) *naik/n, niek/n, dietak/n, nik/n, diatak/n, nauk/n, datak/n, niaik/n, ziatak/n*; (hark hi) *yau, au, dauk/n, dak/n, diau, iau*; (hark hura) *diñ*; (hark gu) *gitik/n, diakuk/n, diekuk/n, ziakuk/n*; (hark haiek) *tiñ*; (guk hi) *yaugu, au(g)u, dau, danau, ya(g)u, dakagu, danagu, diau, iau, dagu, diegu, dinegu*; (guk hura) *diugu, dinugu, diñegu, yegu, ñegu, diagu, diu, dinu, dineu, diogu, diñugu, dieu*; (guk haiek) *tiñegu, tiugu, tinugu, tiu, tinu, tineu, tiogu, tiñugu, tieu*; (haiek ni) *nieta-tek/n, naitek/n, nietek, niene, dietatek, dietane, nitek/n, naine, diatatek, niaitek/n, niaine, diatane, ziatatek, ziatane*; (haiek hi) *yaute, aune, datek, dane, daatek, danate, diaute, iaute, diatetek, diatek, haute*; (haiek hura) *die, dine, ditek, diñe*; (haiek gu) *gaitiete, gaitiztek/n, gitiztek/n, gi(z)tine, diekune, gaitiezte, diakutek, diakune, zia- kutek, ziakune, daikutek*; (haiek haiek) *tiezte, tizte, tiztek, tinezte, tiñe*.

4.2.3.2. Indikatiboa. Iragana

	nik	hik	hark	guk	haiek
ni	-	ninduken nindunen	nietaken nietanen	-	nindieten nindietanen
hi	naken nanen	-	hinduen	hindugun	hinduten
hura	niken ninen	zuken zunen	ziken zinen	g̃inien g̃ininen	zieten
gu	-	gintuken gintunen	gintiken gintinen	-	gintiken gintinen
haiek	nitien nitinen	zituken zitunen	zitiken zitinen	gintien gintinen	ziezten zinezten

Oharrak:

- Bertze zenbait aldaera: (nik hi) *intuken/nen, yauten, induten, indunen, naaken, yinduten, yindunen, indetenen, nakaken*; (nik hura) *nien, niñen*; (nik haiek) *nitiñen*; (hik ni) *nauken, naunen, zataken, zatanen, zuken, zunen*; (hik hura) *zaken*; (hik gu) *zakuken, zakunen, zatakegun, gaitu(z)ken*; (hik haiek) *zuzken, zazken*; (hark ni) *nieken, nienen, zietaken, zietanen, naiken, nindien, nindinen, nindiken, ziataken, ziatanen, nindieken, nindienen, niaiken, ninauen*; (hark hi) *hinduen, intuen,*

intunen, yauen, yinduen, zaaken, yindunen, zakaken, zaken/nen; (hark hura) *zien, ziñen;* (hark gu) *gaitiken, ziekuken, ziaukuken, ziaकुunen, gintien, gaitun;* (hark haiek) *zitian, zitinen, zitiēnen, zitiken, zittien, zitiñen;* (guk hi) *intuegun, ginaken, ginanen, ginakugun, ginakugun, yindugun, niaguken, giñaken, diñanen, giñakigukun, yagun, yauegun;* (guk hura) *ginieken, ginienēn, ginaken, ginanen, yaun;* (guk haiek) *gintienēn, gintiken, gintiñe;* (haiek ni) *nieta(te)ken, nieta(te)nen, nieteken, nietenen, naiteken, naitenen, zietateken, zietatenēn, ninditeken, ninditenēn, nindineten, ziatateken, ziatatenēn, nindietenen, zietateken, niaiteken, ninauten;* (haiek hi) *intuen, intunen, zateken, zatenēn, yaute, zaateken, yinduten, yindunen, zatanen, zatateken;* (haiek hura) *zike-ten/nen, zitian, zineten, zikenēn, zien, zitenēn, ziñeten;* (haiek gu) *gintenen, gintizteken, gintiztenēn, gaitizteken, gaitiztenēn, ziekuteken, ziekutenēn, gintiezten, gintinezten, ziaकुuneten, ziaकुuteken, ziaकुutenēn, gintieztenēn;* (haiek haiek) *ziztinen, ziztiken, zieztenēn, zituken, zitunen, ziñezten.*

4.2.3.3. Baldintza. Alegiazkoa

Oharrak:

- 2. pertsonari dagozkionak kenduta (*bahindukek, baninduken...*, berez alokutiboak ez direnak) ez ditu alokutibo adizkiak onartzen.

4.2.3.4. Baldintzaren ondorioa

	nik	hik	hark	guk	haiek
ni	-	nindukek ninduken	?	-	?
hi	?		?	?	?
hura	nikek/n	lukek/n	likek/n	ginikek/n	litikek/n
gu	-	?	?	-	-
haiek	nizkikek/n	lituzkek/n	lizkikek/n	ginizkek/n	lizkitek/n

Oharra:

- Yrizarrek ez ditu denbora honi dagozkion adizkiak biltzen.

4.2.3.5. Ahalezkoa. Oraina

	hik
hura	dezakek/n
haiek	dezazkek/n

Oharra:

- Ez dugu datu gehiago bildu.

4.2.3.6. Ahalezkoa. Alegiazkoa

	hik
hura	lezakek/n
haiek	lezazkek/n

Oharra:

- Ez dugu daturik bildu.

4.2.3.7. Subjuntiboa. Oraina

Oharra:

- Ez du alokutiborik onartzen.

4.2.3.8. Subjuntiboa. Iragana

Oharra:

- Ez du alokutiborik onartzen.

4.2.3.8. Aginte adizkiak

	hik
hura	zak/n
haiek	zik/n

4.2.4. NOR-NORI-NORK saileko adizkiak

4.2.4.1. Indikatiboa. Oraina

Hura

	nik	hik	hark	guk	haiek
niri	-	datak/n	dietak/n	-	diekitek/n
hiri	dat		dak/n	dagu	date/dane
hari	diekat dinekat	diok/n	diekak/n	diekagu diekanagu	diekate diekanate
guri	-	dakuk/n	dieku dineku	-	diekute dinekute
haiei	diekatet diekanet	dek/n	diekatek/n	diekegu diekenegu	diekatek/n

Oharrak:

- (nik hiri) *danat, daat, diat, dinat, dabat, datat*; (nik hari) *diekanat, dia-kat, diakanat, dikat*; (nik haiei) *diaet, diaenet, diet, dienenet, diabet, dia-benet, dieket, diekat, diekanat, diakat, diakanat, diabetet, ziotet*; (hik niri) *nauk/n*; (hik guri) *daukuk/n, gaituk*; (hik haiei) *dabek/n, deek/n, daek/n, diok/n, diotek*; (hark niri) *data, diatak/n, ziatak/n*; (hark hiri) *dauk/n*; (hark hari) *diakak/n, diekek, dieken (?)*, *dikak/n, ziakak, ziok*; (hark guri) *diekuk/n, dineku, diakuk/n, ziakuk/n, dikuk/n*; (hark haiei) *diaek/n, die, diekak/n, diekane, diekatek, diek/n, diabek/n, diekek, diaka, diakan, diabetek, ziotek*; (guk hiri) *dakugu, dakagu, dau, danu, danau, daaku, diagu, dinagu, diugu, diñe*; (guk hari) *diekau, diekanu, diakagu, diakanagu, diekanau, diokugu, diagu, dinagu, dikau, dika-nau, diakau, diakanau, diou, ziakagu, ziou*; (guk haiei) *dieka(g)u, die-kana(g)u, daeu, diaeu, diaenu, deegu, dienu, diabegu, diabetegu, dia-benegu, daegu, diaka(g)u, diakana(g)u, zioteu*; (haiek niri) *dietatek/n, dietane, diatatek/n, diatane, diatek, diataten, ziatatek/n, ziatane, dia-tetek*; (haiek hiri) *datatek/n, datek/n, datane, daatek, daaten, danate*; (haiek hari) *diekatek/n, diekane, diakatek, diakane, dieketek/n, dia-tek/n, dikatek, dikane, ziatek, ziotek*; (haiek guri) *diekutek/n, diaku-tek/n, diakune, diekune, ziatek/n, dikutek, dikune, ziatek/n*; (haiek haiek) *diekate, diekanate, diaetek, diaene, diekane, diek, diene, diabe-tek, diabene, dieketek/n, dietek/n, diakatek, diakane, ziatek*.

4.2.4.1. Indikatiboa. Oraina

Haiek

	nik	hik	hark	guk	haiek
niri	-	daztak/n	dieztak/n	-	diezkitek/n
hiri	dazkit dazkinat	-	dazkik/n	dazkiegu dazkinegu	dazkiete dazkinete
hari	diezkat diezkanat	tiok/n	diezkak/n	diezkagu diezkanagu	diezkatek diezkanatek
guri	-	dazkuk/n	dizkiegu dizkinegu	-	diezkaute diezkanaute
haiei	diezkatet diezkanat	deztek/n	diezkatek/n	diezkegu dinezkegu	diezkatek/n

Oharrak:

- (nik hiri) *dazkinet, dazkiñet, dazkiet, diazkat, diazkanat, danaztat*; (nik hari) *diazkat, diazkanat, diezket, diezkanet, tiakat, tianat, ziazkat, diozkat, ziozkat*; (nik haiei) *daeztet, diaeztet, diaeztenet, dieztenet*,

tioztet, diabeztet, diabeztenet, deeztet, diezket, tiot, diezkat, diezkanat, diazkat, diazkanat, dioztet, zioztet; (hik niri) naituk/n, daatak; (hik hari) diozkak; (hik guri) dazkikuk/n; (hik haiei) dezkek/n, dabeztek/n, tiok/n, dioztek, daeztek/n, diezkatek, deeztek; (hark niri) diaztak/n, ziaztak/n; (hark hiri) da(u)zkik; (hark hari) diazkak/n, diezkek, diezken, tiakak, tianan, diazka, ziazkak, diozka, ziazkak, ziozkak; (hark guri) diezkuk/n, dazku(g)u, diazkuk/n, ziazkuk/n; (hark haiei) diaeztek/n, dieztek/n, diabeztek/n, diezkek/n, diezkak/n, diazka, diazkan, zioztek; (guk hiri) dazkigu, dazkineu, dazkiu, dazkinu, da(a)zku(u), dizkiagu, dizkinagu, dazkanau, dazkiñäu, dazkagu; (guk hari) diezkanau, diez-kau, diezkanu, diazkagu, diazkana(g)u, diozkugu, tiagu, tinagu, ziaz-kagu, diozkau, ziozkau; (guk haiei) diezka(g)u, diezkana(g)u, daezteu, diaezteu, diaeztenu, diezteneu, dieztenu, diabeztegu, diabeztenegu, deeztegu, tiogu, diazkagu, diazkanagu, dazkiegu, diozkateu, ziozteu, dieztegu (hau da Etxenikek dabilena); (haiek niri) dieztatek/n, diezta-ne, diaztatek/n, diaztane, ziaztatek/n; (haiek hiri) dazkiete, daztatek/n, dazkitek/n, dazkine, daztek; (haiek hari) diezkane, diezkatene, diazka-tek, diazkane, diezketek/n, diezkanate, tiaztek/n, ziazkatek, zioztek; (haiek guri) diezkutek/n, diazkutek/n, diazkune, diezkune, ziazkutek/n; (haiek haiei) diaztetek, diaztene, diezkatene, dieztek/n, dieztene, diabez-tek/n, deezte, diezketek/n, diezkane, diazkatek, diazkane, ziaztekek.

4.2.4.2. Indikatiboa. Iragana

Hura

	nik	hik	hark	guk	haiek
niri	-	zataken zatanen	zinetaken zinetanen	-	zietateken zietatenen
hiri	naken nanen	-	zaken zanen	ginaken ginanen	zakiten
hari	niekaken/ niekanen	zioken zionen	ziekaken ziekanen	giniekaken giniekanen	ziekaketen ziekatenen
guri	-	zakuken zakunnen	ziekuken ziekunnen	-	ziekuketen ziekutunnen
haiei	niekaketen niekatenen	zeken zenen	ziekateken ziekatenen	giniekaken giniekenen	ziekateken ziekatenen

Oharrak:

- Biltzen diren bertze aldaera batzuk: (nik hiri) *naaken, naanen*; (nik hari) *niakaken, niakanen, niekeken, niekenen* (?), *niaaken, niaanen, nioken*; (nik haiei) *niekateken, niekatenen, niekaketen, niaeken, niae-nen, niekaten, niekanen, nieken, nienen, niabeken, niabenen, niekeken,*

Oharrak:

- Hona hemen bildu ditugun bertze adizki batzuk: (nik hiri) *nazken, nazkiñen, naazkiken, naazkinen*; (nik hari) *niezkaken, niezkanen, nizkaken, niazkaken, niazkanen, niezkeken, niezkenen, nitiaken, nitianen*; (nik haiei) *niezkateken, niezkatenen, niaezteken, niaeztenen, nizkaken, niezteken, nieztenen, niezken, niezkenen, niabezten, niabeztenen, neezten, niezkeken, nitioten, nittion, niazkaken, niazkanen, niozten, niazteken, niozketen, niazketeken*; (hik niri) *zineztaken, zineztanen, inaztaken, inaztanen*; (hik hari) *zizkioken, zizkionen, ziozken, ziozkaken*; (hik guri) *zinazkiguken, zitunen (guri), inazkuken, inazkunen*; (hik haiei) *zeezken, zezkenen, , zitiokenzitionen, zaezteken, zaeztenen, zezteken, zeztenen, zezkanen, zezkeken, zabezteken, zabeztenen, ze(e)zkeken, ziozkenen, ziozteken*; (hark niri) *zeztaken, ziaztaken, ziaztanen, zazkitan, ziazteken*; (hark hari) *ziezkaken, ziezkanen, ziazkaken, ziazkanen, ziezkeken, ziezkenen*; (hark guri) *ziezkuken, ziezkunen, ziazkuken, ziazkunen, zazkuken/nen, ziaztakeguken*; (hark haiei) *ziaezteken, ziaeztenen, ziez-kaken, ziezkanen, ziezteken, ziezken, ziezkenen, ziabezten, ziabeztenen, ziezkeken, ziazkaken, ziazkanen, ziazketeken*; (guk hiri) *ginazken, giñizkian, giñizkiñan, ginazkiguken, giñazkiken, giñazkinen, giñazkeguken, ginazkiun*; (guk hari) *ginezkaken, ginezkanen, giniezkaken, giniezkakenen, giniazkaken, giniazkanen, giniezkeken, giniuzku(g)un, giniuzken, giniuzkenen, gintiazkaken, gintiazkanen, giñazkaken, giñazkanen, giñazkakeuken*; (guk haiei) *giniezkaken, giniezkane, giniaezteken, giniaeztenen, giniabezten, giniabeztenen, gineezteun, giniuzkugun, giniuzken, giniuzkenen, ginezten, giniazkeken, giniazkenen, giñazkaken, giñazkanen, giniazketeken*; (haiek niri) *ziezkiguten, ziaztateken, ziaztatenen, ziez-tataken, ziez-tatanen, ziaazkaken, ziaazkanen, zazkiteken, ziazteteken*; (haiek hiri) *zazkiten, zaztateken, zaztatenen, zazkineten, ziazketen, ziazketenen*; (haiek hari) *ziezkateken, ziezkatenen, ziazkateken, ziazkatenen, ziazkanaten, ziezketeken, ziezketenen, ziazkaken, ziazkanen*; (haiek guri) *ziezkiguten, ziazkuteken, ziazkutenen, ziaazkuken, ziaazkunen*; (haiek haiek) *ziezkateken, ziezkatenen, ziaezteteken, ziaeztetenen, ziezkaneten, ziezteken, zieztenen, ziabezteken, ziabeztenen, ziezketeken, ziezketenen, ziez-kaken, ziezkanen, ziazkateken, ziazkatenen, ziazketeken*.

4.3. Adizki trinkoen morfologia

Hemen paratuko ditugu han erabiltzen ditugun bertze aditz trinko zenbait, forma eta denboraldirik erabilienetan bakarrik. *Gan* aditzak bi aldaera ditu: *gan* eta *goan*. Biak paratuko ditugu hemen, jendeak hala erabiltzen baititu. Aditz hau ere iragankorra izan daiteke eraman-en erranahia hartuz: *gan naiz* (*joan naiz*, bertze euskalkietan) edo *gan dut* (*eraman dut*, bertze euskalkietan). Horixe gertatzen da *ibili*-rekin ere: *ibili naiz* edo *ibili dut* (*erabili dut*). *Etorri*-ren forma trinkoa ez dugu ezagutzen indikatiboan (forma fosildu batzuk aginte adizkietan bai, ordea: *zato*, *zatozte*, *ator*) eta euskara batuan *nator* erraten den lekuan *heldu naiz* (burutu gabea) entzuten da Baztanen eta *nentorren*-en parean, berriz, *heldu nitzen*. *Heldu* aditzaren *helduko* eta *heltzen* ez ditugu batere ibiltzen hango bazterretan. Bertzenaz ere, ikusiko denez, *eraman*-en orainaldian ez daukagu *daramat*, *damat* baizik, *-ra-* faktitiboa ez baitugu ibiltzen. Etxenikek itzulitako *Catecismo en dialecto vulgar de Elizondo*-n (Salaburu 1986) *heltzen denean* agertzen baldin bada ere, ez dugu horrelakorik inoiz ere entzun Baztanen.

4.3.1. Egon aditza (eztabada)

4.3.1.1. Indikatiboa. Oraina

nago
hago
dago
gaude
zaude
zauzte
daude

Oharra:

- N'Diayek (1970) (gu) *gautzi* eta (haiek) *dautzi* dira ematen dituen bertze aldaera batzuk, Bozaten ibiltzen omen zirenak-edo (Salaburu 1984b, 248).

4.3.1.2. Indikatiboa. Iragana

nindagon
hindagon
zagon
ginauden
zinauden
zinauzten
zauden

Oharra:

- Mariano Izetak (hura) *zegon* adizkia ibiltzen du (*Nigarrez sortu nintzan*, 24., 55., 98. eta 135. orrialdeetan).

4.3.2. Egon aditza (alokutiboa)

4.3.2.1. Indikatiboa. Oraina

niok/n
hago
diok/n
gaituk/n
tuk/n

Oharra:

- (gu) *gieudek/n* eta (haiek) *dieudek/n* dira bildu ditugun bertze aldaera batzuk (Salaburu 1984, 247).

4.3.2.2. Indikatiboa. Iragana

nuken/nen
hindagon
zuken/nen
gintuken/nen
zituken/nen

Oharra:

- aunitz ibiltzen da *bego* inperatiboa: *bego hor!* ('utzi hor!' erran nahi du).
Erranahiru bat: *bego beti zaarra nausi*.

4.3.3. Joan aditza (eztabada)

Hemen hola paratu baldin badugu ere, Baztanen ez da arruntean *joan* ibiltzen (Zigako adibide bat bildu dugu, baina ez da adierazgarria), baizik *gan* edo *goan*. Trinko gisa ibiltzen ez denean (*gan dut*, konparazione), iragangaitza (*etxera gan naiz*) edo iragankorra ere (*etxera gan dut = eraman*) izan daiteke.

4.3.3.1. Indikatiboa. Oraina

n(o)aie
g(o)aie
d(o)aie
g(o)azi
z(o)azi
z(o)azte
d(o)azi

4.3.3.2. Indikatiboa. Iragana

nind(o)aien
hind(o)aien
z(o)aien
gin(o)azin
zin(o)azin
zin(o)azten

z(o)azin

4.3.4. Joan aditza (alokutiboa)

4.3.4.1. Indikatiboa. Oraina

niok/n
gaie
diok/n
ziok/n
?
-
-
?

4.3.4.2. Indikatiboa. Iragana

Oharrak:

- Ez dago daturik.
- Adizki horietaz gain, inperatiboa ere ibiltzen da: *gazin biala*, *zazte trankil* ('goazen berehala, zoazte trankil'). Harrigarria bada ere, galderan ere, hori da aldaera arrunta: *goazin?*. Izetak, bere hiztegian, *goazen*, *zazi* eta *gazin* biltzen ditu, aruntak direnak hizkera bizian. Gramatika honetan aukeratu testuetan *zoazi* bezalakoak ere ageri dira. Etxenikek *noaien* ematen du (*joan nadin*) San Mateoren Ebanjelioan.

4.3.5. Ibili aditza (eztabada)

Ibili aditza ere iragangaitza (*ibili naiz*) edo iragankorra (*ibili dut = erabili dut*) izan daiteke, baina *joan* aditzarekin ez bezala, *ibili* trinkoa denean ere agertzen ahal da iragankor gisa (*dailet*).

4.3.5.1. Indikatiboa. Oraina

na(b)ile
ha(b)ile
da(b)ile
ga(b)iltze
za(b)iltze
za(b)iltzete
da(b)iltze

4.3.5.2. Indikatiboa. Iragana

nindailen		nabilen
hindailen		-
zailen	-	
gínailtzen		gineiltzen
zínailtzen		zineiltzen
zínailtzetan		zineiltzetan
za(b)iltzen		-

4.3.6. *Ibili aditza (alokutiboa)*

4.3.6.1. Indikatiboa. Oraina

nieilek/n
haile
dieilek/n
zieilek/n
?
-
?

4.3.6.2. Indikatiboa. Iragana

nieileken
hindaien
zieileken

4.3.7. *Eman (=eraman) aditza (eztabada)*

4.3.7.1. Indikatiboa. Oraina

NOR:	<i>hura</i>	
	damat	
	damak/n	
	dama	
	damagu	
	damazu	
	damaze	
	damate	
NOR:	<i>haiek</i>	
	damazkit	damatzat
	damazkik/n	damatzak/n
	damazki	damatza
	damazkigu	damatzagu
	damazkizu	damatzazu
	damazkize	damatzaze
	damazkite	damatzate

4.3.7.2. Indikatiboa. Iragana

Oharra:

- Ez dago daturik.

4.3.8. *Eman (=eraman) aditza (alokutiboa)*

4.3.8.1. Indikatiboa. Oraina

Oharra:

- Ez dago daturik.

4.3.8.2. Indikatiboa. Iragana

Oharra:

- Ez dago daturik.

4.3.9. *Jakin aditza (eztabada)*

4.3.9.1. Indikatiboa. Oraina

NOR: ***hura***
dakit
dakik/n
daki
dakigu
dakizu
dakize
dakite

NOR: ***haiek***
dazkit
dazkik/n
dazki
dazkigu
dazkizu
dazkize
dazkite

4.3.9.2. Indikatiboa. Iragana

NOR: ***hura***
nakien
zakiken/zakinen
zakien
ginakien
ginekigun
zinakizun
zinekizun
zinakizen
zinekizen
zakiten

NOR: ***haiek***
nazkien
zazkiken/zazkinen
zazkien
ginazkien
zinazkizun
zinazkizen
zazkiten

4.3.10. Jakin aditza (alokutiboa)

4.3.10.1. Indikatiboa. Oraina

NOR: ***hura***
dikiet/dikinet
zikiet/zikinet
dakik/n
diekik/n
dikiegu/dikinegu
zikiegu/zikinegu
diekitek/n
ziekitek/n

4.3.10.2. Indikatiboa. Iragana

NOR: ***hura***
niekiken/ niekinen
zakiken/ zakinen
ziekiken ziekinen
ginakinen
ziekiten/ ziekitenen

4.3.11. Eduki aditza (eztabada)

4.3.11.1. Indikatiboa. Oraina

NOR: ***hura***
 dauket
 daukek/n
 dauke
 daukegu
 daukezu
 daukeze
 daukete

NOR: ***hai***
 dauzket
 dauzkek/n
 dauzke
 dauzkegu
 dauzkezu
 dauzkeze
 dauzquete

4.3.11.2. Indikatiboa. Iragana

Oharra:

- Ez dago daturik.

4.3.12. Eduki aditza (alokutiboa)

4.3.12.1. Indikatiboa. Oraina

Oharra:

- Ez dago daturik.

4.3.12.2. Indikatiboa. Iragana

Oharra:

- Ez dago daturik.

4.3.13. *Ibili (=erabili) aditza (eztabada)*

4.3.13.1. Indikatiboa. Oraina

NOR: **hura**
dailet
dailek/n
daile
dailegu
dailezu
daileze
dailete

NOR: **haiek**
dailtzet
dailtze/n
dailtze
dailtzegu
dailtzezu
dailtzeze
dailtzete

4.3.13.2. Indikatiboa. Iragana

Oharra:

- Ez dago daturik.

4.3.14. *Ibili (=erabili) aditza (alokutiboa)*

4.3.14.1. Indikatiboa. Oraina

Oharra:

- Ez dago daturik.

4.3.14.2. Indikatiboa. Iragana

Oharra:

- Ez dago daturik.

4.4. Bertze adizki batzuk

Badira bertze adizki bakan batzuk tauletan bildu ez ditugunak. Konparazione, Anizen *badakarrat* aditu dugu. Aski arruntak dira Baztan osoan *zato* eta *zatozte*, *etorri* aditzaren inperatiboak. Etxenikek *betor* ibiltzen du, ikasia segur aski ere. *Egon* aditzaren inperatiboan *bego* ibiltzen da.

5. KAPITULUA

SINTAXIA

5. KAPITULUA

SINTAXIA

Euskalkien arteko desberdintasunak nabarmentzen hasten garenean, berehala harrapatuko ditugu badirela diferentziak, batzuetan diferentzia handiak gainera, hiztegian eta morfologian, konparazione. Orain arte erran duguna kontuan hartuz, ikusiko ditugu desberdintasunak fonetika mailan ere: hainbertze adibide ikusi ditugu dagoeneko aitzineko orrialdeetan. Baina behin hitzak lerroan paratzen ditugunean, perpaus batean, desberdintasunak ez dira hain bistakoak, puntu honetan, berez, ez baita holako diferentziarik mintzoen artean: erlatibozko perpausak, denborazkoak, perpaus osagarriak, ... berdintsu egiten dira. Gehienez ere gertatzen dena da, izaten ahal diren aukera guzien artean, euskalki batzuek bide bat aukeratzen dutela, eta bertze batzuek bertze bat. Bertze hitz batzuetan errateko: Baztango mintzoaren sintaxiak eta Apatamonasterioko mintzoarenak antz handia dute puntu honetan, bi euskalki horien arteko desberdintasunak bertze nonbait bilatu behar baitira.

Ondoko lerroetan, modu eskematiko batean nahi bada, Euskaltzaindiak argitaratu duen *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izeneko gramatika¹ osatzen duten liburukietako egitura, guti goiti-beheiti, segituko dugu.

1 *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*, 1985-2005. Urte hauetan sei liburuki argitaratu dira. EGLU gisa ezagunagoa da. Zazpigarrenarekin bukatuko da bildumaren fase hau.

5.1. PERPAUS BAKUNARI BURUZKO OHAR BATZUK

5.1.1. Galdegaiaren inguruan ohar bat

• Galdegaia eta mintzagaia zer diren behin eta berriz aztertua izan da euskal gramatikan. Beharbada *EGLU*-Jean ageri da kontu honetaz egin den deskripziorik zabalena. Gure liburuetan, oro har, eta gure euskara eskolatan behin baino gehiago burdina bezain zurrinak izan gara arazo honekin, Altuberen itzala dugula beti gibleko aldean. Uste dugu euskarak askatasun handiagoa ematen duen zernahi gisaz. Hemen, jakina, ez gara berriz ere arazo honekin borrokan ariko, baina bai erran nahi genuke zerbait honen inguruan Baztango mintzoan eskuratu ditugun datuak kontuan harturik.

Ohart gaitezen, hasteko, kontu kontari dagoelarik norbait, nolako askatasuna dabilen hizkuntzarekin:

Tuzu sabaien, ta sabaien neguen anitz aldiz ez dute indarrik, ez tire ieten goiti (Erratzu)

Gelditu zizaiten, artu zuten nee laune, eta... ya... nondik eldu ginen, ta... ziren biek saltzen tzirenak. Zen egunen batez, norbait ereari ziren salatuek (Gartzain)

Erran dezagun, hala ere, holako arau nagusi hori, zeinek erraten baitu mintzagaia perpaus hasieran paratu behar dela eta galdegaia aditz laguntzailearen aitzineko aldean, Baztanen ere betetzen dela (nahiz hemen sobera ñabardura egin beharko genukeen).

• Badu hango mintzoak, ordea, galdegaiaren inguruko ñabardura argi pare bat. Batetik, aditz laguntzailearen toki aldatzea da azpimarratu behar dena, galdegaia ageri zaigularik:

zer du orrek balio? (Amaiur)

zer duzu falta? (Arizkun)

nola den ondatue! (Amaiur)

Hori arrunta da eguneroko hizkeran. Bada joera *behar* ere aitzinatzekeo:

“Bai Yaune” ta “E[z] Xaune” ta... ola bear zinuen erran... (Arizkun)

• Horrekin batera erran behar da han, mendebalean baino aise gutiago ibiltzen dela *egin* aditza. Baztandarrei biziki gogor egiten zaie kanpoko norbaiten euskara aditu eta hitzetik hortzera *egin* goiti eta egin beheiti ibiltzen duela ikustea. Egia da badirela hango mintzoan holako adibideak ere:

... eta argitu in zakun... karo an... atra zakuten (Elbete)

orduen artu in ginun (Lekaroz)

Arpatu in biar da (Almandoz)

Maderiketu in zuzten a... apezak edo... eztaki(t), elizak (Almandoz)

sorprenditu in tzuen astua mendien (Almandoz)

Baina, ez dira sobera aditzen holakoak. Ikusten denez, gainera, adibide horietatik hiru (ez baitugu gure corpusetan bertzerik atzeman), Almandozkoak dira. Baina egia da, bertzalde badela *egin*-en ibiltzeko modu bat aski Baztangoa dena. E. Montoya (2003, 244) ere ohartu zen horretaz Urdazubiko eta Zugarramurdiko euskara deskribatu zuelarik. Hau ikusten da ondoko adibide hauetan (holako adibide aunitzen harrapatzen ahal da):

Ta biek in omen tziren asertu (Almandoz)

torri ziren kontrariuak ta in ziren xutitu (Aniz)

Ta gero, in bar tzuen atra itxe artako... eztakit, balkonera edo kalerire, eztakit nora (Aniz)

burdin lodi betetik ... in biar ginuen tietu (Arizkun)

gero in ziren yuntetu... (Irurita)

Eta in zuten gerraontzeko zinturona kendu ta zangoti(k) lotu gañea (Gartzain)

E. Montoyak ‘*egin* indargarria’ deitzen du hau, eta haren ustez, berak ikertu euskalkian eta, jakina, Baztanen ere ondorioz, hau izanen litzateke, neurri batean, bertze euskalkiek galdegaia markatzeko *egin* ibiltzen duten moduaren aldaera bat. Eta egia da, nahi bada, adibide horiek guziak bertze honetara ere eman daitezkeela. Ez dugu uste horrek erranahia sobera aldatzen duen:

Ta biek asertu in omen ziren

torri ziren kontrariuak ta xutitu in ziren

Ta gero, atra in bear tzuten itxe artako... eztakit, balkonera edo kalerire, eztakit nora

burdin lodi betetik [...]tietu in biar ginuen

gero yuntetu in ziren

Eta gerraontzeko zinturona kendu in zuten ta zangoti(k) lotu gañea

Hortaz, adibideak bi modutara emateko aukera bagenu, erranen genuke baietz, fenomeno beraren bi aldaera baizik ez direla. Kontua da, ordea, bertze batzuetan ez dela hain erraza itzuli hori harrapatzea:

ta in tzen erdara biurtu emen (Oronoz)
ori in baizu ankakin pasatu bateti[k] pertzera (Almandoz)
zartxagoko oiek in tzioten aldi betez astokume bat artu te patu... pilotain partez... balkonian (Lekaroz)
nausiek maten tzion nortasun bet eskudoa tapatzeko urte batez, maxterrak ez dezake in nausien eskudoa tapatu geiau, urte batez bai (Aniz)
Ta olaxe... de... dena in tzatan ebaki (Ziga)
eztaki(t) ze gerratan Españak in tzuen irabazi bulek (Almandoz)
Saia gaitezen orain itzulia egiten (garbiago uzteko kontuak, aldaerak batuan emanen ditugu):

?eta erdara bihurtu egin zen hemen
?hori hankekin pasatu egin behar duzu batetik bertzera
?zartxagoko horiek aldi batez astakume bat hartu egin zioten eta paratu... pilotaren partez... balkoian
?nagusiak ematen zion nortasun bat eskudua tapatzeko urte batez, maizterrak ez dezake nagusien eskudua tapatu egin gehiago, hiru urtez bai
?dena ebaki egin zidan
?ez dakit ze gerratan Espainiak bulak irabazi egin zituen

Ikusten baita, adibide guziei galdera ikurra paratu diegu, guk gure duda handiak baititugu onak diren. Gusturago paratuko genieke izartxo bat, gure euskaran bederen aski arrotzak eta onargaitzak baitira. Zernahi izanik ere, bistan da galdegaiaren ageri den *egin* hori eta Baztanen ibiltzen dugun bertze *egin* hau ez direla parekoak, beti bederen ez direla parekoak. Duda dugu, gainera, *egin* hau indargarria ere ote den. Zer da orduan?

Hain segur ere, gauza bat baino gehiago. Guzien gaintetik, beharbada hori ez da baliabide estilistiko bat baizik, esaldiari sarrera emateko bezala-edo. Hori gertatzen da aunitzetan, guk uste. Bertze batzuetan izan dezake galdegaiarekin zerikusi zerbait, egia baita zenbaitetan pareko egiturak direla. Baina aunitzetan bistan da hor bertze zerbait dela galdegaiaren:

...[zerbait] *erdara bihurtu*
...*lau hankekin pasatu*
... *astakume bat paratu*
... *ez dezake*
...*dena ebaki*

Jakina, *behar* ageri baldin bada, errazago orainik holako adibideak:

Gero in bear zuen zauntu, arpatzen tzuenak... (Almandoz)

Honen parekoak ongi heldu dira, batez ere mendebaleko euskalkietan, zenbat eta ekialderago joan orduan eta gutiago baitira aditzen:

gero ezagutu egin behar zuten

Gure ustez, honek azterketa sakonagoa behar luke, bertze gauzen artean, aunitz ibiltzen baita molde hau Baztanen.

5.1.2. Izan eta behar izan aditzen inguruan sortutako perifrasiak

Bada perifrasi bat aunitz ageri dena Baztango hizkeran. Perifrasi horretan *izan* ageri da, eta zerbaiti buruz seguru ez gaudenean ibiltzen da, zalantzaren berri emateko-edo. Ondoko esaldi hau hiztun batek errana sutondoari begira eta ikurisik hango errekiak akitu dela:

ez diogu man izein ta... akitzekin itzeli! (Arizkun)

Hori, konprenitzeko moduan jarriz hau da:

ez diogu eman izanen eta... akitzearekin itzali!

Eta erranahi hau du:

segur aski ere, ez diogu eman [erreki nahiko] eta akitu delarik itzali da sua

Bertze mintzaira batzuetan, Euskal Herriaren eremu zabal batean, hola erranen genuke hau:

ez genion [nahiko erreki] emango, eta amaitu denean itzali (egin) da sua

Bada horren pare-parekoa da, gure ustez, eman dugun Baztango bertze molde hori, horixe baita hitzetik hortzera hango hiztun guziek ibiltzen dutena:

ala iten izein dute (Almandoz)

... zerbait in izein duze... bertzena[z] etzuten deitiko kuarteleik eta...
(Oronoz)

Adibide horietan zalantza eta duda adierazten du hiztunak:

hain segur ere, hala egiten dute

segur aski ere, zerbait egin duzue...

Beraz, molde hau egiten da *izanen* (*izein* ahoskatua) sartuz partizipioaren ondoan. Bada, erramolde horrekin batera bertze bat ere, gure ustez erranahi antzekoa, berbera ez bada, duena. Kasu honetan, *izan* aditzaren geroa (*izanen*) ibili beharrean *izan behar* segida da ibiltzen dena, ondoko adibide honetan ikusten baita:

jotzen izen bear zuen (Azpilkueta)

Horrek ere ‘segur aski jotzen zuela’ adierazi nahi du, nahiz duda kontu hori urrunago doan eta hor ‘omen’ ere erran nahi izaten ahal duen: ‘jotzen omen zuten’. Betiere bistan da zalantza dela azpimarratzen. Hortaz, baditugu Baztanen bi molde gauza bera edo bertsua adierazteko.

jotzen izein zuen (‘jotzen izanen zuen’)

jotzen izen bear zuen (‘jotzen izan behar zuen’)

Hona hemen bertze adibide batzuk:

[*zerria halako egunetan*] *iltzen izan bear zen* (Berroeta: ‘iltzen zen segur aski’)

zauntzen izan bear zuen (Berroeta: ‘ezagutzen zuen segur aski’)

agertzen izan bear zuen (Elizondo: ‘agertzen zen segur aski’)

Anxritonian pillotan aitzen izen bear tzuen xarmanki (Aniz: ‘aritzen zen segur aski’)

azukre pixket maten izen bear tzioten non tzinuen mine... (Azpilkueta: ‘ematen zioten segur aski’)

deus ere ez du jaten izen bear (Arizkun: ‘ez omen du deus ere jaten’)

orrek berezi izen bear zuen (Amaiur: ‘horrek berezi zuen, segur aski, diotenez, omen’).

5.1.3. Behar izan-en aditz laguntzailea

Beti izan dira zalantzak, gramatikarien artean, *behar izan*-ek osatzen duen perifrasiak dela eta, nolakoa behar duen izan laguntzaileak. Aitzineko aditza iragankorra bada ez da dudarik, jakina:

erosi behar dugu

Baina aditza iragangaitza bada, kontuak ez daude hain argi:

joan behar dugu

joan behar gara

Euskaltzaindiak batasuneko eman arauan (113, 2001-02-23) *joan behar dut* da arautzen duena, nahiz Iparraldeko euskalkietan ibiltzeko bertze moldea ere onartzen duen. Baztanen biak ibiltzen dira, baina gehienak *dut*-en aldekoak dira:

arek inklusakoa bear tzuela izen ta... au zela ta ure zela ta... (Amaiur)
bere guratsuek etzuten onartzen... arekin ezkontzia... arront alferra ta bandidua zelakoz, ta z... nola bear tzuten bizi!... (Lekaroz)

arek inklusakoa bear tzuela izen ta... au zela ta ure zela ta... (Amaiur)

Ien bear tzinuen neska aren gañera! (Amaiur)

pues ola torri bear tzinuen idortzen (Azpilkueta)

...arat gan bear bali'medu (Ziga)

ta gan bear tzutela lo pixketen itera (Amaiur)

gauza guziek baño geio balio du nere animak eta gan bear dut moja (Amaiur)

“Gan bar dugu” te... baituzte ala, guk errain dugu “Gan bear dugu” (Azpilkueta)

Orai berean gan behar dugu? (Izeta, Nigarrez sortu nintzan)

gan behar dugu ardiak ikustera (Izeta, Nigarrez sortu nintzan)

Hona hemen adibide pare bat naiz-ekin:

alako, aurdune izan bear da ta zorroa asie du naski ta (Amaiur)

ibili bear dire ezpatarekin... (Lekaroz)

5.1.4. Maiztasuna adierazteko

Euskaltzaindiak ateratako arauan (110, 2000-03-26), zenbait aukeraren artean, hauek dira onartzen direnak: *lau urtez behin, lau urtetarik behin, lau urtetarik lau urtetara, lau urterik behin, lau urtetik behin, lau urtetik lau urtera, lau urtean behin, astero...*

Baztandarra horietako edozeinekin egonen litzateke eroso, segur aski, baina bada modu bat sinpleagoa han ibiltzen dena denen gainetik: *-tik* markarekin aski da. Ikusi ondoko adibide hauek:

Amabortzetik ... ogei euntik edo ola iten giñon (Ziga)

maten giñon amabortzetik ero buelta (Ziga)

bizpairu illabetetik aldatu bar tziren (Ornoz)

ori iten ginuen guatzeak eta zikintzekin te... igual amabortzetik ero, zortzitik ero, segun (...) Arraioz

Bide batez, maiztasuna ez, baizik denbora edo aldia markatu nahi denean *noiztik* da galdegiten dena (*noiztik dago hemen?*, konprazione). Kasu honetan arrunta da bertze zerbait gaineratzea:

noiztik unet torri de? (Elizondo)

ez naiz izen ez dakit noiztik unet (Amaiur)

5.1.5. Ahal partikula

• Aditzaren paradigmetan jarri ditugu ahalezko adizkiak. Adizki zehatz batzuk kenduta (*daiteke, dezake...*) ez dira, egia errateko, sobera ibiltzen bertzeak. Horren ordez *ahal* da nagusiki ageri dena (*al* gisa ahoskatua):

tortzen al da ('etortzen ahal da')

ez da tortzen al ('ez da etortzen ahal')

Hori da eredia, zalantza gabe: *etorri ahal da* bezalakoak arrotzak dira. Geroaren marka hartzea ere arrunta da. Hona adibide argigarri batzuk:

ta etzuten txikitzen al ez beyik, ta ez azienda aundik (Aniz)

Txikitzen al tzuten azienda txikiek (Aniz)

Aren ondokuak etziren egoten al itxe ortan (Aniz)

Zu egoten al tziñen (Aniz)

lenagoko xarrek eta etzuten siñesten argie nola tortzen al tzen alanbre batetik (Almandoz)

Jauregi berria, eztena zauntzen palazio bezala baño izeten al dena... (Arraioz)

Soldadukua re, aberatsa zenak soldadukotik libratzen al tzen (Almandoz)

abizenak... patzen al duzu Zaldua (Erratzu)

Bildu te... abeto baten azpien urie ai bazuen ta bertzena(z) itzelian ta al tzen klasian (Arraioz)

Autse al bazen patzu... pastu... zetabia erten giñon guk, zetabian, ta etzezan itzeik eta izen (Arraioz)

Ure bertzaldetik eta ez al tzen eskapatzen... (Amaiur)

Zuk egiten dauzkuzuna ez datzugu egundaino ordaintzen ahalko (Izeta, Nigarrez sortu nintzan)

ikasten ahalko zuen (Izeta, *Baztango kontuak*, 116)

• Badu *ahal* honek bertze balio bat². Gure ustetan, *ote* zalantzazko partikularena bezalatsukoa da honen erranahia ondoko esaldi hauetan. Ikusten denez, gainera, galde perpausetan ibiltzen da (izan hauek galde perpaus zuzenak nahiz zeharkakoak):

Erbereañak... eztakit, Erbereañak... ez al dute gero enbidiña... (Berroeta)
arek ez al tzuen pipe re... gaten... boneta ta pipe aunitzek gaten zuten...
 (Erratzu)

Frantsa... erten giñon, berak Batista zuen, Batiste... noa zen? Ariztia noski ez al tzuen apellidua? (Ziga)

Eztakit, ez al tuk emen sorgiñek? (Erratzu)

Bai ama, ama re ez al den il... (Erratzu)

aur une[k] badu tripeko mine, zerbait ere ba, ez al du zerbait ere?
 (Gartzain)

Ikusten denez, Baztan osoan biltzen dira holako errateko moduak. Esaldi horien parafrasirik hurbilenak, gure ustez, honako hauek dira:

... ez ote dute, bada, inbidia?

... ez ote zuen hark pipa ere ... eramaten ...?

... Batista ... nola zen? Ariztia naski ez ote zuen izena?

... ez ote dira hemen sorginak?

... ama ere ez ote den il ...

... haur honek [...] ez ote du tripako mina?

• *Ahal* ibiltzen dugu bertze hauetan ere: *ahal guziak, ahal denean, ahal bezain laster, ahal bezala, (egin) ahalegina,* Eta erramolde hauetan:

pentsatzen ahal duzu! (Erratzu: 'jakina baietz!; hala da; horixe baietz!; hori hola da...')

ze penak ahal diren! (Arizkun: 'nolako penak diren!')

ahal dugun bezala, ez nahi dugun bezala

5.1.6. Jakinki, izaki eta holakoak

Bada Baztanen erramolde bat, ez gehiegi ibiltzen dena, egia da, baina noizbehinka atzematen dena. Baztan osokoa da, adibideetan ikusi dugu-

2 Ez dakigu ongi hau zer den, *ahal* edo *al*, baina egia da hiztun aunitzek luzea egiten dutela, *ahal* balitz bezala. Horregatik sartu dugu hemen.

nez, nahiz ez dugun adibiderik harrapatu Etxenikeren edo Izetaren lane-tan. Partizipioari *-ki* erantsiz sortzen da, eta batez ere *jakin*, *izan*, *joan* eta *egon* aditzekin sortzen da, kasu guzietan akabailako *-n* galtzen duela partizipioak.

Zaila da partizipio mota honen (partizipioa baldin bada segurik) errana-hia zein den zehaztea. Ez da dudarik, konparazioe, laguntzailearekin ageri bada, baina hori gutieneko kasuetako kontua da, arruntean, aditu izan dugunez, laguntzailerik gabe nahiago baitute hiztunek. Ondoko adibidea da laguntzaileduna:

Oi... oi eztakit. Oi [irriz]... oi beñ ere eztazu errain izilari batek usua gan ta: "Jode, guai... il tiet onbertze". Ta igual eztu batre izeki egietik, errain datzu zortzi-amar il tuela. Oi gezurtie... gezurraña, oi segurua. (Berroeta)

Iduri du hor 'ta igual ez du batere izaki egiatik' dela, hau da, 'e z du bate-re izan egiatik', nahiz guri pixka bat bitxia egiten zaigun. Kasu honetan, interpretazioa zuzena balitz, *izaki* aldaera izanen litzateke, *izan* partizi-pioaren aldaera hutsa. Desderdina da ondoko adibide hau:

goaki naiz (Arizkun)

Hori, aditu izan dugun bakoitzean argi gelditzen da zer den: 'banoa'. Ez dakigu, hala ere, *goaki naiz* eta horren parekoa litzatekeen *ban(o)aye*-ren artean baden desberdintasunik, erranahiaren aldetik. Gure ustez, ez.

Gure corpusetan eskuratu ditugun gainerako adibideak hauek dira:

ya non egon ziren... e... ola manea ortan egoki ni te... manea ortan e... ez nitzen il biarra ta (Elizondo)

ze korajia bear tzuten konfesatzeko... yakinki il bar tzutela ta... ta antxe bendatu begiek... eta paeta kontra... (Lekaroz)

biztertian bertzia bueltatu te emen ta... dena zikine egoki ta... [irriz] apez-añ esku guzia zikindu... zen! (Lekaroz)

Itzik ez yakinki erdaraz ta or erdaraz ikesi bar... (Gartzain)

Arek yakinki etzela sorgiñik... ta bertzeak, sorgiñek ziela... (Aniz)

... nun zuen miña ta ez ja ere, ta ure makurrao ela, ta erremedio zer bait man nai, ta ez yakinki zer man (Ziga)

astua bi buuzarekin, ta etxetik atra ta bidia ola, zabala zen baño... ta, bi buuzarikin ta ni astuain gibeletik, eta, izeki an liztemien kafie, gañek'al-dian doike, ta buuzariaikiñ ukitu, ta nik pañolua nauken ola lepuan, paño-lo xurie, eta atratzen [indarrez] dira andik eta neri lotu liztamia! (Oronoz)

Bera ala izaki ta besteak ala uste (Lekaroz)

baña lana nonbait ez gauze ona izaki ta mige diabru ure bazakarrelaik
(Almandoz)

Laguntzailerik ez duten mendeko perpaus aunitzekin gertatzen den beza-la, anbiguoak dira, neurri batean bederen, esaldi hauek: moduzkoak, kausazkoak batzuetan... holakoak izaten ahal dira. Gehienetan parafrasia zuzenean egin daiteke partizipioa partitiboan emanik. Eta batzuetan moduzko *-ela(rik)* horren bidez. Guk hola interpretatu ditugu behintzat:

ta manera horretan egonik ni, manera horretan nintzela ni, hola nintzelarik (moduzkoa)

jakinik hil behar dutela, hori dakiela(rik) (moduzkoa)

han izanik, han zegoela(rik) listameen habia (moduzkoa)

zikina egonik, zegoenez gero, baitzegoen (moduzkoa, kausazkoa)

ez jakinik, ez genekiela(rik) (moduzkoa)

ez zekien zer eman, ez zekiela(rik) zer eman (moduzkoa)

Hark bazekiela(rik) ez zela sorginik, harek jakinik ez zegoela sorginik
(moduzkoa)

Erranahirua: *bera halakoa izanik, eta besteak hala uste. Bera halakoa dela(rik) besteak hala uste* (moduzkoa)

ez gauza ona izanik haren ustez, lana ona ez zelarik (moduzkoa)

5.1.7. Bertze baliabide estilistiko bat: hartuko dugu bai, hartuko dugunez

Gauza jakina da euskalki guzietan badugula baliabide estilistiko bat, zerbaiten azpimarra egin nahi dugularik edo, errepikapenaz baliatzen dena:

ttipi-ttipia da

sartu berri-berrie da

Baztanen arrunta da arras hori aditzaren bidez egitea ere:

inen dugu bai, inen dugu

gain gara bai, gain gara

kusi dugu bai, kusi dugu

inen dugu au, inen

erosiko dugu etxea, erosiko

Holakoak arruntak dira eguneroko hizkeran, eta menderagailuaz baliatuz ere ematen ahal dira horiek guziak (badirudi erramolde hauek bertze aunitz tokitan ere hedatuak direla:

inen dugu bai, inen dugunez
gain gara bai, gain garenez
kusi dugu bai, kusi dugunez
inen dugu au, inen dugunez
erosiko dugu etxea, erosiko dugunez

5.1.8. Egitura pasiboak

Euskal literaturan maiz ibili dira hizkuntza erromanikoetako egitura pasiboak. Etxenikek ere aunitzen ibiltzen ditu bere itzulpenetan:

Orduan cumplitua izan cen Jeremias profetaz errana izan cena (Etxenike, *S. Mateoren Ebanjelioa*)

Cumplitua izan zayen Ysaias profetaz errana izan cena (Etxenike, *S. Mateoren Ebanjelioa*)

Eta an presentatu cioten perlesiaz artu bat goatze batean etzana (Etxenike, *S. Mateoren Ebanjelioa*)

Izetaren lanetan ere ageri dira batzuk tankera honetakoak, baina eragileak beti bizigabea da:

belai eta landaz inguraturik (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*)
ardoaren bortxaz amodioaren mina ito beharrez (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*)

Eta horiek dira eguneroko hizkeran ere aditzen ahal direnak:

asilua berriz ere bilduko da etxez eta erdi-erdi geldituko da

Horiek dira egitura arruntak, sobera ibiltzen ez badira ere. Batzuetan, aski gutitan, bizidunen erreferentzia izan dezakeen izenordainen bat ere agertzen ahal da:

bai, zuek nai duzue dena bertzez ine

5.1.9. Zehar objektua eta aditza

Jakina denez, aditz laguntzaileak hartzen duen argumentuetako bat zehar objektua. Aski da desberdintasuna ikusteko ondoko bi perpaus hauek elkarren artean erkatzea:

Miren ikusi dugu

Mireni autoa erosi diogu

Arruntean, euskalki gehienetan, batez ere mendebaldean, behin zehar objektua izanez gero, objektu horren marka paratu behar da aditz laguntzailan. Baztanen ere. Baina zehar argumentu hau espresuki eta agerian heldu baldin bada (goiko esaldian *Miren* ageri den gisa), orduan aski arrunta da aditzeko marka kentzea, batez ere hirugarren pertsonan eta iraganean:

Jesusek erran zuen bere dizipuluei

Holako adibideak badira aunitz Etxenikeren lanean, eta euskara mintzatu aski arruntak dira. Jakina, argumentua agerian ez bada, orduan nahitaez jarri behar da marka aditzean:

Jesusek erran zien

5.2. PERPAUSAK TESTUAN. LOKAILUAK

Erran dugun gisan, hitzak ez dira arruntean bakarrik ageri, perpausetan baizik. Baina perpaus hauek elkarren artean josirik ageri dira, eta lotura hau lokailuen bidez egiten da, edo juntagailuen bidez. Lokailuak ibiltzen ditugu testu mailako loturak segurtatzeko: perpausen erranahia ongi konprenitzeko perpausetik goitiago behatu behar dugu, esaldia mugatzen duten puntuetatik haratago, diskurtso osoa hartu behar baita kontuan. Diskurtso horretan ageri diren perpausak elkarren artean erlazionatzeko ibiltzen dira lokailuak. Juntagailuek ere perpausak elkarren artean lotzen dituzte, baina ez testu edo diskurtso mailan, baizik esaldi mailan, ‘puntutik puntura’, nolabait ere errateko. Edo, bertze modu batera erranik: juntagailuak perpaus ‘aberatsetan’ ageri dira, perpaus konplexuetan, eta lokailuek, berriz, testu osoa hartzen dute kontuan. Jakina: ez da erran beharrik batzuetan aski ilunak direla batzuen eta bertzeen arteko mugak, nahiz hemen batez ere irizpide formalak ibiliko ditugun. Lehenbizikoekin hasteko, bada, euskarak eskura dituen lokailuen artean, zein dira baztandar batek ibiltzen dituenak?

Lokailuak klase aunitzetakoak izaten ahal dira: *emendiozkoak* (loturaren bitartez zerbait gaineratzen dute); *hautakariak* (aukera bat gertatzen dela iradokitzen dute); *aurkaritzakoak* (uste denaren kontrako zerbait gertatu dela adierazten dute); *ondoriozkoak* (ondorio baten berri ematen dute) eta *kausazkoak* (kausa batekin lotuak). Hauek dira lokailuak, perpausen arteko

lotura, testu mailan, diskurtso mailan (perpausetik goitiago joanez), segurtatzen dutenak. Ez dira nahasi behar juntagailuekin³.

- Baztango mintzoan gehien ibiltzen diren *emendiozko lokailuak* hauek dira: *gainera, bederen, behinik behin, segurik, ere, bertzenaz* (ahoskatuak: *gañera, bedere, beñipein, seurik/sorik, ere, bertzenaz*). Hola, konparazione, norbaitek erraten baldin badu *mutil orrek, gañera, badaki ederki mutil-dantzan*, erran nahi dena da mutilak badakiela zerbait (guk zer den dakien hori ez badakigu ere), eta dakien zerbait horretaz aparte, mutil-dantzan ere badakiela. Hori da *gainera* lokailuak eransten duen ñabardura, testuan ageri den perpausa bertze zerbaitekin lotzen baitu. Hemen ematen ditugu adibide batzuk, argigarri izan daitezen (aipamenak ez diren adibideak batuan emanen ditugu):

Gainera, ama gaizki omen du arrunt

Hau bederen eginen duzu

Nik, behinik behin, ez dakit deus ere

Etxe ederra da, bertzenaz

Martinek segurik ez du eginen holakorik

Gaur ere atea zabal-zabalik utzi du, giltza eman gabe

- Bertze lokailu batzuk *hautakariak* deitzen ditugu, hiztunak hautaketa bat adierazi nahi duenean ibiltzen baititu. Badira, euskalkietan zehar, bat baino gehiago, baina Baztanen ibiliena *bertzenaz* da:

Belarra bildu beharko dugu. Bertzenaz, ez da inoiz ere idortuko

Ohart gaitezen *bertzenaz* hori batzuetan emendiozkoa dela, eta ez dela orain ikusten ari garen honekin nahasi behar. Ikus ditzagun ondoko bi adibide hauek:

Baina bertzenaz denak ongi atera dira eta ez dute makurrik

Zerbait jan beharko dugu, bertzenaz goseak joanen gara ohatzera

Lehenbizikoan, norbait istripu batean gertatu dena kontatzen ari da, eta gertatu dena kontatu ondoren, azkeneko azalpena ematen du, eta hor, hola-ko zerbait erran nahi du: “baina gainera, erran dudana gain... denak ongi daude”. Hori emendiozko lokailua da.

3 Lokailuen eta juntagailuen arteko bereizketa *EGLU-ren* liburukietan ikusten ahal da: *EGLU-III*, lehen kapitulua, eta *EGLU-IV*, sarrera kapitulua.

Bigarrena, ordea, ez. Hautakaria, hor bi aukeraren artean hautatu egin behar baita: zerbait jan eta ase ondoren joan ohatzera, edo jan gabe eta goseak joan ohatzera. Bigarren erranahi honekin errazago adituko dugu eguneroko mintzairan.

- Ondoko sailean sartzen ditugu *aurkaritzako* lokailuak. Hauen artean gehien aditzen direnak Baztanen honako hauek dira: *ordea*, *berriz*, *alta*, *hala ere*. Aurkaritzakoak direla diogu, aitzinean, nonbait, testuan zehar, adierazten den zerbaiten kontra bezala ageri baitira. Hona hemen adibide batzuk:

*Miren ez da kantari ona. Mariak, ordea, ederki kantatzen du
Koldok erran du berehala heldu dela. Amaia, berriz, ez da gaur etorriko
Gure mutikoak berriz ere berandu. Alta, errana genion autobusa zortzie-
tan puntu-puntu ateratzen zela
Ez dakit zenbat aldiz gatzigatu diogun hori gertatuko zitzaiola. Horrek,
hala ere, beti nahi duena egin behar izaten du*

Eta azalpena hau da: lehenbizikoan badakigu norbaitek ez duela ongi kantatzen, baina Mariak, bai; bigarrenean norbait etorriko dela espero dugu, baina Amaia ez; hirugarrenean, ez du hartu autobusa, baina guk errana genion noiz ateratzen zen; laugarrenean, erraten zaiona erraten zaiola, nahi duena egiten du. Denetan (horiek dira perpaus hauen interpretazio posible batzuk, ez inola ere bakarrak), testuinguruagatik ezaguna den, edo geroago argitu eta ezaguna gertatuko zaigun zerbaiten kontrakoa adierazten dute perpaus hauek.

- *Ondoriozko* lokailuak dira, Baztango hizkeran, *bada*, *hortaz* eta *orduan*.
Patxikok neska eder bat harrapatu du han. Orduan, ez du berriz ere etortzeko pentsamendurik

Hori aditzen badugu badakigu hori erran duenak, zerbait dela-eta, horixe dela atera duen ondorioa: beharbada, berak pentsatzen zuen *Patxiko* etorriko zela, baina aditu duena aditu ondoren, ateratzen duen ondorioa da ez dela etorriko.

- Azkenik, kausazko lokailuen artean sartzen ditugu *zeren*, *zergatik*, *zerengatik*, *bada...* bezalakoak.

Patxiko ez da gehiago etorriko. Zerengatik han ezkondu da, eta toki hura urrun da arras.

Hor ematen du hiztunak *Patxiko* gehiago ez etortzearen arrazoia edo kausa. Holako moldeak arruntak dira arras, eguneroko mintzoan eta eskribitu izan diren testuetan ere:

ni segur nago baietz, zeren gaten da ne senarra (Erratzu)

zeren nik umiak ez dut ttallak (Lekaroz)

ango mintzoa diferentia baita emendik (Arizkun)

zeren dirurik gastatu gabe eztire egoten aal (Izeta, *Dirua galgarri*, 60-61. or.)

egia izanen da, zeren ni beltxarana naiz eta bai omen dut haren eitea (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 102. or.)

ceren zuc, Yauna, 'in duzu, nai izan duzun bezala (Etxenike, *Jonasen profezia*, 20. or.)

ceren obeago zait bicia baño eriotzea (Etxenike, *Jonasen profezia*, 23. or.)

ceren artan contzebitua dena Yzpiritu Sainduaïn ganic da (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 26.or.)

Cergatic eman dut nere mutilei ordena ez ñiorc zu inquietatzeco (Etxenike, *Ruthen liburua*, 86. or.)

cergatic arec salvatuco du bere puebloa bere becatuetaic (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 26. or.)

eta etzuen consolatua nai izan, cergatic eztire gueyago (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 28. or.)

Ez, ez, zengatik arara gaten giñelik bide baxterran aritzen kontra atratzen tziren ta onddo ttallak (Almandoz)

Hemen paratu ditugun lokailu hauek diskurtso, testu edo hizketaldi mailako loturak egiteko ibiltzen ditu hiztunak. Baina diskurtso maila uzten dugunean, perpausa da aztertzen duguna eta perpausen artean bi multzo handi bereizten ahal ditugu:

1. Perpaus **bakunak**

2. Perpaus **elkartuak**:

2.1 perpaus elkartu juntatuak

2.2 mendeko perpaus elkartuak

5.3. PERPAUS ELKARTU JUNTATUAK. JUNTAGAILUAK

Perpauk elkartuen artean, lehenbiziko multzoa perpauk elkartu juntatuek osatzen dute, eta bigarrena mendeko perpauk. Bien arteko desberdintasuna? Kasu batean, bi perpauk (gehiago ere izaten ahal dira) maila berekoak ditugu, bata bertzearen ondoan, eta ez da haietako bat bertzearen gainean gertatzen, biak beregainak baitira, nolabait ere errateko. Mendeko perpauk, ordea, hitzak berak dioen gisan, bertze perpauk baten zatiak dira. Ikus dezagun perpauk hau:

Maite mendira joan da eta Jose Luis etxean gelditu da

Hor bi perpauk ageri dira, eta hitzak loturik. Lotzeko ibiltzen den hitz horri deitzen diogu *juntagailu*. Loturik gelditzen diren bi perpauk beregainak dira, baina bakarka ere ibiltzen ahal ditugu: *Maite mendira gan da; Jose Luis etxean gelditu da*. Biak elkaturik emanik, perpauk elkartu juntatua osatzen dutela erraten dugu. Bertze honetan, ordea, ez da gauza bera gertatzen:

Maite mendira joan dela erran didate

Hemen ere bi perpauk ditugu: alde batetik *Maite mendira joan dela*, eta, bertzetik, *erran didate*. Egia errateko, hemen hainbertze ñabardura gehiago sartu beharko genituzke, baina ez gara horretan ariko orain. Baina aitzinekoarekin parekatuz gero, hemen bada desberdintasun handi bat, bi perpauk horiek ez baititugu ematen ahal bakoitza bere aldetik: *erran didate* aditzen badugu, ez dago eragozpenik, baina *Miren mendira joan dela* ezin dugu bertzerik gabe erran, perpauk hau bertze zerbaiten azpian baita. Erraten ahal da *Miren joan da*, baina ez *Miren joan dela* horren ondoan ez bada *erran didate* bezalako zerbait paratzen. Bertze hitzetan: bi perpauk hauek ez dira maila berekoak, bat (*Miren mendira joan da*) bertzearen azpian baita. Badira perpauk juntatu eta mendekoen artean bereizten jakiteko bertze ezaugarri batzuk ere, hemen aipatuko ez ditugunak (ikus *EGLU-IV*, sarrera kapitulua). Hauexek ditugu, bada, gure bi perpauk elkartu klaseak: juntatuak eta mendekoak.

Perpauk juntatuak direla-eta, lokailuekin gertatzen zen moduan, hemen ere juntadura multzoak bereizten ahal dira. Hiru motakoak dira lokailu garrantzizkoenak: *emendiozkoak*, *hautakariak* eta *aurkaritzakoak*. Ikusten denez, lokailuetan ere ageri zaizkigu lokailu hauek. Batzuetan bereizketa egitea lokailuen eta juntagailuen artean zaila da, hain dira ahulak bien arteko mugak. Baina hemen ibiltzen dugun irizpidea da (hobeki erran, irizpideetako bat, ikus *EGLU-III* eta *IV*), ikusi den gisara, haien funtzioa: lokai-

luak diskurtso mailakoak dira, eta juntagailuak perpaus mailakoak. Kokaguneari dagokionez, juntagailuak esaldia biltzen duten puntuen artean dute erreferentzia, eta lokailuek, ostera, testu zabalagoa, osoa ez bada.

- *Emendiozko* lokailuetan gehien ibiltzen den lokailua *eta* da, lehentxeago eman ditugun adibideetan ikusten den bezala.

Gaur lanera joan gara eta bihar ere joanen gara.

Hor ikusten da nola ibiltzen dugun *eta* juntagailua bi perpaus horiek lotzeko. Eman dugun adibide honetan juntagailu horrek indargarri bat hartzen du, *ere* hain zuzen. Hau aunitzetan gertatzen da. Batzuetan perpausaren zati batzuk isilik gelditzen dira:

Maite eri da, eta Antonio ere.

Jakina: hor erran nahi duguna da Maite eri dela, eta Antonio ere eri dela. Hau da (“Antonio ere *eri da*”) isilean utzi duguna. Holakoetan, aunitz euskalkitan aski maiz erraten da bertze honako hau:

Maite eri da, eta Antonio ere bai.

Baztango mintzoan, ordea, arruntena da *bai* hori gabe ematea perpausa. Ez, ordea, ezezkoetan, hor behar baitugu ez partikula:

Maite ez da etorriko, eta Antonio ere ez.

- Juntagailu *hautakarien* artean *edo* da juntagailu ibiliena:

etxea konpondu beharko dute edo (bertzenaz) gaintetik beheiti etorriko zaie.

Badira, bertze euskalki batzuetan, multzo berekoak diren *edota* eta *edo* juntagailu hautakariak ere, baina hauek lekukotasun guti dute Baztanen. Perpaus arruntenak hau bezalakoak baitira:

zer egin behar duzu? hemen gelditu edo etxera itzuli?

zer nahiago duzu? hau edo bertze hori?.

Bildu ditugu bertze modu batzuk ere (ondoko bi adibide hauek banakaritzakoak dira):

Eltzean iten baziñun berriz, bueno pues, an eltzian berian, baño arriekin goxoak atratzen ziren... naiz gaztanbera ta... naiz zendeberena re (Ziga)

zeren ez 'tutzun bilatu gazteak, naiz pobre naiz aberatsak (Etxenike, Ruthen liburua, 129. or.)

- Azkenik, *aurkaritzako* juntagailuen artean ibiliena *baina* da:
gure semeak besta maite bai, baina ez du dirurik igandero joateko.

Bertze juntagailu bat aski ezaguna *baizik* da:

*ez dut nik erosiko, baizik nire anaiak
ez dut inon ere ikusi baizik gure etxean*

Eta *baizik* honek badu bertze ibilera bat Baztanen aski hedatua, salbuespena-edo adierazteko balio duena (honen antzeko bati ‘balio murriztailea’ deitzen dio *EGLUK*):

denak sartu ziren, zu baizik ez.

Eta horrek erran nahi du zu izan ezik gaienerako guztiak sartu zirela.

Eta zenbaitetan, *baizik* ibiltzen da *baina*-ren ordeaz, bertzerik gabe:

Sotopilek, ere bai, sotopile zen taloa bezala... baizik... biarrian artuirinekin, ogi-irinekin... (Azpilkueta)

Erpesendako re... erten da, baizik erpesendako re ona da baratxurie bera re... oi... k... moztu baratxurie ta zuku orrekin arraskatu... erretzen du aunitz... baño erpesak eta re sendatzen tu... in bar dire maiz... (Lekaroz)

5.4. MENDEKO PERPAUS ELKARTUAK: MENDERAGAILUAK

Erran dugun gisan, mendeko perpausak ere perpaus elkartuetan ageri dira, baina perpaus juntatuetan ez bezala, mendeko perpausa nagusitasuna duen bertze perpaus baten azpian dago. Edo, zehatzago errateko, bertze osagai baten azpian, ondoko adibide hauek erakusten duten bezala:

*Mirenek erran du bihar mendira joanen dela
mendi artan dagoen etxe hura nirea da.*

Lehenbiziko adibidean [*bihar mendira joanen da*] perpausa *erran* aditzaren osagarria da, eta aditz horren azpian da, hortaz. Bigarreanean, [*mendi hartan dago*] perpausa *etxe hura* izenaren osagarria da, eta izenaren azpian, hortaz. Bai kasu batean bai bertzean lotura menderagailu baten bidez egiten da: *-(e)la*, batean, eta *-(e)n*, bigarreanean. Hauetara erraten diegu mendeko perpaus, eta menderagailua hartzeko, adizki jokatu behar dute izan. Ondoa ikusiko ditugu zein diren holako perpaus nagusienak.

5.4.1. *Perpaus osagarriak*

Holako perpausai ‘konpletibo’ ere erraten zaie, eta duten ezaugarri nagusia da perpaus nagusiko elementu batekin ‘konplementazio-erlazioan’ daudela (ikus *EGLU-V*, 13. or.). Sail honetan lau multzo bereizten ahal ditugu: adierazpen-perpaus osagarriak; galde-perpaus osagarriak edo zehar-galderak; subjuntiboko perpaus osagarriak eta perpaus osagarri izenlagunak. Ikus ditzagun bakarka-bakarka.

• Adierazpen-perpausetan *-(e)la* da, beharbada, denei gogora heldu zaigun lehenbiziko menderagailua, aditz jokatuak hartzen duena: *pentsatu, jakin, erran...* bezalako aditzek gobernatzen dituzte (eskatzen dituzte) holako perpausak eta, erran bezala, *-(e)la* hartzen dute, batez ere baiezka ematen ditugunean, ondoko adibideetan ikusten den gisan. Bertzenaz, aditza jokatu gabea delarik, *-tzea, -tzen...* (aditz-izena) eta *-tu* (partizipioa), aditzen arabera, dira arruntenak:

badakigu [ez dela torko] (Arizkun)

yakin dugu [arras eri dela] (Elizondo)

yakin tzuten [falta zela] (Amaiur)

pentsatu zuen [geroago itzuliko zela] (Erratzu)

pentsatu zuen [gatea] (Arizkun)

alkia duk [ertia] re (= 'ahalkea duk erratea ere') (Arizkun)

ez da aise [egotia telefonoik gabe] (Arizkun)

Hona hemen bertze adibide batzuk:

ez dut nahi inor ere ikusi

ez dut nahi inork ere ikustea

xixtorra jan naie dago (Arizkun. Beharbada egokiago litzateke hau aditz lokuzio gisa sailkatzea)

etzakuten uzten (...) arbol gañera igatera (Almandoz)

Feliciano de Beobide, akaso baduzu entzutea (J.L. Arizkun)

isiltzeko erran dauku (Amaiur)

Ta gure aitek kontatzen tzuen Ebroko batallan... bua! kristoin kalenturekin te ez gauze xutik eoteko (Aniz)

beala tortzeko erran zioten (Erratzu)

denboraz entzutea baginuen mozorro dantza bazela (J. L. Arizkun)

egon ziren denbora batez puxka bat galduek, guk entzutea dugunez (J. L. Arizkun)

konbidetu dute bazkaltzera (Arizkun)

Ta nik ez tut beñ ere pentsatu... estranjeri edo kanpora goatia (Oronoz)
eztutzu utzi bar oztera aunitz (Ziga)

kusi bet in dugu (Arizkun)

itze mantzion berak zaindiko zuela (Arizkun)

bere guratsuek etzuten onartzen... arekin ezkontzia... (Amaiur)

pues igual daiteke izetia berbena... oi eztaikit (Erratzu)

*Oh! Poztutzen naiz zu ezagutzea. Urte askotako!*⁴ (Izeta, Dirua galgarri, 116. or.)

enuen nai iñor(k) kustia baño... (Irurita)

Kontatzen zuten Jesus ta San Pedro torri ziela Almandoza, oi... itxe batera, e... ta zuten ogi erauztia biraunian (Almandoz)

nik ere gazte gaztean enuen pentsatzen hara joateik (J.L. Arizkun)

In tzuen batek arto xuritzia (Arizkun. Kontuan hartu behar da *artoxuritze* hau aski lexikalizatua dela, hala ere)

lan auniz egitia tokatu zizaioten... (Arraioz)

... debekatu zuten... oi (...) eskribitzia, bai (Elbete)

lenago erran duzun bezela... zagon debekatue bersotan aizia (Elizondo)

Beldur baitzen igual [...] aitek abandonatue baitzen ure... mein tziola beroaldin bat eo (Amaiur)

diferente da nazionaliste vasco izetia idea baño (Elbete)

suertatu zaiten ainbertze yoz ta ikestia geiao... (Arizkun)

berriki ikesi du oñez ibiltzen (Arizkun)

Zenbaitetan, gobernatzailea predikatu konplexuagoa edo berezia da:

solasa ibili dute [ez ongixko dagola] (Arizkun)

Ultzaman atra zen solasa [bazela onddo aunitz] (Gartzain)

eleketan ibili dire [berak artuko dutela autoa garajetik] (Erratzu)

4 *Urte askotako* hau ez da arrunta Baztanen (*aunitz urtez!* da hangoa), eta *poztutzen naiz* ere ez. Hemen perpausaren egituraz ari gara, eta hori arrunta da.

egie da [gauzek ez direla ola iten] (Elizondo)

kontue da etxea [jendez betia dutela] (Elizondo)

bisten da [neketan dailela] (Amaiur)

bearrik [andik pastu zarela!] (Arizkun)

Eta, bertze batzuk:

Bai, pues biarrik zuek atra zatela (Almandoz)

bearrik in gintuen bai! (Elbete)

ta ik aski uk orduen tak! ebastia bildos bat (Almandoz)

aski zuen bultoa kustia laster... (Gartzain)

eskerrak[kusi duzule!] (Arizkun)

ezkara on lanian segitzeko (Arizkun)

gure atta zenak erraten tzun pues obe zula emakume bat artu, doteik gabe
(Aniz)

Gañera obe da arpatzen bali'medu uriek (Gartzain)

pues bakarrik gain tzen, raro da bakarrik gatia emendik Iruñera...
(Almandoz)

Perfektotasuna markatzeko *izan* ibiltzen da bertze euskalki batzuetan, eta gaur egun bereziki indarra hartzen ari dira hau bezalako erramoldeak:

pozten naiz zu hona etorri izana

Ez dugu holako adibiderik aurkitu Baztango mintzoan (*pozten naiz zu etorri baitzara, etorri zarela, etortzea...* da han ibiltzen dena)

Ekialdeko euskalkietan, holako perpausetan, *ezen* ere ibiltzen dute (*erran zuten ezen ... -ela*) Baztandik kilometro gutira, baina guk ez dugu holako adibiderik bildu, ahozko hizkeran. Etxenikek, ordea, baditu (kontuan hartu behar da bera Urdazubin sortua zela):

ezen uste zuten gizonek Yaunaïn aurpegitik iges 'iten zuela (Etxenike, Jonasen profezia)

Menderagailu honen tokian, *-(e)na* ere ibiltzen dute zenbait euskalkitako hitzunik (*ezagun da gaztea zarena*) baina Baztanen, holakoetan, beti *-(e)la* ibiltzen da.

Sail honetakoak dira, baita, tankera honetako esaldiak:

ooitzen nai nola... al tzutenian edo sosa zenian erosten tzituela galtzerdi kristalak, medias de cristal erten ginun (Erratzu)

Beltzunegin balkonera ta an ikusten nola ai zen gero ta geiao, gero ta geiao... tienda p... tapazen (Elizondo)

badakizu nola iten den arrotu... orantzakin te (Arraioz)

eta erran zioten nola zuten tratua ine iruetaik bat gelditzeko erakuste aldera (Riezu, 1967)

ikusi dut nola ekarri duten eta Jean-Pierre Yaunak eta bere illoba Franzis'ek nola kontatzen zuten, ok baitira diruzain eta idazkari (Izeta, *Dirua galgarri*)

- Ezezka ematen ditugun perpausetan erran izan da, perpaus osagarri mendekorik baldin badute, perpaus honen aditz laguntzaileak *-(e)nik* menderagailua eskatzen duela. Hola, bada, baiezka *-(e)la* izan beharko genuke, eta ezezka, berriz, *-(e)nik*. Kontuak, ordea, ez dira hain sinpleak (hau dena ederki aztertua da *EGLU-V* liburukian), denetarik harrapatzen baita euskaraz. Baztanen ere gauza bera gertatzen da, baina, gure ustez bertze euskalki batzuetan baino gutiago aditzen da *-(e)nik* akabaila Baztanen. Ondoko adibide hauek, konparazione:

Anizen kantatzen zen kantu oi, baño ez dut uste bertze herrietan kantatzen zenik (Aniz)

Holako esaldiak aditzen ahal dira Baztanen, duda gabe, baina hori bezainbat aditzen ahal da, seguru, ondoko bertze hau ere:

Anizen kantatzen zen kantu oi, baño ez dut uste bertze herrietan kantatzen zen

Batean *-(e)nik* menderagailua hartzen duela, eta bertzean *-(e)n* huts-hutsean. Ez da, erranahi aldetik, desberdintasunik bi perpaus horien artean. Gure ustez, diogun gisara, *-(e)nik* akabaila hori aski bakanean aditzen da Baztanen. Bildu ditugun lekukotasunetan, M. Izetak ibiltzen du noizbehinka: *Nigarrez sortu nintzan* liburuan, konparazione, hiru adibide daude, hirurak *uste izan* aditzarekin, eta irratian egindako elkarrizketa batean ere ibiltzen du behin, orain ere *uste izan* aditzarekin:

ezpaitzuen uste Jose etxean aurkituko zuenik (M. Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 69. or.)

ez baitzuen uste han inor bazenik (M. Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 71. or.)

nik ez nuen uste holakorik gertatuko zenik (M. Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 97.or.)

ez dut uste galduko dutenik

Lekarozen ere bildu dugu bertze adibide bat *jakin* aditzarekin:

guk ez genekien eri zegoenik ere (Lekaroz)

Baina, ikusten denez, lekuko bakanak, betiere, *guk ez baitugu bertzerik bildu*. Gainera, horiek guziak bertze modu honetara eman daitezke, eta aski naturalak izanen lirateke Baztango hizkeran (jatorrizko ortografia errespetatzen dugu):

ezpaitzuen uste Jose etxean arpatuko⁵ zuela

ez baitzuen uste han inor ere bazen

nik ez nuen uste holakorik gertatuko zen (edo zela)

ez dut uste galduko den

guk ez genekien eri zegoela ere⁶

• Azkeneko adibideetan ikusten ahal denez, *-(e)n* da bertze menderagai-bat, aski ibilia dena Baztanen *uste izan* aditzarekin, baiezka edo ezezka emandako perpausetan:

badut uste torko den (Arizkun)

eztut uste torko den (Arizkun)

Hori da han ibiltzen den modurik naturalena (hona hemen adibide batzuk Lakar-Telletxea ikerlariak egin lanean bilduak, egokituak):

uste dut beitiko plazan bazen ura (Irurita)

nik uste patzen giñun (Berroeta)

eztut uste orai gaten den (Ziga)

yendia nik uste artzen den (Gartzain)

nik uste bazuen arek... (Amaiur)

uste dut ...izeten zituen ferra bakotxak (Arizkun)

nik uste bein tortzen zen (Irurita)

Adibide gehienak holakoak dira. Hala ere, horrek ez du erran nahi *uste izan* aditzak ez duela *-(e)la* hartzen ahal. Badira, gutiago badira ere, hola-ko adibideak ibili dugun *corpus*-ean:

5 Gure ustez, *aurkitu* ez da hitz arrunta Baztanen

6 Hiztun honen hizkera landuxeago dabil: *guk ez ginakigun eri zagola ere* naturalago, hiztun aunitzentzat bederen.

uste dut zerbait ere badeukela (Arraioz)
eta bertziak uste dut edozein zirela (Erratzu)
uste dut izeten gintuela (Arraioz)
nik uste aunitzek ez dutela fundamentoik (Aniz)
nik ere uste dut olakoren bat izein zela (Ziga)

Gure ustez, ez da inolako desberdintasunik batzuen eta bertzeen artean, eta txandaka ibiltzen ditu hiztunak, zertara dagoen usatua.

Goitiago aipatu ditugun gobernatzaile berezi batzuek ere batzuetan *-(e)n* hartzen ahal dute, lekukotasunetan bildu dugunez:

bearrik in gintuen bai! (Elbete)

beharrrik alorrak etxe inguruan dauzkaten (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 106. or.)

Beharrrik egunero ez duten leher egiteko lanik (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 85. or.)

•Galde-perpau osagarriak

Zehargaldera ere deitzen zaie gramatiketan holako perpausei. Perpau hauek, *-(e)n* menderagailua hartzen dute:

zuk ere badakizu non bizi den

semeak nai zuen yakin aite nor tzuen... ta galde in tzion (Amaiur)

galdin dute nor den (Elizondo)

eztakit nolakoak diren

ez dakit zer egin

Zehargaldera hauek, ikusten ahal denez, ez dira nahasi behar galdera zuzenekin, haiek, hauek ez bezala, mendeko perpauak baitira, ondoko adibideetan ikusiko dugunez:

norekin bizi da Maite? (galdera zuzena)

ez dakit [norekin bizi den Maite] (zehir-galdera)

Zehargalderak *bai/ez* erakoak ere izaten ahal dira, non *bai* edo *ez* espero baita erantzun gisa:

ez dakigu [joanen garen]

jakin nahi dute [Osasunak irabaziko duen]

Bi perpau hauetan hiztunak argitu nahi duena hau da: 'joanen gara?' lehenbizikoan, eta 'Osasunak irabaziko du?', bigarrenean.

Hauen hurbilekoak ditugu aukera-galderak, non hiztunak aukera bat plazaratzen baitu. Mendekoak ez diren perpausetan, perpaus bakunetan, hola egiten dira hauek Baztango mintzoan:

Miren edo Amaia etorriko da afaltzera?

[ez dakite] kartillen firmetuko duten edo ez (Elizondo)

Aukera-galdera da perpaus hori, eta holakoetan Baztanen beti *edo* da ibiltzen dena, *ala* arrotza baita⁷. Berdin gertatzen da *ala* horrekin lotua dagoen *al* partikularekin ere:

Miren etorriko da?

Hor ez da inoiz ere sartzen bertze mintzo batzuetan hain arrunta den *al* (*Miren etorriko al da?*). Bada, perpaus bakunetan gertatzen den gauza bera gertatzen da mendekoetan ere, non, sistemaz, *edo* baita baztandar hiztunak ahoan duena, eta ez *ala*:

Jakin nahi dugu [Miren edo Amaia etorriko den afaltzera]

Bakarren bat espoteko zaolikan, zain tzen gizasemia, biuden ba... biudo ote zen edo... (Ornoz: 'ba ote zegoen edo ez' da erran nahi duena)

Zati-galderak ditugu azkenekoz:

Jakin nahi dugu [non bizi den Amaia]

Hor, perpausaren osagarrietako bati buruzko informazioa da harrapatu nahi dena. Holakoak dira bertze hauek ere:

neronek ikusi dut norekin bizi den

galde egin diote zenbat balio duen

harrapatu dute azkenean norendako erosi duen

Badira bertze batzuk itxuraz zehar-galderak direnak, baina egiatan zehar galdera izan gabe, ez baita hor zinez galderarik egiten:

ooitzen naiz nola gan ginen ude artan

Perpaus hori anbigua da arras: batetik erran nahi du hiztuna oroitzen dela 'nola' joan zen uda hartan (autoan, edo hegazkinean, konparazione), baina izaten ahal du bertze erranahi bat aski desberdina: hiztuna oroitzen da 'uda hartan joan zela' bertzerik gabe, eta ez 'nola joan zen' (hau zati galdera izanen litzateke). Adierazpen perpaus osagarri arrunta da hori.

7 Hori uste dugu guk behintzat, nahiz Izetak, konparazione, *ala* ere ibiltzen duen: *Zer iduritu zaizu? Gauzak bide onetik doazi ala ez?*

Zehargalderen menderagailua *-(e)n* dela erran dugu goitiago. Eta hori da adibide guzietan agertu zaiguna. Hemen erran behar da batzuetan, *bai/ez* erako perpausetan zenbait mintzotan ibiltzen den *-(e)netz* akabaila (edo-zein dela ere horren forma) arrotza dela Baztanen.

Ez, ordea, mendeko perpausa irekitzen ahal duen *ea* partikula (*ya* bezala ahoskatua):

jakin nahi dugu ea zenbat urte dituen

ikusiko dugu ea nola etortzen den

ea noiz joaten zareten (aditz nagusia isilik)

bertze bat bijilatzen ya norbait o eldu zen (Oronoz)

beti egoten ginen bea ya noi(z) xugatzen tzen (Elizondo)

Ta, gan tzen ta (...) deitu zion ta [e]rran tzon ya zer tzuen an ta ... zuen gizon baten burue... ortza[k] tzituen denak urriak eta kentzera zamatzala erran tzuen eta ya zendako eaman tzuen ta "bai urria, urria kentzeko"... (Erratzu)

farol bate(ki)n gaten ginen ta kusten gintuen ya baziren galduek (Arizkun)

Perpau bakunekin gertatzen den gisan, hemen *ote* partikula ere ibiltzen da Baztanen (ez, erran bezala, *al* partikula), zalantza kontua argiago uzteko:

ez dakit nor arraio ote den hori

ikusi beharko da noiz itzultzen ote den

ez dakit... biudo ote zen edo (Oronoz)

erten zuten... iñezture ote zen edo (Berroeta)

Gauza jakina da batzuetan adizki trinkoak *ba-* partikularekin hasten ditugula. Konparatu bi perpau hauek:

badakit nor den hori

ez dakit nor den hori

Zer gertatzen da mendeko perpau batean biltzen baditugu orain lehen-bizikoa bezalako perpauak? Euskalkien arabera tradizio desberdinak daude. Idazle batzuek, konparazione, ez dute inoiz ere ibiltzen partikula hori mendeko perpauekin, baina bertze batzuen kasuan arrunta da (ikus *EGLU V*). Baztanen ere berdin gertatzen da, baina, gure ustez, joera da gehiago *ba-* horren ibiltzearen aldekoa:

azterketa egiten duelarik ikusiko dugu [(ea) badakien edo ez]

*azterketa egiten duelarik ikusiko dugu [(ea) dakien edo ez]
mezarik baden edo ez behatu behar da*

beha zazu...bitxon bat o... zerbait baden (Ziga)

ez dut uste baden han ekarri ta enterratuik (Arizkun)

*Mayi etzen konturatzen bere inguruan inor bazenik ere (Izeta: Nigarrez
sortu nintzan, 68.or.)*

*ez baitzuten uste han inor bazenik (M. Izeta: Nigarrez sortu nintzan,
71.or.)*

Jakina, ez da erran beharrik ez *dakit etorriko bada* bezalako perpausak,
hain arruntak mendebalean, ez direla ezagutzen Baztan aldean.

- Subjuntibozko perpaus osagarriak

Euskal literaturan aski arruntak dira hau bezalako esaldiak:

eskatu zioten handik lehenbailehen joan zedin

poliki ibil gintezen esan zigun maisuak

berehala amaitu dezatela nahi dugu

Batzuetan perpaus nagusia isiltzen dugu:

amaitu dezatela lehenbailehen!

Morfologiaz aritu garenean, eta Baztanen ibiltzen diren adizkiak azaldu ditugunean, subjuntiboa gutitan ibiltzen dela erran dugu han. Horregatik ere, holako perpausak gutiagotan ageriko zaizkigu Baztango mintzairan. Holakoetan arruntago da aise aditz jokatugabea ematea Baztanen, nahiz bertezetarik ere bakan batzuk ez diren falta:

otsuak erran zion... gateko ta atratzeko agudo andik, mezatik (Almandoz)

arpa dezatela berek, arpatu bar bali'maute. Oi! oi! (Gartzain)

zakurrein purdire gan daiela! (Arizkun)

Ikusten denez, menderagailuak *-en* eta *-(e)la* dira, baina Baztanen, ibiltzen diren guti horietan *-(e)la* da gehien ageri dena.

Ezezkoetan hola ematen dira bakan hauek:

eta ez gaitzin galdu (Etxenike, Jonasen profezia, 19. or.)

*ez gaitzila galdu gizon unen biziain gatik (Etxenike, Jonasen profezia,
19. or.)*

- Perpaus osagarri izenlagunak

Badira perpaus osagarri batzuk izenaren osagarri gisa ageri direnak, eta ez aditz baten osagarri bezala. Ondoko hauek bezalakoak ibiltzen dira euskalkietan zehar, eta literaturan ere aunitzetan ageri dira:

alkatea hil delako berria ailegatu da

lurra zabala den ustea ez dute sinesten batzuek

Perpaus horietan ‘alkatea hil delako’ batean, eta ‘lurra zabala den’, bertzean, dira mendeko perpaus osagarriak: bat ‘berri’ izenarena eta bertzea ‘uste’ izenarena. Holakoak ez dira entzuten Baztanen, eta horren ordeztu elipsiak egiten dira, hor adierazi nahi dena bertze molde batekin emanez.

Badira bertze bi egitura ere horren parekoak:

egia da Maite eta Koldo bereizi direlakoa?

berandu zebilelakoan, lasterka hasi zen

Holakorik ere guti aditzen da Baztanen. Aztertu ditugun testuetan eta eskura ditugun grabazioetan adibide bat bakarria bildu dugu (eta ez dakigu hemen sartzea merezi duen, aski lexikalizatua dela iduri baitu):

Aniz, erte’ute aunitzek, eztakit ola den, e! Aundiz delakoa dela (Aniz)

Aditu, bat bakarrik ere ez ez dugu aditu. Hortaz, bada, erraten ahal da, gure ustez, ez dela mintzo honetan arrunta izenaren perpaus osagarririk atzematea, eta baldin badira ere aski bakanak direla, baztandarrak nahiago baitu, ondoko bi aukera hauen artean, bigarrena ibili:

ez ongixko dagoelako solasa ibili dute

ibili dute solasa ez ongixko dagoela

Lehenbiziko kasuan izenaren osagarria dugu, eta bigarrean gobernatzaile konplexu baten osagarria, lehentxeago ikusi ditugunen modukoak.

Horiek guziak aditz jokatua duten perpaus osagarriak dira. Adizki jokatugabeekin, jakina, arruntak dira Baztanen bertze hauek:

oi paatzeko maneran egoten tzen (Gartzain)

ebaste beldurrek (Ziga)

- Erran dezagun azken hitz bat, perpaus osagarriaren barnean ageri diren sintagmek hartzen ahal duten tokiaz. Egia erran, askatasun handia dago hitzak mugitzeko, ez bakarrik perpausaren barnean, baizik perpausetik kanpo ere, ondoko lekuko hauetan ikusten denez.

ta orrek erran nai du etxe bakotxak bazuela bere defentsa (Aniz)
nor bera... aski zela, denak elkarrekin etzutela konfiantzik (Aniz)
eta orduen badaki dela urruxe (Lekaroz)
idui zutela oraiko kamisonak (Oronoz)
ilia gelditzen tzela ungi te... (Arraioz)
alketzen nitzen etzela iñor ere errian... (Erratzu)
Gald'in bar dikat gizon uni ya non den emen onddo lekue (Gartzain)
nola akitzen den gauza (Oronoz)
Eguiazqui erten datzuet, ez 'tutzuela aquituco Ysraelgo ciudade guciac
(Etxenike, *San Mateoin Ebanjelioa*, 49.or.)

5.4.2. *Perpaus erlatiboak*

Perpaus erlatiboak izenlagunak dira, funtzio adjektibala duten perpaus menderatuak. Ikus ditzagun bi adibide hauek:

erosi duzun etxea handia da
Mikelen etxea handia da

Bi perpausetan 'etxe' izenak osagarri bat hartzen du, izenlagun bat, hain zuzen ere, batean izena+(e)n eta bertzean perpausa+(e)n, ondoko eskeman ikusten den gisan. Horri guztiari 'a' artikulua erantsirik izen sintagma bihurtzen da:

[[erosi duzu]n] etxe
[[Mikel]en] etxe

Perpaus erlatibo hauek osatzen ditugu izen bat isilduz mendeko perpaus-ean. Izen horren erreferentzia, erlatiboak osatzen duen izena da: gure kasuan 'zuk etxea erosi duzu' eta 'etxea handia da'. Etxe horri buruz, ez bertze bati buruz, erraten duzu handia dela. Isiltzen dugun izena bertze zerbait balitz, ezinen litzateke perpaus erlatiboa osatu. Erran behar da, gainera, perpaus erlatibo hauek adierazpenezkoak direla (baiezkoak nahiz ezezkoak).

Perpaus erlatiboen artean mota aunitzetakoak harrapatzen ahal dira: erlatibo arruntak, *zein* erlatiboak, *bait* erlatiboak, korrelazio erlatiboak, aurrekaririk gabeko galde-izenordaina duten erlatiboak.

- Goian jarri dugun adibide horretako perpausa bezalakoei deitzen diegu erlatibo arrunt: gehien ibiltzen direnak dira, euskalki guztietan, gainerako

guztiak aise markatuagoak baitira. Ez gara ariko hemen erlatibo hauek osatzeko euskarak dituen muga eta debekuez, horiek guziak nahiko antze-koak baitira euskalki eta mintzo guzietan. Konparazione, hiru kasu gramatikalekin (*gaztea, gazteak, gazteari*) erraz egiten ahal dira perpaus erlatiboak:

etorri den gaztea Arizkungoa da
etorri den gazteak hamasei urte ditu
etorri den gazteari musu bat eman dio
etorri den gaztearekin bizi da
etorri den gaztearendako ekarri dut hau
etorri den gaztarengana joan da

Perpaus erlatibo guzietan ‘gaztea’ sintagma dago isildua (‘gaztea etorri da’, guzietan), absolutiboan, eta horrek errazten du perpaus erlatiboaren bidea. Baina kasua aldatzen dugunean, zailtasunak sortzen dira isildutako izen horren, eta buru gisa hartzen duen izenaren artean lotura egiteko eta, ondorioz, perpaus erlatiboa sortzeko. Hau ez dugu azalduko hemen, *EGLU-V* liburukian ikusten ahal baita aski ongi esplikatua. Baztango mintzaira ez da, kontu hauetan, han deskribatzen denaz desberdina. Erran dezagun, hori bai, Baztango mintzoa puntu honetan nahiko kontserbadorea dela eta perpaus erlatibo gardenenak, garbienak, bakarrik onartzen dituela. Hauek bezalakoak, konparazione (itxuraz denborazkoa, egiaz erlatibo arrunta denbora kutsuarekin):

baño Yzpiritu Sainduain kontra mintzatzten denak, eztu barkamenduik, ez mende untan, ez datorrenean (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*)

Baina hauetan, hori bai, askatasun handiarekin mugitzen dira sintagmak perpausetik kanpo ere, beti ere anbiguetaterik sortzen ez badute, jakina:

etorri den gaztea gaur goizean Arizkungoa da
etorri den gazteak gaur goizean erran du nekatua dela

Perpaus hori, arruntean, beti modu berera interpretatuko genituzke, azentuaren arabera: ‘gaur goizean erran du’, eta ez ‘gaur goizean etorri da’.

Hona hemen, konparazione, Etxenikereren adibide bat:

Otoizten zaitut, Yauna, ¿ezta au, nere tierran oñik nintzelaik, beldur nintzena gertatuko zela? (Etxenike, *Jonases profezia*)

Bistan da hor berez eskatzen den hurrenkera hau dela:

¿ezta au, nere tierran oñik nintzelaik, gertatuko zela beldur nintzena?

Perpaus erlatiboak ezezka ematen ditugunean, arrunta da arras partizioa gibleko aldean ematea, literaturan hedatuena den ohitura errespetatu gabe. Denek dakigun gisan, hola egiten ditugu baiezko eta ezezko esaldiak:

etorri da ez da etorri

Eta literaturan hola egiten da horren gainean eraikitzen den erlatibo (eta hola egin behar dela erakusten da ere eskoletan eta euskaltegietan)

etorri dena etorri ez dena

Baina Baztanen aski laxoa da, alde horretatik, erlatiboaren ibilera, hola-koak ere aditzen baitira:

etorri dena ez dena torri (ez da tenorez sartuko)

torri direnak ez direnak torri (ez dute jakinen zer gertatu den)

Egia errateko, eguneroko mintzoan erlatibo sinpleenak ematen dira, adornuetan galdu gabe, baina horrek ez du erran nahi bertzeak ibiltzen ez direla. Hortaz, hauek bezalako esaldiak arruntak ditugu han:

goizian torri direnak etxian gosalduta dute, eta ez direnak torri errien gelditu dire

goizian torri direnak etxian gosalduta dute, eta torri ez direnak errien gelditu dire

tortzen ez denak ez du jakinen nola in

tortzen ez direnek erran bearko dute oi

torri direnekin etxian jan dugu, eta torri ez direnekin Felix gelditu da

geiago ta geiao saldu ez datatenak (Aniz)

Aipatzekoa da zein guti ageri diren hango mintzoan eskribitutako testuetan holako egiturak. Etxenikeren itzulpenetan, konparazioneko, bat bakarria atzeman dugu, (ortografia moldatua):

Doktrina au segitzen ez tuten guziei, eta... 'zaütu ez 'tuztenei... (Etxenike, Apokalipsia, 137. or.)

• Bigarren sail batean sartzen ditugu *zein*-erlatiboak, batez ere literaturan ageri direnak. Baztango euskalkiaz idatzi dutenek holakoak ibili izan dituzte. Hona hemen bildu ditugun adibideak:

zeñekin egiten gara Jangoikoaren seme adoptibo eta zeruko gloriaren heredero (Adbientoko 4. igandeko sermoia, hemen berean, 6. kapitulu, bildu dugun testua)

Ruth bearrak bortxatuik badoaie buruka biltzera Boozen landetara, zeñek errebitzen du begi tarte on batekin (Etxenike, Ruthen liburua)

Aipatzekoa da bi adibideetan aditz laguntzailea huts-hutsik ageri dela, menderagailurik gabe. Etxenikek *bait*-ekin ibiltzen ditu aunitzetan:

Eta biaramunean, zein baita Paraszebeko egunaïn ondokoa (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 105.or.)

Orduan kumplitu zen Jeremias profetaz errana izan zena, zeñek baitzion (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 102.or.)

Zure lepoa Daviden dorrea bezalakoa, zein baluartekin 'ina baita (Etxenike, Kantuen kantua, 115.or.)

Eta gertatu zen bazter arek izatea bere yabetako Booz deitua zen bat, zein Elimeletxen aidetasunekoa baitzen (Etxenike, Ruthen liburua, 126.or.)

eta errezihi dezazula sari bat osoa Ysraelgo Yinko Yaunaïn ganik, zeñen gana 'torri baitzara, eta zeñen egalpera bildu baitzara (Etxenike, Ruthen liburua, 127. or.)

Baina badira *nor* eta *-n* klasekoak ere:

ibili ziren aunitz jende zaharretan ta biletzen zer zakiten guzie (J.L. Arizkun)

ta, karo, nor aplikatzen tzen geiena, ari erten zioten (Arizkun)

nor nere ofizioko, ure nere etsai (erranahirua, Arizkun)

Ahozko lekukoak ere bildu ditugu (Lakar-Telletxearen lanekoak gehienak). Hauetan ere iduri du menderagailurik ez dagoela, baina zail da erratea hala den edo ez, adibideak iraganean baitaude, eta menderagailua *-n* baldin bada, neutralizaturik gelditzen baita, jakina:

Ez, orduen etzen oai bezala, orduen baizu ze ite tzuten? Bazuzten oei pion ta... sartiko zuzten iru laun, ta bertze gañeakua... zeñek miñe artzen zuen ure zen (Almandoz = 'mina hartzen zuena, hura...')

karabineroak kasko oietan ta... or... eta aiteikin eo amaikin eo zeñekin gana nitzen buelta ba(t) solasian egon, eta ni ne(re) sakarinekin unet... tti-kie baintzen bakarrik gateko... (Amaiur = '...edo joana nintzenarekin')

an in bar zuten pelea zein... zeñek irabazi (Almandoz)

bide, iru, lau pauso edo bagintuen distantzia... eta bat bota arat eta zeñek urrun urbilena botatzen ginuen... are[k] zuen deretrue... (Irurita = 'urrun hurbilena botatzen genuenak..')

Ta gero, zeñek artzen tzuen luzien ure, pues ura gaten tzen altxatzera, ta bertziak a pagar (Ornoz = 'luzean hartzen zuenak hura'. Holako perpaus

klase hauek sail berezi bat osatzen dute. Ikusten ahal da *EGLU-V*, ‘korrelaziozko perpausen egitura’, 248. or.)

Leku-denborazko kasuetan, *zein* horren ordez *non*, *nora*... dira ageri direnak (ortografia moldatua):

Bertze zenbait erori ziren kascailu lekura, non ez baitzen lur guti baizik (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 57.or.)

azukre pixket maten izen bear tzioten non tzinuen mine... (Azpilkueta)
noat bildu zaiken a... an iten zen (Arizkun)

gain da taller batera, non konfiantza den... (Arizkun)

- *Bait*-ekin eratutako erlatiboak

Gauza jakina da ekialdean aunitz aditzen direla *bait*-en bidez eginiko erlatiboak. Konparatu bi perpaus hauek elkarren artean:

badire Dantxarinian botike aundiek, an arpatzen al baituzu nai duzun guzie

Dantxarinian dauden botike aundietan arpatzen al duzu nai duzun guzie

Bi perpaus klaseak ibiltzen dira Baztanen, baina gauza jakina da *bait* menderagailua (erlatibo gisa, edo bertzenaz ere, aunitzetan aski anbigua da duen erranahia) maiz aditzen dela hango euskaran. Hara hemen perpaus horiek batuan emanak:

badira Dantxarienean botika handiak, han harrapatzen ahal baituzu nahi duzun guzia

Datxarienean dauden botika handietan harrapatzen ahal duzu nahi duzun guzia

Zenbaitetan erlatibo konplexuagoak osatzen dira *bait* honen bidez:

badira Baztango errietan gazte batzuk, nik ezpaitakit gai diren mutil-dantzian aitzeko

Horren parekoa, egitura arrunta hautatuz, hau izanen litzateke:

nik ez dakit Baztango herrietan diren gazte batzuk gai diren mutil-dantzian aritzeko

Hona hemen lekuko batzuk (batzuetan bereziki zaila da jakitea erlatiboak diren edo bertzerik gabe kausalak, moduzkoak...):

kusten an, mendien? arbolartian eldu baite... ure (Arizkun)

Amaiurko ostatue famosua izena baite denboraz zu, El Camino Real emendi pasten baitzen zu... (Amaiur)

hango etxe hura, arbola artean baita,... (Arizkun)

“*To! Etzekiet batre, gaue zuken ta ez nien zautu!*” (...) *Beldur baitzen igual... aite... aitek abandonatue baitzen ure... mein tziola beroaldin bat eo, amak oi pentsatu omen tzuen.* (Amaiur)

Sorgin marrua zen... arri bet, arrie. Guk sorgin marrua erten genion, n... nola diren oai, nola da oi? Kuadroa(k) baitire untera direnak ola... (...). *Sorgin marrua zen* (Gartzain)

iru arri koxkor t’oi zen... orai dadoa... izeten baitire... pues k... igualtsu zen... baño iru... (Amaiur)

Eta, makil luze... izeten baituzte platanoak urtero moztute... alakoakin ukitzen duenai... (Berroeta)

Atekolak a... izaten baitie... balango bat biarrian izeten tzien lenago zurezkuak at... ola... patuek, atekolak. (...) (Berroeta)

Karruak izaten baitu lardaia, (...) *eta batek emendik zapatu* (Berroeta)
’Minbre, minbre’ baite... (Erratzu)

- Bertze erlatibo klase batzuk

Badira bertze erlatibo batzuk aditz laguntzailerik gabe egiten ditugunak. Hauetako batzuk aski arruntak dira.

ez du non utzi gairioak

zuk utzi tokian dago

zuk erran egunean

Batzuetan, partizipioaren orde, etorkizuneko marka ere ibiltzen da:

zuk landatuko tokian (Arizkun)

Santa Barbara erriek artuko (= hartutako) *besta* (Berroeta)

5.4.3. Konparazio perpausak

Konparazio perpausetan ere, luzamenduetan ibili gabe, eredu arrunta bereizten ahal da, alde batetik, eta hain egunerokoak ez diren bertze eredu batzuk, bertzetik. Nola egiten ditugu konparazio perpausak Baztanen?

- Eredua arrunta

Eredua arrunta dela eta, berdintasuna eta desberdintasuna markatzeko konparazio perpausak ditugu, bertze euskalki edo mintzoetan gertatzen den bezala.

Berdintasuna markatzeko partikula hauek dira ibiltzen ditugunak (bezain, bezainbat, adina, bezala, hainbat):

Patxiko Felix bezain aundie da

Patxikok Felixek bezainbat diru du

Patxikok Felixek adine diru du

Patxikok Felixek bezala iten du lan: goizean eta atsaldean

gorapenian atrako zaizu au bezain zain xurie (Gartzain)

gure amak erten zakun biar zela al bezain geldi txiki, idortu artio...

(Erratzu)

nai den bezain denboa ederra (Amaiur)

ba... osea, probatzeko adine (Gartzain)

Ta geo baratzian etzen... orai ainbet berdure ta izeten (Almandoz)

maten tzakuten umia... nai giñun ainbet (Berroeta)

Emen ere bai... ortako ainbet (Berroeta)

Etxenikek bertze molde hauek ibiltzen ditu:

elurra bezen xuria (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 107.or.)

Onguenduik oberenak becen urrin goxotsuak (Etxenike, Kantuen kantua, 110.or.)

zeren eriotzea bezen fuertea da amorioa, infernua bezen gogorra gogoa (Etxenike, Kantuen kantua, 121.or.)

Horiek dira berdintasuna markatzeko moduak. Ikusten den bezala, han ez dira ibiltzen bertze euskalki batzuetan ageri diren *beste* eta *legez*. Jakina, batzuetan ez da aditz laguntzailearen beharrik, adibideetan ikusten denez.

• Desberdintasuna markatzeko bertze bide batzuk (*baino...-ago; baino gehiago; baino gutiago; ez bezala*):

Oraikoak baño pollitao! (Erratzu)

barnean izeten tzuten osto xuriago kanpuan baño (Irurita)

aise ni baño gaztiao (Aniz)

Belaunak baño pixkot gottixigotto (Oronoz)

Bai, ta aritza baño obia zen bai (Oronoz)

Zeruan izarrak dirdiratzten zuten beñere ez bezala (Izeta, Dirua galgarri, 23.or.)

lanean behin ere ez bezala (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 34.or.)

Beti. Ni[k] pa... nik baitut... nere zonan, e! nere zonan kasuek... paatu eskatu baño geiago ta geiao saldu ez datatenak. Egie (Aniz)

Obeago zait bicitzea baño iltzea (Etxenike, Jonasen profezia, 71.or.)

- Badira bertze molde bat hartzen duten konparazio perpausak, eredu erromanikoan oinarritzen direnak. Literaturan ez dira falta:

zeren obe da zuretako zure alderdietaik bat galtzea, ezenez zure gorputz guzia izan dayen infernuko sura botatua (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 34.or.)

zeren obeago da zuretako sar zaitezin bizian maingu edo besomotz, ezenez bi zango edo bi esku izanik, botatua izan zaitezin su eternalera (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 71.or.)

*erten datzuet egiazki, atsegin geyago duela artaz, ezenez errebelatu ezti-
renen lauetan ogei ta emeretziez (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 71.or.)*

Ala nola biltzen baita bada iraka, eta suan erretzen: gisa berean izain da munduain akabantzan (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 59.or.)

Bada, nola Jonas egon baizen iru egun, ta iru gauez baleain sabelean; gisa berean gizonain Semea egoin da iru egun, ta iru gauez lurraïn barnean (Etxenike, Jonasen profezia, 55.or.)

Baina Baztango eguneroko mintzoan ere ez dira batere arrotzak tankera honetakoak:

bestak ain pollite ziren angoak nola emengoak (Arizkun)

goiz torri gara, baina nola aratakoan nola unetakoan ez dugu erritar bat ere kusi karriken (Arizkun)

Ondoko hau ere konparazio perpaustzat jotzen ahal da:

etxe baten nortasuna demostratu bear omen tzen gorapetik atraz. Nola bataiatzian, ezkontzak, eriotzeko orduen... beti andik (Aniz)

- Azkenik, bertze egitura hauek ere konparazio perpausetan sartu behar dira:

zenbat eta nagusiago orduan eta umeago iduri duzu

an sorgiñek bazirela ta ango sorgiñek gibeletik ta [...] eldu zirela ta [...] orduen ta laster geio iten kontrabandistak... (Oronoz)

guti den bezalakoa da andre oi (Arizkun)

edanago ta naiago (Arizkun)

5.4.4. Ondoriozko perpausak

Hitz egiten dugunean, batzuetan bi esaldi kateatzen ditugu, bat bertzearen ondoan, eta bat bertzearen ondorio gisa balitz bezala. Beharbada, kausazko perpausak dira gogora etortzen zaizkigun adibide argienak, kausa-ondorio ukitu hauetan:

karririkak bustiak dira, euria egin duelako

Bistan da hor lehenbiziko esaldiak adierazten duen gertaera (karririkak bustiak izatea) bigarren esaldiak adierazten duen gertaeraren (euria egitearen) ondorioa dela, esaldi horiek hurrenkera horretan, edo bertze batean, ematen ditugula ere. Adibide horretan ohartzen baldin bagara, berehala konturatuko gara gauza batez: kausazko perpausetan, kausa adierazten duen perpausa mendekoa da, eta, jakina, denboraren iraupenari dagokionez, ondorioa baino lehenago gertatzen da.

Badira bertze perpaus batzuk ere ondorioa adierazten dutenak. Euskal literaturan aski arruntak dira hau bezalakoak, eta Etxenikiek ere ibiltzen ditu:

hain euri erauntsi handia egin du, non karrika guziak bustiak baitaude

Hor ere bi gauza gertatu dira: euria egitea, eta karririkak bustitzea. Baina aitzinekoan ez bezala, hemen kaleak bustiak izatearen kausa adierazten duen perpausa (*hain euri erauntsi handia egin du*), perpaus nagusia da, eta mendekoa, berriz, ondorioa adierazten duen perpausa (*non karrika guziak bustiak baitaude*). Kausazkoekin konparaturik, juxtu-juxtu kontrakoa. Hauei deitzen diegu ondoriozko perpausak: bi perpaus elkartu, non baten ondorio gisa aurkezten den bertzea. Arruntean, gainera, ordena horretan ematen ditugu bi perpausak. Erran dezagun, pasadan bada ere, erdararen eraginagatik, euskaldun batzuek badutela joera bertze honetara emateko esaldia:

**hain euri erauntsi handia egin du, karrika guziak bustiak direla*

Ez du ematen batere zuzena den molde hori, horregatik jarri diogu izartxo hasieran perpausari.

Ondoriozko perpausak egiteko modu bat baino gehiago dago. Nola egiten ditugu Baztanen?

Modurik arruntena, gaineko adibideaz baliatuz, hauxe da:

8 *-(e)la* horrekin akitzea perpaus hau ez dugu uste batere arrunta den. Arruntean ez du deusik ere hartzen aditzak, erran bezala. Hemengo *-(e)la* hori erdarazko *que* horren kalkoa baizik ez da.

hain euri erauntsi handia egin du, karrika guziak bustiak dira
Belate ain pollite kusi zuen, nai zuen torri beitiago, urrunago (Almandoz)

Ez dira falta, zernahi gisaz, gramatika aldetik hain zuzenak ez diren bertze hauek ere:

*eskapo gan lasterka ta ain yarriak zauden yendia iltzera ta istorio, esko-peta ola, atzera patu ta ala re iltzen tzutela⁸ yen[*dia*]* (Almandoz)

Eta hara hemen Etxenikereren adibide batzuk:

Orduan ekarri zioten debruztatu bat, itsua ta muttua, eta sendatu zuen, alako moduan, non mintzatu 'kusi baitzuen (Etxenike, *San Mateoren ebanjelioa*, 54.or.)

... eta ain lurrikara aundia, non ez baitzen bertze bat izan, lurraïn gañe-an gizonak zirenez geroztik (Etxenike, *Apokalipsia*, 163.or.)

Eta urbildu zen aren gana yendetze aundi bat, alako maneran, non sar-tuik barko batean an yarri zen: eta yende guzia zutik zagon itsas bazterre-an (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 57.or.)

Alako maneran, non yendeak arritzen ziren ikusteaz mutuac mintzatzen, mainguak ibiltzen, itsuak ikusten (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 65.or.)

Jakina, *hain* horren tokian *horrenbertze* eta *holakoak* ere ibiltzen ahal dira.

5.4.5. Baldintza perpausak

- Baldintza perpausak kausa mota berezi bat adierazten dute, hipotesi gisa ageri dena:

etxera joaten bazara, amak eskertuko du

Hor, amak eskertzearen arrazoa eta kausa 'zu etxera joatea' da, baina kausa hori ez da gauza segurutzat ematen, hipotesi gisa baizik. Hori da baldintza perpausa. Baldintza perpausak hartzen duten menderagailua, ikusten denez, *ba-* da, eta batzuetan *baldin* ere agertzen ahal da, beti aditz laguntzailearen (*ba-* hartzen duen aditzaren) aitzinean ageri dena, nahiz *baldin* eta aditzaren artean bertze sintagma batzuk tartekatzen ahal diren. Hortaz, adibide hori hola ere ematen ahal da:

etxera joaten baldin bazara, amak eskertuko du

baldin etxera joaten bazara, amak eskertuko du

• Bi baldintza perpaus klase bereizten ahal dira. Batean ditugu baldintza ‘irrealak’:

joan den igandean Parisa joan banintz, hango dorre famatua...

Badakigu, hori aditu ondoren, joan den igandean ez dela Parisa joan hori erran duena. Horregatik deitzen dira perpaus hauek ‘irrealak’. Hauen ondoran badira bertze baldintza perpaus batzuk ‘baldintza errealak’ deituak. Ikusi adibide hau, konparazione:

joan den igandean Parisa joan banintzen, hango dorre famatuagatik izan zen

Bigarren honetan badakigu Parisa joan dela mintzo dena, eta ematen digu, gainera, joate horren arrazoia ere: dorrea ikusi nahi zuen-eta.

Bi perpaus mota hauek, aditzaren aldiagatik bereizten dira: batean *-nintzen* dabil hiztunak, eta bertzean *-nintz*. Nola aztertzen ari garen perpaus haue-tan (ikusi abiapuntuan eman ditugun adibideak) bi zati bereizten diren (lehena, baldintza: *etxera joaten bazara*; bigarrena, ondorioa: *amak esker-tuko du*), erran beharra da bi zati hauetan ageri diren aditzen aldiak komunztadura egiten dutela elkarren artean. Bertze hitzetan errateko: nola-ko aldia den lehenbiziko zatian aukeratzten den aditza (baldintza perpaus-eko aditza), horrek eskatuko du mota bateko edo bertzekeo aditza ondorioa-ren zatian ere. Ezin dira holakoak, konparazione, ibili:

**Parisa joaten banaiz, dorrea ikusiko nuke*

**Parisa joango banintz, dorrea ikusiko dut*

Bai, ordea, bertze hauek:

Parisa joaten banintz, dorrea ikusiko nuke

Parisa joango banintz, dorrea ikusiko nuke

Bi perpaus hauen artean dagoen desberdintasuna, euskalkien arabera-koa da: *joaten banintz* gehiago aditzen da ekialdean, eta *joango banintz*, berriz, mendebalean. Baztanen, baldintza irrealak ibiltzen direnean, biak ageri dira (*joanen* eta *joaten*, --*gain* eta *gaten* bezala ahoskatuak--), nahiz bigarrena den maizago aditzen dena, era burutugabea aukeratuz. Aipatu dugun komunztadura modu egokian egiteko kontuaz gain badira hemen perpaus hauek osatzeko aipatu beharko genituzkeen bertze muga batzuk. Horiek guztiak *EGLU VI* liburukian ikusten ahal dira.

• Baztanen gehien aditzen diren baldintzak baldintza errealak dira. Horiek dira egunero hitzetik hortzera adituko dituenak hara joaten den edo-

zeinek eguneroko hizketan. Ibili ditugun corpusetan ere, eta eskura ditugun grabazioetan, horiek dira gehien agertzen direnak, diferentzia handiarekin gainera. Gure grabazioetan hau da bildu dugun baldintza irreal bakarra, eta ez da, gainera, baldintzakoa, baldintzaren ondorioakoa baizik (baldintza perpausa isilik baita hemen):

Jende etaik badire bizi, bizi direnak edo eken umeak ere oino hor daude, ta ezta kigu nola hartuko luketen hoiek (Arizkun, J. L.)

Adibide horretan ‘ez dakigu nola hartuko luketen horiek [...] gertatuko balitz’ da erran nahi dena, jakina. Badira bertze adibide batzuk konparazio hitzen osagarri ageri direnak (*balitz bezala* egituran. Egitura hau erakusten duten perpausak konparaziozkotzat ere jotzen ahal dira):

‘los revolucionarios’... te ek erre zuten parte aundie... ta... gero... oi arroil bet balitz bezala... baitzen pareta auniz te... Aizkune ta... emen e ageri dire etxe batzuten pues arroil bet balitz bezala arrie prestatue etxetan obrak iteko... ola... suntsitu zen oi... (Amair)⁹

oi malluke bat balitz bezala bertze kono erdiekin (Arizkun, P.Z.)

Baina, erran bezala, gehien aditzen direnak baldintza errealak dira. Etxenikek ere, konparazione, baditu aunitz holakoak:

Eta baldin ez bazaitu nai aitu, oñik ar zitzu zurekin guizon bat edo bida, solas guziak izan daitzin aseguruak bi edo iru testigoen aitzinean (Etxenike, *San Mateoren ebanjelioa*)¹⁰

Gisa berean ‘inen du zuekin nere Aita zeruetan denak, ez balin baizue bar-katzen zuen biotzez bakotxak bere anayaï (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*)

Ondoko hauek guziak grabazioetatik hartuak dira:

gan biar tugu zaku oyek ortik, eldu baldin bada urie itera ere (Arizkun)
norbai(t) tortzen bali’mezen ero gertatzen bali’mezen zerbait eritosune ero zerbait... pues kuarto bat beti dexentiago... izeten tzen ta izeten da orai ere e! Bada kostunbri oi, ezta lengua bakarrik e! Oraikua ere bai e! (Irrurita)

Eta oi, geo ortik sarzen zen tubo batetik deposito ortara, eta gero... pues, uria maizkara iten bazuen ite giñu... izate giñun franko poliki, baño... idor-tia gaten bazen auniz, pues akabatzen tzen (Almandoz)

Ortoska asten bazen segido belar onak... patu brasan... iretzia ta bedeiketuek e! (Irrurita)

⁹ arroil hori harrobi da.

¹⁰ Eguneroko hizkeran errazago aditzen dugu bertze ordena hau: *ez balin bazaitu aitu nai*.

Ezkontzen bazara ez, ezkontzan ere galtzen tuzu ya deretxu oiek, ezkontzai... 'itxe partia' erten tzaiona (Berroeta)

Autse al bazen [...] zetabia erten giñon guk, zetabian, ta etzezan itzeik eta izen, itzea iten bazen iten baizen arropa erdoildu. Eta, autsa patzen giñon ta gero[...] ure irikiten bota (Arraioz)

Denbora ederra balin bezen bai, tortzen giñen zapatillek... osea, denbora ederra bali'mazen, baño... ola bali'mazen, bustie do urixkia do ola, paatuko gintuen zerbait ere... izeten tziren, ola, zapatain forman gomak, gomazkuak zaten tziren, aski pollitek! (Oronoz)

plater bat salda yaten baziñun kontento! (Arraioz)

... ta betetzen baduzu gañeraño... rebasatzen du, botatzen du gañetik gero (Elbete)

Mezpera onduan ostature musera. Ta, bere artan igual deskuitzen bazien, bere artan afaldu te... biamun goizian argitute itxera (Aniz)

Eta, gure amatxik kontatzen tzuen, oi [...] kanpoko gizon bat ezkontzen bazen Bozateko [...] andre batekin, gaizki... osea, zagon makurrago kusie ango gizon bat Baztango bertze andre batekin inte baño, eztakit zertaz, baño bueno (Aniz)

Eta uzten bali'maizu geiago, iten da mariatu (...), arri ure mariatu (Arraioz)

Erizen bazen aitetxe o amatxi ro... edozein, gaizkitzen bazen, elizekoak, nola gaten tziren... gure Yaune gaten tzelaik ya orduen (Ziga)

guk ez ginakiun erdaraz! Gu Elizondora gaten ginen eta... pues tienda batera igual igortzen bazakun amak pues... "Eros zazu alako gauze do (o)lako gauze", pues egot... gaten ginen pentsatzen nola... e... nola... eskatu bear ginuen, porke Elizondon ta etzen batre mintzetzen euskera (Azpilkueta)

Lanian, lanean, etzen ez medikuik eta ez yos ere ta gero ongi tortzen bada ongi (e)torrie ta... biyek iltzen bali'madire biek zulora, ta... gizona beala bertze batekin ezkonduko zen ta, oi zen orduko maitasune... (...) Baño gañea ola neskazar gelditzia de o bua! Ure, desonra (b)at bezala zen... (Amaiur)

• Baldintza irrealak, sobera ez badira ere, errazago biltzen dira testu idatzietan:

... gaur kusco balitu gaur gauzek, zer errain tzuen... (Lekaroz)

urie in baleza gaur... (Arizkun)

Gogoan artuko dut eta gaztigatuko ere bertze erlojeruei beren eskuetan erortzen balitzake, parte eman zezaten polizietara (Izeta, Dirua galgarri, 39.or.)

Alderdi ederra orai elurrengaitik egoten bagineke egun saill bat lanik egin gabe ... Irabazi ederra urtea ongi akitzeko. (Izeta, Dirua galgarri, 65.or.)

Bear bada, epeltzen balu, xuriz jantziko lirezke Paris'ko karriek (Izeta, Dirua galgarri, 63.or.)

Zein diferentea izan litzekan zuen bizia, izpiritu orrek berak, mobitua fede bizi batekin, gobernatzen baluzke zuen pausuak (Goienetxeren sermoia, liburu honetan, 6. kapitulu)

Nere lantxo au irakurtzeko modue balu nere osabak, gogotik irri eginen luke antxe baitago Ipar Amerika aldia orai dela urte batzuk gana (6. kapitulu, Almandozko testua)

orai hortxe dabile mendietan kurri ardi errebelatuaren gisara, beti errestan maingeria balu bezala (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 110.or.)

Egunak joan dira deus makurrik gabe, haurra ari da azten, beti negarrez, negartia da bai, bere zoritxarra ezagutzen balu bezala (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 14.or.)

Jose ile oria eta Koxpak gorria, haurra ere gisa hortakoa behar lukete eta Joseren egitea baluke hobe (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 96.or.)

ikusten banuke nik (Izeta, Baztango kontuak 59. or.)

gisa hortan ikusten balu (Izeta, Baztango kontuak 123 or.)

gazte xarmanta batean bihurtzen balitz (Izeta, Baztango kontuak 132. or.)

obe izain zuen sortu ez balitz (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 98.or.)

Eta au allegatzen balitz presidenteaïn begarrietara, guk sinetsaziko diogu, eta kuidatuko dugu zuen seguridadeaz (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 107.or.)

Or aunitzek ezin itzali izan zuten karidadea, hualdec ere eztute urperatuko: 'maten balin balu gizonak bere etxeco izate guzia amorioaïn gatik, deus ez bat bezala despreciatuko luke (Etxenike, Kantuen kantua, 121.or.)

Ikusten denez, batzuetan ondorioa bakarrik dago, eta baldintza perpausean batzuetan -ke ere eransten du Izetak batzuetan. Bertzenaz, beti *joaten balitz* ereduak dira perpaus guztiak, lehenbizikoa baizik ez.

- Batzuetan, aski erraz ibiltzen dira, eguneroko mintzoan, baldintza erre-alak, berez irrealak beharko genituzkeen tokian:

etxe oi bere tenorian konpondu (izen) bazinuen ez zen ola ibiliko orai, dena erortzen

Egitura errazenekin, bada, baldintza perpausean, *ba-...-ke* ibiltzeko joera, baina ondorioan ez da errespetatzen komuntadura aunitzetan:

diruik banuke, erosiko nuen gustora etxeoi

astie balin banuke gain nitzen gootik Ameriketara eldu 'en uden (= “astia baldin banu, joanen nintzateke gogotik Ameriketara heldu den udan”)

Ohartu garenez, aise erosoago sentitzen dira hiztunak, eta hola ateratzen zaizkie esaldiak gainera, bertze itzulbideak aukeratuz, eta ez baldintza irre-alei legozkiekeen adizkiak:

gaur atasaldean Iruñera ganezoztik, gustora kusiko nuen katedrala (= “gaur arratsaldean Iruñera joanez geroztik, gustura ikusiko nuke Katedrala”)

Ikusten ahal denez, bada, aski ahulduak dira egitura hauek Baztango egu-neroko mintzoan, hango euskalkian eskribituak diren testuetan ageri badira ere.

• Badira, azkenik, adizki jokatugabeekin egiten diren baldintza perpausak ere:

Ya asi giñen gu erdaraz [...] gaizki do ungi, ikastekotan ala biar zela ta... (Oronoz)

Balleko alkateak erran zen iltzen astekotan Baztanen lenbizkua ure (Berroeta)

ekarri ezkeru gustora hartuko dugu (Arizkun)

badakizu ere gauzak gaizki gertatu ezkeru guk badugula eskubidea muti-ko hori gureganatzeko (Izeta, Nigarrez sortun nintzan, 24.or.)

non horrela ez egitekotan, bizitza piskanaka itzali, gazteria urundu eta etxeak, bideak zein espazio naturalak hondatuko baitziren (Arizkun¹¹: ohartu komuntadura hautsiaz ondorioko adizkian)

Hauen artean bada erramolde bat aski ibilia zenbait hiztunen artean:

jakitera berri, ni ere gain nitzen (= “jakin banu”)

5.4.6. Denborazko perpausak

• Denborazko perpausetan gehien ibiltzen den menderagailua *-(e)larik* da, ondoko adibide hauetan ikusten gisan:

11 *Ttupi-ttapa*, (2005-05-19). Hiztuna Arizkungoa, baina batu kanonikoan mintzo nahian.

zerbait lan bazuelaik in biarra (Arraioz)

arengana gaten tzelaik sendatzen zuen baño ordaintzeko (Arraioz)

...ostatutik itxera zaielaik, or bi aldetaik yartzen omen tziren (Berroeta)

bertze launekin... ta... zaielaik izire... ta... a... atra da... (Irurita)

iretze lerakin edo beiti eldu zirelaik (Ziga)

ta... ezkile aitzen tzutelaik... (...) ba... makil betekin... (Arizkun)

gure amatxi aunitz kontatzen zakun ta kontu be[t] zen ta... nola etxe batian, baziela senar-emazte bat, ta... bizi zelaik eta ilunarrietan a... (Arizkun)

Nere arima kexatzen zelaik nere barnean, oroitu nitzen Yaunaz (Etxenike, *Jonasen profezia*, 21.or.)

Eta gauz 'ok pentsatzen zagon denboran, or agertzen zayo ametsetan Yaunaïn Aingurua, erten diolaik (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 26.or.)

sortu celaik Jesus Judako Bethelhemem Herodes erregueaïn denboran (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 27.or.)

Eta Herodes erregueak aitu zuelaik oi, izan zen beldurtua (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 27.or.)

Ilundu zuelarik ardi bordatik poliki poliki ateratzen da (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 69.or.)

Eta hola ari zirelarik leihotik zerbait ikusi zuen (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 71.or.)

delarik bon eta eztelaik egon (erranahirua: “delarik bon, eta ez delarik egon”)

Basaburua aldean, Arraiozen eta Oronozen *-ik* akabailaren ordeztan *-ikan* ere ageri da, eta hau harrapatzen dugu denborazkoetan ere batzuetan. Handik Elizondo aldera ez da ageri, eta Urdazubin eta Zugarramurdin ere ez, jakina¹²:

Ni ttikia nitzelikan beti itxaldekuk, maixterrak ezkiñun manatzen (Oronoz)

bedeikatzen zelaiken (Arraioz)

zuk kusten ziñulaiken ure... erne (Arraioz)

Gan, iten tzelaiken... ola (Ziga)

Ta an pixket ozten tzelaiken, moztu nabal batekin (Ziga)

12 Estibalitz Montoya, 2003, *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*, EHU, doktorego tesia (217. or., argitalpenean)

Bakarren bat esposteko zaolikan (Oronoz: “Bakarren bat esposatzeko zegoelarikan”)

• Menderagailu horrekin batera ibiltzen da, gutiago baldin bada ere, bertze euskalkietan hain arrunta den *-(e)nean* menderagailua, eta hau ere ageri da testuetan eta hiztunen mintzoan ere:

Zorionecoak izain zate, madaricatuak, eta pertsegituak izaten zatenean, eta edozein gaizki zuen kontra gezurrez erte' utenean, nere gatik (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 33.or.)

lehenago ere Miserikordian bizi zenean gauza asko ikasi zituen (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 40.or.)

Ardi bordan sartu zenean [...] ardi larrua harturik eta harekin ongi estalirik, ardi multzoen erdian sartu zen ardi bat gehiago balitz bezala (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 69.or.)

Oiek provisional paatue[k] tire gateko gero... ongi eldu denian (Gartzain)

Ta met'ure, beiak sarzeco etsi (...), berzenaz yaten baitzuten. Ta, alanbre bat... para... atekin o iruekin etsi, bueltan den... denian (Ziga)

Erlin artian sartu ola denian! Ezen inor sartzen ura bakarrik e! (Erratzu)

Bai... onddoa, nik iten diot, onddoa artzen dutenian ta ezpanaiz seguro, iten diot puxka bat kendu, eta puxke ure ez bada iten berdatu da ona eta berdazen bada ya da... (Erratzu)

Ni ooitzen naiz lemizko aldien e... mendire gan nitzenian... ta, apirille zen (Ziga)

Gauaz zabilzenian, ta, aparte señala (d)a zakurren itzardue (Gartzain)
pues e... ya ateatzen nitzenian maletakin ta biltzen nituen... bazite... borda guzie bazuten asto bat edo bi (Erratzu)

bai koxkortu ginenian bai, goizeko mezara etortzen ginen andik (Erratzu)

Lekauzko kaputxino oiek, torri zirenian Lekauzera (Oronoz)

• Batzuetan aditza jokatu gabea da. Bertze euskalkietan gertatzen dena kontuan izanik, erran beharra da aski ibilia dela Baztanen *-kin* akabaila denborazko perpausetan, hizkera bizian. Testu idatzietan Laphitzek ibiltzen du, baina haren euskara ezin da Baztangotzat jo, Arizkunen sortua baldin bazen ere. Etxepare medikuak eta D. Intzak ere ibiltzen dute, eta E. Montoyak ere bildu ditu adibideak bere tesian:

sartuala lotzen zituzten (Arizkun. Moduzkoa ere izan daiteke)

sartu aitzinean zapatak garbitu behar dira

sartu ondoan hertsi zuten atea
sartu baino lehenago behatu atea irekia den
 erten tzuen: “Oiek ez kendo, suerte txarra izat(e)n da oiek kendute azien-
 detan” (Amaiur)

“Jainkuari egun on” zapela kendute (Almandoz)
 bein baño geiagotan gan gara uria asi duelakotz espartinek besazpien
 sartute (Azpilkueta)

ikasizoztik beti hola egiten du (C., Arizkun: ‘ikasiz geroztik’, hemen =
 ‘ikasi ondoren’)

Ainhua utzi bezala, ezker hartu behar duzu (Arizkun = ‘utzi eta berehala’)
zuk arekin mintzetuz bezala, bien artian konponduko dugu (Arizkun)¹³
eta... egosiz bezala, egosi erten diogu... iketz inez bezala, pues gaten tzara
goiti (Ziga)

Beti egiñala egiten zuen bere Lagunartearen alde (Izeta, *Dirua galgarri*,
 48.or. Forma hori, hala ere, lexikalizatua dela erran daiteke)

Bazkaldu bizkitartean denak solasturi (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*,
 32.or.)

Ta gasna ta emen berri... baba... gosaltzean [jaten zen] baba (Amaiur)
iten zuena bein ta ereinez oztik e... yorratzeko bezala... eta... lurre pres-
tatzeko ere... (Arizkun)

Ni unat torriz geroztik, itxin bagiñun ura, baño klaro (Oronoz)

Eta gero, atian, Lamiarriteko atia edekitzean berian, ola in omen tzuen
 (Lekaroz)

Ta ya gero... gero izeten tzen elizen sartzian erten tzena (Aniz)
andi(k) zortzi eunen buruen ero... atsik g[ab]e [...] ya il urrena... (...) antxe
il omen tzien e(k) biek eta basurdia gizonak yan... (Erratzu)

Iluntzean erretire eta bi maitaleak ere ongi uztarturik badoazi (Izeta,
Nigarrez sortu nintzan. Hor ere berdintsu: *iluntzean hori lexikalizatua izan*
daiteke)

patu paziñan ta an aitze giñen bueltaka mantxo-mantxo-mantxo-mantxua,
ungi, leun-leune yarri artio (Ziga)

13 E. Montoyak dioenez (2003, 219), egitura hauek (-z bezala) arruntak dira Urdazubin eta Zugarramurdin.

Eta maisuak jo ezkeru etxera gatekin eta gurasoak (C., Arizkun. Testuinguruagatik: 'etxera itzultzen ginelarik' da erran nahi duena. Denbora adierazten du)

ya polliki sekatu artio, kasu in bar zaio (Gartzain)

... ta tireka... ta gero burue... ta burue atraz oztik ya gero tortzen tzen jenealian bertzia... (Irurita)

Ta, bere artan igual deskuitzen bazien, bere artan afaldu te... biamun goizian argitute itxera (Aniz)

Auzelana akitzekin gi... konbitia... garrafon bat ardo edo artu... errien konture ta... ure edan... (Arizkun)

jakitekin zuriak tzirela (= 'jakin zutelarik zureak zirela') (C., Arizkun)

kustiaikin karri (Arizkun = 'ikusi ondoren, ikusten duzuenean, ekarri'. Zalantza gabe hori da erran nahi duena: 'ikusten duzuenean, ikusten duzuelarik, ekarri')

kustiaikin bakarrik izitzen naiz (Arizkun)

ola adornutako bezela ta ure zimiltzekin, orduen erria (Elbete)

Ta, arrapatzekin oi! oi! konejue ta bueno! [ind.] koneju antzinin ta zakurre gioletik! (Oronoz)

ya erdi artio ez, erditzekin iza(te)n da beia ya, orduen artio mige erten tzaio (Azpilkueta)

oi akitu zen... be, ni ezkondu te fite, ogeita ameka urtetan ezkondu nitzen ta... fite akitu zen (Gartzain)

Nola bataiatzian, ezkontzak, eriotzeko orduen... beti andik (Aniz)

tapatzeko orduen (Aniz)

zerura iotzeko orduen al... (Ziga)

• *-rakoan* bezalako akabailak (oro har *-ra-* tarteko guziak) ez dira bate-
re arruntak, eta hitz markatu batzuetan bakarrik ibiltzen dira. Hona hemen
adibide bat, non hiztunak *edekitzerakoan* dioen (forma ez arrunta) eta segi-
duan *edekitzekon* (hibrido bat, segur aski *edekitzekoan* erran nahi zuela).
Etxenikek eta Izetak ez dute forma hau ibiltzen.:

*Zerri tripe edekitzerakoan, ani... anis yaten tzen pastekin, tripe edekitze-
kon* (Aniz)

• Horiek dira, nolabait ere errateko, denborazko perpaus arruntenak, iden-
tifikatzeko argienak erran nahi da. Baina ez dira, inola ere ez, holako per-

paus bakarrak, bai baitira bertze molde batean eraikitzen diren bertze batzuk ere. Hemen biltzen ditugu garrantzizkoenak, haien artean, erranahiari dago-kionez (aldiberekotasuna, aldiberekotasun errepikatua, aldiberekotasun estua, aldi desberdintasuna, aurrekotasuna, ondokotasuna, iraupena, eta abar), bereizketarik egin gabe (Baztango mintzoan ematen ditugu):

sartu orduko jakin zuen bazela makurre etxe artan

sartu bezain fite oartu zen an bazela norbait

sartu baño leen ez zakien ikusiko ote zuen norbait inguruan

sartu aitzinean ez zuen ola pentsatzen

sartu ondoan ikusi zuen lurrean etzanta

gan deneko ogei urte unten ez da inor ere torri (Arizkun)

gaur den egunian torri zen orai dela amar urte (Erratzu)

eta ongi begiratu ondoan, ontzat eman zituen (Izeta, *Dirua galgarri*, 57.or.)

ongi antolatu ta ondoan (Izeta¹⁴, *Dirua galgarri*, 110.or.)

sartu zenetik ez zen isildu

aitziñean gaki (= 'aitzinean zihoala') (Ziga)

banuen sei urte sentiturik (Arizkun = 'orain dela sei urte hasi nintzen sentitzen'. Honen izaera zehaztea zailagoa da, perpaus osagarria ere izan baitaiteke: *badira sei urte hemen bizi zarela*)

sartu zen arte ez zuen bakeik izen

ibili bueltaka ainbertze denboraz, oztu... kasik oztu arte (Ziga)

an egon zen bitertian seurik ez zuen inor ere kusi

orai dela bortz urte torri zen

orai dela ogeita amabos bat urte do ola akabatu izein tzen (Azpilkueta)

badu bortz urte torririk

Eletrizidadia, karo... pues o... eztakit zenbat urte tuen patuik (Amaiur)

etxera orduko arras nekatuek ginen

atorra garbitu orduko bi ordu bear izen zuen

ilundu zakun dena akitu orduko

Eta, iru-lau aldiz kantatu orduko oi, airetzen tzen kattaliñe (Ziga)

aurdun eta zagon... erditzeko momentuen... eta Iruritako komadrona (Gartzain)

14 Izetak holako zenbait adibide baditu 'partizipioa + ta ondoan'

Erraten tzuten tellat... tella ibilli bar tzela buruan! (...) Ta ya elizan sartuz kero yaus. (Oronoz)

Ezetz errateunte, kopetan man bar men tzaio (...), kopetan bakarra, bertzelala... ba ya bein bataiatuz kero, or... ordun nai zun tokin (Oronoz)

alakoa, eta ain lurrikara aundia, non ez baitzen bertze bat izan, lurraïn gañean gizonak zirenez geroztik (Etxenike, Apokalipsia, 163.or.)

Nere arima artu zen ura mintzatu zen bezen laixter (Etxenike, Kantuen kantua, 117.or.)

ceruac eta lurrac iraunen' 'uten bitartean (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 34.or.)

• Batzuetan, hala ere, bertze euskalkietan ere gertatzen den bezala, ez da erraza izaten perpaus batzuen sailkapena egitea (kausa, baldintza, modua... egon daiteke hor azpian):

Karo, bali'mazakiten izena iten al tzioten zerbait gizonai, baño etzakiten izenik, eta izenik ez yakitekin ezin in daus (Almandoz. Holakoetan beti zalantzak: moduzkua, baldintzazkoa ere izan daiteke)

5.4.7. Helburuzko perpausak

• Helburuzko perpausak ibiltzen ditugu helburu bat adierazteko, xede bat adierazteko. Erranahi aldetik, kausalen eta ondoriozkoen ingurura biltzen dira helburuzko perpausak. Ikus ditzagun ondoko adibide hauek:

karrike guziek busti dire, urie in duelako

maisua zutik paratu da, ikasleak isil daitezen

maisua ain aserre zagon, golpean zutitu zen

Zertan dute antza elkarren artean esaldi horiek, eta zertan dira bereizten? Konturatzen bagara, hiruretan ikusiko dugu badela kausa-ondorio erlazio bat, semantika aldetik:

- euria egin (kausa), karrikak busti (ondorioa)

- maisua zutik paratu (kausa), ikasleak isildu (ondorioa)

- maisua haserre (kausa), maisua zutitu (ondorioa)

Hiruretan, hortaz, bada gertatutako zerbaiten ondorioa. Non daude, orduan, desberdintasunak? Formari dagokionez:

- Perpaus kausaletan, geroago ikusiko dugun gisan, ondorioa ez dugu mendeko perpaus batekin ematen (*karrika guziak busti dira*).

- Helburuzkoetan, ondorioa (edo bilatu nahi dugun ondorioa) mendeko perpausuan ematen dugu (*isil daitezten*), *-(e)n* menderagailuaz baliatuz.

- Ondoriozkoetan, ondorioa alborakuntzaz ematen dugu, menderagailurik gabe, hemen bezala (*golpean zutitu zen*) edo bertze molde bat ibiliz, batez ere literaturan, *bait-* menderagailua ibiliz: *non golpean zutitu baitzen*.

Erranahiari dagokionez, berriz, hauek dira desberdintasun nagusiak:

- Perpaus kausaletan, gertatzen den ondorioa norbaiten borondatearen ondorioa izaten ahal da, edo ez (gure adibidean ez da, jakina, borondaterik ageri: euriak ez ditu karrikak busti nahi).

- Helburuzkoetan, ondorioa beti borondatezkoa da (maisua ikasleak isiltzea nahi du), baina ez dakigu borondate hori betetzen den (gerta daiteke ikasleak isildu beharrean irriz hastea bere aitzinean).

- Ondoriozkoetan, ondorioa ez da borondatezkoa (maisua haserretu denean zutik jarri da, baina zutitze hori ez da borondate argi baten ondorioz gertatzen. Ohartu gabe ere gertatzen ahal da).

• Helburuzko perpausak, arruntean, adizki jokatu gabeen bidez ematen dira, *-teko*, *-tekotan* eta *-tera* menderagailuez baliatuz:

sosa man diot mandatuak iteko

zuk ikusteko karri dut

etxea erostera gan dire

mendire abiatu dire lan batzuen itera

alaba zaintzera etorri da

Ta bazakiten orrek deseaten tzu(e)la, eta, orduen gan bar zuten orren-gana, oi... sendatzekotan (Arraioz)

amatxi kustekotan gan dire (Arizkun)

ogei ta amar bat zaldi ola saldu ginuen, e... gan gintuen saltzera (Azpilkueta)

tortzen tzien enkargatzera (Ziga)

baña azpian uzten tzitzaion altura bat umedadeik ez artzeko... (Amaiur)

orduen obligatuek dira denak iduriak izetera (Erratzu)

Holakoetan, ez da erran beharrik, pertsona markatzen ez denez, esaldiak anbiguoak gertatzen ahal dira:

au prest da (bertze norbaitek) *jateko*

gu prest gaude (zerbait) jateko

Baztango ahozko hizkeran nekez aditzen dira helburuzko perpausak adizki jokatuekin, non ez den gertatzen hirtuna ari dela ikasitako otoitz bat, edo aditu eta ikasitako istorio baten kontatzen. Holakoetan subjuntiboa ibiltzen da eta *-n* da menderagailua:

Yainkoak dezala parte, Aingeruek bertze ainbertze. Gu(k) artu dugun deskantsue, Purgatorioko animek goza dezaten (Arraioz)

ure zen... pasatu bear tzutenek yakin tzezaten alarma bat, peligro ba(t) bazela... (Amaiur)

Literaturan, ordea, badira adibideak:

alfer bidaia ez dezaten egin gartzigetu beharko (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 33.or.)

Gisa berean zuen argiak argitu bear du gizonen aitzinean, ikus detzaten zuen obra onak, eta 'man dezaten loria zuen aita zeruetan denai (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 106.or.)

Mana zazu bada sepultura izan dayela zaindua irugarren eguneraño: bel-durrez aren diszipuloak etor daitzin, eta ebats dezaten, eta yendeai erran dezaten (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*)

5.4.8. Kausazko perpausak

- Formari dagokionez, erran dezagun, kausazko perpausak mendeko perpausak direla, eta menderagailuak, adizki jokatuekin, *-(e)lako*, *-(e)lako*, *-(e)lakotz*, *bait-* ... direla Baztango mintzoan. Badira adizki jokatuabeekin egiten diren kausazko perpausak ere. Gero itzuliko gara hona berriz ere.

- Erranahiari dagokionez, erran behar dugu perpaus hauetan ere, aitzinekoetan bezala, kausa eta ondorio baten erlazioa ikusten dugula. Erlazio horren berri emateko ibiltzen ditugu kausazko perpausak. Kausaren eragilea borondatezkoa izaten ahal da (norbaitek zerbait egin nahi du, ondorioz bertze zerbait gerta dadin), edo ez (aunitzetan eragilea ez da borondatea duen norbait):

Martinek min hartu du harri bat erori zaiolako buruan

karrika guziak busti dira euria egin duelako

Bi perpaus horietan ikusten dira desberdintasunak. 'Kausa' hitza ibili dugu hemen, baina beharbada ez da hitz egokiena hori. Egia da batzuetan kausa baten aitzinean gaudela: bi esaldi horietan, batean harri bat gainetik

beheiti buruan erortzea da Martinek min hartzearen eragilea, eta bigarrean euria da kaleak bustitzearen kausa. Baina ez da beti hori gertatzen.

Hasteko, kontuan izan behar da esaldiak hiztunaren ahotik ateratzen direla, eta honek ematen diela, ustez egokiena den interpretazioa. Gerta daiteke, konparazione, bigarren esaldi hori erran duela norbaitek ohatzetik jeiki eta leihotik karrikak bustiak ikusi dituenean. Horregatik pentsatzen du euria egin duela. Hori da berak harrapatu duen arrazoia, eta bere interpretazioan euriak eragin du karrikak bustirik egotea. Baina zinez gertatu dena, beharbada ez da hori: beharbada kamioi bat pasatu da hamar minutu lehenago karrikak bustitzen. Arrazoia edo kausa, orduan, ez litzateke euria izanen, kamioia baizik. Hori, alde batetik.

Baina bertze aldetik, hiztunak berak esaldi hauek ibiltzen ditu aunitzetan ez kausa baten berri emateko, gertatzen denaren azalpena emateko baizik. Adibide batekin ikusiko dugu. Jo dezagun norbaitek burua leihotik atera eta ondoko etxera behatzen duela, eta han, egunero ikusten duen autoa falta denez, haxe erraten duela:

Elorgako nagusia ez dago etxean, ez baitut ikusten atean haren autoa

Perpau hori ere kausazkoa da, jakina, formari dagokionez. Baina hor aipatzen dugun ondorioaren (Elorgako nagusia etxean ez egotea) kausa edo eragilea, ez da autoa atean ez ikustea, baizik hor erraten ez den bertzeren bat (agian medikura joan da nagusia). Kasu honetan, kausazko perpausa ibiltzen dugu azalpen bat emateko.

- Perpau hauek hartzen ahal duten erranhian bada, orduan, halako eskala luze bat, egiazko kausatik azalpen hutsera. Eta azalpena egon daiteke kausa-erlazio horretatik hurbil, edo urrun:

usoa hil da, ihizilariak tiro eman diolako

usoa hil da, ihizilariak tiroa eman baitio

usoa hil da, ez baita mugitzen

Lehenbiziko adibidean ematen du kausa baten aitzinean gaudela: ihizilariak tiro eman dio usoari, eta tiro horrek hil du usoa, hori da usoa hiltzearen kausa. Bigarren adibidean azalpen baten aitzinean gaude: usoa erortzen ikusi dugu, han inguruan ihizilari bat eskopeta eskuetan duela, eta tiro bat ere aditu dugu. Horren ondorioz, gertatutakoaren azalpena ematen dugu. Holakoetan, azalpenak ematen ditugunean, alderantziz ere eman dezakegu perpausa (*ihizilariak tiro eman dio usoari, hau hil baita*). Azkenekoz, hirugarren adibidean ere azalpeneko perpausa dugu. Bistan da mugitu gabe

egotea ezin dela izan usoa hiltzearen kausa. Hemen ere alderantziz eman daiteke esaldia: *usoa ez da mugitzen, hila baita*.

Azalpen horietan ere badira desberdintasunak: bigarren adibidean kausa-ondorioa da azalpenaren bidez hiztunak adierazten duena, tiroa izan baita hiltzearen kausa objektiboa. Hirugarren adibidean, ordea, azalpen argigarri bat bertzerik ez da ematen: nola ez den mugitzen, ateratzen dudan ondorioa da usoa hil dela. Hortaz, erran daiteke kausazko perpaus beteak ditugula, batetik, eta azalpeneko kausazko perpausak, bertzetik.

EGLU-VI liburukiak dioenez, batzuen eta bertzeen arteko mugak lanbrotsuak dira, hiztunak berak erabakitzen baitu, aldi bakoitzean, nola eman perpausa: kausa-ondorio objektibo bat bezala, edo azalpen gisa. Eta behin erabakia hartu ondoren, horretarako bide bat edo bertzea ibiltzen du, perpausaren itxurari dagokionez: kausa-ondorio delako hori modu objektiboa eman nahi badu, *-(e)lako* eta *bait-* ibiltzen ditu, aldaerak aldaera. Azalpena eman nahi badu, gehiago joko du *bait-*en aldera. Bereziki, azalpen argigarrietan nekez ibiliko du *-(e)lako*. Egia erran, Baztango adibideen artean aunitz bildu ditugu, hala ere, azalpen hutsak direnak eta *-(e)lako* nahiago dutenak. Eta hau adineko jendearekin gertatzen da, herri guzietan gainera.

- Bertze batzuetan menderagailua hartzen du aditzak. Multzo honetan biltzen ditugu *zeren + n* moldekoak (ez dugu gure corpusean *zergatik + n* moldekorik bildu):

Otoiz betzuk berexak iten tu apezak... na... em... amaindeko eta aiteindeko re, baño guziz iten amaindeko, zeren ta aurre izen duen eta mundure karri duelakotz bertze... e ume bat geiago ta otoitz bet berexa iten du. (Azpilkueta¹⁵)

zeren man daguzun eungo eun au... ongi pasatzeko grazie (Arizkun, otoitza)

lombicico obra ona guibelat utzi 'izulacotz oraicoaïquin: ceren ez 'tutzun bilatu gazteac, naiz pobre naiz aberatsac (Etxenike, *Ruthen liburua*, 129.or.)

- Badira bertze adibide aunitz segurtasunik ematen ez digutenak baduten menderagailurik edo ez (*-n* menderagailuaz ari gara, jakina), iraganaldian baitaude eta, hortaz, neutralizatuak forma aldetik (holako adibideak arras arruntak eta egunerokoak dira):

15 Juntadura egin du hiztunak *zeren+n* eta *-lakoren* artean.

Ta oñik etzioten utzi, zeren obreroa... po... bajoa zen (Aniz)

Zen pixke... [irriz] zeren zen erdaldune (Almandoz)

... zeren ni soldado in gabe gan nitzen (Elizondo)

Bietaik, zeren guk kartzan gintuen beti (Elizondo)

zerengatik etxaldetan beti ilerrak eta, arto ta, oiek e... beti oiek biltzen zuten geia(g)o (Arizkun)

Emen bent'untan erten tzu... erten dute Odolagako benta, zeren an arpa-tu zuzten (Lekaroz)

egie da zeren eskribitu zuen batek e... kontribuzioneko paperan atzeko aldian (Almandoz)

zeren gure amak erten zakun biar zela al bezain geldi txiki, idortu artio (Erratzu)

ceren berack ala 'man zaben entenditzera (Etxenike, Jonasen profezia, 19. or.)

Zeren bazoayen itsasoa goratuz, eta asertuz (Etxenike, Jonasen profezia, 19. or.)

Ondoko multzoan zeren + bait- eta zergatik + bait bildu ditugu:

baina beti denbora gutiko zeren bertze gainerako gazteak hor baitzabiltzan "Faborez" eskatzen (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 47. or.)

gaiztakeri franko eginak izanen ditu zeren bertze erranera batek ez baitu ele goxorik (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 94. or.)

zeen arrie muitzen baite ta zulua iten da berotu (Ziga)

ez ta Jerusalemenez ere, zergatik errege aundiaïn ziudadea baita (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 35.or.)

Zergatik erakusten baitzaben autoridadea duenak bezala (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 41.or.)

Zergatik zuei 'mana baitzazue zeruetako erreinuko misterioak yakitea (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 57.or.)

- Adibide bat bildu dugu zergatik + -(e)lako-rekin, gure ustez arrunta ez dena (grabazioetan ez dugu harrapatu bat ere)

Zergatik sortu delakotz zure erreñain ganik (Etxenike, Ruthen liburua, 132. or.)

- Arruntean -elako (-elakotz, -elakoz) eta bait- menderagailuak ibiltzen dira, bai hiztunen artean eta berdin literaturan. Maizago, zernahi gisaz, bait-, -(e)lako baino. Hona hemen adibide batzuk -(e)lako-rekin:

auniz aldiz igual gaizki kusiek... igual aurre izan zutelakoz... (Aniz)
Sorginkerie zelakoz... gaur kusco balitu gaur gauzek, zer errain tzuen... (Lekaroz)

Pantalonak, alketzen nitzelakoz, etzela iñor kusten ta... (Erratzu)
Gu eskolatik etxera, bein baño geiagotan gan gara uria asi duelakotz espartinek besazpien sartute, zolak, espartua(k) zuztelakotz et... bustitue gero ondatzen tzirelakotz, oñutsik gaten ginen! (Azpilkueta)

eguerdian plater bat salda... guk bagiñolako etxean banabarra (Arraioz)
Iyendetan garbantzua... eguardien... (...) ure lujua zen... iyende eguarditen ure ya iyendia zelakotz... (Azpilkueta)

Zerri puskek? Bai, barridetara ta yendakietara... guk bagintuen amairu itxetara gan biar. (...) Te, oñik gero... gu ttallak giñelako... tik katen giñen zerri pazkakin barridetara, maten baizazkun beti zerbait... (Ziga)

Erten dute, eztakit ola den, Basaburuko apezak, bueno Almandoz, Berrota, Ziga ta Aniz, biltzen tzirela denak oi ta oi ibiltzen zirelakoz paseietan (Aniz)
[Baztan izena] erten dute bat zelakoz, 'bat-zan', eztakit ala zen (Aniz)

Etorri zen Elizondora emengo relojeroa il zelakoz... (...) Ta zuen ogeite bat urte (Elizondo)

Aitu diotet nere izuai te, ek etzirelakotz igual aurre izan ta segiden elizen sartuek (Azpilkueta)

naiko lan bazueta... eta... ez artzeko porke... ainbertze... bazituelakotz... (Azpilkueta)

bere guratsuek etzuten onartzen... arekin ezkontzia... arront [ind.] alferra ta bandidua zelakoz (Amaiur)

Oi zertaz? Pues tipula auniz yaten izein ginuelakoz (Amaiur)

Ta, en cambio nausiek bazuen abilidadia txikitzeke bi urtez tapatue maix-terrain... bere itxea zelakoz (Aniz)

Denak trapuzkoa(k) tziren, denak biar tzintuen garbitu, denak eskuz garbitzen nituen... eta... urti artan oñik, neorre bakar-bakarrik, biek bakarri[k] gini... ginelakotz, ni sabaiko belar geien-geiena neorrek piletu nituen... (Azpilkueta)

Ez, geiago paatu, "Eskas eskatu datak". Geiao pa(a)tu, laune delakoz, eta ez datate geia(g)o saldu (Aniz)

Pues, nazionaliste zelakotz, ta falanjiak gaten zaizkiolako gauero eske. Ta eskopetakin... eoten omen tzen ure itxean leioan gibekeko aldian eskopeta kargatute (Berroeta)

Gezurra erran duzulakoz (Oronoz)

ta re ezitzaion jendea ibiltzen eta jotzen zuen, eta askenean ez zelakotz jendea ibiltzen, sufritzen zuen, eta askenean kuste, oitzen naiz nola bere klarinetekin dantza lotuek ere hasi zen jotzen (J.L., Arizkun)

Karo, ongi pasatzen dutelakotz egiten dute besta (J.L. Arizkun)

apuntatzen bait ditudalako gauza hoiek, eta artza lenago kandeleru eunekin ateratzen zela bere gordeleketik (J.L. Arizkun)

Utrongoak in zuten berek berena zelakoz, baino Bozatekoa in zuten bozatarrek eta hemen ere norbaitek (P.Z. Arizkun)

Santa Anara gaten zen, Santa Anaren egunian zelakoz, eta elizen entzun beharrian meza (P.Z. Arizkun)

Goiti zaite eta zoazi Ninibe ciudade aundira, eta an predika zazu: igan delakotz aren malizia nere aitzinera (Etxenike, Jonasen Profezia, 19.or.)

Ar nazazue, eta bota nazazue itsasora, eta itsasoa eztituko zaitzue: ongi dakidalakotz nere gatik 'torri dela zuen gañera tormenta aundi hau (Etxenike, Jonasen Profezia, 20.or.)

damu zaizte, urbildua delakotz zeruetako erreinua (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 23.or.)

Laudatzen zaitut, Aita, zeruko ta lurreko Yauna, gauz 'ok, gorde zintuelakotz yakintsunei eta entendituei (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa, 52.or.)

Josetxo maite dute Zelaiondokoek, langilea eta humilla delakotz (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 44.or.)

Etxean tristezia nausitu da, hain maite duten Ramon urkamendira joanik hiltzeko arrixkuan dagolakotz (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 65.or.)

- *Eta bertze hauek bait- menderagailuarekin eginak:*

nik aizpekin iten bainuen lo... (Irurita)

ta atsaldeko idortzen baiziren ya atsaldian bat edo bide iten tzintuen berriz (Arizkun)

zilua zuen are(k) beiti ta lurre baitzen dena (Amaiur)

... errien ber... ez baitzen urik (Aniz)

Ure bete ta libre, ure betetzekin libre, aski. Baño, ure ezpaitzen betetzen bela! gastatzen baizen! (Aniz)

*Gero, ordun erlik izaten baiziren nunai, ta erliai ezti(y)e kendu (Oronoz)
Idurrian baitzaude piske bustiko zara baño etzara urian sartu biar!
(Irurita)*

... sekua ta obiao, bertzena freskuan audo gastatuko baizen... (Ziga)

Ta brusak ere bai baziren lenago, gizonak... beztitzeko aunitzek ibize zizuzen blu... blusa batzuk beltzak... eztakit kusi ttuzuen... (Oronoz)

egur ure izaten baizen bakarrik (Oronoz)

ek bazuzten orratzak baño nik ezpainaben eskatu nai... ete ezpaizataten main ere, igual (Irurita)

*ordu en ezpaitzen urte (g)uzie tomateik, bakarrik sasoña zelaik... (Erratzu)
ozteko ta... ezpaiginuen fite-fite iten... lanak...(...) tripa(k) garbitu
(Elizondo)*

Denek baitituzte ezpatak, eta soil trebeak gerrarako (Etxenike, Kantuen kantua, 114.or.)

denak hume bibiroekin, eta ardiputik ez baita eken artean (Etxenike, Kantuen kantua, 114.or.)

ez baitzuten burutzen ahalko (Izeta, Baztango kontuak, 165. or.)

bihotzak yausi bat egin dio baina mutilla ernea baita (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 69.or.)

Ardi bordan sartu zenean eta ez baitzuen beste iges-biderik (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 69.or.)

eta berak baitzakien igande arratsetan egiten zutela mugako ibilaldia eta baitzakien ere Iturberoko errekatik barna egiten zutela (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 71.or.)

• Batzuetan nola... *bait-* erakoak ibiltzen ditugu, nahiz beharbada literarioagoa den molde hau:

Eta Joseph aren senarrak, nola yustua baitzen, eta ez baitzuen ura des-hóratu nai, secretuki nai izan zuen utzi (Etxenike, S. Mateoren Ebanjelioa)

Bada, nola Jesusek ikusten baitzuen yende aunitz bere inguruan, manatu zuen pasatzea urez bertze aldera (Etxenike, S. Mateoren Ebanjelioa)

Eta nola akusatua baitzen sacerdotén printzipéz, eta zagarrez, etzuen deusere erresponditu (Etxenike, S. Mateoren Ebanjelioa)

Etxenikereren adibide hau interesgarria da, bi kausazko baititu:

lenbiziko obra ona gibelat utzi 'izulakotz oraikoaikin: zeren ez 'tutzun bilatu gazteak, naiz pobre naiz aberatsak (Etxenike, Ruthen liburua)

- Adizki jokatugabeekin ere egiten ahal ditugu kausazko perpausak: *ezpaizen labadorik eta yaus ere... goaten giñen lasterrago [ittegatik] ugaldera (Ornoz)*

ta, ni geo orduen, yokatzeagatik bizian... izen bazen [...] damastako yoko (b)at bezala, (Erratzu)

Guk kusten gintuen pasaietan zazilai(k) (...) nazionalista izeteagatik, iten tzuten oi... oi arpatzen tzuzten neska guzi oiek, ilia krak dena moztu (Amaiur)

Izendatutako lau bertsolariak ari izanak dira¹⁶ (Izeta, Baztango kontuak, 217)

- Badira perpaus batzuk non zaila baita erratea zer klasetakoak diren, izan baitaitezke kausazkoak, nola baldintzakoak edo moduzkoak ere (jakin behar zein den hiztunak ematen dien erranahia). Zernahi gisaz, ez ditugu sobera bildu. Hara hemen adibide batzuk:

elizekoak artuz kero "Ya gaizki de" eta gan biar bixitara (Ziga)

Itzik ez yakinki erdaraz ta or erdaraz ikesi bar... (Gartzain)

Yingoicoain baitan fiatu cen libra dezala orai, maite balin badu: erran zuenez geroz: Yincoain Semea naiz (Etxenike, San Mateoren Ebanjelioa)

Ni naiz muralla: eta nere bularrac dorre bezala, baquea contsequitzen duena bezala aren aitzinean 'ina izan naizenez gueroztic (Etxenike, Kantuen kantua. Beharbada denborazko bezala sailkatu beharko litzateke hau)

Gainera zu nere yendakie zaren ezkerro ez dute batere trabarik paratuko (Izeta, Nigarrez sortu nintzan)

Itzik ez yakinki erdaraz ta or erdaraz ikesi bar... (Gartzain)

pena aundie dugu saltzia (Arizkun = 'saltzeagatik'. Forma aldetik ez da kausazkoa, baina erranahiari behatuz iduri du baietz)

5.4.9. Kontzesio perpausak

- Gure inguruko munduari buruz dakizkigun gauzak direla eta, gure bizitza presuposizioz betea da: badakigu zerbaitz gertatuz gero, edo halako egoera jakin batean egonik, horrek baduela ondorio 'natural' bat, eta ez

16 Holakoak (-tako), gure ustez, ez dira batere arruntak Baztanen.

bertzea: norbait eri baldin bada, sukarrarekin, pentsatzen dugu arruntean oheatzean geldituko dela, eta ez dela elurretan ibiltzera joanen. Edo, kontrakoa, arras ongi eta indartsu sentitzen baldin bazara, nekez joanen zara medikura zer gertatzen zaizun galde egitera. Hori eriek bakarrik egiten baitute. Hori da auresuposizioa: A gertatzen baldin bada, arruntena da B gertatzea, eta nekez gertatzea C.

• Kontzesio perpausak sortzen dira, hain zuzen ere, erlazio hori itzultzen denean: batek B espero izatea gertatuko dela halako egoera batean, eta B gertatu beharrean C gertatzea:

nahiz eta eri egon, lanera joan da

Pentsatzekoa zen hor eri egonik medikura-edo joanen zela, baina hori gertatu beharrean, ezustean lanera joan da. Horiek dira kontzesio perpausak. Baztanen gehien aditzen direnak *nahiz*, *nahiz -(e)n*, *ba- ere*, eta *-ta ere* egituren gainean eraikitakoak dira:

Nahiz-en gainean eraikiak:

Ure ere bai, beti, beti, naiz ez ain fuerte, e! (Almandoz)

Naiz azienda, beiak eta andik ibili, itxe batek sarrera saetxetik yendindako izen, etxe baten nortasuna demostratu bear omen tzen gorapetik atraz (Aniz)

maxterrak bere eskudo ortan bere... naiz bere etxan izen, etzuen txikitzen al urte bat baño geio tapatue (Aniz)

Ta, bueno, ni(k) segidoan oiana bainuen, ezker, naiz elur aundie ai, lau saltoz pastu nuen (Gartzain)

Naiz igandea izan, Claudet yauna beti bezala xuxen xuxen goan zen bere ofizinarara (Izeta, *Dirua galgarri*, 55.or.)

*Afal ondoan irri solas batzuk ere egin zituzten, beti bazuten yostatzeko gogo senar-emazte ok, naiz biek ere adinean sartuek izanik*¹⁷ (Izeta, *Dirua galgarri*, 26.or.)

...sorginen sendagaiekin piztuarazten zuten kolpatua nahiz arras zauritua egonta ere (Izeta, *Baztango kontuak*, 109.or.)

Egurra etxeratzen, gaztain biltzen eta nagusiaren etxea ongi hornitzen, nahiz eta langileen etxolak hutsik egoten badira ere. (Izeta, *Baztango kontuak*, 104.or.)

17 Bitxia egiten zaigu, baina egia da batzuetan Izetak aski egitura bitxiak sartzen dituela bere liburuetan. Guk ez dugu ezagutzen hau: *nahiz...-ik*.

...atseden harturik oñazeak gan zaizkiola nahiz eta ondorio pixka bat badaukala (Izeta, Baztango kontuak, 147.or.)

Apirilaren erditsuan eta udaberriaren edertasuna nabari da nahiz eta aunitz aldiz euria ere bortizki aritzen duela (Izeta, Baztango kontuak, 171.or.)¹⁸

Zu aitzindari izanagatik, nor da gaurko lan onen buru eta nork dakizki, nik bezain ongi, etxe orren zokoak? (Izeta, Nigarrez sortu nintzan. Testuingurutik ikusten da kausazkoa dela: ‘aitzindaria zarelako’)

Nahiz + -(e)n egitura:

Bai, portugesak gan tziren auniz emendik bañan ya oi... oi gauz’ bat nik... ni arpatzen nuen... oi... naiz esplotatzen zuzten ta geo zernai kentzen tzen (Gartzain)

Etxenikek dabilen bertze egitura bat, literarioagoa:

eta naiz gau untan kontzebitu al beneza, ta erdi semeak (Etxenike, Ruthen liburua, 124.or.)

Ba- ere egitura eta perpaus jokatugabeak:

Erregiñe iltzen bada re, bertziak erleak denak lanik eztutela iten ere bai aitu izen dut... (Berroeta)

ezpaitituzte aisa arrapatukolau milloi oiek, lapurrak saretan erortzen badira ere ... (Izeta, Dirua galgarri)

arek yakinki etzela sorgiñik (= ‘nahiz eta jakin ez zela sorginik’) (Aniz)

-ta ere egitura:

Dudik gabe, aldiero. Merke [ind.] izenta re (Aniz)

Ta geo ola, bazen nekazariiek... o maxter izanta re igual inder pollitekuak, ek segundakuak (Aniz)

Sorginek beti gaten ziren elizen sartuta re (Aniz)

Eztu saldiko! Igual du nai zun guzie agindu ta re... (Erratzu)

Beharrik egunero ez duten leher egiteko lanik, baina izanta ere gizon aidurrak neke horiek aisa ditu yasaiten (Izeta, Nigarrez sortu nintzan)

5.4.10. Moduzko perpausak

- Moduzko perpausak ekintza nola burutzen den adierazten dute. Egia erran behar baldin badugu, zalantza handiak izaten dira gramatiketan hola-

¹⁸ *nahiz eta...-la* bezalakoak ez dira batere arruntak.

ko perpausekin, aipatzen den ‘modu’, hori beti baitago bertze zerbaitekin lotua: konparazioa, kausa, denbora, baldintza... Hortaz, gramatika batzuetan ez dira moduzkoak kontuan hartzen, eta perpaus hauek bertze multzotetan sartzen dira. Guk, hala ere, lekutxo bat egin diegu hemen, uste baitugu zaila dela bertzenaz bertze nonbait kokatzea perpaus batzuk. Zernahi gisaz, diogun bezala, batzuetan ez da erraza izanen mugak non diren zuzen bereiztea.

- Moduzko perpausetan *-(e)la* menderagailua ageri da batzuetan, batez ere perpaus hauek bigarren predikatu gisa ageri direnean. Zenbaitetan *-larik* ere:

or dago Elorgako tratorea asotsa dariola (Arizkun)

Guk behiek gintuelaik, esnea saltzen ginuen (Arizkun¹⁹)

Hor, mendeko perpausak (*asotsa dariola*) zerbait predikatzen du perpaus nagusian ageri den sintagma batez (*Elorgako tratorea*), eta horregatik diogu bigarren mailako predikatua dela. Azken batean, egitura aldetik, ez da sobera urrun bertze honetatik:

herriak Juan hautatu du alkate

Hor ere zerbait predikatzen dugu (‘alkatea’, hain zuzen) perpauseko bertze sintagma batez (‘Juan’, kasu honetan).

- Moduzko perpaus arruntenak *antzera, arabera, gisan, gisara, moduan, modura, moldean, moldera, bezala, legez* bezalako hitzak baliatuz egiten dira euskaraz. Baina Baztanen horietako guti harrapatuko dugu. Egia da batzuetan, perpaus nagusiaren sintagma gisa, holakoak aise aditzen ahal direla:

bere antzera, borrokarien antzera, zure gisa, kate gisa, bertze gisa, arratoñain gisa, itses gise (ahozko hizkeran)

fediain arabera, obren arabera, capacidadaian arabera... (Etxenike)

Baina hemen ez gara sintagmaz ari, baizik mendeko perpausez. Hauek aditz bat ere eskatzen dute, bere menderagailuarekin. Ditugun grabazio eta testuetan holako guti bildu ditugu, mendeko perpaus gisa erran nahi dugu, eta denak *bezala*-rekin eraikiak (ez dugu bertzeetatik bat bakarrik ere bildu).

Hona hemen adibideak:

19 Eskuz bildua. Testuinguruari dagokionez ez da dudarik moduzkoa dela, nahiz itxuraz denborazkoen artean sartu beharko genukeen. Baina holako moduzkoak badira Baztanen.

zeren zuk, Yauna, 'in duzu, nai izan duzun bezala (Etxenike, *Jonasen profezia*, 20.or.)

'in zuen Yaunaïn aingiruak manatu zion bezala (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 26.or.)

zuen aita zeruetan dena perfektoa den bezala (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 36.or.)

guk zor gaituztenei barkatzen dieztegun bezala (Etxenike, *San Mateoren Ebanjelioa*, 37.or.)

orai aurrek aitzen dire dantzan bakarrik ... pena den bezala (Arizkun)

noizbait ere gertatu zaikun bezala denei (Arizkun)

pues bizie atratzen dugu ahal dugun bezala (Arizkun)

erran xahar hunek dion bezala (Izeta, *Nigarrez sortu nintzan*, 23.or.)

Guk eztugu dena, bear den bezala aitortu (Izeta, *Dirua galgarri*, 40.or.)

Bait ere ibiltzen ahal da moduzko perpausak (moduzkoak-edo, beharba-da kausazkoak) osatzeko:

[ezpaizen labadorik eta yaus ere...] goaten giñen lasterrago ittegatik ugal-dera (Ornoz)

- Batzuetan, beti bezala, zail da mugak non dauden erabakitzea. Ondoko hauek badirudi moduzkoak direla, baina berdin izan daitezke azalpeneko kausazkoak ere:

Kontrabandoko denbora [...] gañea nola egon tzen neguen ola, denbora txarra o elurra eztakit nola, ta otza (Ornoz)

...ta atsaldako idortzen baiziren ya atsaldian bat edo bide iten tzintuen berriz, berriz in... yosi beren ponpollekin (Arizkun)

Esaldi hori hola eman daiteke bertze itzuli batekin:

kontrabando denbora gañera negue ola egon zenez, denbora txarra...

Badira sasimoduzko bertze esaldi batzuk ere literaturan aurkitu ditugunak (Etxenikek aunitz ditu holakoak):

Eta 'torri zen Yaunaïn itza Amatiïn seme Jonasi, ziolaik: (Etxenike, *Jonasen profezia*, 19.or.)

- Aditza jokatugabea denean, bertze molde hauek ibiltzen dira:

Patata ttalla bali'meda... orduen bat... osoa... eo patata aundie balinbe da... orduen bide, bietako, erditi(k) moztute (...) begie(k) biar tu... bai, biar zaio kasu in ya begie nondik eldu zaion (Irurita)

eta berak erran bezala eta emanikako hitza ongi beterik, hantxe agertu zen Josetxoren bila (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 23.or.)

E(z), lotute ez, lotute iñertzen zaizkioten segiden (Almandoz)

Ta, baño, gañea uzte izu pixket idatze batekin edo pixket tapatute beti... urrun... urrungo... urruneko biste kenduz (Arraioz)

Aur bataiatu gabe ziren Linbora... Linbora. (...) Ta gura... guratsuak zaotz-tela kondenatuik (Aniz)

egon zen tabakoa utzik (utzirik) baina berriz ere asi omen da (Arizkun)
baño gobernuek patu omen tzuen pozoña... eta kasi-kasik [...] elimina-tuik ibili ziren... (Amaiur)

ta artu zuen ta “Koño”, eta zen oi, ta bizirik zagon! (Elizondo)

Berak beren artian esposatzen tziren, etzu... ez duten adatzeko moduik (Erratzu)

Bueno, oi paatzeko maneran egoten tzen, e! (Gartzain)

bali'mezen ta kanpoan konfesatue, etan beren zinteikin gan ta apezak yakinki, orduen gaten tzuen arek alke gorrie, arei etzion komekatzera (e)maten... ari gero... (Amaiur)

Torpe, gizona izeki ta ez yakinki, ari(e) iten ta... ola... (Lekaroz)

Arek yakinki etzela sorgiñik... ta bertzeak, sorgiñek ziela... (= 'bazekien, bada, ez zela sorginik') (Aniz)

ta ez yakinki zer man (= 'ez zekiela zer eman') (Ziga)

Eta, bertze batzuetan, zalantzak esaldia sailkatzeko orduan, ondoko hauekin, konparazione, gertatzen den bezala:

kontent nere bizia salbatu dudalarik (Izeta, Nigarrez sortu nintzan, 70.or.)

... orai ya, nola denek jubilazionea ta baituzte, ya eztire... (Berroeta)

ganen naiz bai, ganen naizenez, Jinkoak nai badu (Arizkun)

izenik ez yakitekin ezin in daus (Almandoz)

ze korajia bear tzuten konfesatzeko... yakinki il bar tzutela ta... ta antxe bendatu begiek... eta paeta kontra... (Lekaroz)

Azken erramolde hori, konparazione, aski ibilia da hizkera arruntean, eta gure ustez moduzko perpausen kutsua du. Hau da erran nahi duena: 'joanen naiz bai, jakina joanen naizela'.

6. KAPITULUA

TESTU BILDUMA (ESKRIBITUAK ETA AHOZKOAK)

6. KAPITULUA

TESTU BILDUMA (ESKRIBITUAK ETA AHOZKOAK)

6.0. Sarrera

Orain arte erran dugun guziaren argitzeko, testu batzuk aukeratu ditugu hemen, mota bateko eta bertzeko testuak, Baztango mintzairaren ispi-lu izan daitezkeenak. Egia erran, behin baino gehiagotan argitaratu izan dira testuak han-hemenka, Baztango mintzoan eskribituak, edo baztandarek idatziak direla aipatuz. Aunitzetan, hala ere, hori ez da hola, gero, testuak aztertzen dituzunean berehala ohartzen baitzara testu horiek ez dardela hango mintzoan. Hemen berean ikusiko ditugu horietako batzuk. Konparazione, gogora datorkigu, Baztango idazleak aipatzen direnetan, Laphitz-en izena agertzen dela beti tartean. Testu ederrak idatzi zituen autore honek: ez dugu zalantzarik aski gomendagarriak direla, ez bakarrik hizkeraren egokitasunagatik, baizik narrazioari ere indarra emateko duen aparteko abileziagatik. Laphitz arizkundarra zen, Baztangoa hortaz, baina ez zuen baztaneraz idatzi. Gustatuko litzaiguke, bai, Baztango mintzoa ibili balu bere lanetan, baina ez zuen eredu hau aukeratu, eta nahiago izan zuen bertze bat, Baztangoa bezain ederra, hori bai, ibili.

Zuzenean baztanera idazten saiatu direnen artean ere, badira aipatzeko kontuak. Jakina: hizkera batek tradizio idatzirik ez duelarik, eta hau da baztaneraren kasua, ikaragarri zaila da tradizio hori deusetik sortzea, eta idazleek joera izanen dute, puntu beretik abiatu ere, bide desberdinak aukeratzeko gero. Ez da zalantzarik, konparazione, Etxenikek berak, Bonaparteren agindua segituz, ahalegin handiak egin zituela hango hizkera, 'entzuten zuen moduan', hala eskatzen baitzitzaion, ibiltzeko. Orduan,

hola eskribitzen zuen: *Eta errespuesta izanic ametsetan ez Herodesen gana itzultzeco, bertze bide batetic itzuli ciren beren tierrara. Ec goan ondoan, or Josephi aguertzen zayo ametsetan Yaunain ainguru bat, erten diolaic: Yeiqui zaite eta ar citzu aurra ta bere ama, eta igues 'izu Egyptora, eta zaude an nic erran artañocoan, ceren guertatuco da, Herodesec bilatuco duela aurra, ilazteco (San Mateoren Ebangelioa) Eta horrek, jakina, badu, ortografia goiti-beheiti, Baztango mintzoaren itxura eta usaina. Baina testu hori eta Mariano Izeta batena, konparazione, parean paratzen badi-tugu, berehala ohartuko gara badirela desberdintasunak. Konparazione, Etxenikeren garaiko baztandar euskaldun peto bati ez zitzaion burutik pasatuko erdarazko 'tierra' horri 'tierra' deitzea, edo erantzunari 'erres-puesta'. Lehenbiziko kasuan 'lurra' ibiliko zuen (Etxenikek nahi ez zuena, 'tierra' hau bertze 'tierra' klase bat baita) eta bigarrean itzuli bat eginen zuen 'errespuesta' ez ibiltzeko (Etxenikek egin ezin zuena, testuari lotzen baitzitzaion). Zergatik gertatzen da hau?*

Hizkuntza idatzia eta mintzatua ez baitira berdinak. Hau, aski gauza argia izanik ere, batzuek ez dute kontuan izaten eta uste izaten dute euskalki batean idaztea, euskalki horretako hiztunak mintzo diren modua imitatuz idaztea dela, konturatu gabe, ordea, hiztunen artean eta herrien artean desberdintasun eta modu diferente aunitz dagoela eta, maizkara, hiztun bera ere mintzo dela hizkera aldatuz, noiz, norekin eta nola dagoen (aski da ikustea lehen paratu ditugun deklinabideko edo aditzeko aldaera guz-tiak). Idaztea, zerbait txukun idaztea, beti aukerak egitea da: nola idatziko dut, galdegin beharko dio baztandar batek bere buruari, *etxera, etxiat, etxerat, itxera...*, horiek guziak aditzen ahal badira Baztanen. Gainera, idazten ausartzen direnak, badute nolabaiteko ohitura irakurtzeko ere, eta, hain segur, bertze euskalki batzuetako testuak irakurri dituzte lehenik, eta horren eraginez beren mintzoa 'kutsatua' dute, holako testuinguru batean 'kutsatu' hitza ibiltzea zilegi bada, egokiago bailitzateke erratea 'aberastua' dutela. Eta, nolanahi ere, idazten hasten dena beti saiatzen da etxeko euskara 'hobetzen', berak egunero ibiliko lukeena pixka bat jantziago paratzen, hizkera 'apaintzen', Mariano Izetak berak ibiltzen duen hitza aipatzeko. Eta hau da hemengo testuetan ere gertatu dena.

Ezin erran, horregatik, hemengo testu hauek oso-osoan hango mintzoan, eta hango mintzo hutsean, daudela eskribituak. Erran dezakegun gauza bakarra da hango mintzoaren ñabardura aunitz biltzen dituztela, bertzerik

ez, eta ñabardura horiek direla-eta, nonbaiteko euskalkiarekin lotzekotan, hango mintzoa dutela erreferentzia hurbilena, eta, horregatik, mintzo harekin lotzen ditugula. Baina, aldi berean, hango mintzokotzat identifikaturik ere, desberdintasunak harrapatzen baldin baditugu hiztunen artean, nola ez hiztun horiek erran nahi dutena paper batean jarri nahi baldin badute, orduan bai agertuko zaizkigula desberdintasunak, normala denez, ez baita, erran dugun gisan, euskalki batean modu garden eta anbiguatearik gabe idazteko modurik. Eta, hau diogula, barkatuko digu irakurleak hemen ‘euskalki’ hitza ibiltzea, berez mintzoa, mintzo xume eta polita, hori bai, den zerbait izendatzeko.

Testu hauetan ortografia batu dugu, neurri batean bederen, eta ez dugu bere horretan errespetatu jatorrizko iturri idatzia (iturria idatzia denean, jakina), hemen azpimarratu nahi duguna, hain zuzen ere, mintzairaren ‘xarma’ hori baita, ez hainbertze axaleko ortografia kontuena. Ortografia kontuetan ez dugu ‘y’ ibiliko, eta horren ordez ‘j’ paratu dugu, arruntean, eta salbuespen txiki batzuk kendurik, ‘y’ bezala ahoskatzen duguna mintzatzeko orduan. Euskalkiaren ñabardurak, edo euskalki horretakoak, gure ustez ez direnak, oin-oharretan bildu ditugu, eta, ahal dela, oharrak behin bakarrik paratu ditugu, lehenbiziko testuan eta lehenbiziko aldiz ageri direnean. Testu bakoitzaren erreferentzia oin-oharrean paratu dugu.

Testuak ez ditugu multzo berean eman: lehenbiziko sailean bildu ditugu baztandarrei bildu dizkiegun testu batzuk, betiere Baztango mintzoa errespetatzen saiatu izan badira. Emandako arrazoiak direla eta, badakigu hori ezin dela ehuneko ehunean bete. Bertze sail batean bildu ditugu baztandar batzuegandik hartutako testuak, baina multzo berezi batean paratu ditugu, ibiltzen duten eredu hango mintzotik aunitz urruntzen dela uste izan badugu. Bai kasu batean eta bai bertzean, ohar aunitz egin ditugu, argibideak eskaini nahian.

6.1. Baztango mintzoan idatzitako testuak

Sail honetan bildu ditugun testuak baztandarrek idatziak dira, edo baztandarrek erranak eta gero paperera transkribatuak. Hango euskalkiaren erakusgarritzat hartzen ahal dira.

Lehenbiziko testua¹: *Axular, ala² Jaun Benat³?*

Y. Deabruein⁴ eskolan

Jaun Benat, Arruit eta Axular ziren iru apezgai edo estudiante⁵, buruz azkar, izpirituz abilak. Ikasi zituzten⁶ mundu untako⁷ eskola guziek eta gelditu ziren ikasteko gutizia aundiarekin. Iruetan yakintsun eta abilena zute Jaun Benat, eta unek erran zaben:

- Emen ez duk geiago ikastekoik. Nahi duze gan gaitzin⁸ deabruein eskolak ikastera?

Eta erran zioten baietz. Abiatu ziren, au aitzinean⁹ eta bertze biak ondotik, Sarako lezera. Andik sartu ta allahatu¹⁰ ziren Infernura. Debru¹¹ beltz itsusi bat zagon ate-zain eta galdin¹² zaben zer nai zuten. Erran zioten ango eskolak ikasi nai zituztela. Deitu zuen debru nausie, eta unekin intzuten tratue iruetaik baten aldera¹³ erakutsiko ziozte-la. Asi ziren ikasi ta ikasi, eta ttipituxe zituztelaik, Arruit eta Axular tristatu¹⁴ ziren. Galdin zaben Jaun Benatek zer zuten ala egoteko, eta erran zioten nola¹⁵ zuten tratua ine iruetaik bat gelditzeko erakuste aldera¹⁶:

-
- 1 Jorge de Riezu, (Jose Maritorenak A. Donostiari esana 1936ko martxoan), Lekaroz (Baztan), *Príncipe de Viana*, 1967-10-04.
 - 2 Harrigarria da hemen 'ala' ibiltzea, hori ez baita Baztangoa, baztandar gehienena segurik ez da. Hor, arruntean, 'edo' ibiliko genuke, guretzat arrotza baita 'ala'.
 - 3 'Jaun Benat' dio idazleak, edo ikasia baitu, edo bertze nonbaitetik hartu baitu: iduri du 'Benat jauna' arruntago dela Baztanen.
 - 4 Deklinabidea aztertzean ikusi dugun gisan, hau da Baztango genitibo amaiera tipikoa: ez '-aren', baizik '-ain', edo, kasu honetan gertatu den bezala, horren aldaera bat.
 - 5 Narrazio modu hau (SVO) jatorra eta aski ibilia da Baztanen: Altubez geroztik sortu ditugun teoria guztien arabera, gure burua 'zuzenduko' genuke aditza azkenera eramanez. Ez da bate-re beharrezko, eta erranahia aski neutroa da.
 - 6 Aldaera kultura ('zituzten') aukeratu du idazleak, 'zuzten' arruntagoa baldin bada ere (ik. 4. kapitulua).
 - 7 Hemen ere, gure ustez, aldaera kultura aukeratu du, erran, baztandar gehienek 'unteko' erranen bailukete. Arrazoi beragatik ibili du 'deabruein' eta ez 'deabruain', fonologia aztertu dugune-an azaldu dugun gisan.
 - 8 Bi lerrotan bi adizki aski ibilia Baztanen: 'zaben' eta 'gaitzin' ('gan gaitzin' = 'joan gaitzen').
 - 9 'aitzinean' da gure artekoa, ez 'aurrean'.
 - 10 Hizkeran 'allaatu' eta 'alleatu' aditzen ahal dira. Aski gutitan egiten direnez bokal luzeak, baina bai kasu honetan, idazleak 'h' hori sartu nahi izan du, bokala luzeagoa dela markatzeko. Ohart gaitzen 'debru' eta 'deabru', bi aldaerak ibiltzen dituela hiztunak.
 - 11 'galdin' = 'galdegin' formaren laburdura, arrunta Baztanen.
 - 13 'aldera' hau aski ibilia da 'truke'-ren ordez, baina gure ustez geroxeago ageri den '-te aldera' hori aise gehiago ibiltzen dugu.
 - 14 'tristetu' arruntago, Baztanen.
 - 15 Egitura 'erromaniko' hau arras arrunta da hiztunen artean.
 - 16 Hau da erraten genuena: zerbaiten truke errateko modu arrunta.

- I eskapatiko¹⁷ aiz andik edo emendik, eta gutaik batek¹⁸ bearkoyegu¹⁹ gelditu. Oi duk gure tristure.

Eta erran zaben (Jaun Benatek):

- Ez beldurtu; nik manien itze²⁰, eta nik betekoyet²¹. Ni geldituko nauk.

Pixka bat arindu ziren, naiz etzuten arras sinetsi. Ikasi zituzten debruein eskolak, eta unek erran zaben:

- Ikasi tuze denak guk dazkigunek²²; eta orai zein gelditu beaize²³?

Eta Jaun Benatek erran zion, bere itzela erakusiz²⁴:

- Kontu yok²⁵ orri.

Abiatu ziren Arruit eta Axular aitzinean eta Jaun Benat ondotik. Unek erraten zaben "agudo, agudo²⁶", zeren ikusten zuen²⁷ debrue bere itzela atzaparretan itzulike zabilela. Eta idurituik arinxkoa zela, tiratu zaben (debruek) ezpata-ukaldie. Jaun Benat baitzozan gibeletik, lezetik atratzean, kendu zion (debruek) zapata-zurrume²⁸ edo takoña; eta andik aitzine²⁹ ibili zen (Jaun Benat) itzelik gabe eta zapata-takoñik gabe. Munduan arpatzen³⁰ zituen zapata-lleik³¹ oberenei manazten zition takoñak; bañan lenbiziko gauean gaten³² zion debruek, eta beti ibili bear izentzuen itzelik eta zapata-zurrumik

-
- 17 Hola egiten da batzuetan etorkizuna adierazteko: '-tiko', edo '-tuko'. Biak ibiltzen dira. Aski ibilia da '-t(z)eko' ere: *gateko gara, erosteko dugu*,..., baina, gure ustez, hori berez '-t(z)ekotan' da. Leku batzuetako hiztunek (Amairuko eta Arizkungo hiztun batzuek bederen) '-teko' ere ibiltzen dute, '-tiko' edo '-tuko' ren ordeaz, balio berarekin.
- 18 'gutaik batek' ('gutarik batek') hango mintzoaren bertze ezaugarri garbi bat, 'gutako batek' baino aise maizago aditzen ahal dena.
- 19 'beharko diagu' (bertze azalpenik ematen ez badugu, errateko modu hauek arras arruntak direla erran nahi dugu.
- 20 'nik eman nian hitza'
- 21 'beteko diat'.
- 22 'dakizkigunak'.
- 23 'behar duzue'.
- 24 Badirudi hemen okerren bat dagoela: ibiliena, duda gabe, 'erakutsiz' da.
- 25 'kontu egiok horri'.
- 26 Arruntagoa da 'audo', baina 'agudo' ere aditzen da
- 27 Bertze egitura 'erromaniko' arrunta gure hizkeran. Maiz ibiltzen da, aditzean inolako menderagailurik ez duela.
- 28 'zurruma' hitza Baztangoa da, baina guk ez dugu zapata-takoia adierazteko ibiltzen, baizik zangoaren orpoa adierazteko.
- 29 'handik aurrera'. Baztanen gehiago 'handik aitzine' edo 'handik aitzinet'.
- 30 Baztanen ez da 'aurkitu' ibiltzen, baizik 'harrapatu'.
- 31 'zapata egilerik'
- 32 'joaten' (hemen 'eramaten' aditzaren erranahia).

gabe. Arruit eta Axularri baño errabie geiago zion debruek uni, zeren tzen abilena³³; bañan ezin deus in unen kontra, debruein eskolak eta mundukoak zazkielakotz³⁴.

Egun batez igorri zioten ifernutik paxa³⁵ edo gerrauntzeko bat gorri-sedazkoa. Iyan³⁶ tzen mandoain gañera, artu zuen mutila³⁷ eta gantzen Sarako leze ondora, –an bazen gaztain-ondo aundi bat. Erran zion mutilei:

- Ingura zak gaztain hoi paxa unekin eta leku adi fite³⁸ ortik.

Inguratu zuen bezain laster, han doaye gaztaña adarrez aitzina lezetik barnera. Eta Jan Benat soseguz etxera.

*

Oharra: lehenbiziko testu honek ezin hobeki biltzen du hango hizkera, nahiz laburra denez, bertze ñabardura aunitz kanpoan gelditzen diren.

Bigarren testua³⁹: *Sorgiña*⁴⁰ eta *gizona*

Etxe batian bizi ziren famili⁴¹ bat, eta bertze etxean gizon bat bakarrik.

Famili⁴¹ ai zirelarik afaltzen gustora, sorgiñ bat tximinin gañetik⁴² asi zen erraten auxe⁴³:

- *Eroriko te nauk, edo ez ote nauk*⁴⁴?

33 ohartu berriz ere hitzen hurrenkeraz.

34 ‘zekizkielakotz’.

35 ‘faxa’: ez bulegoetan egoten dena, baizik gerrian jartzen dena.

36 Hau pixka bat arrotza egiten zaigu: ‘igen’ da gehien ibiltzen duguna.

37 ‘morroia’ da kasu honetan. Hau da han ibiltzen dugun hitza.

38 ‘laster’ baino aise gehiago ibiltzen dena.

39 Felisa Miren Iribarren Etxeberria (hamairu urte, Baztango Erratzuko eskola). Iruñea: *Príncipe de Viana*, 1973ko apirila.

40 Erratzukoa dela dio testu honek. Baina han ez da *sorgiña* erraten. Hasteko, palatalizazioa, testu-inguru honetan, Oronoz, Arraioz eta Basaburu aldera egiten da, baina ez Erratzun. Bertzetik, hola-koetan bokal asimilazioak ‘e’ eskatzen du akabailan. Erratzun ‘sorgine’ erraten da. Hau gertatu da hiztunak bertze nonbaitetik buruz ikasi duelako istorio hau, edo euskara landuago bat (*sorgiña* erratea *sorgine* erratea baino euskara landuagotako hartzen ahal baldin bada) ibili nahi duelako.

41 Baztango mintzoak lapurteraren antz handia badu ere, aski arrunta da hitzaren akabailako ‘a’ horiek ez ematea, hemen bezala.

42 Palatalizazio arrunta Baztanen.

43 Ohart gaietezen berriz ere perpauseko hitzen hurrenkera honetan. Arras naturala da hori, nahiz ez dien kasu gehiegi egiten Altuberen legeei.

44 Galdera honetan, eta gero heldu direnetan ere, alokutiboa ibiltzen du hiztunak. Lapurdi aldera zuhurrago jokatzen dute, eta ez dute alokutiborik galderetan. Baztanen, ordea, nahiko arrunta da.

Eta familia izitu zen.

Eta bieramun atsean, berriz sorgiña asi zen erraten⁴⁵ atzoko solasak:

- *Eroriko te nauk, edo ez ote nauk?*

Eta familia berriz izituik geldituzen.

Erran zioten gizonari ia egoin zen etxe ortan⁴⁶, egoten bazen eman⁴⁷ ziotela bildotx bat. Gizon ure trankil baitzen, erran zuen:

- *Bai, bai, geldituko naiz emer*⁴⁸.

Gizon arrek⁴⁹ artu zuen "portxakaso" makil aundi bat eskuen⁵⁰.

Gero sorgiña asi zen lengo solasak erraten:

Eroriko te nauk, edo ez ote nauk?

Eta gizon arrek erran zion:

- Nai baduk erori emen duk, bidea, eta ez baduk nai gaie ortik.

Era oi erran zuelarik, sorgiñ arrek tximinitik beiti bota zion zango bat.

Isten baten buruen berriz sorgiñak erran zuen:

- Eroriko ta nauk, edo ez ote nauk?

Gizon arrek erran zion:

- Nai baduk erori emen duk bidea, ezbaduk nai gaie ortik.

Oi erran zuelarik berriz sorgiñ arrek bota zion bertze zengoa eta gizon baten burue. Sorgiña etorri zen gizonarengana eta erran zion:

- Artzak buru oi.

Eta gizon arrek erran zion:

-Nai baduk artzak ik.

Sorgiñak eman zion gizonari auniz⁵¹ diru eta gizon ure gelditu zen konten⁵². Bertze etxean zauden famili ure eman zioten gizonari bildots bat⁵³.

45 Behin eta berriz 'erraten' ibiltzen du hiztunak. Elkarriketetan arruntagoa da 'erten' ibiltzea.

46 Hitzen ordena, aski arrunta.

47 Segur aski ere, gaizki bildua: hemen 'emain' ('emanen') beharko luke.

48 Berriz ere, nahiko urrun hemengo hitz ordena gramatiketan erakusten dutenetik.

49 Hau arrotza da. Erratzun 'harek' behar du izan.

50 Arrunta da mugatu singularra, eta ez mugagabea ('eskutan') ibiltzea holakoetan.

51 'aunitz' da Baztanen hedatuena (Basaburuan 'aunditz'). Herskaria denez ondoko kontsonantea, badirudi horregatik egiten dela frikaria.

52 'konten' eta 'kontent' aditzen dira Baztanen, nahiz lehenbizikoa, beharbada, gehiago.

53 Berriz ere hitzen hurrenkera ez kanonikoa hemen. Horretaz gain, ez da arrunta batere ergati-boa ez ematea. Seguraski ere, hor pausaldi bat falta da: "famili ure... eman zioten..." Eta hau arrunta litzateke.

Hirugarren testua⁵⁴: *Basurdea eta azeria*⁵⁵

Behin zugaitz baten ondoan zegon basurde bat bere litañak xorroxten eta azeriak erran zion:

- *Zertako zorrozten tuzu ez ihiztar*⁵⁶ *eta ez niork*⁵⁷ *bortxatu gabe.*

Eta basurdeak erran zion:

- *Noiz bait bortxatzen banaute ez dut denborik izango*⁵⁸ *xorroxteko eta orai egin eta egongo*⁵⁹ *naiz behartu orduko.*

Laugarren testua⁶⁰: *Mutiko itxue*⁶¹

Bazen famili aberats bat. Bazuten mutiko bat itxue, beti triste egoten zena. Bere tristezia⁶² zen bere familia etzelakotz kristau ona. Allagatzen bazen pobre bat bere atera ta igortzen zuten deus man gabe.

Torri ziren eguerriko bestak eta nazimentua patu⁶³ zuten baño ez zioten kasu gehiago egin. Mutiko itxue beti egoten zen nazimentuan⁶⁴ onduan. Bere anaiak eriten zioten tortzeko bañan etzen tortzen. Egun batez konturatu ziren mutiko itxuak kusten zuela Jesus Aurra ta erran zioten ia zer ari zen ta berak kontestatu zuen:

- *Nik ikusten dut zuek eztuzuena ikusten aha*⁶⁵. *Iduritzen zait Jesus Aurra irriz ai zaitela. Zuek eztuzue ikusten ahal zertaz etzate kristau onak*⁶⁶

-
- 54 Migel Aingeru Iriarte. 7 urte, Arizkungo Eskolako, *Principe de Viana*, (1973ko ekaina).
- 55 Euskara ‘landuagoa’ saiatzen da ibiltzen (Felix atabalari, euskaltzale eta bertsolari zenaren semea, herrian beti Migel Angel edo Mikel izan dena), ohituago baitzegoen euskara landuago hau aditzen, eta hori egiten du testu osoan zehar, izenburutik hasita. Arruntean, bere barrideak ‘basurdia ta azerie’ erranen luke.
- 56 Baztanen, eta bereziki Arizkunen ‘intzileri’ da erraten dena. Amaiurren ‘izileri’ ere aditzen da.
- 57 Jende gutik erraten du, baina ez dira falta (lekukoren bat edo bertze bildu dugu guk ere hiztunen artean). Arruntagoa da ‘inork’, kasu honetan.
- 58 Arrotza: ‘izain’ behar du hor.
- 59 Arrotza: ‘egoin’ behar du hor.
- 60 Pedro Miguel Barrenetxe. 10 urte, Azpilkueta, *Principe de Viana*, (1973ko iraila).
- 61 Adierazkorra ez bada segurik, gure ustez ‘itsue’ behar luke izan hor. Beharbada ez da ongi hartua ere.
- 62 ‘tristezie’ da arruntena.
- 63 Ongi bildua, ‘paratu’ erran nahi du.
- 64 Edo koma falta da (‘nazimentuan, ondoan’) eta orduan ere ‘nazimentuen, onduan’ izanen litzateke arruntena, edo gaizki bildua da: badirudi ‘nazimentuein ondoan’ behar lukeela.
- 65 Aipatzekoa da ordena hauek, mendeko perpausetik osagaiak bere tokitik ateratzen dutenak, arruntak direla han.
- 66 Kausazko perpaus hauek aski arruntak Baztanen.

Denak ixilik gelditu ziren. Biramunean igandea zen ta famili guztia⁶⁷ mezara⁶⁸ gan zen. Mutiko hari iduitu zaion bere etxeko Jesus Aurak beiretu ta irri egiten⁶⁹ ziola.

Bosgarren testua⁷⁰: *Erratzu. Eskursioko eguna*⁷¹

Urtero bezala aurten ere guan⁷² ginen eskursiokan eskolako mutiko eta neskatikokak eguna pasatzera. Ikusi ginuen itsasoa, ibill⁷³ ginen auto-txoketan eta bañatu ginen. Gero guan ginen Amarara. Maistruek guan ziren bar batera refresco bat edatera.

Auto-txoketan ibiltzen ai ginen eta mutiko batek min hartu zuen ankan. Erran zioten maestrueri⁷⁴ eta eraman zuten Sokorro etxerat. Medikuek erran zioten geldik⁷⁵ egon behar zuela mina sendatzeko. Itzuli ginen etxerat atseko⁷⁶. Nekatu bai-ginen, lo gustora egin ginuen.

Seigarren testua⁷⁷: *Sorgin kontu. Baztan-en gertatue*

Akaso baizue aitzia⁷⁸ non den Koskortzeneko borda. Bada hantxe gertatue omen da. Etxe hartako nausi-etxekoandreak izenak omen zuzten, Pello Bixente eta Bernarda Mari. Beti bezala illunabarreko⁷⁹ lanak egitera bildu omen ziren etxera eta Pello Bixente hasi omen zen bei lanetan eta Bernarda Mari zerriek bazkatzen. Beñarda Marik bere lanak in zituelaik gan omen zen sukaldera afari pixket itera. Hala sukaldeko atetik sartzean berean, kedar puske bat etorri omen zen zemenetik⁸⁰ eta bere baiten in omen zuen:

-
- 67 Ez da naturala: han 'guzie' behar du duda gabe.
- 68 Singularra da forma naturala han.
- 69 Hau ere 'hobetua' pixka bat: 'iten' da han erraten dena.
- 70 Begoña Barberena. 9 urte. Erratzu. *Principe de Viana*, (1973ko iraila).
- 71 Arruntena 'egune' litzateke hemen.
- 72 Ibiltzen dugun aldaeretako bat: 'gan', 'goan', 'guan'.
- 73 'ibili', segur aski ere. Hutsa izanen da.
- 74 Ez da sobera arrunta, baina batzuetan holakoak aditzen ahal dira.
- 75 Aski Batzangoa, partitiboa hola ematen baitugu eguneroko mintzoan: 'geldik' (eta ez 'geldirik').
- 76 Gaur egun gero eta indar gehiago hartu duten 'hatserako', 'gauerako', 'etzirako' eta horien ordezkari 'atseko', 'gaueko', 'etziko'... dira Baztanen ibiltzen direnak.
- 77 Felisa Ugarte. 13 urte. Arraioz. *Principe de Viana*, (1973ko urria). Testu ederra da hau, ongi biltzen duena hango hizkera.
- 78 'baduzue aditzea' aski maiz entzuten dena, batez ere euskaldun zaharrenen artean. Ikusi 6. kapituluan J. Larralderen testua.
- 79 Baztango alde honetan arruntagoak dira palatalizazio mota hauek.
- 80 Aunitz modutan erraten da hau: 'zimini', 'zemene', 'zemeni'.

- ¡Atx!⁸¹ *Siñale*⁸² *txarra bierko urie.*

Hala ezarri⁸³ omen zuen zartaña prasain gañean bere urinekin. Eta bertze kedar puske, eta gañera zartanain barnera. Piztu omen zuen esku-argie, beiretzen omen du azpitik goiti eta hartan berean⁸⁴ estaltzen puztuen haundi arro bat, iduri omen zuen azkenarroa. Patatazko tortille in behar zuela eta patatak sabaian. Omen daie sabaire eske eta hasten omen dire tellak asoska, izitu eta ohio in omen zion Pello Bixentei:

- Zato zato agudo, gure tellak xiatzen ai dire.

Pello Bixente sabaire gan zelaik xildu omen ziren asotsak eta beiretzen omen du lekenetik⁸⁵ eta bordain bizkerrean, katu nabar haundi bat. Tiretzen omen dio arri kozkor bat eta arpatu omen zion buruen eta katue marraskaka zemenetik beiti. Omen dazi laixterka sukaldera eta orduko zartañako urin guziek ianak. Eta Bernarda Mari arras kole-ratue eta pentsatu omen zuen zer egin. Baldin eta gehiago agertzen bazen tiretu behar ziola zartain bat urin ongi goritue⁸⁶, etzela ez gehiago agertuko. Pentsatu eta in. Berri berritik berotzen omen du urine eta hartan berean besoak labatzain ondora urbilduek. Benarda Marik polliki polliki hartzen omen du zartaña, tiretzen omen dio eta ososoa harpatu. Marraska batean ez omen zen nai orduko allagatu gañeko kaskora eta ez gehiago agertu ere. Biramonean omen daie Beñarda arakindeire eta medikuen kotxea atean. Arakindegiko nausiei erten omen dio.

- *Nor duzue eri*

- *Koxpa Antoni.*

- *Eta zer gertatzen zaio?*

- *Zer gertatzen zaion? Atzo su ondoan muturketu eta zartañain gañera gan eta gerrontzetik beiti dena erre in de.*

Beñardak in omen zuen bere baiten:

- *Erre? Aintzinean bakarrak ian ere inek zitien. Horra nor zen nere atzoko katu puzten haundie, Koxpa Antoni izeki katu birtue*⁸⁷.

Berriz Koskortzeneko zemenire gateko gogoak⁸⁸ gan izan zitzaizkion.

81 Galduxea den harridura hitza. Aski arrunta zen, umeek hamaika aldiz erraten zuten egunero.

82 Baztango alde honetan, palatalek bokalen herstea bortxatzen dute. Testu honetan: 'siñale', 'xiatzen'.

83 Ez da, gure ustez, sobera arrunta.

84 Zerbait falta da: ikusten du' beharbada.

85 'lukana' beharbada?.

86 Arruntak izan diren esateko modu hauek galtzen ari dira.

87 Horrek 'bihurtua' erran nahi du. Maizago aditzen da *biurtue*.

88 Pluralean dabil hemen, maizago singularrean, gure ustez.

Zazpigarren testua⁸⁹: *Amatxiren behearkundeak*

Etxe txipi batean bizi ziran⁹⁰ senar emazte batzuek⁹¹ bi neska eta amatxikin; hunek adin aundia zuen. Bere buruaren⁹² atxikitzeo kataderan iarrira egoten zen sukaldeko xokoan. Iduzki ederra kusten zutenean⁹³ bi neska horiek eramaten zuten amatxi atera eta hantxe goxo goxo arrosarioak eskutan harturik errezatzen zuen aspertu gabe.

Egun batean oroitu ziren Eguarriak⁹⁴ urbiltzen ari zirela, egun aundia baita Jesus Aurra sortu zan gaua egun hortan meza ederra izaten baita elizan⁹⁵. Amatxi lo utzirik torri ziran Jesus Aurrari musu ematera. Meza akitu zenean turrón goxoak harturik gan ziren etxera ta gaixo amatxi hila arpatu⁹⁶ zuten.

**

Gau onak

Orai dela aunitz urte Erratzuko borda batean bizi zen famili bat. Famili hunten sartzen dire: gurasoak, iru alaba eta amatxi.

Amatxi ez zen mugitzen ahal eta egun guzie yarralki zirrikedun batean egoten zen. Borda hure herritik urrun zen bañan neskaticoak egunero yausten ziren eskolara eta aunitz ikasten zuten.

Gau Onak allegatu ziren eta amak afari goxo bat prestatu zuen bildots eta turronai-kin. Amatxi pozez bete zen bere ilobek abesten zuzten billantziko ederrak aitzean.

Afal ondoan erran zaben:

89 Gauza bera kontatzen dute testu hauek, baina kontalarien adinak aski diferenteak dira, eta bildutako urteak ere. Lehenbiziko bertsioa: Tomasa Etxeberri, 8 urte, Erratzu, *Principe de Viana*, (1973ko azaroa-abendua). Bigarren bertsioa: Maria Pilar Gortari, 13 urte, Erratzu (1971ko urtarrila).

90 Zalantza gabe: Erratzun ez da ‘ziran’ erraten, baizik ‘ziren’.

91 Ez dago eredu finko argirik: ‘batzuk’ eta ‘batzuek’ nahasian ibiltzen dira.

92 Aditz izenaren osagarri zuzena genitiboan: aski arrunta, nahiz gazteek gutiago ibiltzen duten.

93 ‘zutenean’ (*zutenian*) eta ‘zutelarik’ (*zutelaik*) txandakatzen dira hiztunen artean.

94 Hau ez da erraten, gure ustez. ‘Eguerriek’ da hango forma.

95 Sistematikoki, esaldi osoan, euskara hobe bat ibiltzen saiatzen da hiztuna: “egun aundia baita Jesus Aurra sortu zan gaua egun hortan meza ederra izaten baita elizan” (naturalago, hango hizkeran: “egun aundie baite Jesus Aurre sortu zen gaue egun hortan meza ederra izeten baite elizen”).

96 ‘aurkitu’ erran nahi du. ‘Harrapatu’ (*arpatu*) da han ibiltzen dugun hitza.

- *Gaten al zate denak gauerdiko mezara herriko elizara, ni geldituko naiz su ondolan bakarrik eta etortzen zatelaik kontatuko naizue zer erran datzuen apez yaunak Jesus Aurraz.*

Otz aundia egiten baizuen, abrigo, guante, eta bufandaz jantzi eta gan ziren elizera. Entzun zuen meza debozio aundiarekin eta ikusi zuten Belengo itxura.

Elizatik ateratu zirelaik galletak erosi zuzten amatxiri gateko. Bidean bazoazin iru neskatikoak etxera allegatzeko deseituan amatxiri kontatzeko ikusi zutena. Atetik neskatiko gaztenak oyu egin zuen:

- *Amatxi, Amatxi eldu gara!*

Sukaldean sartu zirelaik ikusi zuten pena aundiarekin arrosorioak eskuetan ila zagola. Jesus Aurraz gan zuen zerura eta han ospatu zuen *Eguberri* hoberena.

Zortzigarren testua⁹⁷: *Goyenecheren 2. sermoia*⁹⁸

Ok guziak⁹⁹ ongi konprenditu zituen San Antoniok; eta zauturik¹⁰⁰ etzuela Jesu Kristok ofrezitzen ditxa andi au, aitu eta entenditu aren doktrina eta segitzen ez dutenei; baño bai aitua eta entenditua, fidelidadean kumplitzen eta obratzen dutenei, determinatu zen gazte gaztetik segitzera osoki religionearen sentimentuak, eta bere bizi guzian obrekin manifestatzera egiazkoak zirela formaturik zauzkan proposituak. Orañik¹⁰¹ etzituen ogei urte eta ia arritzen zituen guziak bere santidade eta ejenpluarekin. Adinik peligrrosoenean eta zeñetan desgraziatuki entregatzen dire ainbertze kristau mundu-tzarraren legeak segitzera, kontatua zagon ia Antonio kristau oberenen numeroan; dena Jaungoikoaren zerbitzura entregatua, religionearen izpirituak mobitzen zuen aren biotza eta izpiritu unek berak arreglatzen zituen aren pausuak. Elizan ikusten zuten gazte bat errespeturik andienarekin bere Jaungoikoaren aitzinean; eta elizatik kanpoan modestia eta humildadean; aren kontentua zen orazionea eta Ebangelio

97 Goyeneche (1847).

98 Testu hau ez da orain arte ikusi ditugunak bezalakoa. Eliza gizon batek egina, predikua da, eta euskara landuago ibiltzen saiatzen da. Ez ditu errespetatzen batzuetan Baztango bokal asimilazio/disimilazio kontuak. Ez diogu kontu horri oharririk egiten. Hau ederki paratua dago, bertze gisaz, hango mintzoan eta hango hizkeraren erakusgarri egoki eta ona da. Azken ohar bat: baztandarek beti 'predikua' erran izan dugu.

99 'guziak' dio idazleak, eta ez 'guziek', han arruntean erraten den gisan. Hor ikusten da erre-gistro landuagoa dabilela. Testuan zehar normala da eskribitzeko modu landuago hau: *religionearen, zerbitzura, firmearekin, berean, baitan...* (hitz egitean: *religionain, zerbitzura, firmeakin, berian, baiten...*

100 'ezagaturik'.

101 Arrotza, gure ustez. Han *oñik* da ibiltzen dena, gaur egun bederen.

Sainduaren meditazioa. Untan ikusten zuen, etzela gaztetasuna munduarentzat, baño bai Jaungoikoarentzat¹⁰². Erretiratu peligroetarik¹⁰³, konsideratzen zuen Religionearen argitasunarekin mundu galduaz egin bear zuen desprezioa, birtutearen edertasunak merezi duen estimazioa eta bere Jaungoikoari zor zion amorioa. An ikusten zuen, egin bear zuela gerra bizi bat pasioneei eta salbazioneko etsai guziei, armaturik Jesu-Kristoren soldadu egiazko bat bezala fede fuerte batekin eta esperanza firmearekin. Emendik ateratzen zituen santidadea segitzeko egiazko deseiuak eta emendik ainbertze birtutearen arima edertzen zutenak.

Gazteak! Komprenditzeizue nola empleatzen zituen San Antoniok bere gazte denborako egunak, propositu onetan¹⁰⁴, mundu itsuaren desprezioan, erretiroan, orazionean eta birtutean? Eta, au guzia zergatik? Zergatik aren entendimentua eta biotza zauden beterik religionearen izpirituarekin¹⁰⁵. Ah! Zein diferentea izan litzeken zuen bizia, izpiritu orrek berak¹⁰⁶, mobitua fede bizi batekin, gobernatzan baluzke zuen pausuak eta ez, desgraziatuki aunitz aldiz gertatzen den bezala, munduak, banidadeen aunpatasunak eta naturaleza korronpituaren inklinazioneek¹⁰⁷.

Baño itzul gaitezain sainduarengana. Modu untan pasatzen zuen bere bizia Antoniok; baño zauturik¹⁰⁸, birtuterik andiena ere ez dagola seguro munduko peligroen artean, sartzen da erretiratzeko ideetan. Il tzitzaizkon bere guratsoak, zeñen ondasunak, ez tti-piak, toktu zitzaizkon ari eta bere arreba gazte bati. Egun batez elizan zagolarik, aitu zuen kantatzen Ebangelioan Jesu Kristoren itz ok¹⁰⁹: Nai baizu¹¹⁰ izan perfektua, zoazi eta salzazu duzun guzia, eta zato eta segi nazazu: Si vis perfectus esse etc. Momentu berean sentitu zuen bere baitan konseju guziz perfektu au segitzeko deseiu bizi bat;

102 'munduarentzat' eta 'Jaungoikoarentzat' paratu du, baina uste dugu Baztanen arruntagoa den, diferentziaz gainera, '-dako' amaiera.

103 '-etarik' amaiera hau arras arrunta, 'r' gabe ahoskatua ('-etaik').

104 Testuan, pixka bat lehenago, 'untan' eman du, baina orain 'onetan': hau da idazlearen zalantza horren seinale, batetik euskalkiari lotu nahia, baina bertetik erregistro berria landu beharra.

105 Ohar bedi irakurlea hitz ordenaz. Hau aski naturala da.

106 Gaur egun 'horrek berorrek' bezalakoak hedatu dira eta euskara landutzat hartzen dira, baina, ikusten ahal denez 'horrek berak' ere bertzea bezain landua da. Horixe da Baztanen nagusiki aditzen dena.

107 Azkeneko dozena erdi hitz hauetan ikusten da zein zaila den eskribitzea solas egiten dugun bezala, gure eguneroko solasean nekez ibiliko baititugu holako hitzak. Nonbaitetik hartu eta nolabaiteko euskal itxura eman behar zaie, non eta ez garen horien ordezeko euskal hitzak asmatzeko gai. Baina hori eginez gero, nahitaez idazleak beste erregistro bat asmatu behar du.

108 'ezaguturik' (Baztanen *zauturik*, testuan bezala).

109 'aitu zuen kantatzen... itz ok'. Egun joera handiagoa dugu komunztadura egiteko 'zuen' eta 'hitz hauek' horien artean, eta ez, idazleak egin duen gisan, 'zuen' eta 'kantatzen'-en artean ('aditu zuen kantatzen'). Horregatik jarri du singularra: gure ustez, hau Baztanen segurik arrunta da.

110 'baduzu'.

saldu zuen bere ondasun guzia, eta kolokaturik bere arreba konbentu batean, partitu zuen tokatu zitzaion guzia pobretan¹¹¹ eta erretiratzan da desertura, soledade saildu batean bere biziaren pasatzera¹¹², eta an, libre munduko peligroetarik¹¹³, Jaungoikoaren perfektuki honratzera, itzekin, alabantzetan, obrekin, penitenzietan eta gauza sailduetan.

(395 -396. orr.)

Bederatzigarren testua¹¹⁴: *Adbientoko 4. igandea*¹¹⁵

Egungo Ebangelio Sailduaren historia da abisatzea katoliko guziak, nola San Juan Bautista gloriosoasi zen predikatzen Jordango bazterretan, deitzen zituelarik jende guziak penitenziara, preparatzeko manera ontan¹¹⁶ beren biotzak, errezibitzeko esperatzen zeuden edo esperatzen zuten Messias edo Salbazalea; prepara diozozue bideak, oiuegiten zuen prekursora saildu unek Jangoikoari erran balieza bezala¹¹⁷, dio Kaietanok: Prepa¹¹⁸ zaskizue zuen biotzak birtutean exerzizioekin, etor dadien zuengana Jangoikoa, parate viam Domini, egizue¹¹⁹ penitentzia zuen bekatuez sineste¹²⁰ oso batekin, Aita miserikordiosoak emanen datzuela grazia sailduaren tesoro andi ura eta barkatuak izanen direla zuen kulpak.

Venite ascendamus ad Montem Domini, et ad Domum Dei Jacob. Isaias. 2. Zatozte, erraten zuen Isaias profetak, igan¹²¹ gaitean¹²² Jangoikoaren etxe saildu artara.

111 'pobretan': bizigabeen forma aukeratuz. Arrunta

112 Osagarri zuzena genitiboan: arrunta Baztanen, batez ere Elizondotik goiti. Testuan berean badira adibide gehiago.

113 Beti akabaila hau aukeratzen du ('peligroetarik' eta ez 'peligroetatik'), hau baita Baztanen maizen aditzen ahal dena, 'peligroetaik' bezala ahoskatua, tarteko 'r' hori arrazoi fonologikoenegatik kenduz (ikus 2. kapitulua).

114 Izenik gabe, Pagola, RM & alii, 1995, 317-318 or.

115 Testu hau ez dugu aitzinekoa bezain egokia ikusten hango mintzaren berri emateko, batez ere *genduen*, *zenduen* horiek direla tarteko, arrotzak baitira Baztanen. Badira zenbait gauza Baztanen nekez adituko direnak.

116 Baztanen 'untan' ('honetan').

117 Baztanen arrunta da (ikus Etxenikeren testuak ere) izen sintagma datiboan espresuki ageri bada, aditzarekin ez egitea komunztadura ('erran balieza' dabil predikariak, ez 'erran baliezaio'. Berez, 'balieza' behar luke. Hibrido bat egin du, Baztanen, gure ustez, ibiltzen ez den adizki bat paratuz).

118 Pentsatzen dugu *prepara* dela hor.

119 Hau ez dugu ezagutzen Baztanen. Han arruntago: *intzazue*, *intzaze*. Etxenikek ere (ikus beheitiago) *otoitz'izu* dakar.

120 Baztanen palatalizatua: *siñeste*.

121 Euskara landuago dabil: Baztanen *igen* da ibiltzen dena, eta *iyen* ere batzuetan.

122 Adizki hau arrotza da guretzat.

Bañan¹²³, nondik igan bear dugu edo zer bide artu bear dugu? Penitenziaren bidea, zerengatik bekatu mortalean eroriezkeroz, ez da berze biderik zerurat goateko, baizik penitenziaren bidea. Bañan penitentzia egiatzko bat egiten badugu goanen gara zeruko bienabenturatu konpañia artara, arrimatuko zaiku zeruko gloria saildu ura, Penitentiam agite appropinquavit enim in vos Regnum Dei. Doktrina au predikatzen zuen San Juan Bautistak, au bera predikatzen zuen Jesu Kristoren Magestadeak.

Baldin konserbatzen baduzu bautismo sailduan errezibitu zenduen¹²⁴ grazia, bide ona daramazu, zeren zabilzan inozenziaren bide apazible eta delizioso batean. Bi bide dira bakarrik zerurat daramatena arima bat: bata inozenziarena, eta berzea penitenziarena; inozenziarena darama bautismo sailduan errezibitu zuen grazia saildua bere estadian konserbatzen duenak. Bañan nor izanen da ain ditxosoa? Niri iduritzen zait suzeditzen¹²⁵ zaikula belei gertatzen zaien gauza: beleak sorzen dira suriak¹²⁶, bañan denbora gutiren barrenean belzten dira, ikusten tugun bezala, galzen dutelarik sorzean ekarri duten xuritasun ura. Au bera¹²⁷ gertatzen zaiku geienei, bautismo sailduan sorzen gara Elizara xuriac, estola xuriarekin eta lentabiziko graziaren bestidura xuriarekin, zeñekin egiten gara¹²⁸ Jangoikoaren seme adoptibo eta zeruko gloriaren heredero; konserbatzen dugu xuritasun au, bautismoan artu genduen¹²⁹ graziaren xuritasun, edo edertasun ura? Arrazoñera allegatzen denean bat, eta oño arrazoñaren argitasun zerbait allegatzen zaionean aur bati, zenbat malizia, zenbat inklinazione gaisto ez du manifestatzen? Etsaiak zenbat tiro eta gerra ez dio egiten Jangoikoaren grazia saildu artarik bilusteko? Zenbat tentazione ez du experimentatzen espezialki purezaren kontra? Itzuli zazu katolikoa konsiderazioneko bista denbora etara, reflexiona zazu zer pasazen zitzaizun, eta ikusiko duzu, zein fite asi zen zure arima belzten, erran dezagun ula¹³⁰, eta nola galdu zenduen inozenziako estadu feliz eta ditxoso ura.

Hamargarren testua¹³¹: *San Bartolomeren sermoia*

Graziaren birtuteaz eta indarraz minzatzerakoan etzazuela pensatu aditzera eman nai dutela saildutasuna eta noizepeinka ikusten diren birtuteen eforta andiek

-
- 123 Gure uste arruntenak *baña* edo *baño* dira, azkeneko 'n' hori gabe
 124 Ez dugu uste Baztangoko har daitekeen adizki hau.
 125 Arrotza Baztango euskaran.
 126 'xuria' erran nahi du.
 127 'hau bera', aski jatorra.
 128 Erlatibo mota hauetan, anitzetan, ez da menderagailurik ageri.
 129 Ez da Baztangoa.
 130 Baztanen 'hola', gaur egun bederen.
 131 Izenik gabe, Pagola, RM & alii, 1995, (379-380. or.).

Jangoikoaren graziaren lanak direla bakarrik; kusi bear dena da lan untarako Jangoikoaren lagunza nola gizonak bere partetik inahala¹³² egitea. Adanen bekatuaren ondorioz gelditu zen gizona leze batean eroria eta bera bakarrik niolareko¹³³ moduan ezin atera daiteken baten estaduan. Alakoak, agerian dago, bear lukela kanpotik norbaiten lagunza, baño ezluke au aski, goititik soka bat botarik ere ateratzekotan bear du beitikoak soka artu eta bear zaio itxiki¹³⁴. Bada modu berean gizonak, bekatuaren lezetik aterako bada, zerua meziteko badu birtutearen bidean pausu batik ere aitzinatzeko bear du graziaren laguntza, baño bai berak ere inahala egin bear du bere partetik graziaren sokatik itxikitzen zaiolarik. Baña badakizue beitikoak ez dezakela obligatu soka botatzera goitikoa, eta bein edo bertze baizik amar, ogei edo egun aldiz lagundu nai izan, soka botatu¹³⁵ eta ez balitzaioke itxikitzen beitikoa, ez lioke gero arrozenarekin faltateko¹³⁶ goitikoak eskatzen diolarik? Atera bedi emendik kontua zeñ arrosoñ andiarekin erretiratzen dituen Jangoikoak bere graziak ain bertze aldiz despreziatu izan duenarenganik. Jaunaren graziak dira konfessoreen exortuak, Predikarien eta liburu onen abisuak, izpiritura etortzen diren eternidadearen, zero eta infernuaren eta eriotzieren¹³⁷ oroitzapenak eta izpirituak bertze mila gogorazio; konbertitzeko, bekatua uzteko animaren salbazioari kasu egiteko biotzean. Sentitzen diren asko mugimentu. Alako okasioneetan bada, Jangoikoaren abisu sainduak sentitzen diren denboran, mugimen onek ek biotzean itotzea, pensamentu onek¹³⁸ tristeak direlaketz izpiritutik aizkatzea, okasionez ez aprobetxatzea da Jangoikoaren graziak despreziatzea edo graziaren sokari ez itxikinai izatea. Baño al kontrario graziaren sokari lotzenaio abisueta idatzartzen dena, Jaunaren miserikordiak gisa batera edo bertze konbidatzen duen orduan konfesionen on bat egiteko diligenzia penatzen asten dena, biotzera etortzen diren mugimentu eta deseiu onei et izpiritura etortzen diren pensamentuei lekua emanik animaren salbazioneari kasu egiten asten dena. Eta aldagoke¹³⁹ nion jaquinik soil xuhurki ibiltzen dela Jangoikoaren graziak despreziatzen eta ondatzen dituztenekin, baño ausarki eta ongi aprobetxatzen dituztenekin, arrosoñ den bezala. Orain ofrezitu datzueten asuntoaz zuen eta animen probetxuekin lagun nazazue zeruko grazia bilatzen artzen dugularik enpeñu aingiruen Erregina eta salutazen dugularik aingiruarekin batean. A.M.

132 Erran, *inela* erratan da, eta *inala* ere, nahiz ez gehiegi. Erdiko bidea hartu du idazleak.

133 Irudi du lehenago arruntagoak zirela 'niholako' eta holako formak. Gaur egun, hauek ere aditzen ahal badira ere, arruntagoak dira 'inolako' bezalakoak.

134 'itxiki' dabil predikariak, baina arruntagoa da 'atxiki', duda gabe.

135 Arrotza Baztanen: 'bota' da han ibiltzen duguna.

136 Arruntean 'faltatzeko'.

137 Arrotza, gure ustez.

138 Harrigarria hau hango testu batean.

139 Adizki hauek ez dira ibiltzen gaur egun.

Munduan ebangelioa edatzeko bilatu izan balitu gure salbatzaleak Erregeak jakinduria anditako¹⁴⁰ batzuek, edo lan andi artarako¹⁴¹ egokiak ziren gizon andiren batzuek, orduan izan ziteken errateko bidea lege saindu ura gizonen burutik ateraia zela, eta aren ezartzea gizonen lana; eta orduan eskusa zerbait izan zezaketen, gizonak ebangelioa ez errezibitzeko; baño gizon guziak obligatu nai baitzituen Jangoikoak ebangelioaren sinestamentura, eta ez utzi salbatzeco biderik lege untarik kanpoan, motibo untan ebangelioari emannai izan zition Jangoiko egiezkoren legea eta zerutik etorria zelako senale guziak, ekentzeagatik gizoni eskusa, pretesto eta esenkusa guzia lege eta doktrina saindu unen errecibitzeko.

(379 -380. orr.)

Hamaikagarren testua¹⁴²: *Elizondoko doktrina bat*¹⁴³

Kredoa

Nik sineste' 'ut Jangoiko Aita¹⁴⁴ guzizdezakenain baitan, zeruain eta lurraïn kriaizalean, eta Jesukristo aren seme bakar gure Jaunaïn baitan, zein kontzebitua izan zen Izipiritu Sainduaïn obraz, eta graziaz, sortu zen Virginia Mariaïn ganik, padezitu zuen Pontzio Pilatosen manuaïn azpian, gurutzifikatu zuten, il, eta enterratu zuten, jautsi zen infernuetara, irugarren egunean piztu zen ilen artetik, igan zen zeruetara, eta dago jarriik Jangoiko guzizdezakenain eskuñeko aldean, andik etorri bear du ilen eta bizien juzkatzera¹⁴⁵. Nik sineste' 'ut Izipiritu Sainduaïn baitan, Eliza saindu katolikoan, Sainduen komunionean, bekatuen barkamenduan, aragiaïn piztean, bizitza sekulakoan. Amen.

Aita gurea¹⁴⁶

Aita gurea, zeruetan zaudena, santifika bedi zure izena, betor gure gana zure erreina, 'in bedi zure borondatea zeruan bezala lurean ere. 'Man diezaguzu egun gere

140 Hau ere arrotza gaur egun. 'Huandiko' da ibiltzen dena.

141 Mintzo bizian 'hartako' zalantza gabe.

142 P. Salaburu, 1986, "Baztango euskalkiaz: Elizondoko Doktrina bat" in ASJU XX-3, 817-844.

143 Etxenikeren eskua ikusten da hemen. Fidagarria arras, lan ezin hobea egin zuen Bonapartek eskatutako itzulpenekin. Hala ere, zenbait puntutan euskara landua da, ez 'han jendeak ibiltzen duen bezalakoa'. Kontuan hartu behar da, gainera, bera urdazubiarra zela sortzez.

144 Hitz egitean: *aite* (Baztango herri gehienetan), edo *aitta/atta* (Basaburuko herrietan eta Oronozen). Horregatik diogu euskara landua ibiltzen duela Etxenikek.

145 Beste batzuetan egin dugun gisan, berriz ere azpimarratu nahi dugu hemen Etxenikek ibiltzen duen prosa naturala, bortxatu gabea, hitz ordena kanonikoa (SOV) errespetatzen ez duena aunitzetan.

146 Hizkera arruntean: *aite guria*.

eguneroko ogia, barka dietzagutzu guri geren zorrak, guk zor gaituztenei barkatzen dieztegun bezala, ta ezkaitzatzula utzi tentazioan erortzera, baizik libra gaitzatzu gaitzetik. Amen.

Ave Maria

Ave Maria graziaz betea, Jauna da zurekin, bedekatua zu zara andre guzien artean, eta bedekatua da zure sabeleko fruitua Jesus.

Santa Maria

Santa Maria, Jangoikoain Ama, zuk otoitz 'izu gu bekatarien gatik, orai eta gure eriotzeko orduan. Amen.

Salbea

Jangoikoak salba zaitzala Erregiña, miseriordian Ama, bizitza, gozotasun eta gure esperantza. Jangoikoak salba zaitzala, zure deiez gaude Ebaïn hume desterratuak, zu gana gaude suspiroz, sentimentuz, eta nigarrez nigarrezko balle untan¹⁴⁷. Ea bada Señora, gure Abogada, itzul zitzu gure gana zere begi miseriordioso oriek, eta destierro unen ondoan erakutsi diezaguzu Jesus, zure sabeleko fruitu bedekatua. ¡O biotz guziz ezta! ¡O urrikalmenduz betea! ¡O Maria Birgina gozoa! Otoitz 'izu gu gatik, Jangoikoain Ama Saindua, merexi dezagun Jesukristoïn promesak erdiestea. Amen.

Jangoikoain legeko Manamenduak dire amar: lenbiziko iruak Jangoikoain honrakoak eta bertze zazpiak lagun projimoain probetxukoak.

(818. orr.)

Ez dakit kausituko ote den Ebangelioan bertze birtute bat maizago enkargatzen zai-kuna humildadea baño. Erran daiteke kasik, guri humildadea erakustera bakarrik etorri izan zela Mundura Jaungoikoaren Semea, ongi jakinik aingiru bekatarien eta gure lenbiziko guratsoen soberbiatik sortuak direla Munduaren lenetik akaballaraño gaitz guziak. Au dela medio¹⁴⁸ dudarik gabe, gure Salbatzaleak, eldu baitzen Mundura bekatuak eginikako kalteak erremediatzera, eman nai izan zakun ejemplu ain aundia bere humildadeaz.

Egjazki examinatzen badira gure Salbatzalearen misterioak, egiteak eta bizi modu osoa, ezda nion ere kaustuko anditasunik: bere eskuan zaukan bere Amatako zukana, Munduan lenbiziko Erregiña izatea baño disponitu zuen izan zadiela, garbia eta Saindua bai, ezin geiago, baño¹⁴⁹ pobrea denbora berean, eta bere clase apalarengatik

147 *nigerrez nigerrezko balle unten* hizkera arruntean.

148 Adierazpide hau arrotza egiten zaigu hango euskaran.

149 Ikusten denez, '-n' gabe ematen du, gure ustez egokiagoa dena.

munduan guti zagaturik bizi zena: Aziendendako destinatua zagon paragea autatu zuen bere sor lekutzat, eta gabela siaskataco¹⁵⁰; Zurgin pobre bat autatu zuen uatz Aitatako, zeñen zerbitzuan bizi izan zen ogei eta amar urtez: iges¹⁵¹ egiten zuen jendenganik honratu nai izan zuten denboran; eta azkenik autatu zuen eriotze guzietan deshonragarriena; Zein baitzen denbora artan gurutzeko eriotzea. Orañic orai ere pasioneko Misterio guziak pasatu ondoan, Zeruan gloriaraz beterik aurkitzen den denboran, gure bistara modu ezin geiago humillean presentazen, da, edo gurutzean itzez josia, edo Aldareko Sakramentu Sainduan bere anditasun¹⁵² guzia hostia ttipi baten negurrira biurturik.

Obraz eta egenploarekin bezala, itzez ere etzaizu ixiltzen gure Salbatzalea humillac izan gaitetzila agintzetik Sn Mateoren Evangelioan erraten daku: *Discite á me quia mitis sum et humilis corde*. Ikasazue niganik zeñen humilla naizen. Salomon gizon jakinsun aren medioz erraten digu: Zenbatenez doai eta prenda geiago autesten diozun zere buruari orduan eta humillago izan zaitezi.

Hamabigarren testua¹⁵³: *Ruthen liburua*

II. Kapituloa

Ruth bearrak bortxatuik badoaie buruka biltzera Boozen landetara, zeñek errebitzen du begi tarte on batekin. Itzultzen da Ruth bozkario aundiaikin bere amiarrebañ gana garagarrekin eta bazkaritik soberatu zitzaionaikin; eta aren ganik jakiten du Booz bere aidea duela.

1. Eta aren senarra Elimeletxek bazuen aide bat, gizon poderosoa eta soil aberatsa, deitzen zena Booz.
2. Eta erran zion Ruth Moabarra bere amiarrebañ: manatzen balin baizu, goaïn naiz landetara, eta bilduko 'tut igitarietara eskapa daizken burukak, non nai nik izan dezaten gracia aita familiakoen batekin, begi tarte ona nerekin empleatzeko. Eta arek erresponditu zion: Zoazi, nere alaba.
3. Atra zen bada, eta biltzen zituen burukak igitarien gibelean. Eta gertatu zen bazter arek izatea bere jabetako Booz deitua zen bat, zein Elimeletxen aidetasuneko baitzen.

150 Gure ustez, maizago *seaska*, eta ez *siaska*. Amaiurren *sieska* ibiltzen da.

151 Hango euskaran arrotza egiten zaigu, erabiliago *eskapatu*.

152 Hemen ere badirudi erabiliago dela *haunditasun*.

153 P. Salaburu, 1980, *Baztango euskalkiaz* (1), Deustuko Unibertsitatea, 146. or.

154 Arrunta Baztanen: datiboa agerian bada (mutilei) ez da beharrezko datibo marka paratzea aditzean (dut).

4. Eta una non agertzen den bera Bethlehemdik, eta erden dabe igitariei: Izan bedi Jauna zuekin. Eta ek erresponditu zioten: Jaunak bedeika zaitzala.
5. Eta Boozek erran zion igitariak kuidatzen zituen gazteaï: Noïna da neskatz' au?
6. Zeñi erresponditu zion: Au da Moabgo lurretik Noemikin etorri zen Moabar ura.
7. Eta otoiztu zuen gibelean geldi zaizken burukak biltzeko igitarien pausuak seguituz; eta goizetik asi ta orai artañoakoan landan dago, eta momentu batez ere ezta bere etxera itzuli.
8. Eta Boozek erran cion Ruthi: Aï zazu, nere humea, etzoazila bertze landetara buruka biltzera, eztare toki untaïk apartatu; baño junta zaite nere neskatoekin,
9. Eta non nai ebaki dezaten, segi zitzu. Zergatik eman dut nere mutilei ordena ez ñiorc zu inketatzeco; eta egarritzen zarelaïk, zoazi probisionetara eta edan zazu nere mutilek edate' 'uten uretik.
10. Arek orduan, makurtuïk bere aupegia lurreraño, 'in zion salatazio aundi bat, eta erran zuen: Nondik eldu zait neri zorion au zure begietan arpatzea grazia eta zuk jakin nai izatea ni nor naizen, emazteki arrotz bat naizen denboran?
11. Zeñi erresponditu zion: Kontatu daztate zure amiarrebaïkin 'in zintuen gauza guciak zure senarra il ondoan; eta utzi 'tutzula zere aideak eta zere sorlekua, eta 'torri zarella lenago 'zaützen etzinuen jendetara.

Hamahirugarren testua¹⁵⁵: *San Mateoïn ebangelioa*

II. Kapituloa

1. Bada, sortu zelaïk Jesus Judako Bethlehemén Herodes erregeaïn denboran, iruzkia atratzen den aldetik etorri ziren Magoak Jerusalemenera,
2. Erten zutelaïk: Non da sortu den juduen erregea? Zeren ikusi ginuen aren izarra iruzkia atratzen den aldean, eta eldu gara aren adoratzera.
3. Eta Herodes erregeak aïtu zuelaïk oi, izan zen beldurtua, eta Jerusalem guzia aïkin batean.

155 P. Salaburu, 1980, *Baztango euskalkiaz* (1), Deustuko Unibertsitatea, 146. or.

4. Eta bilduik sazerdotén printzipe guziak eta puebloaïn eskribak, galdetu zaben non sortu beartzen Kristo.
5. Eta ok erran zioten: Judako Bethlehemen, zeren ala profetak eskribitua baita;
6. Eta zu, Bethlehem, Judako lurra, etzara ttipiena Judako lenbicikoen artean, zeren zure ganik atrako da nere Israelgo pueboa gobernatuko duen aitzindaria.
7. Orduan Herodesek, deituik sekretuki Magoak, jakin zuen eken ganik kuidadoaïkin, zein denboraz agertu zitzaien izarra.
8. Eta ek Bethlehemera igortzen zituelaïk, erran zaben: Zoazte, eta informa zaitze ongi aur artaz; eta arpatze' 'izuen ondoan, jaquinaz¹⁵⁶ datazue, ni ere noaien aren adoratzer.
9. Ek bada, erregeïn ganik oï aïtu zuten bezen laixter, goan ziren. Eta iruzkia atratzen den alderdian ikusi zuten izarra, eken aitzinean zoaiela, gelditu zen artaño, alle-gatuïk aurra zen lekuaiïn gañerano.
10. Eta izarra 'kusi zutelaïk, gogorki alegratu ziren.
11. Etxean sartu ta, arpatu zuten aurra bere ama Mariaïkin, eta auspeska adoratu zuten; eta beren tesoroak edekiïk, eskeñi zitiozten erregaloak, urre, intsentsu ta mirra.
12. Eta errespuesta izanik ametsetan ez Herodesen gana itzultzeko, bertze bide bate-tik itzuli ziren beren tierrara.
13. Ec goan ondoan, or Josephi agertzen zaio ametsetan Jaunaïn aingiru bat, erten diolaïk: jeiki zaitte eta ar zitzu aurra ta bere ama, eta iges 'izu Egiptora, eta zaude an nik erran artañoakoan, zeren gertatuko da, Herodesek bilatuko duela aurra, ilaz-teko.
14. Jeiki 'ta, Josephhek artu zituen gauaz aurra ta bere ama, eta goan zen Egiptora.
15. Eta an egon zen Herodes il zen artañoakoan; kumplitua izan zaien Jaunak profe-ta baten medioz mintzatu zuena, ziolaïk: Egiptotik deitu nuen nere semea¹⁵⁷.

156 'jakinarazi'.

157 Hau da ematen dugun Etxenikereren azken testua. Aipatu gabe utzi ditugu bertze ohar aunitz, gauza bera behin berriz erraten ez ibiltzeagatik. Baina, hastean erran dugun gisan, Etxenikek euskara landua ibiltzen du (neurri batean, jakina) eta bokal asimilazio edo disimilazioak, arruntean, ez ditu idatziz paratzen: berez, *kunplitue*, *izen*, *mintzetu*, *semia*... behar luke izan, azkeneko paragrafoko hitzak bakarrik aipatzeagatik.

Hamalauugarren testua¹⁵⁸: *Euskararen giroa Baztanen*

Euskararen egoera Baztanen bizkor dagoen ala¹⁵⁹ ez behar genuke erakutsi. Ni baztandarra naizenez gero ezagutzen dut¹⁶⁰ nere sor-lekua¹⁶¹ eta ezagutzen dut hemengo jendea. Zer erranen dut bada euskararen¹⁶² egoerari buruz? Erran dezaket oraindikan¹⁶³ bizirik dagola Baztanen eta gure eskualdean bizi garenetatik ehuneko hiruetan hogei-tamar edo gehiago ere euskaldunak gabela. Egia erran nere sort-herria¹⁶⁴ Elizondo dugu herririk erdaldunena, haundiena ere bai eta badakigu ere herri haundietan jendea lehenago erdalduntzen dela eta euskarak galtzen duela indarra¹⁶⁵. Gazte eta haur elizondar gehien gehienek ez dakite euskaraz, hori egia da¹⁶⁶, bainan hortako dine¹⁶⁷ badira¹⁶⁸ ere aunitz gazte eta haur euskaraz ederki dakitenak. Gaitz hau ez da oraikoa. Ni hemen sortua¹⁶⁹ naiz eta nere ama ere bai eta baita¹⁷⁰ ere nere aitetxi eta amatxi eta aintzinekoak ere dudarik gabe¹⁷¹. Hortaz badakit hemengo berri. Lehenago ere gure haur denboran duela berrogeita¹⁷² hamabortz urte Elizondoko kaletarrak arraz¹⁷³ erdaldunduak zauden, orduan¹⁷⁴ ere Elizondoko karriketean erdara nagusi. Kaletarrak bai erdaldunak baina¹⁷⁵ ez ordea hauzokoak eta baserrietan bizi zirenak, hok guziak¹⁷⁶ euskaldun garbiak¹⁷⁷ baitziren. Denbora hartan baserrietan eta herri ttipietan ez zen erdararik. Elizondoko herriaren¹⁷⁸ erdalduntzea ez da oraikoa, gaitz hau lehenagotik

-
- 158 Mariano Izetak ez du aurkezpen beharrik. Euskaltzale zintzoa, Baztango euskararen lekuko argia da, nahiz idazteko orduan euskara landua ibiltzen duen eta bertze euskalkietako gauzak ere sartzen dituen. Hemen oharrak egin ditugu, garbi utzi nahian zein den Baztango mintzatzeko modua, alde batetik, eta nola ibiltzen duen hango euskara M. Izetak, bertzetik. Testua, Izeta 1979.
- 159 Baztanen nekez erraten da *ala* bezalakorik, testuinguru guzietan *edo* ibiltzen baita.
- 160 Hizkera bizian: *zautze'ut*. 'Hizkera bizia' deitzen diogu hango hizkera arruntari.
- 161 Hizkera bizian: *sorlekue*.
- 162 Hizkera bizian jende guziak *eskuara* erraten du.
- 163 Hizkera bizian: *oñiken*. Euskara idatzian horren parekoena *orainikan* litzateke.
- 164 Hizkera bizian: *sorterrie*.
- 165 Hizkera bizian: *inderra*.
- 166 Hizkera bizian: *oi egie da*.
- 167 *adine* maizago, gure ustez. Amaiur aldera, maizago *dine*.
- 168 Hizkera bizian *badire*.
- 169 Hizkera bizian: *sortue*.
- 170 Hizkera bizian: *baite*.
- 171 Hizkera bizian: *dudik gabe, doike*.
- 172 Hizkera bizian: *berrogeite*.
- 173 Hizkera bizian: *arras* edo *errex*.
- 174 Hizkera bizian: *orduen*.
- 175 Pixka bat goitiago *bainan* ibili du. Gure ustez, maizen entzuten dena '-n' gabea da eta aldaera palatala.
- 176 Hizkera bizian: *guziek*.
- 177 Hizkera bizian: *garbiek*.
- 178 Hizkera bizian: *erriein*.

dator¹⁷⁹, ia lauetan hogeitau urte eta gehiago hain segur. Bainan gezurra¹⁸⁰ iduritzen bazai-
gu ere Elizondoko herria orai baino erdaldunago egona da. Orai badirudi¹⁸¹ berpiztu
dela eta herrian¹⁸² euskara gehiago mintzatzen¹⁸³ dela. Bainan horrek badu bere arra-
zoina¹⁸⁴. Elizondo haunditu da bainan zorionez Baztango jendetaz horniturik, base-
rriak¹⁸⁵ utzi dituztenak¹⁸⁶ eta bertze herrietatik¹⁸⁷ Elizondora bizitzera etorri¹⁸⁸ direnek
haunditu dute gure herria¹⁸⁹. Beti ere herria¹⁹⁰ euskaldun¹⁹¹ jendez hornitzen delarik
pozgarri da. Gainera ikastola ere badugu eta ehun eta berrogei hurrekin. Halere
erdara beti nagusi eta ez hemen bakarrik, baita Baztango bertze herri aunitzetan ere.
Lehenago erro errotik herri euskaldun zirenak eta haurrak ere karriketan euskaraz
mintzatzen, orai erdaldunduta ikusten ditugu. Aunitz badira beren etxetan erdaraz
mintzatzen¹⁹² direnak, guraso euskaldunak eta kasik erdaraz ez dakitenak maiz aditzen
badugu beren hurrekin erdaraz ari direla. Erran dezadan horixe dela Euskal Herriak
duen gaitzik haundienetako bat. Gurasoen errua euskararen galtzea, kontzientziarik
eza¹⁹³, hau da hitz egokia. Bainan zorionez Baztanen ez dira denak berdinak¹⁹⁴, badi-
ra guraso euskaldunak beren etxeetan beti euskaraz mintzatzen direnak. Euskara bizi
da baztandarren ezpañetan¹⁹⁵ eta haurren ezpañetan ere, denak ez baitira erdaldu-
nak. Eta orai baztandar haurren artean eginikako¹⁹⁶ inkesta¹⁹⁷ interesgarria ager deza-
dan. Inkesta hau Baztango Eskola Batuetan (Concentración Escolar) egina da.

(569-572. or.)

-
- 179 Hizkera bizian: *eldu de*.
 180 Hizkera bizian: *gezurre*.
 181 Baztanen: *iduri du*.
 182 Hizkera bizian: *errien*.
 183 Hizkera bizian: *mintzetzen*.
 184 Hizkera bizian, palatalizatua: *arrazoñe*.
 185 Hizkera bizian: *baserriek*.
 186 Hizkera bizian: *tuztenak*.
 187 Hizkera bizian: *errietaik*.
 188 Hizkera bizian: *torri*.
 189 Hizkera bizian: *errie*.
 190 v bizian: *errie*.
 191 Hizkera bizian: *eskualdun*.
 192 Hizkera bizian: *mintzetzen*.
 193 Nekez entzuten dira halakoak hizkera bizian.
 194 Hizkera bizian: *berdinek*.
 195 Hemen aldaera palatala ibili du, baina testuinguru antzeko guztietan (VinV) palatala egiten da.
 196 Hau arrotz egiten zaigu han ikasitako euskarari, baina Amairuren *inikako* ibiltzen da.
 197 Hitz berria, jakina.

Hamabosgarren testua¹⁹⁸:

Apeztegi'ar Bitorio, Irurita'ko Apaizgaiak egindako mintzaldia

Jaun goretsiak eta euskaldun guziok

Eskuarari zor zaion tokia ematera bildu gara eskualdunok¹⁹⁹. Bildu garen guzietan txikiena, gutxiena²⁰⁰, azkena naizelakotz, eskatzen dautzuet, barkatzeko nere ausardia, emen txutitzean²⁰¹, itzalditxo baten egitera.

Etzazuela uste, ez gauza aundi ta berririk aditu niganik; belaietako soroan estalitako loretxo txiki bat bezala nere naia izango zen²⁰², estalpetxoan isil-isila egotea, aditzen, entzuten, emen bildu diren gizon jakintsuen argitasunak.

Baño²⁰³ neretako agurgarriak diren jaun batzuek eskatu didate zer bait emen adiraztea eta ezin ukatu izan dut, eskario neretako goragarri²⁰⁴ ori.

Amayur'ko erri zorionekoan sortua, nere begiak len ikusi dutena, izan dira, euskal-mendien aunditasuna, zeru zolaren baztergabetasuna, eguzkiaren argia, ilargiaren amets gaia²⁰⁵; Jaungoikoari eskuaraz egiña²⁰⁶ nere lenbiziko otoitza, eskuararen ez-titasunaz betea esatean lenbiziko itza zeruan aurkitzen den nere biotzeko eta ezin antziz-tako amatxo maiteari ¿nola bada ez dut nabaituko nik nere barren barrenean²⁰⁷ eskuararen alderako sukarra²⁰⁸?

Eskuara gure izkuntza²⁰⁹ baztarturik²¹⁰, zokoraturik, lotsa-alkez²¹¹ beterik, iñoren begietara agertu ez daitekera bezala bizitu²¹² da orain arte.

198 Apeztegia 1926 (Amaiurren sortua).

199 Plural hurbil hauek (erakusleetan ez bada) ez dira aditzen hango euskararen kasu gramatikaletan.

200 Hitz hau ere ez da ia-ia aditzen: *gutiena* da arrunta.

201 Baztanen *xutitzean* edo *zutitzean*, baina ez *txutitzean*.

202 Baldintzen ondorioa emateko, alegiazkoetan ere, modu ibiliena Baztanen.

203 Normala den bezala, '-n' gabe ematen du.

204 *eskario* eta *goragarri*: guretzat arrotzak.

205 Esaldi osoa euskara landuan emana: Baztanen normalena da *sortue*, *begiek*, *izen dire*, *aunditasune*, *iduzkiaren argie*, *ilargiain*,... Hemen ikusten da nola sortzen diren batzuetan hibrido hauek: autoreak hango euskara ongi ezagutzen du, hori bistan da, eta hango ukitua eman nahi dio batzuetan (*eskuara*, *eskualdunak*), baina horrekin batera ez ditu errespetatzen bokal asimilazio eta disimilazioak.

206 Amaiurko batek nekez holakorik. Arruntean palatalizatu gabe.

207 Maizago, gure ustez, barne-barnean.

208 Izetak ere dakar sukarra bere hiztegian. Gure (hango) euskararen arrotza, baina Amaiurren sukerara erraten da.

209 Hizkera bizian: *izkuntze*.

210 Hizkera bizian: *baztertuik*.

211 Arras literarioa, hau ez du inork ere erraten han.

212 Ez da Amaiurko edo Iruritik forma. Bai, ordea, Oronoz eta Basaburu aldekoa, gure grabazioek erakusten dutenez, non eta hiztunek ez duten beren euskara 'hobetu' nahi izan.

Eta ez gara eskualdunak izan gure izkuntza atera dugunak ilunbetatik. Bertzek goititu dakute erbia, Alemania'rrak esnarazi bear izan gaituzte gure izkuntzaren aberastasun aundia oartzeko. Ta oraindik ere gure Eskualerri maitea ¿atera alda gero bere lozorrotik? Nork siñetsiaziko dio ametsetan dabilztenen esanak, ez direla gero oiek?

¡Oi! ez naiz arritzen, ez ¡ain gaitzetsia ikusi bai²¹³ du gure erriak bere izkuntza! ¡Zakurren izkuntza ori betiko utzi dezala erran bai zaio! ¡deabruak berak ikasi ez dezaken mintzaira ori, iñoren aitzinean ez aipatzeko aditu baitu ainbat aldiz!

Azkeneko gure erriko semeak berak amagandik ikasitako mintzairaz irri egiten dute; ta beren amari berai erran ere bai diote, jende alke-gabe, arronta batzuek, bertzek mintzatu ez dezaketen mintzaira zela berena; ta argatik berei eskuaraz mintzaten ba zioten, etziotela erderaz baizik erantzuten.

Eskualdun aunitz lo-zorro ortatik esnarazi naiez eginen dizuet bada nere mintzalditxo au. Iru gauza nai dazkitzuet adirazi: 1. Zertarako²¹⁴ egiten diren Eskual-egun ta eskual-jaiok; 2. Zeñen utzia egon den eskuara gure artean eta 3. Iruñako Apez-gaitegian eta Ikastetxe edo Institutoan egiten dena²¹⁵.

(45-46.or.)

Hamaseigarren testua²¹⁶: *Elizondo-Aldude errepedea = erokeria*²¹⁷

Baztango udaletxeak, Elizondo eta Aldude lotuko dituen errepede berriaren egitasmoa abiatu du, Baileitik, Belaungo lepon²¹⁸ barna joanen dena. Alta, Nafarroako Gobernuarekin izenpetutako hitzarmenean, bide baten moldatze eta hobetzeari buruz solasten dira, ez errepede berri baten egiteari buruz. Hortaz, gauza bat da onartu dena

213 Hemen ez da asimilaziorik gertatu. Egileak hola ematen du *bait* menderagailua. Gure ustez, holakoetan arrunta da Baztanen ondoko aditzaren hasierako kontsonantea ahoskabe bihurtzea: *baitu*.

214 Hizkera bizian: *zertako*.

215 Gauza berak ez errepikatzeagatik ez dugu oharrik egin azkeneko paragrafoetan.

216 *Tiipi-Tiipa*, 364. zbk., “Irakurleak mintzo” saila.

217 Testu hau gaur egungo testua da, J.O.-k *Tiipi-Tiipa* herri aldizkarian eskribitua. Aldizkari hau Bidasoako erreka guzian, Leitza, Goizueta, eta inguruetan banatzen da (posta gastuak kobratzen dizkiete zenbait udaletako herritarrei eta Baztan-Bidasoatik kanpo bizi direnei), eta han eskribitzen dutenak saiaten dira, neurri batean bederen, tokiko mintzoa islatzen artikuluetan, behar denean euskara batutik aldenduz. Baina holako ereduak asmatzea uste baino zailagoa da, batzuetan hango euskaran sekula aditu ez diren gauzak sartzen baitituzte eta, bertze batzuetan, inkoherenzietan erortzen baitira, kanpoko hitzak sartuz hango mintzoan egunero ibiltzen diren bertze batzuen orde. Hemen berean, izenburutik hasteko, errepede hitza berria da hango euskaran, beti *karretera* izan baita. Eta baztandarrek, zerbait erratekotan, erokerie erran baitute, ez erokeria. Hala ere, Baztango mintzo batuan idatzi nahi baldin badu norbaitek, hemen J.O.-k egin duen aukera bera egin beharko luke.

218 Badirudi inprenta hutsa dagoela hemen, *lepoan* behar baitu

eta bertzea, egiten hasi direna. Hortik ondorioztatzen ahal da, errepide berri honek ez duela inongo babes legalik. Ildo horretan, begibistakoa iduri du, egiten ari diren sos publikoen erabilera, ez dela bidezkoa²¹⁹.

Guzti hori²²⁰ larria bada, larriagoa²²¹ da ustezko bidearen moldatze eta hobetzea justifikatzeko erabiltzen²²² diren "arrazoiak". Erraten diren gauzak ez daude ikerketa bakar batean ere oinarrituak, ez da datu bakar bat ere aipatzen, ez da inongo diagnosirik. Hortaz, erraten diren gauzek, ez dute inongo funtsik, ez dira enpirikoak ez objetiboak ere, aldarri erretorikoak besterik²²³ ez dira... Gauzak horrela, onartezina da inguru baten xehatze eta hondatzea modu horretan egitea.

Inguru honek, Baztango gainerako tokiek bezala, jasaten duen presioa ikaragarria da. Hor berean, Berdaitz, Zarkindegi, Iñartze, Irurita-barrengoko pista eta Beatzundik Belaunerat doana atxematen²²⁴ ahal ditugu. Mendi guztiak²²⁵ pistaz tarratatuak ageri zaizkigu, azkeneko aldian erran modu batez, Erdizen zundaketak egiteko ireki den pista nagusietako bat halala uztea erabaki du udalak, orain errepide berria Belaunen

219 Ikusten denez, paragrafo hau baztaneraz eskribitua da... edo bertze zein nahi euskalkitan, eredu batua 'jan' baitu. Hala ere, bada hori baztaneraz idazteko modurik? Aukera bat, hizkera bizia hautatuz gero, hau izan daiteke (alde batera utziko ditut toponimiako izenak): *Baztango aiuntamentue, Elizondo eta Aldude lotuko tuen karretera berriain lanekin abietu da, Baileitik, Belaungo lepuan barna ganen dena. Alta, Nafarroako Gobernuakin firmetuko kontratuen, bide baten moldatze eta hobetzearen gañian solasten dire, ez karretera berri baten itearen gañian. Hortaz, gauz bet da onartu dena eta bertzia, iten hasi direna. Horren ondorioz erraten ahal da, karretera berri hunek ez duela inongo oinarri legalik. Hala, begibistakoa iduri du, iten ai diren sos publikoen ibiltze hoi, ez dela bidezkoa.* Hori, edo holako zerbait, gertuago dago Baztango eguneroko mintzo arruntetik aldizkariak atera duen testua baino. Baina batek mintzo landua, eredu idatzia aukeratu nahi baldin badu, segur aski testu hartara jo beharko du. Hitz berriak eta zehatzagoak sartu behar ditu, euskaraz (bertze euskalki batzuetan bada ere) tradizioa egin dutenak, nahiz hor ahalegin handia egin beharko litzatekeen hitz hauek Baztango ondaretik hartzeko: *errepidea, udala* ('udaletxea bertze zerbait da, eta hori beti 'Herriko Etxea' izan da Baztanen, eta idatziz ere ederki ibil daiteke), *izenpetu, hitzarmen, ondorioztatu* (aski hitz berria, bide batez), *babes, ildo...* Asimiliazio eta disimilazio guziak kendu behar ditu: *abiatu, hitzarmenean...* Hitzak bere osotasunen eman behar ditu: *egiten, dituen, berriaren, ...* Baina hori guzia egin ondoren geratu zaion testua, edo aski antzekoa den zerbait, geldituko zaio. Hemen '-gainean' hautatu dugu, ez '-i buruz'. Bigarrena ezin da inola ere baztertu, baina uste dugu lehenbizikoak tradizio sendoagoa duela Baztanen. Aunitzek, baita zaharrek ere, hibrido bat ibiltzen dute: '-en gainean'.

220 Baztango mintzoak *hori guzia* edo *hori guzi hori* eskatuko luke hor.

221 Batasuna batere galdu gabe, eta Baztango hizkera mantenduz aldi berean, badirudi hemen egokiago litzatekeela *kezkatzeoago* edo holako bat sartzea.

222 *ibiltzen* eskatuko luke testuak, hori *erabiltzen* bezain batua baita, baina, aldi berean, Baztanen ibiltzen den forma.

223 *baizik* (edo *bertzerik*) eskatuko luke testuak.

224 Gure ustez, *atzematen* da hedatuena.

225 *guziak*, Baztanen. Euskara batuan ez da baztertzen, nahiz *guzi* gomendatzen den. Baztaneraz eskribitu nahi baldin bada, eredu batua hautaturik ere, uste dugu zilegi den *guzi* ibiltzea.

barna... Gainera hirigintza basatiaren ondorioak, azpiegitura egitasmoak, golf belagiak²²⁶... Hau da, bizi behar dugun ingurua zentzurik gabe hondatuz, logika desarrollista eta antisozial baten arabera, inongo eztabaidarik gabe, de facto inposatzen ari zai-guna eta gure geroa bortizki baldintzatuko duena.

Kontutan hartuta gainera Izpegin barna Alduderat ordu erdi pastuxean joaten ahal dela eta arrazoirik gabe, errepide berriak pagadi zoragarriak eta erreka zoko ikusgarriak xehatuko dituela; inguru malkar eta zakarrak, aldi berean basa eta zoragarriak direnak, eta Iruritarrengo errekatik Elizondo urez hornitzeko egitasmoa dagoela, errepide egitasmoa zentzugabekeri hutsa da²²⁷.

Hamazazpigarren testua²²⁸: *Felix Iriarterekin elkarrizketa*

K. Zu Felix atabalaria izandu²²⁹ zara.

F. Atabalarie²³⁰

K. Noiz hasi zinen eta norekin o ...

F. Ni, beha zazu, nik haur-haurretik izan dut atabalain giroa²³¹, hala... afizioa²³², eta enuen atabalik ere, gure denboran aite ta ama're pobriak eta etzuten diruik erosteko eta afizio haundie nuen nik, eta... baño atabalak denetan banituen: maien, platerian, kuxetekin, tinadorekin²³³, denetan atabala.

- 226 *belaia* erran izan dugu beti, eta ez da inolako arrazoirik aldatzeko. Hemen egokiago *zelaiak*, hala ere, gure ustez.
- 227 Azken bi paragrafoak euskara landuan eskribituak dira, bistan da, baina egileak ederki bildu ditu Baztango mintzoaren ezaugarri batzuk eta egitura batzuk: *tarratatuak*, *erran modu batez*, *halala*, *Alduderat*, *pasatuxean* (egokiago *paxtuxean* baino)...Uste dugu hau den bidea tokiko hizke-ra batuan idazteko. Badira bertze aunitz ohar egiteko hemen, baina bere horretan utziko dugu. Testu honek agerian uzten ditu, eta horregatik bildu dugu hemen, eredu batua eta tokian tokiko euskara landua batera emateko zailtasunak: edo herriko txokokeria eta fonetismo antzuenetan erortzeko arriskua da, edo bertzenaz eredu batutik hurbil-hurbil dagoen bidea hautatzen da.
- 228 Hemendik aitzinat paratzen ari garen testuak elkarrizketen transkripzioak dira: batzuk irratiko elkarrizketatik bilduak dira eta bertze batzuk zuzenean eginak. Hauek duten ezaugarri nagusia da testu biziak direla, ez baitaude idazteko prestatuak. Baina, aldi berean, erran beharra da, irratietako elkarrizketetan batez ere, euskara 'landuago eta hobea' ibiltzen saiatzen direla. Lehenbiziko testu hau Felix Iriarte atabalari ezagunari egindako elkarrizketa baten zatitxo bat da. Ohar batzuk eginen baditugu ere, erran daiteke aski ongi biltzen duela han ibiltzen den euskara, batez ere adin bateko jendeak ibiltzen duen euskara. Zuzenean grabatua (Lakar – Telletxea).
- 229 Elkarrizketa egiten duenak *izandu* dabil, Baztanen arrotza dena.
- 230 Elkarrizketa egiten duenak *atabalaria* hitza dabil, eta Felixek baieztatzen du, baina aldi berean zuzentzen, Baztanen erraten den moduan: *atabalarie*.
- 231 *giroa* dabil, baina hori hitz ikasia da, beldur.
- 232 Hemen ere *afizionia* da han aditzen dena arruntean.
- 233 Hitz hau arrotza da guretako. *Tenedoria* erran nahiko zuen.

K. Bai, e?

F. Bai, bai, ta gero, hola hasi nitzen ta jarri nitzen jotzen ere polliki.

K. Eta nork irakatsi zatzun o ...

F. E?

K. Nork irakutsi edo ...

F. Ez, ez inork ere erakutsi²³⁴, ni ... berezkoa, gero, gero, suertatu zaiten hainbertze jotze ikestia gehiago. Gero ni soldadu nitzelaik eon nitzen bandan ere, soldadu bandan, eta han bagenuen ta brigada zahar bat, musiko haundie zen hure, haundie gañera, ta nik eztakit, nik enuen deus ere bertze misterioik iten, gizon harek gogoan hartu ninduen, bai ta, pentsatu hoiek, sargento ta brigada, hoiek ere martxan jartzen baitituzte, ta harek, karo, brigadak bazuen, harek mandatu... zer behar... bazuen in beharra beti neekin, beti ni igortzen ninduen bai, dirue man ta igortzen ninduen ta igual ... " esto es lo que se ha sobrau, esto es lo que me ha sobrau " "Ah, eso pa ti" ta bai, bai [...] harek gogoan ninduen eta ni nindagon tropako bandan bezala, baño harek nahi ninduen paatu musike bandan, bai, ta erten zatan ta... erran nion hala " pero, mi brigada nola sartu behar dut musiken, eztut musikik ere" ... "Nik erakutsiko datzut" erran zatan, bai enuen ikesi, e nitzen hasi're, baño harek erran zatan ni sartu behar nuela tanborero bandan, nik muñeka... ikeragarri muñeka onak nituela, eskumutur onak, ta sartu behar nuela. Ta gero, erran zatan ta: "etxian zer lan itei'zu?", "A, nik etxian nekazalgora, ta nekazarie naiz" ta " huy, huy ez tontoa izeteko, han tropan hobeki biziko nintzela gutioo nekatu te bai, ta ikesiko nuela, ta "ez" erran nion: "Ez, nire ama'ut bakarrik, bakarrik dago gaixoa ta nahiao dut bertze gauze guziek baño etxera gan ama laguntzeko" ... ta halaxe enitzen gelditu bandan. Gañera nik izena suertia, gerra denbora zen ta gerran, gerraingetik ezpazen ni enintzen soldadue in, ni bainitzen..., aite frantzes²³⁵ nuen nik, "subdito frances" deitzen..., bertzalde ume bakarra, ni bakarrik e naiz eta bai, eta bertze alde, ni soldadu gan baño aise lasterrago, hamahiru nituelaik hil zaiten aite, ta ama alargune zen, ta bertze nere kintekoek... kintuak baño laxterrago lizentziatu nitzen ni, horrengatik ume bakarra.

K. Eta ama alarguna.

F. Eta ama alargune nuelakoz bai. Ta gero torri te nik ... atabalain gogua banuen beti, ta hemen orduen herri guzietan bazien²³⁶ txistularie²³⁷ eta atabalariek, bai, kontratatuek igendero ta bestetako.

234 Hau da hitz arrunta Baztanen, galdera egin duenari zuzentzen diona, gainera.

235 Hau ere kanpoan ikasia, hain segur ere: *frantsa* da Arizkunen ibiltzen den hitza.

236 Holako hitzekin transkripzioa egitea ez da erraza: bokal arteko 'r' hori ez da ia-ia aditzen, baina ez da guziz desagertua ere.

237 *txistulari* hitza erdaraz ibiltzen zen. Arruntagoa zen *ziztulari* edo *zulubitero* ibiltzea.

K. Baina hemengo guziek baztandarrak ziren?

F. Bi, bai, gehien-gehien-gehien-gehienak Bozatekoak.

K. Bai e?

F. Bai, Bozatek atra dire txistulariek, atra die atabalariek, atra dire harginek, atra dire zurginek, denetaik atraia bada auz'ortan, bai. Ta atabalarie horkoa zen, Manuel Jaurena, baño gaixua [...] ta neketan ta zenbait aldiz etzen tortzen iendetan²³⁸ jotzera, ta orduen, ni etxian baintzen, atratzen nitzen plazara haren ordez jotzera bai, ta bueno, orduen laguntzen nuen hure, ta gero, maisu [...], ta harek bazuen [...] atabalari ona gañera bai, ta harek eskatu, solizitetu zuen Aizkungo plaza, bai. Ta gero nik, kusten ninduten hola Manuel, hure'do falta zelaik nik laguntzen nuela ta norbaitek begien hartu nindun doikee ta horrek solizitetu zuen, bueno, behar zela gauze bat ein, ta nei erran gabe etzituela... man behar plazik, nik laundu niola... Manuel ta ni nintzela lehenbizi-koik behar nuena nahi benuen, ta alkatia torri zaiten etxera ia nahi nuen, hola, ta ni baietz²³⁹, bai, erran nion, ni baietz bai, bueno orduen behar zela herrien reunione bat in, batzarre bat, ia hari edo neri man behar zaten plaza, ta herriek berexi ninduen ni bai, ta ni gelditu nitzen Aizkungo plazaikin. Ta ordutik, ordutik aunitz ibili naiz ni, aunitz, aunitz. Ni ibili naiz hemen Nafarroan puntaz punte, denian.

K. Bai?

F. Bai, ta Gipuzkoan aunitz, Bizkaian ere bai ta hemen Iparraldean [...] inguruko Baionaraino. Hartako Eskual Herrie guzie kurritue dut nik jotzen bai, bai. Bai, nere laune txistularie Maurizio Elizalde, famosoa zen, txistulari haundie zen hure, bai ta biek ibili ginen aunitz urte elkarrekin.

K. Beti elkarrekin.

F. Beti elkarrekin, bai, bai. Hola, bodak tziela, herriko bestak tziela, gero zenbaitaz gaten ginen, deitzen zen "instrumentos autotonos", dantzariak eta batre gabe, jotzera bakarrik, bai ta aunitz klasetan ibili ginen gu, bai, bai. Ta badakizu, erran behar datzut, atabal horrek neri laguntze haundia ein daut, badakizu, diruik ere ezpaikinuen, ta etxeko, etxean ere aziendak ere gutti, te etxeko harreratik aparte, hortik beti heldu zen, eztzen aunitz heldu, baño heldu zen garbi. Guk behiek gintuelaik, behi-esnia saltzen ginuen, ta behi-esnetik hartzen ginuen polliki, ba baño, behiek esnia mateko pentsue man behar zen, ta alde batetik hartzen zena bertzetik utzi behar zen, gero atabaletik heldu zen garbi, han hartzen zinuena're, sakelara. Torri etxera, ta torri ta, erten nion gure amari erten nion..sobrak...nik idebai'utena ... ta huni maten nion. Bai, nik in dut dirue, ezpazen behi beten erosi beharrik edo ... nik e'nuen diru beharrik, baño hunek behar tzuen, gu allaatu gara, gu allaatu gara hiru behi bakarrik beitieta eta bedratzi

238 'igandeetan'.

239 Kontsonante ahostunak ('b') asimilatu du aitzineko kontsonante ('k') ahoskabea.

lagun maien, bai, gintuen aite ta ama, bide, gu biek lau, ta lau ume, zortzi, ta bedratzi-gerna... osaba xahar bat baginuen bai, Joxe, bedratzi lagun mahien bai, ta hunek behar zuen dirue, ta nik hartzen nuena huni maten nion, gaixoai, bai, etzen beldurrik ez, etzuen hondatzen dirue, hunek peztai bi aldetara behatzen tzion bai, a bai, bai.

Hemezortzigarren testua²⁴⁰: *Mariano Izetarekin elkarrizketa*²⁴¹

M. Bai, lenogo bakizu, erran behar dut eta ni nola hasi nintzen lanbide hortan, nere ofizio hortan, nere aitaikin²⁴². Erran behar dut ere, nere aitaren²⁴³ historia pixka bat, eta nere aita zarauztarra zen, Pantolingokoa, Federiko Izeta Larrañaga, han elize²⁴⁴ ondoan bada etxe bat Pantolingo deitzen dena, hangoa. Eta etorri zen mila bederatziehun eta bian Elizondora, errelojero bat bihar²⁴⁵ zutela Elizondon ta, Donostian ikesi²⁴⁶ zuen ofizioa aleman baten etxian²⁴⁷, aleman baten etxian, da erran zioten ia nahi zuen Elizondora etorri, han relojerorik ez zela eta bueno, bazela beste relojero bat eta hil zela, da baietz etorriko zela. Etorri zen mila bederatziehun ta bian eta hemen gelditu zen, eta gero ezkondu zen nere amakin²⁴⁸ Juana Elizalde Juandikotena eta elizondarra, nere ama eta ezkondu ziren eta holaxen²⁴⁹ sortu gara Elizondon. Zortzi, zortzi haurride gara, ni zaharrena, eta nerekin lanean aitzen dana, berriz, gaztena. Eta aitaikin nik ikasi nuen ofizioa, hamalau urteak artio eskolan eta gero aitakin ibili nizen, eta holaxen, gure aita errelojero ona zen. Harekin, eta hola bizi guzien, hola ibili gara, bueno, erloju, sakeleko erlujuak eta despertadoreak eta... bakarrak konpondu ditut²⁵⁰, nik despertadoreak

240 Irratian grabatua: behin eta berriz ‘etorri’ dabil, han torri’ dena.

241 Berriz ere dakargu hona Mariano Izeta. Uste dugu testu honek baduen interesa, hemen argiago ikusten baita nola mintzo zen Izeta, eta, goitiago dagoenarekin erkatuz, nola eskribitzen zuen. Berak zioen gisan, ‘apaindu’ egiten zuen euskara. Hala ere, erran beharra da arruntean euskara landua ibiltzen saiatzen zela beti, bai hitz egiteko orduan ere (ahal duen guzietan, oroitzen denean segurik, ez ditu asimilazioak eta disimilazioak onartzen. Horregatik sortzen dira inkoherentzia batzuk).

242 Eskribitzeko orduan “aitarekin” idatziko luke (nahiz *Nigarrez sortu nintzan* liburuan ‘konkorrakin’ paratzen duen behin).

243 Baztango ezaugarria: *aitain*.

244 Euskara idatzian beti ‘eliza’ ibiltzen du Marianok.

245 Euskara idatzian beti ‘behar’ dabil.

246 Euskara idatzian beti ‘ikasi’ dabil.

247 Beti ‘etxean’ idazten du.

248 Erran, hola erraten da. Idazteko orduan, biak ibiltzen ditu Izetak: ‘Josekin’ eta ‘alabarekin’ (ikusten ahal da, konparazione, *Nigarrez sortu nintzan* liburua).

249 Aunitz erraten da ‘holaxen’, eta Izetak ere hala erraten du hemen, baina eskribitzeko orduan beti ‘holaxe’ eskribitzen du.

250 Hau Baztanen nekez. Arruntean ‘tut’.

eta esku muturrekoak eta sakelekoak ere. Geo orai utzie daukat ia ofizioa baña jubilatue nago, ia bistaz ere ez nabile ongi eta gañera jubilatuz geroz ya gure lana ya bukatue²⁵¹ da. Ta gañera orai eztago lenago bezela hainbeste²⁵² relojerian, orai piladunak baitire²⁵³, lehengo kuerda ematen zitzaion, denak zien kuerdaikin, baino orai ez, orai ez dago holako erlojuik, orain²⁵⁴ denak dire pilakoak.

K. Ez al duzu sekula pentsatu zure erlojuek, zure erlojuek...

M. ...bai...

K. ...zuk konpontzen zenituenak zeure bizitza ere neurtzen zutela?

M. Bai, nere bizitza neurtzen zuten, hoi da bai, eta han bai, konpontzen ai nintzelaik, hoi bera pentsatzen nuen. Hala nola bazaien orratza pixkeka-pixkeka korrituz, eta holaxen nere bizia negurtzen zuen eta hala joan da nere bizia, nere bizia.

K. Mariano Izeta Elizalde, Elizondon, mila bederatziehun eta hamabost garreneko uztaillaren hamalauetan jaioa.

M. Bai jaune²⁵⁷.

K. Hirurogei ta hamazazpi urte

M. Bai, bai

K. Erlojue, esan dugun bezela, izan da zure ogibide, aitarekin ikasita.

M. Bai.

K. Erretiroa hartu zenuen

M. Bai

K. Baina ez arlo guztietan, hori ere aitortu behar da, euskaltzale porrokatua, mila bederatziehun ta berrogeita hamazazpian "Zeruko Argia"-n hasi zinen idazten.

M. Hor nuen idazten bai²⁵⁸.

K. Hirurogeian "Herria"-n, ondoren "Diario de Navarra" eta "Principe de Viana"-n, hirurogei ta bian "Dirua Galgari" izeneko nobela eman zenuen argitara

251 Baztango akaballa eman dio, bokal asimilazio hori (-e) onartuz. Baina hitz, bistan da, ikasia da. Hala ere, oharrezkoa da nola egin duen hemen asimilazio automatiko hori, baina aldi berean bere burua zuzendu du 'bistaz', 'daukat', 'jubilatuz' eta holakoetan (horrek *bistez*, *dauket*, *jubiletuz...*) eskatuko luke.

252 Nekez Baztanen ('hainbertze').

253 'piladunak' (asimilazio gabe), 'baitire' (asimilazioarekin). Baztanen, hor, *piledunek* nahiago.

254 Han 'orai' erraten da.

255 Eskribitzean 'ari nintzelarik' egiten du sistematikoki. Baten batean 'ai' ere ibiltzen du, baina istorio baten kontakizunean, norbaiten ahoan emana.

256 Idatzi, beti 'pixkaka' idazten du.

257 Pentsatzekoa den bezala, 'jauna' idazten du arruntean

258 Hitzen hurrenkera tipikoa aunitzetan Baztango hitzunen artean.

M. Bai, bai.

K. Laurogei ta bian, berriz, "Nigarrez sortu nintzen" argitaratu zenuen, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak argitaratua, eta dakidanez "Baztango Hiztegi Ttipia", eta "Sorginak inpernuko errekan" ipuinak dauzkatzu inprentarako bidean.

M. Bai, ari naiz, ari naiz, oraindikan²⁵⁹ ez dut arras bukatu, baino "Baztango Hiztegi Ttipia" hori, a! "Baztango Hiztegi Ttipia" horren historia holaxe da: duela, hori, urte batzuk, laurogei ta bostean²⁶⁰ edo hola, orduen hasi nizen eta in²⁶¹ nuen franko poliki, eta Euskaltzaindiak argitaratu zuen nere "Baztango Hiztegi Ttipia", pixka bat bai, argitaratu zuen, baño, eta ez ziren dendetan saltzen. Neri igorri zizaizki... zizkidaten²⁶², hola, multzua neretako, separatua batzuk, zergaitik hori, hori, argitaratu zuten errebista batian²⁶³, liburu batian argitaratu zuten, eta gero, handik separatu batzuk atera zituzten, eta neri igorri zizkidaten, hola, pila bat, nik lagunen artean banatu nituen eta akabo.

Baño, gero, orduen zituen mila ta zortziehun hitz edo hola, da ni hasi nitzen²⁶⁴ hitz gehiago biltzen, eta orai baditut bi mila ta gehiago bilduak, aisa, eta ia nozbait ere, nozbait ere argitaratzen dugun, hori nozbaitean ikusteko. Ta orai, ari gara apaintzen zegatik hitzak nituen, pixka bat eta... ez ordea ordenian, eta ordenadora batekin orai ari gara hitzak eta bere negurrian patzen²⁶⁵ bere lekuan, bakotxa bere lekuan. Eta oain bukatzen dudalaik, ez dakit ein beharko dut zerbait eskatu, laguntza, edo Nafarroako Gobernuari edo zerbait ere hola. Badago hor, eta Nafarroako Gobernuak, badu politika linguistika delako zera, sail bat, eta horrela, ta bueno eskatu zerbait edo laguntza, eta ia nolapaitere egiten dugun, ikusiko dugu...

K. Eta Baztangoaz ari garenez, zuk zerorrek aitortzen duzu, hain zuzen ere, "Nigarrez sortu nintzan" liburuan, honen sarreran, "baztandar euskalkia erabiltzen dut nahiz eta pixka bat apaindua dagon, baina beti ere, mintzatzen garen bezala idatzia, agertzen diren hitzak eta solasak bizirik irauten dute baztango euskalkian, solas hoiek, behar bada, bertze euskalkietan erabiltzen ez direnak eta euskaldun aunitzek ezagutzen ez dituztenak".

259 Hau ibiltzen du Izetak, eta hola idazten du ere. Baztanen gehien ibiltzen dena *oñik* ('orainik') da, baina *oñiken* ('oraindikan') ere aise aditzen da.

260 Ez da Baztangoa. Han, duda gabe, *lauetanogeita bortzean*.

261 Hala erraten da, baina Marianok berak, eskribitzen duenean, beti 'egin' hautatzen du.

262 Grabazioan zalantza bat agertzen du Izetak adizkia aukeratzeko orduan. Hautatu duena ez da Baztanen ibiltzen. Hor, *zaztaten*, *zazkiten*... bezalakoak ibiltzen dira.

263 Arruntean beti 'batean' eskribitzen du, baina *Dirua galgarri* liburuan ageri da behin segurik *batian* ere.

264 *nitzen* aukeratu du, gehienetan ibiltzen den bezala, nahiz berak beti *nintzen* edo *nintzan* idazten zuen. *Dirua galgarri* liburuan badu *banitzen* behin.

265 Hola erraten da. Baina idazteko orduan, Izetak 'paratu' idazten zuen.

M. Bai, hori bai, nik hori ein nuen nere aitzinsolasean, eta hori erran nuen. Nik uste dut, eta Baztango euskalkia eta ongi mintzatuez geroz, eta ongi ahozkatuez²⁶⁶ geroz, denek ulertzen dute, denek. Nik uste dut euskalkiak in behar direla landu, euskalki guziek lantzen, ba ongi landu iten badira, eta ongi apaindu, eta hortan dago gure lan guzia. Eztute, eztute alde haundirik eta euskalki batetik bestera, Gipuzkoakoak eta Baztangoak, Baztan eta Bidasoak ez dute diferentzia haundik, gutti, hitz bat edo bertze bakarrik. Eta bakotzak bere euskalkia lantzen badu eta apaintzen badu, eina dago, hoi da euskara batua²⁶⁷.

Hemeretzigarren testua²⁶⁸: *P. Z.-rekin elkarriketa*²⁶⁹

K. Zu P., esplikatuko diguzu hemengo, bueno, zure lana nola izandu den, nola garatu den eta.

P. Bueno, nere lana errea da kontatzen, ttipi-ttipitik hemen, hoi jendia, pues, hoi behar zuen jan, orai bezala, ta lanean ai behar zen orai bezala, bertze lanik gabe ezta iñon ere jaten al. Pues nere bizia zen lenbizitik hasi nitzen ta zerreri betian lanean, tti-ki nitzelaik, eta karo, kusi nuen ez zela ta zerreriko bizie nere bizimoduko hoi, aitzinet atratzeko manerik enuela, eta gero eskatu zaten Erratzuko aotzak lanera gateko eta joan nitzen Erratzuko aozteire, ta han hasi nitzen lanean. Han ikesi nuen, eta leen iten gintuen lanak dena zen ferratzeko kontue, o sea, idiekin jendia aitzen zen zur atratzen mendietaik, gero jendea behiekin aitzen zen lur lanak eiten eta bazkak bildu eta dena behiekin iten tzituen, eta bakarren batek edo etxalden batek edo bertzek bazituen behor-rrak, o sea, ... garraiatuko ... ta behorrrak. Orduen gehiena atratzen ginuena zen behiak eta astoak, kontrabando denboran astuak. Eta manduak ere baziren eta hoi-ek ere ferratzen gintuen, bañan guttiago. Behiek ziren gehien gehiena lan iten zutena kanpo-etan, orduen ziren aariak, oholdeak, brabanak ta holako herramienta hoi-ek, gero karro ta hok. Gero jendiak, eta karo, kusi zuen behorrekin lana errexten zela gauzak biltzeko etxetara eta abietu ziren etxaldetan, pues, behor tiki betzuk patzen garraitutzeko²⁷⁰ ta bazkak etxera, gero belarrak, eta belarra igitzeko makinek orduen hasi ziren ere patzen,

266 Erran, arruntean, *mintzatuz kero*, hala erraten da Baztanen.

267 Horren ondorioz sortzen den eredu praktikoa asmatzea erraza ez bada ere, arrazoi osoa du Izetak hemen.

268 Zuzenean grabatua (Lakar – Telletxea).

269 Lekuko ona da hau, baina ikusten da euskara apaintze nahi horretan ez dela sistematikoa asimilazio eta disimilazio kontuetan, eta kontraerrenak sortzen direla (*zerreri betian lanean; jendea, jendia; astoa, astua; pikatzeko, piketzeko; makina, makine; behiak, behiek*). Horretaz gaiz, kanpotik hartuak dira 'joan' bezalako hitzak.

270 *garraietzeko* Baztanen.

ta gero mozteko makinek ere baziren behiekin ibiltzen zirenak, eta hoiiek denak, pues, iten gintuen arreglatu, eta behorrak ferratzen hasi ginen eta behorrak... ferrak iten ere.. etxian berian iten gintuen denak, orduen ia bazen bertze lan klase bat. Gero, aitzinet torriz, ia sartu ziren eta belar pikatzeko makinak, belar pikatzeko makinekin ia, orduen ia, lan puxket kendu zen behiei, ta gero ta guttiago ferratzen ziren behiak eta behorrak gehiogo iten zen, lanak iteko. Orduen hasi ziren ere zerbait lan Frantzitik etorzen adornutako gauzek, mahietako hanken ta burdin betzuk, eta holaxen hasi ginen gauzek eta politexagokoak egiten. Gero balengo ta hok denak egiten gintuen, eje karro ta zirrikek ferratu, ta hoiiek denak iten gintuen leen bezala, bañan beti bazoazin gauza hoiiek galduz, orduen lan berriek behar ziren, ta seitzen ginuen aitzinet holola lanean, bañan beti hoi gauzek heldu ziren eboluzionatuz. Eta gero sartu ziren belar piketzeko, bueno, belar piketzeko makinek aitzinian sortuek ziren, gero sartu ziren ya traktoriak, ta klaro, ia ginuen ia ... oi... mekaniko pixket ikesi're, ta ni gan nitzen Elizondora, pastu nituen bizpiru lau urte... astiein erdie Erratzuko arozteien, eta bertze erdiek iten nituen Elizondon mekaniko ikesten, karo, aroztegiko behar zen jakin pixket ia mekaniko ere, eta orduen ia behorrak ere bildu zituen ta traktoriak. Eta pixket holaxen gan da eboluzionatuz, klaro, herramientak ere traktorenak eta kanpoko herramienta klaseak denak kanbiatu ziren, traktorekoak haundiagokuak tire ta orai jendia ia lanean ai de aotzain aozteikoa ai dena, ta ai de ya traktorekin lanian, ta gu pixket eta bizie ein dugu kanbietu, zerengatik eta guretako, nik... ez zaiten gorki ere gustetzen ere lan klase hoi, eta guk, bere lan klase hoi patu du beste²⁷¹ klase batian, gehioo iten du dekorazioneko ta gauzak ta burdinian. Orduen, bueno, pues bizie atratzen dugu ahal dugun bezala, eta nekazariekin beti kontaktuen gutixeago sartzen gara gu.

K. Orduen ia dena adornutako ta ...

P. Bai, dena ia adornuetako gauzak eta sugeldetako mahi ta butaka ta eskulture ttiki betzuk, eta lenooko ferra itziak ere, ezta orai hainbertze ferratzen, orduen gu gan diogu serbizio bat lenaoko ferratziai. Hoi behor-itziakin iten tugu te eskulture ttiki betzuk, aunitz klase, eta orai, hasta inkluso kanbietu de hasta ferratzeko manera behorrenak, lehen ferratzeko ta behor-itziak ziren haundiak, eta orai ia kasi-kasi ferratzen tuzte behorrak eta behi, behi ferratzeko itzekin. Ta gaur egunian behik²⁷² ez baite ferratzen, bakarrik ibiltzen dire ia etxetan, beren karro ttiki betian ia montatuek ituzte behiei azazkalak mozteko, eta gero maingue bat ero bertze balin beda sendatzeko eta holaxen, ia behiek eta ez dut uste deus ferratzen den.

K. Eta ferrak ere diferente dire... itziak diferente dire eta ferrak ere bai.

P. Bai.

K. Nola dire, deskribatu pixka bat.

271 Ikasia.

272 'behirik'.

P. Bai, bueno, hoi, behor ferra da handiaokoa ta borobil airiean. Batu besoko ferrak, gero gañera badu eskuin besokoa, esker besokoa, gero hanketako bada eskuin hankatakoa eta ezker hankatakoa. Eta mando ferra da tikiagokoa ta luzexagokoa, eta gu... lehen aunitz ibiltzen baitzen, asto, hoi kontrabanduan, pues guk iten gintuen zaldi ferretatik gastatzen zirenak, ferra batetik erditik moztu eta atratzen gintuen bi asto ferra, burdinekin ine neketan ibiltzen zinen, oain heldu de ta burdine ia dena neurrien²⁷³ neurrikoa ta ia lanian errexao da lehen baino. Eta gero behien ferra da, hoi, xabala eta alderdi betetik badu pestaña bat egiten zaiona ta doblatu, hoiek ere batire, hoi, eskuin ferra ta ezker ferra zerengatik eta beso bakotxian baitu ta hanka bakotxian bi azazkal, behiak, orduen eskuin ferra da alderdi batekoa eta ezker ferra bertze aldekoa ta badire segun ze behiek nolakoan diren pues bizpiru neurri edo hola izeten da behi ferra ta mando, hoi, behor ferra ba, neurri kuadrila bai.

Hogeigarren testua²⁷⁴: *Javier Larralderekin elkarrizketa*²⁷⁵

L. Bai, bai, nik nola nahi dela, txistulari gise bademat urte aunitz, ia hogeiterteko²⁷⁶ hasia nintzen, ia hemezortzi urtetan hasi nintzen Herri Irratian xistue igandero jotzen nuela, eta orduen, ezpaitzagon dantza loturik eta hemen, leku horretan, eta orduen txistu soinuaren arratsalde gehiena pasatzen zen, dantzan. Eta geroztik, bueno, nik inek izen tut zazpi urtez Amaiur deitzen den herri txiki batean, igandero joz, gero ondotik ere urte batzuz enuen jo, zegaitik ... Ameriketara joanik ibili nintzen, han artzain egon nintzen bost urtez, sos pixka bat, hemen gutixko irabazten ginuen eta orduen, arat gan ta han sos batzuk iten, eta gero bost urteren buruen itzuli nintzen, ta bueno, berriz ere txistu lanian jo izan dut eta denbora artan Maurizio ...

K. Maurizio Elizalde

L. Maurizio Elizalde bai, orduen zagon hemen txistulari, herri hoketan gehienian ibiltzen zena, zegatik bere aita zen txistulari, guk aurretik ezautu dugune, baino gero,

273 Hemen 'neurri' ibiltzen du. Izetak arruntean *negurri*.

274 Irratitik grabatua.

275 Leku batean eta bertzean ibilia da bere soinuarekin, eta euskalki desberdineko jendearekin harreman handia izan du. Mintzatzeko orduan ez da, hortaz, sistematikoa asimilazio-disimilazioetan, y-ren erabileran (*jo, yo; joan, yoan...*), kanpoko hitzak bereganatzen ditu (*bost, bortz* erran beharrean, *edo beste, bertze* erran beharrean), hitz landuak ematen ditu (*pasatzen, pasten* erran beharrean, edo *nintzen* eta ez *nitzen*), eta abar, baina, nolana ere, hango euskara da, duda gabe. Kontura gaitezen nola ibiltzen duen hitz ordena: lasaitasunarekin, euskara zurruna bazterturik.

276 Baztango mintzoaren ezaugarri garbia: ez da erraten 'urtetarako' baizik 'urtetako' ('noizko' galderari erantzunez).

gaixoa eritu zen, eta orduen dena gelditu zitzaion Mauriziooi, bueno, orduen, ni ere handik itzulie in nuelaik, biek ibili ginen aunitz, elkarrekin.

K. Txistua, txistua da, zure tresna, esan dezagun, zure jotzeko tresna, baina datu bat eman didazu eta, tentaziora zuzen zuzen noa: dantza loturik etzen, esan didazu.

L. Beno, etzagon libre.

K. Libre etzagon ...

L. Etzagon, etzagon libre, ta dantza lotue bazen, eta zenbait herriten ia Elizondo eta Erratzu zautu tugu hoiek, bi herrietan dantzatzen zela bestetan ta... herriko, herriko bestak, urtean iten den besta hoietan, baina gero gainerako igande ta hoietan etzen dantzatzen eta

K. Gogor, gogor persegitua zen gainera hori.

L. Bai, bai

K. Kondenatua.

L. Apaizak ere fuerte zauden, ta bueno, etzen... ez ginuen dantzatzen.

K. Beste gauza bat ere bai, zuk esaten duzu zeurea txistua izan dela, baina, txistua-rekin batera, zuek, eta diot zuek, Maurizio ere sartuta, zure koñatua baitzen Maurizio, galtzeko zeuden dantzak errekueratu ere egin dituzuelako.

L. Bai, bai, uste dut Mauriziok ere, bildue izein duen zerbait, eta gero ondotik, Maurizio ere, karo, baitzen hure're adinean ere bazihoan²⁷⁷ eta, bueno, gu orduen, ni hasi nitzen dantza galdu batzuen bilien, eta hola, ta oino bazagon zer edo zer biletu beharra, eta gero, bueno, beti iten gintuen dantza hoiek grabatu, eta gero idatzi musikan, ta hoi izen dugu... eta ni, aita ta semea, gero mutil in zelaik biek hasi ginen lan hortan, eta inbestigazione polita egin nuen, eta hor galduta zauden dantza batzuk errekueratu nituen.

K. Dantzak, ze izen daukate, nik bat edo beste badaukat, mozorro-dantza edo nola dan.

L. Beno, bat sagar-dantza, beno, sagar-dantza badauzkegu bi galduak zaudenak, Erratzuko sagar-dantza eta Amaiurko sagar-dantza, zegaitik herri bakotxak bazauzkaten, orduen, beren sagar-dantzak, beren kanbio pixka atzuekin, beno, soinu ere bai aldatzen ziren, zenbait nahiko. Ta beti ere bildu gintuen hoiek, sagar-dantza hoiek, eta mozorro-dantza ere bai, Arizkungo mozorro-dantza. Hoi ere, denboraz entzutea baginuen mozorro-dantza bazela, baño nik eztakit nondik ere, nola Mauriziok eta bere aitak ere etzuten jotzen... Ta beno, guk izen ginuen suertia, orai hil berrie dugun txistulari horrek, bazauzken doinuek eta berari hartu gintion eta gero idatzi gintuen eta orai hortxe ...

277 Ikasia.

K. Salbatuta daude hoiek.

L. Salbatuta daude bai.

K. Hemen dantza asko, asko dago, zera, buelta guzti hontan, Elizondo eta aipatu ditugun herri hauetan, baina pentsatu zenbat galdu ez ote diren.

L. Bai, uste dut hor, hemen izen gintuen dantzak, egon ziren denbora batez puxka bat galduek, guk entzutea dugunez, eta denboretan, hoiek, mila bederatzireun ta, eztakit, hamarretik goiti, bi txistulari atera ziren hemen, onak txistulariek, ta bat Zigatik etorri zen Erratzure, hoi hogeita laua izango zen, hogeita laugarren urtia, eta Amaiurtik etorri zen beste bat Arizkunea, hoi zen Antonio Eleizalde, Maurizioen aite, eta beste bat zen Jose Telletxea, Erratzun. Eta hoiek biek in zuten lana, haundia in zuten, ta biltzen, ta karo, hoiek ere ibili ziren aunitz jende zaharretan ta biletzen zer zakiten guzie, eta beno, hoiek in zuten lan haundie. Gero, denbora berian, hemengo, holaxe kontserbatu dire, zergaitik denbora berian izen ziren bi kaputxino, Aita Donostia eta Aita Olazaran, Estellakoa. Eta hoiek bazuten relazionia txistulariokin, eta hoiek nola ziren inbestigadoreak, hoiek, ze in zuzten, hoiek zauzkaten dantza guziek idatzi zuzten eta holaxe zaindu dire orai, orai arte²⁷⁸.

[...]

L. Bueno, solfeoa? Ikesi izen dut beti puxkaka, zergaitik eskolan ikesi nuen pixke bat, mastru batek pixke bat erakutsi zauten. Gero, Elizen aritzen nitzen kantatzen nuela, eta elizako kantuek nola herriko apaiz organistak etzuen halako alderdi haundie erakusteko, zegatik hotsa²⁷⁹ franko zakarra zauken, eta beno, orduen bazen bertze emazte bat, harek pianoa jotzen zuen, eta harek erakutsi zazkiten, erakusten zazkiten kantu guziek, elizeko kantuek, erakusten zazkiten solfeoko notekin. Eman dezagun, San Inazioin Martxa igual, ta ...Inazio... erakutsi beharrean re, si, sol, sol, la, sol..... ta holaxe sartu nitzen solfeoko lenogo ikasi nuen pixkarekin, eta gero, harek erakusten zazkitenekin, beno, beti banindaien pixket aitzinetuz. Gero, handik urte batzuen buruen, ia, txistu-tuen ta hasi nintzelaik Elizondora torri zen maisu bet ona ... hor tzeuken... ta bazuen akademia bat, eta beno, hara joaten nintzen ta man nituen solfeoa. Feliciano de Beobide, akaso baduzu entzutea²⁸⁰, Tolosarra zen uste dut

K. Korua ta zuzendu zituna?

L. Bai, uste dut baietz, hoiek ere idatzi ere txistularien rebisten ta in izen du musikak eta...

278 Pasarte honetan ez ditugu aipatu 'izango', 'etorri', 'beste'... (denak ikasiak, gure ustez).

279 *hotsa*: arrotza egiten zaigu hango euskaran.

280 Baztanen, entzun, meza bakarrik 'entzuten' da.

K. Orduan hor, hemen herrian hasi eta gero Elizondorainoko zer horrekin...Elizondon ia osatua dago.

L. Bai, bai. Gero klarinetea ere, beno, Elizondora hasi orduko, ia jotzen nuen, baño ikesie nuen nere airera, eta orduen Maurixiok ere, hala jotzen zuen, bere airera, o sea, erakustunik gabe ikesitakoak ginauden, ta Antonio, bere aitak ere jotzen zuen... regintoa... beno, denak berdintsuak dire. Beno, pixka bat jotzen ginuen ejekuzionaiain gañian, hiruek ere jotzen ginuen... malla nahikoa, baina sonidoa ezautu zakun... ni gan nintze-laik Beobidek erran zauten: "E!, zuk jotze'izu flauta gallega bezala, -erraten zauten-, zuk ite'izu fu, fu, fu, eta oi behar da tu, tu, tu, beti..." Baño, nola aldatue ginuen jotzeko manera arras, eta erraten zauten, baño ni nerera gaten nitzen, ta ..."fu, te, fu ez, fu ez, tu, zuk nola patzen duzu tu errateko ta mingaina", ta karo, [...] enitzen ohartue're hortzetan, karo, tu, tu ...

[...]

L. Gero bai, baño nik aurretik²⁸¹ ia, eztakit, hamalau bet urte edo hamabost urte nituenean, Maurizion aite, hure zen herriko soñularie, eta harek igande atsaldetan edo... "ara mutikoa karrak txistua, zerbait ere jo behar diagu elkarrekin", ta karo, nik oño gutxi jotzen nuen baño baziren gauz betzuk errexak sarriten²⁸² jotzen gintuenak, beno, orduen jotzen nituen harekin batian, biek aitzen ginen jotzen. Gutti, zegaitiken... aunitz praktika falta nuen, ta beno, hola're afizionia²⁸³ sartu zaiten, ta gero, beste gauze bat ere banuen, denbor'eketan hurrek etziren plazan ametituek izeten

K. Hara! ...

L. Igorri iten ziren handik, plazatik, zegaitik karo, orai aurrek aitzen dire dantzan bakarrik, ze pena den bezala, baño orduen, denbor'eketan, nola etzagon bertze gauzik ere, eta beno, herri guzie biltzen zen eta iten zen dantzan, eta orduen, aurrek, ia sobe-ra ginen gu han, ta aunitz aldiz molestatuek izen baiginen doike, igorri iten zakuten handik. Eta nik, banuen beti, nola Antoniokin, txistue jotzen nuen, gero ostature gan ta bazen kostunbre bat ere, beti mutil-dantzak han iten zuzten, gizonak aitzen ziren mutil-dantzan. Eta karo, nere adinekoik inor etzen gaten ara ta mutil-dantza kuster a baño ni bai, eta nik antxe denak ikusi izen tut han urtiak eta urtiak, eta ikesi nituen mutil-dantzak ere dantzatzan, eta bueno, holaxe gan tzen nere gogoa gero ta fuertiago.

K. Igande arratsaldeko dantza hoietan, izango zen meza nagusia, gero bezperak eta gero dantza, ze bezperak etziren, etzauten huts egiten.

281 Nekez Baztango hitza.

282 Nekez Baztango hitza.

283 Felix atabalarriak 'afizio' ibiltzen du (ikus goitiago), baina Javierrek Baztanen hedatuena den 'afizione'.

L. Bai, bezperak²⁸⁴ ere bai.

K. Bai, dantza hoietan ezkonduak eta ezkongabeak danak?, ala ta gainerako herrietan bezala gehiago ezkongabeak?.

L. Ez, ezkongaiak izeten ziren orai, herriko bestetan izeten zuten ezkonduak ere beren egun bet. Uste dut, hemen San Juanak dire bestak, hemengoak, eta izeten zuten San Juan hirugarrena edo, orduen ezkonduak ateratzen zirenak eta iten zuten beren dantzak eta, bai gizonak eta bai emaztiak ere. Eta iten zuten, oitzen naiz ni, soka-dantza nola iten zuten, eta beno, baino bertzenaz beti ezkongaiak e?

Hogeita batgarren testua²⁸⁵: *Feriri-ren idatziak*

Nik nainuke yakin, euskaraz asigarenak idaztuzen²⁸⁶, ya egin beardugun bearden bezala edo bakarrik bakoitxak bere errialdean mintzatzen den gisa²⁸⁷; itz batean, naidut erran; nik bezala euskara²⁸⁸ ez dakienak itxilik egon bearduen edo ez. –Euskaltzalei galde-zen-diotet.

Gañera; dakienak erantzunendigu²⁸⁹: aita batek bere seme alabei beti euskaraz irakuurtzea²⁹⁰ eta seme alabayek ikastechetan beti erdaraz, ¿ez da auroyendako kalte, ez bearden aña²⁹¹ aizinazeko? neri ala uste dut gertatzen zaitala eta orgatik²⁹² nere galdeoyen.

284 Arizkunen bederen *mezperak* da ezagunago.

285 Hemen bildu ditugu Feriri izenaren pean sinaturik (1910) argitaratu ziren testuetako batzuk, ‘Baztandik’ izeneko sailean. Ortografia ez dugu ukitu: inprenta hutsak badira, guk uste. Nor zen ‘Feriri’ izenaren gibelean altxatzen zena? Segur aski ere Pablo Fermín Irigaray, geroago “Larreko” bezala sinatzen zuena. Medikua zen, Auritzen sortua, baina Iruritan egon zen mediku, eta hainbertze gauza eskribitu zuen. Hipotesi hau Blanca Urmeneta Purroy-k eman zuen lehenbizikoz (ikus *Navarra ante el vascuence. Actitudes y actuaciones (1876-1919)*. Gobierno de Navarra, Pamplona 1996, 122. orr.). Hain segur ere, arrazoi osoa du, geroko idazlanak hobeak baldin badira ere, artikulu hauetan dagoeneko erakutsian gelditzen baitira haren estiloaren ezaugarri batzuk (euskal hitz ‘berezi’ batzuen erabilera, konparazione). Izen-abizenen akronimoez baliatuko zen Irigaray ‘Feriri’ ezizena sortzeko

286 Hitz arrotza, jakina, Baztanen. Baina euskara landua ibili nahi duenez, denek ibiltzen dugun ‘eskribitu’ baino egokiago ikusi du idazleak. Eta, behin hasiz gero, landuago ikusi du ‘idaztutzen’ erratea, ‘idazten’ erran beharrean.

287 ‘mintzatzen den gisa’. Hori aunitz ibiltzen da Baztanen (*gise*, jakina), nahiz Iparralderago jotzen badugu maizago harrapatuko dugun, testuinguru honetan, ‘gisan’ edo ‘gisaz’. Hauek ere ezagunak dira Baztanen.

288 ‘eskuara’, Baztanen.

289 ‘erantzun’, euskara landukoa.

290 Baztanen ‘leitzen’ da erraten dena.

291 Uste dugu hedatuena ‘adine’ den, palatalizazio gabe, Baztan gehiengan.

292 ‘horregatik’ edo ‘hortaz’, Baztanen.

Ganden Donijuanen²⁹³ izandu²⁹⁴ dire Arizkongo pestak²⁹⁵, igarotu²⁹⁶ edo posatu dire bake aundian: betiko "chun-chun" soñuan, dantzak, eta ez gauaz; an ere asi ziran²⁹⁷ orain duela zembait urte, beste²⁹⁸ errietan bezala, gauazko dantzoyeki²⁹⁹ gaberdiraño; baña euskotar zintzoak bezala uzituzte eta gelditudire Baztango oitura zarreki bakarrik.

* *

Yende-tarteko osasiua ederra, Yinkoari-eskerrak. Elizondoko Ripaldako etxeko-andria sendatu omenda. Zigako Jose Mari Azpiroz gaizki. Aspilikueta³⁰⁰ Garaikocheko seme, Amerikatik etorri-berria iltzen *derrepente*: gauden astean izan-dire mezak.

Narbarteko Erretor Yauna gaizkiago omen dogo.

* *

Denbor-ederra dugu, bero bazuen ondotik euri³⁰¹ gozo indu; belarrak ere sartzen asi diré.

* *

Lekarozko ikastigia³⁰² ustu da, ganden astean ateraziren bere etxetara geienak. Ez dakit noiz-arte, agur.

Feriri (1910-07-02)

* * *

Naiz berri gutxi³⁰³ emateko, artudut papera eta luma eta gazin itzaldi lloburbat itera. Lenbizik, Lekarozko bestak igarotu³⁰⁴ direla urte guziz bezala; bakarrik, aurten izandu da meza nausiondoan Te-Deum Jinkoari eskerrak emateko elizako anbeste³⁰⁵ obra

293 Euskararen garbitasuna gailentzen: han denek 'Sanjuanak' ibili izan dugu betitik.

294 'izan' (*izen*) da Baztango herri guzietan aditzen ahal dena. Egia da, hala ere, Basaburu, Arraioz eta Oronoz aldean, hiztun batzuek 'izandu' ere ibiltzen dutela.

295 'bestak', zalantza gabe, da Baztangoa (eta Bidasoakoa).

296 Ez da hangoa.

297 Baztanen 'ziren' da adizki egokia.

298 Euskara landua.

299 Sozietibo guziak '-ki' rekin egiten ditu. Baztanen, jakina, '-kin' da ibiltzen dena.

300 'Aspilkueta' dio egileak. Eta Amaiar aldean harrapatu dugu jendea hala erraten duena, baina bertzenaz gehienek 'Azpilkueta' erraten dute Baztanen.

301 Herri guzietan *uri* da erraten dena.

302 Kanpotik bildua hitz hau.

303 Noiz edo noiz 'gutxi' aditu dugu, baina han ibiltzen dena 'guti' da, herri guzietan gainera.

304 Euskara landuko hitza. Han, 'pasatu' (*pastu*).

305 'hainbertze' da hitza Baztanen, herri guzietan.

eginbaiteri³⁰⁶ ain ongi batere desgraziarik-gobe³⁰⁷. Gauden orzilarien gertatuda Amayuren desgrazia bau³⁰⁸ goizean goizik omenzoayen ango gizonbat arranzura³⁰⁹ eta belaibatean zoayelaik eskuz ukitu bidezuen, argi-lectrica, cate edo cable bat erdo-ero-ria³¹⁰ zegon bat eta an berian illa gedituzen Juzgadoa ibilli³¹¹ da diligencia item.

Atzo etorriren Simonena Yauna Elbetera bere andriain sortu etxera. Ongi etorria³¹². Iruritarara ere eterrizen Donostitik Mendizabal Yauna bere andre eta aurrekin.

* *

Denbora³¹³ ala ala, beti goibel eta beti sargai³¹⁴: osasuna ez da lazki³¹⁵ ona ez da misterio, ori ere dembora gisa gatea.

Lengo egunian Sanidadeko Yunta bildutzen batzarria eta artuzuen neurrirenbait, zergerta, kolera, eritosun³¹⁶ ikaragarri-orreki; naiz urrun egon, ongi dago neurri-oyek artzea eta erri-guzietan zerbait egitea, beti zerbait iragazten dugu yende-tarteko osasunean.

Agur, urren arte.

Feriri (1910-08-30)

Nere azkeneko eskutitzan³¹⁷ Lekumberriko batzarreain gañian bazen uts aundibat, molde gabe geldituzen Amayurko Erretor jaunaren izena bere itzaldi ederrain kentut ematean; baña denak ikusi-izainzuten an uts aundia bazela eta ez nolana bete dai-kiena; Iruñako poper-batean³¹⁸ ekarri-omendu ez dakit zer, gure errespetagarritzko adis-kide-onendako, Lekumberriko berri-ematean baña ez arrek³¹⁹ erranzuen itz-ederrenda-ko, bakarrik gizona dagolakoz; baña paper-urdiñ³²⁰ artan idaztuzen-dutenak aldakite, çzer eta zerengatik gizon-bat gizen egondaiken, eta zer eta zerengatik berzebat me-

306 Arrotza.

307 Arrotza.

308 Arrotza.

309 'arrantza', herri guzietan.

310 'erdolla'?

311 Baztan gehienez palatalizatu gabe. Basaburu aldera eta Oronozen biak bildu ditugu: 'ibili' eta 'ibilli'.

312 ikusten denez, aunitzetan ez du asimilaziorik egiten, euskara 'apaindu' nahian, bistan da.

313 Arrotza.

314 Arrotza.

315 Arrotza.

316 Arrotza: 'eritasun' behar du.

317 Euskara landua.

318 'paper' behar du.

319 *harek* da Baztangoa.

320 Euskara landua.

tagon? Ez balimbadezute³²¹ berze arrazoirik³²² euskal-batzarraren kontra, *or konpon Mari-Anton*.

Poz aundieki yakin-dugu gure Diputacioak, egin duena euskararen alde; emendik aizina Iruñan izainda euskara³²³ ederki eta aisa³²⁴ ikasteko bidea.

* *

Biyar eta etzi izaindire Elizondoko Urriki feriak, orain bezein denbor-ederra izaten badugu kontent, ezin obia dugu, artua eta ba-nabarra ontzeko, gaztaña biltzeko eta iraziok³²⁵ moztu eta metatzeko: osasuna ere, aniz ederra yende-tartean. Bakarrik Elbeteko Karikaburuko-nausiya gaizki oliatua omen-dago.

* *

Erri-alde oyetan ez da gelditzen ya yende arrotzik edo emen uda pasatzen dutenik: azkenik gandrí Madrilla Irurritako Irigoyen yauna bere andriaeki eta Yauregiko etxeko-andria bere semeaiki eta gaur gandre Iruñera Irurritako Agerreko etxeko-andria bere alaba eta onen sendi guzieki.

Agur eder eta leunbat meretxi du Senante yaunak eta emendik biyaltzen-diogu³²⁶ biotz-biotzetik, bere itzaldi ederrengatik.

Berze egunak arte, agur.

Feriri (1910-10-28)

Aspaldotxo-ontan ez euskaraz ez eta ere erdaraz ez gara emengo berri-emateko; baña gaurtik ez gara aterako eskutitz llaburbat ingabe: lenbizik erran-naidizuet³²⁷, biyar, asteazkena, bildikodirela Elizondo'n euskal-zale zenbait, ikusteko nola egindaizken euskal-bestak elduden urtean, Elizondoko uda-berriko ferietan; ¡alatxe! jederki iña! Ez bakarrik euskal-izkuntza baita-ere euskal-erriko oitura zarrak beardire berritu, konpondu eta txertatu³²⁹ orain sortuzaigun berotasunoneki gure gauzen alde; biyar ikusiko degu³³⁰, Jinkoak nai-badu, zer gertatzen den bilkura edo batzarre ortan.

321 Ez da Baztango adizkia.

322 Euskara landua: *arrazoñik* eskatuko luke hor.

323 Jatorrizkoan 'eusrkaa' paratzen du.

324 Baztanen beti *aise* eta *aisago*, baina ez *aisa*.

325 Euskara landua.

326 'igorri' maizago ibiltzen da..

327 Ez da Baztango adizkia.

328 Aise gehiago *ine*, eta ez *iña*. Palatalizatzen den tokietan ere errazago aditzen da *ina*.

329 *xertatu*, Baztanen.

330 Euskara 'landua'.

* *

Demborak ez du ematen arto-biltzeko atzo bildutzen poliki, lurrean botayak zaude-nak benipein, eta gaur goizean ere bai, baño eguerdiko³³¹ asi da euritzen aize egoaiki eta gelditukodire bildugabe; diote oraindik³³² ez dutela prisik, etze³³³ daudela, baña ori da, aurten ezdutela denborik izan ontzeko, emendik aizina ¿nola idortu? Berzeñaz³³⁴ denbor-ederra dayé; lazo-lazo.

Nik ustedut Baztanen egindaikela Frantzian asi diren bezala gaztañdegitan, gaztan-ondo³³⁵ berriak bandatzen eta baiomendire³³⁶ ondoak eritasunak ezin garaituzkoak, oyek saltzen omen dire <<ortzaitzen>> Batista ospital, etxean ¿ez daike probu-egin?³³⁷, nik usté baieiz gaztañdegiak galtzera utzi-gabe, bereziki, Lekaroz, Aspilikueta, Arrayoz eta Amayurren, erri-oyetan gaztañdegi geienak galduak daude, lakoz³³⁸.

Cherrien goitza ez omendoaye edatzen, baña kusatu-omen³³⁹ diré auniz Bertizkoan eta Baztango mendietan; ez omen zuten deusere egin ez an, ez emen, beretxteko kusa-tudezatekenak eta orgatik edatu omen da eta il ere bai zenbait oyanean.

* *

Beti bezala erranbeardugu azkenik, yende tarteko osasuna (salud pública) ez dela gaitxtoa; badirela tifus-arrazorreki zenbait eta beti bezala badirela beste eri zenbait, ere.

Poz aundieki ikusten dugu gure Diputaduak bere soñetan artuduten pisua aundia dela eta gure adiskide Sanchez Marco aridela ederki, guk naidugun bezala, ¡alatxe, alatxe! eta ¡gora gure erreligio zale yaunak!

Agur, ez dakit, noiz arte.

Feriri (1910-12-02)

-
- 331 Ez da Baztango adizkia.
 332 Hola egiten dira adizlagun hauek (noizko?) Baztanen, '-ra-' gabe.
 333 'heze' da han ibiltzen dena.
 334 Palatalizazioa landuagotzat dauka idazleak.
 335 Baztanen *gaztañondo* da erraten dena.
 336 Baztanen 'ba omen *dire*' da erraten dena.
 337 Euskara 'landua'.
 338 Ez dakigu zer erran nahi duen.
 339 kutsetu, Baztango hitza.

Hogeita bigarren testua³⁴⁰: *M (Oronoz)*³⁴¹

Oi attari aittua an, pues Ariben... gelditzen tzen auniz, ta beti re Abaurrea Alta ta alderdi artan, Iratin ta aittua. Ta, an erten tzutela bazirela lamiak, lamiak eta azti... aztiak ere bai. Beti re, lamiak. Ta bai, itxe batin fama zaten tzutela... lamiak tortzen tzi-rela. Ta, iñor(k) kusi etzittun itten, ta, beti re... itxe batin dudike aitzen tzen aunitz aria itten. Ta, gelditzen tzen pues arratsin edo aria itten pues e... sukaldin. Ta beti torzen tzizaiola la... ta... ori, lamia. Ta gizonak erran tziola "Mekauen, ni geldittuko naiz ori... ari(a) itten gaur". Ta gañera erten tzula ziminiti[k] petti tortzen tzela. Ta, ala torri omen tzen ordun ere, ta dudike ziminitik kusi zun, eztakit nik ze argikin aiko zen ori, ta, euskaraz gañera erran tziola:

- Lenago pirra-pirra ari itten ta orai mordoka-mordoka, nor yaiz i?

Ta etziola kontestatzen e...

- Eztuk aitzen? Lenago pirra-pirra aria itten ta orai mordoka-mordoka, nor yaiz i?

Ta:

- Ni, nor bere buru.

Ta, zartaña suan zula, irakitten oliyukin, ta bota ziola azpitik [g]otti ta etzela geigo agertu lamiikan an.

340 Bi testu ematen ditugu hemen segidan, Oronozko herriko bi lagunak, bat andrea eta bertzea gizona direnak. Hauen ondoan emanen ditugu bertze bi testu Anizko lekuko batzuenak. Lau testu hauek gaur egungoak dira, Lakar eta Telletxeak egin lanetik bilduak. Aniz Basaburuan da, Baztango mintzo nagusitik palatalizazio kontuetan urruntzen den euskara erakusten duena. Oronoz ere alde hartan dago, eta Baztango lehenbiziko herria da Donostiatik sartzen zarenean, Bertizarana eta Malerreka ondoan: hango euskara, ikusten denez, urruntzen da aunitz mintzo orokorretik, ia-ia Malerrekakoa bezalatsukoa baita. Behin eta berriz erran dugu alderdi honetako euskarak badituela berezitasun nabarmenak Baztango mintzo orokorarekin erkatuz gero, eta hori da testu hauetan ongi ikusten dena.

341 Bi testu hauetan ikusten ahal dugun euskarak Malerreka aldera jotzen du zalantza gabe. Baditu funtsezko ezaugarri batzuk Baztango bertze herrietatik urruntzen dutenak. Batez ere, Baztango bertze muturrekin (Baztangoiza) erkatuz gero, palatalizazioa indar handiarekin ageri da: *attari, aittua, etzittun, itten, geldittuko, petti, irakitten, illabetin, burdiñezkua...* (Baztangoizako hiztun gehienek: *aitei, aittue, etzituen, iten, geldituko/geldiitiko, beti, idekiten, ilebetian, burdinezkua...*); asimilazio-disimilazio eta artikuluaeren galtze batzuek ere indar handiagoa dute: *batin, arratsin, sukaldin, argikin, illabetin, biño, oliyukin (batian, atsian, sukeldian, argiaikin, ilebetian, baño, olioaiakin)*; asimilazioa espero den toki batzuetan ez da egiten: *aitua, pirra, duuna, izaten, zurrutan, autsa...*(*aitue, pirre, duume, izeten, zurruten, autse...*); indar handia dute hitzen arteko arau fonologikoen (asimilazioak, afrikatzeak aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean): *ziminiti(k) petti; batzu(k) perriz, ara(t) potatzen...*(*ziminiti(k) beiti, batzu(k) berriz, ara(t) botatzen...*); kontsonante epentetikoak: *yaiz, oliyukin, togallak, esiyak...*; adizkiak desberdinak dira: *ginttun, giñun, giñon...*(*gintuen, ginuen...*); badira, azkenik, bertze desberdintasun batzuk hiztegiari dagozkionak ere.

A (Ornoz)

Pues, arropa, ori xagonada itten tzen, astin bein, ta lixua illabetin. (...) Xagonada da pues eguneko arropak, bueno, orai eguneko arropak erraten duuna, pues, laneko arropa ta kentzen ttuzuen... ta lixua itten tzen, ori guatzeko maindire, eta baldin patzin serbilleta(k), togallak ta oiek, pues iñen tziren oiek illabetin bein, lixuukin. Ta ek, lixua xagonatu, ura dena [ind.] berriz garbi-garbittu, eta izaten tzen oloko kubo aundi [ind.] bat (...), lixu kukua erraten giñon, lixu kukua, burdiñezkua, biño bertze batzu[k] perriz zaten tzuten zestoskua, eta... guk burdiñezkua giñon. Eta, ura (...) zurrutan paratu, eta, zurruta arek izaten du oloko... zera bat, zurrutza bat, eta artara, lixu kukutik gauten tzen ura, eta paatzen tziren lemizikoik arro... zerak, maindirik, maindire lodi-lodilodiak, gero... [irriz] gero miexago ta gero arropa xiak. Gero ordun, gure... nik eztut ibilli, biño, gure ama zenak ta amatxi zenak eta oi ibilli zuten atorrak, idui zutela orai-ko kamisonak (...) otaraño olaxen, zaten tzuzten.

Ink.: *Belaunetaraño?*

Belaunak baño pixkot gottixigotto. Eta, atorrak, ta kao, atorrak kentzen tzuzten, ek ere bai garbitzen tziren denak, ek denak kukun patzen tziren, gero paatzen tzen... sardazko maindire bat, osea, erran nai dizu(t)... laneko maindiria bezalako bat, eta aren gañin patzen tzen autsa.

Ink.: *Eta autsa, zerena zen ona?*

(...) Gaztañana ez benpin, e! are(k) tinta botatzen tzun. Bai, ta aritza baño obia zen bai, ori, sagarra, giltzaurra, eta oiek. Gero guk an baginttun ainbertzeko otiak eta bazi- ren, ta karzen giñun abarra eta ekin itten giñun san... zera, autsa ta ura bot... paatzen tzen.

(...) Eta gero, laatzin patzen tzen suan, lurr(e)ko suan, bertze... pazin bat ura ura irakitten. Ta zagonak eta ara(t) potatzen tziren, ta ura yartzen tzen ya xagonan kolorin. Eta ura botatzen tzen... lixuari, ta igual iru... ordu olaxen, bo pasatuxeak, ge... bota ta bota. Eta gero biramun arte utzi itten tzen ura. Ta gero artu astuan, e! e...! astun artu [irriak], sarda zar bat bota astuai, ez maindiri(k) zikintzeko, eta, beitti urera garbitzera. Ta an garbittu eta idortu.

Ink.: *Eta idortzeko nun patzen zen?*

Kanpun, geienin, geienetan, e! (...) ziritik, ziriya[k] patzen tziren eta alanbri[k] paziren... A! gero, nik kusiz... oi gure itxin ta Gontzeko bordan ta oietan benpiñ alanbretan, e! bertze... batzutan ere kusi izan dut, porejenplo, pareta gañetan edo esiyak iñak, e! ta esiy'etan zeatzen. Baño... ola erran itten tzuten "Bai, oi da kitu lixua".

Hogeita hirugarren testua³⁴²: *T (Aniz)*

Oei duro... kontrabanduan biahako oei duro. Eta bertzean... zenbat iza... amar amaz... amaos pezta ola izeten zen segako ta.

Ink: *Orduan bazen...*

Bai, bentaja pollite. (...) Ogei duro...kin biajia, e! ul... artu emendik, Aniztik artu eta Ultzamara oei duro. Ya gero, garestixao asi zen, ya o... asten ya Frantzitik beitia-gotik eta ya... asia zen iruetan oei du...rotan yoan giñen... biño iruet... iruetan oei kilokin, e! iruetan ogei kilo bizkerrian iruetan oei duro, oei kiloeindeko oei duro.

Ink: *Ta kao, lendabizi emendik ara(t) gan.*

An gan. Ats... atsaldeko bi orduetan atra emendik eta illunabarreko arat. Illu... an illunabarrian artu paketia, unera. Te, biamunian emendik artu berriz, ta biamun gauian berriz entreatu Ultzamara.

Ink: *Orduan bazen... zenbat ordu pasten zenittuzten paketikin?*

Gu allatu gara illunabarrian artu, eta, biamun goizian, argi-estian Ultzamako Bentaa ezin allegatuz. Emen illun... urte berri eune. Anizen illunezkille yoka, gu gañeko aldi ortan. Biamun goizian argi-estian Ultzamako Bentan, baizu zen den, pues Ultzamako Bentara ezin allegatuz.

(...) Ta gero, an utzi, Ultzamako bentan gasna... eltzian iñe... yan, ga... gasna beratue, itxeoandrea yeiki biztertian, ta itxeoandria yekitzen tzelaik, gisedue iten tzuen, bere or prestatzen zen gisedu ure yan, eta, buelta berriz oñez, eunez eun igual belauñetaañoko elurrian, e! Ako... ni(k) e[r]te uten urte berri eunian gan giñen artan, belauñetaañoko el... elurra baño geiao bazen, e!

F.

Ez giñun yornalik egun artan, paketia galdu bazian etziñun yornalik, yornala fuera. Oai baloria... or baziren nausiek eta baziren enkargatuek, artzen zuztenak e... arrixkuekin. Porejemplo pues e... onbertze pakete (e)kartzeko pues onbertze arrixku artzen zutenak, orduen arrixkue artzen zuen arek bai, ure biar tzion berriz bere nausiari ordaindu... ze arrixkue artue zuen ori biar tzion, biño, guk... paketea galdukoa(k) e... pionak, egun artan yornalik ez. (...)

Ink.: *Eta pakete oiek gero subastatzen ziren?*

342 Bi testu ematen ditugu hemen, bat Anizkoa eta bertzea Berroetakoa. Biak gizonak dira. Hitz batean biltzeko: Basaburuko testu hauek erakusten duten ñabardura aipagarriena da palatalizazioak (*giñen, biño, illunezkille, illunabarreko...*) maizago ageri direla bertze herrietan baino. Bertzetan, ez da holako desberdintasunik. *Itxe, itxeoandria...* bezalakoak ere hemen aditzen dira (eta Oronozen ere, jakina).

Arpatuko oiek bai, baño subastaen zien. Ek Iruñera... Iruñera gan Aziendara ta...

Ink.: *Iruñen?*

Elizondo Aduanan ere bai. (...)

Ink.: *Aziendak nun subastatzen ziren?*

Aziendak ere... pues e... aziendak emen, emen arpatzen baziren ere... ematen zuzten Iruñe... Iruñeko Rotxapeako or idukitzen zuzten, nonbait ee kuadretan ta uste ut Iruñen eiten zuzten, bai. Emen ere bai z... ortako ainbet e... Elizondoko Aduana ortan iten zien subastak, bai.

Hogeita laugarren testua³⁴³: *Etxean pasatutako komedia*

Ni mutiko koxkor bat nitzelaik, baginuen mige bat "maxarra" deitzen giniona eta nere osaba egun batez asi zen uzterrien lotu eta lanian erakutsi biar ziola, baña lana nonbait ez gauze ona izaki ta mige diabru hure bazakarrelaik adarretaik artute, "buist" eskapatu zitzaion. Nolapaitere arpatu eta lotu zuen uztarren ta gan ziren "Larratzu" izeneko toki batera; bota zuen bago zaraka bat, lotu zion bei pariai gibeletik ta eldu ziren etxe aldera. Gure sagardi muturrian bada toki bat "Iretze-lepo" izena duena. Lepo artara alleatzian topo egin zuen mutil-zar batekin, beiekin askara ure edanaztera zaie-la. Mige txar arek bertze beiak kusi zituelaik asten da ezponda bat goiti, iten du salto bat, austen tu ediak ta botatzen tu bi puzter-ostiko ta gaten da laisterka etxera. Gure osaba gizajoa su eta garretan laxatzen du bertze beia, artzen du uzterrie bizkerrian ta gaten da etxera.

Nere ama aitzen arbi atratzen landan ardiendako, eguarditen maten baiginion tresna batian xiatute. Osabak artu zuen buru-zare bat ta gan zen eske; ta ardiekin torri orduko an zauden beiak larrañean. Migek kusi zuelaik arbi zare hure, pasan "klazk" tiretu zion kolpia buru-zarera. Osabak bulke aitzinet ta migek tira gibelat, azkenian unek garaitu ta arbi ta buru-zarea gibelat botatzeko lana. Artzen du makil bat berualdi on bat mateko asmuakin, ta naiz katu-basa bezein zaulie izan nere osaba, mige zau-liago. An dazi lasterka etxe arteka barna loia ta ure dariotela. ¡Motellak ango azazkal soñue! Etzuen makilekin ukitzeko moduik izen ta bueltan torri orduko bertze beiek arbi guzie yan zioten, eta antxe gan zen berriz osaba gizajoa arbi eske.

343 Almandozko bi testu hauek badute, gure ustez, interes berezia. Mutiko batek eskribituak dira (12 eta 13 urte zituelarik), batasuna abian jarri zen garaian. Almandozkoa da mutikoa, Basaburukoa hortaz, baina hemen ageri den euskaran ez ditugu ikusten espero diren palatalizazioak, eta mintzo hau erraz dator bat Baztango mintzaira hedatuenarekin. Aski testu politikak dira (bigarrenak 'Baztango Idatz-sariketa' irabazi zuen 1970an).

Nere lantxo au irakurtzeko modue balu nere osabak, gogotik irri eginen luke antxe baitago Ipar Amerika aldia orai dela urte batzuk gana, ta ala gertatu balaiteke, lerro oken bidez igortzen diot besarkada bero ta aundi bat, ta laister elkar emen ikusteko gogoakin.

Agur ta bertze bat arte.

Norberto Agerre. 12 urte.
Almandoz. (1969ko iraila)

Kito tratularie

Omen zen gizon bat aitzen zena oyanetan lanian manduakin. Omen zuen mando gorri bet naiz gaztia izen ondatuz ondatuz zagona. Nunbait tratu txarra eman zioten, kasu guti in ere baita arrunt txar omen zagon.

Gizon arek erabaki omen zuen saltzia. Egun batez etorri omen zitzaion kito txar bat mando erostera. Asi omen ziren tratuen ta batek goiti bertziak beiti, noizpaitere akitu omen zuten tratue ta onik bazayelaik bere etxe aldera, kituak erran omen zion bazituela mando ederrak ta nai bazuen ekarriko ziola bat ederra, ta gure gizonak erraten dio:

- Ez diet nai, enauk fietzen irekin bat ere, berdin emendik ilabete baten buruan baituk Tafallan feriek ta andik erosikoyet bat nere gustora.

Egunek gan egunek etorri allegatu ziren feriek. Gan zen gure gizona mando erostera. Belaxe sartu omen zitzaion begitik ederki moztue ta apaindue mando gorri bet gorki majua. Asi omen zen tratuan, in omen zuten kirrikilli karrakalla aldi bet, ta azkenian erosi omen zuen. Sartu kamion batean, ta eldu de bere errira. Etxeko atian omen zagon mutile, ta nausiek erraten omen dio:

- Patxi, ator unat, erosi yet mando bat xarmanta ta yautxi biar dugu emendik.

Gaten da mutile kamionatik yaustera ta erraten dio nausiek:

- Mando au erosi yet, ongo majua gañera.

- Ylumm... au ez al da gero gure lenauko mando gorri ure zuk lau sosetan kituari saldu zinion ure?

- Ago ixilik gizona aren aldian manduauk au.

- Ba laster ezautuko da lenagokua balin bada, agudo arrapatuko du ure edateko aska, eta bere eiko atia ere bai.

Yausten omente kamionetik, kentzen diote kaprestuek, iten omen tu bi murrikoaldi ta lasterka an daie ure edatera.

Urez ongi ornitu zelaik bota omen zituen bi puzter ostiko ta tarrapataka sartzen omen da xuxen demonio bere lenagoko tokire. Mutilek erraten omen dio nausiari:

- Enatzun erran, gure lenagoko mando gorri ure zela?

- Kito madariketua, ez dietak ziri txarra sartu. Lau sosenan kendu nien, zer nai ordaintzeko lana izen diet ure bera.

- Zirie?, erraten dio mutilek –Ederra bai, ta gañera zorroztu gabe.

Gure aitak majo kontaktzen tu bertzenak ta beriak ixildu, baño orain kontatuko datzuet zer yokada in zion kito orrek berak gure aitari asto batekin.

Guk baginuen asto zar bat ta “Putx” patu ginion izena, ta badakizue zertaz? Errain datzuet au ere, karga soberaxko ematen giniolaik gibelesko aldeko zirritotaik egunte munduko soñuek ateratzen zituen, ta arrayoik ezpazen usain kiretsakin gañera. Orrengatik erraten ginion: “Putx”.

Egun batez eldu de kito zar ori gure etxera ta baite astoa erosi behar zuela. Aitek erran zion:

- Bai to!! Ori saldu ta ederki gelditzen gaituk asto ori gabe. Ez, ez eztieta salduko.

- Ba! Ezpaduk saldu nai truketu inen dat bertze asto batekin, amabi bat urte-tik eta ernari gañera.

- Ba! Ola balin bada ikusko yegu ta truketuko dat.

- Emendik iru edo lau egunen buruan etorriko nauk.

Baite ala in ere. Iru egunen buruan eldu de asto gañean bere bete espantuekin, ta asto polite ematen baitzuen gelditu ginuen.

Biaramonian asi zen aite ongarriketaz luzernara. Damba! Etzaten zaio bere buru zuriakin luze luzia.

- Asto zar unek zer in biar dik erdi edo zer?

- Erdi? Giro zio andrillen; etzan biako, zutik egoteko ez baizen gauze. Amabi urte zituela? Anka bakotxan bai bazituen amabi urte.

Gure “Putx” gizajoa... Olaxe akitu zen aren bizie gure etxean...

Kito zar itxusi ure bizi bada, zenbait asto ta abere zar sartu du gaugero bazterretan.

Emen akitzen da gaurko nere kontue.

Agur, eta beti arte.

Norberto Agerre. 13 urte.

Almandoz (1970eko urria)

6.2. Baztango testu batzuk, bertze mintzo batean eskribituak

Sail honetan bildu ditugun testuak baztandarrek idatziak dira (baztandarren izenarekin agertu dira behinik behin), baina, gure ustez, ez dute hango mintzoaren eredia behar bezala islatzen, gauza bat baita euskalkia ‘apaintzea’ paperean jarri aitzinetik, eta bertze bat, desberdina, apaintze horrekin bertze euskalki baten ezaugarriak hartzea.

Badira testu hauetan predikuak eta testu erlijiosoak. Baina badira egunkarietatik ateratako testuak ere, aski zaharrak. Alde batera utzirik hizkuntzaren barneko kontuak, horien gainean baita liburu hau eskribitua, aipatzekoa da testu horietan ageri diren kezkek, neurri handi batean, oraintxe berean ditugun kezka berberak direla, hizkuntzari dagokionez.

Lehenbiziko testua: *Adbientoko 4. igandea*³⁴⁴

Sermo Dominicae, 4. Adventus 1791

Factum est Verbum Domini super Ioannem Zacarie filium: L.C.3.

1. Ain dira aundiyak eta ageriyak kristabak, gizon saildu eta virtuosak denbora guzi ortan ematen dazkiguten exenploak, non oken bistan ezpaitezake niork ere eskusarik paratu, Jangoikoaren lege eta mandamentu sailduba ez guardazeko. Egun proponizen daku San Lukas Ebangelistak San Juan Bautista gloriosua, gizon bat ain justu eta birtuosa, non igiazki erran baitaiteke, onen gauza guziyak, onen yate, edate, beztize, eta berze gañerako gauza guciak, direla ispillu eta exenplo aundi bat, guri erakusteko nola eta zer gisa bizi biar dugun mundu ontan. Izan zen bada Bautista gloriosua gizon bat ain saildu eta justuba non Jesu Cristo gure Jauna deitu izan baizuben aingeruba, **Ecce ego mito angelum meum, qui preparavit viam tuam ante te**. Deizen du ba Jesu Kristo gure Jaunak Bautista Sailduba aingeruba, ez zergatik naturalezaz aingeruba izan zen, anizek gaizki pensatu izan duten bezala, baizika zergatik bizitu izan baizen munduban aingeruba, zergatik bizitu izan bai errateko maneran, yan eta edan gabe zeruban aingerubak bizi diran bezala, finean deitu izan zuben aingerubaren izen glorioso one-

344 Izenik gabe, Pagola, RM & alii, 1995. Hau ez dela Baztangotzat hartzen ahal erratea, behar-bada sobera erratea da. Baina euskara landuan idatzia da (baditu hitz aunitz hango mintzoan neketaz harrapatuko direnak), asimilazioak eta disimilazioak ez ditu batzuetan errespetatzen, literatura testua izatera jotzen du (*ezen*, han ibiltzen ez dena; *non oken bistan...*), eta, batez ere, kontsonante epentetiko horiek (*aundiyak eta ageriyak kristabak*) desitxuratzen dute arrunt, eta kentzen diote hango mintzoaren ñabardura. Egia da, hala ere, badituela bertze ezaugarri batzuk (*datzuet*, hemen *dazubet* gisa emana; *dazkiguten*; *saildu*, *guzi*, *oken*, *berze*, Malerrekan eta Bortzirietan ere ageri direnak) hango mintzokotzat jotzen ahal direnak. Ortografia batu dugu pixka bat.

kin zergatik gizonen artean bizi zelarik erdiasi izan baizuben autore batek dion bezala, zeruko aingeruben perfekzione eta santitatea.

2. Bañan adbertitzen eta erreparatzen dut denbora berean, ezen San Lukas Ebangelista minzo delarik San Juan Bautista gloriosuaz, oroizen dela denbora berian Zakarias San Juanen aitaz. **Factum est verbum domini super Joannem Zacarie filium.** Zer kausa eta motiboz bada arzen du agoan eta egiten du oroizapena Zakarias San Juanen aitaz, San Juanez minzo den denboran? Erranen dazubet, zergatik erratiarekin Zakarias dela San Juanen aita, gloria eta hore aundi bat ematen baizaio; bai cristabak, ume on eta bertuosan guraso izatea, ume justu eta sainduben aita-ama izatea, da hore eta gloria aundiya, ála ume gaxto eta galduben guraso izatea baita desditxa eta deshore aundi bat; eta zertan dago comunki umeak onak edo gaxtoac izatea, bertuosak edo biziosak izatea? Beren gurasuak ematen duzten eskola eta exenploetan. Comunki gertatzen oi da ezen exenplo eta eskola onarekin azten diran umeak, bertuosak eta onak ateratzen dira; bañan exenplo eta eskola gaxtuan azten direnak errebes eta gaxtoac; ezta bada dudarik kristabak, ezen gurasoen baitan dagola umeen izate guciya. Tipitik azten baldin baituzte biarden bezalako doktrinarekin, beti segizen dabe gurasoen exemplo onak; bañan tipitik beren obligacioneaz anzirik uzten baldin baituzte beren gisa, gurason falta beti ezaguzen zaie, eta finean, guraso gaxtuac kausa sekulako galzen dira.

(237 – 238. orr.)

Bigarren testua³⁴⁵: *Erratzuko dotrina*

G. Yayo zenian ikusi zenuben Jesu Kristo?

E. Ez, Jauna.

G. Ikusi zenuben hill zenian edo Zerubetara igan zenian?

E. Ez, Jauna.

G. Siñesten duzu?

E. Siñesten dut bai, Jauna.

G. Zergatik siñesten duzu?

E. Zeren Jangoikuak agertuba den eta Eliz Ama Santak erakusiya den.

345 Izenik gabe, Pagola, RM & alii, 1995. Testu honekin ere aitzinekoarekin bezalatsu gertatzen da. Berez mugatua da (galde-erantzun laburrak, eta erlijio testua), baina berriz ere ageri dira kontsonante epentetiko horiek, testua arrotzu egiten dutenak. Erratzun ez da hola mintzo jendea. Bertze gauza batzuetan, Iparraldeko euskalkien eragina ageri da, nahiz palatalizazio gehiegi dagoen. Ortografia aldetik batu dugu neurri batean, ez baitzen (batez ere 'h' letraren ibileran) inolako koherentziarik.

- G. Zer gauza dire cristabak bezala artubak eta sinesten dituzunak?
E. Erromako Eliza Santak artubak eta siñesten ditubenak.
G. Zeiñ dira ark eta zuk artubak eta siñesten dituzubenak?
E. Fedeko articulubak, beñik beiñ kredoa aurkizen diren eran.
G. Zer dira fedeko artikulubak?
E. Fede bereko misteriotik haundiyenak.
G. Zertako dire fedeko artikulubak?
E. Nor den gure Jangoiko, nor den gure redentore, Jesu Kristo, banaka eta berez adierazteko.
G. Nor da gure Jangoikua?
E. Eziñ erran ta asma ditekin gauzarik ederrena, arrigariyena, ezin geyagoko Jaun bat ontasunez, yakinduriz, halez beterik aurkizen dena, gauza guziyen egillia eta yabia.
G. Nor da Trenidade santuba?
E. Jangoikua bera Aita eta Semia eta Espiritu Santuba, hiru persona eta alere Jangoiko bat bakarra.
G. Aita Jangoikua da?
E. Bai, Jauna.
G. Semia Jangoikua da?
E. Bai, Jauna.
G. Espiritu Santuba Jangoikua da?
E. Bai, Jauna.
G. Iru Jangoiko dire?
E. Ez, baizik bat bakarra.
G. Aita semia da?
E. Ez, Jauna.
G. Espiritu Santuba Aita edo semia da?
E. Ez, Jauna.
G. Zergatik ez?
E. Zeren personak ez diren bat Jangoikua bakarra bada ere.
G. Jangoikua zergatik da guziz alsua edo poderosoa?
E. Zeren bacarrik egiten duben nai duena.
G. Zergatik da creazallia?

E. Zeren gairik bage egiñ zuben den guziya.

G. Zergatik da salbazallea?

E. Zeren emaiten duben graziya eta barkazen tuben bekatubak.

(448. orr.)

Hirugarren testua³⁴⁶: *Gure baserritar ta nekazariak*

Auxe da gaurko egunean nekazariak esaten dutena: "nekazari jendea baño arloteagorik ez da iñor".

"Arlote" itz onekin bear bada ez dute esan nai itzez-itzez, zoritxar, utskerik edo orrelako beste zerbait, baizik, nekazariak ta baserritarrak baño neketsuago, zorrotzago ta arrastago ez dela iñor bizi.

Ez dakigu etorkizunaren berri. Bañan, gaur, gaurkoz, arrazoi ederra badaukate gure baserritar ta nekazariak. Argi ta garbi dakiguna da baserria utzi, nekazaritzakoa utzi ta or barna dijoztela famili sail ederrak. Eta au ez bada, etxalde ta maiorazgo askotako seme ta alabak, mutilzar ta neskazar gelditzen ari dira ez dutelakotz ikusten baserriaren etorkizunik. Ez du iñork ezkondu nai baserrira. ¿Nun dago errua? Zer egin? Nundik asi? Nola jarrai?

Industri gauzak indar aundian sartuak daude ta ongi dijoaz.

Dendetako ta komertzioetako jendeak, orain bezela ez dira sekulan bizi izan. Gauzak urrutira ikusi dituzte eta aintzina, aurrera juañ dira. Gaurko egunera daude.

Gure baserritar-nekazariak berriz, zalantzetan daude: erenegun gaizki, atzo okerrago, gaur juxtu juxtuan bizi, ta biar il. Orrelaxe bizi da gure baserritarra. Industriak, komertzioak eta beste lanbide guztiak, bestelako aurrerapenak eta laguntzak akitu dituzte.

Nekazaritzari buruz amets ta itzaldi franko egiten da: elkarte-kooperatibak egin bearez; erreztasunak arkitu nairik; egunera bizitzearren, bañan... agitz bare, ttantto emendik ta ttantto andik, ikusten dira laguntza, erreztasun ta aurrerapen oiek.

Gure errietan nekazaritza bear-bearrezkoa degu. Garrantzi aundienetako gaitz bat degu baserria, nekazaria. Eta gure baserritarrek, nekazariak, milla oztopo ta ezbear arkitzen dituzte zerbait egin nairik-ere. Nekazariak, baserriak, bereak izan bear ditu abereak edo ganaduak. Eta orretarako mendiaz baliatu bear. Abere mota guztiak ugal-

346 Gortari J., 1966. Testu hau baztandar arraioztar batek eskribitua da, hizkuntzaren batasuna egin aitzinetik. Baina testua, dagoen-dagoenean, ortografia goiti-beheitiak kendurik, batuan dago, geroztik idatzi izan diren milaka orrialdetan ikusten ahal den ereduñ (gipuzkeran oinarritua). Baztangoa izan daiteke, edo nonahikoa. 'Usain' guti du hango mintzoaz, nahiz batzuetan *aintzina*, *franko*, *dutelakotz*, *sekulan*, *ttantto*, *irazelaiak*, *ongarria*, *idekiak*... bezalako hitzak ibiltzen dituen, baten batean itzulpena eta guzi emanez

du bear badira, au da, gure lurralde aueri egoki zaizkionak: beiak, ardiak, zaldiak eta txerriak, zergatik jarri trabak, oztopoak?

Zein dira oztopo ta traba oiek? Lenbizikoak ta inportantzienekoenak, ardienak eta beienak. Ardienak: mendi librerik ez badago, ardirik ezin euki. Beienak: iratze tokiak (irazelaiak), garo tokiak piñuz betetzen badira, zerekin egin ongarria (gorotza) alorrek eta soroak goroztatzeko, abonatzeko? Erribera'ko lastoarekin? Ura nun dago? Eta gero nor-araño eraman bear?...

Baseri asko iratze adar bat gabe gelditzera dijoaz. Etxe atariraño itxi dizkie bazter guztiak, alde batetik diputazioak eta bestetik erri bakoitzako aiuntamentuak. Gisa ontan nola ugaldtu abereak? Nai ta nai ez erreztasunak eman bear zaizkio baserriari, eta ez itto, ez estutu iñundik-ere. Lasaitasuna ta bideak idekiak akitu bear ditu.

Gortari Ugarte'tar Juan
(1966ko urria)

Laugarren testua³⁴⁷: “*La Voz de Navarra*”ko testuak

Erratzu

Arras ongi igaro ditugu deun Kepa, erriko zaindariaren jaiak. Elizkizunak, kristotar erri bati dagokion bezela, gain gaiñekoak. Erri jaiak, oitura zarrak erakusten duen bezala. Ez degu sumatu ezbaida tipienik ere; dena alaitasuna.

Ibilketak

Mexikotik etorri zaizkigu bi gazte, Eustakio eta Mikel Dendarieta anaiak. Urdazubiarrak dire sortzez, bañan omen osaben artean aziek direlakotz, guretzat erritarrak. Gazte azkarrak, erneak, euzkotarrak: beren bizi bide irabazkorra Ameriketa aldean edeki dute.

Mikel, ango euskaldunen artean, arras ezagune da: gure ereserti eta abesti goxo euskaldunak jo ereskin etaz eta iras orratzen (radio) bidez edatu ditu, Mexikon, euskaldun belarri guztietara. Gañera ango Euzko Etxean, euskal aurreri erakusten die emengo dantza eta oitura gureak. Ongi etorriak bi anaiak.

Ustegabe (Erratzu, 1934-07-05)

347 “*La Voz de Navarra*”-n argitaratua, 3470 zbk, 1934-07-08, Erratzutik ‘Ustegabe’ ezizenarekin sinatua (Niceto Beltzunegi). Testu honek usain guti du Baztango mintzoaz: *igaro, deun Kepa, jaiak, elizkizunak, kristotar, dagokion bezela, jaiak, oitura, ezbaida, alaitasuna, guretzat, ereserti, abesti, aurreri...* arrotzak dira han gehienendako. Egia da *arras ongi, tipierna, aziek direlakotz, arras...* bezalakoak hurbilago sentitzen ditugula.

Bosgarren testua³⁴⁸: *Nik ere itz bi*

Barren barrendikan eskerrak, Azkue jauna. Nik eskatu bañon askoz geyago eman dirazu.

Euskerazko gauzak irakurtzea zaila dala euskaldun askok esaten dute, ta oiei lauso ori kentzeko argibidea nai nuan, ¿Zer egin? Zuk zerbait esan-da ori itritxiko nuala gogoraturik, asmo ori erakutsi nizun, eta nik uste bañon obetoko lana egin dirazu.

Euskera garbia, txukuna ta ulerterreza ipiñi detala Euskaltzaindiak Buru duanak esatea bañon geyago ¿zer? Zuk ori esan ezker, liburutxo au baztar guztietara joango da, ta guztietan ondo artuko dute; ta euskaldun guztiok, batez ere nik, ori beti zorko dizugu. Guztien izenean, ba, eskerrak.

¡Euskaldun maitea! Nork bere izkuntzako gauzak irakurtzen ez jakitea, edo oiturik ez izatea, lotsagarria da, ta ortan oso errudun gerala aitortu bera degu.

Seigarren testua³⁴⁹: *Etrea*

Aspaldi aspalditik euki du gizonak etxearen bearra. Lenbizi otzaz gordetzeko bakarrik zan, eta ortarako sartu ziren gure aspaldikoak lezetara bizitzera.

Baña, gutxi gutxika, emakumearekin bizi eta familia zer zan ezagutu zuanian konturatu zan etxea ez zala bakarrik bizi zan tokia, ez bakarrik lo egiten zuan edo jaten zuan lekua: etxea familiaren lekua zala; etxeagatik alkartzen zala familia.

Ola eldu da orai familiaz daukagun ulerkaira.

Orain ere, eta esan liteke orain len bañon geio, etxeagaitik ezagutu litekegu an bizi dan familia. Esate batez: erakusten ba digute leza baten argazkia etxe bezela, bereala dator gure burura bere familian izatea. Aita astakilloa bere makila aundiarekin eta narruz jantzita. Emakumea arri batekin aragia txikitzen, beti apal; eta azkenian semeak bata besteari arrizka edo ostikoka.

348 Elizondar batek eskribitua (Fray Fco. de Elizondo, *Lore usaindun mamitsuak*, Euskal Esnalean aurkeztutako lan bilduma da. Tolosa, 1922, vi. or.), baina ez Baztango mintzoan. Hor ageri diren *barren barrendikan, askoz, dirazu, irakurtzea, askok, esaten, itritxiko, obetoko, ipiñi, baztar, guztietara, joango...* ez dira gureak, eta gurea den guti ageri da testuan.

349 Lekarozko Oregui izeneko norbaitek eskribitua Principe de Vianan 1968ko maiatza, 6. or. Hainbertze gauza sartzen ditu Baztangoko ez direnak hartzen ahal: *euki, gordetzeko, gutxi gutxika, zan, zala, zuanian, alkartzen, ulerkaira, liteke, etxeagaitik, litekegu, dan, digute, bezela, dator, astakilloa, argazkia, narruz, besteari, ontaz, litezke, guzi, danetako, izango, degu...* Horregatik erraten ahal da hau ez dela hango mintzoko erakusgarri gisa onartzen ahal.

Ontaz ezagutu litezke erri guzti eta denbora danetako familiak, beren etxeagaitik: griego eta erromatarren etxeak lo egiteko gelek in bakarrik; oiek bizitza kalean egiten zuten, ba. Erdi aroko gazteluak, arrizko mendi antzerakoak, bere orma aundiek in; an bizi ziran jauntxuak bere gudarostearekin, beti beste jauneki burruka eta gizontasunaz gai bere ikuskera politekin. Azkenian gaurko etxeak, txiki eta askotan zikiñak, bizitza aundietan sartuta, bere problemekin: umeak dirala, emaztian ama dala, eta ainbeste eta ainbeste geio.

Azkenean, betiko dan etxe bat: baserria. Len izan zana, orain dana eta, Jaungoikoaren laguntzarekin, gero ere izango dana. Baserrian daude gure erriaren oñari gogorrenak; eta guk geran bezela izatea nai ba degu, gorde egin bear izango degu orain eta geroko.

6.3. Azken oharra

Adibide hauek guziak ikusirik, bai testu idatziak, nola zuzenean mikrofono baten aitzinean hartutako arialdiak, berehala ikusten ahal dugu zaila dela zinez eredu bat atzematea, eta hara!, eredu hori eta ez bertze bat dela pentsatzea Baztango mintzoaren, edo bertze leku bateko mintzoaren, ispilu garbia. Egun zaila da egiaz halako ispilurik harrapatzea. Hasteko, Baztango kasuaz ari gara, hiztunen artean badira desberdintasunak, ez dago eredu finko bat, bertze arrazoen artean, gure euskalkiak ez baitu eredu idatzirik izan: ikusi dugu nola adizkietan, konparazione, desberdintasun handiak ageri diren. Bertze aldetik, herrien artean ere badira desberdintasunak. Tipiak, nahi bada, baina bai ohartzeko adinakoak. Horrek ere irekitzen du bidea eredu desberdinei.

Baina kontua da, arazoa hor bukatuko balitz ere, eta hori guzia konpondurik balitz ere, bizi garen munduan bizi garela: hango euskarak, eta toki guzietako euskarak, hitz berriak bereganatu behar ditu, egungo gizarteak etengabe eskatzen baitizkio hitzak kontzeptu berriei izena emateko. Eta hitz horiek bereganatzeko orduan normalena da euskalki guziek antzeko hitzak ibiltzea, aski baita norbaitek ongi asmatzea zerbait bertzeek ere hartzeko (gaizki asmatzen direnak ere onartzen dira, pentsa, sekulako arrakastarekin gainera), eta horrek hizkerak berdintzeko joera dakar berarekin. Azkenez, hedabideak ditugu, eta hezkuntza, etengabe presioa eta indarra egiten ari dena gauzak berdintze aldera. Hortik sortzen da testuak euskalki batean, euskara 'apainduan' eman nahi badira segurik, emateko zailtasuna. Horretara, ez badugu fonetismo antzuenetan erori nahi, eta euskara duin bat ibili nahi badugu, dagoen irtenbidea da tokian tokiko hiztegia beldurrik gabe ibiltzea, erranahiruak sartzea, baliabide sintaktiko urri horiek ere beldurrik gabe ibiltzea, horrek emanen baitio testu bati ñabardura berezi bat. Ez du, beharbada, bertzerik gabe euskalki horretako testu bihurtuko, baina bai emanen dio ñabardura goxo bat, nortasun pixka bat erakutsiko duena, batua izanik ere, batasunaren itsasoan.

7. KAPITULUA

HIZTEGIA

7. KAPITULUA

HIZTEGIA

Sarrera

Norbaitek argitasun sarrera bat-edo idazten duenean, hau bezalako zerbait erran nahi dugu, bertze norbaitek, zu bezalako norbaitek erran nahi dugu, leituko duelako esperantzarekin idazten du. Baina arruntean, hobereanean ere, arreta gehiegi gabe irakurtzen dira. Sarrera hau irakurtzeko eskribitu dugu, bertzenaz nekez ulertuko baita ondoren datorren hiztegia. Jar ditzagun hortaz berehala, irakurlea azkenera pasatzeko tentaldian erori baino lehenago, zein diren hiztegi honen xehetasun batzuk.

Sarrera batzuk letra beltzean ematen ditugu (**ogi**) eta bertze batzuk letra etzanean (*alketu*). Baina bigarren kasu honetan segidan jartzen dugu “ik. **ahalketu**”. Horrek erran nahi du, hiztegiak bertze zehaztasunik egiten ez badu, Baztanen **ogi** eta *alketu* direla ibiltzen diren hitzak, eguneroko hizkeran. Hola ageri dira sarrera hauek hiztegi honetan (bakoitza bere tokian, jakina):

ahalketu (*alketu*) ‘lotsatu’: *olako tsuskeriek kusi ta alketu ginen. Alketzen naiz* (“horrelako itsuskeriak ikusi eta ahal-ketu ginen. Ahalketzen naiz”).

alketu ik. **ahalketu**

ogi 1 ‘gari irinez, urez eta gatzez osaturiko orea, orantzarekin goitituz eta labeen errez egiten den jangaia’: *lenago, astero iten ginuen ogie* (“lehenago, astero egiten genuen ogia”). 2 ‘garia’: *landa ortan eriten ginuen beti ogie, baño aunitzetan etzen ain ona atratzen* (“landa horretan ereiten genuen beti ogia, baina aunitzetan ez zen hain ona ateratzen”).

Zein da bi hitz hauen arteko desberdintasuna, zergatik daude letra molde desberdinetan? Batean, **ogi** sarreraren kasuan, hitz hau Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan*¹ dago, eta hemen han dagoen bezala ematen dugu, dagozkion azalpenen aitzinean. Baina *alketu*, ordea, ez da ageri *Hiztegi Batuan*. Honen ordez, hiztegi batuan **ahalketu** da ageri dena, hori arruntago eta komunago baita bertze aldaera baino, eta hola ibili baitute idazleek. Horregatik, *alketu* sarreran erraten dugu **ahalketu** ikusteko ('ik. **ahalketu**'). Eta **ahalketu** sarreran, berriz, parentesi artean paratu dugu nola erraten den Baztanen. Hortaz, hau da hemen ematen den informazioa: Baztanen **ogi** erraten da, eta **ogi** da hizkera batuan ere ibili behar dena. Eta Baztanen *alketu* erraten da, ez **ahalketu**, baina **ahalketu** da hizkera batuari dagokion aldaera.

Batzuetan holakoak ere ageri dira: “**aiztur** (eta *aixtur*, *axtur*)”:

aiztur (eta *aixtur*, *axtur*) (pl.) ‘guraizeak’: *aixturrekin moztu zion ilea. Aixturrek emen tuzu* (“aizturrekin moztu zion ilea. Aizturak hemen dituzu”). Baztanen aldaera hau (ez ‘guraizeak’) ibiltzen da.

Parentesi artean letra etzanez eskribiturik dagoen hitzaren aitzineko aldean ‘eta’ paratzen badugu, horrek erran nahi du kasu honetako hiru aldaerak ibiltzen direla Baztanen (eta ez gara ari hemen hizkera adierazkorraz), hiztun batzuek **aiztur** baitiote, bertze batzuek *aixtur* eta bertze batzuek *axtur*. Baina, aldaera batua **aiztur** da, eta horregatik dago molde beltzean. Horregatik, zein bere tokian ageriko dira bertze bi hauek ere:

aixtur ik. **aiztur**

axtur ik. **aiztur**

Ohart gaitezen badela desberdintasun bat **ahalketu** eta **aiztur** sarreraren artean. Batean ‘**ahalketu** (*alketu*)’ paratu dugu, eta bertzean ‘**aiztur** (eta *aixtur*, *axtur*)’. Horrek erran nahi du **ahalketu**-ren kasuan *alketu* bakarrik ibiltzen dela Baztanen, baina **aiztur**-en kasuan hirurak. Horregatik jarri dugu ‘eta’ hori. Bertze hitz batzuetan errateko: sarrera letra beltzean ageri bada, horrek ez du erran nahi hitz hori hangoa dela nahitaez: hangoa da parentesi artean heldu dena, edo letra etzanarekin dagoena zerrendan, baina parentesia ‘eta’ batekin hasten bada, horrek erran nahi du parentesi arteko hitza, edo hitzak, eta letra beltzean dagoena ere, denak direla Baztangoak.

1 Euskaltzaindia, 2000, *Hiztegi Batua*, Aldizkari ofizialean (*Euskera*, 45. liburukia, argitaratua), Bilbo.

Beraz, eskuetan duzun hiztegi honek bi motako informazioa ematen du: batetik, nola ibiltzen ditugun hitzak hango mintzoan, eta, bertzetik, zein den hitz horien aldaera batua. Hala, irakurlea nahi den tokitik sartzen ahal da hiztegi honetan, sarrera bat bilatu nahi duenean: euskalkitik, “*alketu* ik. *ahalketu*”, edo hizkera batutik, “*ahalketu (alketu)*”.

Irakurlea ohartuko da hitz elkartuak, arruntean, marra batekin jarri ditugula (*ikus-sari*). Holakoetan Euskaltzaindiak aukera ematen du bietara eskribitzeko (marrarekin, guk hemen gehienetan paratu dugun bezala edo marra gabe, bi hitzetan: *ikus sari*). Guk lehenbiziko bidea aukeratu dugu hiztegi honetan, argiago gelditzen delakoan (testu idatzietan, ordea, nahiago dugu marra gabe eskribitu arruntean, bertzenaz arras astun bihurtzen baitu testua).

Aldaera batua aukeratzeko orduan bertze erabaki batzuk ere hartu behar izan ditugu: *Hiztegi Batuak* batzuetan argi eta garbi dio hitz baten ordez bertze bat ibili behar dela (“*erropa* e. *arropa*”). Bertze batzuetan, ordea, aldaera bat hobestea gomendatzen du, bertzea baztertu gabe (“*buruil* h. *irail*”). Holakoetan arazo bat izan dugu: Baztanen, konparazione, *aunitz* erraten da, ez *anitz*. Baina Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuak* *anitz* aldaera hobesten du, bertzea gaitzetsi gabe. Kasu hauetan guk Baztangoari eutsi diogu, aldaera hau Akademiak arras baztertzen ez duenez. Hala, bere horretan utzi ditugu bai hiztegi sarreretan, nola adibideetan ere: *aunitz*, *guzi*, *borobil*, eta abar. Ez dugu holakoetan inolako oharrik egin.

Hala ere, hemen duda bat baino gehiago izan dugu. Konparazione, Baztanen *zilo* erraten da oro har, nahiz *zulo* ere ageri den batzuetan (Basaburu eta Oronoz aldean maizago bertze tokietan baino). Euskaltzaindiaren hiztegian *zulo* proposatzen da euskara komunerako, baina *zilo* ere onartzen da, bere mailan (“*zilo Ipar*. h. *zulo*”). Hemen ibili ditugun irizpideen arabera, argi da *zilo* sarrerari eman behar zaiola lehen-tasuna hiztegi honetan. Kontua da, ordea, gero hitz honek badituela zenbait eratorri: ‘*ziletu*’, ‘*xulo*’, ‘*xilo*’, ‘*xulotu*’, ‘*xilatu*’, ‘*begi-zilo*’, ‘*belar-zilo*’, ‘*eztarri-zilo*’, ‘*jan-zilo*’, eta abar. Hauetaz ez du ja erraten Euskaltzaindiak. Baina iduri du behin bat aukeratuz gero, dela *zulo*, dela *zilo*, gainerakoekin ere berdin jokatu beharko litzatekeela. Zuzen edo ez hain zuzen, guk *zilo* hautatu dugu, eta araberean jarri ditugu bertze guziak.

Bertze hainbertzetan Euskaltzaindiak ez du orainik deus ere erran: badi-ra hiztegi honetan sarrera *aunitz Hiztegi Batuan* ageri ez direnak, normala dena bertzenaz ere, nahiz sarrera hauek bertze zenbait euskalkitan ibiltzen diren. Holakoetan guk egin dugu zuzenean sarrera batuaren proposamena, ikusirik zein den, aukeren artean, maizen ibiltzen dutena idazleek. Aukera

egiteko, paregabeko informazioa eskaini digu Ibon Sarasolaren ardurapean argitaratutako *Orotariko Euskal Hiztegia*-k eta egile beraren *Euskal Hiztegia*-k, eta normalean autore honek markatzen duen lehentasunezko aldaera da guk onartu duguna ere, nahiz aldaketa txiki batzuk egin ditugun batzuetan. Azkenik, badira sarrera batzuk inon ere ageri ez direnak. Baztanen bakarrik bildu ditugu. Holakoetan, aukera bat baino gehiago izan dugularik eskura, guk egin dugu proposamen batua, betiere bi mailak bereizi nahian: gauza bat da nola mintzo den hiztuna, eta bertze bat, aski diferentea, mintzo hori nola eraman behar den paperera. Beti saiatu gara Baztango hizkera honen berri zintzoki ematen, batasunaren ikuspuntutik, arruntean egiten ez dena. Sarrerren kategoria zehaztu dugu batzuetan eta beharrezkoa denean, sarrerren adiera ere, adibide argigarriekin. Adibideak, gure ustez argitasunak hala eskatzen baldin badu, euskara batuan ere eman ditugu. Gehienetan hala paratu ditugu.

Aunitzetan, aukera egitea ez da batere erraza izan: badirudi, konparazio-ne, *ausiki*, *autsiki*, *atsiki*,... hitz beraren aldaerak direla, eta hiztegiek *ausiki*-ren alde egiten dutela. Hala ere, Baztanen *atsiki* eta *atsikitu* (*atsiki* egin ere jakina, *atsiki in* bezala ahoskatua) dira normal ibiltzen ditugunak. Kontua da, ordea, ez dugula euskal liburuetan *ausikitu*-ren adibiderik harrapatu: hala ere, hori jarri dugu hemen sarrera nagusi gisa.

Hiztegi hau, neurri handi batean, Mariano Izetak argitaratu zuen Baztango hiztegi ederrean² oinarritzen da. Hala ere, aldaketa aunitz egin dugu: batetik, sarrera berriak sartu ditugu, aurkezteko modua aldatu dugu, eta, bertzetik, Mariano Izetaren hiztegian ageri diren sarrerak, guk berriz ere bildu ez badiugu edo guretako ezagunak ez badira, Izetaren izenarekin eman ditugu. Holakoetan, Izetak bildua dela erraten dugu espresuki. Horrek erran nahi du hitz hori ez dugula bildu Baztanen, arrotza egiten zaigula, baina Izetak bada-karrela bere hiztegian. Adibidez, “*aiko* (Izeta) ik. *ahaiko*” paratu dugu, *aiko*-tik *ahaiko*-ra bidaliz. Hor ematen den informazioa da *aiko* hitza Izetak bildu duela, eta horren forma batua *ahaiko* dela. Hori bistakoa da Izetak berak ematen duen azalpenagatik. Baina gero “*ahaiko* (*aiko*)” idatzi dugu. Horrek ez du erran nahi Izetak *aiko* bildu duela eta guk *ahaiko*, guk ez baitugu ez bata ez bertzea bildu. Horregatik lerro horretan, Izetaren hiztegian ageri diren azalpenekin batera, “(Izetak bildua)” paratu dugu, hau guztia garbi uzteko. Gauza bera egin dugu hitzen bat Etxenikeren itzulpenetan bildu badugu baina gaur egun, hango euskaran, guretzat arrotza baldin bada.

2 M. Izeta, 1996, *Baztango Hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Definizioak zehaztu ditugu batzuetan, adibide osagarriak paratu, edo, bildu ditugun datuen arabera, aldaketak sartu, hobeki zehaztu nahian informazioa. Izetaren eta gure artean dauden desberdintasunak ere adierazi ditugu kasu batzuetan. Izetak noizbehinka Baztango hizkerari ez dagozkion (Sunbilla, Iparralde, Ultzama) sarrerak ere biltzen ditu. Errespetuz, bere horretan utzi ditugu guk ere, hemen berriz ere sartuz.

Batzuetan Izetak ematen dituen erreferentzia batzuk, tokiari dagozkionak, kendu ditugu, zabalagoak direla ohartu bagara (*agosaroi* eta *altaireru* ematen ditu Anizko, baina Baztango bertze muturrean ere, Arizkunen konparazione, ibiltzen dira. Horregatik, Izetak aipatutako herriaren erreferentzia hori kendu diegu bi sarrerei). Bertzenaz, hemen ageri diren Azkueren eta Gorosurretaren erreferentzia guztiak Izetagandik hartu ditugu, bere horretan utziz, nahiz batzuetan bertze era batean aurkeztu ditugun, hemen aukeratu sistemaren arabera.

Adibide batzuk aldatu ditugu, edo batuko aldaera bertze modu batera paratu: Baztanen *abretei* erraten da, eta horren forma arrunta *aberetegi* da. Euskaltzaindiak *abeltegi* ematen du bere hiztegi batuan, baina ez du debekatzen *aberetegi*, ez baitu horretaz deusik erraten. Holakoetan, uste izan dugu egokiago dela ahalik eta formarik hurbilena paratzea, Euskaltzaindiak espresuki baztertzea gomendatzen ez badu behintzat. Hortaz, guk *aberetegi* jarri dugu, informazio hau eman behar delako, eta hizkeratik ahal den eta gutienik urrundu nahi dugulako: *aberetegi* baztertugabea hurbilago dago han ibiltzen den *abretei*-tik, *abeltegi* arautua baino.

Hiztegi hau Izetarenarekin erkatzen badu norbaitek, berehala ohartuko da hainbertze sarrera ez ditugula hemen bildu. Bertze euskalkietako hitz arruntak ez dira, printzipioz, hiztegian sartu, non eta ez duten zerbaitengatik adieraztea merezi, Baztanen duten erabilera bereziagatik-edo. Konparazione, ondoko hauek bezalakoak, bertze batzuen artean, ez ditugu kontuan hartu: *bortitz*, *debekatu*, *debeku*, *deiadar* (Izeta), *deliberatu* (Izeta), *dena* (eta *den-dena*), *dolare*, *ederki*, *elizkoi* (Izeta), *eltze*, *eraztun* (Izeta), *errauts*, *errotazain*, *eskuin*, *espartin*, *ezpeldi*, *eztiki*, *ferra*, *ferratu*, *familia*, *farmazia*, *fruta* (*frute*), *gazur*, *gibelurdin*, *haragi*, *harri*, *hoge*, *herri*, *hozka*, *hurbil*, *hurbildu*, *hurbilegi*, *ilargi* (*ilergi*), *jarleku*, *jaun*, *jorratu*, *jostun*, *kamuts*, *kedar*, *kexu*, *kokatu*, *korrok*, *kutsadura* (*kutsadura*), *kutsakor* (*kutsekor*), *kutsatu* (*kutsetu*), *lanbro*, *lanbrotu*, *lauki*, *lauza*, *laxatu*, *legar*, *lekuko*, *lelokeria*, *makurtu*, *marrusketa*, *meremizendu*, *oker*, *oilanda* (*ollanda*), *olio*, *ondorio*, *ordea*, *oroitu*, *ozen*, *sabai*, *sabel*, *sail*, *sailka* (*sailke*), *sailkatu* (*sailketu*), *sarraski*, *siesta*, *soberakin* (Izeta),

soberatu, sorrera, sukar (*suker*), suntsitu (Izeta), euri (*uri*), urrikaldu (Izeta), urrun, xume, zelai, zenbait, zenbana, zikin, zur, eta abar.

Gauza bera egin dugu hitz mailegatu batzuekin (Baztango aldaera artikularekin emana): abioi (*abiona*), afizio (*afizionia*), bagoi (*bagona*), balkoi (*bakona*), telebisio (*televisionia*), akordeoi (*kordiona*), arratoi (*arratoñe*), arrazoi (*arrazoñe*), debozio (*debozionia*), diputazio (*diputazionia*), zinturona.

Dena dela, hitz arruntak gehienetan baztertu baditugu ere, bertze batzuetan espresuki sartu ditugu, emandako arrazoiak direla-eta. Hemen ematen ditugun hitz arruntak horregatik ageri dira, bertze tokietan ez bezalako erabilera baitute, dela erranahian (*harrapatu*, *abre*, *marranta*, *marrantatu*), dela mugatu/mugagabe kontuetan (*elurrean*). Hola, konparazione, joan aditzak badu erabilera iragankorra (berdin gertatzen da *ibili*-rekin ere), ‘eraman’ erran nahi duena. Kasu horretan, erabilera horren berri ere ematen da. Zenbaitetan, hitza arrunta bada ere, sartzea egoki ikusi dugu ahoskerak arras aldatzen baitu hitzaren itxura: *dudarik gabe* --> *doike*. Azken hitz hau sartu dugu. Eta batzuetan, nahiz itxura sobera aldatu ez, ahoskerari buruzko informazioa emateko ere bildu dira sarrerak hiztegian (*maxter* sartu dugu, *maizter* adierazteko, *jakina*).

Hiztegi batuan *Ipar*. edo *Naf*. markarekin ageri direnak ere bildu ditugu, Baztanen ibiltzen badira, Iparraldekoak izateaz gain Baztangoak ere badi-rela adierazteko, edo nafarrak direla berresteko. Bertze batzuetan, *Heg*. marka daramatenak ere, adierazteko, hain zuzen, hitz horiek Baztanen ere arruntak direla eta puntu horretan Iparraldetik bereizten direla. Noiz edo noiz aipamenak egin ditugu Urdazubiko eta Zugarramurdiko solasaz: hitz hau Baztanen hola ibiltzen dugu, baina Otsondoko mendia gurutzaturik bertze modu batean ageri da. Horregatik, batzuetan dialektologia aldetik interesekoa izan dezaketelakoan eman ditugu sarrerak: *katu* (Zugarramurdi edo Urdazubi aldean ‘gatu’ baita), *giltzatu* (Zugarramurdi eta Urdazubin ‘gakotu’), *gerra*, eta abar. Arrazoi berregatik sartu ditugu erdaratik hartutako hitz batzuk, *laminero* bezalakoak, han maiztasun handikoak direnean.

Azalpenak emateko orduan, ahal dela, Baztango hitzak ibili ditugu, baina aunitzetan Baztangoak ez direnak ere: *bulkatu* hitza (Baztangoa) “*bultzatu*” hitzarekin definitu dugu, baina azken hori ez da Baztanen ibiltzen. Argitzeko bakarrik jarri dugu, horrek ez baitu erran nahi bigarrenak duela bertzearen parean lehentasuna. Biak dira ibiltzeko modukoak euskara batuan. Horregatik, adibideak batuan eman ditugunean Baztango hitza errespetatu dugu (*bulkatu*).

Azkenik, hiztegietan arrunta ez bada ere, atzizki bat edo bertze ere (-kara) sartu dugu, Baztango mintzoaren gainean argitasuna ematen duelakoan.

A

aaide (Izeta) ik. **ahaide**

aaiko (Izeta) ik. **ahaiko**

aalez ik. **ahalez**

aantzi ik. **ahantzi**

aate ik. **ahate**

aateki ik. **ahateki**

abantzu adlag. ‘kasik; ia’: *abantzu bi urte badire emen garela* (“abantzu bi urte badira hemen garela”).

abantzu izan *da* ad. ‘azkenetan izan’

abar iz. ‘adaxka’: *lenago etzen orai bezala eta bear izeten zen sua pizteko abarra ta egurre* (“lehenago ez zen orain bezala eta behar izaten zen sua pizteko abarra eta egurra”).

abarrikatu, **abarriki**, **abarrikatzen** (*abarriketu*, *nabarriketu*) *da/du* ad. ‘desegin; suntsitu’: *aize unek bazter guziek abarriketu tu* (“haize honek bazter guztiak abarrikatu ditu”); *otzak abarriketzen zuen egun artan! otzak abarriketue nago* (“hotzak abarrikatzen zuen egun hartan! Hotzak abarriketua nago”); (Aniz) *nabarriketu zakuten* (“abarrikatu gintuzten” = ‘jo gintuzten’).

abarriketu ik. **abarrikatu**

abarte ik. **habarte**

abatu ik. **habetu**

abatz iz. ‘esnea gatzatzeko ibiltzen den zurezko ontzia, bi eskutere dituena, kaikua eta goporra baino handiagoa’: *abatza, ona dugu. Abatza non dago?*

abaxatar (Izeta) iz. ‘kisulabe edo karobi lanetan garbiketak egiteko tresna’: *abaxatar unekin ederki garbitzen tugu kisula-beain zikinek* (“abaxatar honekin ederki garbitzen ditugu kisulabearen zikinak”).

abe ik. **habe**

abere (*abre*) ‘behor, garaño eta zaldien motakoak’ (horiei bakarrik deitzen zaie ‘abre’ Baztanen).

aberekeria (*abrekeri*) iz. ‘astakeria’: *emen abrekeri aunitz iten tuzte* (“hemen aberekeria aunitz egiten dituzte); *inauteetan abrekeri aundiek in zuzten* (“inauteetan aberekeria handiak egin zituzten”).

aberetegi (*abretei*) ‘behor-azienda sartzeko tokia’: *Etxeberriko bordan abretei be-rrie in dute* (“Etxeberriko bordan aberetegi berria egin dute”).

abetu ik. **habetu**

abiadura (*abiadure*) iz. 1 ‘hastapena’. 2 ‘bizitasuna’: *abiadure ederra du orrek, ez diozu segitiko ez* (“abiadura ederra du horrek. Ez diozu segituko ez”).

abiadure ik. **abiadura**

abian (*abien*) adlg. ‘ibiltzen hasten’: *lan au abian jarri zen eguna* (“lan hau abian jarri zen eguna”); *gateko abian da* (“joateko abian da”); *orantxe berian abien ginen* (“oraintxe berean ateratzeko zorian ginen”); *abien zara?*

abiatu (*abietu*) *da-du* ad. 1 *da* ad. ‘abian jarri, bidea hartu’. 2 *da-*

du ad. ‘hasi’: *ni aurre nintze-laik abietu ziren soldaduek* (“ni haurra nintzelarik abiatu ziren soldaduak”) 3 *da* ad. ‘zerbait egiten hasi’: *eskolan abietu zen* (“eskolan abiatu zen”); *aurre xutik abietu de* (“haurra zutik abiatu da”).

abien ik. **abian**

abietu ik. **abiatu**

abilki izond. ‘modu abilean’

abisatzaile (*abisetzele*) ‘abisatzen duena’: *bat izeten zen peonak abisetzela, ta ari in bar zitzaion kasu* (“bat izaten zen peonak abisatzailea, eta hari egin behar zitzaion kasu”).

abisetzele ik. **abisatzaile**

abre ik. **abere**

abrekeri ik. **aberekeria**

abretei ik. **aberetegi**

abroka iz. ‘besta eta mozkorkeria’: *bere denboran abroka ederrak baitik inik* (“bere denboran abroka ederrak baditik eginik”).

adaje (*adarraje*) iz. ‘adakera’: *gure aariek adarraje ederra du. Orren adarraja!* (“gure ahariak adaje ederra du. Horren adajea!”).

adaki iz. ‘adar moztua, hostoak eta adax-kak kendu zaizkiona’: *adakie pileka gure ariztien. Adakie neguko* (“adakia pilaka gure ha-riztian. Adakia neguko”).

adano iz. ‘su-txingarrak biltzeko tresna’: *adanoa ona da su-koz-kor biltzeko*.

adareta (*arabeta*) iz. ‘XIX. mendean Euskal Herrian gehien ibiltzen ziren goldeen artean onena’: *arabetakin irauli dugu. Arabeta aspaldikoa da* (“adaretarekin irauli dugu. Adareta aspaldikoa da”).

adaro iz. ‘nekazaritzako zurezko lanabesa’: *lan au adaruakin in dugu. Lan ortako adarua ona da* (“lan hau adaroarekin egin dugu. Lan horretarako adaroa ona da”).

adarraje ik. **adaje**

adin iz. *adin batetik goiti, geienak eri* (“adin batetik goiti, gehienak eri”); *bazuen adine, etzen gazte-gaztia re* (“bazuen adina, ez zen gazte-gaztea ere”).

adin(a) izan ad. *gure alaba zaarrenain adine da* (“gure alaba zaharrenaren adina da”); *badira nere senarrain adinak* (“badira nire senarraren adinak”); *nere adine da* (“nire adina da”); *adin gara*.

adina (*adine, dine*) ‘bezain bat’ *zuk adine bai, gutienez*

adine ik. **adina**

adintsukoa(k) izan *da* ad. ‘ia adin berekoa(k) izan’: *oi nere adintsukoa da* (“hori nire adintsukoa da”).

adio (eta *adios*): *adio zuen!* (= ‘agur zuei!’). Ez da ibiltzen **adio zure!*

adios ik. **adio**

adiskidantza (*airkidantza*) iz. ‘adiskidetasuna’: *nik orrekin baut adiskidantza* (“nik horrekin baut adiskidantza”).

adiskidego iz. ‘adiskidetasuna; adiskidantza’

aditu *du* ad. ‘entzun’: *ez in gero olakoik! aituzu?* (“ez egin gero holakorik! aditu duzu?”); *emendik ez da batre ongi aitzen* (“hemen-dik ez da batere ongi aditzen”); *aspalditik ez du ongi aitzen* (“aspalditik ez du ongi aditzen”).

adoatu (Izeta) ik. **adobatu**

adobatu (*adoatu*) (Izeta) ‘larruak apaindu’: *larru apaintzaleak ardi larrue adoatu du* (“larru apaintzaleak ardi larrua adobatu du”).

ados ‘pilota-partida batean tantokopuru bera egin’ (*ados* ibiltzen da Baztanen, batez ere pilotan, “laxoan”, ari direnean eta berdintzen direnean): *ados jaunek ados!* (“ados jaunak ados!”).

adrendu ‘laneko, sukaldeko esku trebetasuna’: *gure neskatikoak badu yosteko adrendue* (“gure neskatikoak badu josteko adrendua”); *eztiot oñiken adrendue artu labiai* (“ez diot oraindikan adrendua hartu labeari”).

afalaitzin iz. ‘afalaurrea’: *afalaitzianian elkartuko gara, ongi iduritzen balin bazaizue* (“afalaitzianean elkartuko gara, ongi iruditzen baldin bazaizue”).

afalondo ‘afalostea’: *afalonduan beti gustokua dute musean partide*

- bat itia* (“afalondoan beti gustukoa dute musean partida bat egitea”).
- afera** ‘afera; egitekoa; arazoa’: *au ezta zure afera* (“hau ez da zure afera”); *gure afe-rak gaizki dazi* (“gure aferak gaizki doaz”).
- afralla** ik. **afruil**
- afralle** ik. **afruil**
- afruil** (*afralla, afralle, afrulle, ufrella*) ‘habaila, harriak indarrean botatzeko arma’: *afrallakin botaut arrie. Afralla etxean dut* (“afruilarekin bota dut harria. Afruila etxean dut”); *afrullekin aizenak gara arri tireka* (“afruilarekin ari izanak gara harri tiraka”); *ufrellaikin arrie tiretu ta il nuen xorie. Ufrella etxean dut* (“afruilarekin harria tiratu eta hil nuen txoria. Afruila etxean dut”).
- afruitzu** (*afruxtu*) ‘behatzak ahoan sarturik egiten den ziztua’: *gazte oiek beti afruxtuke. Afruxtu aundiek* (“gazte horiek beti afruiztuka. Afruiztu handiak”).
- afrulle** ik. **afruil**
- afruxtu** ik. **afruitzu**
- aga** ik. **haga**
- ageri** izan ‘ikusi’: *segur aski ere, ez da ageri emendik; mendi kaskotik ageri dire borda guziek; aundie baite, ez du maten ain gizen dagonik* (“handia baita, ez du ematen hain gizen dagoenik”).
- aginke** ik. **haginka**
- ago** (-o ahoskatzen da aunitzetan): *aundioo* (“handiago”).
- agoaundi** ik. **ahohandi**
- agoazpiz** ik. **ahozpiz**
- agomite** ik. **ahomite**
- agopizer** ik. **ahopizer**
- agorril** ‘abuztua’
- agosabai** ik. **ahosabai**
- agosaroi** ik. **ahosaroi**
- agotik botaie** ik. **ahotik botaea**
- agotz** ik. **arotz**
- agozabal** ik. **ahozabal**
- agozabalka** ik. **aho zabalka**
- agozikin** ik. **ahozikin**
- ahaide** (*aaide, aide*) (Izetak bildua, Etxenikek ere ibiltzen du Bonaparteren itzulpenetan) ‘jendakia’: *aaideak bildu gara* (“ahaideak bildu gara”); *aide aunitz mezetan* (“ahaide aunitz mezetan”). Sin. **yendaki**
- ahaidetasuneko** (*aidetasuneko*) (Etxenikek ibiltzen du Bonaparteren itzulpenetan) ‘ahaikoa’
- ahaiko** (*aiko*) (Izetak bildua) ‘ahai-koa; ahaideria’: *aikoa atra* (“ahaikoa atera”); *familiein aikoa* (“familiaren ahaikoa”).
- ahalbaiz** (*albaiz*) ‘ahalbait; ahal bada’: *albaiz beñipein zato tenorean* (“ahalbait behinik behin zator tenorean”).
- ahalez** (*aalez*) ‘ahal bada; ahal denean’: *beti etxetik kanpo baña aalez, lo itera etxera* (“beti etxetik kanpo baina ahalez, lo egitera etxera”).
- ahalke** (*alke*) ‘lotsa’: *alke aundie* (“ahalke handia”).

- ahalkearazi**, **ahalkearaz**, **ahalkearazten** (*alkearazi*) du ad.
- ahalkegabe** (*alkegabe*) izond. ‘lotsagabe’: *alkegabia zara* (“ahalkegabea zara”); *oraiko gaztiak alkegabiak dire* (“oraingo gazteak ahalkegabeak dira”).
- ahalkegabekeria** (*alkegabekeria*) ‘lotsagabekeria’
- ahalkegabeki** (*alkegabeki*) ‘lotsagabeki’
- ahalkegabetasun** (*alkegabetasun*) ‘lotsagabetasun’
- ahalkegabetu**, **ahalkegabe(tu)**, **ahalkegabetzen** (*alkegabetu*) *da/du* ad. ‘lotsagabetu’
- ahalkegarri** (*alkegarri*) ‘ahalke emangarria; lotsagarria’: *alkegarrie da emen pastu dena* (“ahalkegarria da hemen pasatu dena”). Sin. **ahalkemangarri**
- ahalkemangarri** (*alkemangarri*) ‘ahalke ematen duena, ahalkegarria’: *errien gertatu dena alkemangarrie da* (“herrian gertatu dena ahalke emangarria da”). Sin. **ahalkegarri**
- ahalketi** (*alketi*) ‘lotsatia’: *gure mutikoa arront alketie da* (“gure mutikoa arrunt ahalketia da”).
- ahalketu** (*alketu*) ‘lotsatu’: *olako tsuseriek kusi ta alketu ginen. Alketzen naiz* (“horrelako itsuseriak ikusi eta ahal-ketu ginen. Ahalketzen naiz”).
- ahantzi** (*antzi, aantzi*) ‘atzendu’
- aharrausi egin** (*arrosoin*) (Izeta) ‘doministiku egin’: *gure aurrek arrosoin in du* (“gure haurrak aharrausi egin du”).
- ahate** (*ate, aate*) ‘piroa’: *aitzinortan kusi tut ate batzuk* (“aitzin horretan ikusi ditut ahate batzuk”). Aise maizago ibiltzen da ‘piro’ hitza.
- ahateki** (*aateki*) ‘ahatearen jakia’
- aho** [Erranahirua] *agoa bete ortzekin* (“ahoa bete hortzekin”).
- ahozabal** (*agozabal*)
- aho zabalka** (*agozabalka*) *aur au beti agozabalka* (“hau haur beti aho zabalka”).
- ahozpiz** (*agoazpiz*) ‘ixilpean’: *au beti agoazpiz sekuleko sekretuen* (“hau beti ahoazpiz sekulako sekretuan”).
- ahohandi** (*agoaundi*) ‘ahoberoa’: *au agoaundie! Agoaundie dena espantu* (“hau ahohandia! Ahohandia dena espantu”).
- ahomite** (*agomite*) (Gorosurreta) ‘ahoaren bueltan ekarri edo eramaten den gauza’
- ahopizer** (*agopizer*) (pl.) 1 ‘ahobizarrak; apatxar-tekoa’: *kanabiten agopizerrak ongi garbitu*. 2 ‘azienden eritasuna, ahoan’
- ahosabai** (*agosabai*) ‘ahoaren gainaldea; ahosarria’: *agosabaie minberatue dauket*.
- ahosarri** (*agosarri*) ‘ahoaren gainaldea, ahosabaia’
- ahotik botaea** (*agotik botae*) ‘ahotik botaea, botatakoa; pertsona batek norbaiten antza handia duenean erran bide dena’: *Martintxok badu bere ai-tein itia. Bai, agotik botae* (“Martintxok badu bere

- aitaren eitea. Bai, ahotik botae”).
- ahozikin** (*agozikin*) izond. ‘hitz zatar edo gaiztoak erraten dituen’: *au agozikine, zazi begien bistetik, agozikin!* (“hau ahozikina, zoaz begien bistatik, ahozikin!”).
- ahuntz-kurrume** (*auntzkurrumie, auntzkurrumiñe*) ‘hagineko mina arintzeko ibiltzen dena nahiz eta gero hortzak galtzen dituen’ (*Euphorbia* sp.); *ortzak auntzkurrumiakin galdu nituen* (“hortzak ahuntzkurrumiarekin galdu nituen”); *auntzkurrumiñe* (Aniz).
- ahuspezka** (*auspeska, auspezka*) ‘itzulia, buelta emana’: *auspezka utzi dut untzie* (“ahuspezka utzi dut ontzia”); *eta auspesca adoratu zuten* (“eta ahuspezka adoratu zuten”, Etxenike, *San Mateoren Ebanje-lioa*).
- aialdi** ik. **arialdi**
- aide** (Izeta) ik. **ahaide**
- aidetasuneko** (Etxenike) ik. **ahaide-tasuneko**
- aidegairto** ik. **aire gaizto**
- aidur** ‘aidurra; bizkorra, nekatzen ez dena’: *gizon aidurre batre nekatzen eztena* (“gizon aidurra batere nekatzen ez dena”).
- aieika** (*aieike*) ‘Aiei! erranez; kexuka; aika’: *zu beti aieike* (“zu beti aieika”); *aur oi aieike* (“haur hori aieika”).
- aieike** ik. **aieika**
- aien** ik. **aihen**
- aien-aien** ‘oxala!’
- aier** ik. **aiher**
- aierkunde** ik. **aiherkunde**
- aietz** ik. **aihotz**
- aihen** (*aien*) ‘bertze landare batean edo zernahi gauzatan kiribildurik hazten den landare-kimua’: *aienak goitixko gan dire ta abe muturreraño* (“aihenak goitixko joan dira eta habe muturreraino”).
- aiher** (*aier*) ‘gorrotoa’: *neonek aier bat dauket gizon orri. Aierra dauket* (“neronek aiher bat daukat gi-zon horri. Aiherra daukat”). Sin. **aiherkunde**
- aiherkunde** (*aierkunde*) ‘aiherra, gorrotoa’: *aierkunder bidia etsizion. Aierkunder zagon* (“aiherkunder bidea hertsizion. Aierkunder zagon”). Sin. **aiher**
- aihotz** (*aietz*) ‘kimatzeko eta sasiak mozteko ibiltzen den lanabesa, igi-taia-ren antzekoa’: *aietzaikin garbitu dugu sasie. Aietza ona da* (“aihotzarekin garbitu dugu sasia. Aihotza ona da”).
- aikatu** (*aiketu*) ‘bota, kenarazi’: *egunero aiketzen tut ollo madariketuk, baina sartzen baitira ordia!* (“egunero aiketzen ditut oilo madarikatu hauek, baina sartzen baitira ordeal!”).
- aiketu** ik. **aikatu**
- aiko** (Izeta) ik. **ahaiko**
- ailegatu**, **ailega**, **ailegatzen** *da* ad. ‘iritsi, heldu’ (batez ere ‘ailegatu’ da ibiltzen dena Baztanen)
- ailkeri** ik. **harilkai**

ailketan ik. *harilketan*

ailko ik. *harilko*

ainamarroka (*almarro, añamarroka*)
‘haur josteta’: *añamarroka aiko gara* (“ainamarroka ariko gara”); *añamarroka ai dire* (“ainamarroka ari dira”).

ainar ‘txilarra’ (*Erica*): *gure mendietan bada añarra. Añar lorea* (“gure mendietan bada ainarra. Ainar lorea”).

ainbatean ik. *hainbatean*

ainbatian ik. *hainbatean*

ainbetian ik. *hainbatean*

ainbertze ik. *hainbertze*

aingatik ik. *harengatik*

aingetik ik. *harengatik*

aingeru (*aingiru*)

aingira 1 (*aingire*) ‘erreketa bizi den arraina’ (*Angilla angilla*): *gaur erriko ostatuen aingire-yatia* (“gaur herriko ostatuen aingira-jatea”).

aingira 2 (*aingire*) ‘segaren gaineko aldea’: *segain aingire* (“segaren aingira”).

aingire ik. *aingira*

aingiru ik. *aingeru*

aintzin ik. *aitzin*

aintzira (*aintzire*) ‘ur biltegi ttipia, linga’: *aintzire ortan mutiko bat ito zen* (“aintzira horretan mutiko bat ito zen”). Baztanen ez da aintzira aunitz, baina bada bat fama handikoa, *Itosoingo logie* edo *Azaldegiko linge* deitzen dutena.

aintzire ik. **aintzira**

airatu 1 (*airetu*) ‘urduri’: *bestak direla ta denak airetuek. Gure neskatikoa ere arront airetue* (“bestak direla eta denak airatuak. Gure neskatikoa ere arrunt airatua”).

airatu 2 (*airetu*) ‘airean joan’: *atzo airetu ziren kafiko xorikumiak* (“atzo airatu ziren habiako txorikumeak”).

airatu 3 (*airetu*) ‘koleraz betea’: *airetue torri da, bere baitatik atraie* (“airatua etorri da, bere baitarik aterea”).

aire ‘antza, itxura’: *Baigorriko mintzo airia du; karro au zaar airia da; aurpegi eri airia du; korbata oi gorri airia da* (= ‘gorrikara da’).

airean etorri (*airian torri*) ‘berehala etorri’: *zuztu in ta airian torri zen* (“ziztu egin eta airean etorri zen”).

aire gaizto (*aidegaxto, airegaxto*) ‘tximista’: *badire airegaxtoak!* (“badira aire gaiztoak!”); *aidegaxtoak il tu amar ardi* (“aire gaiztoak hil ditu hamar ardi”).
Sin. **zimizta**

airegaxto ik. **aire gaizto**

airetu ik. **airatu**

airian torri ik. **airean etorri**

airis (*alis*) ‘orantza gabea, tapia’: *ogi alise* (“ogi airisa”).

airoski adlag.

aise 1 ‘aunitzez’: *aise aundiagoa da oi; aise errexago ibiltzen da mendien*. 2 ‘erraz’: *aise inen du-*

- gu oi* (“aise eginen dugu hori”); *bai, aise!* (= ‘jakina baietz!’); *ez da aise egotia telefonoik gabe.*
- aiseski** ‘erraz’: *gure attune aiseski dabile* (“gure aitona aiseski dabil”).
- aisetasun** ‘erraztasuna’: *nere lantzien badire aisetasun aundiek* (“nire lantegian badira aisetasun handiak”); *aisetasune yendeak maite* (“aisetasuna jendeak maite”).
- aisetu** ‘erraztu’: *aparaxu orrekin lana aisetu ta nekeik gabe* (“aparaxu horrekin lana aisetu eta nekerik gabe”).
- aisit** (*arix*) ‘gauza txikia, arina’: *aurten arto axite dugu. Axite, baño ona* (“aurten arto aisita dugu. Aisita, baina ona).
- aita** (*aite, atta*) (Baztan gehiengan, Basaburuan ere, ‘aite’, baina Oronozen ‘atta’, Bidasoako errekan bezala)
- aitaldi** ik. **aritaldi**
- aitatxi** 1 (*aitetxi, atautxi*) ‘aitaren edo amaren aita’: *nere aitetxik adin aundie du* (“nire aitatxik adin handia du”); *aitetxi erixko dago* (“aitatxi erixko dago”); (Ornoz) *autatxi* 2 ‘bataiatzen den haurrarentzat, besoetan hartzen duen gizonezkoa, aita besoetakoa, aitabitxia’; (Ornoz) *atautxi*.
- aitatxi-opil** (*aitetxi-opil*) ‘aitabitxiak Pazkoetan beren besoetakoei ematen dieten ogi berezia’: *aitetxi-opil goxoa yan dugu aurten* (“aitatxi-opil goxoa jan dugu aurten”).
- aitazorro** (*aitezorro*) ‘aitazuloa’
- aite** ik. **aita**
- aitetxi** ik. **aitatxi**
- aitetxi opil** ik. **aitatxi-opil**
- aitezorro** ik. **aitazorro**
- aitona** (*attuna*) ‘agurea’: *zein ongi dagon gure attune* (“zein ongi dagoen gure aitona”); *nor da attun xaar oi?* (“nor da aitona xahar hori?”).
- aitzakia** (*atxiki*) ‘egiazko zergatia esaltzeko ematen den arrazoa’: *zu beti atxikiekin. Zure atxiki oiek eztute deus balio* (“zu beti aitzakiekin. Zure aitzakia horiek ez dute deus balio”).
- aitzin** ‘aurretik’: (gehienetan **aitzin**, eta familiakoak, ez *aintzin*, erraten dira Baztanen) *goatzera gan aitzin, ibileldi bet* (“ohatzera joan aitzin, ibilaldi bat”).
- aitzina** pasa ‘Baztango mutil-dantzan, dantzan ari direnean erraten dena’: *aitzine pasa* (“aitzina pasa”).
- aitzina(t)** ‘aurrera’: *gazin aitzine(t)* (“goazen aitzinat”); *zuek ere aitzine(t)* (“zuek ere aitzina(t)"); *emendik aitzinet gatzik gabe jan bearke dugu* (“hemendik aitzinat gatzik gabe jan beharke dugu”).
- aitzinat** *tiratua* ‘moldegabea, baldarra, feldera’
- aitzinean** ‘aurrean’: *aitzinean yarri gara* (“aitzinean jarri gara”); *zure aitzinean gaude, zure aitzinean betiko.*
- aitzinekoz** *gibelera* ‘aurreko zatzeratza’: *zu aitzinekoz gibelera*

mintzetzen zara (“zu aitzinekoz gibelera mintzatzen zara”).

aitzinerako ‘etxean hazteko’: *aitzinerako utzi dugu aratxe oi* (“aitzinerako utzi dugu aratze hori”). Arras gutitan ibiltzen da *-rako* hitzak akitzeko Baztanen, hau da kasu horietako bat.

aitzinetik [Erranahirua] *aitzinetik ederki ta ondotik atsiki. aitzinez aitzin* ‘aurrez aurre’ **aitzin** horretan ‘orain dela zenbait denbora’: *aitzin ortan torri ziren* (“aitzin horretan etorri ziren”); *aitzin artan gan zen* (“aitzin hartan joan zen”). **aitzinttoan** ‘pixka bat lehena-go’

aitzinalde 1 ‘aurrealdea’: *etxe orrek aitzinalde ederra du* (“etxe horrek aitzinalde ederra du”); aitzinaldean loreak. 2 *aitzinaldie artuik lasterketa irabazi* (“aitzinaldea harturik lasterketa irabazi”); *aitzinaldie artu dakute*.

aitzinatu (*aitzinetu*) ‘aurreratu’: *erleju unek aitzinetu du* (“erloju honek aitzinatu du”); *aitzinetu bai* (“aitzinatu bai”); *kutxa ortako botillek ere aitzinetuek dire* (“kutxa horretako botilak ere aitzinatuak dira” = ‘kutzako edukia akitzen ari da’); *lanak aitzinetuek tuzte aurten* (“lanak aitzinatuak dituzte aurten” = ‘lanak akitzen ari dira’); *aitzinetu nai tut lanak* (“aitzinatu nahi ditut lanak”).

aitzindari ‘buruzagia; gidaria; armadako karguduna’: *zu zara gure*

aitzindarie (“zu zara gure aitzindaria”).

aitzindu ‘aitzina hartu’: *aitzindu ta irabazi* (“aitzindu eta irabazi”).

aitzinetu ik. **aitzinatu**

aitzinka (*aitzinke*) ‘aurreraka’: *zu beti aitzinke* (“zu beti aitzinka”).

aitzinke ik. **aitzinka**

aiuta 1 (*aiute*) ‘presaka ibiltzearen ekintza’: *zer aiute daman gizon orrek* (“zer aiuta daraman gizon horrek”). 2 ‘joaldia’: *aiute ederra artu ziken* (“aiute ederra hartu zian”); *ze aiute man dion!* (“zer aiuta eman dion!”). 3 (hitz peioratiboa zerbaitekin lotua) (*aiute*), *urde aiute!*.

aiute ik. **aiuta**

aixkidantza ik. **adiskidantza**

aixkol 1 (*askol, arkol*, Azkue) iz. ‘ilarra’ (*Latyus sativus*)

aixkol 2 (*askol, arkol*) ‘gezurra edo “ziria” sartu dela adierazteko ibiltzen den hitza’: *ze arkola bota dakun* (“zer axkola bota digun”).

aixtiko ik. **arestiko**

aixtion ik. **arestion**

aixtur ik. **aiztur**

aize ik. **haize**

aizegua ik. **haize hego**

aizetu ik. **haizatu**

aizkatu (*aizketu*) ‘uxatu’: *aizketu zakur oiek emendik* (“aizkatu zakur horiek hemendik”).

aizketu ik. **aizkatu**

aiztur (eta *aixtur, axtur*) (pl.) ‘gurai-zeak’: *aixturrekin moztu zion ilea. Aixturrek emen tuzu* (“aizturrekin moztu zion ilea. Aizturrak hemen dituzu”). Baztanen aldaera hau (ez ‘guraizeak’) ibiltzen da.

ajata (pl) ‘algara, irria’ *orrek intzituenuen ajatak!* (“horrek egin zituen ajatak!”).

ajataka ‘algaraka; irri-karkailaka’: *neska oiek or ai dire irriz ajataka* (“neska horiek hor ari dira irriz ajataka”).

aje ‘akatsa’: *zu beti ajiak atratzen. Zuk ere batuzu* (“zu beti ajeak ateratzen. Zuk ere badituzu”).

akabaila (*akaballa*) ‘bukaera’: *bestari man diogu akaballa* (“bestari eman diogu akabaila”).

akaballa ik. **akabaila**

akal 1 ‘barnetik hutsa den gaztaina’: *gaztain akalak*.

akal 2 ‘mehea; argala’: *au gizon akala!* (“hau gizon akala!”).

aketz ‘ernaltzeko ibiltzen den zerri arra’

akita ‘artzainaren aste osoko janaria’: *gure artzañein akite presta zazu, ba-daie Belatera* (“gure artzainaren akita presta ezazu, badoa Belatera”).

akitu 1 ‘bukatu; amaitu’: *bestak akitu dire. Sosak ere akituek* (“bestak akitu dira. Sosak ere akituak”).

akitu hurran (*akiturren*) ‘bukatu hurran, bukatzeko zorian’: *sosak, akiturren ta gure adinik*

oberena ere, akiturren (“sosak, akitu hurran eta gure adinik haberena ere, akitu hurran”). 2 ‘ahitua; indargabetua’: *enago ongi, akitue nago. Arront akitue* (“ez nago ongi, akitua nago. Arrunt akitua”).

akiturren ik. **akitu hurran**

ako ‘(ume hizkeran) akitu, amaitu’

akolatu (Izeta) ‘ernatu; piztu’: *erdi ilik zagona akolatu de* (“erdi hilik zegoena akolatu da”); *gure aurre ere akolatu zaiku* (“gure haurra ere akolatu zaigu”).

akor ik. **akort**

akordu ‘konortea’

akort (*akor*) ‘ados izan; bat etorri’: *akort denekin; zurekin akor nago* (“zurekin akort nago”).

akura 1 (*akure*) ‘Bozateko (Arizkun) bizilagunek Urtsuko nagusiari ordaintzen zioten zerga’. 2 ‘errenta; alokera’: *oiek akureko lurrek tuzu* (“horiek akurako lurrrak dituzu”).

akure (Bozate) ik. **akura**

alababitxi (Izeta) ‘emakumezkoa, bere bataioko aitaxi edo amaxirendako’: *nere alababitxiende-ko gauzik oberena* (“nire alababitxiarendako gauzarik hobere-na”).

alabear ik. **halabehar**

alaberean ik. **araberean**

alaen (*alain*) ‘gaitzespenarako ize-
nondo baten ondoren ibiltzen den partikula’: *buruandie, alain*

burandie! (“buruhandia, alaeen buruhandia!”).

alain ik. **alaeen**

alala ik. **halala**

alasa (*alase*) ‘armairu apalduna’: *alasian altxatzen tugu gauze onak*. *Alase ederra dugu* (“alasan altxatzen ditugu gauza onak. Alasa ederra dugu”).

alase ik. **alasa**

alatu ik. **alhatu**

albaitero ‘albaitaria’: *gure erriko albaiteroa langilea da* (“gure herriko albaiteroa langilea da”).

albaiz ik. **ahalbaiz**

aldaira (*aldaire*) ‘etxe-aldaketa’: *Sanmartinetan iten dire aldairek* (“Sanmartinetan egiten dira al-dai-rak”).

aldaire ik. **aldaira**

aldare-aitzin ‘aldare-aurea’: *gure elizek aldare-aitzin ederra du* (“gure elizak aldare-aitzin ederra du”).

aldaskatu (Azkue) ‘kimuak eman’: *badakizu garia aldaskatzen dela?*

alde 1 ‘gauza, toki edo bitarte bati buruz, han bereiz daitezkeen zatietako bakoitza, alderdia, alboa’. 2 ‘aunitz, nahiko’ *belar alde ederra bildu dugu* (= ‘belar aunitz bildu dugu’). 3 ‘erabat, betiko’: *alde bat torri dire* (= “(kanpoan bizi izan ondoan) hemen gelditzeko etorri dira”). 4 (konparazio esaldietan) *unen aldean aise obia da bertze ure* (“honen aldean aise hobe da bertze hura”)

-tze alde ‘-tzearen truke’: *eman omen zieten etxia zaintzialde* (“eman omen zieten etxea zaintze alde”).

aldebaster ik. **aldebazter**

aldebazter (*aldebaster*) (Izeta) ‘teila-tuetan paratzen diren zurak’: *zurginek alde-basterra ongi ineute* (“zurginek aldebazterra ongi egina dute”).

alderdi 1 ‘gauzaki baten erdia, edo aldeetako bat; zerbaitek agertzen duen alde bakoitza; lurralde baten zatia; giza talde baten zatia’. 2 (harridurazko esaldietan, *eder ize-nondoarekin batera*) *bai, alderdi ederra orain ortan pentsatzeko!* (= “ezin da orain horretan pentsatu”); *alderdi ederra etxea goratzeko!* (= “galdurik da, ezin da etxea goratu orain”).

aldexka *egun aldexka bat pasatu zuen an*.

aldi emengo aldiek inen tuk bai fite! (norbaiti oihuka, tokitik botatzeko).

aldi oro (*aldiero*) ‘aldi guzietan’: *kusten dugun aldieko irriz asten da* (“ikusten dugun aldi oro irriz hasten da”).

aldi honetan (*aldi huntan*) ‘orain, bolada honetan’.

honetako aldi (*unteko aldi*) *unteko aldi denak eritu dire*.

hemengo aldi? ‘hona etorri zarete?’ (agur klasea).

mezako aldi? *Egunon, in duze mezako aldi?* (agurra: meza bukatu eta norbait taldeko ki-deak agurtzen dituenan).

- Erantzuna, arruntean: *Bai, zuek ere heldu?*).
- aldiero** ik. **aldiro**, **aldi oro**
- aldika** (*aldike*) ‘noizbehinka, batzuetan’: *aldike gaten da etxerat* (“aldika joaten da etxerat”).
- aldike** ik. **aldika**
- aldiro** (*aldiero*) ‘aldi guzietan’: *aldiero ibiltzen da gaizki erranka* (“aldi oro ibiltzen da gaizki erranka”).
- alditik aldira** (*alditik aldire*) ‘gero eta gehiago’: *alditik aldire gure besta orrek errekiste geio du* (“alditik aldira gure besta horrek arrakasta gehiago du”).
- alditik aldire** ik. **alditik aldira**
- alhatu** (*alatu*) ‘(bazka) jan’: *gure ardiek Saioan alaten dira. Beiek ere larrean alatu* (“gure ardiak Saioan alaten dira. Behiak ere larrean alatu”).
- alimale** (*animele*) ‘handia’: *karga bat animelia artu zuen bizkerrian* (“karga bat alimalea hartu zuen bizkarrean”).
- alimaleko** (*animeleko*) ‘handia, izugarrizkoa’: *animeleko gizon puske zen gure aitetxi* (“alimaleko gizon puska zen gure aitatxi”); *animeleko besta in ginuen* (“alimaleko besta egin genuen”); *animeleko mozkorra* (“alimaleko mozkorra”).
- alis** ik. **airis**
- alkabelar** ‘larre-oloa’ (*Bromus*): *gure belaien alkabelarra nausi* (“gure belaian alkabelarra nagusi”).
- alke** ik. **ahalke**
- alkearazi** ik. **ahalkearazi**
- alkegabe** ik. **ahalkegabe**
- alkegabekeria** ik. **ahalkegabekeria**
- alkegabeki** ik. **ahalkegabeki**
- alkegabetasun** ik. **ahalkegabetasun**
- alkegabetu** ik. **ahalkegabetu**
- alkegarri** ik. **ahalkegarri**
- alkemangarri** ik. **ahalkemangarri**
- alketi** ik. **ahalketi**
- alketu** ik. **ahalketu**
- alki** ik. **aulki**
- alkito** ik. **aulkito**
- alkitto** ik. **aulkitto**
- almaiz** ‘motrailua’
- almarro** ik. **ainamarroka**
- alta** lok. ‘hala ere; beraz; izan ere’: *alta, bazakien ez ginuela arat gateko gogoik batre!* (“alta, bazakien ez genuela harat joateko gogorik batere”).
- altala** Sin. **alta**
- altairetu** ik. **altaratu**
- altaratu** (*altairetu*) ‘asaldata’: *denak altairetu ziren* (“denak altaratu ziren”); *Lizaso bertsolari ona da, ezta altairetzen* (“Lizaso bertsolari ona da, ez da altaratzen”).
- altaxu** ‘guti goiti-beheiti’: *altaxu in tut kontuek, baña uste dut ez naizen okertu sobera; ez dakit... altaxu... unek 20.000 € inguru balioko du* (“altaxu egin ditut kontuak, baina uste dut ez naizen okertu sobera; ez dakit... al-

taxu... honek 20.000 € inguru balioko du”).

altxaka(ka) (*altxakeka*) ‘gordeka, izkututzen’: *altxakeka ibili dire goiz unten* (“altxaka ibili dira goiz honetan”).

altxakeka ik. **altxaka(ka)**

altxaketan ‘kukuka, gordeka ibiltzean oinarritzen den haur josteta’: *altxaketan ai dire* (“altxaketan ari dira”).

altxapean ‘gordeta’: *nere sos pizer oiek altxapean dauzket ta ongi altxatuek* (“nire sos pizar horiek altxapean dauzkat eta ongi altxatuak”).

altxapeka ‘kukuka, gordeka ibiltzean oinarritzen den haur josteta’: *gure mutiko oiek altxapeka ai dire. Altxapeka ta altxaketan* (“gure mutiko horiek altxapeka ari dira. Altxapeka eta altxaketan”); *altxapeka sartu ginen etxian, iñork ere kusi gabe* (“altxapeka sartu ginen etxean, inork ere ikusi gabe”).

altxarrastelu (*altxarraztelu, antxarraztelu*) ‘ongarria harrotzeko eta nekazariak ibiltzen duten tresna; sardea’: *altxarrazteluakin edatu dugu ongarrie belaien* (“altxarrasteluarekin hedatu dugu ongarrria belaian”).

altxarraztelu ik. **altxarrastelu**

antxarraztelu ik. **altxarrastelu**

altxatu 1 ‘gorde’: *altxa zazu ongi. Altxatu lur azpien* (“altxa ezazu ongi. Altxatu lur azpian”) [erranahirua] *azeriek puztena ezin*

altxa. 2 ‘erreserba egin, erreserbatu’: *igende eguerdiko altxatu dugu maie Galartzan* (“igande eguerdiko altxatu dugu mahaia Galartzan”).

altzai (Izeta) ‘ahariak zaintzen dituen’: *lenago bai omen ziren altzai onak Baztanen* (“lehenago bai omen ziren altzai onak Baztanen”).

alu ‘irain hitza’: *arraio alue! mutil alue* (“arraio alua! mutil alua!”).

alukeria ‘ergelkeria’: *beti ibiltzen da alukerietan*.

aluxka ‘irain hitza’: *debru aluxke! ze aluxke den!* (“deabru alua! ze aluxka den!”).

amagaxto ik. **hainbat gaizto**

amaginarreba (*amiarreba*) (Izetak bildua) ‘emaztearen ama senarraren aldetik edo senarrarena emaztearen aldetik’: *nere amaia-rreba andre ona da* (“nire amaginarreba andre ona da”); *amiarrebakin bizi gara* (“amaginarrebekin bizi gara”).

amaiarreba (Izeta) ik. **amaginarreba**

amalau ik. **amaraun**

amalausare ik. **amaraun-sare**

amalaun ik. **amaraun**

amaraun (*amalau, amalaun*) ‘animalia artropodoa, intsektuak harrapatzeko sare bat egiten duena’: *bea! or baduzu, goatze gañean amalau bet!* (“beha! hor baduzu, ohatze ganean amaraun bat!”); *amalaue gauze bat da, eta armiarma bertze bat* (“amarauna

gauza bat da, eta armiarma bertze bat”).

amaraun-sare (*amalausare, amarosare*)

amarosare ik. **amaraun-sare**

amatu (Izeta) ‘bizkortu, indartu, batez ere sua’: *piztu dugun sue amatu de* (“piztu dugun sua amatu da”); *sue amaten denean segur dago, ezta itzeliko* (“sua amaten denean segur dago, ez da itzaliko”).

amatxi 1 ‘aitaren edo amaren ama’: *amatxik adin aundie du* (“amatxik adin handia du”); *gure amatxi maite dugu*. 2 ‘bataiatzen den haurrarentzat, besoetan hartzen duen andrezkoa, ama besoetakoa, amabitxia’.

amatxi-opil ‘amatxik Pazkoetan beren besoetakoei ematen dien ogi berezia’: *aurtengo amatxi-opile gan den urtekoa baño obea* (“aurtengo amatxi-opila joan den urtekoa baino hobea”).

amazorro ‘amazuloa’: *zu beti amazorro*.

ameka ik. **hamaika**

ameldu ik. **amildu**

amiarreba ik. **amaginarreba**

amildu (*ameldu*) ‘zerbait irauli, zerbaiti itzulia eman’: *ameldu dugu landa, orai bertzea ameldu bearra* (“amildu dugu landa, orain bertzea amildu beharra”); *karrotxa ameldu dugu*.

amilka (*anbelka*) ‘maldan erori eta biraka joatea, amilduz’: *mendien erori ta anbelka gan nitzen erre-*

karaño (“mendian erori eta amilka joan nintzen errekaraino”).

amullu ik. **anbulu**

amultsu ‘bertzeekin maitagarri dena, ongi jokatzeko duena’: *amultsue ta xaloa gure amatxi xaarra* (“amultsua eta xaloa gure amatxi xaharra”).

amultxu (adkor.) ‘amultsua’: (Almandoz) *amatxi gorki amultxue da. Amultxue, amultsue baño geio da* (“amatxi gogorki amultxua da. Amultxua, amultsua baino gehiago da”).

anbatean ik. **hainbatean**

anbateko ik. **hainbateko**

anbatian ik. **hainbatean**

anbelka ik. **amilka**

anbulu (*anbullu*) ‘tipularen antzekoa, txerriak bazkatzeko erabiltzen zen tu-berkulua’ (*Asphodelus*): *aurten anbullu aunitz gure mendietan. Anbullue ona da zerrientzat* (“aurten anbulu aunitz gure mendietan. Anbulua ona da zerrientzat”).

andana ‘taldea; multzoa; saila’: *torri zen gazte andana bat* (“etorri zen gazte andana bat”); *saldu’ut zerri andana bat* (“saldu dut zerri andana bat”).

anddari ik. **anddera**

anddera (*anddari, anddira*) ‘erleen erregina’

anddira ik. **anddera**

andrerrai ‘birika-zorroa’: *zerriein andrerraiek emen daude* (“zerriaren andrerraiak hemen daude”).

andule ik. *andura*

andura (*aniure*, *andure*, *andule*)
‘landare mota’ (*Sambucus ebulus*): *aniure loreak usein goxoa du* (“andura loreak usain goxoa du”); *Baztango mendietan andurre aunitz bada* (“Baztango mendietan andura aunitz bada”).

andure ik. *andura*

animele ik. *alimale*

animeleko ik. *alimaleko*

aniure ik. *andura*

ante 1 ‘itxura, tankera’: (Aniz) *ante txarra maten data gizon orrek. Ante txarra artu diot* (“ante txarra ematen dit gizon horrek. Ante txarra hartu diot”).

ante 2 ‘trebetasuna, abilezia’: *ze antia daukezun lan oi iteko. Ante izigarrie* (“zer antea daukazun lan hori egiteko. Ante izugarria”).

antso ‘hertze itsua’: (Aniz) *ansoan iten diren odolkiek “sanpirolla” deitzen tugu. Ansoa ertze itxue da* (“antsoan egiten diren odolkiak “sanpirolla” deitzen ditugu. Antsoa hertze itsua da”).

antxe ik. *hantxe*

antxen ik. *hantxe*

antxetik ik. *hantxetik*

antxu ‘urtebeteko ardia, aharikoa, gero ‘marro’ bihurtzen dena’: *gure antxuek Belaten* (“gure antxuak Belaten”). [Erranairuak] *antxu ttalla beti bildots* (“antxu ttarra, beti bildots”). *I antxu intzeneko, ni ere bildots bedere banindunen.*

antzarrastelu (*antzarrastelu*) ‘neka-zarien lanabesa’

antzarrastelu ik. *antzarrastelu*

antzi ik. *ahantzi*

antzutu ‘esnea kentzen zaion behiaren egoera’: *berriki antzutue dugu beia* (“berriki antzutua dugu behia”).

añamarroka (Izeta) *ainamarroka*

añar ik. *ainar* ‘txilarra’ (*Erica*): *gure mendietan bada añarra. Añar lorea* (“gure mendietan bada ainarra. Ainar lorea”).

aotz ik. *arotz*

aoztei ik. *aroztegi*

apal-adar ‘lurretik ernatzen diren lehenbiziko adarrak’: *apal-adar oiek moztu bear dire* (“apal-adar horiek moztu behar dira”).

aparaxu ‘tresna’: *bilduko tuzu aparaxu oiek?* (“bilduko dituzu aparaxu horiek?”).

apez [erranahirua] *ez da obispoik apez in gabekoik* (“ez da obispo-rik apez egin gabekorik”).

apo ‘(lehorreko) zapoa’

apolarru ‘izialdurarekin gorputzari gelditzen zaion larru mota, oilo larrua’: *izialdurekin apolarrue atra zait* (“izialdurarekin apolarrua atera zait”).

apozauli ‘zapaburua’: *beire, beire, putzu unten zenbat apozauli dagon!* (“begira, begira, putzu honetan zenbat apozauli dagoen!”)

araberean (eta *alaberean*) *zuk au in nai duzu, baña araberian zure anaiek ere naiko du olako zerbait*

in (“zuk hau egin nahi duzu, baina araberean zure anaiak ere nahiko du holako zerbait egin”).

arabeta ik. **adareta**

arakai ik. **harakai**

arakindei (Arraioz) ik. **harakindegi**

aranpeloxa (Izeta) ‘aran txikia, baratzekoa’: *zein goxoak diren etxe-ko aranpeloxak*.

arapei ik. **harapei**

aratego ik. **haratego**

arateko ik. **harateko**

aratse (Izeta) ik. **aratxe**

aratxe (*aratse*, Izeta, eta *aratze*) ‘txahala; txekorra’: *etxean badire bi aratxe, xexenkoa ta urruxe* (“etxean badira bi aratxe, xexenkoa eta urruxa”). Arruntean *aratze* (izen generikoa) eta *aratxe* (sortu berria denean) bereizten dira Baztanen.

aratxedun (*aratzedun*) ‘aratxea duen behia’

aratxeki (*aratzeki*) ‘aratxearen jakia’

aratze ik. **aratxe**

aratzedun ik. **aratzedun**

aratzeki ik. **aratzeki**

arba 1 ‘iratzea malkarretik jaisteko abar-multzoa’: *idetzia arba gainean patu ta yautsi gainbera* (“iratzea arba gainean paratu eta jaitsi gainbehera”) 2 ‘ongarria landetan xehatu eta partitzeko egiten zen tresna’: *arba autsi zaiku*.

arbete ik. **harbete**

ardangela ‘ardoa eskailerapean altxatzeko ibiltzen den tokia’:

*ardangelan dauzkegu ardo obere-
renak* (“ardangelan dauzkagu ardo hoberenak”).

ardatzari ‘ardatz-haria; ardaztaria’: *ardatzari ona gure etxean* (“ardatzari ona gure etxean”).

ardiketari ‘ardiei zaletasuna diena, ardiekin ibiltzen dena’: *au dugu etxe-ko ardiketarie, bera gaten da beti ardi bile* (“hau dugu etxe-ko ardiketaria, bera joaten da beti ardi bila”).

ardit ik. **hardit**

aregarri ik. **hare-harri**

aregatu ik. **hareatu**

arestiko (*aixtiko*, *axtiko*) ‘orain dela gutiko’: *axtiko gizon oi berriz torri zaiku. Oiek dire axtikuak* (“arestiko gizon hori berriz etorri zaigu. Horiek dira arestikoak”).

arestion (*aixtion*, *axtion*) ‘orain dela guti’: *axtion gurekin zagon. Axtion kusi tugu* (“arestion gurekin zegoen. Arestion ikusi ditugu”).

argiaste ik. **argi-haste**

argieske ‘elizetan argia ordaintzeko eskatzen den eskupekoa’: *eskolauak argieskia in du elizen* (“eskolauak argieskea egin du elizan”).

argi-ezkila (*argiezkile*, *argiezkille*) ‘argi hastean jotzen den ezkila’: *argiezkile yotzeutelaik yeikitzen gara* (“argiezkila jotzen dutelarik, jaikitzen gara”).

argiezkile ik. **argi-ezkila**

argiezkille (Basaburua) ik. **argi-ezkila**

argi-haste (*argiaste*) ‘egunsentia’: *argiastian yeikitzen gara. Argiastian xoriek kantari* (“argiastean jaikitzen gara. Argiastean xoriak kantari”).

argindar (*arginder*) ‘eletrizitatea’: *ez dakigu zer pastu den, baña arginderra bota du.*

arginder ik. **argindar**

argizari (*argizeri*) ‘erleei darien gai horixka eta urtzen erraza, beren bizilekua egiteko ibiltzen dutena; kandelak egiteko ibiltzen da; kandela’: *elizeko argizeriek piztu tuzte* (“elizako argizariak piztu dituzte”); *argizeri oi arras ona da* (“argizari hori arras ona da”).

argizariesteka (Gorosurreta) ‘kiribildutako argizaria’

argizeri ik. **argizari**

argizariesteka (Gorosurreta) ik. **argizariesteka**

argizirin ‘argiaren hondar izpiak ikusten diren unea, ilunabarra’: *argizirin zoragarrie gaurkoa* (“argizirin zoragarria gaurkoa”).

arialdi (*aialdi*) ‘jarduna’: *aialdie in te gosaldu* (“arialdia egin eta gosaldu”); *aialdi bortitze* (“arialdi bortitza”).

arin ‘pisu edo astuntasun gutikoa’: *au etxe arine! aundie da, baño arine* (“hau etxe arina! handia da, baina arina”).

arinkara ‘nahiko modu arinean, nahiko arinki’: *arinkara iten tu gauzek* (“arinkara egiten ditu gauzak”).

arinkeri ik. **arinkeria**

arinkeria (*arinkeri*) ‘ardura gehiegi jarri gabeko jarduerari dagokion egite arina’: *arinkeri orrek galdu gaitu. Arinkerie* (“arinkeria horrek galdu gaitu. Arinkeria”).

aritaldi (*aitaldi*) ‘arialdia; jarduna’: *aitaldi bortitze* (“aritaldi bortitza”).

aritz-besanga ik. **haritz-besanga**

arkadi ik. **harkadi**

arkai ‘behiak ferratzeko toki berezia’: *arkaien dugu beie. Beie ferratzeko arkaie* (“arkaian dugu behia. Behia ferratzeko arkaia”).

arkaldu ‘ardia arreske jarri’: *gure ardiek arkaldu dire* (“gure ardiak arkaldu dira”).

arkara ‘ardia, arreske denean’: *ardie arkara da.*

arkel ‘zerri emea’: *bi zerrikume erosi tugu, bat arkela ta bertzia ordotsa* (“bi zerrikume erosi ditugu, bata arkela eta bertzea ordotsa”).

arkera ‘estali nahi ez den behia sartzen den tokia, bi oholen artean dagoena’: *arkeran sartu de beie* (“arkeran sartu da behia”).

arkin ‘ardi kaka’: *arkine ongarri ona da. Ardi borda ortan bada arkine* (“arkina ongarri ona da. Ardi borda horretan bada arkina”).

arkumeka ‘arranguraka’

arkupe ‘arruntean elizetan-eta egoten den aterpe irekia, sartze-ateen ondoan’

arlantxa ‘bi urteko ardia’: *arlanxta bat ernari dugu; arlanxtak Bela-*

ten dauzkegu (“arlantxak Belaten dauzkagu”).

arlegatxa (Izeta) ‘harri berezia, ongi xehatu ondoan, solairuak hareatu eta garbitzeko ibiltzen dena, hare harria’: *mendi zoko ortan arlegatxa franko* (“mendi zoko horretan arle-gatxa franko”); *arlegatxa ibiltzen dugu sorallue garbitzeko* (“arlegatxa erabiltzen dugu solairua garbitzeko”).

armiarma (*ermiarma, irmiarma*) ‘amaraun mota, goizean, denbora ona ari duelarik, oteetan-eta ateratzen dena (gainerako guztiak “amalauak” –amaraunakdira): *borda zaar ortan ezta ermiarma baizik* (“borda zahar horretan ez da armiarma baizik”); *irmiarma aundiek* (“armiarma handiak”).

armiarma-sare (*ermiarmasare*) ‘armiarma motakoek egiten duten sarea’: *ermiarmasare oiek garbitu bear dire* (“armiarma-sare horiek garbitu behar dira”).

arnegagarri (*arnegarri*) ‘arnegarazten duena’: *arnegagarrie zara* (“arnegarria zara”); *arnegarrie da gizon oi* (“arnegarria da gizon hori”).

arnegarri ik. **arnegagarri**

arotz (*agotz, aotz*) ‘metala, batez ere burdina, lantzen duen pertsona, errementaria’: *erriko aotza nere osaba da. Agotz ona* (“herriko arotza nire osaba da. Arotz ona”).

arozgo ‘errementariaren lanbidea’

aroztegi (*aoztei*) ‘errementariaren lantegia’

arpan ‘mutur bakoitzean eskutrea duen zerra handia’: *kana erdiko onborra arpanakin ebaki ginuen* (“kana erdiko onborra arpanarekin ebaki genuen”).

arpatu ik. **harrapatu**

arpe ik. **harpe**

arpe-zilo ik. **harpe-zilo**

arrairi ‘laxoa eta erreboteko pilota-partidetan zuzendaria’: *arrairi ona dugu. Bi arraiari.*

arraildu 1 ‘arraila egin’: *kristela arraildue dago* (“kristala arraildua dago”). 2 ‘arras mozkorra’: *mozkor arraildue dago* (“mozkor arraildua dago”).

arraildura ‘artesia, arrakala’

arrain ‘amurraina’ (*Salmo trutta fario*): *Aitzekungo errekek arrain onak. Nik maite’ut orko arrañe* (“Aritzakungo errekek arrain onak. Nik maite dut horko arraina”).

arrintegi (*arrantei*) ‘arrainak hazteko tokia’: *gure mutikoa arranteien ai de lanean* (“gure mutikoa arrante-gian ari da lanean”).

arrakasta (*errekiste*) *gure neskatikoe baute errekiste* (“gure neskatikoe badute arrakasta”).

arralda ‘irauli ondoan lurra ongi apaintzeko ibiltzen den tresna’: *arraldakin ederki apaintzen dugu lurre* (“arraldarekin ederki apaintzen dugu lurra”).

arranbela ‘mendian gain behera heldu den harri handia’: *mendien kasu arranbelakin, begiek erne* (“mendian kasu arranbelarekin, begiak erne”).

arrantei ik. **arrantegi**

arrantzari ‘(arruntean errekako) arrantzalea’: *gure eskualdean arrantzari aunitz. Arrantzariiek arrain aunitz arpatu tuzte* (“gure eskualdean arrantzari aunitz. Arrantzariiek arrain aunitz harapatu dituzte”).

arrapaxka ‘harrapaka; tarrapataka; lasterka’: *arrapaxka bildu zuten dena* (“harrapaka bildu zuten dena”).

arras ‘arrunt, zeharo, erabat’: *au arras ongi dago*.

arrasta ‘karroetan-eta, frenoaren sistema osoa’

arrasta eman ‘frenatu’

arrastelan (eta *arraztelan*) ‘arrastelua edo eskuarea pasatzearen ekintza’: *belaian arrastelan aizenak gara* (“belaian arrasteluan ari izanak gara”).

arrastelu (eta *arraztelu*) ‘nekazarien lanabesa; eskuarea’: *nere osabak arrastelu onak itentu* (“nire osabak arrastelu onak egiten ditu”).

arrataki (Izeta) (pl.) ‘sua egitean harri goritu eta abarri heltzeko erabiltzen den burdinazko tresna; suhatza’: *arratakiekin artzen tugu arri gorituek* (“arratakiekin hartzen ditugu harri gorituak”).

arratsalde (*atsalde*) ‘bazkalondoan hasi eta afaldu arteko tartea’: *atsaldeko laueta asiko gara*

(“arratsaldeko lauretan hasiko gara”); *atsaldean badugu besta* (“arratsaldean badugu besta”).

arratsalde apal (*atsalde apal*) ‘ilunabarra’: *atsalde apalean itzuli ginen etxerat* (“arratsalde apalean itzuli ginen etxerat”); *atsalde apalean egunero baratzer* (“arratsalde apalean egunero baratzer”).

atsalde-gosari ‘merendua’: *atsalde-gosarie maiteut* (“arratsalde-gosaria maite dut”).

arrautza (*arroltze*)

arrautza-kosko (*arroltze-kosko*) ‘arrautza azala’: *arroltze-kosko oiek bota baratzer* (“arrautza kosko horiek bota baratzer”).

arrautza tolot (*arroltze tolot, arroltze tolot*) ‘arrautza ustela’: *arroltze tolotak usein txarra du* (“arrautza tolotak usain txarra du”); *arroltze tolotak urrin nardagarrie* (“arrautza tolotak urrin nardagarria”).

arraztelan ik. **arraztelan**

arraztelu ik. **arraztelu**

arrepuluts (eta *errapuluts*) ‘parrastan’: *bataioetan sosa arrepuluts botatzeute* (“bataioetan sosa arrepuluts botatzen dute”).

arrierauntsi ik. **harri-erauntsi**

arrikonko(n) ik. **harrikonko(n)**

arrikor ik. **harrikor**

arrio ‘fruten eritasuna’

arrixin (Gorosurreta) ‘erretxinarekin egindako argizaria’

arrixu ik. **arrixu**

arriztu (*arrixtu*) ‘behatzak ahoan sartuta egiten den txistua, afruiztua’: *anbateko arrixtuak iten zuzten* (“hainbateko arriztuak egiten zituzten”).

arrobotu (eta *arruatu*) (Izetak bildua) ‘ebasi, lapurtu’: *lapurrek etxe ortan arrobotu* (“lapurrek etxe horretan arrobotu”); *arruatu* (“arrobotu”).

arroltxe tolot ik. **arrautza tolot**

arroltze ik. **arrautza**

arroltze kosko ik. **arrautza kosko**

arroltze tolot ik. **arrautza tolot**

arront ik. **arrrunt**

arrontean ik. **arrruntean**

arrontian ik. **arrruntean**

arrosel ‘bisigua’ (*Pagellus centro-dontus*): *arrosela zein ona den. Arrosela maiteut* (“arrosela maiteut”).

arrosoin ik. **aharrausi egin**

arroto ik. **harrotu**

arroxta ‘gainetik, azaletik, maribistako’: *arroxta-arroxta garbitu du etxia, etzuen astik obeki iteko* (“arroxta-arroxta garbitu du etxea, ez zuen astirik hobeki egiteko”); *arroxta pintetiko dugu ate au, ezto merezi denbora galtzia* (“arroxta pintatuko dugu etxe hau, ez du merezi denbora galtzea”).

arroztu ‘zerbaitetarako ohitura edo trebetasuna galdu’: *aspaldion mutildantzan aitzekoa, arroztu in naiz* (“aspaldion mutildantzan aritzekoa, arroztu egin naiz”);

arroztue ta nasten naiz (“arroztua eta nahasten naiz”).

arroztuka ‘ahoa behatzak sartu eta txistuka, afruiztuka’

arruatu ik. **arrobotu**

arruli ‘arrabioa’ (*Salamandra salamandra*): *arruliek izitzen naute* (“arruliek izutzen naute”); *arruli bet il dute* (“arruli bat hil dute”).

arrrunt 1 (*arrront*) ‘guziz, zeharo’: *arrront ongi patu de azkenian* (“arrrunt ongi paratu da azkenean”); *arrront kontent omen da* (“arrrunt kontent omen da”); *gure mutikoa arrront ona da* (“gure mutikoa arrrunt ona da”); *zu arrront gaixtoa zara* (“zu arrrunt gaiztoa zara”).

arrrunt 2 (*arrront*) ‘ohikoa, inolako berezitasunik ez duena; biziorik gabekoa’: *au gizon arrronta da* (“hau gizon arrrunta da”); *emengo yendea arrronta da* (“hemengo jendea arrrunta da”).

arrruntean (*arrrontean, arrrontian*) ‘normalki, egunero’: *boneta au arrrontean ibiltzeko* (“bonet hau arrruntean ibiltzeko”).

artaino (*artaño*) ‘arte’: *nai duzun artaño egoin gara emen* (“nahi duzun artaino egonen gara hemen”); *egon zaite emen ni torri artaño* (“egon zaitez hemen ni etorri artaino”).

artaixtur ik. **artaiztur**

artaiztur (*artaixtur*) (pl.) ‘ardiei ilea mozteko aizturrak’: *artaixtur zorrotzak ta onak, Kalifornietik karriek* (“artaiztur zorrotzak eta onak, Kaliforniatik ekarriak”).

artako adine ik. *hartako adina*

artangora ik. *artzangora*

artangoraka ik. *artzangoraka*

artaño ik. *artaino*

artapatxu ‘moldegabea, gaizki bez-
titua’: *au gizon artapatxue!*
 (“hau gizon artapatxua!”).

arteka ‘bi etxeren, bi hormaren, eta
abarren arteko tartea, aldamenen-
tan pareta edo zerbait behar
duena’: *arteka ortaik gan ziren.*
Arteka mearra (“arteka horretatik
joan ziren. Arteka meharra”).

artemein (eta *aurtemein*, *artominten*)
‘orain dela guti’: *artominten ize-
nak gara osabain etxean* (“arte-
mein izanak gara osabaren etxe-
an”).

artesa ik. *arteza*

arteza (*artesa*) ‘abila, trebea’: *Joxe
dugu gizon artesa, lan guzietan
entregu* (“Joxe dugu gizon arte-
za, lan guztietan entregu”).

artio ‘artaino; arte’: *gero artio.* *Bier
artio* (“gero artio. Bihar artio”).

artizar (Izeta) ‘egunsentiko izarra’:
*goizaldera zein ederra den arti-
zarra.*

arto [erranahirua] *San Markos as-
tea, artoa eriteko astea, aitzine-
koa baño ondokoa obea*

artoa esnetan (ondu gabea,
berdea denean erraten dena)
arto-bihi (Izeta) (*arto-bii*, *ar-
to-bigi*) ‘arto pikorra, artalea’:
*arto-biiez tut oraño zoko gu-
ziek beteak* (“arto-bihiez ditut
oraino zoko guztiak beteak”);

arto-bigi ederrak (“arto-bihi
ederrak”). Sin. *arto-pikor*
arto-bizar (*artopizer*) *artobu-
ru oiek anbateko artopizerra
daukete* (“arto buru horiek
hainbateko arto-bizarra dau-
kate”).

arto erre ‘artoarekin egindako
ogia’: *gure etxean arto erre
onak iten dire* (“gure etxean
arto erre onak egiten dira”).

arto-kosko ik. *arto-oskol*
artola (Izeta) ‘arto-ohola, ar-
toarekin egindako ogiak pau-
satzeko ohola’: *artolan tugu
artopilek* (“arto-oholean ditu-
gu artopilak”).

arto-marka ‘lurra markatu
eta gero artoa eriteko tresna’:
*arto-marka orrekin erizioak
aise* (“arto-marka horrekin
erizioak aise”).

arto-oskol (*arto-kosko*) ‘arto-
aren zurtoina’: *arto-koskoak
bildu bear dire* (“arto-oskolak
bildu behar dira”); *aurten ar-
to-kosko ederrak.* *Arto kosko-
llak* (“aurten arto-oskol ede-
rrak. Arto oskolak”).

arto-pikor ‘arto-bihia; arta-
lea’: *arto-pikorra olloendako*
 (“arto-pikorra oiloendako”).
Sin. *arto-bihi*

artopil (*artopille*, Basaburua)
1 ‘arto irinarekin egindako
opil txikia; taloa’: *artopil go-
xoak gure etxean; artopille
zein ona den* (“artopila zein
ona den”) 2 ‘tolesgabea. in-
ozoa’ *ze artopile den!*

artopizer ik. *arto-bizar*

arto xuritze ik. *arto zuritze*

- arto** zuritze (eta arto *xuritze*) ‘arto buruak zuritzeko egiten den lana’: *gaur artoxuritze dugu* (“gaur arto zuritze dugu”).
- artominten** ik. **artemein**
- artotu** ‘zutoinak, habeak eta makila guztiak usteldu’: *zutoin oiek artotu in dire. Abeak ere artotu* (“zutoin horiek artotu egin dira. Habeak ere artotu”).
- artxoñe** ik. **artzoin**
- artxuñe** ik. **artzoin**
- artzaingo** ‘ardiak zaintzeko lanbidea’
- artzaingoan** ‘artaldeak zaintzen’: *artzaingoan ai de aspalditik* (“artzaingoan ari da aspalditik”).
- artzangora** (eta *artangora*) (Izeta) ‘ezin iratzarrizko ueña’: *zer ai zate artzangoran, yeiki zaizte* (“zer ari zarete artzangoran, jai-ki zaitezte”); *beti artangoran* (“beti artzangoran”).
- artzangoraka** (eta *artangoraka*) (Izeta) ‘ezin iratzarriz’: *gure mutikoa or dago artzangoraka* (“gure mutikoa hor dago artzangoraka”); *goatzean artangoraka* (“ohatzean artzangoraka”).
- artzoin** (*artxoñe*, *artxuñe*) ‘zaldi gainean jartzen den zela’: *etxeke zaldie artxoñe berriekin* (“etxeke zaldia artzoin berriekin”); (Arizkun) *artxuñe*.
- asamblea** ‘harroputza; fanfarroia’: *au duk gizon asanblia* (“hau duk gizon asamblea”); *gizon asanblia gure barridea* (“gizon asamblea gure barridea”).
- asas** ik. **has-has**
- aserretu** ik. **haserretu**
- asi** ik. **hasi**
- aski**
- aski segur(u)**
- aski segurik**
- askol** ik. **aixkol**
- asmenta** ik. **hasmenta**
- asoin** ik. **asun**
- asoska** ‘asotsa eginez, zarataka’ *asoska sartu de goizeko iruetan, eta denak idetzarri dire* (“asoska sartu da goizeko hiruretan, eta denak iratzarri dira”).
- asots** ‘hots, zarata’: *zer zen asots oi? Aizeain asotsa* (“zer zen asots hori? Haizearen asotsa”).
- aspaldi**
- aspaldixko aspaldixko torri zen** (“aspaldixko etorri zen”).
- aspaldixkotik aspaldixkotik daile ez ongi airian** (“aspaldixkotik dabil ez ongi airean” = ‘ez sobera ongi’).
- asperapen** ik. **hasbeherapen**
- asperen** ik. **hasperen**
- aspil** (toki batzuetan bakarrik) ik. **azpil**
- astalketan** ‘haria astaritan biltzen’: [erranahirua] *ik astoak astalketan baño molde gutio duk* (“hik astoak astalketan baino molde gutiago duk”).

astalketari ‘harilkatzailea’: *nere arreba astalketari ona da* (“nire arreba astalketari ona da”).

astamenda (eta *astomenda*) iz. ‘menden familiako landare belarkara’ (*Mentha rotundifolia*): *astamenda bildu bear dugu* (“astamenda bildu behar dugu”).

astapito (*astopito*) ‘astakiloa’

astari ‘mataza, harila’: *kartzazu astari oi* (“ekar ezazu astari hori”); *astari ederra*.

astazaldi (Izeta) ‘teilatuko armaduran teilatuaeren malda eratzen duten petralak segurtatzeko bi egurretako bakoitza’: *gure tellatuko astazaldie ederra da* (“gure teilatuko astazaldia ederra da”).

astelegun (eta *asteleun*, *astelun*) ‘besta egun ez dena’: *asteleun ta besta egun, beti lanean* (“astelegun eta besta egun, beti lanean”); *astelunetan enaiz etxetik atratzen* (“astelegunetan ez naiz etxetik ateratzen”); *berdin da astelune izen edo ez, beti lan in biar dugu* (“berdin da asteleguna izan edo ez, beti lan egin behar dugu”).

asteleun ik. **astelegun**

astira ‘trankil, patxadaz, lasaitasunez’: *orrek beti astire iten tu gauzek, ez du batre prisik izeten* (“horrek beti astira egiten ditu gauzak, ez du batere presarik izaten”); *astire, astire!!* (“astira, astira!!”).

astomenda ik. **astamenda**

astopito ik. **astapito**

asun (*asoin*) iz. ‘basalandarea, hostoetako ileek hazkura mingarria eragiten dutena’ (*Urtica*): *gure baratzea asoñez beteik dago. Asoñe ta sasie* (“gure baratzea asunez beterik dago. Asuna eta sasía”).

ataka (eta *ateka*) ‘baratzeetan-eta izaten den ate txikia’: *gure landako ateka edekie dago. Ateka zikine dago* (“gure landako ataka irekia dago. Ataka zikina dago”). [Erranahirua] *elurrek atekak esten tik* (“elurak atekak ixten ditek”).

atalas ik. **atalase**

atalase (*atalas*) ‘sarrerako ate baten behe aldeko eskailera-maila edo hortza’: *atalasa ongi landue dago* (“atalasea ongi landua dago”).

atalburu ‘ateburua, atearen goitiko aldea eratzen duen zurezko, harrizko edo metalezko elementu horizontala’: *atalburu au ongi ine dago* (“atalburu hau ongi egina dago”).

atalogi ik. **atalohi**

atalohi (*atalogi*) ‘larrinean egiten den ongari eta lohi mukurua’: *gure larranean iten den atalogie arras ona da. Atalogi ona* (“gure larrinean egiten den atalohia arras ona da. Atalohi ona”).

atalpilare (*atalpilere*) ‘zutoina pausatzen den harrizko oina’: *atalpilera arrizkoa izeten da* (“atalpilarea harrizkoa izaten da”).

atalpilere ik. **atalpilare**

atalzapata (Izeta) ‘atalarria’: *ateko atalzapata ortan muturketu ta*

- erori nitzen* (“ateko atalzapata horretan muturkatu eta erori nintzen”).
- ate 1** ‘alde batetik bertzera pasatze-ko irekidura’
- ate 2 ik. ahate**
- ateka ik. ataka**
- atekola** ‘atakak egiteko oholak, zeharka paratzen direnak’
- atekoletan** ‘josteta, jolas modu bat’
lenago atekoletan aitzen ginen.
- ateraldi (atraldi)** ‘ustekabeko esaldi edo erantzuna, gehienetan irri egitekoa’: *orrek atraldi ederrak tu. Orren atraldiek...* (“horrek ateraldi ederrak ditu. Horren ateraldiak...”).
- aterixka (aterixke, aterixki)** ‘euria eta elurra-edo ari ez duen denbora-tartea’: *orai aterixki dago. Urie ai zuen ta orai aterixki* (“orain aterixka dago. Euria ari zuen eta orain aterixka”).
- aterixke ik. aterixka**
- aterixki ik. aterixka**
- aterkuntza (aterkuntze)** ‘aterraldia’: *animeleko erauntsiek ta tarteka aterkuntze bat* (“alimaleko erauntsiak eta tarteka aterkuntza bat”); *aterkuntze batean atra ginen* (“aterkuntza batean atera ginen”).
- aterkuntze ik. aterkuntza**
- atija (atije, atri xe)** ‘doministikua, usina’: *zu beti atijeka* (“zu beti atijaka”); *gau guzien atri xeka* (“gau guztian atijaka” = ‘atrika’).
- atije (Basaburua) ik. atija**
- atorra** ‘alkandora, gizonena edo andreena’: *atorra autsi zait* (“atorra hautsi zait”); *ator xurie* (“atorra xuria”); *atorra zikin dago.*
- ator-has(ean)** ‘atorrarekin bakarrik, jertse gabe’ *atorrasian torri de, ez du otzik* (“ator-hasean etorri da, ez du hotzik”). *Atorras ibili de egun osoan* (“ator-has ibili da egun osoan”).
- atraldi ik. ateraldi**
- atrika (atrike)** ‘doministikuka’
- atrike ik. atrika**
- atrixe (Basaburua) ik. atija**
- ats ik. hats**
- atsainartu ik. atsegin hartu**
- atsalde ik. arratsalde**
- atsankatu ik. hatsankatu**
- atsegin hartu (atsainartu)** ‘kezka bat garbitu ondoren, lasaitu’: *atsainartu du atsaldean torriko dela jakin duelaik* (“atsegin hartu du arratsaldean etorriko dela jakin duelarik”); *atsain artikoizu bai, azterketa gainditzen duzulaik* (“atsegin hartuko duzu, bai, azterketa gainditzen duzularik”); *atsain artu du oi in duelaik* (“atsegin hartu du hori egin duelarik”).
- atsiki ik. ausiki**
- atsiki in ik. ausiki egin**
- atsikileri ik. ausikilari**
- atsikitu ik. ausikitu**
- atso [erranahirua: launbeta, atso meta]**

atso-ttantta ‘ardo goxoa’: *nere amatxik atso-ttantta maite du* (“nire amatxik atso-ttantta maite du”).

atta ik. *aita*

attun ik. *aitona*

atx! ‘mina eta ezustea adierazteko hitza’: [Erranahirua] *min artzen duenak, ez du atxik iten*.

atxiki 1 (*txiki*) ‘eduki, gorde, altxatu’: *txiki zazu au* (“atxiki ezazu hau”).

atxiki 2 (*txiki*) ‘atxiki, itsatsi, erantsi’: *autsie zagona ongi txikiut* (“hautsia zegoena ongi atxiki dut”).

atxiki 3 ‘pilota jo beharrean une batez eskuan kontzea’ (esku-pilotan debeka-tua dago): *pilotari orrek atxiki iten du* (“pilotari horrek atxiki egiten du”).

atxiki 4 ik. *aitzakia*

atxurikoan aitu ik. *atxurikoan aritu atxurikoan aritu* (*atxurikoan aitu*) (Izeta) ‘haur josteta’: *gure aurrek atxurikoan ai dire. Atsaldero atxurikoan* (“gure haurrak atxurikoan ari dira. Arratsaldero atxurikoan”).

atz ik. *hatz*

atzapar ‘zenbait animaliatan, azazkal kakotu garrotz eta gogorrek dituen esku edo oina’: *anbateko atzaparrak* (“hainbateko atzaparrak”); *orren atzaparretan erori zen* (“horren atzaparretan erori zen”).

atzaparraren betean (*atzaparrain betian*) ‘atzaparka’: *atzaparrain betian artu zuen* (“atza-

parraren betean (= ‘atzaparka’) hartu zuen”).

atzaparkari ‘atzaparka egiten duena’: *atzaparkari gaixtoa gure barridea* (“atzaparkari gaixtoa gure barridea”).

atzaparrain betian ik. *atzaparraren betean*

atzendu ‘zerbaiten edo norbaiten oroitzapena galdu; ahaztu’: *neri atzentzen zaizkit gauzek* (“niri atzentzen zaizkit gauzak”); *atzendu zait*. Sin. *ahantzi*

atzengarri ‘atzenarazten duena’: *mendien ibiltzia nere kezken atzengarri* (“mendian ibiltzea nire kezken atzengarri”).

atzenkor ‘gauzez erraz atzentzen dena’: *atzenkor naiz. Emen denak atzenkorrak* (“hemen denak atzenkorrak”).

atzetu ‘lehenago beti elkarrekin zebiltzanak eta orain elkar ikusten ez dutenak; arrotzu’: *lenago beti elkarrekin ibiltzen ginen ta orai atzetu gara* (“lehenago beti elkarrekin ibiltzen ginen eta orain atzetu gara”); *ez kusiz atzetu gara* (“ez ikusiz atzetu gara”).

aulki ‘eseritzeko, jartzeko tokia’: *jar zaite alki ortan* (“jar zaitez (= ‘eser zaitez’) aulki horretan”).

zerri-aulki ‘zerria hiltzeko ibiltzen den zurezko aulki berezia’: *zerri alkie artu beariko dugu bier* (“zerri aulkia hartu behariko dugu bihar”).

aulkito (*alkito, alkitto*) ‘behiak jezteko jarleku txikia, hiru oinekkoa eta bizkarrik gabea’: *yarri zaite*

- alkitto ortan* (“jar zaitetz aukitto horretan”).
- aundiago* ik. **handiago**
- aundiagoko* ik. **handiago**
- aundien* ik. **handien**
- aundikara* ik. **handikara**
- aundikutun* ik. **handikutun**
- aundimendi* ik. **handi-mandi**
- aundisko* ik. **handisko**
- aunditsu* ik. **handitsu**
- aunditz* ik. **aunitz**
- aundiuste* ik. **handiuste**
- aundiz* ik. **aunitz**
- aunitz** (eta *aunditz*, *auniz*) 1 ‘asko’: *yende aunitz bildu zen* (“jende aunitz bildu zen”); *aunitz yende torri da* (“aunitz jende etorri da”); *orrek badu diru aunitz* (“horrek badu diru aunitz”); (Basaburuan eta Arraiozen batez ere) *aunitz eta aundiz*, *aunditz* 2 ‘arras’ *erranairu hau aunitz edatue dago* (Izeta)
- aunitz aldiz** ‘askotan’: *aunitz aldiz izenak gara* (“aunitz aldiz izenak gara”); *aunitz aldiz mozkortzen da* (“aunitz aldiz mozkortzen da”).
- aunitz urtez** 1 ‘urte askotan’: *aunitz urtez ibiliek gara* (“aunitz urtez ibiliak gara”). 2 ‘urte askotarako’: *aunitz urtez yaun-andreak!* (“aunitz urtez, jaun-andreak!”). 3 urte betetzean zorionak emateko formula
- auniz* ik. **aunitz**
- aunpetu* ik. **hanpatu**
- auntu* ik. **hantu**
- aunture* ik. **hantura**
- auntzkurrumie* ik. **ahuntz-kurrume**
- auntzkurrumiñe* (Aniz) ik. **ahuntz-kurrume**
- auriaka** (aurieka) ‘oihuka’: *zanpatu zuten ta aurieka gan zen* (“zanpatu zuten eta auriaka joan zen”).
- aurieka* ik. **auriaka**
- aurkara* ik. **haurkara**
- aurkeri* ik. **haurkeria**
- aurki** ‘oihal, ehun edo bertze zenbait gauzaren alde nagusia, begien aitzineko aldea, girbina edo binperra ez dena’: *au da oial unen aurkie* (“hau da oihal honen aurkia”); *bonetañ aurkie* (“bonetañen aurkia”).
- aurride* ik. **haurride**
- aurtemein* ik. **artemein**
- aurtu* ik. **haurtu**
- aur-xatar* ik. **haur-xatar**
- ausarki** (*auserki*) ‘aunitz’: *auserki yan nuen* (“ausarki jan nuen”); *ortaik badugu auserki* (“horretatik badugu ausarki”).
- ausbero* ik. **hausbero**
- auserki* ik. **ausarki**
- ausiki** (*atsiki*) ‘hozkada, ziztekoa’: *a ze atsikie duzun purdian! Zerk in datzu?* (“a zer ausikia duzun ipurdian! Zerk egin dizu?”); *liztorrain atsikie ez da goxua izeten* (“liztorrainen ausikia ez da goxoa izaten”).

ausiki egin (*atsiki in*) ‘hozka egin, zizt egin’: *zakurrek atsiki in zion, eta gero liztorrak ere* (“zakurrak ausiki egin zion eta gero liztorrak ere”).

ausikilari (*atsikileri*) ‘ausiki egiten duena’

ausikitu (*atsikitu*) ‘ausiki, hozka egin’: *kasuintzazu, zakur orrek atsikituko zaitu!* (“kasu egin ezazu, zakur horrek ausikituko zaitu”).

ausko ik. **hauspo**

auspeska ik. **ahuspezka**

auspezka ik. **ahuspezka**

Austegun ik. **Hauts-egun**

austei ik. **haustegi**

aute ik. **hauta**

autegarri ik. **hautagarri**

auteman ik. **hauteman**

auten ik. **hautan**

autestu ik. **hautetsi**

autetsi ik. **hautetsi**

autetu ik. **hautatu**

auts ik. **hauts**

autsi ik. **hautsi**

Autsegun ik. **Hauts-egun**

auzalan ik. **auzolan**

auzelan ik. **auzolan**

auzelankara ik. **auzolankara**

auzo ‘karrikatik bereizirik dagoen etxe multzoa’

auzolan (*auzalan, auzelan*) ‘auzoko-en edo barrideen arteko elkarlana’: *erriko pilota plaza auzela-*

nean in dugu (“herriko pilota plaza auzolanean egin dugu”).

auzolankara (*auzelankara*) ‘auzolan kontuan’: *aste osuan ibiliek dire auzelankaran* (“aste osoan ibiliak dira auzolankaran” = ‘auzolanean’).

axa-axa! ik. **xaxa-xaxa!**

axatu ik. **xaxatu**

axit ik. **aisit**

axkarbe ‘sendagile basa, petrikiloa’: *gure errien badugu axkarbe ona* (“gure herrian badugu axkarbe ona”). Bada etxe bat, Azpilkue-tan, ‘Axkarbea’ izenekoa, nahiz beharbada, ez duen zerikusirik hitz honekin.

arkol 1 (Azkue) ik. **aixkol**

arkol 2 ik. **aixkol**

axola (*azola*)

axolagabe (eta *azolagabe*) ‘arduraga-bea, gauzez ardura hartzen ez duen pertsonaz erraten da’: *zein axolagabea zaren; yende azolagabea* (“jende axolagabea”); *azolagabe franko emen* (“axolagabe franko hemen”).

axpixon ik. **azpizun**

artiko ik. **arestiko**

artion ik. **arestion**

axtur ik. **aiztur**

axun ik. **azun**

azani (*azañe*) (Izeta) ‘urtan dagoen errotarria’: (Baztangoiza) *errotako azanie* (“errotako azania”); *azañe* (“azania”).

azantz ‘asotsa, zarata’: *anbateko azantza dugu emen. Azantza aundie* (“hainbateko azantza dugu hemen. Azantz handia”).

azañe (zenbait tokitan) ik. **azani**

azi ik. **hazi**

aziendaketari ‘aziendekin ongi konpontzen dena, alde batetik bertzera erraz ibiltzen dituen’: *aziendaketari ona da, bai.*

aziler ‘aza eta ilarrak nahasiz prestatzen den janaria’: *gaur bazkaltzeko aziler. Azilerra ona da.*

azkaka ik. **hazkaka**

azkale (Basaburua) ik. **hazgale**

azkaleka ik. **hazgaleka**

azkar 1 ‘indarra duena’ 2 ‘aunitz’ *kontrabando garaian azkar gaten ziren Frantzia aldera.*

azkarki ‘bortizki, sendo’: *mendien erori ta azkarki kolpatu* (“mendien erori eta azkarki kolpatu”).

azkenarri ‘horma batean jartzen den azken harria’: *azkenarri ederra patu dugu* (“azkenarri ederra paratu dugu”).

azkile ‘hazgalea, arraskatzeko gogoa, azkura’: *buruen azkilia. Azkile izigerrie* (“buruan azkilea. Azkile izugarria”).

azkileka ‘arraskatuz’

azkon ‘azkonarra’

azkurena ‘osasuntsu hazten ari dena’: *mutiko azkurena, nola azi den* (“mutiko azkurena, nola hazi den”).

azola ik. **axola**

azolagabe ik. **axolagabe**

azpi 1 ‘lurretik hurbilen dagoen alde’ 2 ‘aziendari, lo egiteko eta etzateko paratzen zaiona’

azpiak atera ‘aziendaren ongarria kentzea’

azpitik goiti eta gainbehera

azpil (eta *aspil*) ‘zerriek jaten duten tokia’: *zerrien azpile garbitu bear da* (“zerrien azpila garbitu bear da”); (Almandoz, Basaburua) *aspille garbitu ’ut* (“azpila garbitu dut”); *Elbete, kukute, mando txar bat il dute, katilu bat ezin izanez aspolean jan dute* [erranirua].

azpildu 1 ‘azpildura egin’ (oihalei egiten zaien bazterretako tolestura): *azpildu oiala* (“azpildu oihala”). 2 ‘tolestu’: *azpildu oiala. Azpildut* (“azpildu oihala. Azpildu dut”).

azpiltzun (eta *azpiltzun*) ‘azpildura’: *azpiltzune ongi in zazu* (“azpiltzuna ongi egin ezazu”); *azpiltzune ongi in dut* (“azpiltzuna ongi egin dut”).

azpiltzun ik. **azpiltzun**

azpitik goiti ‘behetik gora’: *azpitik goiti gan ginen* (“azpitik goiti joan ginen”).

azpixon ik. **azpizun**

azpixuri ik. **azpizuri**

azpiz ‘isilean, azpitik’: *azpiz iten tu gauzek* (= ‘isilean egiten ditu gauzak’).

azpizun (*azpixon, xpixun*) ‘zerriaren solomo txikia’: *azpizune zein ona den. Axpizune maite dugu* (“azpizuna zein ona den. Azpizuna maite dugu”).

azpizuri (*azpizuri*) 'buztanzuria, hegabera' (*Vanellus vanellus*): *gaur ba-ziren ainbertze azpizuri* ("gaur baziren hainbertze azpizuri").

aztaka ik. **haztaka**

aztal 'orkatilatik belaunera doan zango-zatia, bereziki gibelesko aldea': *aztal meak gizon orrek. Aztal xuri-xuriek* ("aztal meheak gizon horrek. Aztal xuri-xuriek").

aztal-ubel ik. **aztal-uhala**

aztal-uhala (*aztal-ubela*) 'buztanpekoa': *abre orren aztal-ubela ondatue dago* ("abere horren aztal-uhala hondatua dago").

aztamuka ik. **haztamuka**

aztatu ik. **haztatu**

azun (*axun*) 'ernari dagoen zerria': *zerriteien dugu zerri axune* ("zerritegien dugu zerri azuna").

B

baba iz. 1 'landarea' (*Vicia faba*). 2 'larruazaleko handitu urtsua, igurzteak sortutakoa'

baba-leka iz. *gaur baba-lekak bazkaltzeko*.

baboxa 'landare belarkara' (*Trifolium incarnatum*): *beitiko landan baboxa ederra dugu*. ("beheitiko landan baboxa ederra dugu").

bagadi ik. **pagadi**

bagatxa ik. **pagatxa**

bage-ustai ik. **bahe-uztai**

bago ik. **pago**

bago-kardu ik. **pago-kardu**

bago-lixertza ik. **pago-lizartxa**

bago-lizartxa ik. **pago-lizartxa**

bago-lizertxa ik. **pago-lizartxa**

bahe-uztai (*bageustai*) (Izeta) 'zeta-bea inguratzen duena': *bageustai*

au ongi ine dago ("bahe-uztai hau ongi egina dago").

bahikunde (*baikunde*) 'bahitura': *aurten baikunde aunitz in tuzte* ("aurten bahikunde aunitz egin dituzte").

bahikuntza (*baikuntze*) 'azienda bertzeen bazkaleketan lapurkoan sartu ondoren, kalte hori berdintzeko ordaintzen den diru-zigorra': (Ultzama) *arizti orretan arrapatu dituzten zerri oiek baikuntze ordaindu bearra* ("harizti horretan harrapatu dituzten zerri horiek bahikuntza ordaindu beharra").

bahitu (*baitu*) 'zerbait bahian hartu': *gure belaian sartu diren beorrak baitu tugu* ("gure belaian sartu diren behorrak bahitu ditugu"); *mendizañek ardi multzu bat bai-*

tu du (“mendizainak ardi multzo bat bahitu du”).

bai

baietz zuk inen duzu, ez dela baietz? (“zuk eginen duzu, ez dela baietz?” = ‘ez da hala?’).

bai to! ‘ez, ez; inondik ere’

baiarta (*ballarte, ballatre, pallastra*) ‘arkutsa, gangabilak’: *ballatriakin ongarrri garraien. Pallastrakin ongarrriketan* (“baiartarekin ongarrri garraioan. Baiartarekin ongarrriketan”); (Lekaroz) *ballarte. Ballartia ondatu zaiku* (“baiarta. Baiarta hondatu zaigu”). Denak Izetak bilduak, ortografia zuzendu dugu (Ez da ‘ballartia’ baizik ‘ballarte’, eta ez da ‘ballatria’ baizik ‘ballatre’, artikulatu gabe emanak. Guztien aldaera batua **baiarta** da, guk proposatua).

baieztan (Aniz) ‘dudan, zalantzan, duda-mudan’: *belar au baieztan baki dugu ta ongi atra zaiku* (“belar hau baieztan ebaki dugu eta ongi atera zaigu”).

baikunde ik. **bahikunde**

baikuntze ik. **bahikuntza**

baina (*baña, baño, miño*) (Ornoz) *miño eztuzu gibelat begittu biar* (“baina ez duzu gibelat begiratu behar”); *miño etzaikun gustetzen patzia* (“baina ez zitzaigun gustetzen paratzea”).

baino (*baño, miño*) *au baño obia da* (“hau baino hobea da”).

baitan ‘pertsonekin bakarrik ibiltzen da, bertzenaz “barnean”. Izen abstraktuekin ere ez da ibiltzen’: *nere baitan egon naiz pentsatzen* (“nire baitan egon naiz pentsatzen”); *bere baitan iten zuen* (“bere baitan egiten zuen”).

baitatik: *bere baitetik utzie du* (“bere baitatik utzia du” = ‘bere kabuz utzia du’).

baitezpada ‘badaezpada’: *baitezpada in dezagun* (“baitezpada egin dezagun”).

baitezpadakoa ‘nahitaezkoa’: *oi baitezpadakoa da* (“hori baitezpadakoa da”).

baitu ik. **bahitu**

baizik (salbuespena adierazteko modua) ‘salbu, izan ezik’: *denak torri dira, zu baizik ez* (= ‘zu izan ezik, gainerako guztiak etorri dira’); *denek badakite ongi aski au, zuk baizik ez* (= ‘zuk izan ezik, gainerako guztiak badakite hau ongi aski’).

bakan ‘gutitan’: *bakan tortzen zategure etxera* (“bakan etortzen zarete gure etxera”); *bestak bakan ta ek ederrak* (“bestak bakan eta haiek ederrak”).

bakar (pl.) ‘aunitz gauza’: *bakarrak badire!* (= ‘badira aunitz!’); *bakarrak baitut nik kusiek!* (= ‘aunitz gauza baditut nik ikusiak!’)

bakura (*bakure*) ‘muga’ (Baztango lurretan bada leku bat *Urbakura* deitzen dena. Hor elkartzen dira

Aritzakungo eta Urritzateko erreka, biak bat eginik eta urak Bidarraiko (Nafarroa Beherea) lurretan sartzen dira).

bakure ik. *bakura*

bala (*fal*) ‘uzta-sorta lotua; ogi-bala’: *ogi-fal ederrak in tugu* (“ogi-bala ederrak egin ditugu”); *emen ogi-fala* (“hemen ogi-bala”).

balango (Izeta) ik. *balengo*

balatra (Izeta) ‘metatu gabeko iratze multzoa’: *idetzia balatrara bildu dugu* (“iratzea balatrara bildu dugu”).

balekabale ik. *balekibale*

balekibale (*balekabale*) (Izeta) ‘badaezpada ere’: *balekabale gan bearko dugu* (“balekibale joan beharko dugu”); *balekabale torri* (“balekibale etorri”). Sin. *baitezpada*

balengo (eta *balango*) ‘ataka mota bat, kanpoan jartzen dena’: *gure belaiko balengoa edekie dago* (“gure belaiko balengoa irekia dago”).

ballarte (Izeta) ik. *baiarta*

ballatre (Izeta) ik. *baiarta*

banabar ‘ilarra, babarruna’ (*Phaseolus vulgaris*): *aurten banabar ederrak* (“aurten banabar ederrak”); *banabarra ta aza* (“banabarra eta aza”); *banabar gorrie* (“banabar gorria”).

banaborratu (Izeta) ‘banandu’: *banaborratu ongi ta ustelak bota*

(“banaborratu ongi eta ustelak bota”).

banaz bertze ‘batez bertze’: *banaz bertze, lau kilo*.

bandio 1 ik. *mandio*

bandio 2 ‘ohol handia’: (Sunbilla) *aritz bandiuakin in dugu otaska* (“haritz bandioarekin egin dugu otaska”).

bano ‘euria eginen duela-edo... ego-tea’: *bano dago*. [Erranahiruak: *Auzako mendien lano, bier denbora bano. Auzako kaskoan lano, berotzeko denbora bano*]

banzo (Izeta) ‘eskaileren bi bazterretan dauden barandak’: *banzoak ongi inek dire* (“bantzuak ongi eginak dira”).

baña ik. *baina*

baño 1 ik. *baina*

baño 2 ik. *baino*

bara (*fara*) ‘atea hesteko ibiltzen den langa’: *ateko fara autsi zaiku* (“ateko bara hautsi zaigu”).

baranda (*faranda*) ‘eskudela’: *faranda ederra dugu* (“baranda ederra dugu.”); *faranda, berri-berrie* (“baranda, berri-berria”).

baratxuri hortz (*baratxuri-ortz*) iz. ‘baratxuriak duen zatietako bakoitza’

baratxuri-ortz ik. *baratxuri-hortz*

baratxuri ziztor iz. ‘baratxuriak duen zatietako bakoitza’

barau (*baru*) ‘janaririk edo edaririk ez hartzea edo gutxi hartzea’:

gaur baru egune (“gaur barau eguna”); *batre yan gabe egun guzien baru* (“batere jan gabe egun guztian barau”); *aunitz aldiz on da baru itea* (“aunitz aldiz on da barau egitea”).

barban (Gorosurreta) ‘gorputzeko biloa’

barbera ik. **barberu**

barberu (*barbera*) ‘lehenago, herrietako mediku kontua egiten zue-na’: *barbera ona dugu emen* (“barberu ona dugu hemen”); *barberak sendatzen du* (“barberuak sendatzen du”); *gaurko egunean ezta barbera ibiltzen* (“gaurko egunean ez da barberua ibiltzen”); *gañera orai ezta barberik* (“gainera orain ez da barberurik”).

barda ‘bart’: *barda non zinen?* (“bart non zinen?”).

bardaki (Izeta) ‘tripakia’: *bardakie ginuen afaltzeko* (“bardakia genuen afaltzeko”); *bardaki ona yan dugu* (“bardaki ona jan dugu”).

barga ik. **garba**

bargari ik. **garbari**

bargaxta ‘hazten ari den zerri arke-la, emea’: *erosi tugu lau bargaxta* (“erosi ditugu lau bargaxta”).

bargo ‘lau hilabetetik urte batera arteko zerrikumea (ordotsa, arra bada, eta arkela, emea bada, izan daitezke bargoak)’: *erosi dugu bargo andana bat*. *Bazta-*

nen bargoak onak dire (“Baztannen bargoak onak dira”).

bargoxta ‘zerri ordotsa, arra, zerrikumearen eta zerri zaharraren artekoa’: *bargoxta guziek saldu tugu* (“bargoxta guztiak saldu ditugu”).

barkakizun ‘barkamena’: *barkakizune eskatzeut* (“barkakizuna eskatzen dut”).

barkatugaitz ‘barkaezina’: *zure gairakerie barkatugaitze da* (“zure gaiztakeria barkatugaitza da”).

barna ‘-n zehar’ (arruntean ‘-n barna’ erramoldean ibilia): *Elizondoko karriketan barna ibiliek gara* (“Elizondoko karriketan barna ibiliak gara”); *or barna ibili naiz* (“hor barna ibili naiz”). • iz. ‘barrua’: *eztut edain, barnak eztaut eskatzen batre* (“ez dut edanen, barneak ez dit eskatzen batere”).

barnasko ‘aski barnera’: *barnasko sartu ziren oianian* (“barnasko sartu ziren oihanean”).

barne 1 ‘gela, aretoa’ (leku kasu atzizkiekin ibiltzen da, singularrean): *barne aundi bet* (“barne handi bat”); *aren barneko berri nai dut yakin* (“haren barneko berri nahi dut jakin”); *barneko mine* (= ‘eritasun handia’). 2 ‘(Pilota jokoan eta) eremu berezi bat’: *pilota arat gan bada barne da* (“pilota harat joan bada barne da”). • **barnean** ‘barruan’: *etxe barnian dago*. • **barnera** ‘barrura’: *sar zaitez barnera* (“sar zaitez barnera”); *onak barnera, gairtoak*

kanpora, sarna fuera (Sanjuane-tako suak saltatzean erraten dena). • **barnetik barnetik bezala atratzen zaio** (“barnetik bezala ateratzen zaio”).

barrandan ‘zelatan’: *barrandan aizuken gure solasak aitzen* (“barrandan ari zuan gure solasak aditzen”).

barrandari ‘zelataria’: *barrandari maltzur oi porrokatu bear dugu* (“barrandari maltzur hori porrokatu behar dugu”).

barreiatu (Izeta) ‘sakabanatu; zabaldu; hedatu’: *gaitze barreiatu de erri guzieren* (“gaitza barreiatu da herri guztian”); *ardi guziek barreiatuek mendien* (“ardi guztiak barreiatuak mendian”).

barrendegi (*barrendei*) ‘leku hesitua’: *barrendeie saltzen diot Iñarbeiko artzain bati* (“barrendegia saltzen diot Iñarbegiko artzain bati”); *gure etxeke barrendeie* (“gure etxeke barrendegia”).

barrendei ik. **barrendegi**

barride ‘auzokoa’: *gure barrideak onak dire. Barrideakin beti ongi* (“gure barrideak onak dira. Barridearekin beti ongi”).

barro ‘enborrharen muturrean, indarrean tiraka egiteko jartzen dena, burdinezko itzearen antzekoa’: *barroa ongi tinketu laxatu ez daien* (“barroa ongi tinkatu laxa ez dadin”).

bart arratsean (*bartatsean*) ‘bart’: *bartatsian lapurrek sartu zaizku* (“bart arratsean lapurrak sartu zaizkigu”); *bartatsean urie in du* (“bart arratsean euria egin du”).

bartatsean ik. **bart arratsean**

baru ik. **barau**

barupokadu (Gorosurreta) ‘otamena, gosari txikia’

basa 1 izond. ‘basatia, etxetik kanpokoak’: *katu basa. Urde basa!* (“katu basa. Urde basa!”). 2 ‘zakarra’: *aize basa* (“haize basa”). 3 ‘ihes egiten duena’: *oi mutiko basa etxian dutena!* (“hori mutiko basa etxean dutena!”).

basadar (Azkue) ‘arbolapean oindarrean sortzen den altsuma, basatea’: *basadarrak ongi garbitu*.

basaka ‘euria ari duen eta haize bortitza dabilen unea; ekaitza’: (Aniz) *au basaka! Ekaitziek kalte aundiek in tu. Au basaka!* (“hau basaka! Ekaitzak kalte handiak egin ditu. Hau basaka!”).

basapiro ‘basahatea’ (*Anas platyrhynchos*): *beitiko belaian basapiro aunitz* (“beheitiko belaian basapiro aunitz”); *basapiroak negu aldian* (“basapiroak negu aldean”).

basaran (*matxakaran*) ‘larrean hazten den aranondo arantzatsua’ *sasi oi matxakaranaz betea dago. Aurten matxakarana aunitz* (“sasi hori basaranez betea dago. Aurten basaran aunitz”).

basate (Azkue) ‘basadarra’: *basatea*.
Sin. **basadar**

basatu ‘basa bihurtu’: *zure lagun oi basatu zaiku* (“zure lagun hori basatu zaigu”); *gazte oiek ere basatu dire* (“gazte horiek ere basatu dira”).

baserreka ‘euria egiten duenean sortzen den erreka’: *baserrekak ondatzen tu bidiak*.

baso iz. ‘edateko ontzia’

basta ‘abereei zama garraiatzeko paratzen zaien tresna, txalma baino sendoagoa’: *gure abreak basta berrie bearke du* (“gure abereak basta berria beharko du”).

bastart (*baxtart*, *baxterta*) ‘sasikoa, ez ezkontzaz sortua’: *mutiko oi baxtartauk!* (“mutiko hori bastarta duk!”).

bastorraz ‘orraz lodia’: *bastorrazta ona dugu*.

bataiarri (eta *bataiasgarri*, Gorosurreta) ‘bataiatzeko ibiltzen den harria edo ontzia’: *gure elizen bataiarri ederra dugu* (“gure elizan bataiarri ederra dugu”); (Gorosurreta) *bataiasgarrie* (“bataiarria”).

bataiasgarri (Gorosurreta) ik. **bataiarri**

batzabar ik. **batzar**

batzar (*batzabar*) ‘erabakiak hartzeko herrietan egiten den bilkura’: *gaur dugu batzarra alkatea autetzeko* (“gaur dugu batzarra alkatea hautatzeko”). Batzuetan,

gutienetan, ‘batzabar’ bildu dugu.

baxtart ik. **bastart**

baxter ik. **baxter**

baxterta ik. **bastart**

bazkalaitzin ‘bazkalaurrea’: *bazkalaitzineko otoitz oiture ona* (“bazkalaitzineko otoitz ohitura ona”).

bazkatei ‘bazka sabaitik behitegira botatzeko ziloa, belar ziloa’: *bazkateie in berrie dugu* (“bazkategia egin berria dugu”).

Bazko ik. **Pazko**

Bazkogarizime ik. **Pazko Garizuma**

Bazkogarizume ik. **Pazko Garizuma**

Bazko maiatzeko ik. **Pazko maiatzeko**

bazter (eta, *baxter*) 1 ‘muga’: *baxter unteraino allegatzen da belai* (“bazter honetaraino ailegatzen da belai”). 2 ‘zokoa’: *baxter baxtian utzi ginuen* (“bazter batean utzi genuen”). 3 ‘tokia’: *bazterrok ederrak dire gero!* (“bazterrok ederrak dira gero!”); [Erranahirua] *nolako maisterra, alako bazterra*. 4 ‘gauza’ (arruntean ‘guzi’ ondoan): *orren gosia: bazter guziek jaten tu* (“horren gosea: bazter guziak jaten ditu”); *bazter guziek erosi zituen* (“bazter guziak erosi genituen”).

baztertu 1 *da/du* ad. ‘bazterrera joan edo eraman’. 2 izond. ‘aita ezagutzen ez zaion umea, sasikoa’: *Miguel ume baxtertue*

- omen da* (“Miguel ume baztertua omen da”).
- bea* ik. **beha**
- beaka* ik. **behaka**
- beako* ik. **behako**
- beala* ik. **berehala**
- bearko* ik. **beharko**
- bearkunde* ik. **beharkunde**
- bearreztenkeri* ik. **beharreztenkeria**
- bearrezten* ik. **beharrezten**
- bearri* ik. **belarri**
- bearrik* ik. **beharrik**
- beartu* ik. **behartu**
- beatz-koxkor* ik. **behatz-kozkor**
- bedere* ik. **bederen**
- bederen** (*bedere*) ‘behintzat, gutxienez’: *maiozu au bederen* (“emaiozu hau bederen”); *pixke bat bedere* (“pixka bat bederen”).
- befa** (*bufe*) ‘iseka; burla’: *befa ta irri gure gain* (“befa eta irri gure gain”).
- befaka** (*bufeka*) ‘burlaka’: *beti befaka dabile gizon au* (“beti befaka dabil gizon hau”).
- begarri* ik. **belarri**
- begi** *begiko zikine baño gutiago kusinai du* (“begiko zikina baino gutiago ikusi nahi du); [Erranahirua] *begie noraño, gogoia araño* **begi-gose** ‘janaria ikustean, begietatik sortzen den gosea, egiazkoa ez bada ere’: *gosia zuk? begi gosia bai, gero ezazu deus yain!* (“gosea zuk? begi gosea bai, gero ez duzu deus janen!”). [Erranahirua] *begie ase ta tripe gose*
- begietan hartu** ‘norbaiti aiherkunde izan’: *gure mutikoa begietan artute* (“gure mutikoa begietan hartu dute”).
- begilore** ‘kezkatu, triste, begia apal-kara’: *gure aurre begilore dugu, eztago ongi* (“gure haurra begilore dugu, ez dago ongi”).
- begilun** ‘betiluna, begirada tristea duenari erraten zaio’: *begilun dugu aurre. Emen denak begilun* (“begilun dugu haurra. Hemen denak begilun”).
- begimakur** izond. ‘ezkela, begiratzean begiak okertzen dituenak’
- begor* ik. **behor**
- beha** (*bea*) adond. ‘(zerbaiti) begira’: *zerbaiti, zerbaiten bea egon* (“zerbaiti, zerbaiten beha egon”).
- behaka** (*beaka*): *beaka egon nitzen* (“behaka egon nintzen”).
- behako** (*beako*) iz. ‘begirada’
- beharko!** (*bearko, biariko*) ‘zer erremedio!’: *inen duzu au? Bearko!*
- beharkunde** (*bearkunde*) ‘premia, beharra’: *sosa beti altxatu bearkunde baterako. Bearkunde aundiak* (“sosa beti altxatu beharkunde baterako. Beharkunde handiak”).
- beharrezten** (*bearrezten*) ‘behar ez den’ (baiezko esaldietan bakarrik ibiltzen da): *bearreztenak iten tu*

orrek; erosi du bearreztena; oi bearreztena da. Lexikalizatua.

beharreztenkeria (*bearreztenkeri*) *mutikoi beti bearreztenkeriek iten* (“mutiko hori beti beharreztenkeriak egiten”).

beharrik (*bearrik, biarrik*) ‘eskerrak; zorionez’: *bearrik torri zaren, biarrik in duzun au! Bertzenaz itoko nitzen* (“beharrik etorri zaren, beharrik egin duzun hau! Bertzenaz itoko nintzen”).

behartu (*beartu*) 1 ‘beharra izan’: *ez dire gai deusteko: lenbizikoan beartzen direnean, adios, teknikoa karri bear!; nik eztut zutaz beartu bear* 2 ‘bortxatu’: *beartu genion tortzera; ezkara inoiz ere beartu ortara.*

behatz-koskor (*beatz-koskor*) ‘behatz-kaskoa’: *beatz-koskorretan min artut* (“behatz-koskorretan min hartu dut”).

behatz-koskor ik. **behatz-koskor**

beheiti 1 (*beiti*) ‘beheko partea’: *zazi beitera; beitiko atia edekie utzi duzu* (“zoaz beheitera; beheitiko atea irekia utzi duzu”).

beheiti 2 (*beiti*) ‘behea’: *zazi beitare. Beitiengo dago. Zu beti beiti. Beiti-tik torko da. Beitiko aldi bizi da.* (“Zoaz beheitera. Beheitiengo dago. Zu beti beheiti. Beheitiengo etorriko da. Beheitiengo aldean bizi da”).

beheitixagotto (*beitixagotto*) ‘pixka-pixka bat beheitiago’ *goazen beheitixagotto. Borda zarra beitixa-*

gotto dago. (“Goazen beheiti-xagotto. Borda zaharra beheiti-xagotto dago”).

beheitiko (*beitiko*) ‘beherakoa (pertsonena)’: *gure aurre beitikoain daukegu* (“gure haurra beheitikoarekin daukagu”); *beitikoa txarra da* (“beheitikoa txarra da”).

beheitisko (*beitisko*) ‘aski beheiti dagoena’

beheititu (*beititu*) ‘beheitira eraman, ekarri’: *beititukoizu ogie?* (“beheitituko duzu ogia?”).

beheragune (*beragune*) ‘sakontasuna’: *leze orrek beragune aundie du* (“leize horrek beheragune handia du”).

beherapen (*berapen*) ‘ilbehera’: *berapenean erizioak. Gaur berapen* (“beherapenean erizioak. Gaur beherapen”).

behi (*bei*) ‘abelgorri eme heldua, bere esne eta haragiagatik hazten dena’

behi susara (bei susera) ‘itzultzen den behia, arreske dagoena’

behin edo behin ‘noizbehinka’

behin edo bertze (*beñobertze*) ‘noizbehinka’

behinik behin (*beñipein, benpin*) ‘segurik’

behitegi (*beitei*) *beiteien badire bortz aratxe* (“behitegian badira bortz aratxe”); *Amezti gañean beitei ederra dugu* (“Amezti gainean behitegi ederra dugu”); *gure etreko beiteie ere aski ederra da* (“gure

- etxeko behitegia ere aski ederra da”).
- behoka** (*beoka*) ‘behor gaztea’: *beoka ederra dugu, beoka eztugu salduko*.
- behor** (*beor, begor*) ‘zaldiaren eme heldua’ (behorra, ‘bero’ dagoelarik ‘iel’ dago, arreske dago)
- behorki** (*beorki*) 1 ‘behorren jakia.’
2 ‘behorren motakoa’
- bei* ik. **behi**
- beipuru** (pl.) (Izeta) ‘bepuruak; begiziloak’: *a ze beipuruek dauzkun!* (“a zer beipuruak dauzkun!”).
- bei susera* ik. **behi susara**
- beitei* ik. **behitegi**
- beiti* ik. **beheiti**
- beitiko* ik. **behetiko**
- beitisko* ik. **beheitisko**
- beititu* ik. **beheititu**
- beitixagotto* ik. **beheitixagotto**
- bekainilun** ‘bekosko iluna duenari esaten zaiona’: *gizon bekainilun ta susie. Bekainilune* (“gizon bekainilun eta itsusia. Bekainiluna”).
- bekaitz** ‘bekaiztia, pertsona gaiztoa, beti txarkeriak egiten ari dena’: *au gizon bekaitze, gaixtoa da* (“hau gizon bekaitza, gaiztoa da”).
- bekaizkeria** ‘bertze baten kontrako ikusezina’: *bekaizkerie, au dugu gure artean daukegun gaitze* (“bekaizkeria, hau dugu gure artean daukegun gaitza”).
- bekets** (Izeta) ‘bekaiztia’: *zein beketsa zaren! Au jende beketsa!* (“zein beketsa zaren! Hau jende beketsa!”).
- bekoitz* ik. **berekoitz**
- belai** ‘belardia, soroa’: *belai onak Baztan alde unten* (“belai onak Baztan alde honetan”); *beitiko belaiia dugu oberena* (“beheitiko belaiia dugu hoberena”).
- belaitu** ‘lur eremu bat belai bihurtu’
- belar-kuku** ‘sabaitik behitegira belarra botatzeko ziloa, belar ziloa’: *belar-kuku ona dugu, in berrie* (“belar-kuku ona dugu, egin berria”).
- belarri** (*bearri, begarri*) iz. *begarriko minekin nago* (“belarriko minarekin nago”); *begarrien xiloa* (“belarrien xuloa”); *begarri zikin* (“belarri zikin”).
- belartegi** (*belartei*) *belarteie bete-belarteia dugu aurtan*.
- belartei* ik. **belartegi**
- belar zilo** ‘belarra sabaitik behitegira botatzeko ziloa, bazkategoria’
- belaunkosko** ‘belaun-kozkorra; belauburua; belaun-katilua’: *anbateko kaska belaunkoskoan* (“hainbateko kaska belaun-kozkorrean”); *belaunkoskoan min aundie artu nuen* (“belaun-kozkorrean min handia hartu nuen”).

beldur ‘arriskuak sortzen duen urduritasunezko egoera’: *elur-melur, ez nauk ire beldur, bayet etxian arto ta egur* (“elur-melur, ez nauk hire beldur, badiat etxean arto eta egur”, zenbait aldaera duen erranahirua).

beldurrak beldurrek nago zer gertatuko ote den

beldur izan 1. *beldur dire ez ote den torko* (“beldur dira ez ote den etorriko”) 2. (erramoldea) *banuen beldurre, bai, olako zerbait inen zuen* (“banuen beldurra bai, holako zerbait eginen zuen” = “pentsatzen nuen, bai...; ez naiz harritzen...”).

beltzkara ‘beltz airea duena’: *auto beltzkara erosi du*.

benpin ik. **behinik behin**

benta iz. ‘herritik kanpo dagoen denda edo ostatua’

beñipein ik. **behinik behin**

beñobertze ik. **behin** edo **bertze**

beoka ik. **behoka**

beor ik. **behor**

beorki ik. **behorki**

bera 1 erak. ‘lehen nolabait aipatu den izenaz ari garela adierazteko erabiltzen den erakuslea’: *gauza bera da*. 2 ‘leku-denborazko kasuak: *berean* ‘bertan’, *bereko* ‘bertako’, *beretik* ‘bertatik’, *berrera* ‘bertara’... Dagokion izen sin-tagmaren ondo-ondotik, eta hark hartzen duen deklinabide atzizki bera hartuz, indargarri edo zehazgarri gisa. Beti behar

du aitzineko aldean izena, erakuslea, aditzondoa...’: *arat bere-rat* (“harat bererat”); *andik beretik* (“handik beretik”); *au bera* (“hau bera”). 3 ‘izenordain gisa’: *berak ikusiko du*.

beragune ik. **beheragune**

beranduraino (*berandureño*) ‘berandura arte’; *berandureño egon da gaztain biltzen* (“beranduraino egon da gaztain biltzen”).

berandureño ik. **beranduraino**

berankor izond. ‘berandu ibiltzen dena’

berant 1 adlag. ‘berandu’: *zu beti berant*. *Berant torri zate* (“berant etorri zarete”). 2 izond. ‘berankorra’: *aza berantak landatu tugu* (“aza berantak landatu ditugu”); *beranta beti berant*.

berantetsi ‘luzetsi’: *non egon zara? Berantetsiek ginen* (“berantetsiak ginen”).

beranxko adond. ‘nahiko berandu’

berapen ik. **beherapen**

beratz (eta *berax*) 1 ‘biguna’: *zein beratza zaren! Yende beratza irietan* (“jende beratza hirietan”). 2 ‘bihozbera’: *gure amatxi izigerri berax dugu, ona da* (“gure amatxi izugarri beratz dugu, ona da”).

berax ik. **beratz**

berazun (Izeta) ‘lurra ereiteko motel eta bustiegi dagoenean’: *berazune gorra duk au! Lurre logi* (“be-

razune gogorra duk hau! Lurra lohi”).

berdate ‘zomorroen kontra egiteko landareei ematen zaien ur berdea’: *tomate-landare oiei berdatia man* (“tomate-landare horiei berdatea eman”).

berdatu ‘belaiak eta soroak berde paratu’: *uri unekin kanpoa berdatu de* (“euri honekin kanpoa berdatu da”).

berdeketan ‘berriki moztutako lar bila’: *berdeketan gana da* (= ‘berde bila joana da’).

berdetan ‘belarra moztu berrian’: *belarra berdetan karko dugu* (“belarra berdetan ekarriko dugu” = ‘idortu ondoren bildu beharrea, berde dagoelarik’).

berdin ‘dena dela, zernahi gisaz’: *eztaikit zertako kezkatu. Berdin, ezta torko* (“ez dakit zertako kezkatu. Berdin, ez da etorriko” = ‘ez dakit zergatik kezkatu. Dena dela, ez da etorriko’).

berdinga (*berdinge*) (Izeta) ‘zigortzeko aproposa den makila mehea’: *berdingekin ubeldu artio yo du. Berdingek min maten du* (“berdingarekin ubeldu artio jo du. Berdingak min ematen du”).

berdinge ik. **berdinga**

berdura (*berdure*) ‘barazkia’

berdure ik. **berdura**

bere [erranahiruak] *urruneko eltzea urrez, bere artara gan ta lurrez. Urruneko berriek urrez, bere hartara gan ta lurrez.*

bere gisa (*bere gise*) ‘bere aldetik’ *bere gise torri da.*

bere hartan 1 (*bereartan*) ‘han berean’: *bereartan dago osaba zenain etxea* (“bere hartan dago osaba zenaren etxea”); *bereartan sortu, bizi ta il* (“bere hartan sortu, bizi eta hil”). 2 ‘dagoen moduan’: *lurrian kusi zuten, odola dariola, baina bereartan utzi zuten, ukitu gabe* (“lurrean ikusi zuten, odola dariola, baina bere hartan utzi zuten, ukitu gabe”); *utzi bereartan, dagoen bezala* (“utzi bere hartan, dagoen bezala”).

bere honetan (*bereunten, beriunten*) ‘hementxe berean’: *au bereunten ine* (“hau bere honetan egina”); *bereunten sortue* (“bere honetan sortua”); *bereunten bizi* (“bere honetan bizi”).

bere horretan (*bereortan*) 1 ‘hor berean’: *gure borda bereortan dago* (“gure borda bere horretan dago”); *bereortan lau bago eder* (“bere horretan lau bago eder”). 2 ‘dagoen moduan’

berebirjine ik. **birabarkin**

beregain adond. eta pred. ‘bereiz; bere kontura, inoren mende egon gabe’: *beregain yarrie da aspaldiskotik* (“beregain jarria da aspaldiskotik”).

berehala (eta *beala, biala*) *biala torko naiz* (“berekala etorriko naiz”).

bereiz (*berex*) adond. *landa berex da-go erritik*.

bereizi (*berexi*) 1 *da/du* ad. *neonek berexiko tut* (“neronek bereiziko ditut”). 2 izond. ‘banatu’: *aspaldi berexiek dire Fernando eta Amaia* (“aspaldi bereiziak dira Fernando eta Amaia” = ‘banatuak’).

bereizkuntza (*berexkuntze*) ‘bereizke-ta’: *zertako olako berexkuntzek*. *Berexkuntzik ez* (“zertarako horrelako bereizkuntzak. Bereizkuntzarik ez”).

berekoitz (*bekoitz*) ‘berekoia’: *bekoitze gure auzoko gizon oi*. *Bekoitze ta gaixtoa* (“berekoitza gure auzoko gizon hori. Berekoitza eta gaiztoa”).

berendatu ik. *merendatu*

bereortan ik. *bere horretan*

bereunten ik. *bere honetan*

bereustezko ‘harroa’: *neska gazte oi arront bereustezkoa da* (“neska gazte hori arrunt bereustezkoa da”).

berex ik. **bereiz**

berexi ik. **bereizi**

berexkuntze ik. **bereizkuntza**

berga ik. **garba**

bergari ik. **garbari**

beriortan ik. *bere horretan*

beriunten ik. *bere honetan*

bernalzain ‘belaunaren gibelego aldean dauden bi zainetako bakoitza’: *bernalzañe moztu ta*

maingu gelditu zen (“bernalzaina moztu eta maingu gelditu zen”).

bernazaki (Izeta) ‘gizakiaren hankaren belaun azpiko zatiaren aitzi-naldea, zangomakila’: *bernazakien maiz artzeut kaska* (“bernazakian maiz hartzen dut kaska”); *bernazakie bi pusketan* (“bernazakia bi pusketan”).

bero iz. eta izond.

bero ari ‘bero egin (adizkia hirugarren pertsona singularrean)’: *bero ari da, ari du*.

bero izan ‘bero egin (adizkia hirugarren pertsona singularrean)’: *bero da gaur*.

beroki iz. ‘babesa; aterpea’: *eztul ederra bildu du, berokie biar du* (“eztul ederra bildu du, berokia behar du”).

berrakure (Izeta) ik. **berrekura**

berratu ik. **berretu**

berrazi ‘berriz ere hazi’: *etxian berrazi omen zuten*.

berrekura (*berrakure*) (Izetak bildua) ‘berrerortzea’: *berrakure aundie izen du*. *Berrakure txarra* (“berrekura handia izan du. Berrekura txarra”).

berretu (*berratu*) ‘ugaritu, gehitu, berritu’: *turriek berratu dire*. *Errekak ere berratu dire* (“iturriak berretu dira. Errekak ere berretu dira”); *trunkoai adarrak moztu eta berritzen da berriz ere*.

berriketari iz. 1 ‘berriemailea’. 2 ‘berriketan jarduten duena’

bertza ‘egosteko eta erabiltzen den ontzia; bereziki laratzean zintzilik egoten dena’: *bertza aundi batean egosiko dugu* (“bertza handi batean egosiko dugu”). *Auzako kaskoan bertza, bier denbora beltza* [erranahirua]

bertze ‘beste’
bertzekoan ‘hurrengoan’: *bertzekoan obeki inen du* (= “hurrengoan hobeki eginen du”)

bertze ergusine ik. **bertzengusina**

bertze lengusine ik. **bertzengusina**

bertze ergusu ik. **bertzengusu**

bertze lengusu ik. **bertzengusu**

bertze gisa (*bertze gise*) ‘bertzenaz’: *bertze gise ilun egoten da; ta bertze gise berriz gorapenian biar du* (“eta bertze gisa gorapenean behar du”).

bertse gise ik. **bertze gisa**

bertzenaz ‘bertzela; bestela’: *ongi ibili gero, bertzenaz kuskoi zu* (“ongi ibili gero, bertzenaz ikusiko duzu”).

bertzengusina (*bertze ergusine, bertze lengusine, bertzergusine*) ‘bigarren lehengusina’: *gure bertzergusine ezkondu de* (“gure bertzengusina ezkondu da”).

bertzergusine (Izeta) ik. **bertzergusina**

bertzengusu 1 (*bertze ergusu, bertze lengusu, bertzergusu*) ‘bigarren lehengusua’ (Almandoz) *bertzergusu oiek maite tut* (“bertzengusu

horiek maite ditut”); *bertzergusu onak dire* (“bertzengusu onak dira”). 2 ‘norbaitekin adiskidantza galtzen denean erraten dena’: *leen anai ta orai bertzergusu*.

bertzergusu ik. **bertzengusu**

bertzoin ‘labeko edo supazterreko errautsa biltzeko pala’: *gure etxeko bertzoñak kider luzea du. Bertzoñe aspaldikoa da* (“gure etxeko bertzoinak gider luzea du. Bertzoina aspaldikoa da”).

besagainka (*besainke*) *besainke bota nuen arrie* (“besagainka bota nuen harria”); *besainke oberena* (“besagainka hoberena”).

besainke ik. **besagainka**

besanga ‘zuhaitz handi baten adar handienetako bakoitza’: *besanga ederrak aritz orrenak* (“besanga ederrak haritz horrenak”).

besape ‘galtzarbea’: *ogie besapean karri zuten* (“ogia besapean ekarri zuten”).

besaru (Izeta) ‘araua; forua; eskubi-dea’: (Sunbilla) *aritz lerro au beren besaruakin, neriak dire* (“haritz lerro hau beren besaruarekin, nireak dira”); *arbolak beren besaruakin daude* (“arbolak beren besaruarekin daude”).

besazpiz ‘besazpiz, beso azpitik, pilota besoa goititu gabe eta azpitik goiti mugituz botatzea’: *pilotan besazpiz aitzen da* (“pilotan besazpiz aritzen da”); *besazpiz bota*.

beso

beso xorri ‘besapea’ (Elbete)

besta ‘festa; jaiia’: *besta ederra in dugu* (“besta ederra egin dugu”), *guk besta maite dugu*.

besta(k) egitea 1. ‘jaiak egitea’ 2. ‘ferekak egitea’: *aurrei beti in bear zaizkie bestak* (“haurrei beti egin behar zaizkie bestak”).

bestile ‘besta egilea; festazalea’: *gure mutikoa bestile porrokatue da* (“gure mutikoa besta egile porrokatua da”); *bestile ta alferra* (“besta egile eta alferra”).

bestondo ‘besta egin eta biharamuneko ez ongia; biharamuna’: *atzo mozkortu ginen ta gaur bestondo* (“atzo mozkortu ginen eta gaur bestondo”); *emen gabiltze bestondoa ezin porrokatuz* (“hemen gabiltza bestondoa ezin porrokatuz”).

bete-bete 1 ‘hartua’: *a ze katarrua bildu duen, bete-betia dago*. 2 ‘hunkitua’: *bete-betia gantzen etxetik familie despeditu ondoan*.

beti [erranahirua] *beti agertzen dire yaunein yaunek* (“beti agertzen dira jaunaren jaunak”).

betiko *olaxe utzi zituen gauzek, betiko* (“holaxe utzi zituen gauzak, betiko”).

betitik ‘betidanik’: *betitik daile oi ez ongixko* (“betitik dabil hori ez ongixko”).

bezainbat (*bezanbat, bezenbat*) ‘adina’: *semea aite bezainbat ofizioan* (“semea aita bezainbat ofizioan”);

orrek bezenbat baut nik (“horrek bezainbat badut nik”).

bezala 1 ‘berdintasunezko erkaketa adierazten duen juntagailu hitza’. 2 ‘bezain laster’: *ailegatu bezala eskapatu ziren* (= ‘ailegatu bezain laster..’); *erriko azken etxia utzi bezala artu ezkerreko bidia* (“herriko azken etxea utzi bezala hartu ezkerreko bidea”).

bezanbat ik. **bezainbat**

bezenbat ik. **bezainbat**

bezpera (*mezpera*) iz. 1 ‘aipatzen den egunaren aitzineko eguna’. 2 (pl.) ‘seigarren otoitz ordua, ilunabarrean erraten dena’

beztu (*izan, ibili...*) ‘jantzita, beztitua’: *beltzez beztu ginen; zuriz beztie*.

beztitu ‘jantzi’: *zuriz beztituko da*.

biala ik. **berehala**

biarko ik. **beharko**

biarrik ik. **beharrik**

bibiro ‘bikia’: *gure arrebak batu bibiroak. Bibiruek lan ederra maten diote* (“gure arrebak baditu bibiroak. Bibiroek lan ederra ematen diote”).

bida (*bide*) ‘bi, biga’: *ez bat ta ez bide* (“ez bat eta ez bida”); *bide dire bai* (“bida dira bai”).

bidaka (*bideka*)

bidazka (*bidezka*)

bidanazka (*bidanazka*) ‘bina-ka’: *torri bidanazka, ez bakar-ka* (“etorri bidanazka, ez bakarka”).

bidana (*bidena*) ‘bina’: *bidena bertso kantatukote. Bidena ta ez irune* (“bidana bertso kantatuko dute. Bidana eta ez hiruna”).

bitan (*biten*) ‘errazago’: (*Aniz lan au segakin biten inen dugu* (“lan hau segarekin bitan eginen dugu”).

bide ik. **bid**a

bidena ik. **bidana**

bidegabekeri ik. **bidegabekeria**

bidegabekeria (*bidegabekeri*) ‘bidezkoa ez den ekintza’: *au bidegabekeri bet da. Bidegabekerie ta aundie gañera* (“hau bidegabekeria bat da. Bidegabekeria eta handia gainera”).

bideka 1 ‘(mendiko) bide mehar eta estua, bidexka’: *mendien goiti gan ginen, zearka-zearka, bideka batetik* (“mendian goiti joan ginen, zeharka-zeharka, bideka batetik”).

bideka 2 ik. **bidaka**

bidekari ‘ibilaldi bat erraz egiten duena; bidaztia’: *zu bidekari ona zara.*

bide xenda ‘bidexka; bide-zidorra’: *bide-xenda ortaik gan zaizte* (“bide-xenda horretatik joan zaitezte”); *bide-xenda ortaik gain gara* (“bide-xenda horretatik joan gara”).

bidexka ‘bide-xenda; bide-zidorra’: *biderka ona da.*

bidezka ik. **bidazka**

bidon iz. ‘bidoia’: *bidona* (“bidoia”).

bietaik batian ik. **bietatik batean**

bietatik batean (*bietaik batian*) ‘bien arteko aukeran’: *bietaik batian au naiago nikek* (“bietatik batean hau nahiago nikek”).

biga (*mige*) ‘umerik izan gabeko behi gaztea’

bihotzerre (*bioztarra*) *azken aldi un-ten badut bioztarra.*

bihotz-ximiko (*biotz-ximiko*) ‘barne-kezka’: *biotz-ximiko orrek ez-tio bakean uzten* (“bihotz-ximiko horrek ez dio bakean uzten”).

bihurdura (*biurdure*) ‘bihurritzea’: *erori ta anbateko biurdure in nuen zangoan* (“erori eta hainbateko biurdura egin nuen zangoan”).

bihurri (*biurri*) ‘gaiztotasunera makurtua’: *au mutiko biurrie! Mutiko biurri oi torri de* (“hau mutiko bihurria! Mutiko bihurri hori etorri da”).

bilari ‘zerbaiten bila ibiltzen dena’: *onddo bilerie da berez, aunitz gus-tetzen zaio onddo bilen ibiltzia.*

bildu da-du ad. 1 *du* ad. ‘sakabana-turik daudenak hurbildu edo multzotu’: *artoak bildu tuzte* (“artoak bildu dituzte”); *belarra uden biltzen da* (“belarra udan biltzen da”). • ‘(biltze tokia adierazten dela) zerbait norabait (edo nonbait) bildu’: *etxerat biltzen dire denak olako bestetan* (“etxerat biltzen dira denak holako bestetan”). • ‘pilatu’: *boto*

guti bildu dute (“boto gutxi bildu dute”). • ‘(Norbaitek) bertze norbaiten gogo bereganatu’: *emaztiak etzuen saldu nai, baña gizonak bildu du* (“emazteak ez zuen saldu nahi, baina gizonak bildu du”); *enauzu bilduko* (“ez nauzu bilduko”). • ‘eskuratu’: *orai eskolatzen dire ogei urte artio ta gero ofizio bat biltzen dute* (“orain eskolatzen dira hogeitau urte arte eta gero ofizio bat biltzen dute”). • ‘(kalteren bat) hartu’: *kolpeak bildu. 2 da ad.* ‘hainbat lagun, zerbaitez hitz egiteko, zerbait ospatzeko... toki jakin batera joan’: *eguerrietan biltzen gara* (“eguberrietan biltzen gara”). *3 du ad.* ‘zerbait estali, paperez, ehunen batez... inguratuz’. *4 ‘tolestu, tolestuz batu’: egalak bildu* (“hegalak bildu”).

bilgure ik. *bilkura*

biligarro ‘birigarroa’ (*Turdus philomelos*): *gaur kusi tugu ainbertze biligarro* (“gaur ikusi ditugu hainbertze biligarro”); *biligarroarena* mutil dantza baten izena da Baztanen.

bilkor ‘urin gatz gabea’: *maiozu bilkorra pilotai* (“emaiozu bilkorra pilotari”).

bilkorreztatu ‘bilkorreakin gantzutu’: *bilkorreztatu ongi zapata aundi oiek. Pilota ere bilkorreztatu ongi* (“bilkorreztatu ongi zapata handi horiek. Pilota ere bilkorreztatu ongi”).

bilkura (*bilkure, bilgure*) ‘bilera’: *gaur badugu bilgure. Bilkure ortara gan* (“gaur badugu bilkura. Bilkura horretara joan”).

bilkure ik. *bilkura*

bilur ‘begizta-moduko lokarria, ogibala lotzeko erabiltzen dena’: *karrak bilurre ogi-bala lotzeko* (“ekarrak bilurra, ogi-bala lotzeko”).

biluxgorrien ik. *biluzgorrian*

biluzgorrian (*biluxgorrien*) ‘biluzik’: *biluxgorrien utzi zuten* (“biluzgorrian utzi zuten”). Sin. **biluxik**

biotz-ximiko ik. *bihotz-ximiko*

bioztarra ik. *bihotzerre*

birabarkin (*berebirjine, biribirjine, biriberkine, biribirikine, biribirjiñe*) ‘birabarkaria, zurgintzako tresna, ziloak egiteko ibiltzen dena’: (Baztangoiza) *berebirjinekin ederki iten dire ziloak* (“birabarkinarekin ederki egiten dira ziloak”); (Basaburua) *biribirjiñe ona da* (“birabarkina ona da”).

biremunian ik. *biharamonean*

biriberkine ik. *birabarkin*

biribirjine ik. *birabarkin*

biribirjiñe (Basaburua) ik. **birabarkin**

biribirikine ik. *birabarkin*

birika (*birike*) 1 ‘zerriaren birikarekin egindako hertzekia’: *aurten birike onak tugu, yateko goxoak* (“aurten birika onak ditugu, jateko goxoak”). 2 ‘patxadaz egiteko

- joera adierazten duen esamoldea': *horren birikek!*
- birike* ik. *birika*
- bista** (*biste*) 1 'ikuspegia': *biste ederra da emendik* ("bista ederra da hemendik") 2 'ikusmena': *biste ederra du orrek*. 3 'zerri-hiltze egunean argiastean zerri hiltzailerekin egiten zen lehenbiziko otordua, otamena'
- biste* ik. *bista*
- bitan** (*biten*) 'bi aldiz'
- biten* ik. *bitan*
- bitxi** izond. 'ohikoa ez dena, ohiko gauzetatik at dagoena'
- biurdure* ik. *bihurdura*
- biurri* ik. *bihurri*
- bixkortu* (Izeta) ik. **bizkortu**
- bizi-bizi** 1 izond. *bizi-bizie da* ("bizi-bizia da"). 2 adond. 'bizitasunez, lastertasunez': *eldu da bizi-bizia* ("heldu da bizi-bizia").
- bizika** (Gorosurreta) 'zaldarra; handitsu txikia'
- bizikara** 'arina, motela ez dena': *bizikara torko da* ("bizikara etorriko da") (baina ez **lasterkara torriko da*); *ziztorra bizikara da* ("ziztorra bizikara da").
- bizitore** 'bizitza maite duena eta hartaz aprobetxatzen dena': *gurre errien badugu yende bizitorea* ("gure herrian badugu jende bizitorea"); *lanera lotzen dena, bizitorea* ("lanera lotzen dena, bizitorea").
- bizkar besta** (*bizker besta*) 'etxeari teilatua ematen zaionean egiten dena ospakizuna': *bier dugu bizker-besta*. *Bizker-besta ederra* ("bihar dugu bizkar-besta. Bizkar-besta ederra").
- bizkar-hordi** (*bizker-ordi*) 'abereei jartzen zaizkien saskitxoak': *bizker-ordiekin ongarri garraien* ("bizkar-hordiarekin ongarri garraioan"); *bizker-ordiekin lanean* ("bizkar-hordiarekin lanean"); *bizker-ordie* ("bizkar-ordia"). M. Izetak *bizker-ordi* ematen du. Guk, *bizker gorri* bildu dugu Arizkunen, *bizkerordi* Elbeten. Zaila da jakitea zer den hori. Iparraldeko hiztegi batzuetan 'hordi' ageri da, neurria (upel batean sartzten dena, hektolitroa...). Zare berezi batzuk ziren, behorri jartzen zitzaizkionak, eta azpitik bazuten halako atetxo bat, hura ireki eta zarean zegoen guzia azpiko aldera botatzeko pentsatua. 'Gorri', beharbada, analogiaz sortu da, jatorrizko 'h' hori 'g' bihurturik. Horregatik aukeratu dugu 'hordi').
- bizkarrezur** (*bizkerrezur*) iz. *zaldi gañetik erori ta bizkerrezurre autsi* ("zaldi gainetik erori eta bizkarrezurra hautsi").
- bizkar teila** (*bizker-teila, bizker-tella*) 'teilatuan, bizkarrean jartzen den teila': *bizker-tella oiek ustelak atra zaizku* ("bizkar teila horiek ustelak atera zaizkigu").
- bizker besta* ik. **bizkar besta**

bizker ordi ik. *bizkar hordi*

bizkerrezur ik. *bizkarrezur*

bizker-teila ik. *bizkar-teila*

bizker-tella ik. *bizkar teila*

bizkitartean (*bizkitertian*, *biztertian*)

‘bitartean’: *bizkitertian ardo xorta bat edan dezagun. Biztertian emen egoin gara* (“bizkitartean ardo xorta bat edan dezagun. Bizkitartean hemen egonen gara”).

bizkitertian ik. **bizkitartean**

bizkor 1 ‘bizitasun handikoa.’ 2

‘handia’: *kamion bizkorra erosi omen dute.* 3 ‘(erran batzuetan) aunitz’: *jende bizkorra bildu zen* (“aunitz jende bildu zen”); *aitu dugunez, egun aldi bizkorra in dute an.* 4 (erran batzuetan ibilia): *segi bixkor!* (= ‘ongi segi’).

bizkorki ‘aunitz, ugari’: *ai zaio biz-*

korki zangoa aunpetzen (“ari zaio bizkorki zangoa hanpatzen”); *yendea bizkorki torri zen azkenian* (“jendea bizkorki etorri zen azkenean” = “asko etorri zen”).

bizkortu (*bixkortu*, *pixkortu*, *mix-*

kortu) (Izetak bildua) ‘banabar aleak erauzi, bereizi, aletu’: *ai gara banabar bixkortzen* (“ari gara banabar bizkortzen”).

biztertian ik. **bizkitartean**

bolada (eta *bolai*) ‘denboraldia, ga-

raia’: *bolai unten erixko nabile* (“bolada honetan erixko nabil”).

boladaka (*bolaike*) *bolai unten erix-*
ko nabile. Bolaike olaxe (“bolada

honetan erixko nabil. Boladaka horrelaxe”).

bolai ik. **bolada**

bolaike ik. **boladaka**

bonet ‘txapela’ (beti ‘a’ itsatsia duela): *boneta berrie erosiut* (“bonet berria erosi dut”).

borda iz. 1 ‘mendian egin etxea,azienda sartzeko’: *antxe da gure borda, naibaize ibiltzen al duze* (“hantxe da gure borda, nahi baduzue ibiltzen ahal duzue”). 2 ‘(izen berezi baten ondoan ageri denean) baserria, normalean ez handia’: *Elizaintzineko borda, Ormarteko borda.*

bordari ‘bordatarra, bordan bizi dena’: *gaur bordari aunitz errien* (“gaur bordari aunitz herrian”)

bordariar ‘bordaria; bordatarra’: *bordariarrak ongi bizi dire* (“bordariarrak ongi bizi dira”). Sin. **bordari**

borobil ‘biribila’: *pilota borobile da. Zirrike ere borobile* (“pilota borobila da. Zirrika ere borobila”).

bortz ‘bost’: *bortz durotan saldut* (“bortz durotan saldu dut”); *bortz urte tu* (“bortz urte ditu”).

bortzegi ‘oinetako mota bat’

botika (*botike*) (Baztangoiza) ‘herrietan izaten zen denda-taberna motakoa, denetatik saltzen zena’

botike ik. **botika**

botikesa ‘dendaria’ (Amaiur)

bozik ‘pozik’ *Bozik torriek gara. Bai bozik.*

bozkario ‘poz handia’: *bozkarioz beteik torriek gara etxera. Gure bozkarioa aundie izen da* (“bozkarioz beterik etorriak gara etxera. Gure bozkarioa handia izen da”).

braban (eta *graban*) iz. ‘lurra itzultzeko tresna’

branga ‘arbola-adar handia’: *branga oi moztu bear dugu* (“branga hori moztu behar dugu”); *branga ederrak aritz orrenak* (“branga ederrak haritz horrenak”).

brebero ‘artzainen arteko solasa, bildotsak bata bertzearen ondotik, segidan, sortzen direnean erraten dutena’: *brebero ona dugu, erditzeak ongi doazi* (“brebero ona dugu, erditzeak ongi doaz”).

brintxa (*brintxe, brintza*) 1 ‘gauza berriaren dirdira’: *kate orri, berriain brintxe gan zaio* (“katea horri berriaren brintxa joan zaio”); *gauze berriek brintxe ederra* (“gauza berriek brintxa ederra”). 2 ‘(hedaduraz) esne gaina’ *nik gañeko brintxe nai dut*. (Bistan da hitz hau eta batasunerako proposatu den ‘brintza’ berdinak direla. Baina erranahia desberdina da: Baztanen ez da ez ‘egurraren zatitxoa’ ez ‘izpia’. *Orotariko Euskal Hiztegian* ageri diren erranahiak ere desberdinak dira. Horregatik sartu dugu ortografia diferentearekin).

brintxe ik. **brintxa**

brintza ik. **brintxa**

brozel ‘elkarri lotutako adar edo oholez eratutako kaiola, batez ere ongarrria garraiatzeko. Karroari kendu eta jarri egiten zaizkion zurezko aldeak, gauzak barnean sartzeko’: *brozelak patu orgai, ongarriketean ai bear dugu* (“brozelak paratu orgari, ongarriketean ari behar dugu”). [Erranahirua] *brozel bat bete solas ta titere baten fundamentuik ez*.

brusa (*bruse*) iz. ‘lehen erabiltzen zen alkandora beltza’

bruse ik. **brusa**

bueltaxka ‘itzulaldia’: *bueltaxka bat matera torri dire Ameriketatik* (“bueltaxka bat ematera etorri dira Ameriketatik”).

bufe ik. **befa**

bufeka ik. **befaka**

bulkaka (*bulkeka*) ‘bultzaka’

bulkatu (*bulketu*) ‘bultzatu’: *bulketu ta lurrera bota* (“bulkatu eta lurrera bota”); *bulke ortik ta bulke emendik* (“bulka hortik eta bulka hemendik”).

bulkeka ik. **bulkaka**

bulketu ik. **bulkatu**

bulunba (*bunbe, pulunpe*) ‘joare handia’: *pulunpe aundi oiek anbateko asotsa atratzeute. Pulunpe ederrak*. (“Bulunba handi horiek hainbateko asotsa ateratzen dute. Bulunba ederrak”).

bunbe ik. **bulunba**

burbrullo ik. **burbuila**

burbuila (*burbrullo*) (pl.) ‘curi-
erauntsi handi batean putzuetan
gertatzen dena’: *ara, putzu ortan
burbrulloak* (“hara, putzu horretan
burbuilak”).

burde-belar ‘belar mota’: *Auzeko
mendien bada burde-belarra*
 (“Auzako mendian bada burde-
belarra”).

burdin ik. **burdina**

burdina (*burdin*) *au burdine da*
 (“hau burdina da”); *burdinezko
zirrikek erdoiltzen dire* (“burdi-
nazko txirrikak erdoiltzen dira”);
(Basaburua) *burdiñe*.

burdineri ik. **burdin-hari**

burdin gesala ‘burdin lertzoa; su-
hautsa’: *burdin gesal orrekin erre
nuen eskue* (“burdin gesal horre-
kin erre nuen eskua”).

burdin-hari (*burdineri*) ‘burdinaz
egindako haria’: *azkona kontze-
ko bear zen burdinerie patu* (“az-
kona kontzeko behar zen bur-
din-haria paratu”)

burdin ziri ‘enborrak lehertzeko
ibiltzen den burdinazko pieza’:
*burdin zirie bear izeten dugu ge-
re lanetako* (“burdin ziria behar
izaten dugu geure lanetako”).

burkanda ‘zelaietako goiti-behei-
tiak, zilokak, berdindu gabeko
tokiak...’: *burkanda au berdindu
bear dugu* (“burkanda hau ber-
dindu behar dugu”).

burrumba (*burrunbe*) ‘asots handia’:
*burrunbe ederra sartu zinuten.
Anbateko burrunbe* (“burrumba

ederra sartu zenuten. Hainbate-
ko burrunba”); *liztorrak iten du
burrumba bat...* (“liztorrak egiten
du burrunba bat...”).

burrunbe ik. **burrumba**

burrunbean ‘asots handia eginez’

burrunbeka ‘asotsa eginez’

burruntzali (*burruntzeli*) ‘janaria
plateretan banatzeko ibiltzen
den goilare handia’

burruntzeli ik. **burruntzali**

burrusteka ik. **purrustaka**

burrusten ik. **purrustan**

buru-arrai (Izeta) ik. **buru-errai**

buruas ik. **buru has**

buru-errai (Izeta) (pl.) (*buru-arrai*)
‘animaliaren buru barnekoa’:
*gaur bildotsain buruarraiek ya-
teko* (“gaur bildotsaren buru-
erraiak jateko”).

buru has (*buruas*) ‘buru-hutsik, txa-
pelik gabe’:
buruas ibiltzeko otz dago (“buru has ibiltzeko hotz
dago”); *burusoil ta buruas oztu-
ko zara, etzaitela buruas ibili*
 (“burusoil eta buru has hoztuko
zara, ez zaitezela buru has ibili”).

buruil iz. ‘iraila’

buruite ik. **burute**

buruka (eta *buruke*) ‘buruxka: gari,
arto eta antzeko landareetan, ar-
datz antzeko batera biltzen diren
lore edo aleen multzoa’ *atra zen,
bada, eta biltzen zituen burukak
igitarien gibelean* (“atera zen,
bada, eta biltzen...”); *bildu tuzue*

- burukek?* (“bildu dituzue burukak?”).
- buruki** ‘burukoa’: (Oronoz) *ta gero, azkenekua, buruki ure, orratza ta ariekin yosi* (“eta gero, azkenekoa, buruki hura, orratza eta hariarekin josi”).
- bururatu** ‘akitu, burutu’: *besarkada bat emanik bururatu zen zere- monia* (Izeta, Baztango kontuak)
- burute** (*buruite, burutte*) ‘denbora batez andreek buruan paratzen zuten oihal bildua, ura ekartzeko edo ferretak eta bertze gauza batzuk buru gainean eramate-koa’: *gure amatxi zena buruittia- kin ibiltzen zen. Buruittia boro- bil-borobile zen* (“gure amatxi zena burutearekin ibiltzen zen. Burutea borobil-borobila zen”).
- burutik beheitiko** (*burutik beitiko*) ‘katarroarekin batera dagoen muki-jarioa’: *burutik beitikoakin nabile* (“burutik beheitikoarekin nabil”); *burutik beitikoa arras txarra da* (“burutik beheitikoa arras txarra da”).
- burutik beitiko* ik. **burutik beheitiko**
- burutik gana* ik. **burutik joana**
- burutik joana** (*burutik gana*) ‘buru- tik joana, ongi ez dagoena’: *au burutik gana dago* (“hau burutik joana dago”); *gure osaba zaarra burutik gana da* (“gure osaba za- harra burutik joana da”).
- burutte* ik. **burute**
- burutu** 1 ‘lan bat akitu edo bukatu, egin’: *lan bat burutu*. 2 ‘dago-
- kion azkenera ailegatu’: *artoak burutu dire* (“artoak burutu di- ra”); [Erranahirua] *ogiek erran ome zuen: ttipie banaiz edo aun- die banaiz, maietzian burutuko naiz* (“ogiak erran omen zuen: ttipia banaiz edo handia banaiz, maiatzean burutuko naiz”). 3 ‘gauzatu’: *mutiko orrekin ezin burutuz gailtze* (“mutiko horre- kin ezin burutuz gabiltza”).
- ...**buruz** ‘zerbaiti buruz’: *gazteriai buruz mintzetu dire* (“gazteriar- i buruz mintzatu dira”); *orren bu- ruz mintzetu ziren* (“horren bu- ruz mintzatu ziren”).
- buruzare** ‘saski handia’: *ekarriut bu- ruzare bat arbi* (“ekarri dut buru- zare bat arbi”); *buruzarea bizker- ka ibiltzeko* (“buruzarea bizkarka ibiltzeko”).
- buruz beheiti** (*buruz beiti*) ‘buruz behera’: *buruz beiti erori zen* (“buruz beheiti erori zen”).
- buruz beiti* ik. **buruz beheiti**
- buxon** (Izeta) ‘botilaren kortxoa’: *botil unen buxona non dago? Buxona galdu dugu* (“botila ho- nen buxona non dago? Buxona galdu dugu”).
- buztan** (*puzten*) 1 ‘isatsa, bereziki lau oinetako animaliena’: *oi-oi, ze puzten luzia duen zakur orrek!* (“oi-oi, zer buztan luzea duen zakur horrek!”); *ik nai duk bertzen puztenakin uliek kendu* (“hik nahi duk bertzeren buztan- arekin euliak kendu”); *bertzen puztenakin uliek kendu nai tue-*

nak, beti uliekin (“bertzeren buz-
tanarekin euliak kendu nahi di-
tuenak, beti euliekin”). 2 ‘bazte-
rra, zatia’: *eztu belai puzten bat*

ere ibiltzen, alfer utse da! (“ez du
belai buztan bat ere ibiltzen, al-
fer hutsa da!”).

D

dagoeneko (*daoneko, dagoneko, dauneko*) *daoneko torrie da* (“dagoeneko etorria da”). (Segurua denean bakarrik ibiltzen da: adibide horretan badakigu etorri dela. Bertzenaz, gauza segurua ez denean, *gargerero* (*gaurgero* = “honezkero”) da ibiltzen dena: *gargerero torrie izein da*, hau da, segur aski ere etorria dela adierazteko).

dagoneko ik. **dagoeneko**

daldara ik. **dardara**

daldaraka ik. **dardaraka**

damoñe etrekoandre ik. **danbolin etrekoandre**

damoñe lagun ik. **danbolin lagun**

damoñe nausi ik. **danbolin nagusi**

danbolin hitz hau ez da ibiltzen Baztanen, baina bai bertze batzuk,

ituraz hitz hau hartzen dutenak oinarri: **danbolin nagusi**, **danbolin lagun** eta **danbolin etrekoandre**, Baztanen *damoñe nausi*, *damoñe lagun* eta *damoñe etrekoandre* bezala ahoskatuak. Zenbat eta Gipuzkoalderago jo, orduan eta errazago ageri da *danbolin*, *damolin*, *damoli...* Zaila da, gure ustez, ‘danbolin’ hitzetik ‘damoñe’ hitzera pasatzea (errazago izanen litzateke ‘dominus’ edo holako zerbait hartzea abiapuntu), baina egia da antzeko eginkizunak dituztenei ‘danbolin’ erraten zaiela Bidasoako errekan eta Gipuzkoako zenbait tokitan. Bertze aldetik, ‘Damoñeneko Borda’ erraten zitzaion Maurizio Elizalde txistulari ezaguna bizi den etxeari, eta izen hori hartu zuen haren aita hara

bizitzera joan zenetik: geroztik, txistularia bizi zen garaian, izen hori, eta lehendik zuena, ‘Martintoneko Borda’, biak ibiltzen zituen jendeak eta, orain, Maurizio hilik, berriz ere hartu du lehenagoko izena. Herriko txistulariari *damoñe* erraten zitzaion. Izetak ere **danbolin nagusi** eta **danbolin etxeakoandre** paratu ditu hiztegian. Hortaz, bateko eta bertzeko arrazoiak kontuan izanik, guk ontzat eman dugu *damoñe*-ren oinarrian ‘danbolin’ dagoela. Herriko bestetan izendatzen ziren bi *damoñe nausi*, besten ardura hartzen zutenak, eta musikaren kargu hartzen zutenak. Hauek bi *damoñe lagun* aukeratzen zituzten, eta bi *damoñe etxeakoandre*. Azkenik, etxeakoandreek ere bertze bi *damoñe etxeakoandre lagun* hautatzen zituzten. *Damoñe nausiak* jartzen ziren mutil dantzetan eta soka-dantzan lehenbizikoa eta azkena, eta haien ondoan, barneko aldetik betiere, bi *damoñe nausi lagunak*.

danbolin etxeakoandre (*damoñe etxeakoandre*) ‘herrietako bestetan egon ohi den danbolin nagusiaren laguna’: *gure neskatikoa aurten danbolin etxeakoandre* (ik. **danbolin** sarreran dauden azalpenak).

danbolin lagun (*damoñe lagun*) ‘danbolin nagusiak aukeratzen duen laguna. Mutil dantzetan azkena jartzen dena’ (ik. **danbolin** sarreran dauden azalpenak).

danbolin nagusi (*danbolin nausi, damoñe nausi*) ‘herrietako bestetan egon ohi den danbolin etxeakoandrearen laguna’: *gure mutikoa aurten danbolin-nausi* (“gure mutikoa aurten danbolin nagusi”) (ik. **danbolin** sarreran dauden azalpenak).

danbolin nausi ik. **danbolin nagusi**

danbore ‘danborra’: *danbore berrie aitetxok karrie* (“danbore berria aitatxok ekarria”).

danda ‘ezkilaren asotsa’: *ezkildorreko erlejuek danda bat yo du* (“ezkiladorreko erlojuak danda bat jo du”).

dandaka ‘dandak jotzen’: *orai dandaka ai de* (“orain dandaka ari da”).

danga-danga ‘modu berezi batean, zurrut handiak eginez, edateko modua’: *etzazule danga-danga edan* (“ez ezazula danga-danga edan”).

danpa ‘guztiz, arras’: *danpa lo gelditu zaigu bazkal ondoan*.

dantal ‘gorputzaren aitzineko mantala, arruntean andreek beztitzen dutena’: *gure neskatikoa dantal berrieikin* (“gure neskatikoa dantal berriarekin”); *dantala zikindu du* (“mantala zikindu du”).

daoneko ik. **dagoeneko**

daratulu (*taratilu, taratelu*) ‘zurean ziloak egiteko tresna’: *taratilu orrekin ziletu dugu maie*. (“Daratulu horrekin zilatu dugu maia”).

dardara (eta *daldara*) *anbateko daldara sartu zitzeiten* (“hainbateko dardara sartu zitzaidan”); *argie piztean anbateko dardara artu nuen* (“argia piztean hainbateko dardara hartu nuen”).

dardaraka (eta *daldaraka*) *otzak daldaraka nago. Denak daldaraka* (“hotzak dardaraka nago. Denak dardaraka”); *gure zakurre ekaiztie badelaik dardadaka plantatzen da* (“gure zakurra ekaitza badelarik daldaraka plantatzen da”).

dauneko ik. **dagoeneko**

deabru (eta *debru*) 1 *debruek artuik gan da lasterka* (“deabruak harturik joan da lasterka”). 2 *debru madariketue!* (“deabru madarikatua!” = ‘arraio madarikatua!’).

deabrukeria (*debrukerie*) ‘gaiztake-ria’: *beti debrukeri ta alukerietan* (“beti deabrukeria eta alukerietan”).

debalde ‘deus ere ordaindu gabe’

debru ik. **deabru**

debrukaka (Izeta) ‘bizarra kentzeko labana zorrozteko uhala (guk aizkorak eta gainerakoak zorrozteko ere ibiltzen dela ikusi dugu)’: *debrukaka*. Sin. **debrukogotz**

debrukerie ik. **deabrukeria**

debrukogotz (Izeta) ‘bizarra kentzeko labana zorrozteko uhala’: *debrukogotza*. Sin. **debrukaka**

defota ‘hiru urteko ardia’: *defota iru urteko ardiei deitzen zaio* (“defota hiru urteko ardiari deitzen zaio”).

deitzi ik. **jetzi**

deiztei ik. **jetzitegi**

deizteko ik. **jezteko**

demonio 1 ‘deabrua’ 2 ‘(kontakizunetan-eta) arras, arrunt’: *tarrapataka sartzen omen da xuxen demonio bere lenagoko tokire* (“tarrapataka sartzen omen da zuzen demonio bere lehenagoko tokira”).

denbora iz. 1 ‘gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea’: *denborain buruen torrie* (“denboraren buruan etorria”); *denbora aisiago pasatzen dute elkarrekin direlaik* (“denbora aiseago pasatzen dute elkarrekin direlarik”). • ‘astia’: *denbora eskasa dute gaur* (“denbora eskasa dute gaur” = ‘asti falta’). • ‘garaia, sasoa’: *gure aur denboran* (“gure haur denboran”); *gerra denboran gana* (“gerla denboran joana”); *Ameriketarat gan zirenak denboran* (“Ameriketarat joan zirenak denboran”). 2 ‘eguraldia’: *denbora goxatu da orai. Arras denbora txarra zen emen* (“denbora goxatu da orain. Biziki denbora txarra zen hemen”).

denden (Izeta) ik. **tente**

dermio ‘eremua; lurraldea’: *Baztango dermioak aundiek dire* (“Baztango dermioak handiak dira”); *gure dermiotan bazkaleku onak* (“gure dermioetan bazkaleku onak”); *etxe orrek baitu dermio ederrak* (“etxe horrek baditu dermio ederrak”).

desegin (*desin*) ‘suntsitu, hondatu’:
1 *du ad. desin dugu etxea* (“des-
egin dugu etxea”). 2 izond.
‘suntsitua, desegina’: *etxia des-
ine da* (“etxea desegina da”).

desin ik. **desegin**

deskuido [erranahirua] *deskuidoa gu
baño zaarragoa da.*

deskartzel ‘sare batekin egindako
zorroa, poltsa, jatekoak eramate-
koa, eta gorputzaren bazter ba-
tera zintzilikaturik eramaten de-
na’: *yatekoak deskartzelan ere-
man tut* (“jatekoak deskartzelan
eraman ditut”).

destenore ‘ez-ordua’: *zu beti desteno-
rean etxera. Destenoretan, etzai-
tela torri* (“destenoretan, ez zait-
zela etorri”).

deus (*yaus, yeus*) ‘fitsik; ezer (ere)’:
oi deus ezta (“hori deus ez da”);
au yaus ezta (“hau deus ez da”);
*deus kusten balin baduzue, gazti-
getu biala* (“deus ikusten baldin
baduzue, gaztigatu berehala”).
[Erranahirua] *deus ezten tokien,
eskuek garbi.*

deus ere (*yaus ere, yeus ere*)
‘ezer ere; fitsik’: *enuen deuse-
re in* (“ez nuen deus ere
egin”); *ezta yausere kusten*
 (“ez da deus ere ikusten”).

deus ez (*yaus ez, yeus ez*) ‘ezer
ez; fitsik’: *oi deusez* (“hori
deus ez”); *oi yausez* (“hori
deus ez”)

deusik orrek eztaki deusik (“horrek
ez daki deusik”).

deuseza ‘ezerreza’: *au deuseza,
deusteko eztu balio* (“hau deuse-
za, deustako ez du balio”).

**diferentzia diferentziaikin, au de pi-
lotari oberena!** (“diferentziare-
kin, hau da pilotari hoberena”);
*baduzue diferentzia zerbait? Zer-
bait baduzue diferentzia?* (= ‘zer-
bait gertatzen zaizue?’).

dildirira (*dildire, duldure*) ‘dardaratxoa’:
anbateko dildire du aur orrek
 (“hainbateko dildirira du haur ho-
rrek”).

dildiraka (*dildireka*) ‘dardaraka’

dildire ik. **dildirira**

dildireka ik. **dildiraka**

dilindan (*dilinden*) ‘zintzilik’: *dilin-
den gelditu zen. Dilinden dago*
 (“dilindan gelditu zen. Dilindan
dago”).

dilinden ik. **dilindan**

dinda (*dinde*) ‘ezkila-hots txikia’:
aixtion dandak ta orai dindek.
Dinde (“arestion dindak eta
orain dindak. Dinda”).

dinde ik. **dinda**

dine ik. **adina**

dirdira (*dirdire*) ‘distira’: *nere zapa-
tek dirdire ederra daukete* (“nire
zapatek dirdira ederra daukate”);
gaur zure ileak baduela dirdire
 (“gaur zure ileak baduela dirdi-
ra”).

dirdirakatu (*dirdireketu*) ‘dirdiratu’:
atzo etzuen dirdireketu (“atzo ez
zuen dirdirakatu”).

dirdiranta (Izeta) ‘distiranta’: *gaur iruzki dirdiranta dugu. Iguzki dirdiranta* (“gaur eguzki dirdiranta dugu. Eguzki dirdiranta”).

dirdiratu (*dirdiretu*) *gaur iduzkiek dirdiretzen du* (“gaur eguzkiak dirdiratzten du”).

dirdire ik. **dirdira**

dirdireketu ik. **dirdiratu**

dirdiretu ik. **dirdiratu**

diru ‘sosa’: *amerikanorrek diru aunitz in du an* (“amerikano horrek diru aunitz egin du han”).

doi-doian (*doi-doi*) ‘ozta-ozta; juxtu-juxtu’: *doi-doi* *salbatu ginen* (“doi-doian salbatu ginen”); *doi-doi* *irauten dugu* (“doi-doian irauten dugu”).

doi-doi ik. **doi-doian**

doike (*doikebe, duike, duikebe*) 1 ‘segur aski’: *gaur eguerdien torko da doike?* (“gaur eguerdian etorriko da doike?” = ‘etorriko da segur aski?’); *doikebe torko dire* (“doike gabe etorriko dira” = ‘segur aski etorriko dira’); *ez baita doike iten aal* (“ez baita doike egiten ahal”); *orrek begien artu ninduen dikee, ta...* (=‘segur aski begien hartu ninduen doike...’). 2 ‘dudarik gabe; seguru’: *torriko zate? Bai duikebe.* (“etorriko zarete? Bai, doike” = ‘bai, duda gabe’).

doikebe ik. **doike**

doitu ‘zutik doi-doian dagoena, ongi ez dagoena’: *oi arras doitu dago, jodituxe. Bai doitu, doi-doi* (“hori arras doitu dago, izorratuxe. Bai doitu, doi-doian”).

dolu 1 ‘pena, heriotzak sortzen duena’: *dolu gogorra zuen.* 2 ‘dolua erakusteko ibiltzen den seinalea’: *urte osuan in tzuten dolue* (“urte osoan egin zuten dolua”).

Domine Saindu ‘Domu Santu, Omiasaindu, Santu Guztien Egunena’: *Domine Saindu egunean, ilerrien biltzen gara* (“Domine Saindu egunean, hilerrian biltzen gara”).

donado (Izeta) ‘ezkongai eta bereziki mutilzaharra’: *donado oiek ederki bizi dire. Donado aunitz Baztanen* (“donado horiek ederki bizi dira. Donado aunitz Baztanen”).

donbero ‘orga, karro edo gurdi motza’ (Izeta) (Guk bildu dugu ‘iraul-gurdia’ izendatzeko, Baztangoizean): *donberoakin inen dugu lan au. Donberoa ondatu zaiku* (“donberoarekin eginen dugu lan hau. Donberoa hondatu zaigu”). Argentinan ‘tombero’ deitzen zieten hara joandako euskaldunei, esnea partitzen ibiltzen zirenei.

drosel (Izeta) ‘ohatze batzuek gainean duten estalki-modukoa; erre-sela’: *goatze orrek drosel ederra*

du (“ohatze horrek drosel ederra du”).

duda! (*dude!*) ‘jakina!’

duda baietz! (*dude baietz!*) ‘jakina baietz!’

dude! ik. **duda!**

dude baietz! ik. **duda baietz!**

duike ik. **doike**

duikebe ik. **doike**

duldure ik. **dildira**

E

ebaindu (Izeta) ik. *hebaindu*

ebaki 1 'lanabes aho-zorrotz batekin egindako zauria'. 2 'pilotan egiten den jokaldia': *ze ebaki ederrak in zituen azkeneko partidetan!* ("zer ebaki ederrak egin zituen azkeneko partidetan!").

ebasgo (*ebasko*) 'lapurreta': *gaur ebaskoa in dute. Ebasko aundie* ("gaur ebasgoa egin dute. Ebasgo handia").

ebasko ik. *ebasgo*

ebastale 'lapurra': *ebastale oiek gazteak omen dire; ebastaleak erori dire, arpatu tuzte* ("ebastaleak erori dira, harrapatu dituzte").

ebatsarazi (*ebatsazi*) *ebatsazi zioten autoa bere aixkide bati* ("ebatsarazi zioten autoa bere adiskide bati").

ebatsazi ik. *ebatsarazi*

ebatsi 'lapurту': *ebatsi dakute. An ere ebatsiute* ("ebatsi digute. Han ere ebatsi dute").

edaka ik. **hedaka**

edaki (Izeta) 'aziendarendako janari urtsua': *man edaki auserki. Bei orri man edakie* ("eman edaki ausarki. Behi horri eman edakia").

edanarazi (*edanazi*) *edanazi kamamile bortxaz bedere* ("edanarazi kamamila bortxaz bederen").

edanari (Izeta) 'edatekoa, edan dai-tekeena': *ur au edanarie da. Badiere edanariek eztirenak ere.*

edanazi ik. *edanarazi*

ede ik. **hede**

edeki ik. **ireki**

eder [erranahirua] *abenduko gau ederrakin, osatuko naska galan-*

taikin ta bide bazterreko arbolai-kin, ez daiteke inoiz fietu.

edergailu (*edergallu*) ‘apaingarria’: *edergallu onak artu tut* (“edergailu onak hartu ditut”); *etxean batugu edergalluek* (“etxean badiugu edergailuak”).

edergallu ik. **edergailu**

edoi ik. **hodei**

edoi-asots ik. **hodei-asots**

egal ik. **hegal**

egaldaka ik. **hegaldaka**

egaldan ik. **hegaldan**

egaldatu ik. **hegaldatu**

egalpe ik. **hegalpe**

egarti (Izeta) ‘egarri dena’: *au gizon egartie, beti egarriz* (“hau gizon egartia, beti egarriz”); *egartie beti edaten* (“egartia beti edaten”).

egatz (Izeta) ik. **hegatz**

egatzagi 1 ik. **gatzagi**

egatzagi 2 ik. **gatzari**

egaztin ik. **hegazti**

egie ik. **heia**

egin 1 ‘sortu, moldatu, gauzatu, prestatu, bete, pasatu, igaro..: *mugiai! asto arrak inen dik umia i torri baño lenago* (“Mugi hadi! asto arrak eginen dik umea hi etorri baino lehenago”). 2 ‘egitea, egintza’

-ko **egin** ‘nongoa izan’ *etxe unek Arizkungo iten du* (“etxe honek Arizkungo egiten du”) = ‘Ariz-kungoa da, Arizkungo dermioan sartu behar da’; *borda oyek Arraiozko iten du-*

te (“borda horiek Arraiozko egiten dute” = ‘Arraiozkoak dira’).

eginahalka (*iñelka*) ‘egin ahalak eginenez’ *iñelka ai dire autua zilotik ezin atraz* (“eginahalka ari dira autoa zilotik ezin ateraz”).

eginahal (*iñelak*) (arruntean pl.) *ai dire iñelekin belarretan.*

eingarri (eta *ingerri*) ‘egiten ahal dena’: *lan au eingarrie da* (“lan hau eingarria da”); *ingerrie da* (“eingarria da”).

eginkara (eta *inkara*) (Azkue) ‘egiteko erraza dena’: *lan au eginkara dugu* (“lan hau eginkara dugu”); *inkara* (“eginkara”).

egitale (*itale, itele*) ‘egilea’

egitate (*itate, itete*) ‘egitea, agintza’

ego ik. **eho**

egoaize ik. **hego haize**

egortzileku (Izeta) ik. **ehortzileku**

egosarazi (*egosazi*) *egosazi ongi* (“egosarazi ongi”); *egosazi ta guri-guri* (“egosarazi eta guri-guri”).

egosazi ik. **egosarazi**

egoskor ‘aise egosten dena’: *banabar oiek egoskorrek dire, aise egosten* (“banabar horiek egoskorrek dira, aise egosten”).

egotu ik. **eho**

eguerdi ‘eguneko hamabiak’ (hori zen lehenago ‘eguerdi’. Ez da inoiz ere erran ‘eguerdion’)

egundaino (*egundeño*) 1 ‘inoiz ere ez, orain arte ez’ (ezezko esaldietan

- ibiltzen da): *egundeño eztugu olakoik kusi* (“egundaino ez dugu horrelakorik ikusi”); *enaiz egundeño izen* (“ez naiz egundaino izan”); *egundeño ez dut pentsatu olakoik gertatuko zela* (“egundaino ez dut pentsatu holakorik gertatuko zela”). 2 ‘noizbait’ (baiezeko esaldietan): *egundeño gaten bazate* (“egundaino joaten bazarate” = ‘noizbait’).
- egundainoko** (*egundeñoko*) ‘arraroa, bitxia’: *egundeñokoa duk!* (“egundainokoa duk!” = ‘zer arraroa den!’).
- egundeño* ik. **egundaino**
- egundeñoko* ik. **egundainoko**
- egundu* (Izeta) ik. **ehundu**
- egunki* (Izeta) ik. **ehunki**
- egunon** (pl.) ‘zorion’: *egunonak mamera torri zen* (= ‘zorionak mamera’).
- eguntzale* (Izeta) ik. **ehuntzale**
- egur arbol apalian aise iten da egurre* (“arbola apalean aise egiten da egurra”, erranahirua).
- egurgile** (*egurrile*) ‘egur egilea’: *gure osaba egurrile ona da* (“gure osaba egurgile ona da”).
- egurketa** 1 ‘egur bila’: *egurketara gan dire* (“egurketara joan dira”). 2 iz. ‘egurra bilatzea’. 3 iz. ‘egurpila’
- egurrile* ik. **egurgile**
- eguzki** (*iduzki, iruzki*) ‘lurra argitzen eta berotzen duen argizagia’: [Erranahiruak] *sakel batean urieta bertzean iduzkie; iduzkie goiti daielaik, ardo guti edan.*
- eho** (*ego, egotu*) 1 ‘irindu’: *artoa egotu* (“artoa eho”). 2 ‘jipoitu; birrindu’: *egotu zuten gizona* (“eho zuten gizona”).
- ehortzileku** (*egortzileku*) (Izeta) ‘ehortz-lekua; hilobia’: *gure errien egortzileku ederrak* (“gure herrian ehortz-leku ederrak”).
- ehorzale** (*eortzale*) (Izeta) ‘hobiratzaillea, lur-emailea’: *nere osaba erriko kanposantuen eortzale* (“nire osaba herriko kanposantuan ehorzale”).
- ehundu** (*egundu, eundu*) (Izeta) ‘ehuna eho’: *oiala ongi eundu* (“oihala ongi ehundu”).
- ehunki** (*egunki, eunki*) (Izeta) ‘liho ehuna’: *eunki ederra da* (“ehunki ederra da”); *egunki au saltzeko dugu* (“ehunki hau saltzeko dugu”).
- ehuntzale** (*eguntzale, euntzale*) (Izeta, Ultzama) ‘ehuna egiten duena; ehungilea’: *gure errian euntzale ona dugu* (“gure herrian ehuntzale ona dugu”); *eguntzalea* (“ehuntzalea”).
- eie** ik. **heia**
- eite** (eta *ite*) ‘antza’: *orrek badu aitein eitia* (“horrek badu aitaren eitea”); *bai, aren itia* (“bai, haren eitea”).
- ekai** (Gorosurreta) ‘norberak beretako duen arrangura’
- ekaitz** (*ekaizti*) *nik ekaiztiari beldur. Eldu de ekaiztie* (“nik ekaiztiari beldur. Heldu da ekaiztia”).
- ekaiuntzi** (Gorosurreta) ‘arrangura anitz duena’

ekaizti ik. *ekaitz*

ekarrarazi (*karrazi*) *ez badu nai ere bortxaz karrazi*. (“Ez badu nahi ere bortxaz ekarrarazi”).

eke (Urdazubi eta Zugarramurdin ere) ik. *ke*

elaka (eta *eleka*) ‘bideko ziloa, irregularitasuna’: *bide ortan eleka aundiek badire* (“bide horretan elaka handiak badira”); *eleka oiek berdinu bear tugu* (“elaka horiek berdinu behar ditugu”); *elaka hortan gan zen beiti karrua dena belarrez betia* (“elaka horretan joan zen beheiti karroa dena belarrez betea”).

elaputzu (Izeta) ‘gaur egungo hozkailuen lana egiten zuena; elurziloa’: *Jauregizarrian bada elaputzu aundi bet* (“Jauregizarrean bada elur-putzu handi bat”).

elastiko ‘jertsea’: *balio ote du lastikue artzia?* (“balio ote du elastikoa hartzea?”).

elbarri (*erbal*) ‘ezindua’: *erbal ta eri*. *Gizon erbala* (“elbarri eta eri. Gizon elbarria”).

elbarritu (*erbaldu*) ‘elbarri gelditu’: *erbaldu zaiku gure gizona* (“elbarritu zaigu gure gizona”).

elderi ik. *helderi*

elderio ik. *helderi*

eldu ik. *heldu*

ele

ele xuritzera (joan, etorri...) (Izeta) ‘kontu garbitzera (joan, etorri...)’: *torri gara ele xuritzera* (“etorri gara ele zuritzera”).

eleka 1 ‘hizketan’

eleka 2 ik. *elaka*

elekari

eleketa (Urdazubin eta Zugarramurdin ere) ‘solasa’

eleketari ‘solasturia; berritsua’: *gure gizona eleketarie da*. *Eleketari aundie* (“gure gizona eleketaria da. Eleketari handia”).

elepide ‘solasbidea; hizpidea’: *ezkontza orrek elepide franko sortu du* (“ezkontza horrek elepide franko sortu du”).

eletero ‘eletsua; hitzontzia’: *gizon oi eletero gorrauk* (“gizon hori eletero gogorra duk”).

eletsu (Izeta) ‘elezua’

eleuntzi ‘berritsua, eleketaria’: *gure familien eleuntzi aundiek* (“gure familian eleuntzi handiak”).

elezu ‘berritsua, eleketaria, eleontzia’: *arras eletzue zara; zein elezu zaren; au mutiko elezue*.

elizator ‘apaizen jantzia; alba’: *gure apezak elizatorra zikindu du* (“gure apaizak elizatorra zikindu du”).

elkar

elkartu

elsuntse ik. *eltsuntsa*

eltsuntsa (*elsuntse*, *eltsuntse*) ‘beltzuntza’: *aurtengo uden eltsuntse aunitz* (“aurtengo udan eltsuntsa aunitz”).

eltsuntse ik. *eltsuntsa*

eltxeto ‘eltze txikia’: *eltxeto ttar ortan egosiko tugu gaztañek* (“eltzeto ttar horretan egosiko ditugu gaztainak”).

elxitxu ik. *eltzeitsu*

eltzagar ‘ahuntz edo antxume larrea ezartzen zaion eltze-modukoa, erdian zilotxoa egin eta makilatxoa sartu ondoren, asotsa ateratzeko ibiltzen dena’: *eltzagorrain asotsakin abreak izitzen omen dire* (“eltzagorren asotsarekin abereak izutzen omen dira”).

eltzari (Izeta) ‘eltzekaria, eltzean egiten dena’: *aurten iler aunitz bildu de, badugu eltzarie* (“aurten iler aunitz bildu da, badugu eltzaria”).

eltzeitsu (*elxitxu*, *eltzitxu*, *eltzitsu*) ‘dirua gordetzeko kutxa, itsulapikoa, aurrezki kutxa’: *gure aurrek sos guziek elxitxure. Elxitxuen bada sosa* (“gure haurrak sos guztiak eltzeitsura. Eltzeitsuan bada sosa”).

eltzerma (eta *esperma*) ‘kriseilua’: *gure etxean eltzerma ona dugu. Eltzermak argi ona maten du* (“eltzermak argi ona ematen du”).

eltzitsu ik. *eltzeitsu*

eltzitxu ik. *eltzeitsu*

elur [erranahiruak] *elur*, *melur*, *ez-tietiegu ire beldur*; *badiegu etxean arto ta egur. Elurre xurie delaik, beltza da. Martxoan lanao noraño, apirilean elurre araño. Negu ona izeteko San Martineta-ko iru aldiz elurre in bear du.*

elur busti ‘ia urturik erortzen den elur-mota’: *elurbustie emen ta elurre Belaten* (“elurbustia hemen eta elurra Belaten”).

elurrean elurrean egon gara aste betian.

elur-zafla ‘elur-bikorra, elur-maluta’: *elurre ai du, anbateko elur-zaflak!* (“elurra ari du, hainbateko elur-zaflak!”).

elurkara ‘elurra egiteko itxura’: *elurkara dago denbora gaur.*

eluts (Izeta) ‘toki hotza, horma edo izotza egiten duena; ospela’: *gure ardi bordako zoko oi arras elutse da* (“gure ardi bordako zoko hori arras elutsa da”).

emagin (*emain*) ‘erditzeko dagoen emakumeari laguntzen dion pertsona’: *emaine ona dugu gure errien* (“emagina ona dugu gure herrian”).

emagingo (*emaingo*) ‘emagintza’: *ne-re izua emaingoan aitzen da* (“nire izeba emangingoan aritzen da”).

emain ik. **emagin**

emaingo ik. **emagingo**

emakunde ‘inaute aitzineko ortzeguna, andreek inautetan parte hartzen zuten eguna’: *emakunde egunean andreek iten zuten beren besta. Emakunde aspaldion galdue da* (“emakunde egunean andreek egiten zuten beren besta. Emakunde aspaldion galdue da”).

eman (eta *man*) 1 ‘zerbait norbaiten esku paratu; norbait zerbaiten edukitzaile egin’: [erranahiruak] *lurrek maten duena, lurrek artu. Ez den lekutik ezin man. Ukon-doa urbil ta ezin musuik man*

- eman giltza** ‘giltzatu’: *maiozu giltza ateari atratzen zarelaik* (“emaiozu giltza ateari ateratzen zarelarik”); *eman zenion giltza?* (“eman zenion giltza?”).
- giltza eman** ‘giltzatu’.
- eman** 2 ik. **eraman**
- emanerraz** (*manerrex*) ‘erraz ematen duena, eskuzabala’ *amatxi bezala ama ere manerrea da arras* (“Amatxi bezala ama ere emanerrea da arras”).
- emankor** (eta *mankor*) ‘dagokionetik usu ematen duena’: *gure lurrek emankorrek dire. Aurten ere emankor* (“gure lurrak emankorrek dira. Aurten ere emankor”).
- emantza** (Izeta) ‘ematearen ondorio edo ekintza; emaitza’: *emantza ona du aurten artoak*.
- emazteki** (*mazteki*) ‘emakumea, andrea’: *mazteki ederra gure auzoko Luixe. Badire bi mazteki eta bi gizonki*.
- emen** ik. **hemen**
- emen berean** ik. **hemen berean**
- emen berian** ik. **hemen berean**
- enantz** (*enanzu*) ‘ahalmen handia, abilezia’: *enanzu aundiko gizona da. Orren enanzue...* (“enantz handiko gizona da. Horren enantzua...”).
- enanzu** (Izeta) ik. **enantz**
- enblangoan** ik. **enblankoan**
- enblanguan** ik. **enblankoan**
- enblankoan** (*enblangoan, enblanguan*) ‘zer edo zer makur eta erori hurran dagoenean gertatzen dena’: *mai gañeko untzi oi enblangoan dago* (“mahai gaineko ontzi hori enblankoan dago”); *emen gauze guziek enblanguan* (“hemen gauza guztiak enblankoan”).
- enbor** (*onbor*) *onbor sue, aragie erretzeko arront ona da* (“enbor sua, haragia erretzeko arrunt ona da”); *kanaerdiko onborrak emen* (“kanaerdiko enborrak hemen”); [Erranahirua] *urek ez du onbor onik goiti kartzen*.
- enbortu** (*onbortu*) 1 ‘gogortu’: *zaartu ta onbortu* (“zahartu eta enbortu”) 2 ‘enbortua, gogortua’: *arras onbortue nago* (“arras enbortua nago”).
- enbraz** ‘haurdun’: *enbraz da*.
- endelu** ‘funtsik gabekoa’: *etzaitela urbildu gizon endelu orrengana* (“ez zaitzela hurbildu gizon endelu horrengana”).
- endes** ‘txukuntasunik gabea, gaizki apaindua; enasa’: *zein endesa zaren. Au yende endesa...* (“hau jende endesa...”).
- eneatu** (Izeta) ik. **enoatu**
- engel** (Izeta) ik. **enkel**
- enka** (Izeta) ik. **kinka**
- enkel** (*engel*) ‘ahula’: *au mutiko engela duk. Engela, inder gutikoa* (“hau mutiko enkela duk. Enkela, indar gutikoa”).
- enoatu** (*eneatu*) (Izeta) ‘kexatu; sumindu’: (Izeta, Arizkun) *gure aite eneatu de* (“gure aita enoatu da”).

entregu ‘lanean dakienari erraten zaiona; trebea’: *lan ortan enago entregu*. *Zu lan ortan entregu* (“lan horretan ez nago entregu. Zu lan horretan entregu”).

eortzale (Izeta) ik. **ehorzale**

epetxa ik. **txepetx**

erabe ik. **herabe**

erakustele ‘erakusten duena’

erakustun ‘irakaslea; maisua’: *erakustun ona dugu*. *Mutildantza erakusten du, au da gure erakustune* (“mutildantza erakusten du, hau da gure erakustuna”).

erakutsi

erakutsian ‘bistan’: *azpiko aldetik erakutsien dago*.

eralki (*idelki*) (Izeta) ‘bahetu’: *idalki ongi iriñe* (“eralki ongi irina”); *idelki ongi iriñe* (“eralki ongi irina”).

eraman (*ereman, eman*) (Urdazubi, Zugarramurdi) *ereman dut mutikoa*; (Basaburua) *eman dut mutikoa*; *man dut itxera* (“eraman dut etxera”); (Baztangoizean *gan* ibiltzen da) *gan dut mutikoa*.

erandu (*erindu*) ‘esnea abereen errapatatik kanpora ateratzen hastea’: *bei oi ederki erintzen da, ongi yausten zaio ereindure* (“behi hori ederki erantzen da, ongi jaisten zaio erandura”).

erandura (*ereindure*) ‘esnea abereen errapatatik kanpora ateratzen hasten den ueña’: *zerrikumeei ereindure maten* (“zerrikumeei erandura ematen”).

erasan ‘euria, elurra... (indarrean) egin’: *goibel dago, erasan bear du*. *Erasain du* (“goibel dago, erasan behar du. Erasainen du”).

erasieka ik. **erausika**

erasien ik. **erausian**

erauntsi ‘zaparrada’: *erauntsi bortitze in du*. *Anbateko erauntsie!* (“erauntsi bortitza egin du. Hainbateko erauntsia!”).

erausian (*erasien, erausien*) ‘marmarrean, erdi haserre’: *ze ai zara beti erausien* (“zer ari zara beti erausian”); *or dabiltze erasien, erasieka* (“hor dabiltza erausian, erausika”).

erausien ik. **erausian**

erausika (*erasieka*) ‘erausian, nahiko haserre’: *or dabiltze erasien, erasieka* (“hor dabiltza erausian, erausika”). Sin. **erausian**

erautzi ik. **erauzi**

erauzi (*erautzi*) ‘aletu; pikor edo aleak burutik bereizi; isurkariak ere ontzi txikiagoetara pasatu’: *atzo atsalde guzien arto erauzten* (“atzo arratsalde guztian arto erauzten”); *gure aite zenak launbetero erauzten zuen ardua zagitik botillera* (“gure aita zenak larunbatero erauzten zuen ardoa zahagitik botilara”).

erbal (Izeta) ik. **elbarri**

erbaldu (Izeta) ik. **elbarritu**

erbil ik. **erpil**

erbinude (*erbiunide, erbiuñide*) ‘ugaztun haragijalea, bizkar-areta eta sabel-argia’ (*Mustela*

- nivalis*): *erbiunidiak atsiki in zion* (“erbinudeak ausiki egin zion”); *erbiuñidea, gaixtoa* (“erbinudea, gaiztoa”).
- erbiunide* ik. *erbinude*
- erbiuñide* ik. *erbinude*
- erde* ‘ahotik jariotzen den tua edo listua, lerdea’: *mutiko au beti erde dariola* (“mutiko hau beti erde dariola”).
- erdezu* ‘lerdetsua, lerdea dariona’: *zazi emendik erdezu zikine* (“zozaz hemendik erdezu zikina”).
- erdietsi* 1 ‘etsitu, amore eman’ 2 ‘nahi dena egin, lortu’: *eztugu deus erdietsi* (“ez dugu deus erdietsi”); *emen eztugu deus erdietsiko* (“hemen ez dugu deus erdietsiko”); *eztugu deus erdiesten aal* (“ez dugu deus erdiesten ahal”).
- erdizkatu* ‘erditik zatitu’: *naizu ogi au emendik erdizkatzea errexago gatego?* (“nahi duzu ogi hau hemendik erdizkatzea errazago joateko?” = ‘eramateko’).
- erdoil* ik. *herdoil*
- erdoildu* ik. *herdoildu*
- erdoildure* ik. *herdoildura*
- erearo* ik. *ereiario*
- ereiario* (*erearo, eriario*) ‘ekaina; garrilla’: *erearoan egunik luzeenak* (“ereiarioan egunik luzeenak”); *erearoan gure erriko bestak* (“ereiarioan gure herriko bestak”).
- erein* (*erin*) ‘gaur erin bear tuogu baratxuriek’ (“gaur erin behar ditugu baratxuriak”).
- ereindure* ik. *erandura*
- ereki* ik. *ireki*
- ereman* ik. *eraman*
- eren* ik. *heren*
- erenegu* ik. *herenegun*
- ereta* ‘haur negarra’: *orren eretak aspertzen nau. Beti ereta orrekin* (“horren eretak aspertzen nau. Beti ereta horrekin”).
- ergel* ‘fundamentu gutikoa, ilupa’: *au mutiko ergela dena!*
- ergelpits* ‘zentzu edo adimen eska-sekoa; astaputza’: *ergelpitse* (“ergelpitsa”).
- ergelputz* ‘zentzu edo adimen eska-sekoa; astaputza’: *ago ixiliek arraio ergelputz* (“hago ixiliek arraio ergelputz”).
- eri* ‘gaixo’: *gure mutikoa eri dago. eri handi*: ‘beti eri dagoena, asoalditik eri dagoena, grabe dagoena’
eri zahar: ‘eri handia’
- erixko* ‘gaixo antzean’: *aspaldion erixko dabile* (“aspaldion erixko dabil”).
- eriario* ik. *ereiario*
- erikoi* ‘erriak edo gaixoak maite dituen; erizalea’: *gure etxean arreba dugu erikoi ona. Gure arreba arront erikoie da* (“gure arreba arrunt erikoia da”).
- erin* ik. *erein*
- erindu* ik. *erandu*
- eritasun* ‘gaixotasuna’: *orrek eritasun txarra du. Orren eritasune kutsekorra da* (“horrek eritasun txarra

- da. Horren eritasuna kutsakorra da”).
- erizagar** ik. **erizahar**
- erizahar** (*erizagar*) ‘beti eri dagoena’: *erizagar oiek aunitz ireuteute* (“erizahar horiek anitz irauten dute”).
- erizio** ‘ereitea’: *erizioak in tugu* (“erizioak egin ditugu”).
- erkin** ‘erditzeko, erdimenez’: *beie erkin dago. Batugu bizpairu erkin* (“behia erkin dago. Baditugu bizpahiru erkin”).
- erlaitz** (*erlaxa, erlexa*) ‘teilatua atxikitzeko paretaren gaineko aldea, ateratze tokia’: *erlaxan dago* (“erlaitzean dago”); *erlexa ortan utzi nuen* (“erlaitz horretan utzi nuen”).
- erlanda** ‘landa edo alor aunitz dagoen lekua’: (Berroeta) *erlanda oietan barna gan ginen* (“erlanda horietan barna joan ginen”).
- erlano** (eta *errilano, errilaño*) ‘erreka gainean sortzen den lanoa, herrietaraino sartzten dena’: *mendien iduzki ederra ta errien lano. Orri deitzen zaio erlano* (“mendian eguzki ederra eta herrian laino. Horri deitzen zaio erlano”); *errilañoa* (“erlanoa”).
- erlaxa** ik. **erlaitz**
- erlexa** ik. **erlaitz**
- ermiarma** ik. **armiarma**
- ermiarma-sare** ik. **armiarma-sare**
- ernalziri** ‘zurezko ziria’: *ernalzirie emen dut. Ernalziri au ongi ine dago* (“ernalziria hemen dut. Ernalziri hau ongi egina dago”).
- ernari** ‘sabelean umekia duela’ (animaliekin bakarrik)
- ernatu** (eta *ernetu*) ‘erne jarri; iratzarri’: *ernatu zaite mutikoa!* (“ernatu zaitez mutikoa!”); *noizbaitere ernatu dire* (“noizbait ere ernatu dira”).
- erne** ‘adi’ (hitz hau herrialde guztietan erabiltzen da hain segur baina Baztango mutildantzaren batean itzuli bat egiterakoan, txistulariak *erne* erraten du dantzariak adi egon daitezen, itzuli horretan nahasi gabe): *erne!*
- ernetu** ik. **ernatu**
- ero** ‘zoroa, burutik ongi ez dena’: *aoxilik, arraio erua!* (“hago isilik, arraio eroa!”); *arront erotue itzuli zen Ameriketaik* (“arront erotua itzuli zen Ameriketatik”); *ero zarra i!* (“ero zaharra hi!”).
- eroles** (Izeta) ‘eroskoa, txoroa, erosta; eroskila’: *eroles ederra*.
- eroriko** ‘erorketa, jausia’: *eroriko bat in zuen* (“eroriko bat egin zuen”).
- eroskila** (*eroskile*) ‘nahiko eroa, txoroa’: *etzaitela ibili eroskile orrekin* (“ez zaitezela ibili eroskila horrekin”).
- eroskile** ik. **eroskila**
- erosta** ‘nahiko eroa, txoroa, burutik ongi ez dagoena’: *erosta da*.
- erostun** (Urdazubin eta Zugarramurdin ere) ‘eroslea’: *saltzale aunitz ta erostun guti* (“saltzaile aunitz eta erostun guti”); *erostune bada* (“erostuna bada”).

erpil (*erbil*) ‘lur-zati trinkoa’: (Aniz) *erbille aundiek xeatu* (“erpil handiak xehetu”).

errabero ik. **errebero**

errain (eta *erregin*, *erregiñe*) ‘semearen emaztea’: *nere errañe arras ona da* (“nire erraina arras ona da”); *erregine beti mokokan daille* (“erraina beti mokokan dabil”).

erran ‘esan’: *gaizki erteizu* (“gaizki erraten duzu”); *nik ere ongi erteut* (“nik ere ongi erraten dut”); *oiek ongi erteute* (“horiek ongi erraten dute”).

erranahiru ‘errankizuna, errankuntza, erran zaharra’: *Baztango erranairuak*.

erranbero ik. **erromes**

erranka *zernahi erranka ibili dire* (“zernahi erranka ibili dira”).

errankizun ‘errankuntza’ (Izeta): *errankizun yakingarriek gure amatxik* (“errankizun jakingarriak gure amatxik”).

errankuntza (*errankuntze*) ‘erranairua; errankizuna’: *errankuntze aunitz mundu guzien* (“errankuntza aunitz mundu guztian”).

errankuntze ik. **errankuntza**

errapulutx ik. **arrepuluts**

erraustu 1 ‘errautsi, hauts bihurtu’: *erraustu zuten errie* (“erraustu zuten herria”); *bazter guziek erraustu* (“bazter guztiak erraustu”). 2 ‘irabazi, gainditu’: *erraustu zuen pilotan*.

errauts *bai, in du uri pittet, errautse pausetzeko adine* (“Bai, egin du euri pittin bat, errautsa pausatzeko adina”)

errautsean ‘uholdean, aunitz’: *lenago errautsian gaten zuken jendia Ameriketarat ta burrusteka tortzen zituken urtero. Aldatu duk oi ere!* (“lehenago errautsean joaten zuan jendea Ameriketarat eta burrustaka etortzen zituan urtero. Aldatu duk hori ere!”).

errealdi ‘zerbait erretzeko aldi baikoitza’: *gure etxean etxogie iten dugu ta errealdi ederrak ere* (“gure etxean etxeko ogia egiten dugu eta errealdi ederrak ere”).

errebelatu (Izeta) ‘galdu; desbideratu’: *or dabile ardi errebelatue bezala* (“hor dabil ardi errebelatua bezala”).

errebero (eta *errabero*) ‘esne jetzi berria’: *errabero goxoa, gure bei gorriena. Erraberua maiteut* (“errebero goxoa gure behi gorriarena. Erreberoa maite dut”).

errebilgura (*errebilgure*) (Izeta) ‘ardiesnea’: *errebilgure ardi esnia da, esne berezie gaztanbera iteko* (“errebilgura ardi esnea da, esne berezia gaztanbera egiteko”).

errebilgure ik. **errebilgura**

errefera ‘pilota-jokoan sakea edo botea itzultzea; errestoa’: *sakeak lau, erreferak bortz*.

erregin ik. **errain**

erregiñe ik. **errain**

erregu ‘pikor edo ale-neurri zaharra, lau gaitzeruren edo 21/22 litro-

ren adinakoa': *saldu dugu erregu bet banabar* ("saldu dugu erregu bat banabar"); *erregue mile pezeta* ("erregua mila pezeta"); *erregu bet arto ere* ("erregu bat arto ere").

erreka zintzur 'mendiartea; arroila': *erreka zintzurre dena erroitze* ("erreka zintzurra dena erroitza").

erreki 1 'haragi errea': *eztaietan errekie atratzian, ziztulariek ez-tai-soñue yotzen du* ("eztaietan errekia ateratzean, txistulariak ez-tai-soinua jotzen du"). **2** 'errekia, erretzeko egurra': *errekie bildu dugu su ederra iteko* ("errekia bildu dugu su ederra egiteko").

errekiste ik. arrakasta

erremes ik. erromes

erresa (eta *errex*) 'irinaz eta zahiaz egindako ogia': *erresogie txarra da. Erresa ta papurre* ("erresa ogia txarra da. Erresa eta papurra"); [erranahirua] *etxeko ogie baño, kanpoko errex* obea.

erresirin (*errexirin*) 'erresa irina': *errexirinekin bazkatzen tugu xerrikumeak* ("erresirinarekin bazkatzen ditugu xerrikumeak").

errestan ik. herrestan

errex izan 'zerbait labean egintxe izatea, ia errea izatea': *kasu orrekin, errex duk!*

errex ik. **erresa**

errexirin ik. erresirin

errilano ik. erlano

errilaño ik. erlano

erroi ik. erroiba

erroiba (*erroi*) 'errapeko mina, diti-buruak gogortzen dituen': *gure bei orri erroie lotu zaio* ("gure behi horri erroiba lotu zaio").

erroile ik. errule

erroitz 'amildegia': *mendi oietan erroitze ikeragarriek. Erroitz susiek* ("mendi horietan erroitz ikeragarriak. Erroitz itsusiak").

erroiztu 'amildu': *bei bat erroiztu zaiku* ("behi bat erroiztu zaigu"); *Iparla mendien ardi aunitz erroizten dire* ("Iparla mendian ardi aunitz erroizten dira").

errokatu 'berretu; ugaritu': *belar txar oiek nola errokatzen diren* ("belar txar horiek nola errokatzen diren").

errokitu 'argala, itxura txarrekoa': *au yende errokitue!* ("hau jende errokitua!"); *aur errokituek bazter oietan* ("haur errokituak bazter horietan"); *zerrikume au arras errokitue da* ("zerrikume hau arras errokitua da").

erromes (*erranbero, erremes, erromex*) 'behartsua, baldarra, bere burua zaintzen ez duena': *erri oietan erremes bizi dire* ("herri horretan erromes bizi dira"); *yende erremesa leku oietan* ("jende erromesa leku horietan"); *gizon erremesa da gero oi!* ("gizon erromesa da gero hori!").

erromex ik. erromes

errotako zorro 'errotara eramaten zen zorroa': *errotako zorroa autsie dago.*

errule (*erroile*) ‘arrautzak paratzen dituena’: *gure etxean olo erroileak beti* (“gure etxean oilo erruileak beti”).

ertzarteko (Gorosurreta) ik. **hertzarteko**

ertze ik. **hertze**

ertzeitsu ik. **hertzeitsu**

ertzeki ik. **hertzeki**

eruka (*eruke*) ‘ahuleria’: *eruken dago, erukako gaitze du* (“erukan dago, erukako gaitza du”).

eruke ik. **eruka**

esaul ik. **hesola**

esaule ik. **hesola**

esi ik. **hesi**

eskabi (Gorosurreta) ik. **ezkabi**

eskailburu ik. **eskailera-buru**

eskailera-buru (*eskalaburu, eskailburu*) *aitetxik eskalaburuen beti pause* (“aitetxik eskailera-buruan beti pausa”); *eskalaburu zabalak* (“eskailera-buru zabalak”).

eskailera-hortz (*eskalera-ortz*) ‘eskaileren maila bakoitza’: *eskaileraortz oiek mearrak dire* (“eskailera-hortz horiek meharrak dira”).

eskalaburu ik. **eskailera-buru**

eskalapoi (*eskalapoin, eskalapoñ, eskalapuín, eskarapuñ*) ‘zurezko pieza bat hustuz egiten den oinetakoa’: *denbora batez denak eskalapuñekin ibiltzen ziren* (“denbora batez denak eskalapoiekin ibiltzen ziren”).

eskalapoi-dantza (*eskalapoin dantza, eskalapuín dantza*) ‘Baztango dantza bat’

eskalapoin ik. **eskalapoi**

eskalapoñ ik. **eskalapoi**

eskalapuín ik. **eskalapoi**

eskalapuin dantza ik. **eskalapoi-dantza**

eskalapuñ ik. **eskalapoi**

eskalera-ortz ik. **eskailera-hortz**

eskarapuñ ik. **eskalapoi**

eskaratze (Izeta) ik. **ezkaratz**

eskarda (*ezkarda, ezkerdo, exkarda*) ‘haragian sartzen den ziritxoa, egur puskatxoa’: *eskarda bat sartu zaitzu beatzian* (“eskarda bat sartu zaitzu behatzean”); *eskarda ok min mateute* (“eskarda hauek min ematen dute”); *ezkerdoi atra biaroko dugu* (“eskarda hori atera beharoko dugu”).

eskas 1 ‘gabezia, falta’: *lo eskasa du*. 2 ‘juxtu, ozta-ozta’: *iru minutu eskas ideuten du* (“hiru minutu eskas irauten du”). 3 ‘gabezia duena’: *ze lan eskasa iten duen!* (“zer lan eskasa egiten duen!”).

eskas izan (*eskas izen*) *bazter guziek yaten tu, dena eskas duela* (“bazter guziak jaten ditu, dena eskas duela”).

eskasia (*eskasie*) *apez eskasie aundie dago azken aldiotan* (“apez eskasia handia dago azken aldiotan”).

eskasie ik. **eskasia**

eskastu ‘falta izan’: *eskastu zaiku azukria* (“eskastu zaigu azukria”).

esker

esker mila (eskermile) esker-mile yaune (“esker mila jaunna”); *esker mille* (Basaburua); *eskermille aunitz* (“esker mila aunitz”).

esker mila aunitz (eskermile aunitz)

eskindegi (*eskindei*) ‘barrendegia’: *eskindei ortan sartu tugu ardiek* (“eskindegi horretan sartu ditugu ardiak”).

eskindei ik. *eskindegi*

eskinoso (*eskuñoso*) ‘hegazti mota bat’ (*Garrulus glandarius*)

eskolau ‘meza-laguntzailea; meza-mutila’: *gure mutikoa eskolaue da. Eskolau ona* (“gure mutikoa eskolaua da. Eskolau ona”).

eskribitu ‘idatzi’: *unek eztaki eskribitzen* (“honek ez daki eskribitzen”).

esku [erranahirua] *esku otzak amodio bero*.

eskua eman eskue man ta besoa artu (= “eskua eman eta besoa hartu”); *eskue man ta bide artu* (= “eskua eman eta bide hartu”)

eskura hazi (eskure azi) ‘amaren orde, beste norbaitek haztea (gizakiak animalia kumea)’

eskualdun ik. *euskaldun*

eskualkaitz ik. *euskalgaitz*

eskuar ‘eskukoa, eskumenean duena’: *eskuar duzu, artzazu. Bai eskuar dut* (“eskuar duzu, har ezazu. Bai, eskuar dut”).

eskuara ik. *euskara*

eskuargi ‘eskuetan eramaten den argia’: *gau ilunetan beti eskuargi on bat bear da* (“gau ilunetan beti eskuargi on bat behar da”)

eskumakil ‘mutil edo morroi gisa erabilia dena’: *zu orren eskumakil zara* (“zu horren eskumakil zara”); *eskumakiltako ibiltzen zaitu* (“eskumakiltako erabiltzen zaitu”).

eskumikatu (eskumiketu) ‘estutu; tinkatu’: *eskumiketu ongi laxatu ez daien* (“eskumiketu ongi laxa ez dadin”).

eskumiketu ik. *eskumikatu*

eskuñoso ik. *eskinoso*

eskutre (eskutria) ‘maratila; ontzi baten euskarria, eskuarekin hartzeko dena’: *ate orrek eskutria bear du* (“ate horrek eskutria behar du”); *sega kiderrain eskutria* (“sega giderraren eskutria”).

eskutria ik. *eskutre*

eskuzarta ‘txaloa’: *eskuzarta aunitz bertsolarien ooretan* (“eskuzarta aunitz bertsolarien ohoretan”).

eskuzikin ‘bertzenetik bere probetxutan biltzen duena; lapurra’: *zure laune eskuzikine ta maltzurre da* (“zure laguna eskuzikina eta maltzurra da”).

esne lore au esnetan dago (= ‘izerditan dago’).

- esneketari ‘esne biltzailea’: *esneketa-rie goizeko zazpiek aldera tortzen da beti* (“esneketaria goizeko zazpiak aldera etortzen da beti”).
- esneorrien* ik. *hausnarrean*
- espantu* (eta *expantu*) 1 ‘harrokeria; arrandia’: *emen expantu franko, baño fundamentu guti* (“hemen espantu franko”). 2 ‘hitx edo keinu bidezko adierazpen gehiegizkoa’: *espanturik gabe badaki kontatzen gauzek* (“espanturik gabe badaki kontatzen gauzak”).
- espantuka* (eta *espantuke, expantuke*) ‘harrokerietan’: *zu beti espantuke* (“zu beti espantuka”).
- espantuke* ik. *espantuka*
- espantuntzi* (eta *expantuntzi*) ‘harroa’: *zein espantuntzi zaren. Expantuntzie ta ergela* (“espantuntzia eta ergela”).
- esparbera* (Izeta, Aniz) ‘akitzen, bukatzen ez dena’: *au esparbera...* (“hau esparbera...”).
- esperantzetan izan* ‘haurdun izan’
- esperma* ik. *eltzerma*
- espille* (Izeta) ik. *hespil*
- esposatu* ‘ezkondu’
- espres* izond. ‘zerbaitetarako berezia, egokia’: *ardi ile oi espresa da ardiek ez bustitzeko; zaldi oiek espresak dire mendiko; bada makina bat espresa ortako.*
- espreski* ik. *espresuki*
- espresuki* (*espreski*) *espreski erran natzun ba ez iteko olakoik* (“espresuki erran nizun, bada, ez egiteko holakorik”).
- estalkite* (Gorosurreta) ‘eztarri-ziloa, trakea’
- esteka* (Izeta) ‘behi edo idiei lepoan jartzen zaien uztai erako zurezko lepokoa’: *guk estekakin lotzen tugu beiek* (“guk estekarekin lotzen ditugu behiak”); *esteka berriek tugu* (“esteka berriak ditugu”).
- estekatu* (Izeta) ‘lotu’: *ongi estekatu gero...; zoko guziek ongi estekatuak* (“txoko guztiak ongi estekatuak”).
- esti* interj. ‘idiei eta behiei gibelat eragiteko agindu hitza’
- estikatu* (*estiketu*) ‘esti eragin; gibelat eginarazi’: *beiek estiketu* (“behiak estikatu”).
- estiketu* ik. *estikatu*
- estraka* (Izeta) ik. *estrata*
- estrata* (*estraka*) ‘errekarriz lauzatutako bide edo karrika, bereziki meharra eta maldan dagoena’: *estrata zikine dago* (“estrata zikina dago”); *estraka ortaik barnagan ginen* (“estrata horretatik barna joan ginen”).
- estutu* ad. ‘larritu’
- etike* (Gorosurreta) ‘tisia’
- etiketu* (Gorosurreta) ‘tisiak jo’
- etiku* (Gorosurreta) ‘tisiak jota dagoena’
- etsi* ik. *hertsi*
- etsitu* ad. ‘amore eman’: *etsituizu?* (“etsitu duzu?”).
- etxalde* ‘etxea eta haren ingurua’: *etxalde ederra du Martinek; etxaldekoak ere aberatsak dire.*

etxe-ilar (*etxe-iler*) ‘ilarra; ilar biribila’ (Baztanen herri gehien-gehienetan *iler biribil* deitzen diote baina zenbait herritan *etxe-iler*): *etxe-ilerra maite dugu* (“etxe-ilarra maite dugu”).

etxe-iler ik. **etxe-ilar**

etxekalkaka (Izeta) ‘herriko edo elizako lan bat egitea, etxe guztiak aldizkatuz’: *gure errien elizeko garbitasunek etxekalkaka iten tugu, etxe guziek aldizketuz* (“gure herrian elizako garbitasunak etxekalkaka egiten ditugu, etxe guztiak aldizkatuz”).

etxe-ogi (eta *etxogi*) ‘etxeke ogia’

etxe-parte ‘ezkondu arte, etxeke seme eta alabek sortetxeaz duten esku-bidea’: *ezkontzen bazara etxe-partia galtzei zu* (“ezkontzen bazara etxe-partea galtzen duzu”).

etxogi ik. **etxe-ogi**

etzan (eta *etzin*, Izeta) *gau guzien parrandan ta etzin gabe* (“gau guztian parrandan eta etzan gabe”).

etzauntza (*ezauntze*) ‘etzalekua, bereziki animaliena’: *gure artzain etxolan ezauntze ederra dugu* (“gure artzain etxolan etzauntza ederra dugu”).

etziago ‘etxidamu’: (Baztangoiza) *etziago gure erriko bestak* (“etziago gure herriko bestak”).

etxidamu (Izeta) ‘etziago’: *etxidamu ezkonduko da Periko*.

etzin (Izeta) ik. **etzan**

euli (*uli*) 1 ‘intsektua’ (*Musca*): *etxe unten uli aunitz* (“etxe honetan

euli anitz”); *azienda den tokien uliek pileka* (“azienda den tokian euliak pilaka”) 2 ‘koldarra’ *au yende ulie!* (“hau jende eulia!”).

eulibeltz (*ulibeltz*) ‘haragiko eulia’: *kasu zingerrazpi orrekin, ulibeltzak ukitu ez dezan* (“kasu xingarrazpi horrekin, eulibeltzak uki ez dezan”).

eulimitx (*ulimitx*) (Azkue): ‘eltxo sarea’ *ulimitx berrie erosi dugu* (“eulimitxa berria erosi dugu”).

euri-erauntsi (*uri-erauntsi*) ‘euri-zaparrada’: *anbateko uri-erauntsie in daku. Uri-erauntsi bortitze*. (“hainbateko euri-erauntsia egin digu. Euri-erauntsi bortitza”).

eurikara (*urikara*) ‘euri itxura’: *urikara dago denbora* (= ‘euria egiteko itxura du’)

euri-langar (*uri-lankar*) ‘euri-lanbroa’: *uri-lankarra ai du. Uri-lankarra Otsondon*. (“euri-langarra ari du. Euri-langarra Otsondon”).

eurixki (*urixki*) ‘euri antzean’: *gaur urixki dugu. Denbora zirtzile, urixki* (“gaur eurixki dugu. Denbora zirtzila, eurixki”).

euskaldun (*eskualdun*) *kanposantuen arpatukoizu eskualdun geiago karriketan baño* (“kanposantuan harrapatuko duzu euskaldun gehiago karriketan baino”).

euskalgaitz (*eskualkaitz*) (Izeta) ‘euskaraz gaizki mintzatzen dena’: *zein eskualkaitzek zaten* (“zein euskalgaitzak zareten”); *zein eskualkaitze zaren, eztakizu*

eskuaraz (“zein euskalgaitza zaren, ez dakizu euskaraz”).

euskara (*eskuara*) *eskualdunek eskuaraz in bear dugu* (“euskaldunek euskaraz egin behar dugu”).

exaune ik. *ez, jauna!*

exkarda ik. *ezkarda*

expantu ik. *espantu*

expantuke ik. *espantuka*

expantuntzi ik. *espantuntzi*

ezagun (*zaun*) 1 *au zaune da* (“hau ezaguna da”). 2 ‘ikusi’: *iduri du baietz, baina gañartaik ezta deus ere zaun* (“irudi du baietz, baina gain hartatik ez da deus ere ezagun”); *zaunde gizon au eri dela* (“ezagun da gizon hau eri dela”).

ezagutu (*zautu*): *egun artan zautu nuen nere andrea* (“egun hartan ezagutu nuen nire andrea”); *zautzeizu oi?* (“ezagutzen duzu hori?”).

ezagutza (*zautze, zauze*) ‘ezaguera’: *zautze arras galdue* (“ezagutza arras galdua”); *zauze galdu nuen*. (“ezagutza galdu nuen”).

ezagutzak egin (*zautzek in*) ‘harremanetan jarri’: *besta ortan zautzek in gintuen* (“besta horretan ezagutzak egin genituen”).

ezagutzeko (*zautzeko*) ‘ordura arte ezagutu gabea’: *orduen zautzekoa nuen, baño gero zautu nuen* (“orduan ezagutzekoa nuen, baina gero ezagutu nuen”).

ezarian (*ezarien*) ‘pixkana-pixkana bide batetik oinez doanean’: *bide ortaik ezarien-ezarien gain*

gara (“bide horretatik ezarian-ezarian joanen gara”).

ezarien ik. *ezarian*

ezauntze ik. *etzauntza*

ezaupegi (*zaupei*) ‘zerbait antzema-teko abilezia’: *aitek badu ardie-tako zaupeie, badu zaupeie* (“aitak badu ardietako ezaupegia, badu ezaupegia”).

ezaupide ‘ezaguera, ezagutzeko modua’: *erriko bestak ezaupideak iteko aproposa* (“herriko bestak ezaupideak egiteko aproposa”); *zaupeie aundie du* (“ezaupide handia du”); *zauptide gorrekoa da* (“ezaupide gogorrekoa da”). *Billera oietan zauptide onak iten dire. Zauptideak iteko aproposak* (“bilera horietan ezaupide onak egiten dira. Ezaupideak egiteko aproposak”).

ezi ik. *hezi*

ez idurien ik. *ez idurian*

ezinbertzez ‘ezinbestez’: *ezinbertzez oi in bearko* (“ezinbertzez hori egin beharko”).

ezindu ‘ahalmen fisiko guziez baliatzerik ez duena, elbarriaren antzekoa’: *nere osaba zaarra arras ezindue da* (“nire osaba zaharra arras ezindua da”); *lenago langile ta indartsu, orai ezindue* (“lehenago langile eta indartsu, orain ezindua”).

ez, jauna! (*exaune*) (Baztanen maiz erabiltzen da *exaune*): *exaune, oi gezurre da* (“ez jauna, hori gezurra da”)

ezkabi (*eskabi*, Gorosurreta) ‘larruko gaitza’

ezkai 1 ‘hezi gabekoa’: *beia ezkai dugu. Beorra ere ezkai* (“behia ezkai dugu. Behorra ere ezkai”).
2 ‘amateurra’: *oi ezkaia da, ez du batre ikesi* (“hori ezkaia da, ez du batere ikasi”).

ezkaratz (*eskaratze*, Izeta) ‘atariko gela zabala’: *eskaratzean bilduko gara* (“ezkaratzean bilduko gara”); *eskaratze ederra* (“ezkaratz ederra”).

ezkarda ik. *eskarda*

ezkerdo ik. *eskarda*

ezkibel ‘pertsona izua, uzkurra, fidagaitza, mesfidatia’: *gure mutikoa arras ezkibela dugu. Arront ezkibela* (“arrunt ezkibela”).

ezkila *dorreko ezkil orrek soñu oxena* (“dorreko ezkila horrek soinu ozena”); *ezkillek yo tuzte* (“ezkilak jo dituzte”).

ilun ezkila ilun ezkilekin batera sartu dire elizen (“ilun ezkilarekin batera sartu dira elizan”).

ezkildorre ‘kanpandorrea’: *atzo ezkildorreetan izan ginen* (“atzo ezkildorreetan izan ginen”); *ezkildorreetik kuspei ona* (“ezkildorreetik ikuspegi ona”).

eznagusi (*eznausi*) ‘zinegotzia; auzo-alkatea’ (Izetak bildua bere hiztegian: “Amaiurren hartu dut eta horrek adierazten omen du, bera baino handiagoak badirela. Adibidez: Alkatea. Beraz, *eznau-si* zinegotzi da”).

eznausi (Izeta) ik. *eznagusi*

ezongi ‘ongi eza’: *gure aitetxi ezongi ta goatzean sartu zen* (“gure

aitatxi ezongi eta ohatzean sartu zen”).

ezpaldu ‘ezpalak egin, ezpaletan zaitu’: *egur au ongi ezpaldu* (“egur hau ongi ezpaldu”).

ezpara (*ezpata*) ‘bertze zenbait animaliarene odolaz elikatzen dena eta ziztada mingarriak ematen dituenena’ (*Fam. Tabadinae*): *uli gaxto orri ere ezpata deitzen zaio* (“euli gaizto horri ere ezpara deitzen zaio”).

ezpata 1 ik. *ezpara*

ezpata 2 ‘leren zurezko pieza bat, gibelego aldean, hartzen zuten karga estutzeko ibiltzen zena’

ezponda ‘maldan dagoen lur-zatia; pezoina’: *ezponda ortaik goiti gan ginen* (“ezponda horretatik goiti joan ginen”).

ezpore ik. *ezproi*

ezproi (*ezpore*) 1 ‘oilarraren atala’: *ollar orrek ezpore zorrotzak tu* (“oilarrak horrek ezproi zorrotzak ditu”); *ollar orrek ere ezpore aundiek* (“oilarrak horrek ere ezproi handiak”). 2 ‘zaldia akuilatzen metalezko pieza’: *zaldi gañean ta ezpore ederrekin* (“zaldi gañean eta ezproi ederrekin”).

ezta *zeren* ‘ez horregatik’: *milesker. Ezta zerren* (“mila esker. Ez da zerren”); *eskermile. Ezta zerren* (“Esker mila. Ez da zerren”).

eztei (pl.) ‘ezkontza, ezkontza eguneko besta’: [Erranahirua] *alako ezteietan, alako zopak*

ezten 1 ‘zenbait intsektuk sabelaldearen muturrean duten arantza

modukoa': *liztorrak eztena sartu zion*. 2 '(hedaduraz) min zorrotza egiten duen zerbait': *ezten bat dauket biotzian sartue* ("ezten bat daukat bihotzean sartua"). 3 (*lezta, lezten*) 'arras orratz handia': *lezenakin lan aundie iten da* ("eztenarekin lan handia egiten da"); *leztakin yosi nuen. Lezta onaut* ("Eztenarekin josi nuen. Eztena ona dut")

eztera arri (Izeta) ik. *geztera-harri*

ezti 1 iz. 'gai likatsua eta gozoa, erleek egiten dutena'

ezti 2 izond. 'gozoa, leuna, emea'

ezti 3 adlag. 'mantso-mantso, lasai, trankil': *ezti-ezti in bear dire iler oyek* ("ezti-ezti egin behar dira ilar horiek")

eztil ik. *istil*

ezueri (Gorosurreta) ik. *hezueri*

ezurmuin ik. *hezurmuin*

ezurreri (Azkue) ik. *hezueri*

F

fabore ‘mesede’: *errain diozu faborez Maritxui tortzeko unet?* (“erranen diozu, faborez, Maritxuri etortzeko hunat?”).

fal ik. **bala**

falfara ik. **farfara**

fara 1 ik. **bara**

fara 2 ‘gurdien pieza bat, non lotzen baitira behiak edo behorra, gurdia tiratzeko’: *beorrain karruak bi fara tu eta beienak bat, eta uni ‘lardaia’ erten zaio* (“behorraren karroak bi fara ditu eta behienak bat, eta honi ‘lardaia’ erraten zaio”).

faranda ik. **baranda**

faratile ik. **maratila**

faratille ik. **maratila**

fardail (Izeta) ik. **bardaila**

fardel ‘gutxi garbitzen dena; zikina; arlotea’: *au neskatiko fardela! Mutikoa ere fardel ta zikin* (“hau neskatiko fardela! Mutikoa ere fardel eta zikin”).

farfail ‘arbuigarria; handiustekoa’: *gizon farfalla duk oi* (“gizon farfaila duk hori”); *yende farfalla emen* (“jende farfaila hemen”).

farfara (*falfara*) ‘traketsa; baldarra’: *kasu gizon falfara orrekin* (“kasu gizon farfara horrekin”); *zu ere aski falfara zara* (“zu ere aski farfara zara”).

faxa (eta *paxa*) ‘bereziki pilotariek eta dantzariak gerriaren inguruan paratzen dutena; gerrikoa’: *pilotarie faxa gorriekin* (“pilotaria faxa gorriarekin”); *paxa gorrie* (“faxa gorria”).

felder ‘baldarra; moldegabea, axolagabea, aitzinat tiratua’: *zein feldera zaren! Au mutiko feldera* (“hau mutiko feldera”); *andre feldera eta gizon fulleroa*.

fereka (eta *pereka*, biak Izetak emanak) ‘laztan leuna’: *maiteut zure fereka* (“maite dut zure fereka”); *pereka* (“fereka”).

ferekatu (*perekatu*, biak Izetak emanak) ‘leunki laztandu’: *maiteki ferekatu zuen; perekatu* (“ferekatu”).

ferrategi (*ferratei*) ‘ferratokia’: *aite ferrateien dago. Gazin ferrateire* (“aita ferrategian dago. Goazen ferrategira”).

ferratei ik. **ferrategi**

ferratzaile (*ferratzaile*) ‘ferrak paratzen dituen’: *nere osaba ferratzaile ona da* (“nire osaba ferratzaile ona da”).

ferratzaile ik. **ferratzaile**

ferreta ‘pegarra’: *ferreta urez betea dago. Etxean badugu ferreta aundi bet* (“etxean badugu ferreta handi bat”).

fidatu (*fietu*) ‘norbaitengan edo zerbaitengan uste ona izan’: *enaiz batre fietzen orrekin* (“ez naiz batere fidatzen horrekin”).

fier ‘sendoa, egitekoari lotzen zaiona’: *oi gizon fierra da* (“hori gizon fierra da”); *yende fierra emen* (“jende fierra hemen”); *neska fierra da* (“neska fierra da”).

fierki ‘modu fierrean’

fietu ik. **fidatu**

filde ik. **pilda**

fildeketa ik. **pildaketa**

fildero ik. **pildero**

finezi (Izeta) ‘zuzentasuna’: *yokatu-ko zara finezien, bertzenaz kuskoizu* (“jokatuko zara finezian, bertzenaz ikusiko duzu”).

finkatu (*frinketu*) ‘oina lurrean paratu’: *kasu non frinketzeizun zangoa* (“kasu non finkatzen duzun zangoa”).

firi-fara (pl.) 1 (erranahiru bat da. Pertsona batek lan guztiak laster eta aise egiten dituenean erraten da): *firi-farak fite tu orrek* (“firi-farak fite ditu horrek”); *firi-farak aise ta audo iten tu* (“firi-farak aise eta agudo egiten ditu”). 2 ‘eztabaida ez handiak’: *firi-fara gorrak daitzeta* (“firi-fara gorrak dabilta eta”).

firin-faran *ai zuen elur tzar bat firin-faran*

firla (*firle*) ‘errotarriaren gaineko soka batetik zintzilik dagoen zurezko oholtzoa’: *errotako firle berritu dugu* (“errotako firla berritu dugu”).

firle ik. **firla**

firuka (*firuke*) ‘firurika; zer edo zer mehea, ahula’: *au aize firuke!* (“hau haize firurika!”); *gauze firuke duk au* (“gauza firurika duk hau”); *elur firuke*.

firuke ik. **firuka**

fite ‘laster; agudo’: *zato fite* (“zatoz fite”); *torri fite* (“etorri fite”).

fitekara ‘nahiko fite’ (baina ezin da erran **gerokara torko da*).

fitekko ‘sobera fite’: *fitekko torri zara* (“fitekko etorri zara”).

fitsik ‘deus ez, deusik’: *eztugu fitsik in* (“ez dugu fitsik egin”); *emen ezta fitsik* (“hemen ez da fitsik”).
Sin. *deus*. Sin. *ja*

fizo ‘fina; zintzoa’: *mutiko fizua ta ona*. *Fizua ta maitagarrie* (“mutiko fixoa eta ona. Fixoa eta maitagarria”).

floriondo ‘ogi pikorraren azala’

franko 1 ‘ugari’: *besta franko gure errien* (“besta franko gure herrian”); *sakelean sosa franko* (“sakelan sosa franko”). 2 maila adberbioa ‘nahiko’: *franko poliki golpatue* (“franko poliki golpatua”); *franko luxea du sugurre* (“franko luxea du sudurra”).

fransaize (Izeta) ik. **frantses-haize**

frants ik. **frantses**

frantses (*frants*)

frantses-haize (*frantsaize*) ‘Frantzia aldetik heldu den haize freskoa, ipar haizea’: *fransaize au otza da* (“frantses-haize hau hotza da”); *fransaizeak abarriketzen gaitu*

(“frantses-haizeak abarriketzen gaitu”).

frijitu (*prexitu*) *arroltze prexitue maiteut*. *Xingerra ongi prexitue*. *Ongi prexitue* (“arrautza frijitua maite dut. Xingarra ongi frijitua. Ongi frijitua”).

frinketu ik. **finkatu**

fullero (*fullero*) ‘gizon trebea, entregua, bertzeen artean nabarmendu nahi duena’: (Arizkun) *denbora batean gizon fulleroa zen bai* (= ‘handinahan ibiltzen dena’); *andre feldera eta gizon fulleroa*.

fullero ik. **fuilero**

furrinda (*furrinde*) ‘burrunba, haserre bizia’: *anbateko furrinde dugu bazter oietan* (“hainbateko burrunba dugu bazter horietan”); *aize furrinda unek ondatu du baratzea* (“haize burrunba honek hondatu du baratzea”).

furrindaka (*furrindeka*) *daile* (“furrindaka dabil”= ‘goratua dabil, haserre’).

furrinde ik. **furrinda**

furrindeka ik. **furrindaka**

futre ik. **putre**

G

gabentanik (eta *gabentaniken*) ‘gabe’: *gaxto da suik gabentanik egotia* (“gaizto da surik gabentanik egoeta”)

gabentaniken ik. **gabentanik**

gabirai (*kabrine, kabriñe*) (*Accipiter nisus*): *kabrinek usoa iltzen du* (“Gabiraiak usoa hiltzen du”); *kabriñe iltzale* (“gabiraia hiltzaille”).

gain ‘goia, esne gaina’: *ze gain ederra iten duen esne unek* (“zer gain ederra egiten duen esne honek” = ‘esne gaina’).

gainarri (*gañarri*) ‘pareta gainetan paratzen den harria’: *gañarri onak patu tuzte pareta ortan* (“gainarri onak paratu dituzte pareta horretan”).

gainbehera (*gainbera*) ‘gainetik beheiti’

gainbera ik. **gainbehera**

gaindar ‘mendan, bordan bizi dena’: *gaindarrak*.

gaindegi (*gaindei*) ‘teilatutazpian, sabaian edo ganbaran dagoen solairua’: *gaindeien batugu aibertze gauze* (“gaindegian badi-tugu hainbertze gauza”).

gaindei ik. **gaindegi**

gainditu ‘bertze baten gainetik jarri; gaindu’: *gainditu zaio*.

gaindu (Izeta) ‘bertze baten gainetik jarri, garaitu, gainditu’: *Etxeberriko Juan, Bordaxarreko Pedroi gaindu* (“Etxeberriko Juan, Bordaxarreko Pedrori gaindu”).

gaineko ‘soinekoa’

gainerakoan ‘bertzenaz’

gainka (*gainke*) ‘zerbaiten gainean ibiltzea’: *gure zaldiakin ni beti*

- gainke* (“gure zaldiarekin ni beti gainka”).
- gainke* ik. *gainka*
- gaitses* ik. *gaitzets*
- gaitsets* ik. *gaitzets*
- gaitsetsi* ik. *gaitzetsi*
- gaitz* ‘handia, ederra, aunitz’: *gizon gaitze zen* (“gizon gaitza zen”); *egun aldi gaitze izan zuten an* (“egun aldi gaitza izan zuten han”); *yende gaitze bildu zen* (“jende gaitza bildu zen”); *biaje gaitze in omen zuten* (“bidaia gaitza egin omen zuten”).
- gaitzeru* (*gaitziru*) ‘pikorrak neurtzeko erabilitako lau kantoiko zurzko ontzia (16 saskitoren baliola du)’: *erosiut gaitziru bet arto*. *Gaitziru batekin askiut* (“erosi dut gaitzeru bat arto. Gaitzeru batekin aski dut”).
- gaitzestasun* ‘gaitzespena’: *gaitzestasune gauze txarra da* (“gaitzestasuna gauza txarra da”).
- gaitzestu* (Izeta) ‘gaitzetsi; gorrotatu’: *lan oi gaitzesteut* (“lan hori gaitzesten dut”).
- gaitzets* (*gaitses*, *gaitsets*) ‘maitatua ez dena, maitatua izan nahi ez dena’: *bei orrek gaitzes du bere umea* (“behi horrek gaitzets du bere umea”).
- gaitzetsi* (*gaitsetsi*) ‘txartzat hartu, gorrotatu, gutxietsi’
- gaitziru* ik. *gaitzeru*
- gaixo* (adkor.) ‘gaizoa’
- gaizkentsu* ik. *gaizpentsu*
- gaizkitu* ‘gaizki jarri, eritu’
- gaizo* ‘berezorigaitz edo dohakabeta-sunagatik errukarri gertatzen dena (arruntean deiki gisa ibiltzen da, bakarrik edo dagokion izenaren ezkerrean)’: *gaizoa*. *Gaizo Martin*. *Gaizo mutikoa*.
- gaizo pelege* (Izeta) ‘gajo hutsa dena; herabea’: *zu gaizo pelege bat zara*.
- gaizpentsu* (*gaizkentsu*) ‘bekaiztia, ongi pentsatzen ez duena’ (Baztangoiza). Izetak *gaizkentsu* biltzen du Anizen ‘jeloskorra, bekaiztia’ adierazteko: *gure barride ok arras gaizkentsuek dire* (“gure barride hauek arras gaizpentsuak dira”); *andre gaizkentsue* (“andre gaizpentsua”).
- gaizto* (*gaxto*) 1 *mutiko gaxtuak dire oiek* (“mutiko gaiztoak dira horiek”). 2 *gaxto da surik gabentanik* (“gaizto da surik gabentanik” = ‘gabe’); *gaxto da beti berandu ibiltzia eta ez tenorez tortzia* (“gaizto da berandu ibiltzea eta ez tenorez etortzea”).
- galaldi* ‘galtzeko arriskua dagoen aldia’: *galaldi bet*. *Erosikot, galaldi batendako izein dut* (“galaldi bat. Erosiko dut, galaldi batendako izanen dut”).
- galami* ik. *galmihi*
- galarazi* (*galazi*) *torri gara zuri lana galaztera* (“etorri gara zuri lana galaraztera”); *denbora galazi* (“denbora galarazi”).
- galarru* ‘zintatxoa’: *galarrue, nere amatxi zenak liñoakin iñe* (“galarrua, nire amatxi zenak lihoarekin egina”). Iruritan maindire-

aren gaineko arropa klase bati erraten zaio, koltxa sartzeko ibiltzen dena. *galarruek alde batetik edekiek izeten tziren ta artan izeten tziren koltxak*

galazi ik. *galarazi*

galbin ik. *galmihi*

galbiñe ik. *galmihi*

galdegin (*galdin*) ‘galdetu’: *galdin-ion* (“galdegin nion”); *zer galdin datzu?* (“zer galdegin dizu?”).

galdemodu ‘galdera; galdekizuna’: *galdemodu bet in bear datzut. Ze galdemodu?* (“galdemodu bat egin behar dizut. Zer galdemodu?”)

galdin ik. *galdegin*

galdur-haga ‘gailur-haga, gaztain kaskoa husteko haga laburra’: *galdur-aga bear izeten dugu gaztain arbolen kaskoa ongi usteko* (“gailur-haga behar izaten dugu gaztain arbolen kaskoa ongi husteko”).

galdurru arto oiek galdurru ederra dute. Galdurrue (“arto horiek galdurru ederra dute. Galdurrua”).

gale ik. *joale*

galeria (*kaleri*) (aunitzetan pl.) ‘bal-koi luzea, arruntean baserrietan sabaiaren kanpoko aldean egoten dena’: *denbora ona iten due-laik kalerietan edatzen dugu arropa idortzeko* (“denbora ona egiten duelarik, galerietan hedatzen dugu arropa idortzeko”); *gure amatxi kalerien egoten da*

(“gure amatxi galerian egoten da”).

galga (Izeta) ‘orgaren edo gurdiaren tresna bat’: *orgain galga ondatue dago* (“orgaren galga hondatua dago”).

galmi ik. *galmihi*

galmihi (*galami, galmi, gami, galbin, galbiñe*) ‘joare-mihia, ezkilen eta joareen barnean dagoen zintzilikarioa’: (Erratzu) *galamie*; (Arizkun) *galmie, galbiñe* (bertzerik gabe *mingeña* ere erraten zaio); (Amaiur) *gamie*; (Baztango gainerako herriak) *gareak galbine falta du* (“joareak galmihia falta du”).

galmotx (Gorosurreta) ‘bizarrik gabeko gari-mota’

galorde (Izeta) ‘galtzeko arriskua’: *zenbatenez ta aberastasun geio, galorde aundiokoak ere* (“zenbatenez eta aberastasun gehiago, galorde handiagoak ere”).

galtza (pl.) ‘prakak’

galtzerdimotz ‘galtzerdi laburra, artilearekin egina’: *gure artzañek galtzerdimotz ederrak iten tu* (“gure artzainak galtzerdimotz ederrak egiten ditu”); *galtzerdimotzak beroak dire* (“galtzerdimotzak beroak dira”).

galupeka ‘ziztu bizian ibili’: *galupeka tortzen zituken erran orduko* (“galupeka etortzen zituan erran orduko”).

gami ik. *galmihi*

gan ik. *joan*

ganbela 1 ‘etxabereak bazkatzeko erabiltzen den tresnaren behetiko zatia (gainekoa *sarea* da): *ganbela berrie in dugu* (“ganbela berria egin dugu”). 2 (norbait motela denean erraten da) *arraio ganbela!*

ganbour (Izeta) ‘Ganbo-ura, sufre-ur orori ematen zaion izena’. Elizondon badugu horrelako ur bat. Iturri horri *Ganbo* deitzen diote: *Ganbourek yan gogo iten du* (“Ganbourak jan gogo egiten du”).

gandu (*kaldo, kando*) 1 ‘eguraldia aldatzen denean, haize hegoarekin, zeruaren eta mendien artean agertzen den lanbro modukoa, dena lausotzen duena’: *mendi oietan kandoa bada, eguraldiek badu aldakuntze* (“mendi horietan gandua bada, eguraldiak badu aldakuntza”) 2 ‘kriseiluaren kea’: (Aniz) *sukalde guzie kandoak artue* (“sukalde guztia gandua hartua”).

gangabil ik. **gangarabil** 2

gangarabil 1 ‘gurintxoia, gongoila’: *gure mutikoa gangarabilekin daukegu* (“gure mutikoa gangarabilekin daukagu”); *gangarabilek gaixtuak dire* (“gangarabilak gaiztoak dira”).

gangarabil (eta *gangabil*) 2 (Arizkun) ‘hildakoak, eriak, ongarrira... garraiatzeko tresna, baiarta (batzuek bazituzten zintak bizkarretik lotzeko. Bi laguneren artean eramaten ziren)’; *gangabilen karri ginuen ongarrira* (“gangabilearekin ekarri genuen

ongarrira”); *gangabile beti eskuar dugu* (“gangabila beti eskuar dugu”)

gango ik. **joan gogo**

ganibet (*kanabite*) ‘tresna ebakitzaileria, aiztoa’: *kanabite au zorrotza da* (“ganibet hau zorrotza da”); *kanabite ona* (“ganibet ona”).

gankoi ik. **joankoi**

gan-torri ik. **joan-etorri**

gantxigor (eta *txantxigor*) ‘Zerriaren gantzarekin egiten den gozoa’: *gantxigor opilek zein goxoak diren. Gure etxeko gantxigorrak beti onak* (“gantxigor opilak zein goxoak diren. Gure etxeko gantxigorrak beti onak”); *txantxigorra zein ona den. Txantxigor goxoa* (“gantxigorra zein ona den. Gantxigor goxoa”).

gantz ‘koipea; gurina’: *zerri gizenek gantza franko. Gantza aunitz* (“zerri gizenek gantza franko. Gantza aunitz”).

gantzutu ‘koipez igurtzi’: *urinekin ongi gantzutu* (“urinarekin ongi gantzutu”).

gañarri ik. **gainarri**

gapirio (*kaprio*) (pl.) ‘teilatuan, bizkar-zuretik bazterretara doazen zurak’: *gure etxeko tellatuko kaprioak ongi inek* (“gure etxeko teilatuko gapirioak ongi eginak”); *kaprioak gure osabak inek* (“gapirioak gure osabak eginak”).

garagar (Etxenike) ‘gariaren antzeko landarea’

garagarril ‘ekaina’

garagartzaro ‘garagarrila, ereiaroa, ekaina’: *garagartzaroa*.

garaikar (Azkue) ‘lehiatsua; borrokaria’: *mutil garaikarra eta izitzen ez dena* (“mutil garaikarra eta izutzen ez dena”).

garaño (*gereñu*) ‘zaldia, abere arra’

garba (*barga, berga*) ‘lihoa lantzeko tresna’: *gure etxean badugu barga zaar bat, aspaldikoa* (“gure etxean badugu garba zahar bat, aspaldikoa”).

garbari (*bargari, bergari*) ‘lihoa lantzen duena, arruntean emakumea’: *bargarie* (“garbaria”); *gure amatxi bergari ona zen* (“gure amatxi garbari ona zen”).

garbiki ‘argi eta garbi’: *errain datzut garbiki* (“erranen dizut garbiki”).

garbisoil ‘oskarbia’: *garbisoil dago, zerue izarretan* (“garbisoil dago, zerua izarretan”).

garbitu *bere burua garbitu nairik egon zen*.

gardinga (*gardinge, gartinge*) ‘mina, zaharmindua’: *xingar gardinge txarra da* (“xingar gardinga txarra da”).

gardingatu (*gardingetu, gartingetu*) ‘mindu, zaharmindu’: *gardingetu zaiku zingerra* (“gardingatu zai-gu xingarra”).

gardinge ik. *gardinga*

gardingetu ik. *gardingatu*

gare ik. *joare*

garegile ik. *joare egile*

gargero ik. *gaugero*

gargoitik ik. *gaurgoitik*

Garizime ik. *Garizuma*

Garizuma (*Garizume, Garizime*) *denbora bateko Garizumek penitentzi egunek* (“denbora bateko Garizumak penitentzia egunak”); *Garizime aizia otza izeten da* (“Garizuma haizea hotza izaten da”); [Erranahirua] *Garizime berant, negue berant*.

Garizume ik. *Garizuma*

garraiarari (pl.) ‘hila eramaten dutenak’: *garraiariek torri dire. Garraiariek auzoko launek dire* (“garraiarriak etorri dira. Garraiarriak auzoko lagunak dira”).

garraiatu (*garraietu*) ‘garraioan aritu’: *garraietu dugu* (“garraiatu dugu”).

garraien ik. *garraioan*

garraietu ik. *garraiatu*

garraioan (*garraien*) *egur garraien ibiliek gara* (“egur garraioan ibiliak gara”).

garrasi (*karrasi*) ‘oihu mingarria’: *neska orrek anbateko karrasie in du. Karrasi beldurgarrie* (“neska horrek hainbateko garrasia egin du. Garrasi beldurgarria”).

garrato ik. *garroto*

garroto (*garrato*) ‘herritarren arteko laguntza, auzolanaren antzekoa, batzuen ustez maisu, mediku eta apezentzat egiten zena’: *errikoek garrotoan karriute eskolako egurre* (“herrikoek garrotoan ekarri dute eskolako egurra”); *garratoa lan ederra da*.

gartinge ik. *gardinga*

gartingetu ik. *gardingatu*

gasna ‘gazta’: *gasna onak Etxeberriko bordan. Gasna zarrak inder aundie* (“gasna zaharrak indar handia”).

gasnola ‘gasna-ohola, gasnak paratzekoa’: *gasnolanpatutut gasnak* (“gasnolan paratu ditut gasnak”).

gatale ik. *joale*

gatazka (*katazka*) ‘borroka, liskarra, ahalegina, eztabaida’: *katazka ederrak in gintuen* (“gatazka ederrak egin genituen”).

gatazkaka (*katazkaka, katzakaka*) ‘indarka, ahaleginka, eztabaidan, borrokan’: *beti katazkaka* (“beti gatazkaka”); *katazkaka ari da autoa konpontzen; or dago katue sagu batekin katazkaka*.

gatear ik. *joatear*

gatzagi (eta *egatzagi*) 1 ‘esnea gatzatzeko erabiltzen dena’: *non utzi duzu gatzagie? Gatzagie emen* (“non utzi duzu gatzagia? Gatzagia hemen”).

gatzagi 2 ik. *gatzari*

gatzagi-ontzi (*gatzari-untzi*) ‘gatzagia urtzen den ontzia’: *gatzari-untzi au arras ondatue dago* (“gatzagi-ontzi hau arras hondatua dago”).

gatzaitte 1 ik. *gazaite*

gatzaitte 2 ik. *ugazaita*

gatzari (*gatzagi, egatzagi*) ‘teilatuko habe nagusia, solibei eta bigarren mailako habeei berme ematekoa’: (Baztangoiza) *gatzarie*;

(Basaburua) *tellatuko gatzagie gaizki dago* (“teilatuko gatzaria gaizki dago”); *egatzagie*.

gatzari-untzi ik. *gatzagi-ontzi*

gatzontzi (*gatzuntzi, gazuntzi*) ‘gatzia altxatzeko ontzia’: *gatzuntzie betea dago* (“gatzontzia betea dago”).

gatzuntzi ik. *gatzontzi*

gauate ‘gaualdi txarra’: *olako gauাতে txarrik eztugu egundeño kusi* (“horrelako gauate txarrik ez dugu egundaino ikusi”); *ze gauate txarra dagon!*.

gauatz (Izeta) ‘gau ederra’: *au gauatza! A ze gauatza dagon!* (“hau gauatza! A zer gauatza dagoen!”).

gauenara (*gauñera*) ‘saguzarra’: *gauñera elizen sartu zaiku* (“gauenara elizan sartu zaigu”). Zugarramurdi eta Urdazubin ‘gauñera’.

gauerdi ‘gaueko hamabiak’: *gauerdien torri de gure mutikua* (“gauerdian etorri da gure mutikoa”).

gauñera ik. *gauenara*

gaurgero (*gargero*) ‘honezkero (konstatzen denaz segurtasun osorik ez denean)’: *gargero torri izein de* (“gaurgero etorri izanen da” = “segur aski ere, etorri da”).

gaurgoitik (*gargoitik*) ‘gaurdanik’: *gargoitik emen izein de* (“gaurgoitik hemen izanen da”).

gaxto ik. *gaizto*

gazaite ik. *ugazaita*

gazgesal (Izeta) ‘ur gatza; gatzuna’:
gazgesal oi eztut maite (“gatz-
 gesal hori ez dut maite”).

gazi-aska ‘haragia gatzetan luze
 kontserbatzeko aska edo kutxa’:
gazi-aska (“gatzun-aska”)

gazi-kutxa (*gazi-kutxe*) ‘gatzun-as-
 ka’: *gazi-kutxe*.

gazi-kutxe ik. *gazi-kutxa*

gaztainadi (*gaztañegi, gaztañeri*)
 ‘gaztainondoak dauden tokia’:
*gaztañeri ortan bildu tuqu gazta-
 ñek* (“gaztainadi horretan bildu
 ditugu gaztainak”).

gaztaindegi (*gaztandei*) ‘gaztainak
 gordetzeko tokia; hespila’:
gaztaindegie gaztañez betia dugu
 (“gaztaindegia gaztanez betea
 dugu”).

gaztanbera ‘mamia; gatzatua’:
*gaur dugu gaztanbera yatea. Gaztan-
 bera gogotik yateut* (“gaur dugu
 gaztanbera jatea. Gaztanbera
 gogotik jaten dut”); *gaztanbera
 unek badu kizkilurrine*.

gaztandei ik. *gaztaindegi*

gaztañegi ik. *gaztainadi*

gaztañeri ik. *gaztainadi*

gaztekara ‘gazte itxura duena’:
*mendien kusi nuen gizon bat
 gaztekara* (“mendian ikusi nuen
 gizon bat gaztekara”).

Gaztela-haize (*Gaztelaize*) (Izeta)
 ‘hego-mendebaleko haizea’:
Gaztelaiziak maten dio (“Gaztela-hai-
 zeak ematen dio”); *Gaztelaize
 unekin urie* (“Gaztela-haize ho-
 nekin euria”).

Gaztelaize (Izeta) ik. *Gaztela-haize*
gaztietu ik. *gazitigatu*

gazitigatu (*gazitigetu, gazitietu*) ‘jaki-
 tea komeni zaion zerbait norbai-
 ti adierazi’:
gazitigetuko diot (“gazitigatuko diot”);
gure berri ona gazitietu osabai (“gure berri
 ona gazitigatu osabari”); *Londre-
 sa gan zirela? eta gazitietu zuten
 biajiain berri?* (“Londresa joan
 zirela? eta gazitigatu zuten biaje-
 aren berri?”).

gazitigetu ik. *gazitigatu*

gazuntzi ik. *gatzontzi*

gazurtu, *gazur*, *gazurtzen* ‘*gazur bi-
 hurtu*’

gehiago (*geiago, geiao*) 1 ‘aunitz
 zenbaitzale zehaztugabeak -ago
 erkaketa atzizkia lotzen zaione-
 an hartzen duen era’ 2 ‘berriz’
*artan lekutu zen eta etzen geiao
 torri* (“hartan lekutu zen eta ez
 zen gehiago etorri”); *a puta! ez-
 kaitik ez geiao engañatiko!* (“a
 puta! ez gaitik ez gehiago engai-
 natuko!”).

geiago ik. *gehiago*

geiao ik. *gehiago*

gereñu ik. *garaño*

gereta (eta *kereta*) ‘abarrez eta egin-
 dako ate berezia’:
beitiko belaian kereta berrie dugu
 (“beheitiko belaian gereta berria dugu”).

geriza (*kerizu*) ‘babesa’:
*emen kerizu-
 zuen goxo-goxo. Kerizu ona* (“he-
 men gerizan goxo-goxo. Geriza
 ona”).

gernu ‘giltzurrunei darien isurkaria, pixa’: *gernu zikine, eritasunein señale* (“gernu zikina, eritasunaren seinale”); *gernue neketan* (“gernua neketan”).

gernu-debeku ‘gernua ezin egina-
ren eritasuna’: *gernu-debekuek atakatzen du gizona. Gernu-debekue gauze txarra* (“gernu-debekuak atakatzen du gizona. Gernu-debekua gauza txarra”).

gerra ‘bi edo gehiago estaturen arteko arma bidezko borroka (Zugarramurdi eta Urdazubin ‘gerra’ eta ‘gerla’, biak, baina azkena gehiago)’

gerrauntze ik. *gerruntze*

gerren (eta *kerren*) ‘burduntzia’: *zingerra gerrenean erre ginuen* (“xingarra gerrenean erre genuen”); *zingerra kerrenean errea zein ona den. Kerren ona dugu* (“xingarra gerrenean errea zein ona den. Gerren ona dugu”).

gerrontze ik. *gerruntze*

gerruntze (*gerrauntze, gerrontze*) ‘gerria’: *gerrontzea loditu zaizu* (“gerruntzea loditu zaizu”); *gerrauntze lodie* (“gerruntze lodia”).

gertu ‘tentea, lerdena; segaila’: *gizon xaarra baño gertue* (“gizon xa-harra baina gertua”).

gesal ‘haragiari darion ura’: *aragi puske orren gesala aundie da* (“haragi puska horren gesala handia da”).

geztera-harri (*eztera arri*) ‘zorrozta-
rria’: *eztera arrieikin ederki zo-*

rrozten dugu aizkora (“geztera-harriarekin ederki zorrozten dugu aizkora”).

gibel 1 ‘atzea’

gibelean ‘atzean’: *gibelean dago. Gibelean gelditu zen.*

gibelera ‘atzera’: *gan zaitte gibelera* (“joan zaitetz gibelera”).

gibelat ‘atzera’ *etzazule gibelat in* (“ez ezazula gibelat egin”).

gibeletik ‘atzetik’: *zu beti gibeletik, beti ondarra* (“zu beti gibeletik, beti hondarra”).

gibel 2 ‘sabel barneko erraia’: *gibelean min dut.*

gibel 3. ‘alferra’: *horren gibela! gibel ederra du orrek!*

gibelalde ‘atzealdea’: *zer duzu gibelaldean? Etxeain gibelaldea* (“etxearen gibelaldea”).

gibelatu (*gibeldu, gieldu*) ‘atzeratu’: *erleju unek gibelatzen du* (“erloju honek gibelatzen du”); *gibeltzen du* (“gibelatzen du”); *gieltzen du* (“gibelatzen du”). Baztanen hirurak erabiltzen badira ere, gehienek *gibelatu* erraten dute.

gibeldu ik. *gibelatu*

gibelka ‘atzeraka; gibelatuz’: *gibelka ez, zu segi aitzinet* (“gibelka ez, zu segi aitzinat”); *gibelka ai zara* (“gibelka ari zara”).

gibelondo ‘norbaitek lan handia egiten duenean erraten dena’: *gibelondo aundiko gizona* (“gibelondo handiko gizona”); *gizon orrek gibelondo ederra in du* (“gizon horrek gibelondo ederra egin du”).

gibelraia (*gibelraie*) ‘urdailaren atzealdeko txegoste aparatua, pankreasa’

gibgelraie ik. **gibelraia**

gida (*gie*) 1 ‘gidaria’. 2 ‘landareei-eta, zuzen hazteko jartzen zaien ziria’

gidari (*gieri*) *zu zara gure gieri* (“zu zara gure gidari”); *gieri ona dugu, ezkara galduko* (“gidari ona dugu, ez gara galduko”).

gider (*kider*) ‘kirtena’: *aitzur kiderra autsi zait. Zartañe beti kiderretik artu bear da* (“aitzur giderra hautsi zait. Zartagina beti giderretik hartu behar da”).

gie ik. **gida**

gieldu ik. **gibelatu**

gieri ik. **gidari**

giltxaur ik. **intxaur**

giltxaurdi ‘intxaurdia; intxaustia’. Elizondon bada leku bat *Giltxaurdi* deitzen dena.

giltxurrin ik. **giltzurrun**

giltza 1

giltza eman ‘giltzatu’: *emaio-zu giltza ateari*.

giltza 2 (argiarena)

giltzari eman ‘argia piztu edo itzali’: *emaiozu giltzari*.

giltza 3 *atea beti giltzeikin etsi bear da* (“atea beti giltzarekin hertsu behar da”). Zugarramurdin eta Urdazubin gehiago ibitzen da ‘gako’ hitza.

giltzarri ‘arkua hersten duen harri nagusia’: *giltzarri oi ongi ine da-*

go (“giltzarri hori ongi egina dago”).

giltzatu (*giltzetu*) ‘giltzarekin hertsu’: *ate oi giltzetue dago* (“ate hori giltzatua dago”). Zugarramurdin eta Urdazubin, ‘gakotu’.

giltzetu ik. **giltzatu**

giltzurrun (*giltxurrin*) *giltxurrinek arras ondatuek dauzke* (“giltzurrunak arras hondatuak dauzka”).

girbin (eta *girbun*, *girbuñe*) ‘binperra; ehunki eta hainbat gauzatan, gibleko aldea, aurkia ez dena, ifrentzua’: *oial unen girbiñe au da. Au girbiñe ta au aurkie* (“oihal honen girbina hau da. Hau girbina eta hau aurkia”); *girbuñe* (“girbina”).

girbindu 1 *da ad.* ‘haserretu, ozpindu’: *girbindu dire elkarren artian* (“girbindu dira elkarren artean”). 2 ‘haserretua’: *lenago adiskide zirenak, orai arras girbinduek* (“lehenago adiskide zirenak, orain arras girbinduak”).

girbun ik. **girbin**

girbuñe ik. **girbin**

girgilleri ‘apaingarriak; bitxikeriak’: *ainbertze girgilleri zertako? Girgilleri sobera* (“hainbertze girgileria zertarako? Girgileria sobera”).

gisa (*gise*)

-en gisako *Patxiren gisekoa da arront* (“Patxiren gisakoa da arrunt”).

-en gisa postpos. *zure gise iten tu unek gauzek* (“zure gisa egiten ditu honek gauzak”).

-en gisan postpos. *gauze oyek zuen gisen in biartuze* (“gauza horiek zuen gisan egin behar dituzue”).

-en gisara postpos. *amain gisera mintzo da* (“amaren gisara mintzo da”).

gise ik. *gisa*

gisu (*kisu*) ‘karea’: *kisue ona da. Kisu aunitz man diogu* (“gisua ona da. Gisu aunitz eman diogu”).

gisu-harri (*kisu-harri*) ‘karraria’: *Mendi zoko ortan bada kisu-arrie. Kisu-arri ona.* (“Mendi zoko horretan bada gisu-harria. Gisu-harri ona”)

gisu-gesal (*kisu-gesal*) ‘karegesala’: *Ez ukitu eskuekin kisu-gesala.* (“Ez ukitu eskuekin gisu-gesala”)

gisu-labe (*kisu-labe*) ‘karo-bia’: *Baztango kisulabiak ondatu dire. Gure etxeko kisulabia ederra da.* (“Baztango gisu-labeak hondatu dira. Gure etxeko gisu-labea ederra da”)

gisutu (*kisutu*) ‘gisua bota’: *gure landa kisutu dugu* (“gure landa gisutu dugu”).

gizakunde (*gizekunde, izekunde*) ‘in-aute aitzineko ortzeguna’. Aspaldiko denboretan Gizekunde egunean gizonak besta egiten zuten. Izekunde ere erraten zen.

gizalur (*gizelur*) ‘Baztanen erabiltzen den lur-neurria; gizalana’: *nere landak batu zortzi gizelur* (“nire landak baditu zortzi gizalur”). Gizalurrak 374m2ko balioa du. ‘Robada’ batek $\pm 2,6$ gizelur (8

area eta 98 centiarea). ‘Hectarea’ batek 26-27 gizelur.

gizaseme (*gizeseme*) ‘gizonezkoa; gizaki arra’: *gizeseme ederra nere alabain senarra* (“gizaseme ederra nire alabaren senarra”).

gizekunde ik. *gizakunde*

gizelur ik. *gizalur*

gizen 1 ‘lodia’. 2 ‘haragiaren gantza, koipea’. 3 ‘erraz pipiatzen den zuraren partea’

gizenkara ‘pixka bat gizena dena, lodiskoa’: *gizenkara du semia* (“gizenkara du semea”).

gizeseme ik. *gizaseme*

gizonketari ‘gizonak maite dituen neska’: *gure auzoko neska au gizonketarie da* (“gure auzoko neska hau gizonketaria da”); *erri ortako neska geienak gizonketariek* (“herri horretako neska gehienak gizonketariak”).

gizonki ‘gizasemea’: *yende aunitz bazen, batez ere gizonkie* (“jende aunitz bazen, batez ere gizonkia”).

gizon mamorro (*gizon mamurru*) ‘gizon iluna’: *au gizon mamurru!* (“hau gizon mamorroa!”).

gizon mamurru ik. *gizon mamorro*

goaitu ik. *gogaitu*

goale ik. *joare*

goan ik. *joan*

goare ik. *joare*

goarrapi (Izeta) ik. *kuarrazpi*

goartu ik. *ohartu*

goatze ik. *ohatze*

goatze karrotona ik. *ohatze karrotona*
goatzestalki ik. *ohatzestalki*

goazama ik. *ugazama*

gogaitu (*goaitu*) ‘aspertu’: *orren so-*
lasak goaitu gaitu.

gogo: *gango du; ingo du* (“joan go-
 go du; egin gogo du”).

gogor (*gor, goor*) 1 ‘amore ematen ez
 duena, beratza edo bigunaren
 kontrakoa’: *burdine baño goo-*
rragoa (“burdina baino gogorra-
 goa”). 2 *larderie gogorra du la-*
neko (“larderia gogorra du lane-
 ko” = ‘larderia handia’); *trenpe*
gorrian torri zen (“trenpu gogo-
 rrean etorri zen” = ‘trenpu han-
 dian’). 3 ‘izugarria; gauza han-
 dia adierazteko erabiltzen dena
 maiz’: *besta gorrak! Yende gorra*
bildu zen (“besta gogorak! Jen-
 de gogorra bildu zen”).

gogorarazi (*gogorazi*) *etzen oroitzen*
baño gogorazi diote (“ez zen
 oroitzen baina gogorarazi diote”).

gogorazi ik. *gogorarazi*

gogorki (eta *gorki*) 1 ‘arras’: *gorki*
polite da. Gorki ongi dago (“go-
 gorki polita da. Gogorki ongi
 dago”). 2 ‘nahiko’: *aitu dugu*
gorki ongi dagola (“aditu dugu
 gogorki ongi dagoela”); *ezpaitut*
gorki maite (“ez baitut gogorki
 maite”). 3 ‘sobera’: *ez gogorki!*
 (= ‘ez sobera’).

gogortu da/du ad. ‘gogor bihurtu,
 gogortasuna hartu’

gogortua izan ‘zaulitasuna galdu’:
azken aldiunten arras gogortue
naiz (“azken aldi honetan arras
 gogortua naiz”).

gogotik (eta *gootik*) ‘gogoz’: *gootik*
gaten dire eskolara (“gogotik jo-
 aten dira eskolara”).

goibel (eta *goiber*) 1 ‘iluna’: *goibel*
dago. 2 ‘hodeia’: *badire goibelak*
 (“badira goibelak”). 3 ‘zerua goi-
 bel ilunekin dagoenean ekaitza-
 ren seinale’: *goiberra ta ilun,*
erauntsi gaixto bat inen du
 (“goibela eta ilun, erauntsi gaiz-
 to bat eginen du”); *goiberra bel-*
durgarrie (“goibela beldurga-
 rria”).

goibeldu ‘goibelekin ilundu’: *goibel-*
du du. Azkenean goibelduko du
denbora unek.

goibelmurru (Izeta) ‘cumulus-a, ho-
 dei trinkoa, mendi erakoa, den-
 bora ona denean agertu ohi de-
 na’: *goibelmurru ikeragarriek ze-*
ruen (“goibelmurru ikeragarriak
 zeruan”).

goiber (Izeta) ik. *goibel*

goiti ‘goia, gora’: *zazi goitire* (“zoaz
 gotira”); *goitien dago* (“goitian
 dago”); *zu beti goiti* (“zu beti
 goiti”); *goititik torko da* (“goititik
 etorriko da”); *goitiko aldian bizi*
de (“goitiko aldean bizi da”);
emen naile goiti te beiti, beñere
ez il, baño arriskuen beti (“he-
 men nabil, goiti eta beheiti, be-
 hin ere ez hil, baina arriskuan
 beti”).

goiti-beheiti (*goitibeiti*) ‘gora
 behera’: *guti goitibeiti hamar*
bat urte tu (“guti goiti-beheiti
 hamar bat urte ditu”).

goitixagotto ik. *goitixeagotto*

goitixeagotto (*goitixagotto*) ‘pixka-
 pixka bat goitiago’: *goazen goiti-*

- xagotto* (“goazen goitixeagotto”); *borda zarra goitixagotto da* (“borda zaharra goitixeagotto da”).
- goitiar** ‘mendian, bordan, bizi dena; gaindarra’: *gaur goitiar aunitz errien* (“gaur goitiar aunitz herrian”); *goitiarrak torri dire* (“goitiarrak etorri dira”).
- goitigale** ‘goragalea’: *goitigaleakin nago. Goitigale izigerrie* (“goitigalearekin nago. Goitigale izugarria”).
- goitika** (*goitike, goitikeka*) ‘oka egiten’: *gure aurre goitike aizena da. Egun guzian goitike, eztago ongi* (“gure haurra goitika ari izana da. Egun guztian goitika, ez dago ongi”); *goitikeka ai de atsalde osoan* (“goitikaka ari da arratsalde osoan”).
- goitika egin** (*goitike in*)
- goitike* ik. **goitika**
- goitike in* ik. **goitika egin**
- goitikeka* ik. **goitika**
- goitisko** ‘aski goiti’: *goitisko gana da* (“goitisko joana da”).
- goititu** ‘goratu, jaiki, zutitu’
- goiz** [Erranahiruak]: *goiz negu, bi negu. Etzara zu gero atzo goizeko bildotsa.*
- goldarma** (Izeta) ‘landare arantzaduna’: (Aniz) *gure belaian bada ainbertze goldarma* (“gure belaian bada hainbertze goldarma”).
- golde-soka** ‘goldearen soka berezia’: *golde-soka autsi zaiku* (“golde-soka hautsi zaigu”).
- goloso** ‘jalea, bereziki gauza gozo eta gozokien jalea’
- gongar** (Gorosurreta) ‘zintzurrertzea’
- goor* ik. **gogor**
- gootik* ik. **gogotik**
- gopor** (*opor*) ‘zurezko ontzia’: *esnea oporrean artzeut. Esnea oporrean goxoa da* (“esnea goporrean hartzen dut. Esnea goporrean goxoa da”); (*opor* erraten da Bidasoa osoan eta Larresoro alde-raino gutienez).
- gor* ik. **gogor**
- goragune** ‘goitasuna’: *Baztango mendietan goragune aundiena Saioak dauke* (“Baztango mendietan goragune handiena Saioak dauka”).
- goraintzi** (gehienetan pl.) ‘eskuminak’: *goraintziek osabai* (“goraintziak osabari”); *Baztan aldetik mileka goraintzi* (“Baztan aldetik milaka goraintzi”).
- gorape** ‘aterpea’
- gorapen** ‘ilgora; goraldia’: *etzi gorapen. Mutil luzea, gorapenean sortu izein de* (“mutil luzea, gorapenean sortu izanen da”).
- goratu** 1 ad. 1 ‘goititu’: *bi besoekin goratu zuen arri kozkor ure* (“bi besoekin goratu zuen harri kozkor hura”). 2 ‘mahaia bildu’: *goratiko duze maaie, untzi oiek garbitu bear baititut?* (“goratuko duzue mahaia, ontzi horiek garbitu behar baititut?”). 3 ‘kendu’: *karneta goititu omen diote guardiek. 2 izond 1 ‘goititua, (mahaia) bildua, (karneta) kendua. 2*

'haserre': *arront goratue daile azken aldiotan, norabaiteratue* ("arunt goratua dabil azken aldiotan, norabaiteratua").

gorgoilo (Gorosurreta) 'oiloaren butxea'

gorgoin 'zaburua; zabua': *gorgoin bat erosi dugu. Gorgoñe polite* ("gorgoin polita").

gorgoinetan (*gorgoñetan*) 'zabuka; kulunkaka': *gure aur oiek gorgoñetan dabilte* ("gure haur horiek gorgoinetan dabilte").

gorgoñetan ik. **gorgoinetan**

gorki ik. **gogorki**

gorotz (*kogotz*) 'zimaurre': (Aniz) *gure belaian kogotza auserki* ("gure belaian gorotza ausarki").

gorputz mandel 'balدارra': *a ze gorputz mandela duzun!* ("a zer gorputz mandela duzun!").

gorrikara 'gorrixta, gorri kolorekoa': *korбата gorrikara batekin torri zen.*

gorrina (*gorrine*) 'elgorria': *gure aurre gorrinekin daukegu* ("gure haurra gorrinarekin daukagu").

gorrine ik. **gorrina**

goringo 1 'arrautzaren barneko gai gorrixka'. 2 'ziza mota bat, arras preziatua'

gortxinga (*lortxinge, urtzinge*) 'hodeien arteko argiunea': *gaur lortxinge dugu* ("gaur gortxinga dugu"); *au iduzki urtzinge beroa!* ("hau eguzki gortxinga beroa").

gortxingatu (*lortxingetu*) 'hodeien artean argiuneak sortu': *ziarrai-*

zetik, atsaldean lortxingetzen du. ("zehir-haizetik arratsaldean gortxingatzen du")

gosalaitzin 'gosalaurrea': *gosalaitzinean aurpeie garbitu. Gosalaitzine* ("gosalaitzinean aurpegia garbitu. Gosalaitzina").

gosta ik. **kosta**

gostatu ik. **kostatu**

gozoki 'modu gozoan'

graban ik. **braban**

grima ik. **grina**

grime ik. **grina**

grina (*grima, grime*) 'batak bertzeari gorrotoa edo ezin ikusia dionean': (Aniz) *oiek elkarren artean dauketen grime, izigerrie da. Grime aundie* ("horiek elkarren artean daukaten grina, izugarria da. Grina, handia").

guan ik. **joan**

guarda 'mugazaina'

guardasol 'aterkia' *a ze alderdie!*: *erauntsie pastu ondoan guarda-sola edatu*

quazama ik. **ugazama**

gurasoak (*guratsoak*) 'aita eta ama, aita-amak'

guratsoak ik. **gurasoak**

guren 'osasuntsua': *a ze mutiko gurena!* ("a zer mutiko gurena!"); *landare gurenak gure baratzean.*

guri 1 'leuna eta biguna': *zein guri dagon goatze au* ("zein guri dagoen ohatze hau").

guri 2 ik. **gurin**

gurin (*guri*) ‘esne-gaina joz ateratzen dena’: *etxean iten dugu gurie. Esne onakin guri ona* (“etxean egiten dugu gurina. Esne onarekin gurin ona”).

gurutzefikatu (*gurutzifikatu*) (Etxenikek bildua *gurutzifikatu* gisa, hala ibiltzen da egun ere).

gurutzifikatu ik. **gurutzefikatu**

guterma ik. **kuterma**

guti ‘gutxi’

guti goiti-beheiti (*guti goiti-beiti*) ‘gutxi gorabehera’: *guti goitibei-ti, unek 10 bat euro balioko du*

(“guti goiti-beheiti, honek hamar bat euro balioko du”).

guti goitibeiti ik. **guti goiti-beheiti**

gutizi ‘gogo bizia; guraria’: *badauket gutizie. Gutizie bai, baño ezin erdietsi* (“*badaukat gutizia. Gutizia bai, baina ezin erdietsi*”).

guzi ‘guzti’: *au guziau bilduko du* (“hau guzi hau bilduko du”); *ok guziok leitu bar tuzu* (“hauek guzi hauek leitu behar dituzu”); *atsalde guziz egoten da an* (“atsalde guziz egoten da han”).

H

habarte (*abarte*) ‘habe artea, etxe baten habe arteko hutsunea’: *etxeai abarte bat erori zaio* (“etxeari habearte bat erori zaio”).

habe (*abe*) ‘ilarrak edo babarrunak goiti egin dezan paratzen den makila fin eta luzexka’: *ezpelak dire abe oberenak* (“ezpelak dira habe hoberenak”).

habetu (*abatu, abetu*) ‘habeak paratu eta horren bidez zerbaiti eutsi’: *borda au abatzen ezpada laster lurrean dugu. Abatu ongi* (“borda hau habetzen ez bada laster lurrean dugu. Habetu ongi”).

habia (*kafi*) *kardelinek ortxe du bere kafie* (“kardelinak hortxe du bere habia”).

haga (*aga*) ‘makila luze eta lodia, batez ere gaztainadietan gaztainak husteko ibiltzen dena’: *aga*

luze ta azkarra bear izeten dugu gaztañerien (“haga luze eta azkarra behar izaten dugu gaztainadian”).

haginka (*aginke*) ‘zer edo zer eskaintzen’: *or ai dire aginke* (“hor ari dira haginka”); *aginke ta inork ez nai* (“haginka eta inork ez nahi”).

hain (*ain*) 1 ‘halako mailan’ *ez da ain aundie* 2 ‘alaen’: *gogo aundie, ain gogo aundie!* (“gogo handia, hain gogo handia!”)

hainbatean (*ainbatean, ainbetian, anbatean*) ‘hala-hola, ez gaizki ez ongi’: *hanbatean gaude* (“hainbatean gaude” = ‘nahiko ongi gaude’); *gure erie gaur anbatean dago* (“gure eria gaur hainbatean dago”); *anbatean*

gan zinen? (“hainbatean joan zinen?” = ‘ongi joan zinen?’).

hainbateko (*anbateko*) ‘oso handia’: *anbateko ostikoa man zion* (“hainbateko ostikoa eman zion”).

hainbat gaizto (*amagaxto*) ‘orduan eta okerrago’: *gaizki in duzu? Amagaxto zuretako* (“gaizki egin duzu? Hainbat gaizto zuretako”).

hainbertze (*ainbertze*) ‘hainbeste’: *ainbertze urtez eri* (“hainbertze urtez eri”); *ainbertze yende etxian* (“hainbertze jende etxean”).

haizatu (*aizetu*) ‘puztu, haunpatu’: *aizetu beaut autoain zirrike* (“haizatu behar dut autoaren xirrika”).

haize (*aize*) [erranahiruak] *norat aize, arat aise. Goiz gorri, aize edo uri.*

ipar haize (*iper aize*)

haize hego / hego haize (*aizego / egoaize*) *gaur aizegoa, intzileriek konten* (“gaur haize-hegoa, ihizilariak konten”).

eguzki haize (*iduzki aize*)

kostako haize ‘Ipar haizea’

zehir haize (*zear aize; zia-rraize*)

haizeti ‘haizetsu’: *iduzki aizeti neguen, orma seguro* (“eguzki haizeti neguan, horma seguru”).

halabehar (*alabear*) ‘patua, saihestu ezin dena’: *zer inen dugu, alabearra* (“zer eginen dugu, halabeharra”).

halala (*alala*) ‘dagoen moduan, aldaketa gabe’: *gaizki arpatu dugu*

eta alala utzi dugu, etzen mugitzen ere (“gaizki harrapatu dugu, eta halala utzi dugu, ez zen mugitzen ere”).

hamaika (*ameka*) 1 ‘hamar eta bat’: *or ameka sartzen dire, ez geioo ez gutiao* (“hor hamaika sartzen dira, ez gehiago ez gutiago”). 2 ‘hainbertze’: *ameka aldiz erran diot baño ez dat kasuik iten batre* (“hamaika aldiz erran diot, baina ez dit kasurik egiten batere”).

handiago (*aundiago, aundiagoko*)

handien (*aundien*): *aundienez bi ilabetegoin da, ez geiao* (“handienez bi hilabetez egonen da, ez gehiago”).

handikara (*aundikara*) ‘nahiko handia’

handikutun (*aundikutun*) ‘handinahia’: *au neska aundikutune* (“hau neska handikutuna”); *auzo ortan denak aundikutunek* (“auzo horretan denak handikutunak”).

handimandi (*aundimendi*) ‘handikia, jauntxoa (gaitzesgarria)’: *aundimendi oien etxetan ongi bizi dire* (“handimandi horien etxetan ongi bizi dira”).

handisko (*aundisko*) ‘handitxoa’

handitsu (*aunditsu*) ‘handitua, zaldarra (haragian sortzen dena)’: *baut lepoan aunditsue. Aunditsu zikine* (“badut lepoan handitsua. Handitsu zikina”).

handiuste (*aundiuste*) ‘harroa’: *gizon aundiuste oiekin kasu man*

- (“gizon handiuste horiekin kasu eman”).
- handixko** (*aundixko*) adkor.
- hanka-motz** ‘maingua’
- hanpatu** (*aunpetu*) ‘puztu’: *mazela aunpetu zait* (“mazela hanpatu zait”); *nola aunpetu zaion zorroa* (“nola hanpatu zaion zorroa”); *ai zaio bizkorki zangua aunpetzen*.
- hantu** (*auntu*) ‘puztu’: *besoa auntu dut* (“besoa hantua dut”); *kaska bat artu ta auntu* (“kaska bat hartu eta hantu”).
- hantura** (*aunture*) ‘handitzearen ekintza eta ondorioa’: *besoan kaska artu ta anbateko aunture in zaio* (“besoan kaska hartu eta hainbateko hantura egin zaio”).
- hantxe** (*antxe, antxen*) *antxe arat bota zuen* (“hantxe harat bota zuen” = ‘golpean, urrun... bota zuen’).
- hantxetik** (*antxetik*) ‘handik beretik’
- harabehi** (*arapei*) ‘haragitarako hazten den behia’: *bei arapeie arakinei saldu diogu* (“behi harabehia harakinari saldu diogu”).
- harakai** (*arakai*) ‘haragitarako gizendu den ardia’: *ardi oiek arakai. Denak arakai* (“ardi horiek harakai. Denak harakai”).
- harakindeg** (*arakindei*) *arakindeien erosteut zerrikie* (“harakindegian erosten dut zerrikia”). Ez da hitz arrunta Baztanen, baina Arraiozen bildu dugu).
- haratago** (*aratago*) ‘harago’: *aratago gan bearko dugu* (“haratago joan beharko dugu”).
- harateko** (*arateko*) ‘hango’: *gure semeiak errekein arateko aldian in du etxia* (“gure semeak errekaen harateko aldean egin du etxea”).
- harbete** (*arbete*) ‘pareta akitzean paratzen den harria’: *pareta gañeko arbete oiek ongi inek dire* (“pareta gaineko harbete horiek ongi eginak dira”).
- hardit** (*ardit*) ‘ausarta’: *Maritxu mazteki ardite* (“Maritxu emazteki har-dita”).
- hareatu** (*aregatu*) ‘objektuak harearekin edo legarrarekin harraskatuz garbitu’: *aregatu ongi sukaldoko sorallue* (“hareatu ongi sukaldoko solairua”).
- hare-harri** (*aregarri*) ‘sukaldea garbitzeko-eta ibiltzen harri xehea’
- harengatik** (*aingatik, aingetik*) ‘hori dela eta’: *aingetik torri zara neregana* (“harengatik etorri zara niregana”).
- harilkai** (*aikeri*) ‘harilkatzeko tresna’: *ailkeri berrie erosi dugu* (“harilkai berria erosi dugu”).
- harilketan** (*ailketan*) ‘harilka’: *gure neskatikoa ederki ari da ailketan* (“gure neskatikoa ederki ari da harilketan”).
- harilko** (*ailko*) ‘haria bilduz egindako bola, harila’: *ailko aundie in duzu* (“harilko handia egin duzu”).
- haritz-besanga** (*aritz besanga*) ‘haritza-ren adar lodia, handia’: *aritzondo orrek besanga ederrak tu* (“haritzondo horrek besanga ederrak ditu”).

- harkadi** (*arkadi*) ‘harri edo harkaitz aunitz dagoen tokia’: *mendi oi eztut maite, dena arkadie da* (“mendi hori ez dut maite, dena harkadia da”).
- harpe** (*arpe*) ‘haitz-ziloa, lezea’: *Arpeko Saindue Bidarraiko dermioan dago. Arpe orrek izen aundie du* (“Harpeko Saindua Bidarraiko dermioan dago. Harpe horrek izen handia du”).
- harpe-zilo** (*arpezilo*) ‘harpea’: *arpe-zilo batean sartu ginen* (“harpe-zilo batean sartu ginen”).
- harrapatu** (*arpatu*) ‘harrapatu, aurkitu, bildu’: *ainbertze onddo arpatutuzte bordain inguruen* (“hainbertze onddo harrapatu dituzte bordaren inguruan”); *laxterka arpatu ginuen gibeletik* (“lasterka harrapatu genuen gibeletik”); *arpatut galdu nuena* (“harrapatu dut galdu nuena”); *arpatu ‘te lapurre* (“harrapatu dute lapurra”). Baztanen ‘harrapatu’ (*arpatu*) ibiltzen da arruntean ‘aurkitu’ errateko. Hala ere, M. Izetak erraz ibiltzen du ‘aurkitu’, eta hiztunen bati ere bildua diogu, Lekarozen: *baño bord’ortan kuste u[t] nik oi... orren biar aurkitiko direla* (“baina borda horretan ikusten dut nik hori... horren behar aurkituko direla”).
- harri-erauntsi** (*arri-erauntsi*) ‘harri-erasoa’: *anbateko arri-erauntsie in du. Arri-erauntsi bortitze in daku* (“hainbateko harri-erauntsia egin du. Harri-erauntsi bortitza egin digu”).
- harrikonko(n)** ‘persona bat bizkarean eramatea’: *arrikonko karri nuen* (“arrikonko ekarri nuen”); *gure gizona arrikonko karri ginuen* (“gure gizona arrikonko ekarri genuen”).
- harrikor** ‘harritzen dena’: *gure beorra arrikorra da* (“gure behorra harrikorra da”).
- harrotu** (*arrotu*) *papera arrotzen ari da*.
- hartako adina** (*artako adine*) ‘zerbait, aldika’: *guti ibiltzen da itz oi... artako adine bai, baña guti ibiltzen da bertzenaz*.
- hasbeherapen** (*asperapen*) ‘hasperena’: *asperapen bat in zuen* (“hasbeherapen bat egin zuen”); *asperen aundie* (“hasbeherapen handia”).
- haserretu** (*aserretu*) ‘infektatu’: *asertu zait beatza*.
- has-has** (*asas*) ‘neguan, eta hotz egiten duenean, arropa gutxirekin dabilena’: *otz unekin ola zabiltze asasa* (“hotz honekin horrela zabiltza has-hasa”); *bai asasik nabile* (“bai has-hasik nabil”).
- hasi** (*asi*) *ziriken asi ziren*.
- hasmenta** (*asmenta*) ‘hasiera’: *gure lanai asmenta man diogu* (“gure lanari hasmenta eman diogu”).
- hasperen** (*asperen*) *olaxe bota zuen azken asperena* (“holaxe bota zuen azken hasperena”).
- hats** (*ats*) ‘arnasbeheran biriketatik botatzen den airea’: *atsik ezin artuz gelditu nitzen* (“hatsik ezin

- hartuz gelditu nintzen”); *atsa ttipitu zait; atsa purditik atra urrena*.
- hatsa kexu ‘arnasa neketan’: *atsa kexu dauke, atsa ezin artuz* (“hatsa kexu dauka, hatsa ezin hartuz”).
- hatsankatu** (*atsankatu*) ‘nekearen ondorioz arazoak izan arnasa hartzeko’: *laxterka torri naiz ta arras atsankatue* (“lasterka etorri naiz eta arras hatsankatua”).
- hatsartu** (*atsartu*) ‘arnasa hartu’: *laxterka atsartu gabe* (“lasterka hatsartu gabe”); *lanean atsartu gabe* (“lanean hatsartu gabe”).
- hatz** (*atz*) ‘eritasun mota bat, hazterria’: (Ultzaman ere) *gure errian edatu da atza. Atza txarra da* (“gure herrian hedatu da hatza. Hatza txarra da”).
- hauek** (*ok*) ‘erakuslea’: *ok dire nere aixkidiak* (“hauek dira nire adiskideak”) • **hauen** (*oken*) *oken laune naiz* (“hauen laguna naiz”) • **hauetan** (*otan, oketan*) *egun otan gaizki nabile* (“egun hauetan gaizki nabil”); *leku oketan ezta gauze onik* (“leku hauetan ez da gauza onik”).
- haurkara** (*aurkara*) ‘haurra bezalako’: *gizon oi arras aurkara da* (“gizon hori arras haurkara da”) (Baina ezin da esan **gizon oi umekara da*).
- haurkeria** ‘umekeria’: *etzazule olako aurkerik in. Aurkerie iten duenak eztu gizonki yokatzen* (“ez eza-zula horrelako haurkeriarik egin. Haurkeria egiten duenak ez du gizonki jokutzen”).
- haurride** (*aurride*) (pl.) ‘anai-arrebak, senidea’: *aurride guziek bildu ginen* (“haurride guztiak bildu ginen”); *elkar maite aurride onak bezala* (“elkar maite haurride onak bezala”).
- haurtu** (*aurtu*) ‘haur bihurtu’: *andre hori arront aurtue duzu* (“andre hori arrunt haurtua duzu”); *aurtue dago* (“haurtua dago”); *aurtu da* (“haurtu da”).
- haur-xatar** (*aur-xatar*) ‘haur-oihala’: *aur-xatar oiek garbitu bear dire* (“haur-xatar horiek garbitu behar dira”). Sin. **xatar**
- hausbero** (*ausbero*) ‘sua egin ondoren itzali gabe gelditzen den errautsa’: *ausbero ortan erre nuen eskue* (“hausbero horretan erre nuen eskua”).
- hausnarrean** (*esneorrien*) ‘abereak janaria murtxikatuz’: *gure bei gorrie esneorrien. Idi beltza ere esneorrien* (“gure behi gorria hausnarrean. Idi beltza ere hausnarrean”).
- hauspo** (*ausko*) ‘suari haize emateko tresna’: *auskoakin aizeman. Ausko ona dugu* (“hauspoarekin haize eman. Hauspo ona dugu”).
- haustegi** (*austei*) ‘errautsa gordetzeko tokia’: *austeie autsez betea dugu* (“haustegia hautsez betea dugu”).
- hauta** (*aute*) 1 ‘aukeratzekoa’: *emen baizu non auta* (“hemen baduzu non hauta”). 2 ‘paregabea’: *ardo ona, aute!* (“ardo ona, hauta!”); *aute da yateko* (“hauta da jateko”).

- hautagarri** (*autegarri*) ‘aukeragarria’: *auteskundetan anaie ginen autegarri* (“hauteskundetan anaia genuen hautagarri”).
- hautan** (*auten*) ‘aukeran’: *ardiek auten saldutut* (“ardiak hautan saldu ditut”).
- hautatu** (*autetu*) ‘aukeratu’: *txarrena autetu duzu* (“txarrena hautatu duzu”); *autetu au* (“hautatu hau”); *zuk oberena autetu* (“zuk hoberena hautatu”).
- hauteman** (*auteman*) ‘sumatu’: *auteman dut ardi beltza falta dela* (“hauteman dut ardi beltza falta dela”).
- hautetsi** (*autetsi, autestu*) ‘atzeman; erreparatu’: *autetsi zinuen ni falta nitzela* (“hautetsi zenuen ni falta nintzela”); (Aniz) *autestu nuen* (“hautetsi nuen”).
- hauts** (*auts*) ‘Baztanen hauts-ari errauts deitzen zaio eta errauts-ari hauts’: *autse belaire botatzen dugu* (“hautsa bela-ira botatzen dugu”). *Etxeko sue obe da autsez estaltzia* (“etxeko sua hobe da hautsez estaltzea”).
- Hauts-egun** (*Auste-egun, Autsegun*) ‘Hausterre-eguna’: *Austegune da, denak autse artzera, gaur asten baite Garizume* (“Hauste-eguna da, denak hauts hartzera, gaur hasten baita Garizuma”).
- hautsi** (*autsi*) ‘apurtu’: *autsie kontuen du autoa* (“hautsia kontuan du autoa” = ‘autoa hautsia du’)
- hazgale** (*azkale*) ‘azkilea, azkura’: *bizkerrian azkale aundie* (“bizkarrean hazgale handia”).
- hazgaleka** (*azkaleka*) ‘hazkaka, arrakaka’: *azkaleka*.
- hazi** (*azi*) [erranahiruak] *San Mark, azie balin bauk emak* (“San Markos, hazia baldin baduk, emazak”); *esne gañetan azie; umeak azi, nekeak bizi*.
 eskutik hazi ‘etxean hazten den animalia, janaria ahora emanetz’: *urtero azten dugu bildots bat eskutik* (“urtero hazten dugu bildots bat eskutik”).
- hazkaka** (*azkaka*) ‘arraskatuz’: *zortzi egun azkaka pastu nituen* (“zortzi egun hazkaka pasatu nituen”). Sin. *azkileka*
- haztaka** (*aztaka*) ‘zerbait harrapatze-ko-edo, eskuko behatzekin ingurukoa ukitu, haztamuka’: *aztaka ibili nitzen itsue bezala* (“haztaka ibili nintzen itsua bezala”).
- haztamuka** (*aztamuka*) ‘ikusi ezean, ukimenaren bidez gidatzea’: *azta-muka ibili ginen, deus kusi gabe* (“haztamuka ibili ginen, deus ikusi gabe”).
- haztatu** (*aztatu*) ‘ilunpean ukituz ibili’: *ilunpetan aztatu ta arpatu nuen bear nuena. Ongi aztatu ta ondoan* (“ilunpetan haztatu eta harrapatu nuen behar nuena. Ongi haztatu eta ondoan”).
- hebaindu** (*ebaindu*) (Izeta) ‘ahuldu; makaldu’: *lenago indertsu, orain ebaindue nago* (“lehenago indartsu, orain hebaindua nago”); *ebaindu, inderrak ganak* (“hebaindu, indarrak joanak”).

- hedaka** (*edaka*) ‘zabaltzen’: *besoak edaka ai de* (“besoak hedaka ari da”).
- hede** (*ede*) ‘uhala, bereziki idiak uz-tarriari lotzekoa’: *ediakin ongi lotu. Edia arront ondatue dago* (“hedearekin ongi lotu. Hede arunt hondatua dago”).
- hegal** (*egal*) ‘hegoa’: *lertxuñek egalak luze ixetentu* (“lertxunak hegalak luze izaten ditu”); *uso orrek egal bat autsie du* (“uso horrek hegal bat hautsia du”).
- hegaldaka** (*egaldaka*) ‘hegaka, hegan egiten, hegaldan’: *egaldaka mendixka orren gañetik* (“hegaldaka mendixka horren gainetik”).
- hegaldan** (*egaldan*) ‘hegan, hegan egiten’: *egaldan doazi usoak* (“hegan doaz usoak”).
- hegaldatu** (*egaldatu*) ‘hegoen bitartez airean higitu’: *egaldatu dire usoak. Egaldatu ta egaldaka doazi* (“hegaldatu dira usoak. Hegaldatu eta hegaldako doaz”).
- hegalpe** (*egalpe*) ‘hegalaren azpia’: *egaztin orrek egalpean du burue* (“hegazti horrek hegalpean du burua”).
- hegatz** (*egatz*) ‘teiltuaren erlaitza’: *gure tellatuek egatz ederra du. Egatz ederra* (“gure teiltuak hegatz ederra du. Hegatz ederra”).
- hegazti** (*egaztin*) *urriko ilebetean egaztin aunitz* (“urriko hilabetean hegazti aunitz”).
- heia** (*eie, egie*) ‘ukuilua; korta’: (Aniz) *egie berritu dugu* (“heia berritu dugu”).
- helderia** (*elderie, elderio*) ‘izurria’: *zer elderie torri zaikun* (“zer helderia etorri zaigun”); *elderio bortitze* (“helderia bortitza”). Izetak bildua.
- heldu** (*eldu*) 1 ‘etortzen ari’: *mendien barna eldu dire* (“mendian barna heldu dira” = ‘etortzen ari dira, badatoz’). 2 ‘lagunen artean konpondu’: *ez dire batre ongi eldu familien; ongi eldu dire arront elkarren artian* (“ez dira batere ongi heldu familian; ongi heldu dira arunt elkarren artean”). 3 (agur formula): *-bazautzte? -bai, zuek ere eldu?* (“-bazaudete? -bai, zuek ere heldu?”)
- hemen** (*emen*)
hemen berean (*emen berean, emen berian*) ‘hemen, hementxe’
emen berean il zen (“hemen berean hil zen”).
- hemengo aldi**? ‘agurra, norbait etxera-edo etortzen denean-edo egiten dena eta *etorri zara?* edo holako zerbait erran nahi duena’: *-emen-go aldi? -bai, zer diozue zuek?*
- herabe** (*erabe*) (Izeta) ‘beldurtia, ahalketia’: *ni oi iteko, erabe* (“ni hori egiteko, herabe”).
- herdoil** (*erdoil*) 1 iz. ‘herdoildura’
burdinezko katea erdollak yana. Erdolla arras zikine da (“burdinazko katea herdoilak jana. Herdoila arras zikina da”) 2 izond.
arras erdolla da (“arras herdoila da”).
- herdoildu** (*erdoildu*) ‘herdoilak jo’:
kate au erdoildue dago. Erdoildu de (“katea hau herdoildua dago. Herdoildu da”).

- herdoildura** (*erdoildure*) ‘herdoila’: *zokoan egonez erdoildure nausitu zaio* (“zokoan egonez herdoildura nagusitu zaio”).
- heren** (*eren*) ‘ezkila danda berezia’: *erena jo du* (“herena jo du”).
- herenegun** (*erenegu*) ‘atzokoaren aitzineko egunean’: *erenegu il zen* (“herenegun hil zen”); *erenguko gertakizune arras txarra zen* (“hereneguneko gertakizuna arras txarra zen”).
- herrestan** (*errestan*) ‘herrestatuz’: *errestan ibiliute. Errestan ezin xutituz* (“herrestan ibili dute. Herrestan ezin zutituz”).
- hertzarteko** (*ertzarteko*, Gorosurreta) ‘hertzeak kanpotik atxikitzen dituen gantza’
- hertze** (*ertze*) *ertzeak ziletuek tu. Ertzetan ziloa* (“hertzeak zilatuak ditu. Hertzetan ziloa”). [Erranahirua] *gizonak non du inderra? ertzetan, inon ez bertzetan.*
- hertzeitsu** (*ertzeitsu*) *ertzeitsue ziletue dauke* (“hertzeitsua zilatu dauka”).
- hertzeki** (*ertzeki*) *ertzeki pile bat bada emen. Badugu ertzekie* (“hertzeki pila bat bada hemen. Badugu hertzekia”).
- hesi** (*esi*) *esi aundi bet in dugu. Esie intzi denborako* (“hesi handi bat egin dugu. Hesia ihizi denborako”).
- hesola** (*esaul, esaule*) ‘ohol edo zurzko atal lodi eta sendoa, lurrean sartu eta finkatzeko mutur puntadun bat duena, zutoina’: *etsi bear dugu belaie esaulekin* (“hertsu behar dugu belaia heso-lekin”); *esaule ederrak* (“hesola ederrak”).
- hespil** (*espille*) ‘gaztainak bildu eta altxatzeko tokia’: *espille gaztañez betea. Espille aundie da* (“hespila gaztanez betea. Hespila handia da”).
- hezi** (*ezi*) 1 ‘gizakia gizarterako pres-tatu’: *ongi azie ta gaizki ezie* (“ongi hazia eta gaizki hezia”). 2 ‘animale basatia gizakiaren erra-netara paratzeko’: *ezi dugu zaldie* (“hezi dugu zaldia”); *nere osaba Ameriketan zaldi ezten ibilie da ainbertze urtez* (“nire osaba Ameriketan zaldi hezten ibilia da hainbertze urtez”). [Erranahirua] *ongi azie eta gaizki ezie*
- hezueri** (*ezueri*, Gorosurreta; *ezurre-ri*, Azkue, Izeta) ‘haztera uzten ez duen eritasuna’ (Gorosurreta); ‘hezurretako eritasuna’: *ardiek izeten omeute ezurrierie* (“ardiek izaten omen dute hezueria”).
- hezurmuin** (*ezurmuin*) ‘hezurraren barnekoa, mamia’: *ezurmuñetan dauke gaitze* (“hezurmuinetan dauka gaitza”).
- higilaldi** (*igileldi*) ‘zerbait higitzen den bakoitzekoa’: *man diogu iruen artian igileldi bet belarrari* (“eman diogu hiruren artean higilaldi bat belarrari”).
- higitari** (*igitari*) (Etxenike) ‘higitzen duena’
- higitu** (*igitu*) ‘norbait edo zerbait le-kuz mugitu’: *belarrak igitu. Igitu*

- ongi gero* (“belarrak higitu. Higitu ongi gero”).
- hilaur** (*ilor, illor*) 1 ‘denbora baino lehen eta hilik jaiotzen den haurra edo umea’. 2 ‘abortua egin duenari buruz’: *bei ilorra kendu bear dugu* (“behi hilaurra kendu behar dugu”).
- hilarazi** (*ilazi*) *Herodesec bilatuco duela aurre, ilazteco* (“Herodesek bilatuko duela haurra, hilarazteko”, Etxenike, *San Mateoren Ebangelioa*)
- hilaurtu** (*ilortu, illortu*) ‘umea galdu’: *beie ilortu de* (“behia hilaurtu da”); *beorra ere illortu de* (“behorra ere hilaurtu da”).
- hil-ehortze** (*ileortze, ilegortze*) (Azkue, Izeta) ‘hil-ehortzea, gorpuari lur ematea’: *ileortzia* (“hil-ehortzea”); *gaur dugu osabain ilegortzea* (“gaur dugu osabaren hil-ehortzea”). Gaurko egunean ez dugu uste hitz hori Baztanen ibiltzen denik.
- hil-ezkil** (*ilezkil*) ‘nor edo nor hiltzen denean jotzen den ezkila’: *il-ezkilek yo tuzte. Nor il de?* (“hil-ezkilak jo dituzte. Nor hil da?”); (Basaburua) *il-ezkille* (“hil-ezkila”).
- hil hurran** (*ilurren*) ‘hiltzorian’: *osaba ilurren dago. Ilurren ere izua* (“osaba hil-hurran dago. Hil-hurran ere izeba”).
- hilkari** (*ilkeri*) ‘tristura handia’: *ilkeri aundi bet dauket ezurretaraño sartue* (“hilkari handi bat daukat hezurretaraino sartua”).
- hilpiztu** (*ilpiztu*) ‘hila zegoena piztu’: *gizon oi iltako utzi zuten ta orai ilpiztu zaiku. Ilpiztu aunitz badire* (“gizon hori hiltako utzi zuten eta orain hilpiztu zaigu. Hilpiztu aunitz badira”).
- hiltasun** (*iltasun*) ‘bizitasunik ez duenaren egoera’: *badauket alako iltasun bet nere gorputzean...* (“badaukat halako hiltasun bat nire gorputzean...”).
- histu** (*istu*) 1 ‘ilundu’: *ez da sekulen ene gogotik istuko zure itxure* (“ez da sekulan ene gogotik histuko zure itxura”). 2 ‘kolorea aldatu’: *kate au istu de, eztu berriain dirdire* (“katea hau histu da, ez du berriaren dirdira”).
- hits** (*its*) ‘goibela; tristea’: *gaur denbora itse dugu* (“gaur denbora hitsa dugu”); *andre orrek kolore itsek tu* (“andre horrek kolore hitsak ditu”). *Its batez ere adinekoen artean ibiltzen da.*
- hitz debeku** ‘hitz moteltasuna, toteltasuna’: *neska polite bai baño itz-debeku orrek ondatzen du* (“neska polita bai baina hitz-debeku horrek hondatzen du”).
- hitzontzi** (*itzuntzi*) ‘berritsua, eleketeria’: *itzuntzi gorrauk au. Au mutiko itzuntzie* (“hitzontzi gogorra duk hau. Hau mutiko hitzontzia”).
- hobeki** (*obeki*) ‘hobeto’: *zu bizi zara ni baño obeki. Amatxi obeki dago* (“zu bizi zara ni baino hobeki. Amatxi hobeki dago”).
- hoben** (*oben*) (Izeta) ‘errua’: *barkatu nere obena. Oben oi barkatue da-*

- go* (“barkatu nire hobena. Hoben hori barkatua dago”).
- hobendun** (*obendun*) (Izeta) ‘erruduna’: *zu zara obendun. Ni ere obendun* (“zu zara hobendun. Ni ere hobendun”)
- hoberen** (*oberen*) 1 izond. ‘onena’: *au denetan oberena. Zu zara oberena. Iruñeko kirol-talde bat “Oberena” da* (“hau denetan hobereena. Zu zara hobereena. Iruñeko kirol-talde bat *Oberena* da”).
2 *hoberen klasian bizi gara* (“arras ongi bizi gara”)
- hodei** (*edoi*) ‘lainoa’: *edoiak zeruen* (“hodeiak zeruan”). Baztanen gehiago ibiltzen da *goibel* hitza *edoi* baino, hau aditzen bada ere.
- hodei-asots** (*edoi-asots*) ‘harria hodeitik beheiti heldu delarik egiten duen hotsa’: *edoi-asotsak nabari dire* (“hodei-asotsak nabari dira”).
- hola** (*ola*) ‘honela’: *ola itentugu guk gauzek* (“hola egiten ditugu guk gauzak”).
- holaxeko** (*olaxeko, olatxeko*) ‘hone-laxeko, honelaxoxe’
- holola** ‘dagoen moduan, ukitu gabe’: *egon trankil, olola utziko dugu, ez dugu autsiko* (“egon trankil, holola utziko dugu, ez dugu hautsiko”).
- honaino** (*uneraño*): *uneraño torri zen. Torri zaite uneraño* (“honaino etorri zen. Etor zaitez honaino”).
- honat** (*unat, unet*) ‘alde honetara’: *zato unat* (“zatoz honat”); *zato unet. Torri unet* (“zatoz honat. Etorri honat”).
- honaxeagotto** (*unexagotto*) ‘pixka bat honago’: *torri zaite unexagotto. Unexago bai, unexagotto torri.* (“Etor zaitez honaxeagotto. Honaxeago bai, honaxeagotto etorri”).
- hondar** 1 (*ondar*) (pl.) ‘jaten den zerbaitetik platerean-edo gelditzen dena’: *ondarrak bildu* (“hondarrak bildu”).
- hondar** 2 (*ondar*) ‘azkena’: *zu beti ondarra* (“zu beti hondarra”); *gaur dugu ondar egune* (“gaur dugu hondar eguna”); *ondar ebakie man diogu* (“hondar ebakia eman diogu”).
- hondarrean** ‘azkenean’: *ondarrean gaizki in dugu* (“hondarrean gaizki egin dugu”); *ondarrean, zer gertatu de?* (“hondarrean, zer gertatu da?”)
- hondarreko** ‘azkeneko’: *ondarreko partide irabazi. Ondarrekoa.* (“hondarreko partida irabazi. Hondarrekoa”)
- aste hondarra** ‘aste burua’
- hondar honetan** ‘azken aldi honetan’ *ondar unten denak eri*
- hondar honetara** ‘azken aldi honetara’ *ondar untera denak erosiek ziren*
- hondazio** (*ondazio*) ‘txikitzea, kaltea, hondamena’: *ze ondazioak in tuen azkeneko uriek!* (“zer hondazioak egin dituen azkeneko euriak!”)

- hondura** (*ondure*) ‘hondoa’: *putzu orrek ondure aundie du* (“putzu horrek hondura handia du”).
- honenbertze** (eta *onbertze*, *unenbertze*) ‘konparazioak egiteko ibiltzen dena’: *onenbertze balio du* (“honenbertze balio du”); *olakoik ez da iten: oi jakinez gero, unenbertzetan saldu* (“holakorik ez da egiten: hori jakinez gero, honenbertzetan saldu”); (Ornoz) *onbertze pakete... onbertze diru* (“honenbertze pakete... honenbertzen diru”).
- honeratu** (*uneratu*) ‘hona ekarri, hurbildu’: *uneratu gauze oi* (“honeratu gauza hori”).
- honetako** (*unteko*) ‘hemengo’: *unteko aldian bada tokie eta or utzi du autua* (“honetako aldean bada tokoa eta hor utzi du autoa”).
- honetan** (*unten*) ‘halako batean’: *unten, kusten du argi aundi bet* (“honetan, ikusten du argi handi bat”).
- horixka** (*orixke*) ‘horixta, hori antzekoa’
- horixko** (*orixko*) ‘hori antzekoa’: *koloreak orixko tuzu, etzaude ongi* (“koloreak horixko dituzu, ez zaude ongi”).
- horixta** (*orixte*) ‘horixka, hori antzekoa’: *atorra orixte, aski polite erosi’ut* (“atorra horixka, aski polita erosi dut”).
- horma** (*orma*) ‘izotza; jela’: *gaur orma gorra in du. Animeleko orma ai du* (“gaur horma gogorra egin du. Alimaleko orma ari du”).
- horma beltz** (*orma beltz*) ‘goibel dagoenean egiten duen horma edo izotz-mota’: *bartatsean anbateko orma beltza in du* (“bart arratsean hainbateko horma beltza egin du”); *orma beltza gairtoa da*. (“horma beltza gaiztoa da”).
- horma-haize** (*ormaize*) ‘haize hotz-hotza’: *ormaizia dabile. Ormaize unekin ormatuko gara* (“horma-haizea dabil. Horma-haize honekin hormatuko gara”).
- hormate** ‘izoztea’
- hormategi** (*ormategi*) ‘elurra eta izotza gordetzeko bilgunea’
- hormatu** (*ormatu*) 1 ‘izoztu’ *Ormatzen ai de aspalditik. Usteketan ormatu zaiku esnia* (“hormatzen ari du aspalditik. Usteketan hormatu zaigu esnea”) 2 ‘izoztua jeltua’ *dena ormatue dago* (“dena hormatua dago”).
- hornitu** (*ornitu*) 1 ‘zerbaitetarako behar diren gauzak eskuratu’: *utsune oiek ornitu bear dire* (“utsune horiek hornitu behar dira”) 2 (nahiko aberastasun duenari buruz erraten da): *diruz ongi ornitue* (“diruz ongi hornitua”).
- horrat** (*orrat*) ‘horrantz, horra’: *zazi orrat. Gan zaite orrat* (“zoaz horra. Joan zaitez horra”).
- horrenbertze** (*orrenbertze*) ‘horrenbeste’: *anaiek sos aunitz du ta nik bertze orrenbertze. Arrebak ere orrenbertze* (“anaiak sos anitz du eta nik bertze horrenbertze. Arrebak ere horrenbertze”).
- horretako** (*ortako*) *oi duk oi, ortakoa duk* (“hori duk hori, horretakoa

- duk” = ‘hori egiteko, horretako... aproposa’).
- horretako adina** (*ortako adine, ortako dina, ortako dine*) ‘errateko moduan, aipatzeko moduan, hori gutienez...’: *eztut sobera zautzen Frankfurt, baño egona naiz an, bai, ortako adine*.
- horretako hainbat** (*ortako ainbet*) ‘errateko moduan, aipatzeko moduan, hori gutienez...’: *emen ee bazen ba, jendia, ortako ainbet* (“hemen ere bazen bai, jendea, horretako hainbat”).
- hortz** (*ortz*) 1 ‘animalia aunitzetan, goitiko eta beheitiko barailen ertzean dagoen atal gogor eta zurixka bakoitza’. 2 ‘eskaileretako maila bakoitza’: *eskailera orrek amar ortz tu* (“eskailera horrek hamar hortz ditu”).
- hostatu** (*ostatu*) ‘(landare bat) hostoz bete’: *bea arbola oi, ze ongi ostatu den aurten* (“beha arbola hori, zer ongi hostatu den aurten”).
- hostobeltz** (*ostobeltz*) (*consolida*) ‘landare mota, sinfitoa’: *ostobeltza bazka ona zerriendako* (“hostobeltza bazka ona zerriendako”).
- hostoberatz** (*ostoberatz*) ‘arto-hosto idorra’: *astoak ostoberatza maite du* (“astoak hostoberatza maite du”); *ostoberatza ona da* (“hostoberatza ona da”).
- hozi** (*ozi*) ‘ernamuina’: *landako artoek ozie atraute* (“landako artoek hozia atera dute”); *”azitik ozie, Karmengo glorie”* [Erranairua].
- hozitu** (*ozitu*) 1 ad. ‘ernamuindu’: *landako artoak ozitu dire. Ozitu dire, bai* (“landako artoak hozitu dira. Hozitu dira, bai”) 2 izond. ‘hezea’: *bgo onbor au zerraz ezin ebaki, arront ozitue dago* (“pago-onbor hau zerraz ezin ebaki, arrunt ozitua dago”).
- hozgara** (*ozgara*) ‘nahiko hotz’ *denbora ozgara dago* (ezin da erran, ordea, *denbora berokara dago*).
- hozkatu** (*ozkatu*) ‘hozak egin’: *ozkatu bear dut* (“hozkatu behar dut”).
- hozki** (*ozki*) ‘hortzetako dardara, ikara’
- hozkitu** (*ozkitu*) ‘hozkia izan edo eman’: *etzazule oi in, ozkitzen dat olako soñuek* (“ez ezazula hori egin, hozkitzen nau holako soinuak”); *ozkitu ta izitu* (“ozkitu eta izutu”).
- huitzaile** (*uiatzale*) (Izeta) ‘zakurra xaxatzen duena’: *uiatzale zara, eztuzu zakurre bakean uzten* (“huitzaile zara, ez duzu zakurra bakean uzten”).
- hurran** (*urren*) *il urren utzi zuten etxian. Gure sosak ere akiturren* (“hil hurran utzi zuten etxean. Gure sosak ere akitu hurran”).
- hurranaldi** (*urrenaldi*) ‘hurrengo aldia’: *urrenaldien besta ederra inen dugu* (“hurrenaldian besta ederra eginen dugu”).
- hurritza** (*urritza, urritze*) ‘hurrondoa’
- hurrondo** (*urrondo*) ‘hurritza’: *gure etxe ondoan urrondo ederra dugu*

(“gure etxe ondoan hurrondo ederra dugu”).

hurrupa (*urrupe*) ‘batean ahoratzen edo irensten den edari kopurua eta egiten den hotsa’: *ardo gorritik urrupe ederrak in gintuen* (“ardo gorritik hurrupa ederrak egin genituen”).

hurrupaka (*urrupeka*) ‘hurrupak hartuz’: *orrek urrupeka edaten*

du esnia (“horrek hurrupaka edaten du esnea”).

huts (*uts*) ‘bakarrik, besterik gabe’: *kafe utse artzen du egunero* (“kafe hutsa hartzen du egunero”); *kaltzontzillo utsian torri de* (“galtzoin hutsean etorri da”).

hutsik ‘bakarrik’: *kafea utsik; mutikoak utsik bakarrik sartzan al ziren* (“kafea hutsik; mutikoak hutsik sartzan ahal ziren”).

I

iaz (*yaz*) ‘joan den urtea(n)’: *yaz izen ginen* (“iaz izan ginen”); *yaz ongi, aurten gaizki; yazko bestak onak ziren; yaztik unet ez daile batre ongi*. [Erranahirua] *zer da berri? Yaz il zena eztela ageri*.

ibilkari ik. **ibiltari**

ibilkeri ik. **ibiltari**

ibiltari (*ibilkari, ibilkeri*) ‘aunitz ibiltzen dena’: *gazte au ibilkari ona da. Ni ere ibilkarie naiz*.

idauli ik. **irauli**

idazki ik. **irazki**

idelki ik. **eralki**

idetzarri ik. **iratzarri**

idetze ik. **iratzte**

idetze meta ik. **iratzte meta**

ideuli ik. **irauli**

ideulke ik. **iraulka**

idezelai ik. **irazelai**

idezi ik. **irazi**

idezki ik. **irazki**

idezkitu ik. **irazi**

idiko ik. **idisko**

idisko (eta *idiko*) ‘aratxe arra, zezen-gaia, zezenkoa, idiskoa’: *idiko ederra dugu etxian. Idiko orrek sosak baliotu* (“idisko ederra dugu etxean. Idisko horrek sosak balio ditu”)

idor 1 ‘lehorra, hezetasunik gabea, agorra’: *lurre idor dago* (“lurra idor dago”).

idor 2 ‘hitz gutxikoa, iluna denari erraten zaiona, gozotasunik gabea’: *zein idorra den gizon oi* (“zein idorra den gizon hori”); *yende idorra emen* (“jende idorra hemen”); lan idorra.

idorgiro ‘giro lehorra’: *idorgiro dugu, belarrak idortzeko aproposa.*

idorte ‘lehortea; agortea’: *idorteak ondatutu bazterrak* (“idorteak hondatu ditu bazterrak”); *idortea txarra da.*

idortu 1. ad. ‘lehortu’: *bazterrak idortzen ai dire* (“bazterrak idortzen ari dira”) 2. iz. ‘lehortua’: *bazterrak idortuek* (“bazterrak idortuak”).

iduri 1 ‘ikatz xehea’: *idurie ezta iketz ona* (“iduria ez da ikatz ona”); *iketzaeren orde, idurie ibiltzen dute batzuek* (“ikatzaren orde, iduria ibiltzen dute batzuek”).

iduri 2

ez idurian (ez idurien) ‘pentsatu gabe, ohartu gabe, kontra-koa ematen badu ere’: *ez idurien, azkenean nekatzen bat da arras* (“ez idurian, azkenean nekatzen da bat arras”).

iduri izan *iduri du mozkorra dagola* (“irudi du mozkorra dagoela”); *iduritzen zait* (“iruditzen zait”); *iduritu zait* (“iruditu zait”).

nire iduri (*nere iduri*) *nere idurie da* (“nire iduria da”).

nire iduriko (*nere iduriko*)

iduzki ik. **eguzki**

iduzki aize ik. **eguzki haize**

iduzkialde ik. **eguzkialde**

iduzkipei ik. **eguzkibegi**

iel egon (eta *igel egon*) ‘behorra edo astemea arreske egon’: *beorra iel* (“behorra iel”); *gure begorra igel dago* (“gure behorra iel dago”).

igan (*igen*) ‘igo’: *igen da tellatureño* (“igan da teilaturaino”); *igen zaite goitire* (“igan zaitez goitira”); *igen da* (“igan da”).

ige egonl ik. **iel egon**

igen ik. **igan**

igerikan (*iñeriken*) ‘igerika, igerian’: *iñeriken atra zen putzutik* (“igerian atera zen putzutik”); *ongi daki iñeriken* (“ongi daki igerian”).

igerikari (*iñerikari*) ‘igerilaria’: *nere semea iñerikari ona da* (“nire semea igerikari ona da”).

igerikatan (*iñeriketan*) ‘igerika’

igileldi ik. **higilaldi**

igitari (Etxenike) ik. **higitari**

igitu ik. **higitu**

igorri ‘bidali’: *igorri dugu zure etxera. Zure gauzek igortzekoak tugu* (“zure gauzak igortzekoak ditugu”); *igorri lenbailen* (“igorri lehenbait lehen”).

igurain (*igurein, igurin*) ‘basozaina, oihanak zaintzen dituen’: (Arizkun) *nere osaba zena igureña zen* (“nire osaba zena iguraina zen”); (Aniz) *nere osaba zena iguriñe zen* (“nire osaba zena iguraina zen”).

igurein ik. **igurain**

igurin ik. **igurain**

ihartu (*iñartu, iñertu*) ‘idortu’: *lore oiek iñartu dire* (“lore horiek ihartu dira”); *sagarrondo au ere iñertue da* (“sagarrondo hau ere ihartua da”).

- ihaurri** (*iñurri*) ‘pilaka’: *aurten gaz-taÑe, iñurrie bada. Bagatxa ere iñurrie* (“aurten gaztaina, ihaurre bada. Pagatxa ere ihaurrea”).
- ihi** (*iÑe*) ‘toki bustietan hazten den landarea’ (*Juncus sp.*): *mendi zoko oietan iÑe auserki. IÑe dagon tokien bada ure* (“mendi zoko horietan ihia ausarki. Ihia dagoen tokian bada ura”).
- ihizilari** (*intzilari, intzileri, izilari, izileri*) ‘ihizian, ehizan, ibiltzen dena’: *gure mutikua intzileri aundie da* (“gure mutikoa ihizilari handia da”); *gaur Belaten baziren eun izilari* (“gaur Belaten baziren ehun ihizilari”); *nere aite ere izilerie* (“nire aita ere ihizilaria”).
- ijito** (*kito*) ‘buhamea’: *kito aunitz bazterretan* (“ijito anitz bazterretan”).
- ijitotegi** (*kitotei*) ‘ijitoak biltzen diren tokia’: *au kitoteie!* (“hau ijitotegia!”).
- ikaragarri** (*ikeragarri*) 1 ‘handia, erraldioa’. 2 ‘arras’: *ikeragarriko biotz onekoa zen* (“ikaragarriko bihotz onekoa zen”).
- ikareria** (*ikereri*) ‘lurrikara’: *bartatsean ikererie izen dugu. Ikereriekin izitu gara* (“bart arratsean ikareria izan dugu. Ikareriarekin izutu gara”).
- ikasgura** (*ikesgure*) ‘ikasteko nahia’: *gure mutikoa beti leitzen, orren ikesgure...* (“gure mutikoa beti irakurtzen, horren ikasgura...”).
- ikasi** (*ikesi*) *ikesi ginuen arras eri zategola*. [erranahirua] *zer ikusi, ura ikesi*.
- ikastun** (*ikestun*) ‘ikaslea, ikasten duena’: [erranahirua] *nekazarie beti igestun*.
- ikatz**
 ikatzeketan *iketzeketan ibiltzen da*.
- ikazgai** (*ikezgai*) ‘ikatz egiteko egur ona, gai ona’: *ikezgai onakin iketz ona* (“ikazgai onarekin ikatz ona”).
- ikeragarri** ik. **ikaragarri**
- ikereri** ik. **ikareria**
- ikesgura** ik. **ikasgura**
- ikesi** ik. **ikasi**
- igestun** ik. **ikastun**
- iketzeketan** ik. **ikatzeketan**
- ikezgai** ik. **ikazgai**
- ikuskor** (*kuskor*) ‘ikus erraza’: *gauza aundie beti kuskorra. Au kuskorra ta aise kusten dena* (“gauza handia beti ikuskorra. Hau ikuskorra eta aise ikusten dena”).
- ikus-sari** (*kus-sari*) ‘etxe batera bisita egiten denean eramaten den oparia’ (‘bisita-sari’ ere deitua): *gure amatxii bisita in diogu ta man diogu kus-sarie* (“gure amatxiri bisita egin diogu eta eman diogu ikusaria”) Lehena-goko denboretan ohitura handia zen ikusaria ematea: txokolatea, ardo-goxoa, e.a.
- ikustete** (*kustete*) ‘ikusaria’. Norbaiten fabore bat egin eta eskerrak ematera joaten denean, erran

- ohi da: *"In diot nere kustetean"* ("Egin diot nire ikustetean").
- ikuzi** (*kuzi*) 'garbitu' (Izetak bildua): *lixue kuzi* ("lixiba ikuzi"); *oialak kuzi* ("oihalak ikuzi").
- ilar** (*iler, illar, iller*) 1 'banabarra; babarruna': (Urdazubi, Zugarramurdi, *ilarra*); (Baztangoiza, *illerra*) 2 'etxe-ilarra; ilar biribila': (Oronoz, Malerreka, *illarra*); (Basaburua, *illerra*).
- ilar biribil** (*iler biribil*) 'ilarra; etxe-ilarra': *iler biribile erin dugu* ("ilar biribila erein dugu"); *iler biribile sortu da* ("ilar biribila sortu da").
- ilargi** (*ilergi*)
- ilargi zuri** 'bistargia dagoela': *ilargi zuriten ameka zama sartu du orrek etxian*.
- ilargi betea, ilargi osoa**
- ilazi** ik. **hilarazi**
- ilbeltz** 'urtarrila'
- ilbin** (*ilbine, ilbiñe*) 'uztondoa': *zerriek ilbinean sartu tugu* ("txerriak ilbinean sartu ditugu"); (Aniz, *ilbiñe*).
- ilbine** ik. **ilbin**
- ilbiñe** ik. **ilbin**
- ilegortze** ik. **hil-ehortze**
- ilekizkur** 'ileak kiribilean dituen': *ilekizkurre polite da* ("ilekizkurra polita da").
- ileortze** ik. **hil-ehortze**
- iler** ik. **ilar**
- iler biribil** ik. **ilar biribil**
- ilergi** ik. **ilargi**
- iletsi** 'hilzoria; hilzorian dagoenaren ueña': *iletsien karri zuten Iruñetik ta piztu de* ("hiletsian ekarri zuten Iruñetik eta piztu da").
- iliki** (Gorosurreta) 'hilikia'
- ilindi** (Gorosurreta) ik. **ilinti**
- ilinti** (*ilindi, ilintx*) 1 (Gorosurreta) 'landareen gaitza'. 2 'ongi egosi gabeko ikatza': *ilintxe iketz txarra da. Ilintxe eztu iñork nai* ("ilintia ikatz txarra da. Ilintia ez du inork nahi").
- ilintx** ik. **ilinti**
- ilkeri** ik. **hilkari**
- illar** ik. **ilar**
- iller** ik. **ilar**
- illo** ik. **iloba**
- illor** ik. **hilaur**
- illortu** ik. **hilaurtu**
- illunezkil** ik. **ilunezkil**
- ilo** ik. **iloba**
- iloa ttipi** ik. **iloba ttipi**
- iloba** (*ilo, illo*) 1 'anaia edo arreba baten semea edo alaba': *nere ilua arras abile da* ("nire iloba arras abila da"); *illoa ona da* ("iloba ona da"). 2 'biloba, seme-alaben semea edo alaba': *iloak baitu pileka* ("bilobak baditu pilaka").
- ilobabitxi** (*ilobitsi*) 'biloba' (Baztangoiza aldeko zenbait etxetan ibiltzen da. Hala ere, maizago aditzen da, zalantza gabe, *ilo*): *ilobitsi aunitz gure aitetxik* ("ilobabitxi aunitz gure aitatzik").

iloba ttipi (*iloba ttipi, ilo ttipi, illo ttipi*) ‘iloba, ilobabitxi’: *nere iloba ttipi au azkarra da* (“nire iloba ttipi hau azkarra da”)

ilobitsi ik. *ilobabitxi*

ilor ik. *hilaur*

ilortu ik. *hilaurtu*

ilpiztu ik. *hilpiztu*

iltasun ik. *hiltasun*

ilunezkil (eta *illunezkil*) ‘iluntzean jotzen den ezkila’: *ilunezkile yotzeutenean denak etxera* (“ilunezkila jotzen dutenean denak etxera”); (Basaburua) *illunezkille* (“ilunezkila”).

ilupa (*ilupe*) ‘fundamentu gabea, ergela’: *au yende ilupe! Mugi zaitte, zein ilupe zaren!* (“hau jende ilupa! Mugi zaitetz, zein ilupa zaren!”); *neska ilupe da oi; eztut olako mutil ilupik inoiz ere kusi; ardo unek eztu batre inderrik, arras ilupe da.*

ilupe ik. *ilupa*

ilurren ik. *hil hurran*

in ik. *egin*

inar (*iñar, iñer*) ‘gantzik gabea, idorra’: *unek eztu urinik, dena iñerra da* (“honek ez du urinik, dena giharra da”); *magra artzen duelaik iñerra bakarrik gustetzen zaio* (“magra hartzen duelarik inarra bakarrik gustatzen zaio”).

inarki (*iñarki, iñerki*) ‘gizenik gabeko haragia’: *aragien gizona eztut maite, iñerkie bai* (“haragiaren gizona ez dut maite, giharkia bai”).

inarrosaldi (*iñarrosaldi, iñerrosaldi*) ‘astinaldia’: *gizon orri iñarrosaldi ederra man zioten* (“gizon horri inarrosaldi ederra eman zioten”).

inarrosi (*iñarrosi, iñerrosi, iñurrusi*) ‘astindu’: *iñarrosi ongi zaku zikin oi* (“inarrosi ongi zaku zikin hori”); *bazterrak iñarrosi tugu* (“bazterrak inarrosi ditugu”); (Basaburua) *iñurrusi* (“inarrosi”).

inaurkin (*iñaurki*) ‘aziendari paratzen zaion azpia’: *idetzia iñaurki ona. Badugu iñaurkie pileka* (“iratzea inaurkin ona. Badugu inaurkina pilaka”); *iñaurkie ongi edatu* (“inaurkina ongi hedatu”).

inaurtu (*iñaurtu*) ‘inaurkina behitegian hedatu, ihaurri’: *iñaurtu ongi beien azpiek. Iñaurtu ongi* (“inaurtu ongi behien azpiak. Inaurtu ongi”).

inaute (*iñaute, iñauteri*) *iñautetan sekuleko bestak iten tugu* (“inauteetan sekulako bestak egiten ditugu”); *Lanzko iñautek fama aundieute* (“Lanzko inauteek fama handia dute”).

inauteri ik. *inaute*

inazi ik. *eginarazi*

indarrean inderrian zuken, eta batpatian il gizona! (“indarrean zegoen, eta bat-batean hil gizona!”).

ingai ik. *egingai*

ingarri ik. *egingarri*

ingendu ik. *ukendu*

ingerri ik. *egingarri*

ingresti (*ingristi*) (pl.) ‘keinuak’: *gure mutikoak zein ongi itentuen osabain ingristiek* (“gure mutikoak zein ongi egiten dituen osabaren ingrestiak”).

ingristi ik. **ingresti**

ingude (*txinguri, txunguri, xingudi, xinguri, zinguri*) ‘metalak lantzeko ibiltzen den arotzaren tresna’: *erriko arotzak badu berreun kiloko txingurie. Burdinezko txingurie* (“herriko arotzak badu berrehun kiloko ingudea. Burdinazko ingudea”); *xingudie, sega piketzeko* (“ingudea, sega pikatzeko”); *xingurie arotzan lanetako* (“ingudea arotzaren lanetako”); *Aotzak zingurie beti eskuar* (“arotzak ingudea beti eskuar”).

inguma (*ingume*) 1 ‘amesgaiztoa’: *gure aita zenak ingume gaixtoak izeten zituen* (“gure aita zenak inguma gaiztoak izaten zituen”). 2 ‘katu erako ametsa, lo dagoenari ausiki egiten diona’: *ingume atsikiekin idetzarri naiz* (“inguma ausikiekin iratzarri naiz”); *ingumeai beldur* (“ingumeari beldur”).

ingume ik. **inguma**

ingurukari (*ingurukeri*) ‘zirimola; sorgin-haizea’: *ingurukeriek idetze meta guziek gan dazku* (“ingurukariak iratze meta guztiak eraman dizkigu”).

ingurukeri ik. **ingurukari**

inguruko min ‘behatzetako mina, behatzen hauntura’: *inguruko mine gaixtoa da. Inguruko mine sendatu zait.*

inkara ik. **eginkara**

inoiz (*iñoiz, nioiz*) ezezko eta galde-razko esaldiekin bakarrik ibiltzen da

inor (*iñor, nior*) ezezko eta galderazko esaldiekin bakarrik ibiltzen da

inon (*iñon, nion*) ezezko eta galde-razko esaldiekin bakarrik ibiltzen da

inport ez *du inport!*; ez *dik inport!*

inportik ez *du inportik!*; ez *dik inportik!*

intxaur (*giltxaur*) *giltxaurre ona da. Giltxaur aunitz yaten dugu* (“intxaurra ona da. Intxaur aunitz yaten dugu”).

intzilari ik. **ihizilari**

intzileri ik. **ihizilari**

iñar ik. **inar**

iñarki ik. **inarki**

iñarrosaldi ik. **inarrosaldi**

iñarrosi ik. **inarrosi**

iñartu ik. **ihartu**

iñaurki ik. **inaurkin**

iñaus ik. **irausi**

iñausaldi ik. **irausaldi**

iñaute ik. **inaute**

iñauteri (Izeta) ik. **inauteri**

iñe ik. **ihi**

iñelak ik. **eginahal**

iñelka ik. **eginahalka**

iñer ik. **inar**

iñera ik. **enara**

iñerikari ik. *igerikari*

iñeriken ik. *igerikan*

iñeriketari ik. *igerikatar*

iñerki ik. *inarki*

iñerrosaldi ik. *inarrosaldi*

iñerrosi ik. *inarrosi*

iñertu ik. *ihartu*

iñezture ik. *oinaztura*

iñeztureka ik. *oinazturaka*

iñoiz ik. *inoiz*

iñon ik. *inon*

iñor ik. *inor*

iñurri ik. *ihaurri*

iñurusi ik. *inarrosi*

ipar-laino (*iper-lano*, *iper-laño*) ‘iparrak dakarren lainoa’: *iper-lanoak sartu dire* (“ipar-lainoak sartu dira”); *iper-lañoa txarra da mendien ibiltzeko* (“ipar-lainoa txarra da mendian ibiltzeko”).

iper-aize ik. *ipar-haize*

iper-lano ik. *ipar-laino*

iper-laño ik. *ipar-laino*

ipurdi (*purdi*) *ze ai zara or purdie agerien?* (“zer ari zara hor ipurdia agerian?”).

ipurdianostiko (*purdienostiko*) iz. *purdienostiko aundi bet man nion. Ez zuen espero olako purdienostikoik* (“ipurdianostiko handi bat eman nion. Ez zuen espero holako ipurdianostikorik”). Lexikalizatua.

ipurdi-konkor (*purdi-konkor*) ‘ipurtezurra’: *purdi-konkorrean min artu du* (“ipurdi-konkorrean min

hartu du”); *purdi-konkor ortan kaska artu* (“ipurdi-konkor horretan kaska hartu”).

ipurdilazo (*purdilazo*) ‘lasaia dena, erantzukizunik hartzen ez duena’: *ze purdilazo zaren! Gaie emendik purdilazo zikine!* (“zein ipurdilazo zaren. Hoa hemendik ipurdilazo zikina!”).

ipurdi-mazela (*purdimazela*) ‘ipurmasaila’: *lodi dago gure neskatikoa, anbateko purdimazelak dauzke. Purdimazel ederrak* (“lodi dago gure neskatikoa, hainbateko ipurdi-mazelak dauzka. Ipurdi-mazel ederrak”).

irabaztale ‘irabazle’

irakin (*irikin*) 1 *esniak irikin du* (“esneak irakin du”); *esnia ongi irikin* (“esnea ongi irakin”); *esnia irikiten ai de* (“esnea irakiten ari da”). 2 ‘irakina’: *esnia irikine, ez gordine* (“esnea irakina, ez gordina”).

iraleku (*ireleku*) ‘iratze lekua’: *ireleku ona dugu* (“iraleku ona dugu”); *gure irelekuen badire aritz aunitz* (“gure iralekuan badira haritz aunitz”).

iralki (*irelki*) ‘iratzea ebakitzeko tresna’: (Sunbilla) *gure atautrik irelkiakin ebakitzen zuen iretzea* (“gure aitona iralkiarekin ebakitzen zuen iratzea”).

iratzarri (*idetzarri*, *irizarri*, *irazarri*) ‘esnatu’: *irazarri naiz* (“iratzarri naiz”); *irizarri dire gure mutikoa* (“iratzarri dira gure mutikoa”); *idetzarri da gure aurre* (“iratzarri da gure haurra”); *de-*

- nak idetzarriek* (“denak iratza-
rriak”).
- iratze** (*idetze, iretze*) ‘garoa’: *iretze ederrak gure mendietan* (“iratze ederrak gure mendietan”); *iretze-ak inek tugu* (“iratzeak eginak ditugu”); *iretzeak zafratuek* (“iratze-ak zafratuak”); *iretzeKETARA gan dire* (“iratzeKETARA joan dira”). [Erranahirua] *San Gil, idetziak ebaki trankil*
- iratze meta** (*idetze meta, iretze meta*) *iretze-meta ederra gure etxe ondoan* (“iratze-meta ederra gure etxe ondoan”).
- irauli** (*idauli, ideuli*) ‘irauli’: *ireuliate* (“irauli dute”); *lurre ideuli dugu* (“lurra irauli dugu”).
- iraulka** (*ideulke, ireulke*) *or dabiltze mutiko oiek ideulke belaian* (“hor dabiltza mutiko horiek iraulka belaian”).
- irausaldi** (*iñausaldi*) ‘urdama arreske dagoen garaia’: *gure urdama iñausaldietan, arront-arront gaixtoa da. Iñausaldi txarra* (“gure urdama irausaldietan, arrunt-arrunt gaiztoa da. Irausaldi txarra”).
- irausi** (*iñaus*) ‘urdama arreske egon’: *urdama iñaus ta orren iñausaldien kasuman* (“urdama irausi eta horren irausaldian kasu eman”).
- irazahar** (*irexar*) ‘iratze berde idortua, ardi-aziendarendako neguko bazka’: *elurre iten badu ere badugu bazka, irexarra ona da* (“elurra egiten badu ere badugu bazka, irazarra ona da”).
- irazarri** ik. **iratzarri**
- irazelai** (*idezelai, irezelai*) ‘iralekua’: *Baztanen irezelai ederrak* (“Baztanen irazelai ederrak”); *banaie idezelaire* (“banoa irazelaira”).
- irazi** (*irezi, idezi, irezkitu*) ‘isurkari bat irazkitik igaroarazi’: (Basaburua, Erberera) *irezi dugu* (“irazi dugu”); (Baztangoiza, Elizondo) *esne au idezie da? Idezi dugu* (“esne hau irazia da? Irazi dugu”).
- irazki** (*irezki, idazki, idezki*) ‘iragazteko tresna’: (Basaburua) *irezkie emen dago* (“irazkia hemen dago”); *ortxe duzu idazkie* (“hortxe duzu irazkia”); *non dago idezkie?* (“non dago irazkia?”).
- ireki** (*ereki, edeki*) ‘zabaldur’: *erekiut atea* (“ireki dut atea”); (Baztangoiza) *edeki atea* (“ireki atea”).
- ireleku** ik. **iraleku**
- irelki** ik. **iralki**
- irentsi** (*iretsi*) *iretsi nuen ezur bet* (“irentsi nuen hezur bat”); *eztut iresten al* (“ez dut irensten ahal”); [Erranahirua] *naiago dut oi siñetsi baño bokadu on bat iretsi*
- iretze** ik. **iratzte**
- iretze meta** ik. **iratzte meta**
- ireuli** ik. **irauli**
- ireulke** ik. **iraulka**
- irexar** ik. **irazahar**
- irezelai** ik. **irazelai**
- irezi** ik. **irazi**
- irezki** ik. **irazki**

irikin ik. *irakin*

irindegi (*irindei*) ‘irina oratzen den lekua’: *ama irindeien dago* (“ama irindegian dago”); *irindei ederra dugu* (“irindegi ederra dugu”). Sin. *iringela*

irindei ik. *irindegi*

irindu ‘erraustu, xehatu’: *tratoriak autua yo ta irindue utzi zen* (“traktoreak autoa jo eta irindua utzi zuen”).

iringela ‘irina oratzen den gela’: (Aniz) *iringela ederra dugu*. Sin. *irindegi*

irizarri ik. *iratzarri*

irmiarma ik. *armiarma*

ironoi (Izeta) ‘lepoko zain bat’: *bil-dotsa iltzerakoan kasu ironoie ukitu gabe*. *Ironoie ezta ukitu bear* (“bildotsa hiltzerakoan kasu ironoia ukitu gabe. Ironoia ez da ukitu behar”).

iroska ik. *itoska*

iroskitu ‘zopak gehiegi irakin ondoren ore bihurtu’: *ainbertze irikinez zopak iroskituek*. *Iroskitu zaizku* (“hainbertze irakinez zopak iroskituak. Iroskitu zaizkigu”).

irri ‘barrea’: *irri ederrak in gintuen* (“irri ederrak egin genituen”); *zu beti irriz; ez irrik in* (“ez iririk egin”); *irriz urretuek egon ginen afari osuan* (“irriz urratuak egon ginen afari osoan”).

irri egin (*irrin*) *gustetzen zaitzu zuri ere irritia* (“gustatzen zaizu zuri ere irri egitea”).

irri eginarazi (*irrinazi*) ‘barre eginarazi’: *yendea irrinaztia izeten da paiasoen lana* (“jendea irri eginaraztea izaten da pailazoen lana”); *paiasoek nola irrinazten duten yendea* (“pailazoen nola irri eginarazten duten jendea”); *or dago gure laune denei irrinazten* (“hor dago gure laguna denei irri eginarazten”).

irriemangarri (*irrimangarri*) ‘irria sorrarazten duena, irrigarria’: *arront irrimangarrie da*.

irrigarri (*irringerri*) ‘barregarria’: *irringerrie zaude* (“irrigarria zaude”); *irringerriek gure inñauteak* (“irrigarriak gure inauteak”).

irrikatu (Izeta) ‘gaztain morkotsa ireki’

irrikixabaldu ik. *irrikizabaldu*

irrikizabaldu (eta *irrikixabaldu*) ‘gaztain morkotsa zabaldu’: (Aniz) *gaztain morkots oiek, irrikixabalduiek* (“gaztain morkots horiek, irrikizabalduak”).

irrilda (*irrilde*) ‘malda handiko bidedexka, egurra bide zabalera ateratzeko erabiltzen zena’: *irrilde ortaik botatzen dugu egurre bide zabaleraño* (“irrilda horretatik botatzen dugu egurra bide zabaleraño”).

irrilde ik. *irrilda*

irrimangarri ik. *irriemangarri*

irrimurriz ‘irribarrea’: *irrimurriz bat inik gan zitzeikun* (“irrimurriz bat eginik joan zitzaigun”).

irrin ik. *irri egin*

irrinazi ik. *irri eginarazi*

irringerri ik. *irrigarri*

irrintzi (eta *irrintziña*, *irrintziñe*)
'behorraren oihua'

irrintziña (Almandoz) ik. *irrintzi*

irrintziñe (Almandoz) ik. *irrintzi*

irri-solas 'hitz gozoa; hitz bitxia, iz-
kirimiria': *irri-solasetan pastu
ginuen atsalde guzie* ("irri-sola-
setan pasatu genuen arratsalde
guzia").

irristari (*irristeri*) 'leku irristakorra,
irrist erraz egiten dena': *au irris-
terie, zutik ezin egona* ("hau
irristaria, zutik ezin egona");
irristeri aundie emen ("irristari
handia hemen").

irristeri ik. *irristari*

irrizu 'irri aise egiten duena': *au
neska irrizue, beti irriz* ("hau
neska irritsua, beti irriz"); *denak
ere irrizuek zate* ("denak ere
irritsuak zarete").

iruzki ik. *eguzki*

iruzki aize ik. *eguzki haize*

iruzkialde ik. *eguzkialde*

iruzkipei ik. *eguzkibegi*

isats (*isets*, *itses*) 'erratza': *zoko oiek
isetsakin garbitu* ("txoko horiek
isatsarekin garbitu"); *isets berrie*
("isats berria").

isats-ainar (*isets-añar*) 'ainarrarekin
egindako isatsa; erratza': *guk
beiteien beti isets-añarra* ("guk
behitegian beti isats ainarra").

isets ik. *isats*

isets añar ik. *isats ainar*

isilik (*xilik*) 'hitz egin gabe, asotsa
atera gabe': *egon zaizte xilik*
("egon zaitezte isilik"); *xilik ego-
nak gara* ("isilik egonak gara").

isilka (*xilke*) *au xilke in bear da, xil-
ke iñork yakin ez dezan* ("hau
isilka egin behar da, isilka inork
jakin ez dezan").

iskilin ik. *iskilinba*

iskilinba (*iskilin*, *izkilin*, *ixkilin*)
'orratz buruduna': *iskilin zorrotza*
("iskilinba zorrotza"); *izkilinekin
ziztetu nion* ("iskilinbarekin zizta-
tu nion); *non utzizu ixkiline?*
("non utzi duzu iskilinba?").

iskilinba-ontzi (*ixkilinuntzi*) 'iski-
linbak gordetzeko ontzia': *ixkili-
nuntzie galdu dugu* ("iskilinba
ontzia galdu dugu").

islegi (*islei*) 'maldetan dauden belaie-
tan lurra kendu edo zelaitzea'
(Aniz)

islegitu (*isletu*) 'maldetan dauden
belaietan lurra kendu edo zelai-
tu': (Aniz) *ezponda oi isletu bear
dugu, puske kenduz* ("ezponda
hori islegitu behar dugu, puska
kenduz").

islei ik. *islegi*

isletu ik. *islegitu*

istant (*ixtent*) 'aipatzen den unearen
inguruan': 1 'lehentxeago' *ixten-
tian erasan du*; 2 (gero) *ixtentian
torko da*; *ziztorrok sartzizu ix-
tentel!*; *ago ixtenpat ago!*; *ixten
baten buruen torko da* (= 'bere-
hala etorriko da').

istikoloka ik. *izterkoloka*

istil (*eztíl*) ‘putzu txikia’: *urie in du, badire eztilek* (“euria egin du, badira istilak”).

istu ik. *histu*

isun (*uxin*) ‘diru-zigorra’: *uxin aundie man zakuten. Uxine ordaindu bear dugu* (“isun handia eman ziguten. Isuna ordaindu behar dugu”).

isurki (*xugurki, xurki*) ‘malda handiko bideari edo teilatuari dago-kiona’: *tella orrek xurki aundie du. Tellatuek anbateko xurkie* (“teila horrek isurki handia du. Teilatuak hainbateko isurkia”).

isurkin (*zurkin, xurkin*) ‘zerri-bazka, etxeko janari sobranteak osatua’: *gure barrideak auzo guziko zurkine biltzen du* (“gure barrideak auzo guztiko isurkina biltzen du”); *xurkine* (“isurkina”).

itale ik. *egitale*

itate ik. *egitate*

itaxur (*itezure*) ‘itogina, euria egiten duenean gertatzen dena’: *etxe orrek itezure franko* (“etxe horrek itaxur franko”); *itezure aunitz* (“itaxur aunitz”).

ite ik. *eite*

itele ik. *egitale*

itete ik. *egitate*

itezure ik. *itaxur*

itoska (eta *iroska*) ‘itoka, jana dena batera irenstearen ekintza’: *itoska yan zuen atsik artu gabe* (“itoka jan zuen hatsik hartu gabe”); *iroska yana itourren* (“itoka jana ito hurran”); *ez iroska yan* (“ez itoka jan”).

its ik. *hits*

itses ik. *isats*

itsu *kapelu* ‘itsumandoka, josteta klase bat’

itsuaitzineko ‘itsuaurrekoa’: *itsuaitzineko dabile mutiko oi* (“itsuaitzineko dabil mutiko hori”).

itsutu 1 ‘ikusmena galdu’. 2 ‘zaletasuna izan’: *itsutue da gaztanbera yatera* (“itsutua da gaztanbera jatera”).

itxoka (eta *itxuke*) ‘orga edo lera bati tiraka ari diren bi idi edo behi pare-a’: (Basaburua) *bi bei parekin itxoka* (“bi behi pareekin itxoka”).

itxuke ik. *itxoka*

itzail ‘animaliak eramaten dituen-a’: *zakur itzalla, bei itzalla, ardi itzalla*.

itzain ‘azienda gidatzen duena’

itz-debeku ik. *hitz-debeku*

itze ‘iltzea’: *itze bat sartut zure ortan* (“iltze bat sartu dut zur horretan”).

itzebaki (Azkue) ‘erabaki’: *afera au itzebaki dugu* (“afera hau itzebaki dugu”).

itzetu ‘iltzatu’: *itzetu ongi atea* (“iltzatu ongi atea”).

itzilipurdi ik. *itzulipurdi*

itzilipurdike ik. *itzulipurdika*

itzilipurdiketu ik. *itzulipurdikatu*

itzuli 1 ‘atera zen edo lehenago zegoen tokira berriz ere joan’. 2 ‘zerbait bertze norabide batera zuzendu’. 3 ‘abiapuntura bihurtu arte dagoen ibilbidea’. 4 ‘(be-

hiez-eta, mintzatuz) arreske da-
goena’

itzulipurdi (*itzilipurdi*) ‘erorikoa’:
anbateko itzilipurdie in zuen
 (“hainbateko itzulipurdia egin
zuen”).

itzulipurdika (*itzipurdike*) ‘eroriko-
ka’

itzulipurdikatu (*itzilipurdiketu*) ‘az-
pikoz goiti paratu’: *dena itzili-
purdiketu dugu* (“dena itzulipur-
dikatu dugu”).

itzuntzi ik. **hitzontzi**

ixkilin ik. **iskilinba**

ixkilinuntzi ik. **iskilinba-ontzi**

ixkinke ik. **izkinaka**

ixtekoloka ik. **izterkoloka**

ixtent ik. **istant**

izain (*zizein*) ‘zizare mota xurgatzai-
lea, ur gezetan bizi dena eta gor-
putzetik odola ateratzeko ibiltzen
dena’ (*Hirudo medicinalis*): *zize-
ñak odol edaleak dira. Zizein au-
nitz bada errekuñten* (“izainak
odol edaleak dira. Izain aunitz
bada erreka honetan”).

izan ad. (laguntzailerik gabe, edo
bertze aditzen laguntzaile gisa jo-
katzen da) *naiz, gara, da*, eta
abar. • **daiteke** (*daike*) *torri daite-
ke* (“etor daiteke”); *gerta daike*
 (“gerta daiteke”); *badaike* (“badai-
teke”). • **dadila** (*daiela*) *ongi ger-
ta daiela* (“ongi gerta dadila”); *to-
rri daiela* (“etorri dadila”). • **da-
din** (*daien*) *nik nai bezala gerta
daien* (“nik nahi bezala gerta da-
din”). • **daitezela** (*daitzila, daitzi-
le*) *torri daitezela* (“etor daiteze-

la”); *sar daitzila* (“sar daitezela”);
gan daitzile emendik (“joan daite-
zela hemendik”). • **daitezen**
(*daitzin*) *egon daitezen; ongi egon
daitzin* (“ongi egon daitezen”).

izeba (*izo*) ‘aitaren arreba edo ama-
ren ahizpa, orobat osabaren
emaztea’: *izo Fantxike bizkor da-
bile. Izoak adin aundie du* (“ize-
ba Fantxika bizkor dabil. Izebak
adin handia du”); *nere izua erix-
ko dago* (“nire izeba erixko da-
go”); *izua ona da* (“izeba ona
da”).

izekunde ik. **gizakunde**

izan 1 *zein da zure izena?*

izan 2 ik. **izan**

izerdi 1

izerdi patsetan

izerdi putzutan *izerdi putzu-
ten egon zen egun osoan.*

izerditan *izerditen torri zen.*

izerdi uretan *izerdi uretan gi-
nauden. Egunduzien izerdi
uretan* (“izerdi uretan geun-
den. Egunduztian izerdi ure-
tan”).

izerdi 2 ‘landareen barnean duten
isurkaria’: *errexago kentzen zaio
azala adarrai, izerdien dagoalaik*
 (“errezago kentzen zaio azala
adarrari, izerdian dagoelarik”).

izerdiarazi (*izerdiazi*) *piper minek
izerdiazten du* (“piper minak
izerdiarazten du”); *piper mine
yan ta nola izerdiazi...* (“piper
mina jan eta nola izerdiarazi...”).

izerdiazi ik. **izerdiarazi**

izialdi ik. **izualdi**

izialdura (*izialdure*) ‘harridura, izua’: *anbateko izialdure artu nuen. Izialdure gauze txarra da* (“hainbateko izialdura hartu nuen. Izialdura gauza txarra da”).

izialdure ik. **izialdura**

izikor ik. **izukor**

izilari ik. **ihizilari**

izileri ik. **ihizilari**

izitasun ik. **izutasun**

iziti ik. **izuti**

izitu ik. **izutu**

izkilin ik. **iskilinba**

izkinaka (*ixkinke*) ‘izkina egiten, norbaiti ezikusia egiten’: *eztu nerekin deus nai, ixkinke daile* (“ez du nirekin deus nahi, izkinaka dabil”).

izkirritu (Izeta) ‘kizkurritu; zartatu’: (Sunbilla) *zangoa izkirrittua daukat* (“zangoa izkirritua daukat”).

izkirritu (Izeta) ik. **izkurritu**

izo ik. **izeba**

izokin (Izeta) ‘salmonidoen familia-ko arraina’ (*Salmo salar*): *Bidasoa ugaldean badire izokinek* (“Bidasoa ugaldean badira izokinak”); *izokin aunitz Bidasoan*. Baztango Urritzateko errekan, erreka bati *Izokin erreka* deitzen diote.

izorratu *izor ai!* (“izor hadi!”).

izpiku ‘ernea; abila’: *au neskatiko izpikue!* (“hau neskatiko izpikua!”); *yende izpikue gure auzo-*

an (“jende izpikua gure auzoan”).

iztekolozka ik. **izterkoloka**

izterkoloka (*ixtekoloka, istikoloxka, iztekolozka*) ‘oreka galtzear, kokoriko’: (Elizondo) *ixtekoloka dago* (“izterkoloka dago”); *ixtekoloka gelditu zen* (“izterkoloka gelditu zen”); (Aniz) *neska oi zaldi gañean istikoloxka* (“neska hori zaldi gainean izterkoloka”); *iztekolozka gelditu da autoa bidetik atra delaik* (= ‘autoa bide bazterrean amildegira begira, balantzan gelditzen delarik’); *iztekoloxka ibiltzen da zaldi gañean xalma gabe* (“izterkoloka ibiltzen da zaldi gainean xalma gabe”).

izter 1 ‘zangoaren edo hankaren zatia’. 2 (pl.) ‘gurdiaren plataforma egiteko jartzen diren oinarriko bi ardatzetako bakoitza (beti bi jartzen dira)’

izter-xorri ‘iztertea, istapea’ (Elbete)

iztezorri (*iztizorri*) ‘iztertean ateratzen den zaldarra: *iztizorrie atra zait. Iztizorrie gaixtoa da* (“iztezorria atera zait. Iztezorria gaixtoa da”).

iztizorri ik. **iztezorri**

izualdi (*izialdi*) *artu nuen izialdiekin eritu nitzen. Izialdi gorra!* (“hartu zuen izualdiarekin eritu nintzen. Izualdi gogorra!”).

izukor (*izikor*) ‘aise izitzen dena; izutia’: *au gizon izukorra!* (“hau gizon izukorra!”); *mutil gazte au arras izukorra da.* (“mutil gazte hau arras izukorra da”).

izutasun (*izitasun*) ‘beldurra’: *izitasune sartu zaiku. Izitasune ezurretaraño* (“izutasuna sartu zaigu. Izutasuna hezurretaraino”).

izuti (*iziti*) ‘beldurra duena’: *gizon izitie* (“gizon izutia”); *yende izitie* (“jende izutia”).

izutu (*izitu*) ‘koldartu, beldurrez hasi’: *etzaitela izitu* (“ez zaitezela izutu”); *gure aurre izitzen da* (“gure haurra izutzen da”); *izutu zara* (“izutu zara”).

J

ja 1 ‘deus ez; ezer ez’: *zu ja etzara* (“zu ja ez zara”); *an etzen ja* (“han ez zen ja”); *etzugu ja in* (“ez dugu ja egin”).

ja 2 (*ya*) ‘dagoeneko’: *ya inekitut denak* (“ja eginak ditut denak”).

jabildu (*yabildu*) ‘zerbaitez jabetu’: *gure gauzetaz yabildu de* (“gure gauzetaz jabildu da”); *gure etxeaz ere yabildu* (“gure etxeaz ere jabildu”).

jaiki (*yeiki*) ‘ohetik altxatu’ (ohatze-tik goititzeko bakarrik ibiltzen da, bertzenaz ‘zutitu’ edo ‘xutitu’ erraten baita)

jainko (*yinko*) iz.

jainko-xakur (*yinko-xakur*) ‘ipurtargia’: *sasi ortan badire yinko-xakur aunitz* (“sasi horretan badira jainko-xakur aunitz”).

jaka (*yaka*) ‘goiko jantzia’: *parazazu yaka* (“para ezazu jaka”).

jakadun (*yakadun*) ‘jaka daramana’: *yakadunek yaun aundiek* (“jakadunak jaun handiak”).

jaki (*yaki*) ‘jaten dena’: *badugu urte guziko yakie. Yaki ona gañera* (“badugu urte guztiko jakia. Jaki ona gainera”).

jakinki (*yakinki*) ‘badakiela’: *orrek ere yakinki. Uste ginuen etzakie-la, baño orrek ere yakinki* (“horrek ere jakinki. Uste genuen ez zekiela baina horrek ere jakinki”).

jakintsu (eta *jakintsun*)

jakintsun ik. **jakintsu**

jakitate (*yakitate*) ‘jakinduria’: *gure apezak badu yakitatea. Yakitate aundiko yaune* (“gure apaizak

- badu jakitatea. Jakitate handiko jauna”).
- jakituz** (*yakituz*) ‘gehiegi gastatu gabe, pixkanaka gastatuz’: *yakituz sobera gastatu gabe* (“jakituz sobera gastatu gabe”); *yakituz-yakituz bear dugu* (“jakituz-jakituz behar dugu”).
- janba** (*yanba*) ‘ardi-aziendaren beea; marraka’: *aitut ardi baten yanba* (“aditu dut ardi baten janba”). Sin. **marraka**
- janbaka** (*yanbaka*) ‘marrakaka’: *ardi oiek yanbaka* (“ardi horiek janbaka”).
- jangozo** (*yanoso*) ‘jateko gogoia ematen duena’: *yanosoa dago* (“jangozoa dago”).
- janiza** (*yanize*) (Izeta) 1 ‘jangale bizia’: *mutiko oien yanize!* (“mutiko horien janiza!”); *ezin ase, au yanize!* (“ezin ase, hau janiza!”). 2 ‘jateko gogoia ematen duena; jangozoa’: *aragi au yanize dago* (“haragi hau janiza dago”).
- janleku** (*yanleku*) ‘jantokia’: *ostatu ortan yanleku ederra* (“ostatu horretan janleku ederra”); *yanleku berrie* (“janleku berria”).
- jantzi** (*yauntzi*) 1 iz. ‘arropa’: *yauntzi berriekin, zein ongi* (“jantzi berriekin, zein ongi”); *yauntzi zarrak bota* (“jantzi zaharrak bota”). 2 ad. eta izond. ‘beztitu’: *mutiko oiek ongi yauntziek* (“mutiko horiek ongi jantziak”).
- janzilo** ‘tripazaina’: *gure osaba yanzilo gorra da. Yanzilo izigerrie* (“gure osaba janzilo gogorra da. Janzilo izugarria”).
- jarraika** (*yarraike*) ‘norbaiten edo zerbaiten gibeletik ibiltzea’: *gu beti yarraike orren gibeletik* (“gu beti jarraika horren gibeletik”).
- jarraiki** 1 (*yarraiki*) ‘jarraitu’: *yarraiki ginen bidetik* (“jarraiki ginen bidetik”); *yarraiki orri* (“jarraiki horri”); *orri ezin yarraikiz* (“horri ezin jarraikiz”). 2 ‘etsitu gabe segitzen duena’: *gizon yarraikie. Lanean aspertu gabe mutil yarraikie gure Josetxo* (“gizon jarraikia. Lanean aspertu gabe mutil jarraikia gure Josetxo”).
- jarrarazi** (*yarrazi*) *nola dauden yarraziek!* (= ‘nola dauden heziak... zerbait egiteko’).
- jarraulki** (*yarralki*) ‘jarlekua’: *yarralki zabalak gure Erriko Etxean* (“jarraulki zabalak gure Herriko Etxean”); *emen duzu yarralkie* (“hemen duzu jarraulkia”).
- jarri** (*yarri*) 1 ‘eseri’: *biala yarriko dire maian* (“berehala jarriko dira mahaian”). 2 ‘paratu’: *yartzazu emen alki oi* (“jar ezazu hemen aulki hori”).
- jasan** (*yasas*) ‘pairatu’: *ainbertze neke yasan dugu* (“hainbertze neke jasan dugu”); *nekeak yasanak* (“nekeak jasanak”).
- jasangarri** (*yasangarri*) ‘eramangarria’: *aurtengo negue yasangarrie izen da* (“aurtengo negua jasangarria izan da”).
- jasankor** (*yasankor*) *negu yasankorra* (“negu jasankorra”).
- jateko** (*yateko*) ‘janaria’
- jauregi** (*yauregi*) *yauregi ederrak gure eskualdean* (“jauregi ederrak gure

- eskualdean”). *Yauregia* etxe-ize-narekin Baztanen aunitz dira etxeak.
- jausgarri** (*Azkue*) (*yausgarri*): *bide zakarra, yausgarri aundiek* (“bide zakarra, jausgarri handiak”).
- jautsi** (*yautsi*) ‘jaitsi, behehitu, beheratu’: *yautsi zaite ortik* (“jautsi zaitez hortik”); *yautsiko zara* (“jautsiko zara”); *yautsi de* (“jautsi da”); *urie ai zuen yautsiala* (“uria ari zuen jautsi ahala”).
- jauzi** (*yauzi*) ‘saltoa’: *yauzi ederrak in nituen* (“jauzi ederrak egin nituen”); *zu beti yauzike* (“zu beti jauzika”). Baztango mutildantzan bada *Zazpi yauzi* deitzen den dantza.
- jeloskor** (*yeloskor*) 1 ‘arduratsua, artatsua’. 2 ‘maite duen pertsonarekiko jeloskortasuna sentitzen duena’: *nere senarra arront yeloskorra da. Yeloskor* (“nire senarra arrunt jeloskorra da. Jeloskor”).
- jendabide** (*yendapide*) (*Azkue*) ‘antzekotasuna’: *baute bai elkarren artean yendapide* (“badute bai elkarren artean jendabide”).
- jendaje** (*yendaje*) ‘jendaila’: *yendaje txarra torri zaiku. Au yendajea!* (“jendaje txarra etorri zaigu. Hau jendajea!”).
- jendaki** (*yendaki*) ‘ahaidea’: *zu nere yendakie zara* (“zu nire jendakia zara”); *Baztanen batut yendaki aunitz* (“Baztanen baditut jendaki aunitz”).
- jendarme** (*yendarme*)
- jendartzekoa** *izan* (*yendartzekoa izen*) ‘atsegina izan’: *jendartze pollitekoa zen*.
- jende** (*yende*) ‘pertsona-multzoa’: *yende aunitz erriko bestetan. Yendea pileka* (“jende aunitz herriko bestetan. Jendea pilaka”). Aunitzetan mugagabeen ibiltzen da: *bildu da jende? bazen jende?* “bildu da jendea?” adierazi nahi duela.
- jenderen jende** (*Izeta*) ‘kontrako ahaidea’: *oiek guretako yenderen yende tugu* (“horiek guretako jenderen jende ditugu”).
- jendealde** (*yendalde*) ‘jendetza’
- jetzi** (*deitzi*) ‘zenbait abereren errapetik esnea erauzi’: *deitzi bear tugu beiek* (“jetzi behar ditugu behiak”); *ardiek deizten ai dire* (“ardiak jezten ari dira”).
- jezteko** (*deizteko*): *borda au ardiek deizteko dugu* (“borda hau ardiak jezteko dugu”).
- jetzitegi** (*deiztei*) ‘zenbait abere jezteko lekua’: *ardiek deizteien bildu tugu* (“ardiak jetzitegian bildu ditugu”); *deiztei garbie dugu* (“jetzitegi garbia dugu”).
- jipon** (*yipon*) ‘jaka moduko soinekoa’: *yipon berrie erosiut. Nere yipona pollite da* (“jipon berria erosi dut. Nire jipoina polita da”).
- joale** (*gale, gatale*) ‘eramalea’ *nere osaba kontrabandoan ibiltzen zenean mando galea zen* (“nire osaba kontrabandoan ibiltzen zenean mando eramalea zen”); *badugu gatalea, Migeltrok gain*

du tresna zar oi (“badugu eramalea, Migeltxok joanen du tresna zahar hori”).

joan (*gan, goan, guan*) Baztandar gehienek *gan* ibiltzen dute. [Erranahirua] *gure urteak gateko torri dire, ez gurekin egoteko*. 1 ‘adierazten den tokiraino higitu’: *da ad. denak goan ziren* (“denak joan ziren”); *etxera guan zen* (“etxera joan zen”); *gan zaite emendik* (“joan zaitez hemendik”); *ez da gan pasten ere* (=‘ez da pentsatu ere, ez da inola ere’); *bidia gana dago ta arront ondattie* (“bidea joana dago, eta arrunt hondatua”); *gan da zutik umia?* (“joan da zutik umea?”). 2 ‘eraman’ *du ad. gan dut autoa* (“eraman dut autoa”); *gan du elurre* (“joan du elurra”); *gain duzu zuk autua?* (“joanen duzu zuk autoa?”); *norbait torri de ta dena gan du* (“norbait etorri da eta dena joan du”). • **joaki naiz** (*goaki naiz, gaki naiz*) ‘banoa’: (Orabidea, Etxalar, Urdazubi) *goaki naiz etxera* (“joaki naiz etxera”); *gaki naiz* (“joaki naiz”). • **goazen** (*gazin*) *gazin emendik* (“goazen hemendik”).

joan-etorri (*gan-torri gan-torrie idugun goizian*) (“joan-etorria egin dugu goizean”).

joan gogo (*gango*) *gango dut Iruñera* (“joan gogo dut Iruñera”); *gango nuen baño enitzen gan* (“joan gogo nuen baina ez nintzen joan”); *gan gogo nuen* (“joan gogo nuen”); *gan gogo dut* (“joan gogo dut”).

joankoi (*gankoi*) ‘herbesteratze zalea’: *emengo yendea aski gankoe da* (“hemengo jendea aski joankoa da”).

joare (*gare, yoare, goare, goale*) ‘zintzaria, abereei lepoan jartzen zaiena’: (Basaburua) *goarea*; (Basaburua) *goalea*; (Baztangoiza, Elizondo) *garea*. *Gure beorra gare ederrakin dabile* (“joarea. Gure behorra joare ederrarekin dabil”).

joare egile (*gare egile*) *nere osaba garegilea da, Gartzaingo garegile* (“nire osaba joare egile da, Gartzaingo joare egile”).

joatear (*gatear*) ‘abiatzekotan, abiatzeko asmotan’: *gatear in ginuen ta azkenean ezkinen batre gan* (“joatear egin genuen eta azkenean ez ginen batere joan”).

joatekotan (*gatekotan, goatekotan*) ‘joateko asmotan’: *egon nitzen goatekotan* (“egon nintzen joatekotan”); *beti goatekotan ta beñere ez goaten* (“beti joatekotan eta behin ere ez joaten”); *gatekotan* (“joatekotan”).

joiki (*yoiki*) ‘bazka-mota, arbia eta lastoa nahasita ateratzen dena’: *yoikie arras ona da beiendako* (“joikia arras ona da behiendako”).

jokatu (*yokatu*) 1 ‘joko jakin batean aritu’: *pilotan jokatu zuten atzo*. 2 ‘gobernatu, portatu’. 3 ‘zerbait bere errotik migitu’: *leio au arras jokatie da, konpondu be- arko dugu* (“leio hau arras jokatu da, konpondu beharko dugu”).

- jori** (*yori*) ‘iraunkorra, gogorra, erraza ez dena’: *egur yorie dugu* (“egur joria dugu”); *zein yorie den* (“zein joria den”); *bide oi yorie da* (“bide hori joria da”).
- joritu** (*yoritu*) ‘berretu, ugaritu’: *esnea, ur pixket manta yoritzen da. Yoritu iten da* (“esnea, ur pixka bat emanda joritzen da. Joritu egiten da”).
- jornal** (*yornal*) ‘soldata’
- jorra** (*yorra*) ‘alor eta landak jorratzea, jorraketa’: *yorra bat, arbi bat; bi yorra, bi arbi* (“jorra bat, arbi bat, bi jorra, bi arbi”).
- jorrai** (*yorrai*) ‘jorratzeko erabiltzen den aitzur txikia’: *porruiek yorraiakin ta tipulek ere yorraiakin garbitu* (“porruak jorraiarekin eta tipulak ere jorraiarekin garbitu”).
- jostagura** (*yostagure*) ‘jostatzeko gogoia duena’: *gure mutiko oien yostagure izigarrie da* (“gure mutiko horien jostagura izugarria da”); *gaur denek yostagure* (“gaur denak jostagura”).
- jostakin** (*yostakin*) ‘jostalaria’: *zu beti yostakin* (“zu beti jostakin”); *neskatiko au yostakine da* (“neskatiko hau jostakina da”).
- jostatu** (*yostatu*) ‘jolastu’: *emen bada non yosta* (“hemen bada non josta”).
- josteta** (*yosteta*) ‘jolasa’: *yosteta maiteut* (“josteta maite dut”).
jostetan yostetan ai dire (“jostetan ari dira”).
- jostorratz** (*yostorratz*) ‘josteko orratza’: *yostorratza galdut* (“jostorratza galdu dut”); *yostorratza onaut* (“jostorratza ona dut”).
- junta** (*junte*) *Balleko Junte yuntetu de gaur Erriko Etxian* (“Balleko Junta juntatu da gaur Herriko Htxean”).
- juntatu** (*yuntetu*) ‘elkartu’ *gero yuntetiko gara* (“gero juntatuko gara”).
- junte* ik. **junta**

K

kabestru (*kaprestu*) ‘zamariei lepoaren inguruan paratzen zaien lokarri edo uhala’: *abre orrek kaprestu ederra du* (“abere horrek kabestru ederra du”).

kabila (*kabile, kabille*) ‘lardaiari aitzi-neko aldetik jartzen zaion ziria’: *kabile autsi zaiku* (“kabila hautsi zaigu”); *kabille ondatue dago* (“kabila hondatua dago”).

kabile ik. **kabila**

kabille ik. **kabila**

kabrine ik. **gabirai**

kabriñe ik. **gabirai**

kadartzu ‘oihal-galoia’: *kadartzue emen duzu. Tori kadartzue* (“kadartzua hemen duzu. Tori kadartzua”).

kafa ‘atzapar egitearen ekintza eta ondorioa’: *emen beorrain kafa* (“hemen behorraren kafa”).

kafaka ‘atzaparka’: *beorra kafaka* (“behorra kafaka”).

kafatu ‘atzaparkatu’: *kafaka ta nola kafatu...* (“kafaka eta nola kafatu...”).

kafi ik. **habia**

kaiero (Izeta) ‘erantzulea; bereziki galtzailea’: *gu beti kaiero. Orain ere gu kaiero* (“orain ere gu kaiero”).

kaiku 1 ‘zurezko ontzia’: *kaikuile ona Erratzun* (“kaikuegile ona Erratzun”); *kaiku bet gaztanbera* (“kaiku bat gaztanbera”). 2 ‘bal-darra, traketsa’: *au gizon kaikue!* (“hau gizon kaikua!”).

kaikuegile (*kaikuile*) ‘kaikuak egiten dituen’: *Erratzuko Domingo kaikuile ona zen* (“Erratzuko Domingo kaikuegile ona zen”).

kaikuile ik. **kaikuegile**

kaikutto ‘zurezko ontzi txikia’: *kai-
kutto bat gaztanbera.*

kaiskungare (Izeta) ‘joare txiki eta lodia’: *gure ardi batek kaiskungare polite du* (“gure ardi batek kaiskungare polita du”).

kakaegile (*kakile*) ‘kakagalea; kaka-gura’: *kakile aundie* (“kakaegile handia”).

kakaegileak egon (*kakiliak egon*) ‘kakagale izan; kakagura izan’: *kakiliak nago* (“kakaegileak nago”).

kakaegiletu (*kakiletu*) ‘kakagaletu; kakagura’: *arras kakiletue* (“arras kakaegiletua”); *kakiletu zen* (“kakaegiletu zen”).

kakagizon ‘gizon eskasa; ergela’: *zu kakagizon bat zara. Kakagizon ustela.*

kakalardo (*kakamarro*) *kakamarro bat il dut* (“kakalardo bat hil dut”); *kakamarro aunitz* (“kakalardo aunitz”).

kakamarro ik. **kakalardo**

kakaraka ‘oiloek egiten duten oi-hua’

kaka-urrin (*kakurrin*) ‘kaka-usain kiratsa’: *puf! Au kakurrine!* (“puf! Hau kaka-urrina!”); *kakurrin nardagarrie* (“kaka-urrin nardagarria”).

kakelu zoro ‘erdi ergel edo zoroa’: *ago xilik arraio kakelu zoroa!* (“hago ixilik arraio kakelu zoroa!”).

kakile ik. **kakaegile**

kakiletu ik. **kakaegiletu**

kakiliak egon ik. **kakaegileak egon**

kakola 1 ‘belarra lotu eta biltzeko zurezko tresna’: *belarra kakoletan ta soinke sabaire* (“belarra kakoletan eta soinka sabaira”).

kakola 2 ‘makurra; okerra’: *oiek zango kakolak!* (“horiek zango kakolak!”).

kakolatu ‘kakolan sartu’

kakoldu 1 ad. ‘makurtu; okertu’: *nola kakoldu den gure gizona.* 2 izond. ‘okertu’: *arrant kakoldue* (“arrunt kakoldua”).

kakontzi (*kakuntzi*) ‘kakatia’: *zein kakuntzie den aur oi. Kakuntzi aundie* (“zein kakontzia den haur hori. Kakontzi handia”).

kakotxa ‘gaztainak erauzteko erabiltzen den tresnatxoa’: *kakotxakin ederki iten dugu morkotsen biltzea* (“kakotxarekin ederki egiten dugu morkotsen biltzea”); *kakotxa polite’ut* (“kakotxa polita dut”).

kakotxal ‘metalezko tresna, erdialdean gitzatzen diren bi atalez osatua, kurrika(k)’: *kakotxal ona dugu.*

kakuntzi ik. **kakontzi**

kakurrin ik. **kaka-urrin**

kalaka ‘txoriak izuarazteko landetan paratzen den tresna; txorimaloa; izugarria’: *gure landako kalakak ederki iziaztentu xori ta beleak ere* (“gure landako kalakak ederki izuarazten ditu txori eta beleak ere”); *kalaka ederra dugu.*

kalapita (*kalapite*) (Izeta) ‘iskanbila zalapartatsua’: *atzoko kalapite izi-*

garrie izen zen. Kalapite (“atzoko kalapita izugarria izan zen. Kalapita”).

kalapite ik. **kalapita**

kalatre ‘itxura txarra (pertsonei buruz)’: *kalatre txarreko gizona da. Kalatre txarra.*

kaldo ik. **gandu**

kalentura (*kalenture*) ‘sukarra’

kalenture ik. **kalentura**

kaleri ik. **galeria**

kalfar ik. **kalpar**

kaligorri ‘burugorria; ilegorria’: *erri unten kalizuri aunitz ta ondoko ortan berriz kaligorri franko* (“herri honetan kalizuri aunitz eta ondoko horretan berriz kaligorri franko”).

kalimurritz ‘ilea motz-motza duena; kaskamotza’: *kalimurritz ta bonetik gabe oztuko zara* (“kalimurritz eta bonetik gabe hoztuko zara”); *kalimurritze suski zaude* (“kalimurritza itsuski zaude”).

kalitse ik. **kalitxa**

kalitu ‘(suge, apo eta kideak) hil, akabatu’

kalitxa (*kalitse, kalitxe, kalitze*) ‘garatxoa’: *kalitse aundi bet atra zait* (“kalitxa handi bat atera zait”); *kalitze oi zein tsusie den* (“kalitxa hori zein itsusia den”).

kalitxe ik. **kalitxa**

kalitze ik. **kalitxa**

kaliztu ‘kalitxez edo garatxoz bete’: *gure larraskako aritz guzi-guziek kaliztu zaizku* (“gure larraskako

haritz guzi-guziak kaliztu zaizkigu”); *nere burue ere kaliztu* (“nire burua ere kaliztu”).

kalizuri ‘ilezuria; buruzuria’: *erri unten kalizuri aunitz ta ondoko ortan berriz kaligorri franko* (“herri honetan kalizuri aunitz eta ondoko horretan berriz kaligorri franko”).

kalostra ‘balaustrada, balaustre multzoa’: *kalostra unekin segur gara* (“kalostra honekin seguru gara”); *kalostra berrie dugu* (“kalostra berria dugu”).

kalpar (*kalfar*) ‘bere burua gaizki apaindua duena, zikin itxura duena’: *au neskatiko kalfarra ta zikine!* (“hau neskatiko kalparra eta zikina!”).

kamamila (*kamamile, kamamille*) ‘basalandare usainduna’: *kamamile arras ona da* (“kamamila arras ona da”); (Basaburua) *Saioako kamamille oberena* (“Saioako kamamila hoherena”).

kamamile ik. **kamamila**

kamamille ik. **kamamila**

kamantza ‘artzain-ohea, lo egiteko tokia’: *gure artzañek kamantza ederra du* (“gure artzainak kamantza ederra du”).

kamustu 1 ‘zorroztasuna galdu’: *aizkora kamustu zaiku* (“aizkora kamustu zaigu”). 2 ‘puska bat kendu’: *kamustu dugu zorra.*

kanabite ik. **ganibet**

kanalean ‘dudetetan, zalantzetan’: *ola egon ginen... kanalian...* (“hola egon ginen, ... kanalean...”).

kandelerero ‘kandelaria eguna (otsailaren 2a): *kandelerero bero, negue eldu da gero; kandelerero otz, negue gan da motz* (“Kandelerero bero, negua heldu da gero; kandelerero hotz, negua joan da motz”. Erranahirua, bertze aladaera batzuk ere baditu).

kando ik. **gandu**

kankail (eta *kinkil*) ‘pertsonek garai eta mehea’: *au gizon kinkile! Kinkile ta aule* (“hau gizon kankaila! Kankaila eta ahula”).

kanposantu ‘hilerri’

kantoi (*kantoin*) ‘ertza’: *erori ta lau-zein kantoñakin min artu* (“erori eta lauzaren kantoiarekin min hartu”).

kantoika (*kantoinka, kantoinke*) *daduak botatzen asi ta kantoinke gelditu zaizkit bat bertzian gañean* (“dadoak botatzen hasi eta kantoika gelditu zaizkit bat bertzearen gainean”); *kantoinke gelditu zen* (“kantoika gelditu zen”).

kantoin ik. **kantoi**

kantoinka ik. **kantoika**

kantoinke ik. **kantoika**

kantoinke ik. **kantoika**

kapable ‘zerbait egiteko gai dena, kapaza, indartsua, fuertea’: *etzara ortako kapable* (“ez zara horretarako kapable”); *gizon au kapable edozein lanetako* (“gizon hau kapable edozein lanetako”).

kapar ‘akain mota’: *kaparra uli gaixtoa da* (“kaparra euli gaiztoa da”). Errana da: “*lotu zitzaion kaparra bezala*”.

kapelu ‘andreak eramaten zuten txapel txikia’: *kapelu polite'izu* (“kapelu polita duzu”). “*Kapelu-ko kaskoa*” Baztango mendi baten izena da.

kaprestu ik. **kabestru**

kaprio ik. **gapirio**

kapusai (*kapusi*) (Izeta) ‘artilearekin egindako soinekoa’: (Sunbilla) *gure amatxik kapusiak egiten zituen* (“gure amatxik kapusaiak egiten zituen”); Malerrekan bildu dugu kapusaiak txanoa duten kapak direla, eta Ezkurran bazela kapusaiak egiteko lantegia.

kapusi ik. **kapusai**

-kara (izenondo, aditzondo eta izen batzuekin lotzen den partikula, baina ez guzietan) ‘nahiko, antzeko...’: *arinkara* (= ‘nahiko arin’); *beltzkara* (= ‘itxuraz beltza, beltz airea’); *maizkara* (= ‘nahiko maiz’); *auzelankara* (= ‘auzolanean-edo’); *zaarkara* (= ‘nahiko zaharra’); *gaztekara* (= ‘gazte itxurakoa’); *gorrikara* (= ‘gorrixta-edo’); *bizikara* (= ‘nahiko bizia’); *elurkara* (= ‘elur airea’); *ozkara* (= ‘nahiko hotz’); *lazkara* (= ‘nahiko latza’); *aundikara* (= ‘nahiko handia’); *fitekara* (= ‘nahiko fite’); *lodikara* (= ‘nahiko lodia’); *meevara* (= ‘mehe-antza’); *gizenkara* (= ‘nahiko gizona’); *urikara* (= ‘euria egiteko antza’); *aurkara* (= ‘haur itxurakoa’); *maingukara* (= ‘maingu airean-edo’); *kezkatukara* (= ‘kezkatu itxura’); *zakurkara* (= ‘nahiko zakurra’); *zelaikara* (= ‘itxuraz zelaia, malda gabea’)... **ergelkara*,

- *tallkara, *epelkara, *zurikara, bizikara / *lasterkara torriko da; ziztorra bizikara da; denbora ozkara / *berokara dago; nola nai duk makile? lodikara edo mehekara (meheantza)?; fitekara / *gerokara torako da; gizon hori arront aurkara / *umekara da; andre oi arras kezkatukara da (= 'arazo handi batekin kezkatua da'); andre oi kezkatu dago (= 'nahiko kezkatua, momentuzko zerbaitekin kezkatua'); Martin maingukara dabile azken egunotan; arront zakurkara dik orrek; arront zakurkara da oi. (Adibide batean, Anizen, iruzkien kara bildu dugu: 'eguzkiak ematen duen aldera').*
- karaka** 'oiloaren kantua': *au ollo karaka!* ("hau oilo kakara!").
- karakaka** 'karaka eginez': *denak karakaka! Au kalapite!* ("denak kakaraka! Hau kalapita!").
- karakari** 'karakatzen duena': *ollo karakari oi il bear dugu. Karakariak direla gure oiloak? Bai alafede!* ("oilo karakari hori hil behar dugu. Karakariak direla gure oiloak? Bai, alafede!").
- karantza** 'aurpegiaren itxura': *karantzatik zautut. Aitein karantza* ("karantzatik ezagutu dut. Aitarren karantza").
- karda** 'suharra, adoretsua': *ze kardako gizona den aul!; ze kardako andria!*
- kardelina** (*kardeline*) 'kardantxiloa, karnaba' (*Carduelis carduelis*): *kardelinek zein ongi kantatzeuten* ("kardelinek zein ongi kantatzen duten"); *kardeline txori polite* ("kardelina txori polita").
- kardeline** ik. **kardelina**
- kardu** (Gorosurreta) 'ardaia'
- karesa** (Izeta) 'maitasuna; harrera ona': *etxe ortan karesa maitagarrie in zakuten* ("etxe horretan karesa maitagarria egin ziguten"); *karesa orrek aunitz balio du* ("karesa horrek aunitz balio du").
- kargodun** 'herrietako alkateak, esku arteko lanetarako izendatzen dituen arduradun laguntzaileak': *Antonio da auzo unteko kargodune, lanak in bear direlaik* ("Antonio da auzo honetako kargoduna, lanak egin behar direlarik").
- kario** 'garesti': *urrea kario dago. Bazkari txarra ta karioa* ("bazkari txarra eta karioa").
- kariotu** 'garestitu': *urrea kariotu de. Gauze guziek kariotzen* ("urrea kariotu da. Gauza guziak kariotzen").
- karioxko** 'karioegia, nahiko kario'
- karkaraka** 'irriz ajataka; algaraka': *neska gazte oiek irriz karkaraka ai dire* ("neska gazte horiek irriz karkaraka ari dira").
- karkaxa** 'arnasbideetan sortzen den muki modukoa, bereziki ahotik botatzen denean': *ez karkaxik bota. Karkaxa nardagarrie da* ("ez karkaxarik bota. Karkaxa nardagarria da").
- karraka** 'asotsa ateratzen duen zurzko tresna': *lenagoko denbore-*

tan Aste Sainduko elizkizunetan karraka yotzen zen (“lehenagoko denboretan Aste Sainduko elizkizunetan karraka jotzen zen”); *karrakak asotsa iten du* (“karrakak asotsa egiten du”).

karrakail ‘hondatua; zaharra’: *karrakail dabile* (“karrakail dabil”).

karrakaildu ‘hondatu; zahartu’: *gure gizona arront karrakaildu da, karrakaildue dago* (“gure gizona arunt karrakaildu da, karrakaildua dago”).

karrakari ‘pertsone astuna; gogai-karria’: *gizon oi karrakari gorrauk* (“gizon hori karrakari gogorra duk”).

karrakatu ‘gauza gogor batekin gainalde bat indarrez igurtzi’: *karrakatu ongi sorallue. Ongi karrakatu* (“karrakatu ongi solairua. Ongi karrakatu”).

karrakatzale ‘karraka egiten duena’: *zu karrakatzale ona zara.*

karramiste ik. **karramixka**

karramixka (**karramiste**) ‘harramaska; atzaparkada’: *karramiste minkorra ta txarra* (“karramixka minkorra eta txarra”).

karrankari ‘oihu egiten duena’: *mutiko karrankari aspergarrie* (“mutiko karrankari aspergarria”).

karrasi ik. **garrasi**

karraskatu ‘arbola baten adarra hautsi; kraskatu’: *gaztainondo baten adarra karraskatu de* (“gaztainondo baten adarra karraskatu da”).

karraskila (**karraskille**) ‘zuhaiخوا كلاه باء’. Eritasunak sendatzeneko-eta, haren ura hartzen zen lehenago, edo txaplatak egiteko ere ibiltzen zen. Txaplatak olioarekin egiten ziren, edo ardoarekin, eta trapu batekin zintzurra- ren inguruan paratu, zitzurreko mina-eta kentzeko’

karraskille ik. **karraskila**

karrazi ik. **ekarrarazi**

karrera 1 ‘teilatuko habea, paretan luzera dagoena eta solibei asentatu ematen diena’: *gure etxeko teilatuko karrera ongi dago* (“gure etxeko teilatuko karrera ongi dago”). 2 ‘norbaitekin edo zerbaitekin ezin konponduz dabilenean norbait, ibiltzen den erramoldea: *ezin dut karreik in ume unekin, nai duena iten du* (“ezin dut karrerarik egin ume honekin, nahi duena egiten du”).

karrika (**karrike**) ‘kalea’: *karrikadantza; gure herriko karrikek garbitutuzte* (“gure herriko karrikak garbitu dituzte”); *karrike luzea* (“karrika luzea”).

karrike ik. **karrika**

karro ‘orga’

karrogaineko ‘zurezko habe luze bat, belarra edo karroan dagoena zapaldu eta estu-estu eramateko ibiltzen dena’

karroton ‘ohatze-kutxa; oharka eta, bereziki, ohatzearen aitzineko aldeko (buruko) pieza’: *karroton ttipie da* (“karroton ttipia da”).

karrotxa ‘karrotxoa; orgattoa’: *karrotxakin ongarriketan* (“karrotxa-
rekin ongarriketan”).

kartola ‘zamabereen gainean paratzen
den zurezko jarlekua’: *gure abreak
kartola berrie du* (“gure abereak
kartola berria du”); *kartola ona*.

kasatu 1 ‘hil’: *gerra ortan ainbertze
yende kasatu de* (“gerra horretan
hainbertze jende kasatu da”). 2
‘porrokatu; apurtu’: *gure etxea ta
ondasun guziek kasatu dire*
 (“gure etxea eta ondasun guztiak
kasatu dira”).

kaska ‘kaskakoa; kolpea; ukaldia’:
anbateko kaska artu nuen
 (“hainbateko kaska hartu nuen”).
Sin. **kasketako**

kaskabile ik. **kaskabilo**

kaskabile ik. **kaskabilo**

kaskabilo (*kaskabile, kaskabile*) 1
‘haritzek ateratzen duten lore
bola koxkorra’ 2 ‘metalezko bol-
latxo barne-hutsa, higitzen de-
nean asotsa egiten duena’: *kas-
kabile ederra* (“kaskabilo ede-
rra”); *kaskabillez betea dago*
 (“kaskabiloz betea dago”).

kaskail ik. **kiskali**

kaskaildu ‘hondatu; zarpaildu’ (Baz-
tanen hitz hau maiz ibiltzen da
pertsonek bat zahartua eta hon-
datua ikusten denean): *gizon oi
nola kaskaildu den* (“gizon hori
nola kaskaildu den”).

kaskailu (*kaskallu*) ‘harri-kozkorra’:
*bide ortan kaskallu aunitz bo-
taute* (“bide horretan kaskailu
aunitz bota dute”).

kaskaka ‘kolpeak emanez’: *zu beti
mallukekin kaskaka* (“zu beti
mailukarekin kaskaka”); *kaska-
ka beti*.

kaskalli ik. **kiskali**

kaskallu ik. **kaskailu**

kaskarkeria (*kazkarkerie*): ‘buru go-
gorkeria, apeta’: *eztugu denek
patu biar orren kazkarkeriek* (“ez
dugu denek pagatu behar horren
kaskarkeriak”).

kaskartzu (*kaskazu, Azkue*)

kaskasoil ‘burusoila’: *zu ogeitamar
urte gabe, kaskasoil* (“zu hogeita
hamar urte gabe, kaskasoil”).

kaskazu (Azkue) ik. **kaskartzu**

kasketako ‘kaskakoa; kaska’: *kaske-
tako aundie* (“kasketako han-
dia”).

kaskezur ‘buru-hezurra’: *erori ta
kaskezurre autsi* (“erori eta kas-
kezurra hautsi”); “*kaskezurrera-
ño bete naiz*”.

kaski (pl.) ‘lasto eta belar-izpi lo-
diak, idortuak’: *baba-kaski oiek
erre bear dire* (“baba-kaski ho-
riek erre behar dira”); *patata-
kaskiek ere bai* (“patata-kaskiak
ere bai”).

kasko ‘gailurra; muinoa’: *Saioako
kaskoan bada elurre* (“Saioako
kaskoan bada elurra”); *Auzako
kaskoan ere bai. Kaskoa ederki
ageri*.

kasu 1 ‘kontuz!; erne!’: *kasu orre-
kin. Kasu minik artu gabe* (“ka-
su horrekin. Kasu minik hartu
gabe”).

- kasu eman** (*kasu man*) ‘kontuz ibili’
- kasu 2** ‘segur aski, bai’ (erantzun gisa ematen da): - *Azkenian eroriko da.* - *Kasu!* (= ‘segur aski, bai’).
- kasuegi** (*kasuei, kasui*): *kasuei de!* (= ‘gai da bai...zerbait egiteko’); *kasui zate zuek!* (= ‘gai zarete bai zuek egiteko’).
- kasu-egile** (*kasuile*) *bazuten ek ere kasuilia!*
- kasuei* ik. **kasuegi**
- kasui* ik. **kasuegi**
- kasuile* ik. **kasu-egile**
- kasu man* ik. **kasu eman**
- katadera** ‘aulkia; jarlekua’: *yarri zaitte kataderan* (“jar zaitetz kataderan”). Bada Baztango folklorean *katadera-dantza* izeneko dantza bat.
- katalinezur** (eta *kattalinezur*) ‘orkatila-hezurra’: *kattalinezurre autsi zitzeiten* (“katalinezurra hautsi zitzaidan”).
- katalingorri** (*kattalingorri*) ‘marigorrin-goa; amona mantalgorria’ (*Cocci-nella septempunctata*): *kattalingorri aunitz gure baratzean* (“katalingorri aunitz gure baratzean”).
- kataota** ‘hil-ohea’: *kataotan karri ginuen. Lenagoko denboretan baserrietako difuntuek kataotan kartzen zuzten* (“kataotan ekarri genuen. Lehenagoko denboretan baserrietako defuntuak kataotan ekartzen zituzten”).
- katapurtxintxa** (*katapurtxintxe*) (Izeta) ‘urtxintxa; katagorria’
- (*Sciurus*): *katapurtxintxa*; (Erberrea, Basaburua) *katapurtxintxe*.
- katapurtxintxe* ik. **katapurtxintxa**
- katarro**
karroa bildu ‘hotzeria harrapatu’
- katazka* ik. **gatazka**
- katazkaka* ik. **gatazkaka**
- kateztatu** ‘katearekin lotu, kateatu’: *kateztatu zuten gizona; bortizki kateztatu.*
- kattalinezur* ik. **katalinezur**
- kattalingorri* ik. **katalingorri**
- katu** ‘gizakien artean bizi den animalia’ (Urdazubi-Zugarramurdin, eta handik Iparraldera, ‘gatu’ deitzen diote)
- katxeta** ‘tatxeta’: *katxetakin itzetu ginuen* (“katxetekin itzatu genuen”); *katxeta zorrotzak* (“katxeta zorrotzak”).
- katzakaka* ik. **gatazkaka**
- kausitu** ‘aurkitu’: *kausitu dugu. Kausitu* hitza erabiltzen da Baztanen: “*Urtsuan defuntua Santanan kausitua*” [kantu zaharra].
- kazkabar** (eta *kazkarabar*) ‘zizerkora; babazuza; txingorra’: *a ze kazkabar erauntsie in duen!* (“a zer kazkabar erauntsia egin duen!”); *kazkarabarra in zuen atzo* (“kazkabarra egin zuen atzo”).
- kazkarabar* ik. **kazkabar**
- kazkaraka** ‘daldaraka’: *otzak kazkaraka nindagon* (“hotzak kazkaraka nengoen”). Baztanen *kazkaraka* eta *daldaraka*, biak, erabiltzen dira.

kazkartzu (eta *kaskazu*) ‘buru gogorra’: *Joxe arras kazkartzue da* (“Joxe arras kazkartzua da”); (*Azkue*) *kaskazu*.

kazola (*kazpel*) ‘lurrezko ontzia’: *kazpela bete “xuri ta beltz”*. *Kazpel betea* (“kazola bete “xuri ta beltz”. Kazola betea”).

kazpel ik. *kazola*

ke (*eke*) *emen bada ekia* (“hemen bada kea”); *eke aunitz etxe ortan* (“ke anitz etxe horretan”).

keinu (*keñu*) *ulien keñue aski du tortzeko*

kendu 1 ‘dagokion tokitik desagerarazi’ 2 ‘(zerbait) dagokion, zaitzat duen edo itsatsirik duen gauzatik bereizi. 3 ‘norbait edo zerbait gauzaren bat gabe utzi’. 4 ‘kobratu’

keñu ik. *keinu*

kereta ik. *gereta*

kerizu (Izeta) ik. *geriza*

kerren 1 ‘hatz-bizarra’

kerren 2 ik. *gerren*

kertxol ik. *kortxil*

keta

ketan ‘garraioan’: *gu beti ketan*. *Ketan ai dire*. *Esneketara gan dire* (“ketan ari dira. Esneketara joan dira”).

ketatu ‘negartia’: *aur ketatue ta nigerruntzie* (“haur ketatua eta negarrontzia”).

kexarazi ‘larriarazi’: *oien erranak kexarazi gaituzte* (“horien erranek kexarazi gaituzte”).

kezkatukara ‘aski kezkatua’: *andre oi kezkatukara dago*.

kezkatuxe ‘nahiko kezkatua’

-ki ‘*zerriki, bildoski, oilaki, ardiki, beorki, beiki, basurdeki...* beza-lakoetan ibiltzen den atzizkia, animalia horien haragia adierazten duena’

kider ik. *gider*

kidets ik. *kirats*

kilika (*kilike*) 1 ‘kilikatzea eta horren ondorioa, kilikorra’: *zein kilike zaren* (“zein kilika zaren!”). 2 ‘kilika; mugikorra’: *ortz au kilike dauket* (“hortz hau kilika daukat”).

kilikaka (*kilikeka*) ‘kilika’: *alki au beti kilikeka daile* (“aulki hau beti kilikaka dabil”).

kilikatu (*kiliketu*) ‘kilika egin’: *kiliketu ginion* (“kilikatu genion”); *zu beti kiliketzen* (“zu beti kilikatzen”).

kilike ik. *kilika*

kilikeka ik. *kilikaka*

kiliketu ik. *kilikatu*

kilikor ‘kilikak dituena’: *au neska kilikorra!* (“hau neska kilikorra”); *denak kilikorrak*.

kilker ‘intsektua, udako iluntzeetan ‘kantu’ erraten zaion asots errepikakorra ateratzen duena’ (*Griillus campestris*): *belai ortan kilker aunitz*. *Kilkerrak pileka* (“belai horretan kilker aunitz. Kilkerak pilaka”).

- kilo** (Izeta, *kullo*) ‘gorua’: *kulloa aspaldiko tresna da* (“kiloa aspaldiko tresna da”).
- kima** (*kime*) 1 ‘adarren muturra’: *sagarrondoak kime berriek atratu* (“sagarrondoak kima berriak atera ditu”). 2 ‘zaldien zurdamultzoa’: *gure zaldiein kime zein polite den* (“gure zaldiaren kima zein polita den”). Sin. **krin**
- kimatu** (*kimetu*) ‘inausi’: *sagarrondoa kimetu bear dugu. Ongi kimetu* (“sagarrondoa kimatu behar dugu. Ongi kimatu”).
- kime** ik. **kima**
- kimetu** ik. **kimatu**
- kinka** (*enka*) ‘egoera edo momentu estua’: *gaur enka txarrean dago lanean aitzeko* (“gaur kinka txarrean dago lanean aritzeko”); *enka onean dago* (“kinka onean dago”).
- kinkil** ik. **kankail**
- kiraski** (*kireski*) ‘saminki’: *orrek in dakun maltzurkerie kireski sentitu dugu* (“horrek egin digun maltzurkeria kiraski sentitu dugu”); *kireski zanpatu gaitu* (“kiraski zanpatu gaitu”).
- kirastasan** (*kirestasun*) ‘nahigabea’: *kirestasun oi biotz barneraño sartu zaiku* (“kirastasan hori bihotz barneraino sartu zaigu”).
- kirats** (*kidets, kirets*) ‘samina’: *kafea kiretsa dago* (“kafea kiratsa dago”); *yanari kidetsa* (“janari kiratsa”).
- kireil** (*kirella*) ‘aldaka; hanka-hezurra’: *erori te kirella autsi* (“erori eta kirella hautsi”); *kirella ondatu* (“kirella hondatu”).
- kirella** ik. **kireil**
- kireski** ik. **kiraski**
- kirestasun** ik. **kirastasan**
- kirets** ik. **kirats**
- kirikaka** (*kirikeka*) ‘kiraka; zelatan’: *kirikeka zagon* (“kirikaka zegoen”).
- kirikatan** (*kiriketan*) ‘gordetzean eta agertzean datzan josteta’: *aur oiek kiriketan ai dire. Gu ere aur denboran kiriketan aitzen ginen* (“haur horiek kiriketan ari dira. Gu ere haur denboran kiriketan aritzen ginen”).
- kirikatu** (*kiriketu*) ‘kirik egin; zelatatu’: *nik ere kiriketu nuen* (“nik ere kirikatu nuen”).
- kirikeka** ik. **kirikaka**
- kiriketan** ik. **kirikatan**
- kiriketu** ik. **kirikatu**
- kirkos** ‘bereustekoa’: *neska kirkosata bereustekoa* (“neska kirkosata bereustekoa”).
- kiskali** (*kiskeli, kaskalli*) 1 ad. *kiskeli zaiku ogie* (“kiskali zaigu ogia”); *kaskalli dire* (“kiskali dira”).
- kiskali** (*kiskeli, kaskail*) 2 izond. ‘erabat errea’: *arrant kiskelie* (“arrant kiskalia”); *gaztain kaskail ok sure bota* (“gaztain kiskalia hauek sutara bota”).
- kiskalurrin** (*kiskelurrin, kizkilurrin*) ‘kiskali usaina, bereziki gaztanbera egiteko esneak, harriekin egosten denean, botatzen duen

usaina; urrina' (normalean arras usain txarra adierazteko erabiltzen da: *emengo urrine!, au kakaurrine!...*, baina kasu honetan usain goxoa adierazteko ibiltzen dugu): *kiskel urrine* ("kiskalurrina"); *emen bada kiskelurrine* ("hemen bada kiskalurrina").

kiskeli ik. *kiskali*

kiskelurrin ik. *kiskalurrin*

kisket (*krisketa*, *klisketa*) 'eskuaz eragiten zaion hagaxka edo xafila bat duen sarraila txikia': *ate orrek krisketa berrie bear du* ("ate horrek kisket berria behar du"); *klisketa* ("kisketa").

kisu ik. *gisu*

kisu-arri ik. *gisu-harri*

kisu-gesal ik. *gisu-gesal*

kisulabe ik. *gisulabe*

kisutu ik. *gisutu*

kito ik. *ijito*

kitotei ik. *ijitotegi*

kixkur ik. *kizkur*

kizkilurrin ik. *kiskalurrin*

kizkur (*kixkur*) 'kiribilduak dituen ilea': *ile kizkurre ta beltz-beltza* ("ile kizkurra eta beltz-beltza"); *kixkur ta polite* ("kizkur eta polita").

klase 'mota': *klase untekua da* ("klase honetakoa da"); *klase ortaik da au ere* ("klase horretatik da hau ere" = 'klase horretakoa da').

klin ik. *krin*

klisketa ik. *kisket*

krin (*klin*) 'kima; zurda-multzoa': (Aniz) *gure zaldiek kline ederra du* ("gure zaldiak krina ederra du").

krisketa ik. *kisket*

kofoin (eta *kojoña*) 'erlauntza': *kofoin-ñek kalerien dauzkegu* ("kofoinak galerian dauzkagu"); *kofoña garbie* ("kofoin garbia").

kogotz ik. *gorotz*

koila (*kolla*) 'hormatzen hasi den ura': *ur unek badu kolla* ("ur honen badu koila").

koilatu (*kollatu*) 'ura hormatzen hasi': *putzu au kollatue dago* ("putzu hau koilatua dago").

kojoña ik. *kofoin*

kokalux ik. *kokaluxe*

kokaluxe (*kokalux*) 'kukurruku ez-tula; zakurreztula': *gure aurre kokaluxekin dugu. Kokalux orrek lanak maten tu* ("gure haurra kokaluxearekin dugu. Kokaluxe horrek lanak ematen ditu").

kokin 'jenio txarrekoa, jenio bizi-koa': *andre kokine ta gaixtoa; au gizon kokine!* ("andre kokina eta gaiztoa"; "hau gizon kokina!"). Izetak ematen ditu adibide horiek, baina, toki zenbaitetan bederen, hitz hau andreekin, animaliekin eta gauzeekin bakarrik ibiltzen da: *malda kokine; eskalera kokine; atso kokine...*

kokindu 'kokin bihurtu': *kokindu zaiku atso au* ("kokindu zaigu atso hau").

- kokorikatu** (*totoriketu*) ‘kokoriko jarri’: *totoriketzen gara egunero* (“kokorikatzen gara egunero”).
- kokoriko** (*totoriko*) ‘nor bere oinen gainean eseri’: *yarri zaite totoriko* (“jar zaitez kokoriko”).
- kokorikoka** (*totorikoka*) ‘kokoriko’: *totorikoka patu ziren denak* (“kokorikoka paratu ziren denak”).
- kolatu** ‘tisiak jo’: *gure ardiek kolatu dire. Geienak kolatuek* (“gure ardiak kolatu dira. Gehienak kolatuak”).
- kolla** ik. **koila**
- kollatu** ik. **koilatu**
- koloka 1** ‘irmo finkatu gabe’: *katadera au arras koloka dago. Maie ere koloka. Emen denak koloka* (“katadera hau arras koloka dago. Mahaia ere koloka. Hemen denak koloka”).
- koloka 2** ‘loka’: *ollo koloka* (“oilo koloka”).
- komekatu** ‘jaunartu’: *gaur denak komekatzera. Komekatu gara.*
- konkor** (eta *kunkur*) 1 ‘bizkarreko irtengune nabaria’: *gazte orrek izein du urteekin konkor ederra bizkerrian ola segitzen badu* (“gazte horrek izanen du urteekin konkor ederra bizkarrean hola segitzen badu”); *gizon au arras kunkurre da* (“gizon hau arras konkorra da”). 2 ‘handia’: *au arri konkorra goratu duena bizkerrera!* (“hau harri konkorra goratu duena bizkarrera!”).
- konkurtu** (eta *kunkurtu*) *kunkurtzen ai zara* (“konkortzen ari zara”).
- konorte** (*konortu*) (Izeta) ‘zentzumenaz baliatzeko gaitasuna’: (Aniz) *konortue galdut* (“konortea galdu dut”).
- konortu* ik. **konorte**
- konparazione** ‘adibidez’
- konteasko* (Basaburua) ik. **kontesko**
- konten* ik. **kontent**
- kontent** (eta *konten*) ‘pozik’
- kontesko** (eta *konteasko*) ‘aski kontent’: *kontesko gan ziren mendire* (“kontesko joan ziren mendira”).
- kontin* ik. **kontu egin**
- kontra** ‘aurka’: *paretain kontra patu zuen* (“paretaren kontra paratu zuen”).
- kontu**, **kontzen**, **kontuko** ad. ‘atxiki’: *zezena kontzen zuten etxian* (“zezena kontzen zuten etxean” = ‘atxikitzen zuten; edukitzen zuten’).
- kontu egin** (*kontin*) ‘atxiki; eutsi’: *kontin emendik* (“kontu egin hemendik”); *kontin ongi* (“kontu egin ongi”).
- kopeta 1** ‘bekokia’. 2 *kopeta ederrian zuen amatxi!* (“kopeta ederrean zuan amatxi!” = ‘haserre zegoen’).
- kopetako** ‘idi edo behiei kopetan paratzen zaien larruzko zatia, uzta-riak min eman ez diezaien’: *kopetako ederrak badire gure etxean* (“kopetako ederrak badira gure etxean”).

korapilatu (*koropiletu*) ‘korapiloak egin’: *koropiletu ongi laxatu ez daien* (“korapilatu ongi laxa ez dadin”).

korapilo (*koropilo*) *korapilo au ez tut laxatzen aal* (“korapilo hau ez dut laxatzen ahal”); *korapiloa laxatut* (“korapiloa laxatu dut”).

kordotx ‘aizkora-giderraren punta makurra’: *aizkorain kiderrak kordotxa bear du* (“aizkoraren giderrak kordotxa behar du”). Ize-tak dioenez, Sunbillan *kordotx* erraten zaio artilearekin egindako burukoari.

koropiletu ik. **korapilatu**

koropilo ik. **korapilo**

korroka ‘sabeleko zarata’

korrokaka ‘korrokak eginez’: *nere tripek korrokaka ai dire* (“nire tripak korrokaka ari dira”).

korrokoil ‘piezak askatuak dituen’: *pareta au korrokolla dago* (“pareta hau korrokoila dago”); *katadera korrokolla* (“katadera korrokoila”).

kortxel ik. **kortxil**

kortxil (*kortxel*, *kertxol*) ‘eskorta’: *kortxelan bildutugu ardiek* (“kortxilean bildu ditugu ardiak”); *sartzizu ardiek kertxolan* (“sar itzazu ardiak kortxilean”); *ardiek kertxola berrire* (“ardiak kortxil berrira”).

koskatu (eta *koxkatu*) ‘arrautzaren eskola kaskatu’: *or bada dozena bat arroltze, baina erdiek koxkatu zaizku* (“hor bada dozena bat

arrautza, baina erdiak koskatu zaizkigu”).

kosko ‘(batez ere artoaren) zurtoina’: *arto koskoak bildu ta erre* (“arto koskoak bildu eta erre”); *kosko ederrak*.

koskoil ik. **oskol**

koskor (*kozkor*) 1 iz. ‘harri puska txikia (eta, hedaduraz, ogi muturra ere)’. 2 izond. ‘tamaina txikikoa’. 3 ‘haur aski hazia izendatzeko esapidea’: *mutik kozkorra* (“mutil kozkorra”). 4 ‘eskola’ (Izeta, Basaburua).

kosta (*gosta*) *ederki gostaik ine dugu oi* (“ederki kostarik egina dugu hori”); *gostatzen dena gosta inen dugu* (“kostatzen dena kosta eginen dugu”).

kostatu (*gostatu*) ad. *zenbat gostatu zaize oi?* (“zenbat kostatu zaizue hori?”).

kosterak (pl.) ‘teilatuan, teila azpian, paratzen diren oholak’: (Narbar-te) *kostera onak paratu tugu teilatuan* (“kostera onak paratu ditugu teilatuan”).

kotillun ik. **kotilun**

kotilun (*kotillun*) ‘andreen aspaldiko soinekoa’: Urtsuko kopla zaharretan honela ageri da: “-Zertan ezautzen naute, nere anaia jaina? -Gerria loditu eta laburtu kotilluna”.

koxeta ik. **kuxeta**

koxkatu ik. **koskatu**

koxkortu (adkor.) ‘mutikoa edo neska handitu, hazi’: *koxkortu gine-laik asi ginen bakarrik gaten*

- mezara* (“kozkortu ginelarik hasi ginen bakarrik joaten mezara”)
koxta ik. *kuxeta*
kozkor 1 ik. *koskor*
kozkor 2 (Izeta) ik. *oskol*
kraskarazi (*kraskazi*) ‘hautsarazi’: *aur orri kraskazi yostallu tzar oi* (“haur horri kraskarazi jostailu tzar hori”).
kraskatu ‘hautsi’
kraskazi ik. *kraskarazi*
kriseilu (*krisellu*) ‘hormetan paratzen zen argia’: *krisellu argiekin bizi zen yendea* (“kriseilu argiekin bizi zen jendea”); *badugu etxean krisellu zaar bat* (“badugu etxean kriseilu zahar bat”).
krisellu ik. *kriseilu*
kuadrapi ik. *kuarrazpi*
kuarrazpi (*goarrapi*, *kuadrapi*) ‘teilatuaaren hegatsaren azpiko oho-lek osatutakoa; erlaitza’: *kuarrazpien altxatu nuen* (“kuarrazpien altxatu nuen”); *goarrapi or* (“kuarrazpia hor”). *Goarrapi* Izetak bildua. Guk ‘kuarrazpi’ ezagutzen dugu.
kuartitsu ‘ate bakarra eta leihorik ez duen gela txikia’
kuilo (*kullo*) ‘dantzarien botileroak bere bonetean daraman borla’: *kullo pollite* (“kuilo polita”).
kuku 1 ‘txori igokaria, uso baten taimainakoa, lumak hauskarak eta buztana beltza dituen’.[errana-hirua] *kukuek Erramu egunean kuku*, *San Pedro egunean mutu kuku* (Izeta, *muku*) 2 adlag. ‘zeru goibela, eguzkirik gabea’: *gaur kuku dugu denbora*.
kukuka (*kukuke*) ‘josteta mota bat’
kukuke ik. *kukuka*
kukula (*kukulu*) ‘gailurra’: *kukulue bildu bear dugu* (“kukula bildu behar dugu”). Sin. *galdurru*
kukulin ik. *kukurin*
kukulu ik. *kukula*
kukurin (*kukulin*) ‘oilarraren gandorra’: *gure ollarrak kukuline polite du*. *Kukulin gorrie* (“gure oilarrak kukurin polita du. Kukurin gorria”).
kukurruku ‘oilarrek egiten duten oihua’
kukuso (eta *kukusu*) ‘arkakusoa’: *zakur unek kukuso aunitz*. *Kukusoz betea* (“zakur honek kukusoz aunitz. Kukusoz betea”).
kukusu ik. *kukuso*
kukutu (*mukutu*, Izeta) ‘estali, goibeldu’: *kukutu du denbora*; *kukutu du burua*.
kullo 1 ik. *kuilo*
kullo (Izeta) 2 ik. *kilo*
kulunka (*kulunke*) ‘mugitzen dena, ongi pausatzen ez dena’: *gauze au kulunke dago* (“gauza hau kulunka dago”). Baztango mendietan bada *arrikulunke* izeneko harri tzar bat.
kulunkatu (*kulunketu*) ad. ‘egonkortasunik gabe mugitu’: *kulunketzen da* (“kulunkatzen da”).
kulunke ik. *kulunka*

kulunketu ik. **kulunkatu**

kuluxka (*kuluxke*) ‘loaldi arina’: *kuluxke bat in ta segi aitzinet* (“kuluxka bat egin eta segi aitzina”); *bazkalondoko kuluxke maiteut* (“bazkalondoko kuluxka maite dut”).

kuluxke ik. **kuluxka**

kunka (*kunke*) ‘burua bertze buru baten kontra eginez ematen den kolpea (normalean behiekin, ardiekin, ahariekin, ahuntzekin... baina pertsonekin ere)’

kunka egin ‘jo; bulkatu; zantza egin’

kunkaka *bei oiek kunkeka ai dire; in kunke!* (“behi horiek kunkaka ari dira; egin kunka!”).

kunke ik. **kunka**

kunkur ik. **konkor**

kunkurtu ik. **konkortu**

kupizkeka (Izeta) ‘zer edo zer akitzeko beldurrez zuhurrerian egotea’: *gu beti kupizkeka gastatzeko beldurrez bizi gara* (“gu beti kupizkeka gastatzeko beldurrez bizi gara”); *kupizkeka mixerien* (“kupizkeka mixerian”).

kurioso ‘ikusnahia duena’

kurri gan ik. **kurri joan**

kurri ibili ad. ‘ibili, adierazten den bitartearen leku guztietan barna ibili’: *ibilia zen aunitz kurri gaztia zelaik* (“ibilia zen aunitz kurri gaztea zelarik”); *kurri ibiltzen da egunero bi ordu*.

kurri joan (*kurri gan*) ad. ‘joana izan’: *ez da emen, kurri gana da*

aspaldi (“ez da hemen, kurri joana da aspaldi”).

kurrinka (*kurrinke*) ‘zerriak egiten duen oihua’: *kurrinke. Anbateko kurrinkek itentuzte* (“kurrinka. Hainbateko kurrinkak egiten dituzte”).

kurrinkaka (*kurrinkeka*) ‘kurrinkak eginez’: *zerri oiek beti kurrinkaka* (“zerri horiek beti kurrinkaka”).

kurrinke ik. **kurrinka**

kurrinkeka ik. **kurrinkaka**

kurritu ad. ‘ibili’: *zangoak bero-beroak gintuen, baño kurritzeko neketan!* (“zangoak bero-beroak genituen, baina kurritzeko neketan!”).

kurrunke ik. **zurrunga**

kurrunkeka ik. **zurrungaka**

kuskor ik. **ikuskor**

kus-sari ik. **ikus-sari**

kustete ik. **ikustete**

kustetu (eta *kuxtetu*) (Izeta) ‘ilea apaindu’: *ilea kustetu* (“ilea kustetu”); (Almandoz) *zato ilea kuxtetzer* (“zatoz ilea kustetzer”).

kuterma (eta *guterma*) ‘haserre; errietan’: *zu beti kuterman. Andre kokine beti kuterman* (“andre kokina beti kuterman”); *kuterma tsusie da* (“kuterma itsusia da”).

kutxeta ik. **kuxeta**

kuxeta (*koxta, koxeta, kutxeta*) ‘goilara’: *kutxeta onak; zilerrezko kuxetakin yaten dugu* (“zilarrezko kuxetarekin jaten dugu”).

kuxin ‘gisulabeetan ibiltzen den sardea’: *kuxinekin lan ederra in ginuen* (“kuxinarekin lan ederra egin genuen”).

kuxtetu ik. *kustetu*

kuzi ik. *iku*

L

labatz ik. *laratz*

labendai ‘labeko zurezko pala biribila’: *labendaie bear izeten dugu* (“labendaia behar izaten dugu”); *labendaie nere osaba zurginek ine* (“labendaia nire osaba zurginak egina”).

labur (*llabur, llagur*) ‘murrizta’: *beso llagurrek tuzu* (“beso laburrak dituzu”).

lagatz ik. *laratz*

lainatei (*lañatei*) (Izeta) ‘aziendari belarrian egiten zaion seinalea’: *gure ardi guziek badaukete lañateie. Lañateie eskuñeko begarrien* (“gure ardi guziek badaukate lainategia. Lainategia eskuineko belarrian”).

laino-ihintz (*lano-intze, laño-intze*): *lano-intze sendoa dugu* (“laino-ihintza sendoa dugu”).

laino-langar (*lano-lankar*) (Amaiur) *ezta lurre busti baño bazen lano-lankarra* (“ez da lurra busti baina bazen laino-langarra”).

laka (Izeta) ‘errotazainak ehotzearen truke hartzen zuen saria, garai batean aleak-eta neurtzeko modua’: *errotazañek laka kentzen du. Laka du bere lansari* (“errotazainak laka kentzen du. Laka du bere lansari”).

lakain ik. **akain**

lakasta ‘akaina’: *bei oiek ez ditek lakasta ta kaka baizik* (“behi horiek ez diatek lakasta eta kaka baizik”); *bei zikinai lakasta lotzen zaio* (“behi zikinari lakasta lotzen zaio”).

laket izan ‘atsegin izan’: *laket dut leku au* (“laket dut leku hau”); *ain denbora txarra iten duelaik*,

laketago dugu etxian gelditzia (“hain denbora txarra egiten duelarik, laketago dugu etxean gelditzea”).

laketu *da/du* ad. ‘laket izan, atsegin hartu, zerbaitera (arruntean leku batera) ohitu’: *laketuizu emen?* (“laketu duzu hemen?”); *an ez du batre laketzen, ta badut uste torko den fite* (“han ez du batere laketzen eta badut uste etorriko den fite”); *ederki laketu de* (“ederki laketu da” = ‘ohitu da; jarri da’); *au dena laketue dago* (“hau dena laketua dago” = ‘la-sai dago’).

laku 1 ‘teilatuetan, azpiko teila, goiti beha jartzen duguna’. 2 ‘formari (‘U’ forma) ere erraten zaio’: *ure zen ure, lana, an denian porlanez lakue ine ure ongi pasatzeko* (“hura zen hura, lana, han denean porlanez lakua egi-na ura ongi pasatzeko”).

lan [erranahirua] *intzazu lana ta izen duzu yana*.

lama ‘tresna ebakitzailer baten hertz zorrotza’: *lamoi zorrotzu biar duzu, bertzenaz makine ondatiko da* (“lama hori zorrotzu behar duzu, bertzenaz makina hondatuko da”).

lami ik. **lamina**

lamina (*lami*) ‘emakume-itxura duen izakia, mitologiakoa’: *denbora batez baziren lami aunitz yendiak dionez* (“denbora batez baziren lamina aunitz jendeak dioenez”); *lamie sorgine da* (“lamina sorgina da”). Baztanen ba-

da etxe bat *Lamierrite* deitzen dena. Baita *Lamizilo* deitu lekua ere.

laminero ‘gauza gozo eta gozokien jalea’

lanabes ‘erreminta’: *lanabesak artu ta banoaie lanera* (“lanabesak hartu eta banoa lanera”); *lanabes onak tut* (“lanabes onak ditut”).

landa ‘lantzeko on den lur-eremua’: *gure landak lur ona du. Landa ederra dugu*.

landara ‘horretaz kanpo’: *ortaz landara arras ongi nago* (“horretaz landara arras ongi nago”); *ortaz landara etxeko lanak ongi doazi* (“horretaz landara etxeko lanak ongi doaz”).

langar (*lankar*) ‘euri xehea; zirimiria’: *mendietan lankarra. Uri lankarra ai du* (“mendietan langarra. Euri-langarra ari du”).

langose ‘beti lanean ari nahi izatea’: *etxe ortan denak langose. Nere etxean, berriz, langose guti* (“etxe horretan denak langose. Nire etxean, berriz, langose guti”).

lankar ik. **langar**

lano-intze ik. **laino-ihintz**

lano-lankar ik. **laino-langar**

lanpa ‘sargoria’: (Aniz) *gaur lanpa dago. Bero zakarra, lanpa. Sin. sapa. Sin. sargori*

lantxurda (*lantzurde*) ‘euri edo elur mota’: *mendi zoko oietan bazen lantzurde* (“mendi zoko horietan bazen lantxurda”); *lantzurde ez-*

- tut maite* (“lantxurda ez dut maite”).
- lantzurde* (Izeta) ik. *lantxurda*
- lañatei* (Izeta) ik. *lainatei*
- laño-intze* ik. *laino-ihintz*
- lapastu* ‘esneaz mintzatuz, mindu’: *esne au nola lapastu zaikun* (“esne hau nola lapastu zai-gun”); *lapastu de* (“lapastu da”).
- lapatin* ‘usu-belarra’ (*Agrimonia eupatoria*): *gure landa dena lapatinez betea dago. Lapatine belar gaixtoa da* (“lapatina belar gaiztoa da”).
- lapatx* ‘elur-maluta txikia’: *elur pixke bet ai du, lapatxa brintxe bat bertzeik ez* (“elur pixka bat ari du, lapatx brintxa bat bertzerik ez”).
- laratz* (*labatz, lagatz*) ‘sukaldeko ke-bidean zintzilik dagoen burdina’: *pazine labatzatik dilinden* (“pazia laratzatik dilindan”).
- lardai* ‘orgaren haga luzea, animaliei lotzekoa’: *orgai lardaie autsi zaio* (“orgari lardaia hautsi zaio”). Hau laburra denean urke-motxa erraten zaio.
- larderia* 1 ‘beldurra, mehatxua’: *aur oiek larderi pixket bear lukete. Larderie sartu bear zaiote* (“haur horiek larderia pixka bat behar lukete. Larderia sartu behar zaie”); *larderie gorra du laneko* (“larderia gogorra du laneko”); *suek larderie gorra du* (“suak larderia gogorra du”). 2 ‘erantzukizuna’: *bazen larderie bai, an!*
- larrain* ‘etxearen aitzinaldea’: *larrainē garbitu bear dugu* (“larraina garbitu behar dugu”); *Larrain karrike Arizkunen* (“Larrain karrika Arizkunen”).
- larraputike* ik. *larrepetita*
- larraputite* ik. *larrepetita*
- larraska* ‘mendian, iratzea biltzeko-eta, etxeek izaten duten lur eremua’: *gure larraskan sube aundi bet kusiut* (“gure larraskan suge handi bat ikusi dut”); *larraska arras zikine dugu* (“larraska arras zikina dugu”).
- larratsu* (Izeta) ‘hotzarengatik ezpainenetan eta belarrietan ateratzen den zauria’: *ezpañetan larratsueizu ta begarrietan ere bai* (“ezpainenetan larratsua duzu eta belarrietan ere bai”); *larratsuz betea*.
- larrazken* ‘udazkena’: *larrazkena dugu sasoñik oberena* (“larrazkena dugu sasoirik hoberena”); *aurten larrazken ederra izan dugu* (“aurten larrazken ederra izan dugu”).
- larre* iz. ‘zelaia, bereziki abereak bazkatzen diren toki belartsua’
- larrepetita* (*larraputite, larraputike*) ‘larrapotea; otia’ (*Tettigonia viridissima*): *gure belaia larraputitez betea* (“gure belaia larrepetitaz betea”).
- larretu da* ad. ‘larre bihurtu’: *larretu da, eztu iñork ere zaintzen azkeneko amar urte unten* (“larretu da, ez du inork ere zaintzen azkeneko hamar urte honetan”).
- larriskoen* ‘handiena; azalekoena’: *larriskoena bilduko dugu, urie*

asi baño lenago, bertzenaz dena bustiko baitzaigu; sala au arront zikin dago, komeni da jendia torri aitzinetik larriskoena bedere biltzia.

larruaje ‘larruazala’: *oiek larruaje fine ute* (“horiek larruaje fina dute”).

larrutu ‘larrua kendu’: *erori ta belaune larrutu* (“erori eta belauna larrutu”); *besoa ere larrutu*.

lastaira (*lastaire*) ‘lastozko kamantza’: *lastaire ortan etzan* (“lastaira horretan etzan”); *lastaire artoxuritondoakin iten zen* (“lastaira artozuritondoarekin egiten zen”). Guk *lastairu* ere bildu dugu.

lastaire ik. **lastaira**

laster (eta *laxter*) ‘berehala’: [erranahirua] *laster lan, kaka lan*.

lasterbide (*laxterbide*) ‘laburbidea; bidezidorra’: *lasterbide ortaik ixtanpatez an gara* (“lasterbide horretatik instant batez han gara”); *au lasterbide ona da* (“hau lasterbide ona da”).

lastoziri ‘lasto-mukuru batean ardatz lana egiten duen makila’: *lastoziri ederrak intugu* (“lastoziri ederrak egin ditugu”).

lata ‘teilatuan teilen azpian paratzen den ohol mehea’: *laten gañean patzen dire tellak* (“laten gainean paratzen dira teilak”); *tellatuko latak usteldu zaizku* (“teilatuko latak usteldu zaizkigu”).

laudatu (*laudetu*) ‘goraipatu’: *gizon oi aunitz laudetzeute. Apezak ere laudetu du* (“gizon hori au-

nitz laudatzen dute. Apaizak ere laudatu du”).

laudetu ik. **laudatu**

lauekoan ik. **laukoan**

lauetanogei ik. **lauretan hogei**

laukoan (*lauekoan*) ‘lau hankatan; galupeka’: *zaldiz lauekoan aise gan ginen* (“zaldiz laukoan aise joan ginen”). Sin. **lauringoan**

lauretan hogei (*lauetanogei*) ‘laurogei’: *lauetanogei urtetan il zen* (“lauretan hogei urtetan hil zen”).

lauringoan (Izeta) ‘lauhazka; laugainka; galupeka, laukoan’: *lauringoan nere zaldi gañean* (“lauringoan nire zaldi gainean”).

lausengatu (Izeta) ‘losintxatu; bala-katu’: *nola lausengatzeuten yaun oi. Lausengatute al duten guzie* (“nola lausengatzen duten jaun hori. Lausengatu dute ahal duten guztia”).

lausengu (eta *lauxinge*) (Izeta) ‘losintxa’: *gizon orrek merezi du lausengoa* (“gizon horrek merezi du lausengua”); *lauxinge beroak* (“lausengu beroak”).

lausenguka (*lauxingeka*) (Izeta) *zu beti lauxingeka* (“zu beti lausenguka”).

lauso 1 ‘izutia’: *gure beorra lauso da* (“gure behorra lauso da”).

lauso 2 ‘elur mukuru, elurra airean haizeak nahasia’: *mendi zoko oietan elur lausoak* (“mendi zoko horietan elur lausoak”).

lausotu ‘gardentasuna galdu’: *begiek lausotu zaizkit* (“begiak lausotu zaizkit”).

lauxinge (Izeta) ik. **lausengu**

lauxingeka (Izeta) ik. **lausenguka**

laxo 1 (eta *lazo*) ‘lasaia; askea’: *au laxo dago* (“hau laxo dago”); *aski laxo dago*; *laxo utzi*. 2 ‘ardura gabea’: *au mutiko lazoo dena guria! eztu batre kasuik iten* (“hau mutiko lazoo dena gurea! ez du batere kasurik egiten”). 3 ‘eskularruz jokatzeko den pilota jokoak’

laxotasun (eta *lazotasun*) ‘laxokeria’: *laxotasunek galdu gaitu*. *Lazotasune* (“laxotasunak galdu gaitu. Laxotasuna”).

laxter ik. **laster**

laxterbide ik. **lasterbide**

lazkara ‘nahiko latza’: *pareta lazkarra da*.

lazkitu (Izeta) ‘izutu; beldurtu’: *lazkitute gizona* (“lazkitu dute gizona”); *bortizki lazkitu*.

lazo ik. **laxo**

lazotasun ik. **laxotasun**

leerrine ik. **leher egina**

legor ik. **lehor**

legun ik. **leun**

lehenbiziko (*lemiziko, lenbiziko*) ‘lehen, lehenengo’

lehengusina (*lengusin*) ‘norbaiten gurasoen anai-arreben nahiz lehengusuen alaba’: *lengusine torri zaiku*. *Lengusine ona* (“lehengusina etorri zaigu. Lehengusin

ona”). Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan ‘bizkaiera’ marka darma hitz honek, baina hori ez da egia, Baztanen hau baita ibiltzen den bakarra (‘lehengusu’ beti gizonkia da). Eta, gutienez, Urdazubi eta Zugarramurdiraino ailegatzeko da hau, han ere berdin erraten baita. Eta Bidasoan ere berdin.

leher egin (*leerrin*) ‘arras nekatu’: *leerrine nago*. *Emen denak leerrinek* (“leher egina nago. Hemen denak leher eginak”).

lehor (*leor, legor*) 1 ‘aterpea’: *pilota plazai legorra man diogu* (“pilota plazari lehorra eman diogu”); *legorra ongi ine* (“lehorra ongi egina”); *leor beretsuko etriak dire, baina au zabalago* (“lehor beretsuko etxeak dira, baina hau zabalago”). 2. ‘idortu’: *soro gañian utzi dugu arropa eta ederki leortu zaigu* (“soro gainean utzi dugu arropa eta ederki lehortu zaigu”).

leize (*leze*) ‘mendietan-eta egoten den zilo mota bat’

leku *leku onian bizi de!* (“leku onean bizi da!” = ‘leku txarrean’); *lanetik lekure torri de* (“lanetik lekura etorri da” = ‘lanetik zuzenean’).

leku egin ‘alde egin’: *leku in du emendik!* (= ‘alde egin du hemendik!’).

lekutu ‘aldegin’: *lekutu dire denak*. *Yendia lekutu de* (“lekutu dira denak. Jendea lekutu da”).

lelatu ‘hezetu; busti’: *belar idorra lelatu zaiku* (“belar idorra lelatu

zaigu”); *ogi au lelatu de ta ezta ona* (“ogi hau lelatu da eta ez da ona”); *lelatu zaizku denak* (“lelatu zaizkigu denak”).

lemiziko ik. *lehenbiziko*

lenbiziko ik. *lehenbiziko*

lengusin ik. *lehengusin*

leor ik. *lehor*

lepazaki ‘lepoaren kanpoaldea’: *anbateko lepazakie du* (“hainbateko lepazakia du”); *lepazaki ederra gure osabak* (“lepazaki ederra gure osabak”).

lepazur ik. *lepo-hezur*

lepazurtzuil ik. *lepo-hezurtzuil*

lepo 1 ‘burua enborrari lotzen zaion gorputz zatia’

lepo 2 ‘mendiak edo mendixkak elkarren artean lotzen dituen bizkarra’: *lepo artan atratzen omentziren beti lepurrek* (“lepo hartan ateratzen omen ziren beti lapurrak”).

lepo-hezur (*lepazur*) ‘garondoa’: *lepazurreraño nago zuen gaxtake-riekin* (“lepo-hezurreraino nago zuen gaiztakeriekin”).

lepo-hezurtzuil (*lepazurtzuil*) ‘lepoa’: *lepazurtzulletik artu eta doi-doi ez zuen ito!* (“lepo-hezurtzuiletik hartu eta doi-doi ez zuen ito!”).

lera ‘gurpilik gabeko orga’: *idetzia leran kartzan dugu* (“iratzea leran ekartzen dugu”); *lera betea*.

lera-bide ‘lera ibiltzeko bidea’: *lera-bide ederra dugu*. *Lera-bide au*

auzelanian ine (“lera-bide hau auzolanean egina”).

lera-ferra ‘lerak azpiko partean duen lurrean irrist egiteko ohola’: *lera-ferrak Arlako errekan itentugu* (“lera-ferrak Arlako errekan egiten ditugu”); *lera-ferra onak itentugu* (“lera-ferra onak egiten ditugu”).

lerro ‘marra jarraia’: *yarri zaizte lerroan* (“jar zaitezte lerroan”); *mutildantzan denak lerruan*. *Lerro ederrak itentugu* (“lerro ederrak egiten ditugu”).

lertz 1 ‘eguraldia aldatzen denean zeruaren eta mendien artean agertzen dena’: *mendi oietan lertzoa bada, denborak badu aldakuntze* (“mendi horietan lertzoa bada, denborak badu aldakuntza”). 2 ‘lohitasuna; zinkinkeria’: *untzi ok baute lertzue*. *Sukeldeko ekeakin lertzue in zaiote* (“ontzi hauek badute lertzoa. Sukaldeko kearekin lertzoa egin zaie”).

letagin (*letain, litein, liteñak*) ‘azken ebakortzaren eta lehen haginaren arteko hortz zorrotza’: *letaine autsi zait* (“letagina hautsi zait”); *otsoain liteñak zorrotzak dire* (“otsoaren letaginak zorrotzak dira”).

letain ik. *letagin*

leun (eta *legun*) ‘biguna’: *aurpei leuneizu* (“aurpegi leuna duzu”); *zein leuneizun* (“zein leuna duzun”); *zein legun mintzetzen zaren* (“zein leun mintzatzeten zaren”).

leze ik. *leize*

lezta ik. *ezten*

lezten ik. *ezten*

libein (Izeta) ik. *lirain*

libro ‘libre, askatua’ (Amaiur)

liho-orraxi (*liñorraxa*) ‘lihoa garbitzeko tresna’: *denbora batez liñorraxa ibiltzen zen* (“denbora batez liho-orraxia erabiltzen zen”).

likiskeri (Izeta) ik. *likiskeria*

likiskeria (*likiskeri*) (Izetak bildua) ‘zikinkeria’: *likiskeri orrek kalte aundie in du* (“likiskeria horrek kalte handia egin du”).

likits (Izeta) ‘lizuna; zikina’: *gizon likitse beti maltzurkerien* (“gizon likitsa beti maltzurkerian”).

limein (Izeta) ik. *lirain*

limiti ‘gozozalea’: *gure aldean limiti aunitz*.

limitikeri ik. *limitikeria*

limitikeria (*limitikeri*) ‘gozozalekeria’: *limitikeri aunitz* (“limitikeria aunitz”).

linbres (eta *minbres*) ‘milixka; jateko bortxaka ibiltzen dena’: *zu arras linbresa zara*.

lindirge ik. *lirdinga*

linga (*linge*) ‘lohi-putzua; zingira’: *kasu linge ortan sartu gabe. Linge zikine* (“kasu linga horretan sartu gabe. Linga zikina”). Sin. *liske*

linge ik. *linga*

lingurdi ik. *lirdinga*

liño ik. *liho*

liñorraxa ik. *liho-orraxi*

lirain (*libein, limein*) (Izetak bildua) *mutil libeñe, itxure ederrekoa* (“mutil liraina, itxura ederrekoa”); *neska limeñe* (“neska liraina”).

lirdinga (*lindirge, lingurdi*) 1 ‘erra-peak jezten dituenaren eskuan uzten duen zikina’: *lingurdiekin eskuak arras zikindutut* (“lirdingarekin eskuak arras zikindu ditut”) 2 ‘uholdeak uzten duen zikina’ *Uberro unek anbateko lingurdie utzi daku* (“uharre honek hainbateko lirdinga utzi digu”) 3 ‘marraskiloak eta bareak uzten dutena’ *bare bat ukitu te utzi dauten lingurdie ezin garbituz nabile* (“bare bat ukitu eta utzi didan lirdinga ezin garbituz nabil”).

liska (*liske*) ‘lohi-putzua; zingira’: (Basaburua) *Eperburuko liske Anizen dago* (“Eperburuko liska Anizen dago”).

liske (Izeta) ik. *liska*

lisku (Izeta) ‘perrexilaren hostoa’: (Sunbilla) *perrexillak lisku berriak atera ditu* (“perrexilak lisku berriak atera ditu”).

listame (*liztame*) ‘liztor txikia’: (Oronoz) *eta atratzen dira andik eta... neri lotu liztamie!* (“eta ateratzen dira handik eta... niri lotu listamea!”)

litein ik. *letagin*

liteñak ik. *letagin*

lixiba (*lixu*) ‘arropa garbitzeko garai bateko modua’: *lixue in bear dugu*. *Lixue astero iten dugu* (“lixu-

ba egin behar dugu. Lixiba aste-
ro egiten dugu”); (Malerrekan *li-
xiba*). [Erranahirua] *launbetero
atratzen omen da iruzkie Ama-
birjiñein lixue idortzeko*

lixiba-harri (*lixuarri*) ‘lixiba
egiteko harria’: *lixu-arri ona
dugu, aspaldiko lixu-arrie*
 (“lixiba-harria ona dugu, as-
paldiko lixiba-harria”).

lixiba ikuzi (*lixue kuzi*): *lixue
ongi kuzi* (“lixiba ongi ikuzi”);
lixue kuzi te garbitu (“lixiba
ikuzi eta garbitu”).

lixiba-kuku (*lixu-kuku*) ‘arro-
pa garbitzeko ontzia’: *leena-
goko lixu-kukue zokoratu du-
gu* (“lehenagoko lixiba-kukua
zokoratu dugu”).

lixiba-zurruta (*lixu-zurrute, li-
xu-zurruzte*) ‘arropa garbitzeko
harrizko ontzia, ur zurrutaren
azpian jartzen zena’: *lixu-zu-
rrute zarra ortxe dago oroitzap-
enetako* (“lixiba-zurruta zaha-
rra hortxe dago oroitzapenetako”);
*lixu-zurrute etxeko saba-
baien dugu* (“lixiba-zurruta
etxeko sabaian dugu”).

lixu ik. *lixiba*

lixuarri ik. *lixiba-harri*

lixu-kuku ik. *lixiba-kuku*

lixu-zurrute ik. *lixiba-zurruta*

lixu-zurruzte ik. *lixiba-zurruta*

lizta (*lizte*) ‘liztaria’: *liztekin lotu
nuen* (“liztarekin lotu nuen”);
lizte au ustela da (“lizta hau us-
tela da”).

lizte ik. *lizta*

liztame ik. *listame*

liztor ‘erlearen antzeko intsektua’
(*Vespa vulgaris*): *kasu liztor
orrekin* (“kasu liztor horrekin”);
liztorrain atsikie gaixtoa da
 (“liztorraren ausikia gaiztoa
da”); *or dabile liztorra* (“hor da-
bil liztorra”).

llabur ik. *labur*

llagur ik. *labur*

lo arin ‘erraz iratzartzen dena’: *gure
aurrek lo arine du* (“gure hau-
rrak lo arina du”); *lo arin, aise
iretzartzen dena* (“lo arin, aise
iratzartzen dena”).

lodikara ‘nahiko lodia’: *nola nai duk
makile? lodikara edo meekara?*

logale ‘logura’: *gaupasan ibili ta
gaur logale* (“gaupasan ibili eta
gaur logale”).

logaleak egon ‘logale izan’: *logaleak
nago*.

logaletu ‘lo eskasia duena’: *arrant
logaletue da* (“arrunt logaletua
da”).

logi ik. *lohi*

lohi (*logi*) ‘urezko eta hauts edo lu-
rrezko nahastura’: *logi aundiek
bide oietan* (“lohi handiak bide
horietan”); *bada logie* (“bada lo-
hia”); *zapatak logiz zikinduek*
 (“zapatak lohiz zikinduak”).

lokartu ‘loak hartu’: *gure aurre lo-
kartu de* (“gure haurra lokartu
da”); *lokartu nitzen* (“lokartu
nintzen”).

lo-kuluxka (*lo kuluxke*) ‘loaldi arina,
txikia’: *lo-kuluxke bat inik arin-
du nitzen* (“lo-kuluxka bat egi-
nik arindu nintzen”).

lo pisu ‘lo sakona’: *lopisu batek ar-tu te gau guzien iratzarri gabe* (“lo pisu batek hartu eta gau guzian iratzarri gabe”); *lopisu oiek eztire onak* (“lo pisu horiek ez dira onak”).

lo-kulurke ik. **lo-kuluxka**

lomoker ‘gaizki iratzartzeak sortutako egoera’: *gure aurre lomoker dago* (“gure haurra lomoker”); *ongi iratzarri gabe lomoker gelditu de* (“ongi iratzarri gabe lomoker gelditu da”).

lovide (*lotbide*) ‘lotzeko bidea’ (Izetak bildua): *ortan badugu lotbide ederra* (“horretan badugu lovide ederra”).

loreontzi (*loreuntzi*) ‘lore ontzia’: *loreuntzi ortan lore politak* (“loreontzi horretan lore politak”).

loreuntzi ik. **loreontzi**

lortxinge ik. **gortxinga**

lortxingetu ik. **gortxingatu**

lotbide (Izeta) ik. **lovide**

lotre (Izeta) ‘arrain-mota’: *zenbait ugaldetan badire lotreak* (“zenbait ugaldetan badira lotreak”); *lotrea, arrain mota berezia da*.

lo-zurrunde ik. **lo-zurrunga**

lo-zurrunga (*lo-zurrunke*, *lo-zurrunde*) ‘lo egonik arnasa hartzean sudurrarekin egiten den asots berezia’: *anbateko lo-zurrunkek itentuzu* (“hainbateko lo-zurrungak egiten dituzu”).

lo-zurrunke ik. **lo-zurrunga**

luberry (eta *lugerry*) *ogei gizelurreko lugerrye in dugu* (“hogei gizalu-

rreko luberrya egin dugu.”); *aurten Baztanen luberry aunitz atratuzte* (“aurten Baztanen luberry aunitz atera dituzte”).

lugartza (Izeta) ik. **luhartz**

lugerry (Izeta) ik. **luberry**

luhartz (*lugartza*) ‘belar mota bat’ (*Gryllotalpa gryllotalpa*): *gure baratzean lugartza aunitz* (“gure baratzean luhartz aunitz”); *il dut lugartza bat* (“hil dut luhartz bat”).

lukana ‘argiziloa, teilaturako leihoa’: *lukanatik atra naiz tellature* (“lukanatik atera naiz teilatura”); *gure etxeko tellatuen lukana ederra* (“gure etxeko teilatuan lukana ederra”).

luma (*lume*) *ollo oiek lume gorriek tuzte* (“oilo horiek luma gorriak dituzte”).

lumaritu (*lumerietu*) ‘(oiloen gainean mintzatuz) lumak aldatu’

lume ik. **luma**

lumerietu ik. **lumaritu**

lur-mendi ‘lur-jausia’: *lurmendie irristetu de beiti* (“lur-mendia irristatu da beheiti”).

lurrikara (*lurrikera*) ‘ikareria’: *bartatsean anbateko lurrikera izen dugu* (“bart arratsean hainbateko lurrikara izan dugu”). Sin. **ikareri**

lurrikera ik. **lurrikara**

luzerna ‘alpapa’ (*Medicago sativa*): *gure landan badugu luzerna ederra*.

M

madarikatu (*madariketu*) ‘gaitzetsia; gaitzesgarria’

madariketu ik. **madarikatu**

mahai (*mai*) ‘altzaria; oin batek edo gehiagok eusten dion ohol lau batek osatua’: *atsaldeko iruetan yarri dire kafia artzen eta oñik ez dire zutitu maitik* (“arratsaldeko hiruretan jarri dira kafea hartzen eta orainik ez dira zutitu mahaitik”).

mahaiburu (*maiburu*) ‘mahaiko toki nagusia’: *yarri zaite maiburuen* (“jar zaitez mahaiburuan”); *maiburue maiteut* (“mahaiburua maite dut”).

mahai-oihal (*mai-oial*) ‘mahai gainean jartzen den oihala’: *igandetan mai-oial berriakin bazkaltzen dugu* (“igandetan mahai-oihal berriarekin bazkaltzen dugu”).

mahaipetik txistu (*maipetik xixtu*) ‘jan gabe dagoenak egin ohi duena’: *sar zaite maipean ta maipetik xixtu yan gabe* (“sar zaitez mahaipean eta mahaipetik txistu jan gabe”).

mahaira (*maire*) ‘ogia oratzeko mahaia’: *zurginek maire berrie in daku* (“zurginak mahaira berria egin digu”).

mahats-biltze (*mats-biltze*) *aste un-ten Erribera aldean mats-biltzea dute* (“aste honetan Erribera aldean mahats-biltzea dute”); *mats-biltze oietan yende aunitz lanean* (“mahats-biltze horietan jende aunitz lanean”).

mahatsoko (*matsoko*) ‘mahats-mor-
doa’: *matsoko ederra yan nuen* (“mahatsoko ederra jan nuen”);

- tori matsokoa* (“*tori mahatso-koa*”).
- mahatsondo** (*matsondo*) *matsondo ederrak Irulegin* (“*mahatsondo ederrak Irulegin*”); *matsondo oiek ongi zaindu* (“*mahatsondo horiek ongi zaindu*”).
- mahuka** (*mauke*) *ator unek mauke llaburrek’itu. Bertze unek mauke luzeak* (“*atorra honek mahuka laburak ditu. Bertze honek mahuka luzeak*”).
- mahuka-has** (*maukas*) ‘ator-has, atorrarekin bakarrik’: *maukas gan ginen* (“*mahuka-has joan ginen*”); *otz unekin maukas ibiltzen da gure semia* (“*hotz honekin mahuka-has ibiltzen da gure semea*”).
- mahuka-hutsik** (*maukutsik*) ‘atorra-ekin bakarrik; ator-hasean’: *maukutsik*.
- mahukerdi** (*maukerdi*) ‘gain-mahuka’: *maukerdi politek ituzu* (“*mahukerdi politak dituzu*”); *maukerdi berriek* (“*mahukerdi berriak*”).
- mai 1* ik. **mahai**
- mai 2* ik. **maila**
- maiburu* ik. **mahaiburu**
- maiketu* ik. **mailakatu**
- maila** (*mai*) ‘belar idorra biltzean egiten den belar lerroa’: *belar mai au makur dago* (“*belar maila hau makur dago*”); *belarra maietan bildu bear da, urie itera eldu bada ere* (“*belarra maietan bildu behar da, euria egitera heldu bada ere*”).
- mailakatu** (*mailketu, maiketu*) ‘mailak egin’: *ongi mailketu* (“*ongi mailakatu*”); *maiketu ongi* (“*mailakatu ongi*”).
- mailketu* ik. **mailakatu**
- mailuka** (*malluke*) ‘mailua’: *mallukekin itzetu* (“*mailukarekin itzatu*”); *malluke ederra dugu* (“*mailuka ederra dugu*”).
- maindire** ‘izara; mihisea’: *maindire onak tugu* (“*maindire onak ditugu*”); *maindire berriek* (“*maindire berriak*”).
- mainger* ik. **mainker**
- maingu** ‘herrena’: *gizon oi maingue da* (“*gizon hori maingua da*”). [Erranahirua] *burutik ez dago maingu*.
- maingueri** ‘herreneria’: *gure bei guziek maingueriekin* (“*gure behi guztiak maingueriarekin*”); *mainguerie kutsekorra da* (“*maingueria kutsakorra da*”).
- maingu izan** (*maingu izen*) ‘herren izan’: *maingu nago*.
- maingu izen* ik. **maingu izan**
- mainguka** (*mainguke*) ‘herrenka’: *mainguke torri nitzen* (“*mainguka etorri nintzen*”); *mainguke naile* (“*mainguka nabil*”).
- maingukara** ‘nahiko maingu; maingu airean’: *Martin maingukara daile azken egunotan* (“*Martin maingukara dabil azken egunotan*”).
- mainguke* ik. **mainguka**
- maingutu** ‘herren gelditu’: *maingutu zaiku gizona. Zaartu ta maingu-*

- tu* (“maingutu zaigu gizona. Zahartu eta maingutu”).
- mainker** (eta *mainger*) ‘mantxo; besamotza’: *gizon oi mainkerra da* (“gizon hori mainkerra da”); *mainker oi pilotari ona da* (“mainker hori pilotari ona da”).
- mainontzi** (*mainuntzi*, *mañuntzi*) ‘mainaz betea’: *zure aurre mainuntzi aspergarrie da* (“zure haurra mainontzi aspergarria da”); *au aur mainuntzie!* (“hau haur mainontzia!”).
- mainuntzi** ik. **mainontzi**
- mai-oial** ik. **mahai-oihal**
- maiolatu** ‘haur sortu berria maioletan, xatarretan bildu’: *maiolatu ongi aurre* (“maiolatu ongi haurra”); *xatar garbiekin ongi maiolatu* (“xatar garbiekin ongi maiolatu”).
- maipetik rixtu** ik. **mahaipetik txistu**
- maire** ik. **mahaira**
- maitarazi** (*maitazi*) *xaloki maitazi zuen* (“xaloki maitarazi zuen”).
- maitazale** ‘maitatzen duena’: *Maritxu maitazale ona da*.
- maitazi** ik. **maitarazi**
- maixter** ik. **maizter**
- maiz** ‘aunitzetan; askotan’: *amatxikin etxera maiz gaten gara* (“amatxirekin etxera maiz joaten gara”). Sin. **maizki**
- maizkara** ‘aunitzetan; frankotan’: *maizkara tortzen da Ameriketaik oñokoan ere*.
- maizki** ‘aunitzetan; askotan’: *amatxikin etxera maiz gaten gara. Bolai*
- unten maizki* (“amatxirekin etxera maiz joaten gara. Bolada honetan maizki”). Sin. **maiz**
- maizter** (*maixter*, *maxter*) ‘baseria, etxea edo dermioa errentaren trukean hartzen duen pertsona, etxetiarra’: *biek, nausi-maxterrak beti aserre ibiltzen ziren elkarrekin* (“biak, nagusi-maizterrak, beti haserre ibiltzen ziren elkarrekin”).
- makestu** (eta *markestu*) ‘makets bihurtu’: *makestu zaiku gizona* (“makestu zaigu gizona”).
- makets** (eta *markets*) 1 ‘gauza makurra edo puska bat falta zaiena’: *ortz maketsak tuzu* (“hortz maketsak dituzu”). 2 ‘okerra’: *au gizon maketsa!* (“hau gizon maketsa!”).
- makilazo** ‘makilkada’: *aitzinortan makilezua tiretu zakurrei ta utsin nuen, zautzen nau kusi orduko!* (“aitzin horretan makilazoa tiratu zakurrari eta huts egin nuen, ezagutzen nau ikusi orduko!”).
- makote** ‘altxarrastelu edo sarde makurra’: *makoteakin aitzen gara* (“makotearekin aritzen gara”); *makote ona dugu*.
- makur** 1 ‘okerra’: *marra oi makur dago* (“marra hori makur dago”); [erranahirua] *ez in makurrik, ez-tuzu beldurrik*. 2 ‘zorigaitza; kaltea’: *etxean badugu makurre* (“etxean badugu makurra”); *makur aundie dugu familien* (“makur handia dugu familian”).
- makurbide** ‘liskarbidea’: *makurbide ortan sartu gabe bakean egon*

- gaitezen* (“makurbide horretan sartu gabe bakean egon gaitezen”); *makurbide aundiek badire* (“makurbide handiak badira”).
- makurdura** (*makurdure*) ‘bihurdura’: *nere zangoain makurdure ezin sendatu* (“nire zangoaren makurdura ezin sendatu”).
- makurdure* ik. **makurdura**
- makurgune** ‘bideko bihurgunea’: *makurgune ortan erori ginen* (“makurgune horretan erori ginen”).
- makurka** (*makurke*) ‘okerka’: *etzaitela ibili makurke. Zu beti makurke* (“ez zaitezela ibili makurka. Zu beti makurka”).
- makurke* ik. **makurka**
- makurkeri* ik. **makurkeria**
- makurkeria** (*makurkeri*) ‘ekintza makurra’: *makurkeri oiek eztut maite* (“makurkeria horiek ez ditut maite”).
- makurki** ‘oker’: *gizon oi makurki dabile* (“gizon hori makurki dabil”).
- malaka-malaka* ik. **melaka-melaka**
- malasa* ik. **malatsa**
- malaski** ‘gasna egiteko tresna’: *kartzazu malaskie* (“ekar ezazu malaskia”); *malaskie or duzu* (“malaskia hor duzu”).
- malats** (eta *malasa*, *malatz*) ‘gasna egitean esnea irabiatzeko tresna’: *malatsa zarra emen dut* (“malatsa zaharra hemen dut”); *malatza ardi bordan utzieut* (“malatsa ardi bordan utzia dut”).
- malatz* ik. **malats**
- malba-belar** ‘kaka egin ezinik, olioan igurtzi eta ipurditik sartzen zena egin ahal izateko’ (*Malva silvestris*)
- malda** ‘aldapa’: *maldan goiti abiatu de ixtentian* (“maldan goti abiatu da ixtantean”); [Erranahitua] *gogozko tokien maldik ez*.
- malkar** ‘aldapatsua’: *leku malkaragure bordaldea. Malkar ta aski zakar* (“malkar eta aski zakar”).
- malko** ‘udare-mota txiki-txikia’: *baratzean baitugu malkoak* (“baratzean baditugu malkoak”); *malko ederrak. Au da malkoa* (“hau da malkoa”).
- malluke* ik. **mailuka**
- maltertzio** ‘kalte handia’: *uberroak maltertzio ikeragarriek intu. Maltertzio izigarriek* (“uharreak maltertzio ikeragarriak egin ditu. Maltertzio izugarriak”).
- maltzatu** ‘maltzoak egin’: *iretzea maltzatu ongi* (“iratzea maltzatu ongi”).
- maltzo** ‘iratzea ebaki eta idortu ondoren egiten den multzo txikia’: *idetze maltzuak emen* (“iratze maltzoak hemen”); *maltzu aundiek* (“maltzo handiak”).
- mamitu** ‘mamia hartu’: *artoak ai dire mamitzen* (“artoak ari dira mamitzen”); *ederki mamitu dire* (“ederki mamitu dira”).
- mamorro** (*mamurru*) ‘zomorroa’: *emen mamurru aunitz. Zenbat*

- mamurru...* (“hemen mamorro aunitz. Zenbat mamorro...”).
- mamugaitz* ik. *manugaitz*
- mamurru* ik. *mamorro*
- mamusti* ‘mamua, betiluna’: *zein mamusti den gizon oi* (“zein mamusti den gizon hori”); *mamusti ergela!*
- man* ik. *eman, eraman*
- manatu* ‘agindu’: *nork manatu dio?*; *manatu diote ta in du* (“manatu diote eta egin du”).
- manatzaile emen manatzale franko* (“hemen manatzaile franko”).
- mandarra* ik. *mantar*
- mandatu* ‘egin beharrekoa’ *in bear datazu mandatu bat: erraizu Felixi beriala tortzeko etxerat* (“egin behar didazu mandatu bat: erraiozu Felixi berehala etortzeko etxerat”).
- mandeuli* (*mandouli, manduli*) ‘euliaren antzeko intsektua, aho xurgatzaileen orde eztena duena’ (*Hippobosca equina*): *manduliek pileka* (“mandeuliak pilaka”); *abre oiek mandouliz beteak* (“abere horiek mandeuliz beteak”).
- mandil* (Izeta) ‘alferra’: *oi gizon mandile!* (“hori gizon mandila!”).
- mandio* (*bandio*) ‘abar eta arbolaradar lodiekin egindako hesia’: (Aniz) *gure belaia hetsi dugu mandio ederra inik* (“gure belaia hetsi dugu mandio ederra egirik”); *bandioa arras ongi ine dago, belaia ongi etsi dugu* (“man-
- dioa arras ongi egina dago, belaia ongi hetsi dugu”).
- mandouli* ik. *mandeuli*
- manduli* ik. *mandeuli*
- manera* ‘modua’: *manera ortan in beartuze gauzek?* (“manera horretan egin behar dituzue gauzak?”).
- man errex* ik. *eman erraz*
- mankor* ik. *emankor*
- mantal* (*mandarra*) ‘jantziak ez zikintzeko, horien gainean jartzen den soinekoa’: *gure amak mandarra berrie du. Mandarra polite* (“gure amak mantal berria du. Mantal polita”).
- mantelin* ‘burua estaltzeko zapia’: *lehenago andriak elizen mantelinekin sartzen ziren* (“lehenago andreak elizan mantelinekin sartzen ziren”); *amatxik mantelin pollite du* (“amatxik mantelin polita du”). [Erranahirua] *bai, tokatzen zaio astoai manteline.*
- mantso* 1 ‘poliki; geldiro; trankil’: *zein mantso torri zaren* (“zein mantso etorri zaren”). 2 ‘berandu’: *zu beti mantso, “mantso baño seguro”.*
- mantsokara* ‘nahiko mantso’
- mantsotu* ‘baretu’
- mantuflek* ik. *pantufila*
- manugaitz* (eta *mamugaitz*) (Izeta) ‘managaiztoa’: *mutiko au arront manugaitz te biurrie da* (“mutiko hau arrunt manugaitz eta bihurria da”); *ez dakit nola izeten ahal den ain mamugaitze* (“ez

- dakit nola izaten ahal den hain manugaitza”).
- manugaixto* ik. **manugaizto**
- manugaizto** (*manugaixto*) ‘manugaiztoa; managaitza’: *manugaixto ta alferra mutiko tzar oi* (“manugaizto eta alferra mutiko tzar hori”).
- mañuntzi* ik. **mainontzi**
- maraguri* ik. **marrubi**
- maratila** (*faratile, faratille*) ‘ate edo leihoak hertsu edo irekitzekoa’: *faratile berritu bear dugu* (“maratila berritu behar dugu”); (Basaburua) *faratille*.
- marauri* ik. **marrubi**
- maribistako** (*maribisteko*) ‘itxura egiteko bakarrik balio duena’: *unek ez du balio, au maribisteko bat da* (“honek ez du balio, hau maribistako bat da”).
- maribisteko* ik. **maribistako**
- marikirats** (*marikirets*) ‘usaina botatzen duen euli klase bat’
- marikirets* ik. **marikirats**
- marimutiko** ‘mutilen antzeko neska’: *gure neskatiko au arras marimutikoa da. Arront marimutiko* (“gure neskatiko hau arras marimutikoa da. Arrunt marimutiko”).
- marizikin** ‘andre zikina, garbitzen ez dena’: *gure auzoko andre oi marizikin ta gaixtoa* (“gure auzoko andre hori marizikin eta gaiztoa”).
- markestu* ik. **makestu**
- markets* ik. **makets**
- marmaka* ik. **marmarka**
- marmarian** (*marmurien*) ‘marmarka’: *ze ai zara or beti marmurien!* (“zer ari zara hor beti marmarian!”); *emen denak marmurien ta gaizki erranka ibiltzen dire* (“hemen denak marmarian eta gaizki erranka ibiltzen dira”).
- marmarka** (eta *marmaka*)
- marmurien* ik. **marmarian**
- marraka** ‘ardi-aziendaren oihua; janba’: *ardi marraka franko gure ardi bordan*.
- marrako** ‘harramazka’: *marrako aundie in zion* (“marrako handia egin zion”).
- marrakuku** ‘taloa eta gasna guria’: *amatxik marrakuku onak itentu* (“amatxik marrakuku onak egiten ditu”).
- marranta** ‘zintzurreko edo eztarriko gaitzen baten ondorioz, ahotsa laztea’: *gaur arront marranta nago* (“gaur arrunt marranta nago”); *marranta ta eztut solasik iten aal* (“marranta eta ez dut solasik egiten ahal”).
- marrantatu** ‘marrantak joa’: *arras marrantatuek, denak erdi eri* (“arras marrantatuak, denak erdi eri”).
- marraska** ‘katuaren oihua’
- marro** ‘aharia’: *marro ederra dugu. Marro au eztugu saltzeko* (“marro hau ez dugu saltzeko”).
- marrubi** (*maraguri, marauri, mauri, mauli*) ‘jateko oso onak diren fruitu gorri eta mamitsuak ematen dituen landarea, haren fruitu-

- tua': (Elizondo, Erberera, Basaburua) *maraguri goxoak*. *Gure barretzeko marauriek onak dire* ("marrubi goxoak. Gure baratze-ko marrubiak onak dira"); (Baztangoiza) *maurie*, *maulie*. Izetak erraten du bere hiztegian badela mendi bat *Maulitz* edo *Mauritz* deitzen dena. Egia da, baina ez dugu uste baduen inolako zeri-kusirik hitz honekin.
- marrubibeltz** (*maulibeltx*) 'marrubi basa, pikor ttikikoa'
- marruma** (*marrume*) 'oihua; negarra asotsarekin': *marrume*. *Marrumaundi* ("marrumandi").
- marrumaka** (*marrumeka*) 'oihuka; negarrez asotsa atereaz': *aur au beti marrumeka* ("haur hau beti marrumaka").
- marrume** ik. **marruma**
- marrumeka** ik. **marrumaka**
- marruskatu** (*marrusketu*) *marrusketu ongi sorallue* ("marruskatu ongi solairua").
- marrusketu** ik. **marruskatu**
- martotxa** ik. **martutza**
- martutxe** ik. **martutza**
- martutza** (*martotxa*, *martutxe*) 'masusta; maxurka': *martotxak goxuak dire jateko* ("martutzak goxoak dira jateko"); *martotxak maite* ("martutzak maite").
- matalatz** ik. **matalaz**
- matalaz** (*matalatz*) 'lastaira': *goatzeain matalatza ondatue dago* ("ohatzearen matalaza hondatua dago").
- mataxa** ik. **mataza**
- mataza** (*mataxa*) 'euskarririk gabe bira handietan bildurik dagoen haria': *artzazu mataxa* ("har ezazu mataza"); *mataxa naasi da* ("mataza nahasi da").
- matelako** (*mateleko*) 'matelezurrekoa; belarrondokoa': *mateleko ederra man zion* ("matelako ederra eman zion").
- mateleko** ik. **matelako**
- matelezur** 'masailezurra': *matelezur- rre autsi zioten* ("matelezurra hautsi zioten"); "*matelezurre seko, koloreak berde*" [kantua].
- matelezurko** ik. **matelezurreko**
- matelezurreko** (*matelezurko*) 'belarrondokoa; matelakoa': *main datzut matelezurko bat, kuskoi zu* ("emanen dizut matelezurreko bat, ikusiko duzu").
- matoi** (*matoin*) 'moldean prentsatu gabe dagoen gasna': *matoña yain dugu gaur* ("matoia janen dugu gaur").
- matoin** ik. **matoi**
- mats-biltze** ik. **mahats-biltze**
- matsoko** ik. **mahatsoko**
- matsondo** ik. **mahatsondo**
- matxakaran** ik. **basaran**
- matxarde** 'fruituz beterik dauden adarrei eusteko paratzen den zutabea': (Aniz) *sagarrondo orri matxardia patu diogu* ("sagarrondo horri matxardea paratu diogu").
- maukas** ik. **mahuka-has**

mauke ik. mahuka

maukerdi ik. mahukerdi

maukutsik ik. mahuka-hutsik

mauli ik. marrubi

maulibeltx ik. marrubibeltz

mauri ik. marrubi

maxadore ‘inbutua; onila’: *lan au maxadoriakin inen dugu* (“lan hau maxadorearekin eginen dugu”); *maxadoria emen dugu* (“maxadorea hemen dugu”).

maxter ik. maizter

maxukre ik. maxurka

maxurka (*maxukre*) ‘martutza; mastusta’: (Elizondo) *aurten maxukre aunitz yan dugu* (“aurten maxurka aunitz jan dugu”).

mazadura (*mazadure*) ‘mazatzearen ekintza’: *auto berriai anbateko mazadure in diote* (“auto berriari hainbateko mazadura egin diote”).

mazadure ik. mazadura

mazatu ‘mailatu; maspildu’: *pitxerra mazatute* (“pitxerra mazatu dute”); *arras mazatue dago* (“arras mazatua dago”).

mazela ‘ipurdiko masaila’: *mazela aunpetu zaio* (“mazela hanpatu zaio”).

mazelakoa ‘golpea ipurdian’

mazteki ik. emazteki

mear ik. mehar

meargune ik. mehargune

meartu ik. mehartu

measta ik. mehaxta

meatxu (Izeta) ik. mehatxu

meeantza ik. meheantza

meekara ik. mehekara

mehar (*mear*) ‘estua; akala’: *zein mearra den gizon oi* (“zein meharra den gizon hori”); *au bide mearra dugu* (“hau bide meharra dugu”).

mehargune (*meargune*) ‘gune meharra’: *meargune ortaik ezin pasa* (“mehargune horretatik ezin pasa”); *meargune oi eztugu maite* (“mehargune hori ez dugu maite”).

mehartu (*meartu*) ‘estutu’: *meartute bidia. Meartu te ondatu* (“mehartu dute bidea. Mehartu eta hondatu”).

mehatxu (*meatxu*) (Izetak bildua) ‘norbaiti, beldurtzeko asmoz, egiten zaion hitzezko edo keinuzko adierazpena’: *meatxu bel-durgarrie artu’t* (“mehatxu bel-durgarria hartu dut”); *meatxue erri guzien edatu de* (“mehatxua herri guztian hedatu da”).

mehaxta (*measta*) ‘argala’: *mutiko measta gure Patxiko* (“mutiko mehaxta gure Patxiko”).

meheantza (*meeantza*) ‘nahiko mehea’

mehekara (*meekara*) ‘nahiko mehea; meheantza’: *nola nai duk makile? lodikara edo meekara?*

melaka-melaka (eta *malaka-malaka*) ‘gogorik gabe jatearen ekintza’: *zu beti melaka-melaka ezin yanez* (“zu melaka-melaka ezin janez”); *ze ai zara malaka-malaka ezin*

- yanez?* (“zer ari zara melakamelaka ezin janez?”).
- melakatu** (*melekatu*) ‘beraztua, bigundua’: *onddo unek ez dakit balio duen, melekatue dago.*
- melekatu* ik. **melakatu**
- men** ‘menpea’
- meneko** ‘menpekoa’: *eztut izen nai orren meneko* (“ez dut izan nahi horren meneko”).
- menean** ‘menpean’: *zu beti orren menean. Orren menean bai* (“zu beti horren menean. Horren menean bai”); *eztut bizi nai orren menean* (“ez dut bizi nahi horren menean”).
- menbren* (Izeta) ik. **mendre**
- mendabelar** ‘menda’ (*Mentha*): *gure belai bazterretan mendabelar franko* (“gure belai bazterretan mendabelar franko”).
- mendeku** ‘aiherkundera’: *mendekuz il zuten gizon bat* (“mendekuz hil zuten gizon bat”); *mendekue gauze txarra* (“mendekua gauza txarra”).
- mendi kasko** ‘mendi gaina’
- mendratu** ‘ahuldu’: *mendratu zaizku inderrak* (“mendratu zaizkigu indarrak”).
- mendre** (eta *menbren*) ‘ahula’: *mutil menbrena. Menbrena ta ergela* (“mutil mendrea. Mendrea eta ergela”).
- mentu** ‘landare batean txertatzen den bertze landare baten muturra’: *gure aite zenak mentu onak berexten zituen* (“gure aita zenak mentu onak bereizten zituen”); *xerto ona iteko mentu ona bear* (“txerto ona egiteko mentu ona behar”).
- merendatu** (eta *berendatu*) ‘bazkariaren eta afariaren arteko otordua’: *zazpietan meredatu dugu*; (Basaburua) *berendatu*.
- merendu-afari** ‘merendu eta afaria, biak batera egiten direnean; otordua’ (Urdazubi eta Zugarramurdi) ere ‘merendu’ da ibiltzen den hitza. Berdin Bidasoan).
- merla-harri** (*merlarri*) ‘tuparria’: *mendi zoko ortan badugu merlarrie* (“mendi zoko horretan badugu merla-harria”).
- merlarri* ik. **merla-harri**
- mertxika** (*merxike*) ‘mertxikondoa-ren fruitua’: *merxike ederrak gure baratzean. Sagar, udere, piko, merxiken artean* (“metxika ederrak gure baratzean. Sagar, udare, piku, mertxiken artean”).
- merxike* ik. **mertxika**
- metaziri** ‘metaren ardatza den ziria’: *metaziri ederrak intugu* (“metaziri ederrak egin ditugu”).
- meza**
- meza erran 1** *bai, erran omen du meza* (apez bati buruz, lehenbiziko meza ematen duenean). **2** *meza beti zazpietan erten du* (“meza beti zazpietan erraten du” = ‘ematen du’); *meza erten duelaik gain gara* (“meza erraten duelarik joanen gara” = ‘akitzen duelarik’). **3** *badakizu noiz diren mezak?* (“badakizu noiz diren mezak?” = ‘hiletak, pluralean beti’).

mezasari ‘norbait hiltzen denean apaizari mezak errateko ematen zaion ordaina’

mezpera ik. *bezpera*

mezu ‘mentsajea’: *mezue artu dugu* (“mezua hartu dugu”); *mezu ona delaik denek artzen dugu atsegin* (“mezu ona delarik, denek hartzen dugu atsegin”).

mezulari (Izeta) ‘mezua ekartzen duena’: *mezulariek mezu ona karri daku* (“mezulariak mezu ona ekarri digu”).

miauka ‘katuak oihuka’ (zaharrenen ustez *narrauke* ibiltzen dira)

miauri ik. *mihuri*

midekullu ik. *mirakulu*

mige ik. *biga*

migure ik. *mihura*

mihura (*miure*, *migure*) ‘zenbait zuhaitzen enborretan hazten den landare bizkarkina’ (*Viscum album*): *gure sagarrondo guziek miurez beteak dire* (“gure sagarrondo guztiak mihurez beteak dira”); *gure sagarrondoak denak migurez estaliek tuqu* (“gure sagarrondoak denak mihurez estaliek ditugu”).

mihuri (*miauri*, *miñauri*) ‘gaztain alea’: *miauri oiek bildu* (“mihuri horiek bildu”); *miauriek unet* (“mihuriak hona”); *miñauriek bildu zakure* (“mihuriak bildu zakura”).

miku ‘zakarra, ez-atsegina’ (Aniz)

milesker ‘mila esker; esker mila; eskerrik asko’

milikaka (*milikeka*) ‘milika eginez’: *beiek bere umea milikeka garbitzen du* (“behiak bere umea milikaka garbitzen du”).

milikatu (*miliketu*) ‘milika egin’: *beiek miliketzen du bere umea* (“behiak milikatzen du bere umea”); [Erranairuak] *Yinkoak in ta miliketzekoa. In te miliketzekua utzie. Azken milikaldie artzekua*

milikeka ik. *milikaka*

miliketu ik. *milikatu*

milin ‘milinga’: *zu beti milin* (“zu beti milinga”); *au yende miliñe!* (“hau jende milinga!”).

min ‘behazuna; gibelmina’

minberatu ‘minbera jarria’: *besoa arront minberatue dut* (“besoa arrunt minberatua dut”); *lepoa ere minberatue* (“lepoa ere minberatua”).

minbizi ‘handitsu gaiztoa; gorputz ehun bateko zelulak eragabeki haztean datzan eritasuna’: *minbizekin dago* (“minbiziarekin dago”); *minbizek ez du sendabiderik* (“minbiziak ez du sendabiderik”); *minbizie gaitz beldurgarrie* (“minbizia gaitz beldurgarria”).

minbres ik. *linbres*

mindaitz (*mindeitz*, *minditz*) ‘mintegia’: *mindeitze ortan aritz ederrak* (“mintegi horretan haritz ederrak”); *Bertizen mindeitze ederrak patutuzte* (“Bertizen mintegi ederrak paratu dituzte”).

mindeitz ik. *mindaitz*

mindetxe 'mindaitza'

minditz ik. *mindaitz*

mineria (*minerie*) 'oroimina; herri-mina': *aunitz badire Ameriketara gan ta mineriz eritzen direnak* ("aunitz badira Ameriketara joan eta mineriaz eritzen direnak"); *minerie biotzain barnean sartue dauke* ("mineria bihotzaren barnean sartua dauka").

minerie ik. *mineria*

mingain 'mihia'

mingar (*minker*) 'mikatzatza, mingotsa, ozpindua': *ardo minkerra txarra da* ("ardo mingarra txarra da").

mingots (eta *mingotx*) 'belar-mota' (*Oxalis*): *aur oiek mingotsa yaten ai dire* ("haur horiek mingotsa jaten ari dira"); *gure belaian bada mingotsa* ("gure belaian bada mingotsa").

mingotx ik. *mingots*

minker ik. *mingar*

minsur (*minsur*) 'barneko min bizi-bizia': *baut olako minsur bet emen* ("badut horrelako minsur bat hemen"); *minsur au etzait gaten* ("minsur hau ez zait joaten").

minsur ik. *minsur*

minturrin 'zapore edo usain mina; minturra': *emen bada alako minturrin gaixto bat* ("hemen bada halako minturrin gaizto bat").

mintzabide (*mintzapide*) 'mintzagaia': *gertakizun oiek mintzapide txarra sortute* ("gertakizun

horiek mintzabide txarra sortu dute").

mintzaira (*mintzaire*) 'hizkera': *gure mintzaire eskuara da* ("gure mintzaira euskara da"); *munduen mintzaire aunitz badire* ("munduan mintzaira aunitz badira").

mintzaire ik. *mintzaira*

mintzapide ik. *mintzabide*

mintzo 'hizkera'

mintzo-debeku 'toteltasuna': *mintzo-debeku aundie du* ("mintzo-debeku handia du"); *mintzo-debekue txarra da* ("mintzo-debekua txarra da").

minusketa (pl.) 'saltoak eta aitzurjauziak': *a ze minusketak itentuzten gure aurrek* ("a zer minusketak egiten dituzten gure aurrek").

miñauri (Izeta) ik. *mihuri*

miño ik. *baina, baino*

mirakulu (*midékullu, mirekullu*) 'miraria': *ze mirekullu da au?* ("zer mirakulu da hau?"); *mirekullu aundie* ("mirakulu handia").

mirekullu ik. *mirakulu*

miru-belar 'belar-mota': *bide bazter oietan miru-belar aunitz* ("bide bazter horietan miru-belar aunitz").

miru-buztan (*miru-puxten*) 'abereei belarrian egiten zaien seinale-mota, miruen buztanaren forma duena': *gure beor guziek badute miru-puxten señailea begarrietan*

(“gure behor guziek badute miru-buztan seinalea belarrietan”).

miru-puxten ik. *miru-buztan*

mismaurriatu (*mismaurrietu*) ‘jateko balio ez duten gaztainak bereizi’: *mismaurrietu ongi miñauriek* (“mismaurriatu ongi mihurriak”).

mismaurrietu ik. *mismaurriatu*

mismorro ‘jateko balio ez duen gaztaina’: *mismorroa bota zerriei*.

miure ik. *mihura*

mixerrurin ‘basakatua’: *bai, lenago-ko zarrei badut aitue ola erten ziotela ‘gato montes’ horri* (“bai, lehenagoko zaharrei badut aditua hola erraten ziotela ‘gato montes’ horri”).

mixkortu (Izeta) ik. *bizkortu*

mixto ‘poxpoloa’: *mixto bat piztu nuen; mixtoak non tuzu?* (“mixtoak non dituzu?”).

mizpira (*mizpire*) *aurten batugu ainbertze mizpire* (“aurten badugu hainbertze mizpira”); *mizpire goxoa da* (“mizpira goxoa da”).

mizpira-sagarrondo (*mizpire-sagarrondo*) ‘sagar mota bat’: *gure baratzean badugu mizpire-sagarrondoa* (“gure baratzean badugu mizpira-sagarrondoa”).

mizpire ik. *mizpira*

mizpire-sagarrondo ik. *mizpira-sagarrondo*

modoso (*modoxa*) ‘neska formal eta zuzena’: *Maritxu neska modoxa da. Modoxa ta polite* (“Maritxu

neska modoso da. Modoso eta polita”).

modoxa ik. *modoso*

moker ik. *muker*

mokerraldi ‘zakarraldia’: *orren mokerraldiek izitzen naute* (“horren mukerraldiek izutzen naute”).

mokoka(n) ‘errietan; liskarrean’: *zu beti mokoka. Mokoka ta ahozikine* (“mokoka eta ahozikina”); *erriko alkatia beti mokokan ai de* (“herriko alkatea beti mokokan ari da”).

mokokari ‘errietan egiten duena’: *gure auzoko Koxpa mokokarie da* (“gure auzoko Koxpa mokokaria da”); *mokokari aunitz bazter guzietan* (“mokokari aunitz bazter guzietan”).

mokomear ik. *mokomehar*

mokomehar (*mokomear*) ‘aurpegi luze eta meharra duena’: *neska mokomearra ta susie* (“neska mokomeharra eta itsusia”); *mutil oi ere aski mokomear* (“mutil hori ere aski mokomehar”).

mokor ‘zakarra; jenio txarrekoa; mokorra’: *oi andre mokorra! Mokorra ta mozkorra* (“hori andre mokorra! Mokorra eta mozkorra”).

moldakaitz (*moldekaitz*) ‘moldegabea’: *zein moldekaitze zaren!* (“zein moldakaitza zaren!”); *moldekaitz aundiek dire orko gazte oiek* (“moldakaitz handiak dira horko gazte horiek”).

moldegabe ‘moldakaitza; traketsa’: *zein moldegabea zaren! Gizon*

- moldegabe unek eztu deus inen* (“gizon moldegabe honek ez du deus eginen”). Sin. **moldakaitz**
- moldegabekeria** (*moldegabekerie*) ‘moldegabetasuna’: *ze ai zara olako moldegabekeriekin?* (“zer ari zara holako moldegabekeria-ekin?”).
- moldegabekerie* ik. **moldegabekeria**
moldekaitz ik. **moldakaitz**
- moñoña** ‘polita’ (andreekin ibilia)
- moñoño** ‘polita’ (gizonkiari errana, arruntean umeari)
- mordoxka** (Izeta) ‘mordo txikia’: *emen bada mordoxka bat* (“hemen bada mordoxka bat”); *mordoxka bat karriut* (“mordoxka bat ekarri dut”).
- morkots** (eta *murkuts*) ‘gaztainen azala, zitzaz betea, normalean hiru pikor dituena’: *morkotsak ziztetzen du* (“morkotsak ziztatzen du”); *emen morkots aunitz ta utsek* (“hemen morkots aunitz eta hutsak”).
- morroilo** (*morrolle*) ‘ate handiak hersteko erabiltzen den tresna’: *morrolle autsi zaiku. Morrolle zaarra* (“morroiloa hautsi zaigu. Morroilo zaharra”).
- morrolle* ik. **morroilo**
- morrotu** ‘azek eta arbiek beroagatik gaitza hartu’: *azak morrotu zaizku. Arbiek ere morrotu dire* (“azak morrotu zaizkigu. Arbiak ere morrotu dira”).
- mospel* ik. **ospel**
- mote** ‘kimua’: *patatak izeten baititu motiak* (“patatak izaten baititu moteak”).
- motelsko* ik. **motelxko**
- motelxko** (eta *motelsko*) ‘indarrik gabea; gatzik gabea; eraginkortasunik ez duena; pixka bat motela’
- motote** (Azkue) ‘arnegaria’: *gizon motote ta gaixtoa* (“gizon motote eta gaixtoa”).
- motzaldi** ‘belar-ebakialdia’: (Aniz) *gaur in dugu belaien lenbiziko moltzaldie* (“gaur egin dugu belaian lehenbiziko motzaldia”).
- motzondo** ‘zuhaitz bat moztu eta enberrari atxikirik gelditzen den enbor-zatia’: *motzondo oiek kendu trabatik* (“motzondo horiek kendu trabatik”).
- mozkor arrail** ‘erabat mozkorra’: *or kusiut gizon bat mozkor arraildue* (“hor ikusi dut gizon bat mozkor arraildua”); *igendetan mozkor arrail* (“igandeetan mozkor arrail”).
- mozorro** ‘inautetako maskara’: *inautetan mozorroak* (“inauteetan mozorroak”); *aurten mozorro aunitz baziren karriketan* (“aurten mozorro aunitz baziren karriketan”).
- mugarritzatu** (*mugarritzetu*) ‘mugarrien bidez eremu bat mugatu’: *mugarritzetutugu auzoko landak* (“mugarritzatu ditugu auzoko landak”).
- mugarritzetu* ik. **mugarritzatu**

mugita-belar (*muite-belar*) ‘belar-mota’: *gure baratzea muite-belarez betea dago*.

muilo (*mullo*) (Gorosurreta) ‘iztupa; amukoa’

muite-belar ik. **mugita-belar**

muker (*moker*) ‘zakarra; muzin egiten duena’: *atzo besta in zinuen ta gaur moker* (“atzo besta egin zenuen eta gaur muker”); *gaur arront moker* (“gaur arrunt muker”).

mukieri (*mukiri*) ‘muki-jarioa’: *au mukirie, beti mukiekin* (“hau mukieria, beti mukiekin”).

mukiri ik. **mukieri**

mukizu ‘mukia dariona, umea’ (despektiboa): [erranahirua] *mozorro zinko mukizu, zuk sobera-sobera dakizu*

muku 1 ‘hitzik egiten ez duena; beltuna’: (Aniz) *au gizon mukue, eztu solasik maten* (“hau gizon mukua, ez du solasik ematen”).

muku 2 ‘txoriak izuarazteko mamua; txorimaloa’: *landan patu dugu mukue xoriek iziazteko* (“landan paratu dugu mukua txoriak izuarazteko”).

muku 3 (Izeta) ik. **kuku**

mukuru ‘pila; multzoa’: *mukuru ederra in dugu. Anbateko mukurue* (“mukuru ederra egin dugu. Hainbateko mukuru”).

mukurutu ‘pila egin’: *belarra mukurutu bear dugu* (“belarra mukurutu behar dugu”); *ongi mukurutu*.

mukuts (Izeta) ‘izotza’: *gaur mendi zoko oietan bazen mukutse* (“gaur mendi zoko horietan bazen mukutsa”). Sin. *lantxurda*

mukutu (Izeta) ik. **kukutu**

mullo ik. **muilo**

multsu ik. **multzu**

multzu (*multsu*) ‘sukaldean ibiltzen den oihalki bustia’: *multsuekin garbizazu* (“multzuarekin garbi ezazu”); *au garbitzeko, multsue bear dugu* (“hau garbitzeko, multzua behar dugu”).

murkuts ik. **morkots**

murrika (*murriko*) ‘barrea, behorrek-eta ausiki egiteko keinua’: *iten omen tu bi murrikoaldi ta lasterka an daie ure edatera* (“egiten omen ditu bi murrikoaldi eta lasterka han doa ura edatera”).

murriko ik. **murrika**

murritz ‘laburra; motza’: *gona murritzek* (“gona murritzak”); *murritz gelditu zara*.

murritzitu ‘laburtu; moztu’: *ile oi murritzitu bear duzu* (“ile hori murritzitu behar duzu”).

murru (Izeta) ‘zuhurra’: (Aniz) *oi gizon murrue, eztu sosik gastatzen* (“hori gizon murrua, ez du sosik gastatzen”).

murruskatu (*murrusketu*) ‘arropa edo bertze gauza batzuk bihurrikatu’: *oial busti oi murruskatu ongi* (“oihal busti hori murruskatu ongi”).

murrusketu ik. **murruskatu**

murtzurinka (*murtzurinke*) ‘erdi negarrez’: *aur au beti murtzurinke dago* (“haur hau beti murtzurinka dago”).

murtzurinke ik. **murtzurinka**

musitu ik. **mutxitu**

musu 1 (haurren hizkeran) ‘apa; pa; adiskidetasuna eta maitasuna adierazteko, edo agurra egiteko, norbait edo zerbait ezpainekin ukitzea’: *musu bat man nion* (“musu bat eman nion”). 2 ‘aurpegia’: *su ondoan denek musu gorrie izeten dugu* (“su ondoan denek musu gorria izaten dugu”).

musutruk ‘doan; debalde’: *ze uste duzu? musutruk inen dugule au?* (“zer uste duzu? musutruk eginen dugula hau?”).

mutiko ‘gaztarora heldu ez den gizonkia; mutil gaztea’

mutil 1 ‘heldutasunera iritsi ez den gizonkia; nerabea’. 2 ‘morroia’: *etxean bear dugu mutile. Erriko mutile* (“etxean behar dugu mutila. Herriko mutila”).

mutilgo ‘morrontza’

mutiri 1 ‘zakarra; bortitza’: (Gartzain) *etxea zaintzeko zakur ona dugu, mutirie, fuerte saingetzen duena* (“etxea zaintzeko zakur ona dugu, mutiria, fuerte zaunkatzen duena”); *seme mutirie* (“seme mutiria”). 2 ‘haize zakarrak jotzen duen lekua’: (Aniz) *mendi zoko oi toki mutirie da, aize otza* (“mendi zoko hori toki mutiria

da, haize hotza”). 3 ‘toki eskaxa, meharra’: *au toki mutirie!* (“hau toki mutiria”).

muturgo ‘haserraldia; arnegaldia’: *orren muturgoak irauten du* (“horren muturgoak irauten du”).

muturkatu (*muturketu*) ‘behaztopatu’: *muturketu nitzen ta lurrera erori* (“muturkatu nintzen eta lurrera erori”); *kasu muturketu gabe* (“kasu muturkatu gabe”).

muturketu ik. **muturkatu**

muturreko ‘etxeko animalia batzuei paratzen zaien ahokoa’: *zakur orrek muturreko on bat bearko luke* (“zakur horrek muturreko on bat beharko luke”).

mutxitu (*musitu*) ‘urdiru; lizundu’: *zinger-azpiek musitu zaizku* (“xingar-azpiak musitu zaizkigu”).

muxkin ik. **muzkin**

muxkindu ik. **muzkindu**

muxtur ‘muturra; ogiaren mutur idorra’: *muxturre neretako* (“muxturra niretako”); *muxturre goxoa da* (“muxturra goxoa da”).

muzkin (*muxkin*) ‘negarra bertzerik egiten ez duena; negartia’: *muxkin dago gure aurre* (“muzkin dago gure haurra”); *aur muxkine* (“haur muzkina”).

muzkindu (*muxkindu*) ‘negartia’: *gure aurre arras muxkindue dago* (“gure haurra arras muzkindua dago”).

N

naasi ik. **nahasi**

nabaitu ik. **nabaritu**

nabal ik. **nabala**

nabala (*nabal*) ‘labana; ganibeta’: *nabal zorrotza karri duzu* (“nabala zorrotza ekarri duzu”); *nabala galdut* (“nabala galdu dut”); *nabala zorrotzu bear dugu bizerra kentzeko klasian* (“nabala zorrotzu behar dugu bizarra kentzeko klasean” = ‘ganibeta-ren ahobizarrak ongi garbitu’).

nabalkari ‘labankaria’: *gizon gairtoa ta nabalkarie* (“gizon gaiztoa eta nabalkaria”); *kasu nabalkariekin* (“kasu nabalkariekin”).

nabar (eta *ñabar*) ‘arrea; grisa’: *bei nabarra saldu dugu* (“behi nabarra saldu dugu”); *bei nabar oi, norena da?* (“behi nabar hori, norena da?”).

nabaritu (*nabaitu*) ‘ohartu’: *asots bat nabaitu dut* (“asots bat nabaritu dut”); *eza deus nabari* (“ez da deus nabari”).

nabarriketu ik. **abarrikatu**

nahasi (*naasi, nasi*) 1 ‘nahastu; nahasmena sortu; bereiz ziren gauza desberdinak elkarrekin batu; irabiatu’: *dena ongi naasi* (“dena ongi nahasi”); *zuk denak naas-tentuzu* (“zuk denak nahasten dituzu”); *nasi ongi salda* (“nahasi ongi salda”). 2 ‘nahastua; norabaiteratua’: *denak naasiek gabiltze* (“denak nahasiak gabiltza”); *gure gizona nasie dago* (“gure gizona nahasia dago”).

nahasmenta (*nasmenta*) ‘nahastea’: *a ze nsamenta sortuizun* (“a zer nahasmenta sortu duzun”).

nahastale (*nastale*) ‘nahaslea’: *gazte oiek nastaleak dire* (“gazte horiek nahastaleak dira”); *zu zara emen nastale aundiena* (“zu zara hemen nahastale handiena”).

nahasturi (*nasturi*) ‘nahaspila’: *gure errien maiz nasturie* (“gure herrian maiz nahasturia”); *nasturiek noiznai arpatikotuzu* (“nahasturiak noiznahi harrapatuko dituzu”).

nahieztena (*naieztena*) ‘behar ez dena; ez ustea; espero ez dena’: *naieztena gertatu zaio orri! Ez zuen espero, ez; erosi du naieztena* (= ‘baiezko esaldietan baka-rrik ibiltzen da’).

nahigabe (*naigabe*) ‘atsekabea, bihozmina’: *ze nahigabea eman datazun*.

nahikari (*naikeri*) ‘desira; guraria; zerbait nahi izatera bultzatzen duen indarra’: *badugu zerbait iteko naikerie* (“badugu zerbait egiteko nahikaria”); *gure naikeriek onak izeten dire* (“gure nahikariak onak izaten dira”).

nahikeria (*naikeri*) ‘nahikari gaitzesgarria’: *nolako naikeri aluek tuzun zuk beti* (“nolako nahikeria aluak dituzun zuk beti”).

nahiko (*naiko*) 1 ‘aski’: *badut naiko*.
2 *naiko ongi dago*.

naieztena ik. **nahieztena**

naigabe ik. **nahigabe**

naikeri ik. **nahikari, nahikeria**

naiko ik. **nahiko**

narda ‘nazka; higuina’: *narda maten datazu* (“narda ematen didazu”).

nardagarri ‘nazkagarria; higuingarria’: *gizon oi nardagarrie de* (“gizon hori nardagarria da”); *arrant nardagarri* (“arrunt nardagarri”).

nardatu ‘nazkatu; higuindu’: *orrekin nardatu nitzen* (“horrekin nardatu nintzen”).

nardatzu ik. **nardazu**

nardazu (*nardatzu*) ‘nardagarria’: *zein nardatzu zaren!* (“zein nardazu zaren!”); *nardazu zikine!* (“nardazu zikina”).

narrauka ‘katuak oihuka’ (gazteentzat *miauke* egiten dute).

nasi ik. **nahasi**

naskarri ik. **nazkagarri**

naski 1 ‘ustez, antza (denez)’: *patzen da, naski, kanpoan, e!* (“paratzen da, naski, kanpoan, e!”); *iru urte, naski, egon ziren* (“hiru urte, naski, egon ziren”); *naski atra biauete* (“naski atera behar dute” = ‘badirudi atera behar dutela’); *oiek guardia zibilek ituk naski!* (“horiek guardia zibilak dira naski!”); *naski bai* (= “segur aski bai”). 2 *bai naski!* (“bai segurki!”).

nasmenta ik. **nahasmenta**

nastale ik. **nahastale**

nasturi ik. **nahasturi**

nazkagarri (*naskarri*) ‘nardagarria’: (Aniz) *gizon au naskarrie da* (“gizon hau nazkagarria da”).

negal ik. **negel, igel**

negar (*niger*) *beti nigerra begietan* (“beti negarra begietan”); *niger aunitz iteut* (“negar aunitz egiten dut”); “*Nigarrez sortu nintzan*”.

negarrontzi (*nigerruntzi*) ‘arras negartia dena’: *gure aurre zein nigerruntzie den, nigerruntzie aundie* (“gure haurra zein negarrontzia den, negarrontzi handia”).

negel (*negal*) ‘larruazaleko erregosia; eritasuna’: *negala gaitze txarra da* (“negela gaitz txarra da”); *negala “Arpeko Saindua” zoko artako urek garbitzen du* (“negela “Arpeko Saindua” zoko hartako urak garbitzen du”).

negu-gare ik. **negu-joare**

negu-joare (*negu-gare*) ‘eztul asots handia’: (Basaburua) *elizen denak eztulke ta sekuleko arrabotsa sortzeutela, oi da negu-garia* (“elizan denak eztulka eta sekulako arrabotsa sortzen dutela, hori da negu-joarea”).

negu-liho (*neguliño*) ‘liho mota bat; linabera’: *gure etxean negu-liño ederrak* (“gure etxean negu-liho ederrak”).

neguliño ik. **negu-liho**

nekazalgo ‘nekazaritza’: *nere osaba nekazalgoan ai de* (“nire osaba nekazalgoan ari da”); *Baztanen geienak nekazalgotik bizi dire* (“Baztanen gehienak nekazalgotik bizi dira”).

neke [erranahirua] *umeak azi ta nekeak bizi*

neketan ‘gaizki dabilena; nahigabea’: *gu beti neketan. Neketan gabiltze* (“neketan gabiltza”); *neketan torko da tio Jexux etxera gaur* (“neketan etorriko da tio Jexux etxera gaur”) (= ‘ez dut uste etorriko den’).

nekez ‘zailtasunez’: *nekez torko gara berriz -Bestetan torko zate?* -*Aurten nekez* (“nekez etorriko gara berriz -Bestetan etorriko zarete? -Aurten nekez”).

nekoso ‘neketsua; nekeza’: *lan nekoso dugu au. Nekoso ta aspergarrie* (“lan nekoso dugu hau. Nekoso eta aspergarria”).

nerabe (Izeta) ‘mirabea; zerbitzaria; mutila’: *Etxeberriko nerabea emen* (“Etxeberriko nerabea hemen”); *zu beti oien nerabe* (“zu beti horien nerabe”).

nere iduri ik. **nire iduri**

nere iduriko ik. **nire iduriko**

neskatiko ‘neskatxa gaztea’: *batugu etxean bi neskatico ta mutiko bat* (“baditugu etxean bi neskatico eta mutiko bat”).

neskato 1 ‘neskamea’: *nere ama Aotzenian egon zen neskato* (“nire ama Arotzenian egon zen neskato”) 2 ‘laratzean jartzen zen ontzia, saltsak-eta ezti-ezti egiteko ibiltzen zena’

neurraldi ‘zer edo zer neurtzeko aldia’: *in dugu landa orren neurraldie* (“egin dugu landa horren neurraldia”).

neurri-ontzi (*neurriuntzi*) ‘gauzak neurtzeko ibiltzen den ontzia’ (haien artean: erregua, gaitzerua, saskittoa, eta abar)

neurriuntzi ik. **neurri-ontzi**

niger ik. **negar**

nigerruntzi ik. **negarrontzi**

nioiz ik. **inoiz**

nion ik. **inon**

nior ik. **inor**

nire iduri (*nere iduri*)

nire iduriko (*nere iduriko*)

noizbait ere (eta *noizbaitere*, *noiz-paitere*) *noizbaitere torri de* (“noizbait ere etorri da”); *noiz-paitere akitu de* (“noizbait ere akitu da”).

noizbaitere ik. **noizbait ere**

noizbehinka (*noizpeinka*, *noizpeinke*) ‘noizean behin’: *noizpeinka ibileldi ederrak itentugu* (“noizbehinka ibilaldi ederrak egiten ditugu”); *noizpeinke besta ederrak itentugu* (“noizbehinka besta ederrak egiten ditugu”).

noizik behin ‘noizbehinka’

noizpaitere ik. **noizbait ere**

noizpeinka ik. **noizbehinka**

noizpeinke ik. **noizbehinka**

noiztsu ‘guti goiti-beheiti noiz’: *noiztsu torko zate?* (“noiztsu etorriko zarete?”).

nolabait ere (*nolapaitere*) *lan ure nolapaitere in ginuen* (“lan hura nolabait ere egin genuen”).

nolanahika (*nolanaike*) ‘nolanahi’: *ez da, ordea, nolanaike iteko lana* (“ez da, ordea, nolanahika egiteko lana”)

nolanaike ik. **nolanahika**

nolapaitere ik. **nolabait ere**

nonbait hor (*nonbaitor*) ‘zerbaitek gutienezko baldintzak betetzen dituela adierazteko ibiltzen den esamoldea’: *in duzun au... nonbaitor, baña eztut uste aski den, geiago in biar da* (“egin duzun hau... nonbait hor (= ‘bueno, ongi dago..’), baina ez dut uste aski den, gehiago egin behar da”).

nonbaitik ‘nonbaitetik’

nonbaitor ik. **nonbait hor**

norabaiteratu 1 *da* ad. ‘burua galdu, urduri jarri, zer egin ez dakiela egon’ *norabaiteratu da*. 2 izond. ‘arras urduri jarria’ *azken aldio-tan norabiteratue daile*.

nor edo nor ‘baten bat’: *nor edo nor torko da* (“baten bat etorriko da”).

norgehiagoka (*norgeiagoka*) *aiko gara norgeiagoka? Norgeiagoka* (“ariko gara norgehiagoka? Norgehiagoka”).

norgeiagoka ik. **norgehiagoka**

nospel ik. **ospel**

Ñ

ñabar ik. *nabar*

ñaku ‘pilota-jokoko jokaldia’: *pilotari ona da, orrek in dik bere ñakue* (“pilotari ona da, horrek egin dik bere ñakua”).

ñañarrapittike ‘txepetxa, txori mota’: (Arizkun)

ñaño (adkor.) ‘arras ttipia’

ñiki-ñakan ‘beti mokokan’: *oiek beti ñiki-ñakan* (“horiek beti ñiki-ñakan”); *ñiki-ñakan ta beti elkarrekin* (“ñiki-ñakan eta beti elkarrekin”).

ñiñiriko ‘begininia’: *ñiñirikoan arantza bat sartu zait* (“ñiñirikoan arantza bat sartu zait”); *ñiñirikoa ondatu zait* (“ñiñirikoa hondatu zait”)

O

oale ik. *ogale*

oara ik. *ohara*

oarkabe ik. *oharkabe*

oarkabean ik. *oharkabean*

oarketa ik. *oharketa*

oartu ik. *ohartu*

obeki ik. *hobeki*

oben (Izeta) ik. *hoben*

obendun (Izeta) ik. *hobendun*

oberen ik. *hoberen*

odoleztatu ‘odolez estali; odoldu’:
atorra odoleztatue dauke (“atorra
odoleztatua dauka”); *odoleztatu*
zuten.

odolguri ik. *odoluri*

odoluri (*odolguri*) ‘odolbildua’: *be-
soa odolguriz betea dauket* (“be-
soa odoluriz betea daukat”);

odolguri aundiek (“odoluri han-
diak”); *nabalakin ebaki dut beatza
baño orai odolgurie in zait* (“naba-
larekin ebaki dut behatza baina
orain odoluria egin zait”).

ogale (*oale*) ‘zerriei ematen zaien
bazka’: *prestatu oalia zerrienda-
ko. Oale ona* (“prestatu ogalea
zerriendako. Ogale ona”).

ogara ik. *ohara*

ogi 1 ‘gari irinez, urez eta gatzez
osaturiko orea, orantzarekin goi-
tituz eta labean errez egiten den
jangaia’: *lenago, astero iten gi-
nuen ogie* (“lehenago, astero egi-
ten genuen ogia”). 2 ‘garia’: *lan-
da ortan eriten ginuen beti ogie,
baño aunitzetan etzen ain ona
atratzen* (“landa horretan ereiten
genuen beti ogia, baina aunitze-
tan ez zen hain ona ateratzen”).

ogi airis (*ogi alles*) ‘goiti etorri ez den edo gaizki etorri den ogia’: *ogi-allesa eztut maite* (“ogi-airisa ez dut maite”); *ogi-allesa txarra da* (“ogi-airisa txarra da”).

ogi alles ik. **ogi airis**

ogi-bala (*ogi-fal*) ‘gari sorta’: *ogi-fala lotzeko bilurre ibiltzen dugu* (“ogi-bala lotzeko bilurra ibiltzen dugu”).

ogi bigi ik. **ogi bihi**

ogi bihi (*ogi-bii, ogi-bigi*) ‘gari alea’: *ogi biia* (“ogi-bihia”); *ogi bigi ederrak aurten* (“ogi-bihi ederrak aurten”).

ogi bii ik. **ogi bihi**

ogi bizardun (*ogi bizerdun*) ‘gari bizarduna’: *ogi bizerdun aunitz gure landan*.

ogi bizerdun ik. **ogi bizardun**

ogi-fal ik. **ogi-bala**

ogi-jorra (*ogi-yorra*) ‘gari-jorra’: *gaur goizean ogi-yorran aizenak gara* (“gaur goizean ogi-jorran ari izanak gara”).

ogi-yorra ik. **ogi-jorra**

ohara (*oara, ogara*) ‘zakurra arreske egon’: *gure zakurre ogara dago* (“gure zakurra ohara dago”); *ogara dagolaik kasuman* (“ohara dagoelarik kasu eman”).

oharkabe (*oarkabe*) ‘ohartu gabe’: *oarkabe in du* (“oharkabe egin du”).

oharkabean (*oarkabean*) ‘ohartu gabe’: *etsaie oarkabean torko da* (“etsaia oharkabean etorriko da”).

oharketa (*oarketa*) ‘oharra’: *oarketa bat inez xuxenduko dugu gure afer*a (“oharketa bat eginez zuzenduko dugu gure afer”).

ohartu 1 (*oartu*) ‘zerbaitez jabetu; zerbait ikusi’: *oartu zara orko mendi ortaz* (“ohartu zara horko mendi horretaz”).

ohartu 2 (*oartu, omartu, goartu*) ‘konturatu’: *oartu naiz* (“ohartu naiz”); *omartu naiz bai* (“ohartu naiz bai”); *omartu ginen ongi* (“ohartu ginen ongi”); (Aniz) *goartu naiz oi gaizki dagola* (“ohartu naiz hori gaizki dagoe-la”); *ongi aski goartu gara* (“ongi aski ohartu gara”).

ohatze (*goatze*) ‘ohea’: *neguen goatzea zein goxoa den* (“neguan ohatzea zein goxoa den”); *afaldu ta goatzera* (“afaldu eta ohatzera”); *goatze ederra* (“ohatze ederra”).

ohatze karrotona (*goatze karrotona*) ‘ohearen ohatzeburuko atala’

ohatze-estalki (*goatzestalki*) ‘ohe-estalkia’: *goatzestalkie ederra dugu* (“ohatze-estalkia, ederra dugu”).

ohol-aiztur (*olaiztur*) ‘idortzen paratzen diren ohol gurutzatuak’: *ol oiekin ol-aiztur ederra in dugu* (“ohol horiekin ohol-aiztur ederra egin dugu”).

oholki (*olki*) ‘oholtza’: (Sunbilla) *etxean paratu dugu olkia* (“etxean paratu dugu oholkia”); *aritz olkia* (“haritz-oholkia”).

oholtzar (*oltzar*) ‘ohol handia’: *oltzar unek pisu aundie du* (“oholtzar honek pisu handia du”).

oian ik. **oihan**

oiangizon ik. **oihan-gizon**

oiantzale ik. **oihanzale**

oianzain ik. **oihanzain**

oihan (*oian*) ‘basoa’: *Iratiko oiana aundie da* (“Iratiko oihana handia da”); *oiangizonak lanean Bertizko oianean* (“oihangizonak lanean Bertizko oihanean”)

oihan hegal ardiek oian egalean biltzen dire (“ardiak oihan hegalean biltzen dira” = ‘oihan inguruan’).

oihan-gizon (*oiangizon*) ‘oihanzalea; basomutila’: *oiangizonak, uden oianean, neguen etxean* (“oihan gizonak, udan oihanean, neguan etxean”).

oihanzale (*oiantzale*) ‘oihan gizona; basomutila’: *oiantzale oiek aunitz irabazteute* (“oihanzale horiek aunitz irabazten dute”).

oihanzain (*oianzain*) ‘oihana zaintzen duena; iguraina’: *oianzain onak bear dire gaurko egunean* (“oihanzain onak behar dira gaurko egunean”)

oilar-dantza (*ollar dantza*) *Erratzun, Orakunde egunean, “ollar-dantza”* (“Erratzun, Orakunde egunean, “oilar dantza””).

oilategi (*ollatei*) *ollateie dena olloz betia dugu* (“oilategia dena oiloz betea dugu”).

oilo-errule (*ollo-erroile*) ‘arrautzak paratzen dituen oiloa’: *ollo-erroileak tugu* (“oilo-erruleak ditugu”); *ollo-erroile, ollo ona* (“oilo-errulea, oilo ona”).

oilo-karaka (*ollo-karaka*) ‘oiloaren kantua’: *ollo-karaka unekin aspertu naiz* (“oilo-kakara honekin aspertu naiz”).

oilokeria (*ollokeri*) ‘koldarkeria’: *au ollokerie in dugune. Ollokeri aundie* (“hau oilokeria egin duguna”); (“oilokeria handia”).

oiloki (*ollaki*) ‘oilo haragia’: *gaur ollokie bazkaltzeko* (“gaur oilokia bazkaltzeko”); *ollakie ona da, goorra ezpada* (“oilokia ona da, gogorra ez bada”).

oilo-larru (*ollolarru*) ‘oilo-ipurdi; hotzarekin gertatzen dena’: *otzakin ollolarrue iten zait* (“hotzarekin oilo-larrua egiten zait”).

oilotu (*ollotu*) ‘koldartua’: *gure gizona arront ollotue dago* (“gure gizona arrunt oilotua dago”); *emen denak ollotuek* (“hemen denak oilotua”).

oinazka (*oñazka*) ‘oinatza; aztarna’: *emen gizon baten oñazkak* (“hemen gizon baten oinazkak”); *oñazka aundiek* (“oinazka handiak”).

oinaztura (*iñezture, oñazture*) ‘tximista’: *oñazture aundiek* (“oinaztura handiak”).

oinazturaka (*oñaztureka, iñeztureka*) ‘tximistaka’: *oñaztureka ai de* (“oinazturaka ari da”); *iñeztureka ai de* (“oinazturaka ari da”); *iñeztureka ta ortoska* (“oinazturaka eta ortoska”).

oinik ik. **orainik**

oiniken ik. **orainikan**

oino ik. **oraino**

ok ik. *hauek*

okaka ‘oka egiten’: *okaka asi zen* (“okaka hasi zen”); *gizon nardatzu oi kusite okaka asi naiz* (“gizon nardazu hori ikusita okaka hasi naiz”).

okel ‘ezkela; begi-makurra’: *orrek badu okel aire bat* (“horrek badu okel aire bat”); *okel aunitz bazen lenagoko denboretan* (“okel aunitz bazen lehenagoko denboretan”).

oketx ‘makurra; hutsa’: *etsi dugu belae, baño lerroak badu oketxa* (“hertsi dugu belae baina lerroak badu oketxa”).

okil (*tokil*) ‘hegazti igokaria’ (*Dendrocopos*): *arizti ortan badire tokilek. Tokil aunitz* (“harizti horretan badira okilak. Okil aunitz”). [Erranahirua] *tokile kantari, urie fite* (“okila kantari, euria fite”).

okitu (*ukitu*) *aberats ukitue omen da* (= ‘arras aberatsa omen da’).

oko ‘mordoa’: *matsoko bat jan dut* (“mahats oko bat jan dut”); *oko ederrak* (“oko ederrak”).

ola ik. *hola*

ola-ator (*olator*) ‘oletako ofizialek paratzen zuten atorra’: *aspaldiko denboretan oletan, olatorra ibiltzen zen* (“aspaldiko denboretan oletan, ola-atorra erabiltzen zen”).

olaiztur ik. *ohol-aiztur*

olata ‘apaizari ematen zitzaion opila’: (Berroeta) *olata mezan bedeinkatzeko* (“olata mezan bedeinkatzeko”).

olator ik. *ola-ator*

olatxe ik. *holaxe*

olaxe ik. *holaxe*

oliadura (*oliodure*) ‘Elizaren sakramentua’: *Oliodurek mantiozte, ilurren dago* (“Oliadurak eman dizkiote, hil hurran dago”).

oliodure ik. *oliadura*

olioztatu ‘olioz igurtzi’: *erlejue olioztatut* (“erlojua olioztatu dut”); *maxinerie olioztatu* (“makineria olioztatu”).

olki ik. *oholki*

ollaki ik. *oilaki*

ollar dantza ik. *oilar-dantza*

ollatei ik. *oilategi*

ollo erroile ik. *oilo-errule*

ollo karaka ik. *oilo-karaka*

ollokeri ik. *oilakeria*

ollolarru ik. *oilo-larru*

ollotu ik. *oilotu*

olola ik. *holola*

oltzar ik. *oholtzar*

omartu ik. *ohartu*

onbertze ik. *honenbertze*

onbor ik. *enbor*

onbortu ik. *enbortu*

ondar ik. *hondar*

ondazio ik. *hondazio*

ondoan 1 ‘alboan, aldamenen’ 2 ‘gero’

ondoertze ‘ondestea; ipurteste’: *ondoertzean dauke gaitze* (“ondoertzean dauka gaitza”).

ondure ik. *hondura*

ongarri ‘gorotza; zimaurre’: *abre ongarriek badu inderra* (“abere ongarriak badu indarra”); *ongarri ona*

ongarritegi (*ongarritei*) ‘goroztegia’: *ongarritei berrie in dugu* (“ongarritegi berria egin dugu”).

ongarritei ik. **ongarritegi**

ongarritu ‘ongarria hedatu’: *ongarritu bear dugu belaia* (“ongarritu behar dugu belaia”).

ongi 1 ‘espero, behar den bezala’: *ongi torri de* (“ongi etorri da”) 2 ‘maila aditzondoa’: *aski pollitek dire lore oiek* (“aski politak dira lore horiek”).

ongixko ‘nahiko ongi’ (arruntean ezeztatzailea aitzinetik): *ez ongixko zegoen* (= ‘ez zegoen soberra ongi’).

on izan ‘balio izan’: *ez da on ortako* (= ‘ez du balio horretarako’).

ontzi (*untzi*) 1 ‘joaldia’: *anbateko untzie artu ziken* (“hainbateko ontzia hartu zian”).

ontzi (*untzi*) 2 ‘isurkariak edukitzeko ibiltzen dena’: *untziek ongi garbitu. Untzi ortan sartu’t*. (“Ontziak ongi garbitu. Ontzi horretan sartu dut.”).

ontzitu (*untzitu*) ‘jo’: *untzituko zaitut! untzitu zuten gizona* (“ontzitu zaitut! Ontzitu zuten gizona”).

oñazka ik. **oinazka**

oñazture ik. **oinaztura**

oñaztureka ik. **oinazturaka**

oñik ik. **orainik**

oñiken ik. **orainikan**

oño ik. **oraino**

oñokoan ik. **orainokoan**

opil ‘irinezko oreka labearen erreak egiten den ogia’: *egunero gaten nuen besapian opile etxera* (“egunero joaten nuen besapean opila etxera”).

opor ik. **gopor**

orai ik. **orain**

oraiberean ik. **orain berean**

oraiberian ik. **orain berean**

oraidanik (Izeta) ik. **oraindanik**

oraiko ik. **oraingo**

orain (*orai*) *orai torko naiz* (“orain etorriko naiz”); *orai ineut* (“orain egingen dut”).

orain berean (*oraiberean, oraiberian*) *oraiberean inen dugu. Oraiberean bai* (“orain berean egingen dugu. Orain berean bai”).

oraindanik (*oraidanik*) (Izetak bildua) adlag. ‘oraingo; orain baino lehenago’: *oraidanik torri izenen da* (“oraindanik etorri izanen da”).

oraingo (*oraiko*) 1 izond. *oraiko gazteak besta maite. Oraikoak ta le-nagokoak ere bai* (“oraingo gazteak besta maite. Oraingoak eta lehenagokoak ere bai”). 2 adlag. *zertaz ez zinion erran tortzeko? oraiko torrie izein zen* (“zergatik ez zenion erran etortzeko? Oraingo etorria izanen zen” = ‘dagoeneko etorria’).

orainik (*oinik, oñik*) ‘oraindik’: *oñik ez dakigu deus ere* (“orainik ez

- dakigu deus ere”); *oñik ezta torri* (“orainik ez da etorri”).
- orainikan** (*oiniken, oñiken*) *oñiken* ez (“orainikan ez”); *oñiken ez daukute abisetu* (“orainikan ez digute abisatu”).
- oraino** (*oino, oño*) ‘oraindik’: *oino tortzekoa* (“oraino etortzekoa”); *oño ezta torri* (“oraino ez da etorri”).
- orainokoan** (*oñokoan*) ‘orain arte; oraindik’: *oñokoan etzaigu deus gertatu. Oñokoan ez* (“orainokoan ez zaigu deus gertatu. Orainokoan ez”).
- orakatu** ‘lokaztu; zikindu’: *kakakin orakatu ginen* (“kakarekin orakatu ginen”); *kakaz orakatu*.
- Orakunde** ‘Ortzegun gizona’: *Orakunde egunean Baztango aurren besta* (“Orakunde egunean Baztango haurren besta”); *Orakunde egunek fama aundie du Baztanen* (“Orakunde egunak fama handia du Baztanen”).
- oramahai** (*oramai*) ‘ogia oratzeko mahaia’: *oramai ederra dugu* (“oramahai ederra dugu”); *oramaie ongi ine* (“oramahaia ongi egina”).
- oramai* ik. **oramahai**
- orantza** ‘legamia; altxagarria’: *orantza bear dugu ogie iteko* (“orantza behar dugu ogia egiteko”).
- oraska** ‘aziendarendako bazka, gai batzuk nahasi ondoren egindakoa’: *beiei oraska ona maten dabegu* (“behiei oraska ona ematen diegu”).
- ordainzka** (*ordainzke*) 1 ‘lanak egin txandaka ibiltzea: gaur baserri honetakoa bertze baserrian eta bihar hangoa hemen’: *ordainzke in tugu idetziak aurten* (“ordainzka egin ditugu iratzeak aurten”) 2 ‘batak bertzeari dirua korriturik gabe uzteari erraten zaiona’: *ordainzke man nion* (“ordainzka eman nion”); *adiskideei ordainzke* (“adiskideei ordainzka”).
- ordainzke* ik. **ordainzka**
- ordoki** ‘laua; zelaia’: *ordoki ederra etxea iteko* (“ordoki ederra etxea egiteko”); *ordoki ortan etxe aunitz in daizke* (“ordoki horretan etxe aunitz egin daitezke”).
- ordots** ‘zerri arra’: *zerri ordotsa gizendu ta saldu* (“zerri ordotsa gizendu eta saldu”); *batugu bi ordots* (“baditugu bi ordots”).
- ordu**
- orduko** *argitu orduko gan ziren muge ondoko belaire* (“argitu orduko joan ziren muga ondoko belaira”). [Erranahirua] *abenduko egune, argitu orduko ilune*
- bazen ordu bazen ordu zuek tortzeko**
- orduzko** (Azkue) ‘orduko etortzen dena’: *orduzko gizona, xuxena* (“orduzko gizona, zuzena”).
- ore** ‘hauts eginiko gai gotor bati isurkari bat erantsiz eratzen den nahastura aski trinkoa, baina biguna; masa’: *gure amatxik beti ore ona. Oria ongi ine* (“orea ongi egina”).
- orga** ‘gurdia’: *orgabidea ondatue dago* (“orgabidea hondatua dago”);

- badugu orga berrie* (“badugu orga berria”).
- orga-ardatz** (*orgardatz*) (Izeta) *zirrikain orgardatza autsi zaiku* (“txirrikaren orga-ardatza hautsi zaigu”).
- orgabide** ‘gurdibidea’: *orgabide ederra in dugu* (“orgabide ederra egin dugu”); *orgabide zabala*.
- orgagile** (eta *orgagille*) ‘gurdigilea’: *nere osaba orgagile ona da* (“nire osaba orgagile ona da”); *orgagillea* (“orgagilea”).
- orgagille* ik. **orgagile**
- orgardatz* ik. **orga-ardatz**
- orgatto** ‘gurdixka, eskuko karrotxa’: *orgattoaikin zenbat lan itentugun* (“orgattoarekin zenbat lan egiten ditugun”).
- oritz** ‘emeak erdi ondoren duen lehen esnea’: *aratxe sortu berriek oritze artzen du* (“aratxe sortu berriak oritza hartzen du”).
- orixko* ik. **horixko**
- orixte* ik. **horixta**
- orma* ik. **horma**
- orma beltz* ik. **horma beltz**
- ormaize* ik. **horma-haize**
- ormategi* ik. **hormategi**
- ormatu* ik. **hormatu**
- ornitu* ik. **hornitu**
- oroitarazi** (*oroituazi*) *oroituazi nion* (“oroitarazi nion”).
- oroituazi* ik. **oroitarazi**
- oroitzapen** ‘oroimena’: *egun artako oroitzapena biotzean kokatuik dauket* (“egun hartako oroitzapena bihotzean kokaturik daukat”).
- orrat* ik. **horrat**
- orraxa* ik. **orraze, orrazi**
- orraxaxe* ik. **orrazi xehe**
- orraze** (*orraxa*) ‘abaraska, abaoa’
- orrazi** (*orraxa*) *tori orraxa ta orrextatu zaitte* (“tori orrazia eta orrazta zaitetz”); *sorgin arek urrezko orraxa zuen* (“sorgin hark urrezko orrazia zuen”).
- orrazi xehe** (*orraxaxe*) ‘orrazi txikia’: *orraxaxeakin orrextatu nitzen* (“orrazi xehearekin orraztatu nintzen”).
- orraztaire** (*orrextaire*) ‘orrazkera’: *orrextaire politeizu* (“orraztaire polita duzu”); *zure orrextaire oi fransa da* (“zure orraztaire hori frantsesa da”).
- orraztatu** (*orrextatu*) *orrextatu zaitte ongi* (“orraztatu zaitetz ongi”); *neska au zeñen ongi orrextatzen den* (“neska hau zeinen ongi orraztatzen den”).
- orrenbertze* ik. **horrenbertze**
- orrextaire* ik. **orraztaire**
- orrextatu* ik. **orraztatu**
- orri** (Izeta) ‘egoera; zentzua’: *oi eztago bere orrien* (“hori ez dago bere orrian”).
- orriratu** (*orriretu*) (Izetak bildua) ‘berera etorri’: *orai orriretu de* (“orain orriratu da”).
- orriretu* (Izeta) ik. **orriratu**
- orro** ‘behiek egiten duten oihua’

orrocka ‘orrocka eginez’: [asmakizuna] *bi mendien artean bei bet orrocka* (“bi mendiren artean behi bat orrocka”); *orrocka aundiek* (“orrocka handiak”).

ortako ik. **horretako**

ortako adine ik. **horretako adina**

ortako dina ik. **horretako adina**

ortako dine ik. **horretako adina**

ortako ainbet ik. **horretako hainbat**

ortoska ‘ortotsak, trumoiak eginez’: *ortoska ai du* (“ortoska ari du”).

ortostu ‘ortots, trumoi egoera bihurtu’: *denbora unek ortostuko du* (“denbora honek ortostuko du”).

ortots ‘trumoiak’: *bartatsean anbateko ortotsak* (“bart atsean hainbateko ortotsak”); *ortots izigarriek* (“ortots izugarriak”).

ortots-goibel ‘trumoi-goibela’: *badi-re ortots-goibelak, ortostuko du* (“badira ortots-goibelak, ortostuko du”).

ortotsik ik. **ortutsik**

ortotzik ik. **ortutsik**

ortoxik ik. **ortutsik**

ortutsik (*ortotzik, ortotsik, ortoxik*) ‘oinutsik’: *ortotzik pilotan* (“ortutsik pilotan”); *ortotsik torri ginen* (“ortutsik etorri ginen”); *ortoxik gan zen Legateraño* (“ortutsik joan zen Legateraino”).

ortxil ik. **urtxulo**

ortz ik. **hortz**

ortzadar ‘ostadarra; Erromako zuzendaria’: *ortzadarra zein polite den* (“ortzadarra zein polita den”);

ortzadarrak dirdiretzen du (“ortzadarrak dirdirutzen du”).

ortzegun ‘osteguna’: *ortzegunean besta dugu. Gaur ortzegune* (“gaur ortzeguna”)

Ortzegun Saindu ‘Ostegun Saindua’

ortzilere ik. **ortzirale**

ortzirale (*ortzilere*) ‘ostirala’: *ortzilerian torko gara* (“ortziralean etorriko gara”). [Erranahiruak] *ortzilerereko egune, nola argitu ala ilune; gorapenean, ortzileria berapen*

osaba ttipi ‘bigarren osaba’

osasuna gomendatzeko (*osasune gomendatzeko*) ‘norbait hiltzen denean familiakoei, eskua emanaz, egiten zaien agur berezia, dolumina adierazteko’. (Malerrekan ere).

osasune gomendatzeko ik. **osasuna gomendatzeko**

osasunez gabetu (*osasunez gabetu*) ‘osasunik gabekoa’: *gure aitetxi xaarra osasunez gabetue ta ezindue* (“gure aitetxi xaarra eta osasunez gabetua eta ezindua”).

osin (Izeta) ‘leizea; amildegia’: *osin aundie* (“osin handia”); *osiñen sartu ta ito* (“osinean sartu eta ito”).

oskol (*koskoil*) ‘artaburu aletuaren kozkorra’: (Elizondo, Baztangoi-za) *koskolla* (“koskola”). Izetak ‘kozkor’ ere ematen du sinonimotzat.

ostatu 1 ‘diru truke jan eta lo egiten den etxea’

ostatu 2 ik. *hostatu*

ostikoa ‘oinarekin ematen den ukaldia’

ostikoka ‘ostikoak emanez’

ostobeltz ik. *hostobeltz*

ostoberatx ik. *hostoberatx*

otamen ‘gosari txikia; goiz-goizik, bortz eta erdiak aldera, belaian hartzen zena’: *belaian in ginuen otamena* (“belaian egin genuen otamena”); *otamen goxoa*.

otaska (Izeta) ‘otea xehatzeko mahai edo ohola’: *otaska ederra dugu, ezta aise autsiko* (“otaska ederra dugu, ez da aise hautsiko”).

otatxa ‘ote errearen ondoko abarra’: *otatxa zama ederra karri dugu* (“otatxa zama ederra ekarri dugu”); *badugu otatxa pileka* (“badugu otatxa pilaka”).

ote (*Ulex europaeus*): *gure mendi oiek otez beteak dire* (“gure mendi horiek otez beteak dira”); *otea pileka* (“otea pilaka”).

ote-zurda (*otezurde*) ‘otearen urteko amu edo kimu berria’: *otezurde biltzen dugu abrendako* (“otezurda biltzen dugu abereendako”).

otezurde ik. *ote-zurda*

oti ‘patataren lehen kimua’: *patata oiei otie atra zaiote* (“patata horiei otia atera zaie”); *otiek aundituek, eriteko prest* (“otiak handituek, eriteko prest”).

otoiztu (Etxenike) ‘faborez eskatu’

otordu ‘mahaian eserita egiten den janaldia’: *guk otordu ederrak*

itentugu (“guk otordu ederrak egiten ditugu”); *otordue maite dugu* (“otordua maite dugu”).

otsaki (*otseki*) (Gorosurreta, Azkue) ‘hileta’: *gaur batugu otsakiek* (“gaur baditugu otsakiak”). Izetaren oharra: “Gorosurretak eta Azkuek beren hiztegieta bada-kartzate ere, uste dut gaur egun ez direla erabiltzen, behar bada zenbait familiatan bai”.

otsargi ‘mendi-lerroa’: (Aniz) *otsargire kusi nuen ardi multzue* (“otsargira ikusi nuen ardi multzoa”)

otseki (Gorosurreta, Azkue) ik. *otsaki*

otseski ‘mendi-lerroa’: (Irurita) *kontrabandistek karabineroa otseskire kusi zuen* (“kontrabandistak karabineroa otseskira ikusi zuen”)

otsolar ‘zuhaitzei itsasten zaien sasi mota, kolore berdekoa eta ziztaduna’: *otsolarra ezta ona* (“otsolarra ez da ona”); *mendi oi dena otsolarra* (“mendi hori dena otsolarra”).

ozar ‘gaiztoa’: *gizon oi ona delaik, asertzen denean ozarra da. Ozarra ta beldurgarrie* (“gizon hori ona delarik, haserretzen denean ozarra da. Ozarra eta beldurgarria”).

ozartu ‘haserretu, koleratu’: *gure erretora gaur predikuen ozartu zaiku* (“gure erretora gaur predikuan ozartu zaigu”).

ozi (Izeta) ik. *hozi*

ozitu (Izeta) ik. *hozitu*

ozkara ik. *hozkara*

ozkatu ik. *hozkatu*

ozki ik. *hozki*

ozkitu ik. *hozkitu*

ozpin 1 iz. ‘ardoaren hartizzetik sortzen den isurkari mingotsa’: *ozpine eztut batre maite* (“ozpina ez dut batere maite”); *ozpine kiratsa da* (“ozpina kiratsa da”). 2

izond. *au gizon ozpine* (“hau gizon ozpina”).

ozpindu ‘ozpin bihurtu; mingostu’: *ardo au ozpindu zaiku* (“ardo hau ozpindu zaigu”); *ardoa ozpintzen delaik txarra da* (“ardoa ozpintzen delarik txarra da”); *dena ozpindue dago* (“dena ozpindua dago”).

P

pa ‘musua, haurren hizkeran’

padera ‘gaztainak erretzeko danbolina’: *gaztañak paderan erreak onak dire* (“gaztainak paderan erreak onak dira”); *padera berrie dugu* (“padera berria dugu”).

pagadi (*bagadi*) *Iratin bagadi ederrak* (“Iratin pagadi ederrak”); *bagadi aundie da* (“pagadi handia da”).

pagatxa ‘pagoaren fruitua; ezkurra’: *aurten Baztango oianetan bagatxa aunitz* (“aurten Baztango oihanetan pagatxa aunitz”).

pago (*bago*) (*Fagus sylvatica*): *Bertizko oianean bago ederrak. Bagoak ta aritzek* (“Bertizko oihanean pago ederrak. Pagoak eta haritzak”).

pago-kardu (*bago-kardu*) ‘pago azpian sortzen den landarea’: *ba-*

gondo orren azpien bago-karduek badire (“pagondo horren azpian pago-karduak badira”).

pago-lizartxa (*bago-lizartxa, bago-lixertza, bago-lizertxa*) ‘aitzur, aizkora, eta abarren kiderrak egiteko pago-gaia’: *bago-lixertza kiderrak iteko kider-gai ona* (“pago-lizartza kiderrak egiteko gider-gai ona”).

palasta 1 (*plasta*) *esne plasta* (“esne palasta”).

palasta 2 ik. **plasta**

palastan 1 ‘plisti-plasta’: *aur oiek urian palastan* (“haur horiek uretan plastan”).

palastan 2 ik. **plastan**

palastatu ik. **plastatu**

pallastra ik. **baiarta**

panpalin ‘txilina’: *xakur oi panpalinekin dabile* (“txakur hori panpalinekin dabil”); *panpaline polite* (“panpalin polita”).

panparrotu 1 ad. ‘alkoholdun edaria edan ondoren harrotu’: *atzo panparrotu ginen*. 2 izond. ‘harrotua’: *bazkalondoan denak panparrotuek* (“bazkalondoan denak panparrotuak”).

panpox (*ponpox*) ‘ongi apaindua’: *au neska ponpoxa!*; *neska ponpoxak badirela!*.

pantufila (*mantuflek, pantuflek*) (pl.) ‘etxean ibiltzeko oinetakoa’: *etxean mantuflekin ibiltzen naiz*.

pantuflek ik. **pantufila**

papartza ‘funtsik gabekoa; nahas-mahas; zikinkeria’: *au ezta gezur-re ta papartza baizik* (“hau ez da gezurra eta papartza baizik”); *au neska papartza!* (“hau neska papartza!”); *bea ze papartza induzun platerian janariekin* (“beha zer papartza egin duzun platerian janariarekin”).

papata Pl. ‘(ume hizkeran) oinetakoa’

papogorri ‘txantxangorria’ (*Erithacus rubecola*): *arizti ortan papogorri aunitz* (“harizti horretan papogorri aunitz”).

papur ‘hondarra; zikinkeria laxoa; apurra; birrina’: *gure Migel Marik zapatak garbitu eta idetze papurre bota du* (“gure Migel Marik zapatak garbitu eta iratze papurra bota du”).

papurtu ‘zati txiki-txikietan hondatu’

paratu (eta *patu*) ‘ezarri; jarri’: *paratu ongi*. *Parazazu ongi* (“para ezazu ongi”); *patu ongi* (“paratu ongi”); *pazazu ongi* (“para ezazu ongi”).

parekatu ‘bikotea osatu; arra eta emea elkartu’: *neska-mutil oiek denak parekatuek* (“neska mutil horiek denak parekatuak”); *parekatu ziren*.

pareta ‘orma’: *pareta aundi bet in ginuen* (“pareta handi bat egin genuen”).

parrasta ‘multzo handia’: *uri parrasta ederra in daku* (“euri parrasta ederra egin digu”); *bataioan sos parrasta bat bota ginuen* (“bataioan sos parrasta bat bota genuen”).

partadera (*partadure*) ‘gontza; orpoa’: *ateko partadure ondatu zaiku* (“ateko partadera hondatu zaigu”).

partadure ik. **partadera**

partaide (Izeta) ‘partehartzailea’: *Bertsolarien Elkargoko partaide naiz*.

partez ‘ordez’: *sakarine ibiltzen zen emen azkriain partez*

partida (*partide*) *pilota partide jokatu bear dugu atsaldian* (“pilota partida jokatu behar dugu arratsaldean”).

partide ik. **partida**

partzuar ik. **partzuer**

partzuer (*partzuar*) ‘esku hartzaile’: *bi lagun oiek partzuar ai dire* (“bi lagun horiek partzuer ari dira”); *partzuar ta ongi doazi* (“partzuer eta ongi doaz”).

partzuego ‘partzuerren elkartea’: *partzuego ortan sartue nago* (“partzuego horretan sartua nago”); *partzuegoan sartu nitzen* (“partzuegoan sartu nintzen”).

pasatu (*pastu*) ‘gertatu; suertatu; igaro; iragan’: *ondo-ondotik pastu gara ta ezta oarture* (“ondo-ondotik pasatu gara eta ez da ohartu ere”).

pastu ik. **pasatu**

patar (eta *patarra*) ‘malda; aldapa handia’: *patarra ortaik goiti gan ginen* (“patar horretarik goiti jogan ginen”); *patarra susie* (“patar itsusia”).

patarra ik. **patar**

pataska ‘nahaste-borrastea’: *anbateko pataska in ginuen* (“hainbateko pataska egin genuen”).

pataskatu ‘pataska egin; nahasi’: *arrant pataskatue utzi ginuen* (“arrant pataskatua utzi genuen”).

patikola ‘zela atxiki edo edukitzeko uhal-mota’: *patikola autsi zaiku. Patikola berrie bear* (“patikola hautsi zaigu. Patikola berria behar”).

pattar ‘edari alkoholoduna, anisaren erakoa’: *atso orrek pattarra maitte du* (“atso horrek pattarra maitte du”); goizetan pattarra.

patu ik. **paratu**

pausa (*pause*) ‘geldialdia’: *or inen dugu pause* (“hor eginen dugu pausa”); *nekatzen garelaik pause* (“nekatzen garelarik pausa”).

pausa-leku (*pauseleku*) *au da gure pauselekue* (“hau da gure pausa-lekua”).

pausatu (*pausetu*) ‘gelditu’: *oian ortan badire uso pausatuek* (“oihan horretan badira uso pausatuak”); *pausetu dire or* (“pausatu dira hor”).

pause ik. **pausa**

pausetu ik. **pausatu**

pausu ‘harrizko maila, horma bat edo ataka bat iragatekoa’: *pausu ortaik ibiltzen gara* (“pausu horretatik ibiltzen gara”); *pausu oi gure etxekoa da* (“pausu hori gure etxekoa da”); [erranahirua] *Erregetako ollarrain pause lu-zetzen du egunek* (“Erregetako, oilarraren pausua luzatzen du egunak” = “Erregetarako, Errege egunerako...”)

para ik. **faxa**

pazia (*pazin*) ‘pertz handia; egosteko ibiltzen den ontzi handia’: *pazin aundi batian egosi ginuen. Anbateko pazine* (“pazia handi batean egosi genuen. Hainbateko pazia”). Iparralderago *bazin* erraten da. Sin. **pexku**

pazin ik. **pazia**

pazin beltz ‘ilunabarrean eguzkia mendietan sartzen denean, mendi inguru horietako gailurretan hedatzen den goibel-zerrenda beltza’: *pazin beltzak mendi oie-*

- tan* (“pazia beltzak mendi horietan”).
- Pazko** (*Bazko*) [erranahirua] *urtean bein Bazko*
- Pazko Garizuma** (*Bazkogarizime, Bazkogarizume*) ‘Pizkundera’: *Bazkogarizume egun ederra izeten da* (“Pazko Garizuma egun ederra izaten da”); *Bazkogarizime maite dugu* (“Pazko Garizuma maite dugu”).
- Pazko maiatzeko** ‘Mendekoste-jai’: *Bazko maiatzeko egunean Berroetako bestak*.
- pe** *maai baten pean sartu de katue* (“mahai baten pean sartu da katu”).
- pelatu** (eta *pelekatu*) ‘txipatu; blai egin; hezurretaraino busti’: *urie yautsala ta pelatu ginen* (“euria jautsi ahala eta pelatu ginen”); *pelekatu ginen* (“pelatu ginen”)
- pelekatu* ik. **pelatu**
- pelenda** ‘emakume purtzila’: *etzaitela neska pelenda orrekin ibili* (“ez zaitezela neska pelenda horrekin ibili”).
- pendoitz* (Izeta) ik. **pezoin**
- pentsu** ‘abereen bazka’
- pereka* ik. **fereka**
- perekatu* ik. **ferekatu**
- perexil* ik. **perrexil**
- perlut** (Azkue) ‘peluta; odol garbikoa’: *emen gure errien denak perlutek gara* (“hemen gure herrian denak perlutak gara”).
- perrexil** (*perexil*) (*Petroselenium hortense*): *gure baratzean beti perrexil ederra*.
- pertola** 1 ‘arrainak harrapatzeko tresna’: *gu beti pertolakin arrantzan* (“gu beti pertolarekin arrantzan”); *pertola ona* 2 ‘irain hitza’: *au gizon pertola* (asto airea denari erraten zaio).
- petatxatu** (eta *petatzatu*) 1 ad. ‘ebakidura eta urradurak, batez ere arropan, konpondu, adabatu’: *galtzak ongi petatzatu* (“galtzak ongi petatxatu”). 2 izond. ‘petatxuak jarria’: *galtzak ongi petatzatuek* (“galtzak ongi petatxatuak”).
- petatxu** (eta *petatzu*) ‘adabakia’: *zenbat petatzu tuen ator horrek!* (“zenbat petatxu dituen atorra horrek!”); [erranahirua] *Erratzu, mile petatzu*
- petatzatu* ik. **petatxatu**
- petatzu* ik. **petatxu**
- petesa** (Gorosurreta) ‘galtza barrenean gelditzen den lohia’
- petral** 1 ‘etxearen aitzineko aldean, luzetara paratzen den egur edo soliba’: *pilere gañeko petrala* (“pilare gaineko petrala”).
- petral** 2 ‘zamarien gainean paratzen den zama finkatzeko sabelaren inguruan lotzen den hedia’: *astoai patzen zaio petrala* (“astoari paratzen zaio petrala”).
- pexku** ‘pazia; pertz handia’: *perkuen egosi ginuen aza* (“pexkuan egosi genuen aza”); *pexku ederra*.
- pezoin** (eta *pendoitz*) 1 ‘amildegia; aldapa handia’: *pendoitz ortan*

barna ibili ginen (“pezoin horretan barna ibili ginen”); *pendoitz ikeragarrie* (“pezoin ikaragarria”). 2 (Izeta) ‘lur eremu bat sustengatzeko hesia’: *pezoin ortan muturketu ta erori* (“pezoi horretan muturkatu eta erori”); *pezoinez inguretue* (“pezoiez inguratu”).

pika (*pike*) ‘belearen familiako hegaztia’: *arbolortan pausatu de pike bat orantxe berian* (“arbola horretan pausatu da pika oraintxe berean”).

pikaro (*pikero*) ‘zitala; gaiztoa’: *zein pikeroa zaren! Yende pikeroa emen* (“zein pikeroa zaren! Jende pikeroa hemen”).

pikatu (*piketu*) 1 ‘ebaki; moztu’: *gaur belar piketzera gan bearko dugu* (“gaur belar pikatzera joan beharko dugu”); *belarra piketu* (“belarra pikatu”). 2 ‘sega mehetu edo zorroztu’: *sega piketu* (“sega pikatu”); *ai de sega piketzen* (“ari da sega pikatzen”).

pike ik. **pika**

pikero ik. **pikaro**

piketu ik. **pikatu**

pikoi (*pikon*) ‘abereetan (eta pertsonetan, gutiago) goitiko matelezurra beheitikoa baino ateragoa duena, azpiko hortzak gibelago dituena’: *mutiko orrek azpiko ezpañe llagurrago du, arras pikona da* (“mutiko horrek azpiko ezpaina laburrago du, arras pikoa da”); *badugu etxean bei bat pikona* (“badugu etxean behi bat pikoa”).

pikoka *ollo oiek pikoka ai dire gustora belar ortan.*

pikon (Izeta) ik. **pikoi**

pikor ‘bihia; alea’: *olloei arto-pikorra maten dabegu* (“oiloei arto-pikorra ematen diegu”); *emen iler-pikor bat* (“hemen ilar-pikor bat”); *pikor aundie* (“pikor handia”).

pikota ‘azienden eritasun infekziosoa; baztanga’: *ardi bat badugu pikotak yoa* (“ardi bat badugu pikotak joa”); *pikota eritesun txarra da* (“pikota eritasun txarra da”).

pila (*pile, pille*) ‘multzoa’: *anbateko sos pile duzu* (“hainbateko sos pila duzu”); (Basaburua) *sos pille* (“sos pila”).

pilare (*pileri, pilleri*) ‘zutabea’: *gure etxeko pileriak azkarrak dire* (“gure etxeko pilareak azkarrak dira”); (Basaburua) *pillerie* (“pilarea”).

pilatu (*piletu*) ‘multzoa egin’: *zu beti sos piletzen* (“zu beti sos pilatzen”).

pilda (*filde*) 1 ‘arropa zahar eta hondatua’: *zu beti filde dariola* (“zu beti pilda dariola”); *bildutu fildek, fildek edatuek’itut* (“bildu ditu pildak, pildak hedatuak ditut”). 2 ‘traketsa; bihurria’: *mutiko filde orrek ez du gauz onik* (“mutiko pilda horrek ez du gauza onik”).

pildaketa (*fildeketa*) ‘trapu zahar eta tresnen multzoa’

pildero (*fildero*) ‘fildak biltzen dituen; bihurria’

pile ik. *pila*

pileri ik. *pilare*

piletu ik. *pilatu*

pille ik. *pila*

pilleri ik. *pilare*

pillota ik. *pilota*

pilota (eta *pillota*) *pilotan aiko gara* (“pilotan ariko gara”); (Basaburua) *pillota gogorra* (“pilota gogorra”).

pilotari *pilotari ona zen Retegi, obereña*.

pilotasoro ‘lehenagoko denboretan artzainak pilotan, laxoan, aritzen ziren mendi-zelaiak’: *“pilotasoro” deitzen diren lekuek, aunitz dire Baztanen* (“pilotasoro” deitzen diren lekuak, aunitz dira Baztanen”).

pindar (*pinter*) 1 ‘txinparta’: *su-pinterrak sartu ziren nere etxean* (“su-pindarrak sartu ziren nire etxean”); *pinter oiekin izitu ginen* (“pindar horiekin izutu ginen”). 2 ‘elur malutak, tipiak eta bakanak direnean’: *elur pinterrak asi du*.

pindarka (*pinterka*) ‘pindarrak dariola’

pinpin ‘pinpirina; garbi eta apaina’: *zein pinpine dagon gure neskatikoa* (“zein pinpirina dagoen gure neskatikoa”).

pinpirrindu ‘txispatu; arinki mozortu’: *atzo ederki pinpirrindu ginen. Gure gizona pinpirrindue* (“gure gizona pinpirrindua”).

pinter ik. **pindar**

pinterdi ‘herriak auzolanean ari direnei ematen dien basoerdia eta otamena’: *erriko mutilek karri daku pinterdie* (“herriko mutilak ekarri digu pinterdia”).

pinterka ik. **pindarka**

pipatu (*pipetu*) ‘tabakoa erre’: *nik aunitz pipetzeit* (“nik aunitz pipatzen dut”); *etzazule pipetu* (“ez ezazula pipatu”).

pipatzaile (*pipetzale*) ‘erretzailea’: *gure etxean badire pipetzale franko* (“gure etxean badira pipatzaile franko”).

piper egin (*piper in*) ‘eskolara, behar denean, ez joan’: *gaur gure mutikoak piper in du* (“gaur gure mutikoak piper egin du”); *eskolatik piper*.

piper in ik. **piper egin**

piperropil ‘ogi-antzeko opila’: *gure amatxik piperropil goxoak itentu* (“gure amatxik piperropil goxoak egiten ditu”); *piperropilek, aspaldiko denborakoak* (“piperropilak, aspaldiko denborakoak”).

pipetu ik. **pipatu**

pipetzale ik. **pipatzaile**

pipi ‘egurra jaten duen intsektua’: *au pipiek yana* (“hau pipiak jana”).

pipiatu (*pipietu*) ‘pipiak joa’: *arrant pipietue dago* (“arrant pipiatua dago”).

pipietu ik. **pipiatu**

piro ‘ahatea’: *gure auzoan badire ainbertze piro* (“gure auzoan badira hainbertze piro”).

pitar (*piter, pittar*) ‘sagardo arina’: *Agerrean baute piterra* (“Agerrean badute pitarra”); *gaztañek yan ta piterra edan* (“gaztainak jan eta pitarra edan”).

piter ik. **pitar**

pitika (*pitike, pittike*) ‘antxumea’: *badugu pittike bat etxean* (“badugu pitika bat etxean”); *gaur ostatuen pittike yatea* (“gaur ostatuan pitika jatea”).

pitike ik. **pitika**

pits ik. **lits**

pittar ik. **pitar**

pitte ik. **pittin**

pittike ik. **pitika**

pittin (*pitte*) ‘pixka’: *kartzu pittet. Askiut pitte bet* (“ekar ezazu pittin bat. Aski dut pittin bat”).

pittitti ‘katua, batez ere haurren hizkeran’

pittor ‘betxindorra; bekatxoa; betazalaren ertzean sortzen den pikorta’: *begien pittorra atra zait. Pittorra, gairtoa* (“begian pittorra atera zait. Pittorra, gaiztoa”).

pitxer ‘edaria edukitzeko ontzia’: *karrak pitxer bat ur* (“ekarrak pitxer bat ur”); *pitxerra urez bete*.”

pitxitxi ‘katua, batez ere haurren hizkeran’

pixatoki (*pixetoki*) ‘gernu zorroa; maskuria’: *zerri orrek pixetoki ederra zuen* (“zerri horrek pixatoki ederra zuen”); *pixetokien arriek* (“pixatokian harriak”).

pixegile (*pixile*) ‘pixagalea; pixagura’: *pixiliak niok* (“pixegileak niagok”).

pixegiletu (*pixiletu*) 1 ‘pixagale izan’: *pixiletu naiz* (“pixegiletu naiz”). 2 ‘pixagaletua; pixagalea duena’: *arrant pixiletue* (“arrunt pixegiletua”).

pixerreka (eta *pizerreka*) ‘pixa kanpoan egin ondoren gelditzen den errestoa, pixa ausarki’: *anbateko pizerreka in duzu* (“hainbateko pixerreka egin duzu”).

pixetoki ik. **pixatoki**

pixile ik. **pixegile**

pixiletu ik. **pixegiletu**

pixkortu (Izeta) ik. **bizkortu**

pixontzi (*pixuntzi, pizuntzi*) ‘pixa egiteko ontzia’: *non dago pizuntzie?* (“non dago pixontzia?”); *pizuntzie pizez bete* (“pixontzia pixez bete”).

pixtikular (Izeta) ‘auzi-gizona; abokatu erakoa’: (Sunbilla) *yoanen gara pixtikularretara* (“joanen gara pixtikularretara”); *pixtikularra emen dago* (“pixtikularra hemen dago”).

pixuntzi ik. **pixontzi**

pixurrin (*pizurrin*) ‘pixa-usaina’: *au pizurrine! Etxe unten bada pizurrin aundie* (“hau pixurrina! Etxe honetan bada pixurrin handia”).

pizar (*pizer*) ‘pixka; guti dena; apurra’: *artu, faborez, sos pizer oiek* (“hartu, faborez, sos pizar horiek”); *bildu biar dire belar pizer oiek* (“bildu behar dira belar pizar horiek”).

pizer ik. **pizar**

pizerreka ik. **pixerreka**

pizuntzi ik. **pixontzi**

pizurrin ik. **pixurrin**

plamera ‘latorria; txapa’: *soralluen ziloa plamerakin konpondu nuen* (“solairuan ziloa plamerarekin konpondu nuen”).

plasta 1 ik. **palasta**

plasta 2 (*palasta*)

plastan (*palastan*)

plastatu (*palastatu*) ‘plast egin; plisti-plasta ibili’: *esne palasta lurrera ta dena palastatu* (“esne plasta lurrera eta dena plastatu”).

plazenki ‘modu baketsuan, gustura, trankil, pozik’: *Iri zoragarri artan plazenki pasatzen zituzten egunak, ango edertasunek eta bestak ikusiz* (Izeta, Dirua galgarrri)

poliki (eta *polliki*) 1 ‘mantso; trankil’: *ator unet poliki-poliki* (“hator honat poliki-poliki”). 2 ‘ongi’: eri egon da baiño poliki yarri de (“eri egon da baina poliki jarri da”). 3 ‘nahiko; aunitz’: *iten duk besta poliki? Besta? Konten bizi naizelaik. Bearrik in gintien lenago* (“egiten duk besta poliki? Besta? Kontent bizi naizelarik.

Beharrik egin genitian lehena-go”).

polliki ik. **poliki**

ponpox ik. **panpox**

ponpoxeta ‘neskaren sexua’

ponpollo ik. **punpuila**

pordoka-pordoka ‘modu traketsean’: *beti firin-faran, firin, firin, firin,... aile, baño gaur pordoka-pordoka ezin inez* (“beti firin-faran, firin, firin, firin ... habil, baina gaur pordoka-pordoka ezin eginez”) Lakarozen bildua, baina Baztan-Bidasoa osoan ibiltzen dena.

porka ‘multzoa’: *adar ortan ze gaztain porka ederra. Porka aundie* (“adar horretan zer porka ederra. Porka handia”); *kusten da oi ongi erregatue dela, belar porka nabari da ederki* (“ikusten da hori ongi erregatua dela, belar porka nabari da ederki”)

porkaka ‘gaztain-morkots multzoka’: *adar ortan murkutsek porkaka* (“adar horretan morkotsak porkaka”).

porlan ‘zementua’

porrokatu 1 ‘desegin; apurtu’: *porrokatu dugu etrea. Autoa ere porrokatu*. 2 ‘nolabaiteko handitasuna adierazteko ibiltzen da’: *muselari porrokatue da* (“muslari porrokatua da” = ‘aunitz gus-tatzen zaio musean aritzea’).

porroska (*porroxka*) ‘puska tipia; hondarra’: *porroxka ok eztute*

deus balio (“porroxka hauek ez dute deus balio”).

porroxka ik. *porroska*

posible

posiblez posiblez bai (= ‘segur aski bai’).

potaxa ‘txongila; ura fresko edukitze-ko lurrezko ontzia’: *potaxan ur freskoa beti* (“potaxan ur freskoa beti”); *potaxa polite da* (“potaxa polita da”).

potikoka ‘katuka; txakurka, bi esku eta bi zangoen ganean’: *mendi kasko ortara potikoka ien ginen* (“mendi kasko horretara potikoka igan ginen”).

poto ‘segarria sartzeko ontzia; sega-potoa’: *segarrie potoain barnean* (“segarria potoaren barnean”); *poto ttipie da* (“poto ttipia da”).

potto ‘zaldiko edo behoka ttipia’

pottoka (*pottoko*) ‘pottoa’: *batugu bi pottoka etxean* (“baditugu bi pottoka etxean”).

pottoko ik. *pottoka*

pozoin ‘pozoia’: *pozoña man zion* (“pozoia eman zion”).

pozoindu ik. *pozoitu*

pozoitu (*pozoindu*) *urek pozoindu-tuzte* (“urak pozoitu dituzte”).

prebensio ‘beharkunde baterako gauzak gordetzea’: *martxoan edo apirilen elurre iten badu, prebensioa ine daukegu, sabaian belarra pileka* (“martxoan edo apirilean elurra egiten badu, pre-

bentzioa egina daukagu, sabaian belarra pilaka”).

prestu ‘ona; lasaia; gozoa’: *zezen prestue da arront, ez zaizu jokatuko ez, egon trankil!* (“zezen prestua da arrunt, ez zaizu jokatuko ez, egon trankil”).

prexitu ik. *frijitu*

propio ‘polita; ederra’: *Maritxu neska propie* (“Maritxu neska propioa”); *aur au zein propie den* (“haur hau zein propioa den”); *neskatiko propie maten du*.

pulunpe ik. *bulunba*

punitu (Arizkun) ‘punitu; zigortu’: *gaizkilea punitute* (“gaizkilea punitu dute”).

punpe ik. *bulunba*

punpuila (*ponpollo*, *purpuil*) 1 ‘gargarra’: *zapel orrek purpulle polite du* (“txapel horrek punpuila polita du”); *zapata oiek ere badute purpulle* (“zapata horiek ere badute punpuila”) 2 ‘artilez betetako lastairen inguruko azalari gelditzen zitzairen zatiduren antzekoa’ *atsaldian bat edo bide iten tzintuen berriz, koltxonak, berriz yosi beren ponpollekin* (“arratsaldean egiten zenituen bat edo bide berriz, koltxoia, berriz josi beren punpuilekin”).

puntamotz (*puntemotz*, *puntemotx*) ‘ardiei belarrietan egiten zaien marka’: *gure ardi guziek badaukete puntemotza begarrietan* (“gure ardi guztiek badaukate puntamotza belarrietan”); *puntemotxa* (“puntamotza”).

puntemotx ik. *puntamotz*

puntemotz ik. *puntamotz*

pupu ‘(ume hizkeran) mina’

purdi ik. *ipurdi*

purdienostiko ik. *ipurdianostiko*

purdi-konkor ik. *ipurdi-konkor*

purdilazo ik. *ipurdilazo*

purdimazela ik. *ipurdi mazela*

purpuil ik. *punpuila*

purpuseta ‘(ile) mototsa’: *badu gibelian alako purpuseta bat*

purrustaka (*burrusteka*, *purrusteka*) ‘uholdeka’: *lenago errautsean gaten zen jendea Ameriketara eta burrusteka tortzen ziren urtero. Aldatu duk oi ere!* (“lehenago errautsean joaten zen jendea Ameriketara eta purrustaka etortzen ziren urtero. Aldatu duk hori ere!”); *sosa purrusteka bota zuten* (“sosa purrustaka bota zuten”); *urie purrusteka ai du* (“euria purrustaka ari du”).

purrustan (*burrusten*, *purrusten*) adond. ‘borborka bezala; ugari’: *burrusten eldu zen ure menditik* (“purrustan heldu zen ura menditik”); *kanpotarrak burrusten eldu dire* (“kanpotarrak purrustan heldu dira”).

purrusteka ik. *purrustaka*

purrusten ik. *purrustan*

purtxileri ik. *putzileria*

putzil ‘mesprezugarria’: *etzaitela neska putzil orrekin ibili* (“ez zaitzelaz neska putzil horrekin

ibili”); *au neska putzile* (“hau neska putzila”).

putzileria (*purtxileri*) (pl.) ‘gauza txikiak’: *ze ai zara olako purtxileriekin?* (“zer ari zara horrelako putzileriekin?”).

pusatu (*pusetu*) (Izeta) ‘bulkatu; bultzatu’: *pusetu ta lurrera bota* (“pusatu eta lurrera bota”).

pusetu ik. *pusatu*

putiko ‘mutiko ederra’: (Arizkun) *a ze putikoa!* (“a zer mutikoa!”).

putre (*futre*) ‘putrea; saia’ (*Gyps fulvus*): *futre aunitz erroitz oietan* (“putre aunitz erroitz horietan”); *Aritzekun ta Urritzeten badire futreak* (“Aritzakun eta Urritzeten badira putreak”).

putrun ‘koldarra; uzkurra’: *nere lalune ezta gizon putrune* (“nire laguna ez da gizon putruna”).

pututs ‘dorpea’: *ok esku pututsek!* (“hauek esku pututsak!”); *esku pututs oiekin eztuzu deus inen* (“esku pututs horiekin ez duzu deus eginen”).

pututx (Izeta) ‘hudoa’: *oian ortan badire ainbertze pututx* (“oihan horretan badira hainbertze pututx”); *pututxek izitzen naute*.

putzika (*putzike*) ‘puska txikia’: *putzike ta putzike zu beti putzikeka* (“putzika eta putzika zu beti putzikaka”).

putzikaka (*putzikeka*) ‘zatitxoka; nahasteka’: *beti zakurrekin putzikeka ibiltzen dire* (“beti zakurrarekin putzikaka ibiltzen dira”).

putzikatu (*putziketu*) 1 ‘putzikak, zatitxoak, puskatxoak, kendu’: *ez putziketu oi* (“ez putzikatu hori”). 2 ‘eskuekin hondatu’. 3 izond. ‘zakurra edo katua bestaz eta ferekaz betetzea; beti gaine-an izatea’: *zakurre arras putziketue’ute* (“zakurra arras putzikatua dute”).

putzike ik. **putzika**

putzikeka ik. **putzikaka**

putziketu ik. **putzikatu**

putzontzi (*putzuntzi*) ‘puzkertia’: *ken zaitte emendik arraio putzuntzie* (“ken zaitetz hemendik arraio putzontzia”); *badirela emen putzuntziek* (“badirela hemen putzontziak”).

putzuntzi ik. **putzontzi**

putzurrin ‘putz usaina’: *au putzurri-ne, nork in du? Emen bada putzurrin aundie* (“hau putzurrina, nork egin du? Hemen bada putzurrin handia”).

puxenta ‘ongi apaindua’: *a ze neskatiko puxenta!* (“a zer neskatiko puxenta!”); *badirela emen neska*

puxentak (“badirela hemen neska puxentak”).

puztar (*puzter*) ‘asto, zaldi eta mandoek gibelesko bi hankak igoz ematen duten ostikoa’: *a ze puzterrak maten tuen abre orrek. Anbateko puzterrak* (“a zer puzterrak ematen dituen abere horrek. Hainbateko puzterrak”).

puztarka (*puzterka*) *gure astoa beti puzterka* (“gure astoa beti puztarka”).

puztarkari (*puzterkari*) ‘puztar-emailea’: *asto puzterkarie* (“asto puztarkaria”).

puztar-ostiko (*puzter-ostiko*) ‘puztarrak’: *austen tu ediak eta botatzen tu bi puzter-ostiko* (“hausten ditu hedeak eta botatzen ditu bi puztar-ostiko”).

puzten ik. **buztan**

puzter ik. **puztar**

puzterka ik. **puztarka**

puzterkari ik. **puztarkari**

puzter-ostiko ik. **puztar-ostiko**

S

saali (eta *sali*) ‘heian belarra botatzen den tokia’: *saalie konpondu bear dugu* (“saalia konpondu behar dugu”); *salie autsi zaiku* (“saalia hautsi zaigu”).

saarde ik. **sarde**

saarroi ik. **sagarroi**

saats ik. **sahats**

sabi (*Amaranthus esp.*) ‘inurri-belarraren antzekoa’: *aurten sabiek badu inderra* (“aurten sabiak badu indarra”); *eztut sabie maite* (“ez dut sabia maite”).

saetsezur ik. **saihets hezur**

sagara (eta *sagra*) ‘meza erdikoa’: *le-nago mezan ta sagara denboran, ezkilek yotzen zuzten* (“lehenago mezan eta sagara denboran, ezkilak jotzen zituzten”).

sagarmuin ‘sagar erreak botatzen duen zukua’: *sagarmuin oi goxoa*

izeten da (“sagarmuin hori goxoa izaten da”); *sagarmuñe ona da* (“sagarmuina ona da”).

sagarroi (*saarroi, sarroi*) ‘trikua’ (*Erinaceus europaeus*): *baratzean kusiut sagarroie* (“baratzean ikusi dut sagarroia”); *saarroiak on iten du* (“sagarroiak on egiten du”).

sagartegi (*sagartei*) ‘sagarrak gordetzeko tokia’: *gure etxean badugu sagartei ederra* (“gure etxean badugu sagartegi ederra”).

sagartei ik. **sagartegi**

sagra ik. **sagara**

sahats (*saats*) ‘leku hezeetan hazten den zuhaitz handia’ (*Salix*): *erreka ondoko saatsa moztu dugu* (“erreka ondoko sahatsa moztu dugu”).

saieska ik. **saiheska**

saiheski ik. *saiheski*

saiets ik. *saihets*

saietsezur ik. *saihets hezur*

saiheska (*saieska*) ‘alboka’: *saieska ibili ginen* (“saiheska ibili ginen”).

saiheski (*saieski*) ‘saihetseko haragia’: *xerri pusketaik, saieskie oberena* (“xerri pusketatik, saiheskia hoberena”); *saieski ona yan dugu* (“saiheski ona jan dugu”).

saihets (*saiets*) ‘alboa’: *saiets ortan artu zuen kaska* (“saihets hortan hartu zuen kaska”); *saietsean yo zion* (“saihetsean jo zion”).

saihets hezur (*saetsezur, saietsezur*) *saietsezurre autsi zitzeion. Saietsezurre autsie dauke* (“saihets hezurra hautsi zitzaion. Saihets hezurra hautsia dauka”).

sailka (*sailke*)

sailke ik. *sailka*

sainate (*sañate*) ‘giro txarra’: *a ze sañatea dagon kanpo ortan!* (“a zer sainatea dagoen kanpo hortan!”).

saindu ‘santua’: *gaurko egunean saindu guti* (“gaurko egunean saindu guti”); *Aste Sainduen otoitz* (“Aste Sainduen otoitz”); [erranahirua] *yaten duen sainduekin ez fietu* (“jaten duen sainduarekin ez fidatu”).

saiinge ik. *zaunka*

saiingeka ik. *zaunkaka*

saiingetu ik. *zaunkatu*

sakail ‘ebaki sakona; sakia’: *sakail aundie in zioten* (“sakail handia egin zioten”).

sakan (*sakana*) ‘zologunea’: *sakana ortan erori ginen* (“sakan hortan erori ginen”), *Nafarroako eskualde bati ‘Sakana’ deitzen diote*

sakana ik. *sakan*

sakatu (*zakatu*) ‘estutu’ (Izetak bildua): (Arizkun) *zakatu ongi gero* (“sakatu ongi gero”).

sakel ik. *sakela*

sakela (*sakel*) ‘poltsikoa’: *sakelean baut ziloa* (“sakelan badut ziloa”); *sakel aundie ta sos guti* (“sakela handia eta sos guti”); *sakela betea dauket* (“sakela betea daukat”).

sakeluts ‘sakela hutsa; poltsiko hutsa’: *gure errien gizon bati “el conde de sakeluts” deitzen zioten* (“gure herrian gizon bati “el conde de sake-luts” deitzen zioten”).

sakets 1 ‘abereei belarrarian egiten zaien seinalea’: *mendiko beor oiek denek badute saketsa begarrietan* (“mendiko behor horiek denek badute saketsa belarrietan”).

sakets 2 ‘traketsa’: *mutil oi arras saketsa da* (“mutil hori arras saketsa da”); *yende saketsa* (“jende saketsa”).

saki (Izeta) ‘ebaki sakona; sakaila’: *anbateko sakie. Saki oi sendatu orduko, bi ilebete* (“hainbateko sakia. Saki hori sendatu orduko, bi hilabete”).

Salbatore ‘Igokunde-jaia’: *Salbatoretan Iruiteko bestak* (“Salbatoretan Iruritako bestak”); *bier Salbatore, urtero bezala urie* (“bihar Salbatore, urtero bezala euria”).

sali ik. *saaali*

salmenta ‘saltzea’: *salmenta guti aurtengo ferietan* (“salmenta guti aurtengo ferietan”); *gaur bai, salmenta ederra izen dugu* (“gaur bai, salmenta ederra izan dugu”).

salto ‘jauzia’: [erranahirua] *ur geldiek iten omen du saltoik aundiena*

samats ‘iratze, lastoa edo belarrarekin egiten den mukurua’: *samatsa pile bet in dugu* (“samatsa pila bat egin dugu”); *samatsa oriek bil* (“samatsa horiek bil”).

samur 1 ‘guria; biguna’: *ze aragi samurre den au!* (“zer haragi samurra den hau!”). 2 adlag. ‘goxo-goxo’: *xamur-xamur torri zen* (“samur-samur etorri zen”). 3 ‘haserre’: *samur nerekin* (“samur nirekin”).

samurtu 1 ‘guritu’. 2 ‘haserre izan; haserretu’: *aita samurtu zaiku* (“aita samurtu zaigu”).

sanpiroil ‘odolki lodi-lodia’: *gaur sanpirolle yan bear dugu. Sanpiroil ederra* (“gaur sanpiroila jan behar dugu. Sanpiroil ederra”).

sañate ik. *sainate*

sapa ‘sargoria’: *gaur sapa dago. Bero zakarra, au sapa!* (“bero zakarra, hau sapa!”).

sapelar ‘baratzean hazten den belar mota’ (*Stellaria media*): *gure ba-*

ratzean sapelarra pileka! (“gure baratzean sapelarra pilaka!”).

sar-atera *sar-atera bat in dugu goizian* (“sar-atera bat egin dugu goizean”). Erraten da behatza sar-atera egin behar dela bederatzia aldiz ur beroan, inguruko mina sendatu nahi bada.

sarda ‘ehunki zakarra’: *sardakin garbitu ginuen* (“sardarekin garbitu genuen”); *sorallue garbitzeko sarda ona da* (“sorailua garbitzeko sarda ona da”).

sarde (eta *saarde*) ‘gider luzea eta burdinazko bi hortz zorrotz dituen lanabesa’: *sarde ona dugu; saardeakin in nuen lana* (“sardarekin egin nuen lana”).

sardina-belar (*zardin-belar*) (*Asplenium*): *gure baratzean badugu ainbertze zardin-belar. Zardin-belar aunitz* (“gure baratzean badugu hainbertze sardina-belar. Sardina-belar aunitz”).

sare 1 ‘behiei eta aziendei bazka emateko ganbelaren gaineko aldekoa, belarra-eta uzten dena’

sare 2 ‘karroetan atzeko aldean zegoen zurezko tresna, karrogainekoa sartzeko ibiltzen zena’

sare 3 ‘animalien erraietako parte bat, baserrietan zerri-puxkak inguratze-eta ibiltzen zena’

sargo ik. *sargori*

sargori (*sargo*) ‘sapa’: *sargo dago, izerdie eldu de* (“sargori dago, izerdia heldu da”).

sari ‘bisita bat egitean eramaten zen opari gisakoa’: *kuste sarie karri*

zakuten (“ikuste saria ekarri ziguten”).

sarkoi ‘bertzeen bazterretan sartzen den aziendari erraten zaiona; sarkorra’: (Aniz) *au bei sarkoie, beti bertzeen belaietan sartu bearra! Sarkoie da* (“hau behi sarkoia, beti bertzeen belaietan sartu beharra! Sarkoia da”).

saroi ‘bazka lekua ondoan duen borda’: *gure saroiaren bildu ginen* (“gure saroiaren bildu ginen”); *saroi ortan ederki egoten da* (“saroi horretan ederki egoten da”).

sarrairo ik. **sarrera-aire**

sarrera-aire (*sarrairo*) ‘aurkezpen-era’: *gizon oi aserre eldu zela sarrarrotik zautu nuen* (“gizon hori haserre heldu zela sarrera-aitetik ezagutu nuen”); *sarrairo txarra in du* (“sarrera-aire txarra egin du”).

sarri ‘gero’ (*Sarri artio* gehiago ibiltzen da Baztanen *gero artio* baino): *sarri torko naiz* (“sarri etorriko naiz”).

sarrixego (*sarrixago*) ‘berrehala, pixka bat geroago’: *sarrixago torko naiz* (“sarrixego etorriko naiz”).

sarroi ik. **sagarroi**

sartu ‘bidea egin’: *ordu batian sartiko gara Iruñean* (“ordu batean sartuko gara Iruñean” = ‘ordu bat kostatuko zaigu’).

sasi *sasiek artue* (“sasiak hartua”).

sasitik lekura [Erranairua]: *sasitik lekure gan nitzen* (“sasitik lekura joan nintzen”);

sasitik lekure torrie naiz (“sasitik lekura etorria naiz”).

sasitu ‘sasiz bete’: *bazterrak sasitu zaizku* (“bazterrak sasitu zaizkigu”).

saskino ‘zareto mota bat’

saskito (eta *xarkito*) ‘neurri ontzia’ (garai eta tokien arabera, balio desberdinak dituela dirudi: anega erdia da, goiti-beheiti, 27 litro inguru)

saskito dantza ‘saskito baten gainean saltoka egiten den dantza *Aldapeko sagarraren...* musikarekin’

sasoi (*sasoin*) 1 ‘denbora; garaia’: *sasoin unten uri aunitz* (“sasoi honetan euri aunitz”); *sasoin du lanak* (“sasoi du lanak”). 2 ‘osasuna; indarra’: *gazte oien sasoiñe!* (“gazte horien sasoi!”).

sasoiaren (*sasoiñean*) ‘indarrean, osasuntsu’: *gure gizona sasoiñean dago* (“gure gizona sasoiaren dago”).

sasoin ik. **sasoi**

sastor ‘denetan sartzen dena’: *au mutiko sastorra! Neska oi ere sastorra* (“hau mutiko sastorra! Neska hori ere sastorra”).

satai ‘makila lodia’: *sataie artu ta zanpatu zuen* (“sataia hartu eta zanpatu zuen”).

satar ‘behien eritasuna; karbunkoa’: *bei gorrie satarrakin dugu* (“behi gorria satarrarekin dugu”); *satarra txarra da*.

sator-mukuru ‘sator-lurra’: *gure belaila, dena sator-mukuruz betea. Sator-mukuru aundiek* (“gure

belaia, dena sator-mukuruz be-
tea. Sator-mukuru handiak”).

saturdin ‘landa-sagua’: *gure landan iltugu lau saturdin* (“gure landan hil ditugu lau saturdin”); *saturdine xague bezalakoa da* (“saturdina sagua bezalakoa da”).

sega-gider (*sega-kider*) ‘sega-kirte-
na’: *sega-kiderra autsi zait. Segagider berrie bear dugu* (“segagiderra hautsi zait. Segagider berria behar dugu”).

sega-gopor (*sega-opor*) ‘sega-potoa;
sega-kotxua’: *sega-oporra, berrie* (“sega-goporra, berria”).

segail ‘luzea eta mehea; haragi guti-
ko eta hezur handiko pertsona’:
gure osaba segalla ta itxure ederrekoa. Gizon segalla (“gure osaba segaila eta itxura ederrekoa. Gizon segaila”).

sega-kider ik. **sega-gider**

sega-kotxu ik. **sega-kutxu**

sega-kutxu (eta *sega-kotxu*) ‘segapotoa;
sega goporra’: *sega-kutxue beti gerrontzian* (“sega-kutxua beti gerruntzean”); *sega-kutxue emen dago* (“sega-kutxua hemen dago”).

segalera ‘heian belarra botatzen den
tokia’: *beiteiko segalera ongi ine dago* (“behitegiko segalera ongi egina dago”); *segalera ona*. Sin. sare

sega-mailu (*sega-mallu*) ‘sega zorrozteko
ibiltzen den mailuka berezia’

sega-mailuka (*sega-malluke*) *sega-malluke ona dugu; sega-malluke*

unekin lan ederra iten da (“segamailuka ona dugu; segamailuka honekin lan ederra egiten da”).

sega-mallu ik. **sega-mailu**

sega-malluke ik. **sega-mailuka**

sega-opor ik. **sega-gopor**

sega-poto ‘sega-kutxua; sega-goporra’: *sega-potoa arraildu zait*.

segari ‘segaz ebakitzen duen pertsona’
batzuetan izeten ahal ginen bortz segari, bertze batzuetan sei, eta zazpi izetera ere allegatuek gara (“batzuetan izaten ahal ginen bortz segari, bertze batzuetan sei, eta zazpi izetera ere ailegatuak gara”)

segarri ‘sega zorrozteko harria’: *segarri au Frantzietik karriuet* (“segarri hau Frantziatik ekarri dut”); *segarri ona*.

sega-xango ik. **sega-zango**

sega-zango (eta *sega-xango*) ‘segagiderrari lotzeko pieza’: *sega-xango au eztago ongi* (“sega-zango hau ez dago ongi”).

segurantza ‘segurtasuna’: *zurekin eztut batre segurantzik. Segurantzia guti* (“zurekin ez dut batere segurantzirik. Segurantzia guti”).

segurik (*seurik, sourik, sorik, soriken*) ‘bederen; behintzat; gutxie-
nez’: *kostako zaizu mile pezta seurik. Bai seurik!* (“kostako zaizu mila pezeta segurik. Bai segurik!”); *sourik oi ta geio* (“segurik hori eta gehiago”).

segurki adlag. ‘seguru’

seinale izan (*señale izen*) ‘ikusi’: *etzen iñor señale gañortan?*

sekula (*sekulen*) ‘inoiz ere ez’

sekulen ik. *sekula*

semebitxi 1. ‘gizonezkoa, bere baitaioko amatxi edo aitaxirendako’: *maiteut nere semebitxi ederra* (“maite dut nire semebitxi ederra”) 2. ‘mutiko ernea’

Semeder ‘San Primo eguna’ (ereiaroaren edo ekainaren 9a): *Semeder eguneko urie, berrogei eguneko urie* (“Semeder eguneko eurria, berrogei eguneko eurria”) [Erranairua].

sendabide 1 ‘eritasuna sendatzeko bidea’: *eritasun orrek eztu sendabideik* (“eritasun horrek ez du sendabiderik”). 2 ‘erremedioa’: *sorgin orrek badu sendabide on bat* (“sorgin horrek badu sendabide on bat”).

sendakor ‘senda daitekeena’: *gaitz oi sendakorra da* (“gaitz hori sendakorra da”).

señale izen ik. *seinale izan*

serora 1 (Iparralde) ‘moja’. 2 ‘elizarren eguneroko ardura duen emakumezkoa’: *serorak yotzentu ezkilek* (“serorak jotzen ditu ezkilak”).

serorategi (*seroratei*) ‘seroraren bizitokia’

seroratei ik. *serorategi*

serorego ‘seroraren lana’: *andre orrek seroregoa zuzen iten du* (“andre horrek seroragoa zuzen egiten du”). Elizondon bada etxe bat *Serorenea* deitzen dena.

sesto (*xexto*) ‘ateraldi barregarria’ (Izetak bildua): *xexto emen ta xexto an* (“sesto hemen eta sesto han”).

sestoka (*xertoka*) (Izetak bildua) ‘sestoak erraten; kontu barregarriak kontatzen’: *gure laun au beti xertoka, xertue beti agoan* (“gure lagun hau beti sestoka, sestoa beti ahoan”).

sestokari (*xertokari*) (Izetak bildua) ‘txisteak, sestoak kontatzen dituenena’: *gure aitetxi xertokari ona zen* (“gure aitaxi sestokari ona zen”).

sestolari (*xextolari*) (Izetak bildua) ‘sestoak kontatzen dituenena’.

setazu ‘tematsua’: *au gizon setazue! setazue, aspergarrie!* (“hau gizon setatsua! setatsua, aspergarria!”).

seurik ik. *segurik*

sinesgai (*siñesgai*) ‘dogma’: *siñesgai oiek biotzian dauzket* (“sinesgai horiek bihotzean dauzkat”).

sineste (*siñeste*) ‘sinesmena’: *ortan siñeste aundie dugu* (“horretan sineste handia dugu”); *siñeste aundikoak* (“sineste handikoak”).

sinfitoa ‘hostobeltza’ (*Symphytum*)

siñesgai ik. *sinesgai*

siñeste ik. *sineste*

sis (*sise*) (pl.) ‘janarien eta bertze gauzen gainean jartzen zen zerga’

sise ik. *sis*

sisero (pl.) ‘herrietan-eta, mendietan, kateak eta mugak zeuden tokietan ordaintzen ziren zergak

edo arielak (sisak) kobratzen zizutzen langileak': *siseroak? oixe! 'Tudela, Pamplona, Sangüesa, Los Arcos... San Juan de Pie de Port, y Maya'... Belatekoa geroa-gokoa da. Amaiurkoa, gazteluko nausiek kobratzen tzuen.*

sirte ik. *zizta*

sobera 'gehiegi; larregi': *au soberai-zu* ("hau sobera duzu").

soberania (*sobranie*) 'gehiegizkoa': *neska sobranie gure auzoko Maritxu* ("neska soberania gure auzoko Maritxu").

soberasko ik. *soberaxko*

soberaxko (eta *soberasko*) 'gehiegi': *soberaxko kurritzen zuen eta azkenian artu zuen zanpa autoaikin; oi soberaxko da* ("soberaxko kurritzen zuen eta azkenean hartu zuen zanpa autoarekin; hori soberaxko da").

sobranie ik. *soberania*

sogor ik. *sorgor*

sogorreri ik. *sorgorreri*

sogortu ik. *sorgortu*

soil 'burusoila': *solle, burusolle, ileik gabe* ("soila, burusoila, ilerik gabe").

soildu 'burusoildu': *soildu zait burue* ("soildu zait burua").

soinburu 'sorbalda; bizkargaina': *yipona soinburuen zaman* ("jipona soinburuan zeraman").

soinka (*soinke*) 'bizkar gainean': *soinke in ginuen lan guzie* ("soinka egin genuen lan guz-

tia"); *soinke nekatu* ("soinka nekatu").

soinkari (*soinkeri*) 'zama soinean eramaten zuena': *gizon oiek soinkeri onak dire* ("gizon horiek soinkari onak dira").

soinke ik. *soinka*

soinkeri ik. *soinkari*

soinu 'musika, asotsa' *soñuek erakutsiko du nola dantza*. [Errana-hirua] *zalla da soñu ta dantza*

soinulari (*soñuleri*) 'soinua jotzen duena, arruntean txistularia': *nere aite erriko soñularie izena zen* ("nire aita herriko soinularia izana zen").

sokagile (*sokile*) *gure osaba sokile ona zen* ("gure osaba sokagile ona zen").

sokil (*sukil*) 'supazterrean sutan dagoen enborra': *sukil ona*.

sokile ik. *sokagile*

sokileko (*sukileko*) 'sokila; suan jartzen den enborra' *maten du bai berua sukileko orrek* ("ematen du, bai, beroa, sokileko horrek")

sokil-enbor (*sukil-onbor*) 'supazterrean sutan dagoena': *sukil-onbor yorie* ("sukil-enbor joria").

sokil-leku (*sukileku*) (Izetak bildua) 'sokila supazterrean paratzen den tokia': *sukil-lekuen ederki kokatu de onborra* ("sokil-lekuan ederki kokatu da enborra").

solas 1 iz. 'elea; hitza': *solas goxoak maite tut* ("solas goxoak maite ditut") 2 'eleketaria' izond.: *mazteki solasa omen zen*

- solas egin nik eztaiz zer solas iten zuen baño...* (Erratzu); *denbora artan etzen solasik iten al* (Elizondo); *eskuaraz ezin... ezin in ziñun solas* (Berroeta)
- solas eman 'norbaiti hitz egin' Jesusek solasa man tzion Mirentzuri ta...*
- solasean 'hizketan; berriketan': solasean ai gara* ("solasean ari gara").
- solasean egon solasian egon dire egun osuan*
- solasaldi** 'hizketaldia': *solasaldi ederra in ginuen* ("solasaldi ederra egin genuen"); *yende solasturiek solasaldi luziak* ("jende solasturirik solasaldi luzeak").
- solasbide** 'solaserako gaia': *gure auzoan gertatu denakin solasbide franko bazterretan* ("gure auzoan gertatu denarekin solasbide franko bazterretan"); *solasbide tsusie* ("solasbide itsusia").
- solastatu** 'solas egin, solastu'
- solastu** 'mintzatu, hitz egin, solas egin': *etzinuen solasten al gauz orren gañian* ("ez zenuen solasten ahal gauza horren gainean")
- solasturi** 'berritsua; eletsua': *bazkalondoan denak solasturi. Nere alaba solasturie da* ("nire alaba solasturia da").
- soldaduko** 'soldadutza'
- soldadukoan egon** 'soldadutzan egon'
- soloma** ik. **solomo**
- solomo** (*soloma*) *zerri unek solama ederrakitu* ("zerri honek solomo ederrak ditu").
- sonbor-aitzur** ik. **zonbor-aitzur**
- soñuleri** ik. **soinulari**
- soor** ik. **sorgor**
- soorka** ik. **sorgorka**
- soorreri** ik. **sorgorreri**
- soortu** ik. **sorgortu**
- sor** ik. **sorgor**
- sorailu** (*sorallu*) 'gela baten zola, arruntean zurezkoa': *gure etxeak sorallu ederra du* ("gure etxeak sorailu ederra du"); *sorallue, ongi ine* ("sorailua, ongi egina").
- soraio** 1 'fisikoki, sentikorra ez dena': *au mutiko soraioa!* ("hau mutiko soraioa!"). 2 'zistizerkosiak jotako txerria': *zerri soraioa atra zaiku* ("zerri soraioa atera zaigu"); *arras soraioa*.
- sorallu** ik. **sorailu**
- sorbeltz** (*xorbeltz*) 'txori lumabeltza' (*Apus apus*): *xorbeltzak torri zaizku. Xorbeltzak* ("sorbeltzak etorri zaizkigu. Sorbeltzak").
- sorgin-afari** 'gauerdi inguruan egiten den afaria': *goizeko iruetan sorgin-afari ederra in ginuen* ("goizeko hiruretan sorgin-afari ederra egin genuen").
- sorgin-salda** 'sorginek prestatzen zuten salda': *Zugarramurdirin sorgin-salda artu ginuen* ("Zugarramurdirin sorgin-salda hartu genuen").
- sorgin-marro** 'mahaian egiteko jokoak (*hiru lerroan jokoaren antze-*

koa): *sorgin marrua erten ginion olako quadro bati...*

sorgor (*sogor, soor, sor*) ‘gorra’: *sogorra* (“sorgorra”); *arrant soorra dago* (“arrunt sorgorra dago”); *zein sorra zaren!* (“zein sorgorra zaren!”).

sorgorka (*soorka*) ‘ardiak bero handiarekin egoteko modua’: *gure ardiek soorka ta ezin egonez* (“gure ardiak sorgorka eta ezin egonez”). Izetaren oharra: “Azkuek ere bere hiztegian horrelaxe dio: *Martxoan ardiak soorka, apirilean elurra*”.

sorgorreri (*sogorreri, soorreri, sorreri*) ‘gorreria’: *sogorrerie* (“sorgorreria”); *soorreriek eztu gauz onik* (“sorgorreriak ez du gauza onik”); *sorrerie aundie* (“sorgorreria handia”).

sorgortu (*sogortu, soortu, sortu*) ‘gor bihurtu’: *gure aitatxi sogortu de* (“gure aitatxi sorgortu da”); *olako asotsakin denak soortiko gara* (“holako asotsarekin denak sorgortuko gara”).

sorik ik. **segurik**

soriken ik. **segurik**

sorkizun (Izeta) ‘iturria sortzen den tokia; iturburua’: *erriko turriek ortxe dauke sorkizune, turburu ta sorkizun* (“herriko iturriak hortxe dauka sorkizuna, iturburu eta sorkizun”).

sorleku ‘sorterria; jaioterria’: *maiteut nere sorlekue. Aizkun da nere sorlekue* (“maite dut nire sorlekua. Arizkun da nire sorlekua”).

sor-mintzaira (*sor-mintzaire*) ‘ama hizkuntza’

sor-mintzaire ik. **sor-mintzaira**

soro 1 ‘mendiko zelaietan izan ohi den belar motz-motza’: *pilota-soro aunitz Baztanen* (“pilota-soro aunitz Baztanen”). 2 ‘belarrari ematen zaion bigarren ebakialdia’: *belar onak ta soro obeak* (“belar onak eta soro hobekak”).

soroka ‘multzoka’: *soroka bildu ginuen ardiek* (= ‘multzoka’ bildu genituen).

sorreri ik. **sorgorreri**

sorta ‘multzoa’: *lore sorta bat erosi dut botiken* (“lore sorta bat erosi dut botikan”).

sorterri ‘sorlekua; jaioterria’: *nere sorterrien bizi naiz* (“nire sorterrian bizi naiz”); *sorterrie maite* (“sorterria maite”); *aunitz sorterritik urrun bizi dire* (“aunitz sorterritik urrun bizi dira”).

sortetxe ‘jaiotetxea’: *nere sortetxea berritute* (“nire sortetxea berritu dute”); *sortetxe ederra*.

sortu 1 ‘jaino’

sortu 2 ik. **sorgortu**

sos 1 ‘dirua’: *sosa denek maite. Sosik gabe deus ez. Lau sosetan erosi ginuen etrea. [Erranairuak] bakea ta bi sos. Eztio putzek bi sos iten*. 2 ‘txanpona’: *sos batzuk bota zituen elizatian* (“sos batzuk bota zituen elizatean”); *badut nik emen sos bat* (“badut nik hemen sos bat”).

sosdun ‘diruduna; aberatsa’: *nere osaba sosdune da. Sosdune baña zurre* (“nire osaba sosduna da. Sosduna baina zuhurra”).

sotopil ik. sutopil

sourik ik. segurik

su

suan suan patuko dugu eltzia. su apal ‘lurreko sua’ sura sura bota zuten liburue. sutan oian guzie suten da.

subegorri ik. sugedorri

sube-mats ik. suge-mahats

suburdin ik. su-burdina

su-burdina (*suburdin*) ‘tximinian erre-
kia kanpora atera gabe kontzeko
burdina berezia’: *suburdin au as-
paldikoa da ta ongi ine* (“su-burdi-
na hau aspaldikoa da eta ongi egi-
na”).

sudur (eta *sugur*) *sugurre gorritu
zaizu* (“sudurra gorritu zaizu”);
sugur aundi aunitz gure errien
 (“sudur handi aunitz gure he-
rrian”).

sufle ‘bizkorra’: *mutil suflia gure
Martintxo. Suflia ta ona* (“mutil
suflea gure Martintxo. Suflea eta
ona”).

sugandila (*sumandile, sumangile*)
(*Podarcis*): *pareta zaar oietan
sumandilek pileka* (“pareta zahar
horietan sugandilak pilaka”).

sugarri (*sugerri*) ‘erregaia’: *emen ba-
dugu sugerri franko* (“hemen ba-
dugu sugarri franko”); *neguen
bear da sugerrie* (“neguan behar
da sugarria”).

sugegorri (*subegorri*) (*Vipera*): *sasi
ortan subegorri aunitz* (“sasi ho-
rretan sugegorri aunitz”); *sube-
gorri oiek izitzen naute* (“suge-
gorri horiek izutzen naute”).

suge-mahats (*sube-mats*) ‘erlakizten
eta handitsuak sendatzeko ibiltzen
zen landarea, fruitu gorriak ematen
dituena’ (*Arum italicum*): *baz-
ter oietan sube-mats franko* (“baz-
ter horietan suge-mahats franko”).
Umeei erraten zaienez, sugeak ja-
ten omen ditu fruitu horiek.

sugerri ik. sugarri

sugur ik. sudur

suhatz (*sumats, sumets*) (pl.) ‘supaz-
terrean ibiltzen den kurrিকা han-
dia’: *gure sukeldean sumatsa
arront bearrezkoa da* (“gure su-
kaldean suhatza arunt beha-
rrezkoa da”).

suinki ‘adorez; ahaleginez’: *suinki
yokatuko gara. Suinki il artio*
 (“suinki jokatuکو gara. Suinki
hil artaino”).

sukil ik. sokil

sukileko ik. sokileko

sukileku (Izeta) ik. sokil-leku

sukil-onbor ik. sokil-enbor

suko aga ik. suko haga

suko haga (*suko aga*) ‘gisulabe lane-
tan ibiltzen zen haga luzea’: *su-
ko aga arras bearrezkoa da kisu-
labetako lan oietan* (“suko haga
arras beharrezkoa da gisu-labe-
tako lan horietan”); *suko aga au
ona da* (“suko haga hau ona
da”).

sulfuratu (*sulfuretu*) 1.ad. ‘haserre
bizian jarri’: *gizon orrek sulfu-*

retzen *nau* 2. izond. 'haserre, bere baitarik aterea' *goizian sulfuretue kusi dut bere semeaikin* ('goizean sulfuratua ikusi dut bere semearekin')

sumandile ik. *sugandila*

sumangile ik. *sugandila*

sumar 'lehiakorra': *gure alkatea gizon sumarra. Sumar ta ona* ("gure alkatea gizon sumarra. Sumarra eta ona").

sumats ik. *suhatz*

sumatu (*sumetu*) 'hauteman': *sumetu ginuen an zerbait bazela* ("sumatu genuen han zerbait bazela"); *eztugu deus sumetu* ("ez dugu deus sumatu").

sumets ik. *suhatz*

sumetu ik. *sumatu*

sumindu 'hoztu': *eskuek sumindu zaizkit*.

sumusker 'muskerra' (*Lacerta viridis*): *sumuskerra sartu zitzeikun etxe barnera* ("muskerra sartu zitzaigun etxe barnera").

sunsun ik. *zuntzun*

supei 'begitarte txarrekoa': (Aniz) *gizon supeie, begitarte txarrekoa* ("gizon supeia, begitarte txarrekoa").

supitu 'gogoa': (Arizkun) *supitu aundien dabile* ("supitu handian dabil").

surdakei (*surdoki*, *zurdoki*) (Izeta) 'sukarrian joz txinpartak ateratzeko erabiltzen zen maila': *surdoki onak ibiltzen zuzten lenagoko gizonak* ("surdakei onak erabiltzen zituzten lehenagoko gizonak");

zurdoki unekin anbateko pinterrak atratzentut ("surdakei honekin hainbateko pindarrak ateratzen ditut").

surdoki (Izeta) ik. *surdakei*

surrioan 'zerbaiten gibeletik ibiltzea': *zerbaiten surrioan dabile* ("zerbaiten surrioan dabil"); *surrioan bai*.

susaldu (*suseldu*) 'behia susara, arreske, jarri'

susara (*susera*) 'arreske dagoen behia': *gure bei gorrie susera dago* ("gure behi gorria susara dago").

suseldu ik. *susaldu*

susera ik. *susara*

susper 'sutsua': *bero izigerrie, susperra dago* ("bero izugarria, susperra dago"); *susper, bero*.

sutaitzin 'supazteraren aitzinean bertze guztiak atxikitzeke paratzen den egurra': *egur aundi au sutaitzin, bertze gañerako egurrek kontzeke* ("egur handi hau sutaitzin, bertze gainerako egurrak kontzeke").

sutezten 'aziendari muturrean paratzen zaion burdinazko eraztuna': *sutezten azkarra bear izeten du zezen orrek* ("sutezten azkarra behar izaten du zezen horrek"); *suteztena, zezenai muturrean patzen zaion uztaie* ("suteztena, zezenari muturrean paratzen zaion uztaia").

sutopil (eta *sotopil*) 'gari irinarekin egindako taloa': *sutopil goxoak yatentugu. Sutopil oiek amatxik itentu* ("sutopil goxoak jaten ditugu. Sutopil horiek amatxik egiten ditu").

T

taka-taka ‘presaka; urrats arinean’:
gan zaizte taka-taka lasterka
 (“joan zaitezte taka-taka lasterka”).

takatu (Azkue) ‘sakatu; zanpatu’: *takatu ongi gero...*

tala-tala ‘txakurrak ura edatean egiten duen hotsa’: *gure zakurrek ure edaten duelaik, tala-tala iten du* (“gure zakurrak ura edaten duelarik, tala-tala egiten du”).

talo-burdin ‘taloak erretzeko burdinazko pieza’: *talo-burdinekin aitzen gara. Talo-burdin ona dugu* (“talo-burdinarekin aritzen gara. Talo-burdina ona dugu”).

talo-mantenu ‘taloa suaren bazterrean atxikitzeko zurezko pieza biribila’: *talo-mantenua beti eskuar. Talo-mantenu ona ta ongi ine* (“talo-mantenua beti eskuar.

Talo-mantenu ona eta ongi eginna”).

talotxin ‘umeei egiten zaien txaloa; txaloak eginez abesten den haur kanta, josteta’: *gure aurrekin beti talotxin-talotxin* (“gure haurrekin beti talotxin-talotxin”).

tanatu ‘ilea edo luma galdua; soildua’: *badugu ollo lepo tanatue* (“badugu oilo lepo tanatua”).

tantai ‘adarrak gabeko enbor luzea’: *Bertizko oianean tantai ederrak. Aritz tantaiek* (“Bertizko oihanean tantai ederrak. Haritz tantaia”).

tantar ‘tematsua’: *au gizon tantarra!* (“hau gizon tantarra!”).

tantikatu (*tantiketu*) ‘mugitu’ (ezezko esaldietan ibilia): *mugitzeko erran ta ez tantiketu ere. Ez tan-*

tiketzen (“mugitzeko erran eta ez tantikatu ere. Ez tantikatzen”).

tantiketu ik. *tantikatu*

tapi ‘tinkoa’: *lur tapie, zein gogor* (“lur tapia, zein gogor”).

tapitu ‘tinkotu’: *uri erauntsi oiek lurrrek tapitu dazkute* (“euri erauntsi horiek lurrak tapitu dizkigute”); *ez duzu ikesi oño: beti tapitue atratzen zaitzu tortille* (“ez duzu ikasi oraino: beti tapitua ateratzen zaizu tortilla”).

taratelu ik. *daratulu*

taratilu ik. *daratulu*

tarrapataka ‘presaka; arrapaladan’: *tarrapataka gan ginen* (“tarrapataka joan ginen”); *tarrapataka torri* (“tarrapataka etorri”).

tarrapatan ‘tarrapataka; presaka’: *bidea tarrapatan pasa ginuen* (“bidea tarrapatan pasa genuen”).

tarrat ‘urratua, zerbait urratzeak sortzen duen asotsa’: *anbateko tarrata in datate atorrean* (“hainbateko tarrata egin didate atorran”).

tarrataka ‘harramazka’

tarratako ‘tarratada; urratua’: *tarratako ederra in zioten* (“tarratako ederra egin zioten”).

tarratari ‘puzkerrak botatzen dituen’: *tarratari zikine, gaie emendik* (“tarratari zikina, hoa hemendik”).

tarratatu ‘tarrat egin; zerbait urratu’: *tarratatu datate atorra* (“tarratatu didate atorra”).

tarratazale ‘tarratak hartzen dituen’: *zu beti tarrataz betea, arront tarratazale zara* (“zu beti tarrataz betea, arrunt tarratazale zara”).

tartail ‘arlotea; baldarra’: *zein tartaila zaren* (“zein tartaila zaren”); *au yende tartalla* (“hau jende tartaila”).

tartailkeri ‘baldarkeria’: *etxe ortan tartailkerie nausi* (“etxe horretan tartailkeria nagusi”).

tartarrontzi (*tartarruntzi*) ‘solas aunitz egiten duena’: *zu arras tartarrontzi zara. Beti solasean, tartarrontzi aspergarria* (“zu arras tartarrontzi zara. Beti solasean, tartarrontzi aspergarria”).

tartarruntzi ik. *tartarrontzi*

taxuka (*taxuke*) ‘nolabait kalkulatu’: *zu beti taxuke ai zara* (“zu beti taxuka ari zara”).

taxuke ik. *taxuka*

taxutu ‘kalkulatu’: *gauzek ongi taxutu, taxutu ongi* (“gauzak ongi taxutu, taxutu ongi”).

taxuzale ‘taxua edo kalkulua egiten duena’: *zu taxuzale ona zara*.

teila-arteka (*tellarteka*) ‘teilartea’: *tellarteka aundiek badire* (“teila-arteka handiak badira”).

teilari (*telleri*) *lenago Elbeten bazen tellerie* (“lehenago Elbeten bazen teileria”).

teilarin (*tellarin, tellerin*) ‘teilaria; teilagina’: *tellarin Baztango dantza baten izena; nere lengusue tellerine da* (“nire lehengusua teilaria da”).

teilarte (*tellarte*) ‘teila-arteka’: *teillarte oiek gaizki daude* (“teilarte horiek gaizki daude”).

teilatu-hegal (*tellatuegal*) ‘teilatu-erlaitza’: *etxe orrek tellatuegal ederrakitu* (“etxe horrek teilatu-hegal ederrak ditu”).

tekol ‘migraña antzeko buruko min ezin keduzkoa’: *au buruko min tekola*.

teku ‘kutsua; urrina; gardinga; zaharmindua’: *ardo unek badu tekue* (“ardo honek badu tekua”); *teku au txarra da* (“teku hau txarra da”).

teleka ‘aspergarria’: *au gizon teleka! Beti teleka orrekin!* (“hau gizon teleka! Beti teleka horrekin!”).

tellarin ik. **teilarin**

tellarte ik. **teilarte**

tellarteka ik. **teila-arteka**

tellatuegal ik. **teilatu-hegal**

telleri ik. **teilari**

tellerin ik. **teilarin**

tematzu ik. **temazu**

temazu (eta *tematzu*) ‘tematsua; se-tatsua’: *au neskatiko temazue!* (“hau neskatiko temazua!”); *temazue zara* (“temazua zara”).

tenore ‘zerbaitetarako unea, garaia’: *tenore txarrean torri zara. Bazkaltzeko tenorea da* (“tenore txarrean etorri zara. Bazkaltzeko tenorea da”).

tenorez ‘garaiz’: *tenorez torri gero etxera...* (“tenorez etorri gero etxera...”).

tente (eta *denden, tenten*) ‘zutik; zuzen’: *gure aurre denden zutik* (“gure haurra tenten zutik”); *yarrri au tente!*

tenten ik. **tente**

tentumotx ik. **tentumotz**

tentumotz (*tentumotx*) ‘muxkina; negartia’: *gure aurre tentumotx dugu. Arront tentumotx* (“gure haurra tentumotz dugu. Arrunt tentumotz”).

terteri ‘lan edo gauza aspergarria’: (Aniz) *terteri aundie* (“terteri handia”).

tetel ‘solas egitean zizipasa egiten duena’: *au gizon tetela!* (“hau gizon tetela!”).

tetelatu (*teteletu*) ‘hitx egitean zizipasa egin’: *teteletu zaiku Joxe* (“tetelatu zaigu Joxe”).

teteldu ‘hitx egitean zizipasa egiten duena’: *arrant teteldue dago* (“arrant tetelatua dago”).

teteletu ik. **tetelatu**

tilistatu (*tilistetu*) ‘ura ontzi batera bota eta inarrosi’: *tilistetu ongi untzi oi, tilistetu ta ur zikine bota* (“tilistatu ongi ontzi hori, tilistatu eta ur zikina bota”).

tilistetu ik. **tilistatu**

tilita (*tilite, ttilite*) ‘(Izetak dioenez) zaporerik gabeko janari edo edariari erraten zaiona. Gure ustez, urtsua den janariari, bereziki salda, zopa eta holakoei erraten zaie, batez ere aski zapore mote-la dutelarik: *salda tilite*.

tilite ik. **tilita**

til-til 'leku batetik bertzera, zentzu gabe, ibiltzea': *tiltil daile andik unet ez dakiela zer in* ("til-til dabil handik honat ez dakiela zer egin").

til-til-til *til-til-til torri zen, mantxo-mantxo* ("til-til-til etorri zen mantso-mantso").

tinkatu (*tinketu*) 'gogor estutu': *ongi tinketu laxatu ez daien* ("ongi tinkatu, laxa ez dadin").

tinketu ik. **tinkatu**

tinko 'irmo; sendo': *au tinko dago, ongi estutue* ("hau tinko dago, ongi estutua").

tiota (Azkue) 'txioa, txitoena': *txito oien tiota maiteut* ("txita horien tiota maite dut").

tipi-tapa (eta, adierazkorra, *ttipi-ttapa*) *gain gara tipi-tapa mendi kaskoraño* ("joanen gara tipi-tapa mendi kaskoraino").

tipula-hazgai (*tipulazkai*) 'ereiteko landatzen den tipula': *batugu tipulazkaiek, maiatzean yateko. Tipulazkai onak* ("baditugu tipula-hazgaiak, maiatzean jateko. Tipu-la-hazgai onak").

tipulazkai ik. **tipula-hazgai**

tirakiloi (*tirakillun, tirekilun*) 'ukendu': *tirakillunekin sendatu zen nere mine* ("tirakiloiarekin sendatu zen nire mina"). Arizkungo Klarisek lehen tirakiloia egiten zuten.

tirakillun ik. **tirakiloi**

tiratu 1 'argindarra) gastatu': *izigerrikerie tirecten du plantxak* (=

'gastatatzen du'). 2 'tirokatu'. 3 'tira egin'

tirekilun ik. **tirakiloi**

tirria (*tirrie*) 'irrika': *au tirrie!* ("hau tirria!").

tirriatu (*tirrietu*) 'irrikatua': *mutil ortaz arras tirrietue nago* ("mutil horretaz arras tirriatua nago").

tirrie ik. **tirria**

tirrietu ik. **tirriatu**

tirrint 'deitzeko tresna; txirrina': *despertadore unek tirrintik eztu yotzen. Tirrinte autsi zaio* ("despertadore honek ez du tirrintik jotzen. Tirrinta hautsi zaio").

titare (*titere*) 'jostean, orratzari indarra egiteko behatzen paratzen den tresna': *titeria galdut. Titere ona zen* ("titarea galdu dut. Titare ona zen").

titere ik. **titare**

titidor 'txupetea; aho-gozagarria; edoskailua': *aur unek titidorra maite du* ("haur honek titidorra maite du").

to 1 'behie deitzeko ibiltzen den hitza': *to! to!* 2 'harridura adierazteko modu bat': *to! enakien nik deusik* ("to! ez nekien nik deusik") 3 'tori! hika, hartu, har ezak/n': *to! hartzak au.*

tokil ik. **okil**

tokila (*tokille*) 'bizkar-lepoan jartzen den zapia'

tokille ik. **tokila**

tolosina (*tolosiñe*) 'neskaren sexua'

tolosiñe ik. **tolosina**

tolot ‘ustela, batez ere arrautzari dagokionez’: *arroltze tolotak usein txarra du* (“arrautza tolotak usain txarra du”); *emen arroltze tolota aunitz bada* (“hemen arrautza tolota aunitz bada”).

tolotatu ‘usteldu, batez ere arrautzei dagokienez’: *arroltze oi tolotatu de* (“arrautza hori tolotatu da”).

tontor (*ttunttur, tuntur*) 1 ‘kaskoa; mendi gaina’. 2 ‘konkorra’: *erri unten bada tuntur aunitz* (“herri honetan bada tontor aunitz”).

tontortu (*tunturtu*) ‘konkortu’: *nere osaba nola tunturtu den* (“nire osaba nola tontortu den”).

tontoxko ‘tonto samarra; inozoa’: *mutiko au tontoxkoa da* (“mutiko hau tontoxkoa da”); *tontoxko aunitz*.

tori! ‘hartu aditza inperatiboan, 2. pers. sing.’ *tori liburua!*

totoriketu ik. **kokorikatu**

totoriko ik. **kokoriko**

totorikoka ik. **kokorikoka**

toxa (Izeta) ‘tabako-belarra eramateko larruzko ontzia’: *toxa dauket pipe belarrez betea* (“toxa daukat pipa belarrez betea”).

traba (eta *tragu*): ‘oztopo’: *traba aundie bada emen; tragu in zion ta ezin pasa* (“traba handia bada hemen; traba egin zion eta ezin pasa”).

trabatu (eta *tragutu*) ‘oztopatu’: *mintzetzen asi ta trabatu de arras; tragutu ta lurrera erori* (“mintzatzen hasi eta trabatu da arras; trabatu eta lurrera erori”).

tragaza ‘otea xehatzeko aihotza’: (Sunbilla) *tragaza unekin otea ederki xeatzen dugu* (“tragaza honekin otea ederki xehatzen dugu”).

tragu (Izeta) ik. **traba**

tragutu (Izeta) ik. **trabatu**

traguzale (Izeta) ‘trabatzailea; traba egiten duena’: *zu beti traguzale* (“zu beti trabatzaile”).

trailu (*trallu*)

trailuka (*tralluke*) (Basaburuan salbu, bertze herrietan) ‘ogia edo garia erauzteko lehenagoko denboretan ibiltzen zen tresna, trailua’.

trailukari (*trallukeri*) ‘ogia edo garia erauzten duena’: *trallukeri orrek lan ederra iten du* (“trailukari horrek lan ederra egiten du”).

trailukatu (*tralluketu*) ‘ogia edo garia erauzi’: *ongi tralluketu dugu* (“ongi trailukatu dugu”).

trakets ‘zarpailla; baldarra; moldakaitza’: *bada yende trakets aunitz bazter oketan* (“bada jende trakets aunitz bazter hauetan”).

trallu ik. **trailu**

tralluke ik. **trailuka**

trallukeri ik. **trailukari**

tralluketu ik. **trailukatu**

trankil 1‘lasai’: *trankil-trankil torri de* (“trankil-trankil etorri da”). 2 ‘lasaia’: *orren birikek! trankile da bai, oi* (“horren biriak! trankila da bai, hori”).

trankildu ‘lasaitu’

trapa ‘ardien gaitza; arnasestua’: *gure artaldean trapa sartu zaiku. Trapa eritasun txarra da* (“gure artaldean trapa sartu zaigu. Trapa eritasun txarra da”).

trapatina (*trapatine*) ‘ostoa mota bat, itxura zabalekoa, pikorta gainean paratuz hura sendatzeko ibiltzen zena’: *lenoo oi trapatinekin olio manta sendatzen ginuen* (“lehenago hori trapatinarekin olio eman eta sendatzen genuen”).

trapatine ik. **trapatina**

trapil (Azkue) ‘pilda; trapu-zatia’: *trapil oiek erre* (“trapil horiek erre”).

tratulari (*tratuleri*) ‘tratuak egiten dituen’: *kito tratulerie* (“ijito tratularia”).

tratuleri ik. **tratulari**

trebera (*trepete*) ‘eltze azpian paratzen den tresna’: *eltze azpian beti trepeta* (“eltze azpian beti trebera”); *trepete polite* (“trebera polita”).

trefla ‘hirusta’

trenpe ik. **trenpu**

trenpu (*trenpe*) ‘umorea; sasoi’: *merkature gan eta trenpe gorrian torri zen* (“merkatura joan eta trenpe gogorrean etorri zen” = ‘umore handiarekin’).

trepete ik. **trebera**

tresen ‘tresneria’: *tresenik gabe langile onik ez*.

tresna 1 ‘lanabesa; gailua’. 2 ‘gauzak ardurarik gabe egiten ditue-

nari erraten zaiona’: *urde tresna!; arras tresna da*.

tribuna (*trigune*) ‘eskailera akitzen den tokia’: *gure etreak trigune ederra du. Etxe gibelean trigune* (“gure etreak tribuna ederra du. Etxe gibelean tribuna”).

trigune ik. **tribuna**

trinu ‘ereiteko giro ona’: (Aniz) *banabarrak eriteko trinue guzien gañekoa* (“banabarrak ereiteko trinu guztien gainekoa”).

tripot (Azkue) ‘aziendaren gatzagia’: *tripot oiek karri unet* (“tripot horiek ekarri hona”).

tripus-trapus ‘lana nolnahi eta presaka egiteari erraten zaiona’: *lan au tripus-trapus in biar izen dugu* (“lan hau tripus-trapus egin behar izan dugu”).

troila (*trolle*) ‘sasoian egotea; indartsu’: *trolle ederrean dago gure bei gorrie* (“troila ederrean dago gure behi gorria”).

trolle ik. **troila**

trosta ‘zaldiaren eta kidekoen ibiltzeko modu bat. Jendeaz ere erraten da’: *trostan torri ginen. Zaldiz ta trostan* (“trostan etorri ginen. Zaldiz eta trostan”).

trufa (*trufe*) (Azkue) ‘lapitza; arbela’: *mendi au dena trufe da* (“mendi hau dena trufa da”).

trufe (Azkue) ik. **trufa**

truxken ‘haserretu gabe bakea egitea’: (Aniz) *in bear dugu truxken* (“egin behar dugu truxken”).

ttakol ‘txotxoloa; fundamentu gutxi-ko pertsonari erraten zaiona’: *au mutiko ttakola. Ttakola ta ergela* (“hau mutiko ttakola. Ttakola eta ergela”).

ttall ik. *ttar*

ttantta ‘ardoa’: *andre orrek ttantta maite du* (“andre horrek ttantta maite du”).

ttantta goxo ‘ardo goxoa’: *amatxin etxean ttantta goxua artut* (“amatxiren etxean ttantta goxoa hartu dut”).

ttar (eta *ttall*) ‘tipia; txikia’: *arrant ttarra da; gizon ttallak expantu aundiek* (“gizon ttarrak espantu handiak”); *gizon ttallak purdie apal* (“gizon ttarrak ipurdia apal”); *tta-tta-tta-ttalla zen* (“tta-tta-tta-ttara zen”). [Erranahirua] *gizon ttallak, expantu aundie*.

ttartu ‘tipitu’: *gure gizona ttartzen ai de* (“gure gizona ttartzen ari da”); *ttartu de* (“ttartu da”).

ttatto ‘zatoz (haur hizkeran)’

ttautte ‘tragoxka’: *apezain etxean ttautte goxoa in nuen* (“apezaren etxean ttautte goxoa egin nuen”).

ttilite ik. *tilita*

ttipi ‘ttarra; txikia’: *neska ttipie baño polite* (“neska ttipia baina polite”); *ttipi-ttipie* (“ttipi-ttipia”).

osaba ttipi ‘bigarren osaba’. [Erranahiruak] *errie ttipiago ta nasmenta aundiago. Gizon ttipiek purdie apal*.

ttipi-ttapa ik. *tipi-tapa*

ttipitto ‘txikitxo; txiki-txikia’: *gizon ttipitto ta zaulie* (“gizon ttipitto eta zaula”). Bada etxe bat ‘Ttipitonea’ izena dena.

ttipitu ‘ttartu, txikitu’: *gizon oi ttipitu de* (“gizon hori ttipitu da”); *ttipitzen ai de* (“ttipitzen ari da”).

ttit ‘haurrekin haserre eta bakeak egiteko behatz muturrak elkarrekin ukitzean erraten dena’: *orai bakeak, “ttit”* (“orain bakeak, ttit”).

ttottolatu ik. *ttottolotu*

ttottolotu (*ttottolatu*) ‘ergeldua; txotxolotua’: *gure osaba arront ttottolatue dugu* (“gure osaba arrunt ttottolotua dugu”).

ttottorikatu (adkor.) (*ttottoriketu*) ‘kokorikatu’: *ttottoriketu zaite* (“ttottorikatu zaitez”); *ttottoriketu gara* (“ttottorikatu gara”).

ttottoriketu ik. *ttottorikatu*

ttottoriko (adkor.) ‘kokoriko’: *ttottoriko nago*.

ttottorikoka (adkor.) ‘kokorikoka’: *ai gaitetzin ttottorikoka* (“ari gaitetzen ttottorikoka”); *gure aurre beti yostetan ttottorikoka* (“gure haurra beti jostetan ttottorikoka”).

ttu ik. *tu*

ttugale ik. *tugale*

ttuka ik. *tuka*

ttuke ik. *tuke*

ttuku-ttuku (adkor.) ‘tuku-tuku’: [erranahirua] *Baztandarra ttuku-ttuku*.

ttul 1. ‘indarrrik gabe, ahul’: *gan gara kustera eta ttul arpatu dugu* (“joan gara ikustera eta ttul harrapatu dugu”); *zer moduz dago? -ttuttul, ttul bakarrik, egie erteko* (“zer moduz dago? -Ttuttul, ttul bakarrik, egia errateko”). Gure ustez, ‘-a’ gabe da, nahiz *Orotariko Euskal Hiztegia*-k ‘-a’-rekin eman, hain segur ere hori artikulua baita.

ttulin ‘sinplea, ergela’ *oi neska ttuline!*

ttun-ttun (adkor.) ‘musika, tun-tuna’

ttunttunero ‘txistularia’

ttunttur ik. **tontor**

ttu-palarda ik. **tu-palarda**

ttuttu ‘haur txikiari eseritzeko agindua ematen zaionean erraten dena’: *ttuttu emen. Yarri emen* (“ttuttu hemen. Jarri hemen”).

ttuttulu ik. **tutulu**

ttutturru ‘mendi gailur zorrotza’: *ttutturru artan izen ginen. Tutturru zorrotza* (“ttutturru hartan izan ginen. Tutturru zorrotza”).

tu (*ttu*) ‘listua’: *ttue bota zion aurpeire* (“tua bota zion aurpegira”); *ez ttuik bota* (“ez turik bota”).

tugale (*ttugale*) ‘tu egiteko gogo’: *ttugale aundie dut* (“tugale handia dut”); *zu ere beti ttugale* (“zu ere beti tugale”).

tuka (*ttuka, ttuke*) ‘tua botatzen’: *ttuka ai de* (“tuka ari da”); *gizon oi beti ttuke* (“gizon hori beti tuka”).

tuku-tuku ‘urratsez urrats’: *zu beti ttuku-ttuku baña lasterkari ona* (“zu beti tuku-tuku baina lasterkari ona”). [Erranahirua] *baztandarra tuku-tuku, gasna erre yale, sure gan ta batre gabe* (Anizen: ... *autsera gan ta...*)

tun-tun ‘musika’: *gaur ere aitzen da ederki Erratzuko plazako tuntune* (“gaur ere aditzen da ederki Erratzuko plazako tun-tuna”).

tuntur ik. **tontor**

tunturtu ik. **tontortu**

tu-palarda (*ttu-palarda*) ‘karkaxa; arnasbideetan sortzen de muki antzekoa, ahotik botatzen dena’: *ttu palarda botaizu, nardagarrie zara* (“ttu-palarda bota duzu, nardagarria zara”).

tupin ‘tapia; tinkoa’: *gure landako lurre tupin-tupine dago. Arras tupine* (“gure landako lurra tupin-tupina dago. Arras tupina”).

tupina (*tupine, tupiñe*) ‘metalezko ontzia’: *tupine ederra dute gure amatxin etxean* (“tupina ederra dute gure amatxiren etxean”).

tupine ik. **tupina**

tupiñe ik. **tupina**

tutu 1 ‘turutaren antzeko musika-tresna’: *yozak tutue* (“jo ezak tutua”); *tutu ederra*. 2 hodi klase bat: *orrek bazuen olako tutu lodi bet, ta tutu artaik atratzen tzen ure* (“horrek bazuen holako tutu lodi bat, eta tutu hartatik ateratzen zen ura”)

tutulu (eta *ttuttulu*) ‘mototsa’: *neskatiko orrek tutulu polite du*

- (“neskatiko horrek tutulu polita du”).
- txalma** (*xalma*) ‘basta mota; zareak eramateko asto edo behor gainean paratzen den egitura arina’: *zaldi orrek xalma berrie bear du* (“zaldi horrek txalma berria behar du”); *zaldi orrek xalma ederra du. Xalma ona* (“zaldi horrek txalma ederra du. Txalma ona”).
- txalmatu** (Izeta) ‘beregianatu; jabetza hartu’: *au nerea da, nik txalmatut* (“hau nirea da, nik txalmatu dut”).
- txalmo** ‘beregianatzea; jabetza’: *“xalmo neretako”* (“txalmo niretako”).
- txanga** ‘erroa’: *Aztaberriko atia, a la mierda!, txangatik atra zuen* (“Aztaberriko atea, a la mierda!, txangatik atera zuen”).
- txanxigor** ik. **gantxigor**
- txapel** (*xapel, zapel*) *xapel ederraizu* (“txapel ederra duzu”); *xapela beaut* (“txapela behar dut”); *iruzkiendako zapel ederra. Zapel gorrie* (“eguzkiarendako txapel ederra. Txapel gorria”). [Errana-hiruak]: *buruik eztuenak, zapel bearrik ez. Gartzain, zapela bete gartzain*.
- txapin** (*xapin, zapino*) ‘orkatiletaraino ailegatzen den ilezko galtzerdia’: *neguen xapinekin ibiltzen naiz* (“neguan txapinekin ibiltzen naiz”); *xapine maiteut* (“txapina maite dut”); *gure artzañek zapino ederrak itentu* (“gure artzainak txapin ederrak egiten ditu”).
- txarrantxa 1** (*xarrantxa*) ‘mandoei kokots inguruan paratzen zaien uhalaren burdina’: *xarrantxa ederra dauke gure abreak* (“txarrantxa ederra dauka gure abreak”).
- txarrantxa 2** ‘behiak garbitzeko burdinazko eskubila’: *beiek txarrantxakin garbitzentugu* (“behiak txarrantxarekin garbitzen ditugu”); *gure etxean txarrantxa ona dugu*.
- txartxaka** ‘euri-erauntsi txikia’: (Arizkun) *uri txartxaka bat in du* (“euri-txartxaka bat egin du”).
- txertatu** (*xertatu*) 1 ‘txertoa paratu’ *ardiek xertatu tugu* (“ardiak xertatu ditugu”) 2 ‘landare baten enborrean beste landare baten adarra itsatsi’
- txerto** (*xerto*) 1 ‘pertsoneko edo animalia bati gorputzean sartzen zaion mikrobio ahuldua, dagokion ernamuinaren kontrako kutsagaiztasuna ematen diona’: *gure umeari gaur patu diote xertoa* (“gure umeari gaur paratu diote txertoa”). 2 ‘landare batean txertatzen den bertze landare baten adartxoa’: *sagarrondoai xerto ona man diogu* (“sagarrondoari txerto ona eman diogu”).
- txiki** ik. **atxiki**
- txilibitari** (*xulubiteri*) ‘txilibiteroa’
- txilibitero** (*txulubitero, xulubitero, zulubitero*) ‘txilibitaria’: *txulubitero ona da* (“txilibitero ona da”); *gure errien xulubiteri ona dago* (“gure herrian txilibitero”).

ona dugu”); *emen gure xulubite-roa* (“hemen gure txilibite-roa”).

txilibitu (*txulubite, xulubite, zulubite*) *auzoko mutiko orrek txulubite jotzen du* (“auzoko mutiko horrek txilibitua jotzen du”); *xulubite berrie erosi dugu. Xulubite ona* (“txilibitu berria erosi dugu. Txilibitu ona”).

txinel ‘pilarearen eta petralaren artean sartzen den zurezko pieza’: *txinela*.

txinge ik. **xinga**

txinger (Izeta) ik. **xingar**

txinger gizen ik. **xingar gizen**

txinger in̄er ik. **xingar inar**

txingerrazpi (Izeta) ik. **xingarrazpi**

txingerrurin (Izeta) ik. **xingarrurin**

txinger-xafla ik. **xingar zafla**

txinger-zafla ik. **xingar zafla**

txingil ik. **xingili**

txingilke ik. **xingilika**

txinguri ik. **ingude**

txiñurri ik. **xinaurri**

txiñurri-belar ik. **xinaurri-belar**

txiñurri-mukuru ik. **xinaurri-mukuru**

txipa (*txipe*) ‘ezkailua; zarboaren familiako arraintxoa’ (*Phoxinus phoxinus*): *lenago Baztango ugeldean baziren txipe aunitz. Txipek pileka. Orai ez dire ageri* (“lehenago Baztango ugaldean baziren txipa aunitz. Txipak pilaka. Orain ez dira ageri”).

txipatu (*txipetu, tzipetu, zipetu*) ‘blaitu, busti’: *urie ai zuen yautsala ta txipetu ginen* (“euria ari zuen jaitsi ahala eta txipatu ginen”); *busti-busti inik txipetu ginen* (“busti-busti eginik txipatu ginen”); *urie zurruteka ta zipetu ginen* (“euria zurrutaka eta txipatu ginen”).

txipe ik. **txipa**

txipetu ik. **txipatu**

txirrika (*zirrika, zirrike*) ‘gurpila’: *orgain zirrike autsie dago. Zirrike zarra* (“orgaren txirrika hautsia dago. Txirrika zaharra”).

txirriketan (*zirriketan*) ‘gurpiletan’: *gainbera zirriketan ganzen* (“gainbehera txirriketan joan zen”); *orga orrek zirriketan du makurre* (“orga horrek txirriketan du makurra”).

txirrinta (*txirrinte*) ‘irrika; gutizia’: *baut txistorra yateko txirrinte* (“badut txistorra jateko txirrinta”).

txirrinte ik. **txirrinta**

txistor (*xixtor, ziztor*) ‘lukainka baino meheagoa den hertzebatea’: *emengo txistorrak badu erreliste* (“hemengo txistorrak badu arrakasta”); *xixtorra ta arroltzea yanari ona* (“txistorra eta arrautza janari ona”); *gure etxean beti xixtor ona* (“gure etxean beti txistor ona”); *ziztorrak nai du polliki idortu ertzetan sartzeko* (“txistorrak nahi du poliki idortu, hertzeetan sartzeko”).

txistu (*xixtu, xuxtu, ziztu, zuztu*) ‘ezpainetan irekidura mehar bat

eratuz eta airea jaurtikiaz ateratzen den soinu zolia': *xixtu ta xuxtu* ("txistu eta txistu"); [Baztango erranahirua] "*maipetik xixtu*".

txistuka (*xixtuke, xuxtuke, ziztuke, zuztuke*) 'txistu eginez': *au beti xixtuke* ("hau beti txistuka"); *zuztuke ai de* ("txistuka ari da").

txita (*txite, txito, xito, zito*) 'oilokume jaio berria': *txitoak pileka* ("txitak pilaka"); *amabi txite il zaizku* ("hamabi txita hil zaizkigu"); *etxean batugu ainbertze zito* ("etxean baditugu hainbertze txita").

txite ik. **txita**

txito ik. **txita**

txitxi (adkor.) '(haurrekin hitz egitean) haragia; janariaren barneko aldea': *nai'zu txitxi?* ("nahi duzu txitxi?").

txoko ik. **zoko**

txokota (eta *xokota*) 'landareen fruituei eusten diena; mutxikina; fruituaren bihotza': *sagarra yan ta txokota bota* ("sagarra jan eta txokota bota"); *txokota ez yan; sagarrain xokota ere yateut* ("sagarraren txokota ere jaten dut"); *xokota bota* ("txokota bota").

txokoto 'txoko txikia': *Elizondoko karrike bati Txokoto deitzen diote* ("Elizondoko karrika bati Txokoto deitzen diote"); *ni Txokoton bizi naiz*. (Izetak ematen du azalpen hau: hala ere, karrika horren izenaz gain, guk ez dugu inon ere bildu).

txopin (eta *xopin*) 'zotina': *gure neskatikoai etzaio xopine gaten* ("gure neskatikoari ez zaio txopina joaten"); *xopine txarra da* ("txopina txarra da").

txopinka (*txopinke*) 'zotinka'

txopinke ik. **txopinka**

txori-negar (*xoriminger, xoriniger*) 'gereziondoek (batez ere zaharrek) jariatzen duten erretxina; txorieztia': (Baztangoiza, Erberrea) *xorinigerra ez da yan bear* ("txori-negarra ez da jan behar"); (Basaburua) *xorimigerra ona da atxikitzeke edo kolatzeko* ("txori-negarra ona da atxikitzeke edo kolatzeko").

txulubite ik. **txilibitu**

txulubitero ik. **txilibitero**

txungur (eta *xungur*) 'urdaiazpikoaren hezurra': *txungur ederra dugu gure etxean. Banabarra txungurrekin egosie zein ona den* ("banabarra txungurrarekin egosia zein ona den!"); *xungurre* ("txungurra").

txunguri ik. **ingude**

tzar 'gaiztoa': *gizon oi tzarra da, arront tzarra* ("gizon hori tzarra da, arrunt tzarra").

tzarkeri ik. **tzarkeria**

tzarkeria (*tzarkeri*) 'maltzurkeria': *ze tzarkerie in dakuten* ("zer tzarkeria egin diguten"); *tzarkeri aundiek in tuzte* ("tzarkeria handiak egin dituzte").

tzipetu ik. **txipatu**

U

uatz (Etxenike) ik. *ugatz*

ubel ik. *uhal*

ubeldura (*ubeldure*) ‘ubela’: *anbateko ubeldureizu. Gorputze ubeldurez betea* (“hainbateko ubeldura duzu. Gorputza ubeldurez betea”).

ubeldure ik. *ubeldura*

uber ik. *uher*

uberka ik. *uharka*

uberro ik. *uhar*

ubertu ik. *uhertu*

udare (*udere*) ‘madaria’

udaro (Azkue) ‘uztarendako giro egokia’: *udaro ona dugu.*

udere ik. *udare*

uedera ‘igaraba’

ufestu ik. *upastu*

ufetxeria (*ufetxerie*) ‘beheitikoa (animaliena)’: *urdamai lotu zaio ufetxerie. Ufetxerie txarra da* (“urdamari lotu zaio ufetxeria. Ufetxeria txarra da”).

ufetxerie ik. *ufetxeria*

ufrella (Baztan) ik. *afruil*

ugalde (*ugelde*) ‘ibaia’: *Baztan ugeldian arrain onak* (“Baztan ugaldian arrain onak”); *ugeldia berrotu de* (“ugaldea berretu da”).

ugatz (*uatz*) (Etxenike) *zurgin pobre bat autatu zuen uatz Aitatako.*

ugazaita (*gazaite, gatzaita*) (Izeta) ‘aitabitxia’ (Baztanen gehienek *aitetxi* deitzen diote *gazaite* edo *gatzaita* delakoari): *Patxiko nere gazaite da* (“Patxiko nire ugazaita da”).

ugazama (*guazama, goazama*) ‘amordea’: *guazama onaut* (“ugazama ona dut”); *goazama eztut maite* (“ugazama ez dut maite”).

ugelde ik. *ugalde*

uhal (*ubel*) ‘xingola mehea’: *erleju unek ubel berrie bear du* (“erloju honek uhal berria behar du”); *ubela ondatue dago* (“uhala hondatua dago”); *gerrontzeko ubela* (“gerrontzeko uhala”).

uhar (*uberro*) ‘uholde ura; baserreka zikina’: *uberroak kalte aundiek intu* (“uharrak kalte handiak egin ditu”).

uharka (*uberka*) ‘erreka ttipia, ura geldia airea duena’ *gantzazu au uberka* (“joan ezazu hau uherkara”); *uberka ortan negalak kantari* (“uharka horretan igelak kantari”).

uher (*uber*) ‘garbia ez dena’: [Erranairua] *zureak eder ta bertzenak uber*.

uhertu (*ubertu*) ‘zikindu; gardentasuna galdu’: *errekak ubertu dire. Aunitz ubertu dire* (“errekak uhertu dira. Aunitz uhertu dira”).

uiatzale ik. *huiatzaile*

ukabil (*ukumil*) ‘esku itxia’: *ukumile aundie ta eskumutur mea* (“ukabil handia eta eskumutur mehea”).

ukain ‘besaurrea’: *ukañe sendoa gure mutikoak* (“ukaina sendoa gure mutikoak”).

ukaldi ‘kolpea; zartada’: *ukaldi aundie man zioten. Ukaldi indartsue*

(“ukaldi handia eman zioten. Ukaldi indartsua”).

ukaldika (*ukaldike*) ‘kolpeka’: *ukaldike ibili ziren. Ukaldike, bai* (“ukaldika ibili ziren. Ukaldika, bai”).

ukaldike ik. **ukaldika**

ukatu (*uketu*) ‘ezetz erran’

uketu ik. **ukatu**

ukika (*ukike*) ‘ukituz’: *ukike-ukike azkenian yakin zuen nor zen* (“ukika-ukika, azkenean jakin zuen nor zen”).

ukike ik. **ukika**

ukitu 1 *ukitu baizik ez nion in* (“ukitu baizik ez nion egin”); *ukitu gabe*.

ukitu 2 ik. **okitu**

ukitze ‘ukimena’: *itsu orrek ukitze bat aski du gauzek zautzeko* (“itsu horrek ukitze bat aski du gauzak ezagutzeko”).

ukondo ‘besoaren eta besagainaren arteko giltzadura’: *ukondoa urbil ta musuik ezin man* (“ukondoa hurbil eta musurik ezin eman”); *ukondoan min artu* (“ukondoan min hartu”); *ukondo aundie* (“ukondo handia”).

ukumil ik. **ukabil**

uli ik. **euli**

ulibeltz ik. **eulibeltz**

ulimitx (Azkue) ik. **eulimitx**

ulitxa (*ulitxe*) ‘eltxo’: *zoko ortan ulitxe aunitz* (“zoko horretan ulitxa aunitz”).

ulitxe ik. *ulitxa*

umegi (*umei*) ‘ematutua; bagina’: *umeie atra zaio erditzian* (“ume-gia atera zaio erditzean”).

umegile (*umeile*) ‘umeak erraz egi-ten dituen; umekoa; umeko-rra’: *urdema umeile au eztugu salduko* (“urdama umegile hau ez dugu salduko”).

umei ik. **umegi**

umeile ik. **umegile**

umekoi ‘ume aunitz egiten duen mea; umekorra’: *urdema au umekoi ta arraza onekoa* (“urda-ma hau umekoi eta arraza one-koa”).

umekor ‘ume aunitz egiten duen mea; umekoa’

umerri 1 (Izetak ematen duena azal-pena) ‘bildots hila’ (bildotsari hil eta apaindu ondoren ematen zaion izena da): *aurten umerrie merke* (“aurten umerria merke”). 2 (guk bildu dugun azalpena) ‘animaliaren umea’ *zaldi orrek umeri onak itu* (“zaldi horrek umeri onak ditu”).

umesail ‘ondorengoa’: *famili orrek umesail aundie* (“familia horrek umesail handia”).

umetu 1 ‘mea umedun gertatu’: *ardi guziek umetu zaizku* (“ardi guztiak umetu zaizkigu”); *denak umetu*.

umetu 2 ik. **umotu**

umoi ‘umetokia; umontzia’: *beiei erditzean umoie atra zaio*. *Umoie atra* (“behiari erditzean umoia atera zaio. Umoia atera”).

umotu 1 (eta *umetu*) ‘fruituez mintza-tuz, heldu, ondu’: *sagarrak umetu dire* (“sagarrak umatu dira”). 2 ‘ondua’: *udare guziek umotuek* (“udare guztiak umatuak”).

unai (*unei*) ‘azienda zaintzen due-na’: *Belateko uneie nere osaba da*. *Unai ona* (“Belateko unaia nire osaba da. Unai ona”); *Erdizko uneiek lan aundie iten du* (“Erdizko unaiak lan handia egi-ten du”).

unaigo (Izeta) ‘unaiaren lana’: *nere osaba unaigoan ai de*. *Unaigoan Belaten* (“nire osaba unaigoan ari da. Unaigoan Belaten”).

unat ik. **honat**

unenbertze ik. **honenbertze**

unei (Izeta) ik. **unai**

uneraño ik. **honaino**

uneratu ik. **honeratu**

unet ik. **honat**

unexagotto ik. **honaxeagotto**

unide *gure lengusue unideakin azi zuten*. *Unide azkarra* (“gure le-hengusua unidearekin hazi zu-ten. unide azkarra”).

unteko ik. **honetako**

unten ik. **honetan**

untzi ik. **ontzi**

untzitu ik. **ontzitu**

upastu (*ufestu*) ‘urrina; likitsa’: *yende ufestue bazter oketan* (“jende upastua bazter hauetan”); *aratrixia ufestue dago* (“aratxea upastua dago”).

upen (Aniz) ‘igo; jaso; igan’: *zenbat aldiz upen zara Legatera? Arri aundie upen dut* (“zenbat aldiz upen zara Legatera? Harri handia upen dut”). Baztanen, bereziki Anizen, upen aunitz ibiltzen da.

uralde uraldia edan dut (= ‘aunitz ur edan dut’).

urarangel (Azkue) ‘ur-igotzea’: *urarangel unek izutzen nau* (“urarangel honek izutzen nau”).

urbil ik. **hurbil**

urbildu ik. **hurbildu**

urdama ‘zerrama’

urdamondoa ‘zerrama’: *urdamondo gaitze zen Ormartekoa*.

urdandegi (*urdandei*) (meta batzuen azpiko parteari deitzen zaie, garai batean han zerriak egoten zirelako, hain segur ere)

urdandei ik. **urdandegi**

urde ‘batez ere harridura esaldietan ibilia, *arraio*-ren baliokidea’: *urde zerriel!*; *urde aiutel!*; *urde zikin!*; *urde ustela!*; *urde eroa!*; *urde mozkorra!*; *urde atrebituel!*; *urde ergela!*; *urde astoa!*; *urde kaikue!*; *urde tresna!*; *urde musikuzue!*; *urde zorrizue!*; *urde zoldazue!*; *urde kakazue!* (“urde zerria!”; “urde zikina!”; “urde ustela!”; “urde eroa!”; “urde mozkorra!”; “urde atrebitua!”; “urde ergela!”; “urde astoa!”; “urde kaikua!”; “urde tresna!”; “urde musikua!”; “urde zorrizua!”; “urde zoldazua!”; “urde kakazua!”).

urdekeri ik. **urdekeria**

urdekeria (*urdekeri*) ‘zikinkeria; zerrikeria’: *urdekerie in dakute. Ure urdekerie! ango urdekerie!* (“urdekeria egin digute. Hura urdekeria! hango urdekeria!”).

urdemutur ‘baratzetan hazten den landare gaiztoa’: *gure baratzean urdemutur landare orrek kalte aundie iten du* (“gure baratzean urdemutur landare horrek kalte handia egiten du”).

urdendegi (*urdandei*) ‘zerriak egoten diren tokia’: [erranahirua] *apirile biribile, zerrie urdendean otzak ile, zerrizaña zokoan, arto puske kolkoan*. (Erranahiru honek aldaera bat baino gehiago badu).

urdandei ik. **urdendegi**

urdetu ‘zikindu’: *nere etxe polite urdetute* (“nire etxe polita urdetu dute”); *ai dire gazte ergel oiek paretak urdetzen* (“ari dira gazte ergel horiek paretak urdetzen”).

urdezta (Ultzama) ‘ezkurrean sartzen diren zerriak neurtzeko, bazkasaria kobratzeko erabilitako unitatea’: *urdama bat, urdezta bat; bizpairu bargo, urdezta bat; bortz xerrikume, urdezta bat* (“urdama bat, urdezta bat; bizpahiru bargo, urdezta bat; bortz txerrikume, urdezta bat”).

urdeztatu (Ultzama) ‘ezkurrean sartzen diren zerriak taxutu bazkasaria kobratzeko’: *urdeztatu beti egiten zen ezurrei begiratuz* (“urdeztatu beti egiten zen hezurrei begiratuz”).

urdiru 1 ‘urdiru kolorea hartu’: *ubel au urdiru de* (“uhal hau urdiru da”). 2 ‘lizundu’: *baratxuriek ere*

- urdinduektugu. Urdindu dire* (“baratxuriak ere urdinuak ditugu. Urdindu dira”).
- urgana** ‘ur-lasterra’: *urganak eztu pozoñik yasaten* (“urganak ez du pozoirik jasaten”).
- uri-erauntsi** ik. **huri-erauntsi**
- urikara** ik. **eurikara**
- uri-lankar** ik. **huri-langar**
- urin** ‘koipea’: *urin sobera du. Zerri-urinekin prexitu* (“zerri-urinarekin frijitu”).
- urindatu** (*urindetu*) ‘urinarekin gantzutu; urineztatu’: *urindetu bear dugu orgain zirrike* (“urindatu behar dugu orgaren txirrika”).
- urindetu** ik. **urindatu**
- urineztatu** ‘urinarekin gantzutu; urindatu’: *urineztatu ongi zapata oien larrue* (“urineztatu ongi zapata horien larrua”).
- urixki** ik. **eurixki**
- ur-jauzi** (*ur-yauzi*) ‘zurrutza; turrusta’: *mendi tarte ortan ur-yauzie dugu* (“mendi tarte horretan ur-jauzia dugu”).
- urkamotx** (*urkemotx, urkimotx*) ‘donberoaren (orga mota) haga, aziendari lotzen zaiona, laburra dena’.
- urkemotx** ik. **urkamotx**
- urketa** 1 *urketa gorra edan dut* (= ‘aunitz ur edan dut’).
- urketa** 2 *urketara igorri dugu*.
- urkila** (*urkile*) ‘arbolaren adarrak hasten diren lekua’: *gereziondo orrek urkile goitisko du* (“gereziondo horrek urkila goitixko du”).
- urkile** ik. **urkila**
- urkimotx** ik. **urkamotx**
- urkoi** (Gorosurreta) ‘oin-itxurako pieza’
- ur-lindirge** ik. **ur-lirdinga**
- ur-lirdinga** (*ur-lindirge*) ‘ur zingiratsua’: *ez edan ur-lindirge ortatik* (“ez edan ur-lirdinga horretatik”).
- urpez** ‘ur azpitik’: *urpez gan nitzen urrun. Urpez arrañe bezala* (“urpez joan nintzen urrun. Urpez arraina bezala”).
- urrats** ‘pausoa’: *urrats bat aitzinet, urrats bat gibelat* (“urrats bat aitzina, urrats bat gibela”); *orrek urratsak zauliektu* (“horrek urratsak zaluak ditu”); *urrats onak*.
- urratu** (*urretu*) 1 ‘desegin’: *gure ardi-borda urretu dugu* (“gure ardi-borda urratu dugu”). 2 ‘hautsi’: *espartinek urretu zaizkit* (“espartinak urratu zaizkit”). 3 *irriz urretue dago* (“irriz urratua dago”).
- urren** ik. **hurran**
- urrenaldi** ik. **hurranaldi**
- urretu** ik. **urratu**
- urreztatu** ‘zerbait urrez estali’: *ortza urreztatue* (“hortza urreztatua”); *elizeko aldarea ongi urreztatue dago* (“elizako aldarea ongi urreztatua dago”).
- urriaro** (eta *urriero*) ‘urri aroa; larrazkena; udazkena’: *urriaro*

- ederra* (“urriaro ederra”); *urriero ona dugu* (“urriaro ona dugu”).
- urriero** ik. **urriaro**
- urrikaldu** ‘errukitu; damutu’: *nitez urrikaldu zaizte* (“nitaz urrikaldu zaitezte”).
- urrikalgarri** ‘errukigarria; damugarria’: *eri dago gure laune, urrikalgarri* (“eri dago gure laguna, urrikalgarri”); *urrikal Yauna* (“urrikal Jauna”).
- urriki** ‘errukia; damua’: *urrikie* (“errukia”).
- urrikimendu** ‘urrikia; errukia; damua’: *gaizki in dut ta baut urrikimendu* (“gaizki egin dut eta badut urrikimendu”).
- urrikitu** 1 ‘errukitu; damutu’: *urrikitu zitzeiten bai* (“urrikitu zitzaidan bai”). 2 ‘errukitua; damutua’: *denak urrikituek* (“denak urrikituak”).
- urrin** ‘usain txarra’: *urrin txarra emen. Au urrine!* (“urrin txarra hemen. Hau urrina!”).
- urrindatu** (urrindetu) ‘lurrindu’: *belar onakin, zoko guziek urrindetu. Urrindetu ongi* (“belar onarekin, zoko guztiak urrindatu. Urrindatu ongi”).
- urrindetu** ik. **urrindatu**
- urritza** ik. **hurritza**
- urritze** ik. **hurritza**
- urrixa** (*urru.xe*) ‘behi gaztea’
- urrondo** ik. **hurrondo**
- urrun** [erranahiruak] *urruneko eltzea urrez, bere artara gan ta lurrez. Urruneko berriek urrez, bere har-*
- tara gan ta lurrez. Elize urbil, al-darea urrun.*
- urrunarazi** (*urrunazi*) *urrunazi gizon oi emendik* (“urrunarazi gizon hori hemendik”).
- urrunazi** ik. **urrunarazi**
- urrundik** ‘urrun dagoen tokitik’
- urrundu** ‘urrutiratu’: *urrundu zaiku gure laune* (“urrundu zaigu gure laguna”); *urrundu dire* (“urrundu dira”).
- urrunsko** ik. **urrunxko**
- urrunxko** (eta *urrunsko*) ‘urrutitxo’: *urrunxko neretako* (“urrunxko niretako”).
- urrupe** ik. **hurrupe**
- urrupeka** ik. **hurrupeka**
- urruxe** ik. **urrixa**
- urtats** (*urtets, urtetx*) ‘gabon-saria’: *Urteberri egunean urtetsak eskatzen-tugu. Urtets! Urtets!* (“Urteberri egunean urtatsak eskatzen ditugu. Urtats! Urtats!”). Baztangoizean *Urtetx!*
- Urteberri** ‘urtarrilaren bata’
- urtedi** ik. **uztai**
- urtemurriz** ‘urte laburra’: *nola gan den urtea, urtemurriz in zaiku* (“nola joan den urtea, urtemurriz egin zaigu”).
- urtets** ik. **urtats**
- urtetx** ik. **urtats**
- Urtexaar** ik. **Urtezahar**
- Urtezagar** ik. **Urtezahar**
- Urtezahar** (*Urtezagar, Urtexaar*) ‘Gabon zaharra; abenduaren 31’: *Urtezagar egunean besta ederra*

- in ginuen* (“Urtezahar egunean besta ederra egin genuen”); *Urtexaarean afarie dugu* (“Urtezaharrean afaria dugu”).
- urtu** ‘desegin; ur bihurtu’: *ai du urtzen elurre* (“ari du urtzen elurra”).
- urtxil** ik. **urtxulo**
- urtxintxa** (*urtxintxe*) ‘katagorria’ (*Sciurus*): (Baztangoiza, Elizondo) *Bertizko oianean urtxintxe aunitz* (“Bertizko oihanean urtxintxa aunitz”).
- urtxintxe** ik. **urtxintxa**
- urtxulo** (*urtxil, ortxil*) ‘sardea’: (Elizondo, Baztangoiza) *urtxil orrekin inen dugu lan au* (“urtxulo horrekin eginen dugu lan hau”); *urtxile, zoko ortan utziut* (“urtxuloa, zoko horretan utzi dut”); (Bababurua) *ortxille* (“urtxulo”).
- ur-yauzi** ik. **ur-jauzi**
- ur-zilo** ‘leizea’: *gure baratzean badugu ur-zilo ederra* (“gure baratzean badugu ur-zilo ederra”).
- ur-zorri** 1 ‘ur-zorria; uretan bizi den zorri-mota’: *ez edan putzu ortatik, ur-zorritz betia dago* (“ez edan putzu horretatik, ur-zorritz betea dago”). 2 ‘ur-zorria; zorritz betetako ura’: ur-zorri, ur txarra.
- usaia** (*useia*) ‘ohitura’: *etzuen useiyik kontrabandoko* (“ez zuen usaiarik kontrabandoko” = ‘kontrabandoan ibiltzeko’)
- usain** (*usein*) *usein onaizu* (“usain ona duzu”); *or bada kaka useña* (“hor bada kaka usaina”).
- usainka** (*usainke, useinke*) *ze ai zara useinke zakurrek bezala?* (“zer ari zara usainka zakurrek bezala?”).
- usainke** ik. **usainka**
- usatu** (*usetu*) ‘ohitu’: *gan ta biala usetu zen* (“joan eta berehala usatu zen”).
- usein** ik. **usain**
- useinke** ik. **usainka**
- usetu** ik. **usatu**
- usmetu** ik. **usnatu**
- usmo** ik. **usna**
- usmoka** ik. **usnaka**
- usna** (*usmo*) ‘usaimena’: *gure beorrak usmo ona du. Orren usmoa...* (“gure behorrak usna ona du. Horren usna...”).
- usnaka** (*usmoka*) *bei oiek beti usmoka, beorra ere usmoka. Oiek ere usmetzeute* (“behi horiek beti usnaka, behorra ere usnaka. Horiek ere usnatzen dute”).
- usnatu** (*usmetu*) ‘usaindu’: *usmetu nuen or zerbait bazela* (“usnatu nuen hor zerbait bazela”).
- ustei** ik. **uztai**
- usteketan** ‘ustekabea’: *usteketan gan zaiku urtea. Usteketan gan da* (“usteketan joan zaigu urtea. Usteketan joan da”).
- ustezko** ‘handinahia’: *bere uestezkoa da, arrua arras!* (“bere uestezkoa da, harroa arras”).
- usu** ‘asko; askotan; trinkoa’: *arbiak usu landa ortan; usu, bakandu bear* (“arbiak usu landa horretan, usu, bakandu behar”).

usuala (Azkue) ‘kalitate txarreko pattarra’: *usuala ez tut maite* (“usuala ez dut maite”).

usuegi ‘soberan; modu trinkoan’: *arbie usuegi sortu de* (“arbia usuegi sortu da”).

huts ik. **huts**

utsitze ‘buru karratuko itzea’: *utsitze itze ona da*

utzi 1 ‘nolabait loturik gauden edo dagokigun norbait edo zerbaitengandik bereizi’. 2 (hedaduraz) **arropak utzi** ‘sekularizatu; apez izateari utzi’

uxin ik. **isun**

uzkaldu 1 (*uzketu*) ‘amildu, irauli’

uzkaldu 2 (*uzkeldu*) (Izeta) ‘abereak lau hankatetik lotu; estekatu’: *bildotsak uzkeldutut. Ongi uzkelduak laxatu ez daitezin* (“bildotsak uzkaldu ditut. Ongi uzkalduak laxa ez daitezin”).

uzkeldu ik. **uzkaldu** 2

uzketu ik. **uzkaldu** 1

uzkur ‘ixila; berekoa’: *gure mutikoa beti uzkur.*

uzkurtu 1 ‘adorea galdu’: *eriotzain oroitzapenak uzkurtzen du bekatarie* (“heriotzaren oroitzapenak uzkurtzen du bekataria”). 2 ‘adorea galdua’: *emen denak uzkurtuek* (“hemen denak uzkurduak”).

uzta (*uzte*) ‘uztaila’: *aurtengo uzte aski txarra izen da. Uzte txarra ta belarrak ezin idortuz* (“aurten-

go uzta aski txarra izan da. Uzta txarra da eta belarrak ezin idortuz”).

uztai (*ustei*) 1 ‘behien lepotik joarea zintzilik jartzeko zurezko lepokoak’ (batzuetan apaingarriz hornituak izaten dira)

uztai (*ustei*) 2 ‘karroen txirriketako lohi-babesgarria’

uztai 3 (*uztedi, urtedi*) ‘orga edo gurdia lardaia sartzen den laruzko pieza biribila’: *sartu bear dugu lardaie uztedien* (“sartu behar dugu lardaia uztaian”); (Arizkun) *urtedie* (“uztaia”).

uztarri (*uzterri*) ‘bi behi edo bi idiren buruak, kopetan, elkarrekin lotzeko zurezko tresna, orgari tira egiteko balio duena’

uztarrian lotu (*uzterrien lotu*) (ez da erraten **uztertu*)

uztarrigaineko (*uzterrigaïeko*) ‘uztarri gainean paratzen dena’: *ardilarru ederra uzterri gaïean patzeko* (“ardilarru ederra uztarri gainean paratzeko”); *uzterrigaïekoa arras ona dugu* (“uztarri-gaïekoa arras ona dugu”).

uzte ik. **uzta**

uztedi ik. **uztai**

uzterri ik. **uztarri**

uzterrigaïeko ik. **uztarrigaineko**

uztondo ‘ogi edo garia bildu ondoan tokian gelditzen diren landare pizarren multzoa’: *uztondoan arbie erin dugu* (“uztondoan arbia erin dugu”); *uztondo ona.*

X

xaarreri ik. *xaharreri*

xaartu ik. *zahartu*

xabal (adkor.) ‘zabala’

xabartu (adkor.) ‘zabartu’

xaboi (*xabon*, *xaon*) *eskuek ongi garbitu xabonakin* (“eskuak ongi garbitu xaboiarekin”); *xabona ona da ta atratzen du aparra* (“xaboia ona da eta ateratzen du aparra”).

xabonada ‘arropa garbiketa’

xabonada egin ‘arropa garbiketa egitea’: *egunero gustetzen zait xaonada itia* (“egunero gustetzen zait xabonada egitea”=‘arropen garbialdia egitea’).

xabona ik. *xaboi*

xafla (eta *zafla*) ‘puska; xerra’: *aragi zafla ederra* (“haragi zafla ederra”); *kusi burdin xafla oi*, *ze*

aundie den (“ikusi burdina xafla hori, zer handia den”).

xaflan ‘kantoia’: *xaflana ongi ine* (“xaflana ongi egina”).

xaflandu ‘xaflak egin’: *mai au xaflandu bear dugu* (“mahai hau xaflandu behar dugu”).

xagar ik. *xahar*

xagarreri ik. *xaharrera*

xagartu ik. *zahartu*

xahar (adkor.) (*xagar*, *xaar*, *xar*) ‘zaharra’

xaharrera (adkor.) (*xaarreri*, *xagarreri*, *xarreri*) ‘zaharrera’

xahartu (adkor.) (*xaartu*, *xagartu*, *xartu*) ‘zahartu’

xakar ik. *zarakar*

xakur (adkor.) ‘zakurra’

xalma ik. *txalma*

- xalo** ‘maitagarria; atsegina’: *neska xaloa ta yostakine. Xaloa bai* (“neska xaloa eta jostakina. Xaloa bai”).
- xalupa** (*xalupe*) ‘zapaburu’: *erreka bazter unten xalupe aunitz* (“erreka bazter honetan xalupa aunitz”).
- xalupe* ik. **xalupa**
- xamur** (adkor.) ik. ‘samurra’
- xanfarin** (*zanfarin*) 1 ‘jatekoa, ardiaren barneko puskak (hertzeak...) egosiz prestatzen dena’ (*zanfarin* bezala ere ahoskatzen da, nahiz gutiagotan. Batzuetan artikulu gabe ere ibiltzen da) 2 ‘tolesgabea, inozoa’ *ai, xanfarin!*
- xangilixka** (*xangilixke*) ‘hanka batean’: *in dugu lasterketa bat xangilixke* (“egin dugu lasterketa bat xangilixka”).
- xangilixke* ik. **xangilixka**
- xango** (adkor.) ‘zangoa’: *xerri xangoak maitetut* (“xerri-xangoak maite ditut”).
- xangrindu** ‘atsekabetua; penatua’: *arrant xangrindue dago. Xangrindue, aserre* (“arrant xangrindua dago. Xangrindua, haserre”).
- xaon* ik. **xaboi**
- xapel* ik. **txapel**
- xapin* ik. **txapin**
- xar* ik. **xahar**
- xaraka* ik. **zaraka**
- xarbo** (adkor.) “zarboa”
- xarmanki** ‘ongi; ederki; modu politetan’
- xarmant** ‘ederra; polita’
- xaro** ‘ogia edo garia jotzeko trailuaren giderra’: *xaroa autsi zaiku, xaro berrie bear dugu* (“xaroa hautsi zaigu, xaro berria behar dugu”).
- xarpa** ‘ardiak umedun ez gelditzeko araldian paratzen den oihaltxoa’: *sasoian unten gure ardiek beti xarpa gibekeko aldean, ernari gelditu ez daitzin* (“sasoi honetan gure ardiak beti xarpa gibekeko aldean, ernari geldi ez daitezten”).
- xarpatu** ‘ardiei araldian umedun ez gelditzeko oihaltxoa paratu’: *xarpatutugu ardi guziek. Ongi xarpatuek* (“xarpatu ditugu ardi guztiak. Ongi xarpatuak”).
- xarrantxa* ik. **txarrantxa**
- xarreri* ik. **xaharreri**
- xartaxa** (eta *xartexa*) ‘landareen herdoila’: *banabarrak xartexa ta baratze guzie xartexak ondatue* (“banabarrak xartaxa eta baratze guztia xartaxak hondatua”).
- xartexa* ik. **xartaxa**
- xartu* ik. **xahartu**
- xatar** ‘haur-oihala’: *aur orri xatarrak aldatu. Xatar garbiek* (“haur horri xatarrak aldatu. Xatar garbiak”); *au mutil gaztia... xatar urrine kentzekoa!* (“hau mutil gaztea... xatar urrina kentzekoa”).
- xato* ik. **zahato**
- xatu* ik. **xehatu**
- xaungarri** (eta *zaunkarri*) ‘labea garbitzeko isatsa; erratza’: *xaun-*

garriekin garbitzen dugu labea. Xaungarrie emen dago (“xaungarriarekin garbitzen dugu labea. Xaungarria hemen dago”).

xaxatu (axatu) ‘txakurak erasora bultzatu; axekatu’: *zakurre axatu ta mutikoa izitu zen* (“zakurra xaxatu eta mutikoa izutu zen”).

xaxa-xaxa! (axa-axa!)

xaxkito ik. *saskito*

-xe ‘partzipioekin ibiltzen den atzizkia: nahiko, urren, aski, guti goiti-beheiti’: *intxe dago* (“egintxe”); *zurituxe dago; akituxe dago; pintetuxe* (= ‘pintatu hurran’); *bilduxe; zerrie il dugu goizian eta orai pusketuxe dago; maai oi autsixe dago; alkie konponduxe dugu dagoeneko*. Pluralean ere bildu ditugu adibideak: *akituxek tugu belarrak; intxek tugu belarrak; pinteuxek tugu leioak; bilduxek tugu ezpalak; pusketuxek tugu egur oiek; aratze orrek edantxek izein tu esniak* (azken hitza ere pluralez); *belarrak jantxek tuzte; botille geienak edantxek ituzte; belarrak moztuxek itugu...*

xe ik. *xehe*

xeatu ik. *xehatu*

xeetasun ik. *xehetasun*

xehatu (xeatu, xatu) ‘murtxikatu’: *xe-xea in, xeatu* (“xehe-xehea egin, xehatu”); *aragie ongi xatu* (“haragia ongi xehatu”).

xehe (xe) ‘txikia’: *gauze xea duk au* (“gauza xehea duk hau”); *yende xea emen* (“jende xehea hemen”).

xehetasun (xeetasun) *xeetasun guziek agertu* (“xehetasun guziak agertu”); *auzi orren xeetasun guziek ongi agertu tugu* (“auzi horren xehetasun guziak ongi agertu ditugu”).

xeka ‘bila joatea’: *gan nitzen xeka* (“joan nintzen xeka”); *oien xeka gabiltze* (“horien xeka gabiltza”).

xenda ‘xendra’: *an bada bide-xenda bat mendi kaskora gain zaituena biala* (“han bada bide-xenda bat mendi kaskora joanen zaituena berehala”).

xerradatu ‘aitzurtu eta belarrak kendu’: *xerradatu*. Sin. *xerrekatu*

xerrekatu ‘aitzurtu eta belarrak kendu’: *leenik ongi xerrekatu*. *Aitzurrez ongi xerrekatu*. *Aitzurrez ongi xerrekatu* (“lehenik ongi xerrekatu. Aitzurrez ongi xerrekatu”).

xerrenda ‘oihal-zatia’: *oial xerrenda leiotik dilinden* (“oihal-xerrenda leihotik dilindan”).

xerrepel ik. *zerrepel*

xerrepeldu ik. *zerrepeldu*

xerri (adkor.) ‘zerria’

xerri-bazka ik. *zerri-bazka*

xerri-gerezi ‘gereziondo basa’: *mendi zoko ortan xerri-gerezi aunitz* (“mendi zoko horretan xerri-gerezi aunitz”).

xerritxu ‘akuria; arratoi zuria; Indietako untxia’

xertagabe (Gartzain) ‘gaztain mota’

xertatu ik. *txertatu*

xerto ik. *txerto*

- xertogorri ‘gaztain mota’: *badire iru gaztain mota: xertogorrie, ostobeltza ta sanmigelak* (“badira hiru gaztain mota: xertogorria, hostobeltza eta sanmigelak”).
- xetel ‘igeltxo, zapaburua’: *putzu ortan xetelak pileka* (“putzu horretan xetelak pilaka”); *xetela*
- xetrak ikusi ‘gorriak ikusi’: *gau ortan xetrak kusi gintuen* (“gau horretan xetrak ikusi genituen”).
- xetrak kusi* ik. *xetrak ikusi*
- xetume ‘setatia; setatsua’: *au gizon xetume!* (“hau gizon xetume!”); *zein xetume zaren!*
- xexenko (adkor.) ‘zezenkoa’
- xexto* (Izeta) ik. *sesto*
- xextoka* (Izeta) ik. *sestoka*
- xextokari* (Izeta) ik. *sestokari*
- xextolari* (Izeta) ik. *sestolari*
- xigor* ik. *zigor*
- xigortu* ik. *zigortu*
- xikan* (Izeta) ik. *xikana*
- xikana* (*xikan*) ‘amarrua’: *etzazule xikanik in* (“ez ezazula xikanarik egin”); *xikana in daku* (“xikana egin digu”).
- xilik* ik. *isilik*
- xilke* ik. *isilka*
- xilko* (adkor.) ik. ‘zilkoa’
- xilkoertze* (adkor.) ik. *zilko-hertze*
- xilo* (*xilo*) ‘zilo ttipia’: *xilo ederra in dute* (“xulo ederra egin dute”); *xilo ttipie da* (“xulo ttipia da”).
- xilokari* (*xilokeri*) ‘zilotoxak dituen’: *baut giltze xilokerie* (“badut giltza xilokaria”); *yarralki au ere xilokerie* (“jarraulki hau ere xilokaria”).
- ximel* (adkor.) ‘zimela’
- ximiko* (adkor.) ik. ‘zimikoa’
- ximikoberri* (adkor.) ‘zimikoberri’
- ximur* (adkor.) 1 ‘zimurra, zimurdu-ra’: *kopetako ximurrek* (“kopetako ximurrak”). 2 ‘xuhurra; eskulaburra’: *ximur dago gure amatxi* (“ximur dago gure amatxi”).
- ximurkeri* ik. *zimurkeria*
- ximurtesun* ik. *zimurtasun*
- ximurtu* (adkor.) ‘ximurtu’: *gure amatxi ximurtu zaiku. Xaartu ta ximurtu* (“gure amatxi ximurtu zaigu. Xahartu eta ximurtu”).
- xinaurri* (*txiñurri*, *zinaurri*, *xinurri*, *xiñurri*, *zinurri*) ‘inurria’: *gure landan xiñurri aunitz* (“gure landan xinaurri aunitz”); *bildu zen yendea xiñurrie bezala* (“bildu zen jendea xinaurria bezala”); *yendea txiñurrie bezala* (“jendea xinaurria bezala”); *txiñurri aunitz* (“xinaurri aunitz”); *leku au zinurriz betea dago. Zinurri aunitz* (“leku hau xinaurriz betea dago. Xinaurri aunitz”).
- xinaurri-belar* (*xiñurri-belar*, *txiñurri-belar*, *zinaurri-belar*, *zinurri-belar*) ‘inurri-belarra’ (*Chenopodium ambrosioides*): *bada xiñurri-belar aunitz gure landan* (“bada xinaurri-belar aunitz gure landan”).
- xinaurri beltz* (*zinurri beltz*) ‘inurri beltza’: *zinurri beltzak* (“xinaurri beltzak”).

xinaurri gorri (*zinurri gorri*) ‘inurri mota bat, kolore gorria’: *zinurri gorriek* (“xinaurri gorriak”).

xinaurri-mukuru (*xiñurri-mukuru, txiñurri-mukuru, zinurri-mukuru*) ‘inurri-tontorra; inurritegia’: *xiñurri-mukuru aunitz bada gure bordaldean* (“xinaurri-mukuru aunitz bada gure bordaldean”).

xinga (*xinge, txinge*) ‘arrantzako sare biribila, erreketan ibiltzen dena’: *xinge ona dugu. Xinge orrekin arrain aunitz arpatzentugu* (“xinga ona dugu. Xinga horrekin arrain aunitz harrapatzen ditugu”); *txingakin arpatu gintuen arraiak* (“xingarekin harrapatu genituen arrainak”); *txinge autsi zitzeikun* (“xinga hautsi zitzaigun”).

xingar (*xinger, txinger, zinger*) ‘urdaia’: *guk xinger aunitz yan dugu. Xingerra maite dute gure etxian* (“guk xingar aunitz jan dugu. Xingarra maite dute gure etxean”); *zerri gazteain txingerra ona da* (“zerri gaztearen xingarra ona da”); *zinger puske ederra atra diozue* (“xingar puska ederra atera diozue”).

xingar gizen (*xinger gizen, txinger gizen, zinger gizen*) ‘giharra ez den zatia’: *xinger gizena ongi prexitu bear da* (“xingar gizena ongi frijitu behar da”); *txinger gizen ona* (“xingar gizen ona”).

xingar inar (*xinger iñer, txinger iñer, zinger iñer*) ‘xingar giharra, gizena ez den zatia’: *xinger iñerra maiteut* (“xingar inarra maite dut”); *xinger iñe-*

rra beala yaten dugu (“xingar inarra berehala jaten dugu”); *txinger iñerra* (“xingar inarra”).

xingar-xafla (*xinger-xafla, txinger-xafla, zinger-zafla, txinger-zafla*) *xinger-xafla bat gogotik yain nuke* (“xingar-xafla bat gogotik janen nuke”); *txinger-zafla ederra* (“xingar-xafla ederra”); *xinger-zafla ttarra* (“xingar-xafla ttarra”).

xingarrazpi (*xingerrazpi, txingerrazpi, zengerrazpi, zingerrazpi*) ‘urdaiazpiko osoa’: *xingerrazpi onatugu gure sortetxean* (“xingarrazpi onak ditugu gure sortetxean”); *txingerrazpi ederrak gure etxean* (“txingarrazpi ederrak gure etxean”).

xingarrurin (*xingerrurin, txingerrurin, zingerrurin*) ‘urdaiaaren koipea’: *patata prexituek xingerrurinekin onak dire* (“patata frijituak xingarrurinarekin onak dira”); *txingerrurinekin prexitu dugu* (“txingarrurinarekin frijitu dugu”); *txingerrurin aunitz gure etxean* (“txingarrurin aunitz gure etxean”).

xinge ik. *xinga*

xinger ik. *xingar*

xingerrazpi ik. *xingarrazpi*

xinger gizen ik. *xingar gizen*

xinger iñer ik. *xingar inar*

xingerrurin ik. *xingarrurin*

xingili (*tringil*) ‘hanka batean; xangilixka’: *tringil denak* (“xingili denak”).

- xingilika* (*txingilke*) ‘hanka baten gainean; xangilixka’: *txingilke gan ginen* (“*txingilika joan ginen*”).
- xingudi* ik. *ingude*
- xinguri* ik. *ingude*
- xintxirikatu* (*xinxiriketu*) ‘urratu; desegin’: *xinxiriketu dugu gure etxeko gauzik ederrena. Arras xinxiriketu* (“*xintxirikatu dugu gure etxeko gauzarik ederrena. Arras xintxirikatu*”).
- xinurri* ik. *xinaurri*
- xinxiriketu* ik. *xintxirikatu*
- xiñurri* ik. *xinaurri*
- xiñurri-belar* ik. *xinaurri-belar*
- xiñurri-mukuru* ik. *xinaurri-mukuru*
- xirixtilo* ik. *ziriztilo*
- xirringila* (*zirringila, zirringile, xirringile*) ‘txirbila’: *zirringilekin pizten dugu sue. Zurgintei en zirringile pileka* (“*xirringilekin pizten dugu sua. Zurgindegian xirringila pilaka*”); *xirringile sue pizteko* (“*xirringila sua pizteko*”).
- xirringile* ik. *xirringila*
- xirrio* (Azkue) ‘goruan paratu aitzineko lihozko txirikorda’: *xirrio oiek ongi zaindu* (“*xirrio horiek ongi zaindu*”).
- xirrito* ik. *zirrikitu*
- xirritu* ik. *zirrikitu*
- xistor* ik. *txistor*
- xito* 1 ik. *txita*
- xito* 2 (adkor.) ‘*txita*’
- xire* ik. *ziza*
- xireri* ik. *zizare*
- xirte* ik. *zizta*
- xirtetu* ik. *ziztatu*
- xixto* (Azkue) ‘ganbelaren kajoi edo zatia’: *xixto au ondatu zaiku* (“*xixto hau hondatu zaigu*”).
- xixtor* (adkor.) 1 ‘*txistorra*’. 2 ‘*zattia; puska*’: *baratxuri-xixtorra, naranja xistorra*.
- xixtu* ik. *txistu*
- xixtuke* ik. *txistuka*
- xoko* ik. *txoko*
- xokota* ik. *txokota*
- xolarte* ‘*txori-arte*; *txolarte*’: *xolarte unekin arpatzentugu xoriek* (“*xolarte honekin harrapatzen ditugu xoriak*”).
- xopin* ik. *txopin*
- xopindu* ‘*janaria ozpindu, mindu*’: *gaur bazkarie xopindu in zait* (“*gaur bazkaria xopindu egin zait*”).
- xoragarri* (adkor.) ‘*zoragarria*’: *Maritxu zein xoragarrie den. Xoragarrie, bai* (“*Maritxu zein xoragarria den. Xoragarria, bai*”).
- xoranda* ‘*nahiko eroa*’ (arruntean andreekin): *au neska xoranda! Etzaitela neska xoranda orrekin ibili* (“*hau neska xoranda! Ez zaitzela neska xoranda horrekin ibili*”).
- xoratu* (adkor.) 1 ‘*txoratu; zorabiatu*’: *purua erre ta xoratu nitzen* (“*purua erre eta xoratu nintzen*”). 2 ‘*liluratu*’: *neska orrek xoratu in*

- nau* (“neska horrek xoratu egin nau”).
- xorbeltx* ik. sorbeltz
- xoriminger* ik. txori-negar
- xoriniger* ik. txori-negar
- xoro* (adkor.) ‘zoroa’: *mutil oi arront xoroa da. Arras xoroa* (“mutil hori arrunt xoroa da. Arras xoroa”).
- xorroto* (adkor.) ‘urdaitxoa; sabeltxoa’: *xorrotoa agerien duzu. Xorroto borobile* (“xorrotoa agerian duzu. Xorroto borobila”).
- xorrotx* (adkor.) ‘zorrotza’
- xorta* 1 ik. sorta
- xorta* 2 ‘pixka bat (isurkariekin); tanta’: *ardo xorta bat artikoize doike?* (“ardo xorta bat hartuko duzue doike?”).
- xoton* (‘plater) sakona’: *plater xotona salda artzeko. Kartzazu plater xotona, plater xabala ez* (“plater xotona salda hartzeko. Ekar ezazu plater xotona, plater zabala ez”).
- xoxo* (adkor.) ‘zoxoa’ (*Turdus merula*): *xoxo pollite leioan* (“xoxo polita leihoan”).
- xoxo-dantza* ‘Baztango dantza’: *gure aurrek xoxo-dantza ikesiute* (“gure haurrek xoxo-dantza ikasidute”).
- xugatu* ik. xukatu
- xugur* ik. xuhur
- xugurkeri* ik. xuhurkeria
- xugurki* ik. isurki
- xugurreri* ik. xuhurreri
- xugurtesun* ik. xuhurtasun
- xugurtu* ik. xuhurtu
- xuhur* (adkor.) (*xuur, xugur, xur*) ‘zikoitza; zekena; dirua gastatzen ez duena’: *gizon xuurre, xur-xurre bizi dena* (“gizon xuhurra, xuhur-xuhurra bizi dena”); *xugur beti* (“xuhur beti”); *yende xuurre* (“jende xuhurra”).
- xuhurkeria* (adkor.) (*xuurkeri, xugurkeri, xurkeri*) ‘xuhurtasuna’: *xuurkerie* (“xuhurkeria”); *xugurkerien beti* (“xuhurkerian beti”); *xurkerie da zure gaitze* (“xuhurkeria da zure gaitza”).
- xuhurki* (adkor.) (*xuurki, xugurki, xurki*) ‘modu zuhurrean’: *orrek xugurki biziz sosa iten du* (“horrek xuhurki biziz sosa egiten du”); *xurki bizi de* (“xuhurki bizi da”).
- xuhurreri* (adkor.) (*xuurreri, xugurreri, xurreri*) ‘xuhurkeria; xuhurtasuna’: *xuurrerie* (“xuhurreria”); *xugurrerien ibiltzen da* (“xuhurrerian ibiltzen da”).
- xuhurtasun* (adkor.) (*xuurtesun, xugurtesun, xurtesun*) ‘xuhurkeria; xuhurreria’: *denen gañetik xuurtesune* (“denen gainetik xuhurtasuna”); *etxe ortan xugurtesune nausi* (“etxe horretan xuhurtasuna nagusi”); *xurtesune* (“xuhurtasuna”).
- xuhurtu* (*xuurtu, xugurtu, xurtu*) ‘zekendu’: *xugurtu zaiku gure attune* (“xuhurtu zaigu gure aitona”); *xurtu* (“xuhurtu”).
- xuitze* ‘oihana moztu ondoan, lur horretan sortzen den belar mo-

ta': *xuitze deitzen den belarra ez-ta ona ardientzat. Xuitze belar mota txarra* ("xuitze deitzen den belarra ez da ona ardientzat. Xuitze belar mota txarra").

xukatu (*xugatu, xuketu*) 'lehortu': *untziek xuketu. Xuketu ongi. Xuketutut* ("ontziak xukatu. Xukatu ongi. Xukatu ditut").

xuketu ik. **xukatu**

xuku 'idorra; lehorra': *bidea xuku dago. Xuku-xuku, ezta logik* ("bidea xuku dago. Xuku-xuku, ez da lohirik").

xulubite ik. **txibilitu**

xulubiteri ik. **txilibitari**

xulubitero ik. **txilibitero**

xulufirin 1 'krabelina' (*Dianthus*): *etxean batugu xulufrinek* ("etxean badiugu xulufriak"). 2 'polita; maitagarria': *zu zara nere xulufirine. Xulufirin maitea* ("zu zara nire xulufirina. Xulufirin maitea").

xunde ik. **zunda**

xungur ik. **txungur**

xunkada (eta *xunkera*) 'behiari arbi-buru bat zintzurrian trabatzen zaionean zorro edo urdail aldera bulkatzeko erabiltzen den tresna': *xunkada; xunkera bear izeten dugu beti gure beiteien* ("xunkera behar izaten dugu beti gure behitegian").

xunkera ik. **xunkada**

xur ik. **xuhur**

xuribare 'arandoia': *gosari ederra in dugu bildots xuribareekin* ("go-

sari ederra egin dugu bildots xuribareekin").

xurikeri (Azkue) ik. **zurikeria**

xurimenta ik. **zurimenta**

xuringo (adkor.) 'zuringoa'

xuritondo ik. **zuritondo**

xurkeri ik. **xuhurkeria**

xurki 1 ik. **xuhurki**

xurki 2 ik. **isurki**

xurkin ik. **isurkin**

xurreri ik. **xuhurreri**

xurrunda ik. **zirrinda**

xurrunde ik. **zirrinda**

xurrupakari (adkor.) 'zurrupakaria; zurrupean maiz eta aunitz egiten duena': *gizon oi xurrupakari aundie duk* ("gizon hori xurrupakari handia duk").

xurrupakatu (adkor.) 'zurrupakatu; zer edo zer xorta txikitan eta atseginez edan': *ardo ona ongi xurrupaketu* ("ardo ona ongi xurrupakatu").

xurrut (adkor.) 'zurruta; tragoxka': *emen xurrut ta an xurrut, gero moxkortu* ("hemen xurrut eta han xurrut, gero moxkortu").

xurruta-xulo (*xurrutexilo*) (adkor.) 'zurruta-ziloa': *xurrutexilotik gan zitzeion eraztune* ("xurruta-xulotik joan zitzaion eraztuna"); *xurrutexilo aundie dugu* ("xurruta-xulo handia dugu").

xurrutexilo (adkor.) ik. **xurruta-xulo**

xurrutur (adkor.) 'zurrut-ura, zurrutetik erortzen dena': *xurrutur or-*

- taik beti ur zikine* (“xurrut-ur horretatik beti ur zikina”).
- xurruxta** (*xurruxte*) (adkor.) ‘zurruzta’: *bota nion xurruxte bat ur. Xurruxte ona* (“bota nion xurruxta bat ur. Xurruxta ona”).
- xurruxte* (adkor.) ik. **xurruxta**
- xurtesun* ik. **xuhurtasun**
- xurtu* ik. **xuhurtu**
- xuruta** (*xurute*) ‘kainoziloa; isurbi-dea’: *xurute oi gaizki ine da* (“xurruta hori gaizki egina dago”).
- xurute* ik. **xuruta**
- xutik** (adkor.) ‘zutik’
- xutitu** (adkor.) ‘zutitu’
- xuur* ik. **xuhur**
- xuurkeri* ik. **xuhurkeria**
- xuurki* ik. **isurki**
- xuurreri* ik. **xuhurreri**
- xuurtesun* ik. **xuhurtasun**
- xuurtu* ik. **xuhurtu**
- xuxen** (adkor.) ‘zuzen’
- xuxenbidean** (adkor.) (*xuxenpidean*) ‘zuzenbidean’: *xuxenpidean in ditzagun gure aferak. Beti xuxenpidean* (“xuxenbidean egin ditzagun gure aferak. Beti xuxenbidean”).
- xuxendu** (adkor.) ‘zuzendu’
- xuxenpidean* ik. **xuxenbidean**
- xuxtu* ik. **txistu**
- xuxtuke* ik. **txistuka**

Y

ya ik. *ja* 2

yabildu ik. *jabildu*

yainko ik. *jainko*

jainko-xakur ik. *jainko-xakur*

yaka ik. *jaka*

yakadun ik. *jakadun*

yaki ik. *jaki*

yakinki ik. *jakinki*

yakitate ik. *jakitate*

yakituz ik. *jakituz*

yanba ik. *janba*

yanbaka ik. *janbaka*

yanize ik. *janiza*

yanleku ik. *janleku*

yanoso ik. *jangozo*

yarraike ik. *jarraika*

yarraiki ik. *jarraiki*

yarralki ik. *jarraulki*

yarrazi ik. *jarrarazi*

yarri ik. *jarri*

yasán ik. *jasan*

yasangarri ik. *jasangarri*

yasankor ik. *jasankor*

yateko ik. *jateko*

yauntzi ik. *jantzi*

yauregi ik. *jauregi*

yaus ik. *deus*

yaus ere ik. *deus ere*

yausgarri ik. *jausgarri*

yautsi ik. *jautsi*

yauzi ik. *jauzi*

yaz ik. *iaz*

yeiki ik. *jaiki*

yeloskor ik. *jeloskor*

yendaje ik. *jendaje*
yendaki ik. *jendaki*
yendalde ik. *jendealde*
yendapide (Azkue) ik. *jendabide*
yendarme ik. *jendarme*
yendartzekoa izen ik. *jendartzekoa*
izan
yende ik. *jende*
yenderen yende ik. *jenderen jende*
yeus ik. *deus*
yinko ik. *jainko*
yinko-xakur ik. *jainko-xakur*
yipon ik. *jipon*
yoare ik. *joale*

yoiki ik. *joiki*
yokatu ik. *jokatu*
yori ik. *jori*
yoritu ik. *joritu*
yornal ik. *jornal*
yorra ik. *jorra*
yorrai ik. *jorrai*
yostagure ik. *jostagura*
yostakin ik. *jostakin*
yostatu ik. *jostatu*
yosteta ik. *josteta*
yostorratz ik. *jostorratz*
yuntetu ik. *juntatu*

Z

zaar ik. *zahar*

zaarkara ik. *zaharkara*

zaar-parte ik. *zahar-parte*

zaarrieri ik. *zaharrieri*

zaartu ik. *zahartu*

zabaldu ‘zerbait zabalago egin’ (ez da ibiltzen ‘atea zabaldu’ bezalakoekin, horrek ateari zabalera handiagoa ematea erran nahi baitu. Hala ere, ‘atea zabal-zabalik utzi dute’ bezalakoak arruntak dira)

zabalkara ‘nahiko zabala’

zabar ‘baldarra’: *gure mutikoa arront zabarra. Zabar utse* (“gure mutikoa arrunt zabarra. Zabar hutsa”).

zabarkeria ‘baldarkeria’: *zabarkerie dugu gure errietan nausi. Zabarkeri franko ere nere etxean* (“za-

barkeria dugu gure herrietan nagusi. Zabarkeria franko ere nire etxean”); *zabarkeriek galtzen du gizona*.

zabartu ‘baldartu’: *gure osaba nola zabartu den ta denak ere nola ai garen zabartzen* (“gure osaba nola zabartu den eta denak ere nola ari garen zabartzen”); *nola zabartu zaren; yendea zabartzen ai de* (“jendea zabartzen ari da”).

zafla 1 ‘zafra; matelekoa’: *zafla bat man nion* (“zafla bat eman nion”).

zafla 2 ik. *xafla*

zaflada ‘zartakoa; matelakoa’: *zaflada ederrak man ziozten* (“zaflada ederrak eman zizkieten”); *zaflada bat*.

zaflaka ‘matelekoak emanez; zafrika’.

zaflaldi ‘astindua; jipoia’: *zaflaldi bortitze artue du. Zaflaldi izigerrie ta nolako zaflaldie* (“zafladi bortitza hartua du. Zaflaldi izugarria eta nolako zaflaldia”).

zaflatu ‘matelakoak eman’: *bortizki zaflatu zuten* (“bortizki zaflatu zuten”).

zafra ‘zafla; matelakoa’: *man nion zafra bat. Anbateko zafra* (“eman nion zafra bat. Hainbateko zafra”).

zafra ‘zafrika’: *zafra ibili zuten gure aixkidia*.

zafraldi ‘zaflaldia’: *zafraldi ederra artu ziken. Zafraldie* (“zafraldi ederra hartu zian. Zafraldia”).

zafratu 1 ‘belar edo iratze lana bukatu, amaitu’: *idetziak zafratue(k) tugu* (“iratzeak zafratuak ditugu”). 2 ‘zanpatu’: *zafratu zuten gizona ta ilurren utzi* (“zafratu zuten gizona eta hil-hurran utzi”).

zagar-parte ik. **zahar-parte**

zagi 1 ik. **zahi**

zagi 2 ik. **zahagi**

zahagi (*zagi*) ‘ardoa edukitzeko balio duen abere larrua, zaku eran jositia’: *zagi bat ardoz betea kartzen zakuten etxerat ilebetero* (“zahagi bat ardoz betea ekartzen ziguten etxera hilabetero”).

zahar (*zar, zaar*) *au gizon zaarra!* (“hau gizon zaharra!”); *zagarzagarra* (“zahar-zaharra”). [Erranahirua] *zarrak daude beti zer erran, eta gaztiak zer ikesi* (“za-

harrak daude beti zer erran, eta gazteak zer ikasi”).

zaharkara (*zaarkara*) ‘nahiko zaharra’: *belaien kusiut andre bat zaarkara* (“belaian ikusi dut andre bat zaharkara”).

zahar-parte (*zaar-parte, zagar-parte, zar-parte*) ‘nagusi gazteek, base-
rrian ezkontzen direnean, aurreko nagusi zaharrekin egiten duten tratua eta hauei erretiroa hartzeko ematen dieten urteko saria’: *zaar-partia artzen du* (“zahar-parte hartzen du”); *nik zagar-parte artzeut* (“nik zahar-parte hartzen dut”); *etxe ortan guraso xaarrek zar-parte artzeute* (“etxe horretan guraso xaharrek zahar-parte hartzen dute”).

zaharrerria (*zarreri, zaareri, zagarreri*) *zagarreri aundie* (“zaharrerria handia”); *zarreriek eztakarra gauz onik* (“zaharrerriak ez dakar gauza onik”); *zuk zagarrerieizu ta ez bertzeik* (“zuk zaharrerria duzu eta ez bertzerik”); *zarrerie nausitu zaio* (“zaharrerria nagusitu zaio”).

zahartu (*zaartu, zartu*) *nola zaartu den gure gizona* (“nola zahartu den gure gizona”); *arras zagartu de gure aite* (“arras zahartu da gure aita”).

zahato (*zato, xato*) ‘zahagi txikia, ardoa edateko ibiltzen dena’: *emen dut xatoa ardoz betea. Xato ona* (“hemen dut zahatoa ardoz betea. Zahato ona”).

zahi (*zagi*) ‘ale-azal xehatua’: *ogi unek zagi aunitz* (“ogi honek za-

- hi aunitz”); *zagie*, *zerribazka ona* (“zahia, zerribazka ona”).
- zaia** (*zaie*) ‘gona’
- zaie** ik. **zaia**
- zaiegal** ‘zangolepo edo orkatiletaraino ailegatzen den jantziaren behe-itiko aldea’: *zaiegalak logiz beteak dauzke* (“zaiegalak lohiz beteak dauzka”).
- zainar** (*zaiñar*) (Gorosurreta) ‘gihartsua’
- zain-belar** ‘belar landarea; plantaina’ (*Plantago*): *zainbelarrez beteak dugu baratzea*.
- zaiñar** (Gorosurreta) ik. **zainar**
- zakatu** (Izeta) ik. **sakatu**
- zakur** 1 iz. ‘etxeko animalia’: [erranahirua] *bi etxetako zakurre, go-seak il.* 2 izond. ‘maltzurra’ (bertze euskalki batzuetan ‘azeri’ erraten zaio)
- zakurraren ipurdira** (lagunartekoa) ‘urrunera’: *zakurrein purdire bota zuten, zakurren purdiraño gan ziren* (“zakurraren ipurdira bota zuten, zakurraren ipurdiraino joan ziren”)
- zakurkara** ‘haserre denean, kopeta zimurtzean... jartzen den aurpegia, edo egoteko era’: *arrant zakurkara dik orrek; arront zakurkara da oi*.
- zakurkeri** ik. **zakurkeria**
- zakurkeria** (*zakurkeri*) ‘maltzurkeria’: *emen zakurkerie nausi* (“hemen zakurkeria nagusi”).
- zakurreztul** ‘kukurruku eztula’: *zakurreztul oi etzaizu gaten. Zaku-*
- rreztule, txarra da* (“zakurreztul hori ez zaizu joaten. Zakurreztula, txarra da”).
- zakurtu** ‘maltzurto; gaiztatu’: *gure lagun oi zakurtu zaiku. Zakurtuta gaixtotu* (“gure lagun hori zakurtu zaigu. Zakurtu eta gaiztotu”).
- zakuto** ‘zakutxoa’: *zakuto batean sartuko dugu. Zakuto oi autsi de* (“zakuto batean sartu dugu. Zakuto hori hautsi da”).
- zalagarda** (eta *ziligarda*) ‘nahasmendua; iraultza’: (Azkue, Oronoz) *emen bada sekuleko zalagarda* (“hemen bada sekulako zalagarda”); *emen ziligarda franko. Ziligarda bai* (“hemen zalagarda franko. Zalagarda bai”).
- zalagardatu** (eta *ziligardatu*) ‘lan bat hondatu’: (Azkue) *azkenean dena zalagardatu dugu*; (Azkue) *ziligardatu dugu in dugun lana* (“zalagardatu dugu egin dugun lana”).
- zaldale** (*zaldare*) ‘pentsua; bazka’: *gure beorrak zaldare ona bear du* (“gure behorrak zaldale ona bear du”).
- zaldar** (*zuldar*) ‘pertsonek larruazaleko gaitza, orbana’: *gure mutikoak badu aurpeien zuldarra. Zuldar susie* (“gure mutikoak badu aurpegian zaldarra. Zaldar itsusia”).
- zaldare** ik. **zaldale**
- zaldartsu** (*zuldartsu*) ‘orbanduna’: *ilegorri oiek, denak zuldartsuek dire* (“ilegorri horiek, denak zaldartsuak dira”).

zaldiki 1 ‘zaldi haragia’. 2 ‘zaldiaren motakoa’

zalu (*zauli*) ‘arin’: *zaulie duk oi!* (“zalu duk hori!”); *zauli dago gure attune* (“zalu dago gure aitona”); *zauli ni ere* (“zalu ni ere”). Urdazubin eta Zugarramurdi ere ‘zauli’ erraten da.

zalutasun (*zaulitesun*) *gazte oien zaulitesune nai nuke* (“gazte horien zalutasuna nahi nuke”).

zalutu (*zaulitu*) ‘arindu’: *zaulitzeko iten dik oi* (“zalutzeko egiten dik hori”); *zaulitu gara* (“zalutu gara”)

zama 1 ‘zerbaiten multzoa; kopurua’: *belar zama ederrak in gintuen* (“belar zama ederrak egin genituen”); *urte zama aundie gizon zaarrak* (“urte zama handia gizon zaharrak”).

zamuka (*zamuke*) 1 ‘abereen gainean belar-zamak eramateko paratzen diren zurezko kakoak, kakolen antzekoak, baino zabalagoak’: *zamuke au ongi ine dago* (“zamuka hau ongi egina dago”). 2 ‘abereen gainean aringarri gisan paratzen den oihalki gurigarria, espartuz edo artilez betetako, gero gainean basta jartzeko’: *zamuke au guri-gurie da* (“zamuka hau guri-guria da”); *zamuke gañean basta* (“zamuka gainean basta”); *gure etxean zamuke ona dugu* (“gure etxean zamuka ona dugu”).

zamukagai (*zamukegai*) ‘zamukak egiteko egur-gaia’: *zamukegai ederra egur unek* (“zamukagai ederra egur honek”).

zamuke ik. *zamuka*

zamukegai ik. *zamukagai*

zanfarin ik. *xanfarin*

zangaas ik. *zango-has*

zangar ‘oinaren eta belaunaren artekoa’: *zangar ederrak mutiko orrenak* (“zangar ederrak mutiko horrenak”).

zangarki ‘zangarreko haragia, animaliena’: *bildots zangarkie yan ginuen* (“bildots zangarkia jan genuen”); *zangarki ona*.

zango ‘gizakiagan, beheko gorputz adarretako bakoitza, oina’ (Baztanen oinari *zango* erraten zai): *garbitu zangoak*. *Zango zikin*. [Erranahiruak]: *buruik eztuenak, zangoak ibili bear*. *Non zure go-goa, han zure zangoa*

zangopean ‘oinpean’: *zangopean ibili zuten*. *Zangopean zafratu*.

zangobizkar (*zangobizker*) ‘oinlepoa; oinbularra; zangolepo’: *zangobizkerra zarramaztakoz betea* (“zangobizkarra zarramaztakoz betea”).

zangobizker ik. *zangobizkar*

zango-has (*zangaas*) ‘oinetakoak galtzerdirik gabe jantziak’: *nola zabilte gise ortan zangaas?* (“nola zabilte gisa horretan zango-has?”).

zangolepo ‘bernazakiarekin artikulatzen den oin zatia, zango-bizkarra’: *zangolepoan min artut*. *Zangolepoa biurtu ta maingu* (“zangolepoan min hartu dut. Zangolepoa bihurtu eta maingu”).

zangomakil ik. *zangomakila*

zangomakila (*zangomakil*) ‘bernazakia’: *erori ta zangomakile autsi. Zangomakil mea* (“erori eta zangomakila hautsi. Zangomakila mehea”).

zangomakur ‘oin makurra’: *neska susie ta zangomakurre* (“neska itsusia eta zangomakurra”).

zangome ik. *zangomehe*

zangomehe (*zangome*) *zorro aundie ta zangome* (“zorro handia eta zangomehe”); *gizon luzea ta zangome* (“gizon luzea eta zangomehe”).

zango-zola ‘oin-zola’: *zangozola minberatue dauket. Zangozolan min* (“zangozola minberatua daukat. Zangozolan min”); *zangozola, zikine* (“zangozola, zikina”).

zanpa ‘kolpea’: *zanpa ederra artu dugu* (“zanpa ederra hartu dugu”).

zапaka

zапaldi ‘astinaldia’

zапataka (*zапetaka*) ‘kolpeka; zапaka’

zапateko (*zапetako*) ‘kolpea’: *anbateko zапetakoa artu du. Zапetako ederra man diot* (“hainbateko zапatekoa hartu du. Zапateko ederra eman diot”).
Sin. *zanpa*

zапату ‘astindu; kolpatu’: *zапатуte aurre* (“zапату dute haurra”).

zапatzale ‘zапatzen duena’: *gizon gairtoa ta zапatzalea* (“gizon gaiztoa eta zапatzailea”).

zапet ‘gaineraino, bereziki jan-edanari dagokionez’: *yan ginuen zапet in artio. Ederki yan ta zапet* (“jan genuen zапet egin artaino. Ederki jan eta zапet”).

zапetaka ik. *zапataka*

zапetako ik. *zапateko*

zапadura (*zапadure*) ‘zапaltzearen ondorioa’: *señale du zапadure non duen. Zапadure nabarmen ageri de* (“seinale du zапadura non duen. Zапadura nabarmen ageri da”).

zапadure ik. *zапadura*

zапaldi ‘zапaltzea’: *zапaldi indertsu bet in ta gauze ondatu* (“zапaldi indartsu bat egin eta gauza hondatu”).

zапartatu ‘plisti-plasta egina’: *urian zапartatue ibili da*

zапatagile (*zапatile*) ‘zапatagina’: *Joxe Martin zапatile ona da. Zапatile gaztea* (“Joxe Martin zапatagile ona da. Zапatagile gaztea”).

zапatile ik. *zапatagile*

zапату ‘zапaldu’: *zapa emen ta zapa an, ongi zапату* (“zapa hemen eta zapa han, ongi zапату”).

zапel ik. *txapel*

zапelatz ‘miruaren antzeko hegazti harraparia’ (*Buteo buteo*): *zапelatz egaztin gairtoa da. Osabak il du zапelatz* (“zапelatz he-

- gazti gaiztoa da. Osabak hil du zapelaitza”).
- zapeldun** ‘jaun handia; burgesa’: *gure osaba zapeldun ta jaun aundie da* (“gure osaba txapeldun eta jaun handia da”).
- zapi** ‘katua uxatzeko erabilitako hitza’: *zapi! katu zikine! zapi!* (“zapi! katu zikina! zapi!”).
- zapino** ik. txapin
- zar** ik. zahar
- zaraka** (*xaraka*) ‘basobera; txaradia’: *xaraka ortan sartu de basurdea. Xaraka zikine, subeak ere badire* (“zaraka horretan sartu da basurdea. Zaraka zikina, sugeak ere badira”); *azkona zaraka ortan sartu de* (“azkona zaraka horretan sartu da”).
- zarakar** (*xakar*) ‘larruazaleko gainalde gogortua’: *baizu xakar bat kopetan* (“baduzu zarakar bat kopetan”); *xakarra buruen, dena xakarez betea* (“zarakarra buruan, dena zarakarez betea”).
- zaramalkatu** (Azkue) ‘haizeak hostoak mugitu eta nahasi’: *osto oiek nola zaramalkatu diren* (“hosto horiek nola zaramalkatu diren”).
- zarbo** (*xarbo*) ‘barboa’: *gure erriko ugaldean badire xarbo aunitz. Xarboa arrain ttipi bet da* (“gure herriko ugaldean badira zarbo aunitz. Zarbo arrain ttipi bat da”).
- zardin-belar** ik. sardina-belar
- zare** ‘otar handia, baserriko lanetan ibiltzen dena’
- zaregile** ‘zareak egiten dituen a’
- zarekia** ‘zareak egiteko erabiltzen den materiala’
- zaretara** (*zaretra*) ‘zare betearen edukia’: *karri zaretra bat sagar* (“ekarri zaretara bat sagar”).
- zaretoa** ‘otar txikia’
- zaretra** ik. zaretara
- zarpail** (eta *zarpil*) ‘baldresa’: *zein zarpalla zaren. Au neska zarpalle* (“zein zarpaila zaren. Hau neska zarpaila”); *zein zarpil beztie* (“zein zarpaila beztia”).
- zarpaildu** ‘baldrestu’: *gure osaba nola zarpaildu zaikun* (“gure osaba nola zarpaildu zaigun”).
- zarpailki** ‘baldreski’: *zu zarpailki ibiltzen zara. Zarpailki.*
- zarpate** ik. zahar-parte
- zarpil** ik. zarpail
- zarramatzako** ‘zarramazka; atzarmarkada’: *dena zarramatzakoz betea dago. Zarramatzako aundie in zion* (“zarramatzako handia egin zion”).
- zarrerri** ik. zaharreri
- zarta** ‘zartada; belarrondokoa’: *zarta bat man nion* (“zarta bat eman nion”).
- zartadura** (*zartadure*) ‘bihurdura’: *zartadure unek min ematen dat. Zartadurek ondorio txarra* (“zartadura honek min ematen dit. Zartadurak ondorio txarra”).
- zartadure** ik. zartadura
- zartagin** (*zartain*) ‘sukaldean janaria frijitzeko ibiltzen den ontzia’

- zartaña beti prest* (“zartagina beti prest”). *Zartain-dantza* Baztango dantza baten izena da.
- zartagin-zopa** (*zartain-zopa*) ‘ogi-zopa lehorra’: *gure amatxik zartain-zopa onak itentu*. *Zartain-zopa yan ginuen* (“gure amatxik zartagin-zopa onak egiten ditu. Zartagin-zopa jan genuen”).
- zartain** ik. **zartagin**
- zartain-zopa** ik. **zartagin-zopa**
- zartaka** ‘txaloak joz’: *denak esku-zartaka ai ziren* (“denak esku-zartaka ari ziren”); *zartaka bai*.
- zartako** ‘zarta; zartadakoa; zartada’: *zartako ederra*.
- zartatu** 1 ‘zarpiatu; pareta masaz estali’: *etxea zartatu ta ongi xuritu*. *Ongi zartatu* (“etxea zarpiatu eta ongi zuritu. Ongi zarpiatu”).
- zartatu** 2 ‘(batez ere zainak) zart egin’: *zañek zartatu zitzeizkion* (“zainak zartatu zitzaizkion”); *zartatu zaizko* (“zartatu zaizkio”).
- zartu** ik. **zahartu**
- zartzaka** ‘euri-erauntsia’: (Arizkun) *uri zartzaka bat in du* (“euri-zartzaka bat egin du”).
- zatar** ‘oihalki zaharra’: *zatar unekin sorallue garbitu* (“zatar honekin solairua garbitu”); *zatarra zikine dago* (“zatarra zikina dago”).
- zatixka** (*zatixke*) ‘zattia; ttipia’
- zatixke** ik. **zatixka**
- zato** ik. **zahato**
- zatola** ‘arte’: *zatolaikin bi arratoin arpatutugu* (“zatolarekin bi arratoin harrapatu ditugu”); *zatola ona dugu*.
- zauli** ik. **zalu**
- zaulitasun** ik. **zalutasun**
- zaulitu** 2 ik. **zalutu**
- zaun** ik. **ezagun**
- zaunka** (*sainge*) 1 ‘zakurrek egiten duten oihua’: *zakurrek sainge ederrak intu* (“zakurrak zaunka ederrak egin ditu”) 2 ‘zaunkaz’ *zakur oi beti saingeka ai de* (“zakur hori beti zaunka ari da”).
- zaunkaka** (*saingeka*) *gau guzie saingeka* (“gau guztia zaunkaka”).
- zaunkarri** ik. **xaungarri**
- zaunkatu** (*saingetu*) *zakur orrek saingetu du*. *Atsetan saingetzen du* (“zakur horrek zaingatu du. Arratsetan zaunkatzen du”).
- zaupei** ik. **ezaupegi**
- zaupide** ik. **ezaupide**
- zautu** ik. **ezagutu**
- zautze** ik. **ezagutza**
- zautzek in** ik. **ezagutzak egin**
- zautzeko** ik. **ezagutzeko**
- zauze** ik. **ezagutza**
- zaztar** ‘bihurria’: *gure neskatiko au arront zaztarra da* (“gure neskatiko hau arrunt zaztarra da”).
- zealdoka** ‘ziraldoka; balantzaka’: (Arizkun) *zealdoka daie* (“ziraldoka doa”).
- zearkatu** ik. **zeharkatu**
- zehir-haga** (*ziar-aga*) ‘gaztainondo bazterreko adarrak husteko ibiltzen den haga luzea’: *ziar-aga ederra*

- dugu. Ziar-aga luzea* (“zehir-haga ederra dugu. Zehir-haga luzea”).
- zehir-haize** (*ziar-aize*) ‘iparmende-baletik jotzen duena’: *ziar-ai-ziak maten dio* (“zehir-haizeak ematen dio”).
- zeharkatu** (*zearkatu*) ‘zeharka joan’: *emendik zearkatuz ongi goazi* (“hemendik zeharkatuz ongi goaz”).
- zeio** ‘aitzur txiki baten antzeko zurgintza tresna’: *zurginek maite du zeioa. Zeio zorrotza* (“zurginak maite du zeioa. Zeio zorrotza”).
- zekale** ‘lastodunen familiako landarea, gariaren antzekoa, hosto mehar eta latzak, eta buruxka luzeak eta meheak dituen, alea irina egiteko ibiltzen dena’ (*Secale cereale*): *zekalez bete dugu landa. Zekale ona da*.
- zeken** 1 ‘gogorra eta hezea, lurraz mintzatuz’: *lur zekena*. 2 ‘samurra ez dena; zaila; gogorra’: *aurten egur zekena dugu*.
- zekendu** ‘lurraz mintzatuz, elkortu, idortu’: *lur guziek zekendu zaizku* (“lur guziak zekendu zaizki-gu”).
- zela** ‘zaldiei eta antzekoei gainean jartzeko paratzen zaien tresna’: *zela berrie gure zaldieindeko* (“zela berria dugu gure zaldia-rendako”).
- zelaigune** ‘toki laua; lautada’: *zelaigune unten baratzea in dugu* (“zelaigune honetan baratzea egin dugu”).
- zelaikara** ‘nahiko zelaia’
- zelaka** ‘konkortuta; okertuta’: *bei orrek bizkerra zelaka du. Arront zelaka* (“behi horrek bizkarra zelaka du. Arrunt zelaka”).
- zelatu** ‘zela paratu’: *zelazak zaldie. Zelatu ongi gure zaldie* (“zela ezak zaldia. Zelatu ongi gure zaldia”).
- zema** ‘zuhaitz enborrak zerratu eta oholetan edo solibetan, bazterretan, agertzen den zati huts edo desberdina’
- zenbatsu** ‘zenbat guti goiti-beheiti’: *zenbatsu kostako da? zenbatsu toriko dire?* (“zenbatsu kostako da? zenbatsu etorriko dira?”).
- zenberauen** (*zendeberen, zenderen*) ‘zenbera’: *gure artzainek zenderena iten du* (“gure artzainak zenberauna egiten du”); *zenderen ona* (“zenberauen ona”).
- zendeberen** ik. **zenberauen**
- zendako** ik. **zerendako**
- zenderen** ik. **zenberauen**
- zendu** 1 ‘hil’: *denak zendu dire* (“denak zendu dira”) 2 ‘hila’: *nere gurasoak aspaldion zenduek, zenduek aspaldion. Denak zendu dire* (“gure gurasoak aspaldion zenduak, zenduak aspaldion. Denak zendu dira”).
- zengerrazpi** ik. **xingarrazpi**
- zentaz** (Izeta) ‘zeren’: *zuregana eldu naiz zentaz zu ona baizara* (“zuregana heldu naiz zentaz zu ona baizara”).
- zenterna** ‘amildegia’: *zenternan beiti erori zen mutiko gaixoa*.

zenternaka ‘turrustan, euriari dago-kionez’: *urie zenternaka ai du* (“euria zenternaka ari du”).

zentaerraz (*zentaerrex*) *mutiko biurrie da baño zentaerrex* (“mutiko bihurria da baina zentaerraz”).

zentaerrex ik. **zentaerraz**

zentzagarri 1 ‘nor bait zentzatzeko zigorra’: *bazinuen olako zentzagarri baten bearra* (“bazenuen horrelako zentzagarri baten beharra”) 2 ‘zentzatzten dena’

zentzakaitz ‘nekez zentzatzten dena’: *mutiko au arront zentzakaitz dugu* (“mutiko hau arrunt zentzakaitz dugu”).

zentzu ‘sena’: *gauzek iteko zentzue bear da* (“gauzak egiteko zentzua behar da”).

zentzugabe ‘zentzurik ez duena’: *gaizki in duzu, zentzugabea zara* (“gaizki egin duzu, zentzugabea zara”).

zentzuratu (*zentzuretu*) ‘senera ekarri’: *zentzuretuko zaitugu bai. Zentzuretu bai* (“zentzuratuko zaitugu bai. Zentzuratu bai”).

zentzuretu ik. **zentzuratu**

zentzutasun (*zentzutesun, zenzutesun*) ‘zuhurtasuna’: *zentzutesune bear dugu* (“zentzutasuna behar dugu”); *zenzutesune gauze guzien gañetik* (“zentzutasuna gauza guzien gainetik”).

zentzutesun ik. **zentzutasun**

zenzutesun ik. **zentzutasun**

zepa (Gorosurreta)

zepatu (Gorosurreta) ‘gisua, karea gogortu’

zepote 1 (Izetak bildua) ‘zuhaitz-enborra’: *arbol orren zepotia izigerri aundie da* (“arbola horren zepotea izugarri handia da”). 2 (guk bildua) ‘ttipia eta azkarra dena’ *gizon oi zepotia da arras* (“gizon hori zepotea da arras”); *bei zepotiak* (“behi zepoteak”); *an kusko tuzu bi enbor zepote* (“han ikusiko dituzu bi enbor zepote”).

zerbeldu (Gorosurreta)

zere ‘zeure’: *zu sar zaite zere gauzetan* (“zu sar zaitez zeure gauzetan”).

zeren 1 ‘zergatik’: *zeren ta oiek baitire nere launek* (“zeren eta horiek baitira nire lagunak”); *ez da zeren* (= ‘ez horregatik’)

zeren 2 ‘zeuen’: *zuek sar zaizte zeren gauzetan* (“zuek sar zaitezte zeren gauzetan”).

zerendako (*zendako*) ‘zergatik, zertaz’ *zendako erran diozu deusik?*

zererdi (Gorosurreta) ‘erditako txerria’

zerlatzu ‘ilea harroa duena’: *au neskatiko zerlatzue! Yende zerlatzue* (“hau neskatiko zerlatzua! Jende zerlatzua”).

zernahi ‘aunitz’: *orrek zernai idebazten omen du.*

zerraldatu 'indargabetua': *gure Patri-ko arras zerraldatue dugu, zaartue, inderrik ere ez du batre.*

zerramondo 'urdama izateari utzi diona, hau da, umerik egiten ez duena, antzutua dena': *zerramondo au il bear dugu* ("zerramondo hau hil behar dugu").

zerratu 'lau urtetik goitiko ardia'

zerrazagi ik. *zerrazahi*

zerrazahi (*zerrazagi*) 'zerrautsa': *zerrazagie erre ginuen* ("zerrazahia erre genuen"); *plaza bustie zagon ta zerrazagiekin idortu ginuen* ("plaza bustia zegoen eta zerrazahiarekin idortu genuen").

zerrepel (eta *xerrepel*) 'epeldu egin den edariari edo saldari erraten zaiona': *ardo zerrepela; ur xerrepela; au ardo xerrepela! salda au ere xerrepel!* ("hau ardo zerrepela! salda hau ere zerrepel!").

zerrepeldu (*xerrepeldu*) 'hondatu': *ardo au arront zerrepeldue dago. Zerrepeldu zaiku* ("ardo hau arrunt zerrepeldua dago. Zerrepeldu zaigu"); *xerrepeldu* ("zerrepeldu").

zerri zerriek aketzak edo urdamak izeten aal dire.

zerri arkel 'zerri emea': *zerri arkel aitzinerako.*

zerri-aulki (*zerri-alki*) *etxe-zerrialkie ondatu zaigu* ("etxe-ko zerri-aulkia hondatu zaigu").

zerri-bazka (*xerri-bazka*) 'zerri-erri ematen zaien jatekoa': *xerribazka ona biltzen dugu. Aunitzek xerri-bazka ostatuetan biltze'ute* ("aunitzek zerri-bazka ostatuetan biltzen dute").

zerri hiltze 1 'zerria hiltzeko ekintza' 2 'zerri hiltze eguna' *zerrikaka* 'irain hitza': *zerrikaka zu.*

zerri ordots 'zerri-arra': *zerri-ordotsa gizendu ta iltzeko. Zerrikume ordotsak ta arkelak* ("zerri-ordotsa gizendu eta hiltzeko. Zerrikume ordotsak eta aharkelak").

zerri puska (pl.) 'zerria hiltzen den egunean, zerriki puskak zareto batean sartu eta inguruko etxeetara eramaten den oparia'

zerriketari 'zerriak biltzen ibiltzen dena'

zerrikume 'zerriaren kumea': *zerrikumeak saldutugu. Zerrikume onak* ("zerrikumeak saldu ditugu. Zerrikume onak").

zerrizain 'zerriak zaintzen dituen': *zerrizañe zerriek zaintzen. Zerrizañe* ("zerrizaina zerriak zaintzen. Zerrizaina"). [erranahirua] *apirile biribile, zerrie urdendeian otzak ile, zerrizaña zokoan, arto puske kolkoan.*

zertaz ‘zergatik’ (galderetan): *zertaz in duzu oi?* (= “zergatik egin duzu hori?”).

zetabe ‘bahea’: *etxean batugu lau zetabe* (“etxean baditugu lau zetabe”).

zezel ‘hitzak zailtasun handiz ahoskatzen dituen’: *mutiko oi arront zezela da* (“mutiko hori arrunt zezela da”).

zezeldu ‘hitzak zailtasun handiz ahoskatu’: *zu ere zezeldu zara. Zezelzen denak.*

zezenko (eta *xerrenko*) ‘idixkoa; zezen gaztea’: *zezenkoa saldu bear dugu. Zezenko ederra da* (“zezenkoa saldu behar dugu. Zezenko ederra da”); *xerrenkoa saldut* (“zezenkoa saldu dut”).

zezillu ik. **zizeilu**

zezinatu (*zezinetu*) (Izetak bildua) ‘zezina bihurtu, zezina prestatu’: *zerriki guzie zezinetu dugu* (“zerriki guzia zezinatu dugu”).

zezinetu ik. **zezinatu**

zialdatu ik. **ziraldotu**

ziar-aga ik. **zehir-haga**

ziar-aize ik. **zehir-haize**

zibel ‘erreuma’: (Aniz) *emen dago gizona zibelaz yoa. Zibela sartu zaio* (“hemen dago gizona zibelaz joa. Zibela sartu zaio”).

zigo ‘urina gogortu’: *zigo dago.*

zigor 1 ‘gaztigua’. 2 (eta *xigor*) ‘suan jarri kolore arrea hartzeko’: *ogi xigorra maiteut* (“ogi zigorra maite dut”); *ogi zigorra ona da.*

zigor 3 ik. **xigor**

zigortu 1 ‘gaztigatu’ 2 (eta *xigertu*, *xigortu*) ‘kolore arrea hartu arte suan eduki’: *kasu sobera xigortu gabe* (“kasu sobera zigortu gabe”); *xigertu ongi* (“zigortu ongi”).

zigortu 3 ik. **xigortu**

zigotu ‘urina gogortu’: *yanzazu agudo zigo*tu *gabe. Zingerrurine zigo*tu *de* (“jan ezazu agudo zigo tu gabe. Xingarrurina zigo tu da”); (Arraioz) *argizaria bakizu, ya nola... txikitzen den, osea, zigo*tu

zikiro ‘ahari zikiratua’: *gaur baute zikiro-yatea Zugarramur*din (“gaur badute zikiro-jatea Zugarramur din”); *zikiro ederra yan ginuen* (“zikiro ederra jan genuen”).

zikoitz (Izeta) ‘zekena’: *gizon zikoitz nardagarrie* (“gizon zikoitz nardagarria”).

zilatu (*ziletu*) ‘ziloak egin’: *ziletu dugu maie. Ongi ziletue dago* (“zilatu dugu mahaia. Ongi zilatu dago”).

ziletu ik. **zilatu**

ziligarda ik. **zalagarda**

ziligardatu ik. **zalagardatu**

zil izan ‘zilegi izan’: *oi ezta zil* (“hori ez da zil”); *or egur itea ezta zil* (“hor egur egitea ez da zil”); *zil da bai*

zilko (*xilko*) ‘zilborra’: *xilkoa agerien duzu* (“zilkoa agerian duzu”).

zilko-hertze (*xilkoertze*) ‘zilbor-hes-tea’: *xilkoertzetik gaizki dabile*. *Xilkoertzean min* (“zilko-hertzetik gaizki dabil. Zilko-hertzean min”).

zilo (eta *zolu*) ‘zuloa’: *zilo batean sartu ta ezin atra* (“zilo batean sartu eta ezin atera”); *anbateko ziloa in dugu* (“hainbateko ziloa egin dugu”); (Ornoz) *zolua* (“ziloa”); (Baztanen biak ibiltzen dira, ‘zulo’ eta ‘zilo’, grabazioetan ikusten ahal denez. Zenbat eta Baztangoiza alderago, orduan maizago ‘zilo’); [Erranahiruak] *zilo berriek eztu zaarra tapatzen; orrek ere baik purdien ziloa*.

ziloka (eta *zoloka*, *zuloka*) ‘zilogun-nea’: *gure landan zoloka aunitz badire*. *Zoloka oiek lurrez bete* (“gure landan ziloka aunitz badira. Ziloka horiek lurrez bete”).

zilogune ‘erliebearen sakonunea’: *zilogune ortan biltzen dire ardiek* (“zilogune horretan biltzen dira ardiak”).

zimeldu (*zimildu*) ‘zimel bihurtu’: *lore oiek zimildu dire* (“lore horiek zimeldu dira”).

zimendu (*zimentu*) ‘oinarria’: *etxe unek zimentu onak’itu* (“etxe honek zimendu onak ditu”).

zimentu ik. **zimendu**

zimiko (eta *ximiko*) ‘atximurra’: *ximiko aundi bet in nion*. *Ximiko mingarrie* (“zimiko handi bat egin nion. Zimiko mingarria”).

zimikoberri (eta *ximikoberri*) ‘zer edo zer berria janzten denean egiten den atximurra’: *ximikoberri zapata berriekin!*

zimildu ik. **zimeldu**

zimitz ik. **zumitz**

zimitzeri ik. **zumitzeria**

zimizgai ik. **zumizgai**

zimizta (*zimizte*) ‘tximista; aire gaiztoa’: *zimizte ikeragarriek* (“tximista ikeragarriak”).

zimiztaka (*zimizteka*) ‘tximistaka’: *zimizteka ai du* (“tximistaka ari du”).

zimizte ik. **zimizta**

zimizteka ik. **zimiztaka**

zimur 1 ‘zimurdura’: *aurpeien batu-zu zimurrek* (“aurpegian badituzu zimurrak”); *kopeta ximurre* (“kopeta zimurra”). **2** ‘zuhurra; eskulaburra’: *zein zimurre zaren*. *Emen yende zimurre* (“zein zimurra zaren. Hemen jende zimurra”).

zimurdura (*zimurdure*) ‘zimurra’: *aurpeie zimurdurez betea daukezu*. *Zimurdure susiek* (“aurpegia

zimurduraz betea daukazu. Zimurdura itsusiak.”).

zimurdure ik. *zimurdura*

zimurkeri ik. *zimurkeria*

zimurkeria (*zimurkeri*, *ximurkeri*) ‘zekenkeria’: *gastazak bear delaik, zimurkerietan ibili gabe. Zimurkerie gauze tsusie da* (“gasta ezak behar delarik, zimurkerietan ibili gabe. Zimurkeria gauza itsusia da”). *Etzaitela olako ximurkeriten ibili* (“ez zaitezela horrelako zimurkeriatan ibili”)

zimurtasun (*ximurtesun*, *zimurtesun*) ‘zimurra’: *baizu kopetan alako ximurtesun bet. Ximurtesunek ageri* (“baduzu kopetan halako zimurtasun bat. Zimurtasunak ageri”).

zimurtesun ik. *zimurtasun*

zimurtu (*ximurtu*)

zinaurri ik. *xinaurri*

zinaurri-belar ik. *xinaurri-belar*

zinaurri-mukuru ik. *xinaurri-mukuru*

zinger ik. *xingar*

zinger gizen ik. *xingar gizen*

zinger iñer ik. *xingar inar*

zingerrazpi ik. *xingarrazpi*

zingerrurin ik. *xingarrurin*

zinger-zafla ik. *xingar-xafla*

zingi ‘zuzia; tortxa’: *zingiekin argitu ginuen bidea. Zingie eskuen.*

Zingiek argitzen du ongi (“zingiarekin argitu genuen bidea. Zingia eskuan. Zingiak argitzen du ongi”).

zingil 1 (eta *zingill*) ‘haragi gutxikoa; mehea; ahula’: *gizon zingil orrek eztu inderrik* (“gizon zingil horrek ez du indarrik”); *gizon zingille ta itxure txarrekoa* (“gizon zingila eta itxura txarrekoa”).

zingil 2 ik. *zingila*

zingila (*zingile*, *zingille*) ‘petrala’: *zingile txarra du basta orrek* (“zingila txarra du basta horrek”); *zingille berrie erosi* (“zingila berria erosi”).

zingilatu (*zingiletu*) ‘zingila paratu’: *zingiletu ongi* (“zingilatu ongi”).

zingiletu ik. *zingilatu*

zingill ik. *zingil*

zingille ik. *zingilla*

zingirio ‘behazetan edo gorputzaren giltzadura batzuetan agertzen diren minak’: *beatzian zingirioa atra zait* (“behazetan zingirioa atera zait”); *zingirio zikin oiek sendatzeko Arpeko Sainduein ure ona omen da* (“zingirio zikin horiek sendatzeko Arpeko Sainduaren ura ona omen da”). Sendatzeko orduan, baserrietan, holako zerbait erraten (edo errezatzen ia...) zen: “*Zingirio gurutze, zingirio San Ramon... zingirio San Juan... nik ezpaitu... ezpazaitu[t]*”

sendatzen, sendatuko zaitu Espiritu Sainduek...

zinguri ik. ingude

zintz ‘mukiak indarrez ateratzeko egiten den ahalegina’: *beti mukiekin, zintz in ta garbitu sugurre. Zintz!* (“beti mukiekin, zintz egin eta garbitu sudurra. Zintz!”).

zintzilik ‘dilindan’

zintzur ‘eztarria’: *zintzurteko minez nago. Zintzurre ez dauket ongi* (“zintzurra ez daukat ongi”); *zintzur ona dauke* (“zintzur ona dauka”).

zintzurluze ‘sekreturik gordetzen ez dakiena’: *zintzurluze zara, dena erteizu* (“zintzurluze zara, dena erraten duzu”).

zintzur-zilo *zintzurziloa estali ta il.*

zinurri ik. xinaurri

zinurri-belar ik. xinaurri-belar

zinurri beltz ik. xinaurri beltz

zinurri gorri ik. xinaurri gorri

zinurri-mukuru ik. xinaurri-mukuru

zipetu ik. txipatu

zipot egin (*zipot in*) ‘gaineraino jarri; ase’: *ardiek belaian zipot in dute* (“ardiek belaian zipot egin dute”); *ze yanaldie zipotu artio* (“zer janaldia zipotu artio”).

zipot in ik. zipot egin

zipotu ‘zipot egin’

ziraldo ‘itzulipurdia’ (Oronoz): *ziraldo bat in zuen* (“ziraldo bat egin zuen”).

ziraldotu (*zialdatu*) (Izeta) ‘balantzatu; kordokatu’: *zialdatu de gizona, eztago ongi* (“ziraldotu da gizona, ez dago ongi”).

ziria sartu (*zirie sartu*) ‘iruzur egin; iseka egin’: *a ze zirie sartu zioten. Zirie sartu* (“a zer ziria sartu zioten. Ziria sartu”).

ziribuztanka (*ziripuztenka*) ‘tarrapatana; presaka’: *au beti ziripuztenka* (“hau beti ziribuztanka”); *ziripuztenka atra ziren* (“ziribuztanka atera ziren”).

zirie sartu ik. *ziria sartu*

zirigartu (*zirigertu*) (Azkue) ‘kiskali’: *esnea zirigertu de* (“esnea zirigartu da”).

zirigertu ik. *zirigartu*

zirika (*zirike*)

zirikan hasi (*ziriken asi*) ‘ziria sartzen hasi’

zirikan ibili (*ziriken ibili*)

zirike ik. *zirika*

ziriku (Gorosurreta) ‘seta’

ziripote ‘ziraldoa; zabua’: *anbateko ziripotean gan zuen* (“hainbateko ziripotean joan huan”); *ziripote aundie ta nolako ziripotea in zuen* (“ziripote handia eta nolako ziripotea egin zuen”).

ziripoteka ‘ziraldoka; sigi-sagan’

ziripuztenka ik. *ziribuztanka*

zirirtz (Gorosurreta) ‘aiuta; enema’

ziriztilo (eta *xirixtilo*, *ziriztilu*) ‘lokarri laxoa’: *ziriztilo batekin aski*. *Koropiloik ez* (“ziriztilo batekin aski. Korapilorik ez”); *ziriztilo bat*. *Ziriztiloa in dut* (“ziriztilo bat. Ziriztiloa egin dut”); *xirixtilo bat in, ez koropiloa*. *Aski da xirixtiloa* (“ziriztilo bat egin, ez korapiloa. Aski da ziriztiloa”); *zapatetako ziriztilue*.

ziriztilu ik. *ziriztilo*

ziro ‘ziraldoa; sigi-saga egitea’: *ziro aundiek itentu* (“ziro handiak egiten ditu”).

ziroka ‘ziraldoka; sigi-sagan’: *gizon oi edana dago, ziroka daie* (“gizon hori edana dago, ziroka doa”).

zirrika ik. *txirrika*

zirrike ik. *txirrika*

zirriketan ik. *txirrikatan*

zirrikito ik. *zirrikitu*

zirrikitu (*zirrikito*, *xirrito*, *xirritu*) ‘zirritua’

zirriki-zarraka ‘hala-hola’: *azkenian, zirriki-zarraka in zuten lan guzie* (“azkenean zirriki-zarraka egin zuten lan guzia”).

zirrilda (*zirrilde*) ‘estima handirik gabekoa’: *au yende zirrilde* (“hau jende zirrilde”).

zirrildaka (*zirrildeka*) ‘zirril-zarral; pixkana-pixkana’: *gu beti zirril-*

deka ibiltzen gara (“gu beti zirrildeka ibiltzen gara”).

zirrildari (*zirrilderi*) ‘funts gabetasuna’: *zu beti olako zirrilderiekin*. *Zirrilderi franko emen* (“zu beti horrelako zirrilderiekin. Zirrilderia franko hemen”).

zirrilde ik. *zirrilda*

zirrildeka ik. *zirrildaka*

zirrilderi ik. *zirrildari*

zirrinda (*xurrunda*, *xurrunde*, *zirrinde*) ‘txirbila’: *marrusketak zirrindek atratzen tu* (“marrusketak zirrindak ateratzen ditu”).

zirrinde ik. *zirrinda*

zirringila ik. *xirringila*

zirringile ik. *xirringila*

zirringile ik. *zirringila*

zirripil ‘txirbila; zirringila’: *zirripillekin pizten dugu sue*. *Zirripille* (“zirripilekin pizten dugu sua. Zirripila”).

zirrito ik. *zirritu*

zirritu (*xirrito*, *xirritu*, *zirrito*) ‘ateari atxikitako leihatila; zerbaiten arteko tartetxoa handik behatze-ko’: *xirritue* (“zirritua”); *xirrito xilotik beiretu nuen* (“zirritu xilotik begiratu nuen”); *zirrito batetik kusi ginuen* (“zirritu batetik ikusi genuen”).

zirrizte ik. *zurrusta*

zirtzikatu (*zirtziketu*) ‘ezpaldua; ezpalkatua’: *eroriko bat egin eta*

eskumuturreko ezurre zirtziketue gelditu zitzaion.

zirtziketu ik. *zirtzikatu*

zirtzil ‘jantzi zaharrak erabiltzen ditue-na; zarpaila’: *gizon zirtzile ta nardagarrie. Beti zirtzil* (“gizon zirtzila eta nardagarria. Beti zirtzil”).

zirtzildu ‘zarpaildu; zirpildu’: *nola zirtzildu zaikun gure barridea. Arras zirtzildue* (“nola zirtzildu zaigun gure barridea. Arras zirtzildua”).

zirtzilkeri ik. *zirtzilkeria*

zirtzilkeria (*zirtzilkeri*) ‘zarpailkeria’: *ze daile gizon au olako zirtzilkeriekin! Zirtzilkeri oiek ez tugu maite* (“zer dabil gizon hau horrelako zirtzilkeriekin! Zirtzilkeria horiek ez ditugu maite”).

zirtzilki ‘zarpailki’: *gizon au beti zirtzilki. Yendea zirtzilki dabile* (“gizon hau beti zirtzilki. Jendea zirtzilki dabil”).

zisku ik. *zizku*

zito ik. *txita*

zitu ‘uzta; fruitua’: *aurten zitu ona dugu. Zitue bildu dugu* (“zitua bildu dugu”).

zitzalkaka (Gorosurreta) ‘zizare-kaka’

ziza (*xixe*) ‘perretxikoa’ (*Tricholoma*, *Lyophyllum* eta *Rhodapaxillus* generoetakoa)

zizare (*xixeri*, *zizeri*) *gure baratzean bada xixeri aunitz aurten* (“gure

baratzean bada zizare aunitz aurten”); *gure aurre zizeriekin dugu* (“gure haurra zizareekin dugu”); *zizeri gorrak* (“zizare gogorak”).

zizare-hats (*zizeri-ats*) ‘arnasats txarra’: *gure aurrek zizeri-ats bortitze du* (“gure haurrak zizare-hats bortitza du”). *zizare-errauts* (*zizeri-errauts*) ‘zizareak kasatzeko erabiltzen zen hautsa’: *gure aurre zizeriekin zagon ta zizeri-errautsekin sendatu de azkenian* (“gure haurra zizareekin zegoen eta zizare-errautsekin sendatu da azkenean”). Denbora batez Baztanen *zizeri-errautsa* maiz ibiltzen zen.

zizare-kaka (*zizeri-kaka*) *zizeri-kaka den belaian, sega laster kamusten* (“zizare-kaka den belaian, sega laster kamusten”).

zizeilu (*zizellu*, *zezillu*) ‘zurezko eserleku luzea eta bizkarduna, batez ere bizkarraren erdiko zatia mugikorra eta mahai gisa ibil daitekeena duena’: *zizellu au maite dugu. Zizellue neguko* (“zizeilu hau maite dugu. Zizeilua neguko”).

zizein ik. *izain*

zizel ‘harria eta lantzeko esku-erreminta’: *zizel berrie bear dugu. Zizel ona* (“zizel berria behar dugu. Zizel ona”).

- zizelkari** (*zizelkeri*) ‘eskultorea’: *Baztanen ere badire zizelkeri onak* (“Baztanen ere badira zizelkari onak”).
- zizelkeri* ik. **zizelkari**
- zizellu* ik. **zizeilu**
- zizeri* ik. **zizare**
- zizeri-ats* ik. **zizare-hats**
- zizeri-errauts* ik. **zizare-errauts**
- zizeri-kaka* ik. **zizare-kaka**
- zizerkora** ‘kazkabarra; babazuza; txingorra’: *urie ta zizerkora atertu gabe. Zizerkora kaltegarrie da* (“euria eta zizerkora atertu gabe. Zizerkora kaltegarria da”). Sin. **kazkabar**
- zizku** (eta *zisku*) ‘heiako sare eta ganbela dauden zokoak bereizteko paratzen den taulaz egindako pareta modukoa’: (Aniz) *ziskue ondatue dago* (“ziskua hondatua dago”); (Gartzain) *ziskue berritu bear dugu* (“ziskua berritu behar dugu”); (Arizkun) *ziskue autsi de* (“ziskua hautsi da”).
- zizta** (*xixte, sixte, zizte*) 1 ‘ziztada; ziztakoa’: *anbateko xixte. Xixte oiek eztire batre onak* (“hainbateko zizta. Zizta horiek ez dira batere onak”); *zizte bat in nion* (“zizta bat egin nion”); *orratzarekin sixte aundie in zion* (“orratzarekin zizta handia egin zion”) 2 ‘arantza’ *arbororrek baitu ziztek* (“arbola horrek baditu ziztak”)
- ziztadun** (*ziztedun*) ‘ziztak dituen’: *arrosak ziztedunek dire* (“arrosak ziztadunak dira”).
- ziztaka** (*zizteka*) ‘ziztadaka’: *zizteka aitu zen* (“ziztaka aritu zen”).
- ziztakari** (*ziztekari*) ‘ziztatzen duena’: *sagarroie ziztekarie da. Kasu arantza ziztekariekin* (“sagarroia ziztakaria da. Kasu arantza ziztekariekin”).
- ziztako** (*zizteko*) ‘ziztada’: *zizteko ederra in zatan* (“ziztako ederra egin zidan”).
- ziztatu** (*xixtetu, ziztetu*) ‘zizta egin; ziztakoa egin’: *ziztetu nion* (“ziztatu nion”); *liztorrak zizteku zaku* (“liztorrak ziztatu gintuen”); *ziztetu ta odola purrusteka* (“ziztatu eta odola purrustaka”).
- zizte* ik. **zizta**
- ziztedun* ik. **ziztadun**
- zizteka* ik. **ziztaka**
- ziztekari* ik. **ziztakari**
- zizteko* ik. **ziztako**
- ziztetu* ik. **ziztatu**
- ziztor* ik. **txistor**
- ziztu** 1 (*xuxtu, zuztu*) ‘lastertasun handia’: *animeleko zuztuen torri zen* (“alimaleko ziztuan etorri zen”).
- ziztu* 2 ik. **txistu**
- ziztuke* ik. **txistuka**
- zizur** ‘kizkurra’: *ile zizur polite* (“ile zizur polita”).

zizurkatu (*zizurketu*) 1 ‘kiribilatu’: *su ondoan zizurketzen da papera* (“su ondoan zizurkatzen da papera”). 2 ‘kizkurtua’: *ile oi ongi zizurketueizu* (“ile hori ongi zizurkatua duzu”).

zizurketu ik. **zizurkatu**

zogi ik. **zohi**

zohi (*zogi*) ‘batez ere iratze-meta gainean iratzea haizetik-eta babesteko paratzen den lur eta belar puska biribila’: *iratze-meta gañean zogie patzen da. Zogi ederra borobil-borobile* (“iratze-meta gainean zohia paratzen da. Zohi ederra borobil-borobila”).

zokete ‘orgaren galga’: *zoketia arras ondatue dago. Zoketia gaizki* (“zoketea arras hondatua dago. Zoketea gaizki”).

zoko (*txoko, xoko*) ‘bi paretak elkartzen diren aldea’: *maiteut nere xoko au* (“maite dut nire xoko hau”); *sukalde xokoa*. [Erranahirua: *Ianako zokoan lano, bier denbora sano*]

zola 1 ‘zimendua; oinarria’: *etxe unek zola ona du* (“etxe honek zola ona du”); *plazako zola berritu in dute. Zola ona man diote* (“plazako zola berritu egin dute. Zola ona eman diote”). 2 ‘oinaren edo oinetakoaren azpialdea’: *zapata zola*.

zolatu 1 ‘zolak paratu’: *zapatak ongi zolatuek itut* (“zapatak ongi zolatuak ditut”).

zolatu 2 ‘belai batean, landan, baratzean, lorategian... belarra aterratzea’: *zolatu zaize jardine?* (“zolatu zaizue jardina?”).

zolda ‘zikinkeria’: *zoldaz betea dago. Zolda emen ta zolda or* (“zolda hemen eta zolda hor”).

zoldatzu ik. **zoldazu**

zoldazu (eta *zoldatzu*) ‘zikinkeria, batez ere gorputzean atxikitzen duena’: *zoldatzu zikine!* (“zoldatzu zikina!”); *zoldazue zara* (“zoldazua zara”).

zoloka ik. **ziloka**

zolu ik. **zilo**

zonbor-aitzur (eta *sonbor-aitzur*) ‘luberrak egiteko erabiltzen zen aitzur handia’: *sonbor-aitzurarekin atra ginuen luberrie* (“zonbor-aitzurarekin atera genuen luberria”). Gaurko egunean hitz hau guti ibiltzen da Baztanen.

zonborko ‘enbor puska handia’: *zonborko au arras gogorra da* (“zonborko hau arras gogorra da”).

zoragarri ‘liluragarri’

zorne ‘materia’: *min orrek badu zornie* (“min horrek badu zornea”); *zorniek nardatzen daut* (“zorneak nardatzen dit”); *zornie gauze susie da* (“zornea gauza itsusia da”).

zoro ‘eroa’: *ze seme zoroa atra zaien!* (“zer seme zoroa atera zaien!”).

- zorripiztu** ‘aberats berria’: *zorripiztu oiek arro dabiltze* (“zorripiztu horiek harro dabiltza”).
- zorrizu** ‘zorritzua’: *gan ai emendik, arraio zorrizue!* (“joan hadi hemendik, arraio zorrizua!”)
- zorro 1** ‘urdaila’: *anbateko zorroa dauke Migelek. Zorro aundi. Zorrogorri* (“hainbateko zorroa dauka Migelek. Zorrohandi. Zorrogorri”).
- zorro 2** ‘zer edo zeri zaletasuna’: *gure aurre amazorro da. Juan Martinen aurre berriz aitezorro* (“gure haurra amazorro da. Juan Martinen haurra berriz aitezorro”).
- zorroko** ‘korrokada, sabeleko asotsa’
- zorro-makil** ‘errotazainek ibiltzen duten makila’: *errotazañek lan ederra iten du zorromakileikin. Zorromakil legune* (“errotazainak lan ederra egiten du zorromakilarekin. Zorro-makila leuna”).
- zorroto** ‘urdaila’: *zorroto polite gure mutiko ttallak. Zorroto ttipie ta borobile* (“zorroto polita gure mutiko ttarrak. Zorroto ttipia eta borobila”).
- zotal** ‘lur puska’: *baute zotal puske, zotala auserki* (“badute zotal puska, zotala ausarki”).
- zotalarroto** ik. **zotal-harroto**
- zotal egun** (pl.) ‘abuztu hasmentako hamabi egunak, bakoitza urteko hilabete bati dagokiona, eta ondoko urtean, hilabete bakoitzean, zein eguraldi eginen duen erakusten duena’: *zotal egunetan siñeste aundie dugu* (“zotal egunetan sineste handia dugu”).
- zotal-harroto** (*zotalarroto*) ‘lurra azaletik harrotu’: *landa zotalarroto ta ongi apaindu* (“landa zotal-harroto eta ongi apaindu”); *landa guzie zotalarroto dugu* (“landa guztia zotal-harroto dugu”).
- zozo 1** ‘urretxindorraren familiako txoria’ (*Turdus merula*): *arizti ortan zozoak kantari. Zozo beltza* (“harizti horretan zozoak kantari. Zozo beltza”). “Zozoarena” Baztango mutildantza bat da.
- zozo 2** ‘tontoa; ergela’: *zein zozoa zaren. Zozo ergela.*
- zozokeri** ik. **zozokeria**
- zozokeria** (*zozokeri*) ‘ergelkeria’: *beti zozokerietan* (“beti zozokerietan”).
- zozoki** ‘ergelki’: *etzaitela ain zozoki yokatu. Zozoki yokatzen dena beti gaizki* (“ez zaitezela hain zozoki jokatu. Zozoki jokatzeko dena beti gaizki”).
- zozotu** ‘ergeldu’: *mutiko au arront zozotue dago. Zozotu de* (“mutiko hau arrunt zozotua dago. Zozotu da”).

zubi-bular ‘zubi-zutabe bateko alde zorrotza; zubi-branka’: *zubi-bular oiek ongi inek dire* (“zubi-bular horiek ongi eginak dira”).

zubi-zilo ‘zubi-zutabe jarraien arteko hutsunea’: *zubi-zilo aundiek zubi orrek*

zu-hirin (*zuirin*) ‘pipi-hautsa’: *mai zar au dena pipiek yana, zuirinez betea dago. Zuirin pile aundiek* (“mahai zahar hau dena pipiak jana, zu-hirinez betea dago. Zu-hirin pila handiak”).

zu-hirindu (*zuirindu*) ‘pipiatu’: *zure zuirindu, dena pipiek yana* (“zura zu-hirindu, dena pipiak jana”).

zuin ‘erizioak egiten direnean paratzen den marka’: *erizioetan beti zuñek itentugu, lerroak ta lur zatiek bereziz. Lana ongi iteko zuñek bear dire* (“erizioetan beti zuinak egiten ditugu, lerroak eta lur-zatiak bereziz. Lana ongi egiteko zuinak behar dira”).

zuirin ik. **zu-hirin**

zuirindu ik. **zu-hirindu**

zuldar ik. **zaldar**

zuldartsu ik. **zaldartsu**

zulubi ik. **zurubi**

zulubite ik. **txilibitu**

zulubitero ik. **txilibitero**

zumai (Gorosurreta) ‘artalorea’

zume ‘sahats mota ttipia, adar malguak dituena; zumerika’ (*Salix*

viminalis): *zumia inertu de* (“zumea ihartu da”).

zumerika (*zumerike*) (*Salix viminalis*) ‘zumea’: *badugu katadera bat zumerikekin ine* (“badugu katadera bat zumerikarekin egina”).

zumerike ik. **zumerika**

zumitz (*zimitz*) ‘gasnari forma emateko moldea’: *zumitz unekin gasna politek iten dire. Zimitze, ona da* (“zumitz honekin gasna politak egiten dira. Zumitza, ona da”).

zumitzeria (*zimitzeri*) ‘zumitzak (otargintzarako) egiteko gaia’: *zimitzeri onak* (“zumitzeria onak”).

zumizgai (*zimizgai*) ‘zumitzak (otargintzarako) egitekoa’: *zimizgaiak badire urritzondo oietan. Zumizgai onak* (“zumizgaiak badira hurritzondo horietan. Zumizgai onak”).

zunbil ‘lurra zanpatu eta berdintzeko ibiltzen den harrizko zilindroa’: *landa zunbilekin apaindu. Zunbile prest* (“landa zunbilarekin apaindu. Zunbila prest”); *zunbille aundie dugu* (“zunbila handia dugu”).

zunda (*xunde*) ‘lursail txiki, luze eta meharra’: *erlanda oietan xunde aunitz* (“erlanda horietan xunda aunitz”); *xunde ona du* (“xunda ona du”).

zungur ‘zerrien bizkar hezurra’

zungur-zopa ‘zerriaren bizkar-hezurrarekin egiten den zopa’

zuntzi ik. **zuntzun**

zuntzikeri ik. **zuntzunkeria**

zuntzun (*sunsun, zuntzi*) ‘zentzu gutxi-koa; ergela’: *zein zuntziek zaten, yende zuntzie* (“zein zuntzunak zaretan, jende zuntzuna”); *andre oi arront sunsune dugu. Yende sunsun oiekin kasu* (“andre hori arrent zuntzuna dugu. Jende zuntzun horiekin kasu”).

zuntzunkeria (*zuntzikeri*) ‘funts gabetasuna’: *zu beti olako zuntzikeriekin. Zuntzikeri franko gure etxean* (“zu beti horrelako zuntzunkeriekin. Zuntzunkeria franko gure etxean”).

zur *zurezko maie* (“zurezko maiaia”); *aritze zur ona* (“haritza zur ona”); *zurezko alkie ta dena, zurezkoak* (“zurezko aulkia eta dena, zurezkoak”).

zuraje 1 ‘zureria’: *etxe unen zurajea izigerri ederra da* (“etxe honen zurajea izugarri ederra da”). 2 ‘persona indartsuari erraten zaiona’: *zu azkarra zara, zuraje aundieizu* (“zu azkarra zara, zuraje handia duzu”).

zurdoki (Izeta) ik. **surdakei**

zurgin ‘ogibidez altzariak, zurajeak eta kidekoak egiten dituen pertsona’ (bertze mintzo aunitzetan ‘arotz’ deitzen zaio): *nere osaba*

zurgine da (“nire osaba zurgina da”); *zurginē, zurgin ona* (“zurgina, zurgin ona”).

zurgindegi (*zurgintei*) ‘zurginak lan egiten duen tokia’: *gure zurginteiēn klase guzietako zurek* (“gure zurgindegian klase guzietako zurak”); *zurginteiēn lan aunitz dugu* (“zurgindegian lan aunitz dugu”).

zurgingo ‘zurgintza’: *ni ere zurgingoan ai naiz* (“ni ere zurgingoan ari naiz”).

zurgintei ik. **zurgindegi**

zurgintza (*zurgintze*) ‘zurgingoa’: *zurgintze maiteut* (“zurgintza maite dut”).

zurgintze ik. **zurgintza**

zurikeria (*xurikeri*) (Azkue) ‘xurikeria’: *xurikeri aunitz gure auzoan* (“xurikeria aunitz gure auzoan”).

zurimenta (*xurimenta*) ‘arropa zurien multzoa’: *etxean xurimenta ona dugu* (“etxean zurimenta ona dugu”).

zuringo (eta *xuringo*) ‘goringoa ez dena’: *arroltzeain xuringoain goxoki onak iten al dire* (“arrautzaren xuringoarekin goxoki onak egiten ahal dira”).

zurkin ik. **isurkin**

zurrunga (*kurrunke*)

zurrungaka (*kurrunkeka*)

zurrusta (*zirrizte, zurruzte*) ‘turrusta txikia’: *ur zirrizte bat bota zioten* (“ur-zurrusta bat bota zioten”).

zurruzte ik. *zurrusta*

zurubi (*zulubi*) ‘eskuzko eskailera’: *zurginek zulubi berrie in du*

(“zurginak zurubi berria egin du”).

zuztu ik. *txistu, ziztu*

zuztuke ik. *txistuka*

BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFIA

Oharra: hemen ageri diren lanez gain, hainbeste irartze lan, guk geuk zuzenean eginak edo irratitik hartuak (testuan zehar izen-abizenen haste-letrekin identifikatuak), eta eskuz hartutako oharrak ere ibili ditugu. Gainera, eskoletako ikasleek idatziz egin idazlan laburrak ere. Hemen bildu direnak *Príncipe de Viana-k* argitaratu zituen 1973an. Akabailan ematen dugu horien berri.

Alberdi, X., 1996, *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Doktorego tesia, Iker 9, Euskaltzaindia, Bilbo

Apeztegia, V., "Bigarren Euskal egunetako Hitzaldiak: Apeztegi'ar Bitorio, Irurita'ko Apaizgaiak egindako mintzaldia" (Donezteben Euskaltzaindiaren jardunaldietan 1926ko errekopilatorioan), 45-51.or. Bermio: Gaubeka

Epelde, Irantzu, 2003, *Larresoroko euskara*, EHU, doktorego tesia

Euskaltzaindia, 1979 "Euskalkiak baino lehen, hor da euskara", in *Euskera XXIV*. liburukia, 1979-1, 103-106 or.

_____, 1999: *Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa. Ohiko mintzamoldeen Antologia*, Bilbo

_____, 1985, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak*, Bilbo

_____, 1987, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - I (Eraskina)*, Bilbo

_____, 1991, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - I + Eraskina*, Bilbo

- _____, 1987, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - II*, Bilbo
- _____, 1990, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - III (Lokailuak)*, Bilbo
- _____, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Bilbo
- _____, 1994, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - IV (Juntagailuak)*, Bilbo
- _____, 1999a, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - V (Mendeko perpausak - 1)*, Bilbo
- _____, 1999b, *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas, Ohiko mintzamoldeen antologia*, Bilbo
- _____, 2004, "Adierazpena euskalkien erabileraz: irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan" (*Euskera* 49), Bilbo
- _____, 2005, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - VI (Mendeko perpausak - 2)*, Bilbo
- _____, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - VII (Mendeko perpausak - 3)* (prestatze lanetan)
- Ferri (1910), *La Tradición Navarra*, 'Baztandik' izeneko saila, Iruñea
- Fray Fco. de Elizondo, 1922, *Lore usaindun mamitsuak*, Euskal Esnalean aurkeztutako lan bilduma, Tolosa, vi. or.
- Gortari, J., *Principe de Viana*, 1966ko urria, 5. or.
- Goyeneche, Martin, 3 sermoi: Sagrada concepción (1845); San Antonio (1847) eta Ascensión de laVirgen (1847). Ikus Pagola, RM et alii, 1995
- Intza, D., 1922, "Naparro'ko Aditz-laguntzalea zeketazko esakeran (II)" in *Euskera* 3. urtea, 2. zenb. (1922, yorraila-garagarrila), 65-92 or.
- Izeta, Mariano, 1962, *Dirua galgarri*, Auspoa, Donostia
- _____, 1982, *Nigarrez sortu nintzan*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia
- _____, 1979, "Euskararen giroa Baztanen", *Euskera-XXIV* (2. aldia), 569-572 or.
- _____, 1996, *Baztango hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- _____, 1999, *Baztango kontuak*, Nafarroako Gobernua eta Labayru

Ikastegia, Bilbo

Intza, D., 1922, "Nafarro'ko Aditz-Laguntzallea zeketazko esakeretan (II)" in *Euskera* 3, 65-92 or.

Lakar, M. eta Telletxea, A., 2004, *Baztango ahozko tradizioa ("Mariano Izeta beka")*, Elizondo (argitaratu gabea)

Lafitte, P., 1944, *Grammaire Basque* (1979, Elkar, argitalpen osatua)

Laphitz, F., 1986 (berrargitalpena), *Bi saindu heskualdunen bizia*, Elkar, Donostia

Montoya, E., 2002, EHUko doktorego tesia, Gasteiz (Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea: *Zugarramurdiko eta Urdazubiko Euskara*)

N'Diaye, 1970, *Structure du dialecte basque de Maya*. The Hague: Mouton
Oregui, "Etxea" in *Principe de Viana* 1968ko maiatza, 6. or

Pagola, RM et alii, 1995, *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak, Iparraldeko goi-nafarrera-1*, Deustuko Unibertsitatea (Deiker), Euskal Ikaskuntzen Institutua, Bilbo

Riezu, Jorge ("Jose Maritorenak A. Donostiari errana 1936ko martxoan, Lekaroz (Baztan) 1967-10-04"), *Príncipe de Viana* 1967ko abendua

Salaburu, P., 1980, *Baztango euskalkiaz (I)*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea
_____, 1984a, *Hizkuntzaren soinu-egitura (Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: Fonetika eta fonologia I)*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea

_____, 1984b, *Arau fonologikoak (Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: Fonetika eta fonologia II)*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea

_____, 1986, "Baztango euskalkiaz: Elizondoko Doktrina bat" in *ASJU* XX-3, 817-844 or.

Ttipi-Ttapa, 364. zbk., "Irakurleak mintzo" saila: "Elizondo-Aldude errepi-dea = erokeria"

Ustegabe, "Erratzutik", *La Voz de Navarra*, 3470 zbk, 1934-07-08

Yrizar, P., 1984, *Morfología del verbo auxiliar labortano (estudio dialectológico)*, Euskaltzaindia-EHU.

Zuazo, K., 2003, *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donosita: Elkar

Eskoletako ikasleen idazlanak:

Barberena, Begoña (Erratzuko eskola), *Príncipe de Viana 1973ko iraila*

Barrenetxe, Pedro Miguel (Azpilkuetako eskola), *Príncipe de Viana 1973ko iraila*

Etxeberri, Tomasa (Erratzuko eskola), *Príncipe de Viana, 1973ko azaroa-abendua*

Iriarte, Migel Aingeru (Arizkungo eskola), *Príncipe de Viana 1973ko ekaina*

Iribarren Etxeberria, Felisa Miren (Erratzuko eskola), *Príncipe de Viana, 1973ko apirila*

Ugarte, Felisa (Arraiozko eskola), *Príncipe de Viana 1973ko urria*